

F. ARRESE-BEITIA

OLERKIAK

EUSKAL
DAZLEAK
BILBAO

ATARIA

Nainora goazala, gure uri ta erritxo guztiok ditue euren aparteko doai ta berezitasunak. Or daukagu Otzandio guztiz zoragarri. Bizkai ta Araba'ko mugan, zelai lau zabalean. Anboto ta Gorbea begira dnbeznln. Bertako ola ta gizonak mundu zear ibilliak dira ; bertako untzak oso entzutetsuak. Bertako oitura on, ipuin zar ta euskal kantak be txit aberatsak.

Baiña ba-du Otzandio'n gizon ospetsu bat, santugille ta olerkari bikaiña: Pelipe Arrese ta Beitia. An jaio zan 1841'ko mayatzaren 25'an; bere guraso leial Andres ta Tomasa'k Jainko-bidez ibilten erakutsi eutsoen gaztetatik; erriko eskolan egin ebazan len-ikasketak; amabi urte eukazaneko, bere barren-zaletasunari erantzunik, zurezko gurutze politak egiten ei ebazan. Amairu urteko, Gazteiz'era aldatu ta an ikusi eban dibujoa butez be, Markos Ordozgoiti jaunagaz; maixu onek jarritako sariak, ia geienak. beronek jasoten ebazalako, ikasle lagun batek bein gure Pelipe ondo zigortzeko asmua artu ei eban. Augaitik, bildurrez, etxera biurtu ta Otzandio'n, bere aita arotzaren ondoan, bizitza guztian ekingo eutsan lanari oratu eutsan. Otzandio'n bizi izan zan beti; azkenengo karlatar gerratea, ostera, Donosti'n emon eban 1873'tik 1876'ra.

Ogeta amar urte inguru ebazala Aramayo'ko Azkuaga erritxoan ezkondu zan orduan an bizi zan Anjela Bengoa' rekia. Sei semealabetatik lau gazterik il yakozan, eta oraindik bi bizi dira, Luzio Otzandio'n eta Puri Bilbao'n.

Errian Fepile *Santugiñe* esaten eutsoen. Izan be, irudi ta santu asko dauz bazterretan: Otzandio'ko eleizea ia osorik, zurezko gauzetan beintzat, berak egiña dozu; Durango'n, Oñati'n, Gazteiz'en, ta abar, konta eziñala irudi ta altara. Gazteiz'ko altaragille Erroman Goikoetxeak eta Donosti'ko Isidoro Uribesalgo ospetsuak, Arrese izan eben maira.

Oso maitatua zan errian, beti be edozeñi laguntzeko gertu egoalako. Karta bat idatzi, liburuko bat aurrera alera, ondasunak banatu, mesede bat eskatu, edo beste olako gauzaren bat egin bear zanean, beragana joiazan. 1906'garren urteko urtarrillaren 16'an il zan.

Ipar zuri baizen artega gara euskaldunok, batez be geure eskubideak jagon ta zaintzekoan. Amaika burruka izan da gurean! Azke-griña bizia daroagu bai errai zokoan, beste erriak baiño tinkoago bear bada; fa onek erasota dogu geie-oik zolitasun ori. Eta, liskar bai aitu-ezin, berez griña txalogarriak izan ezta be, norbere lege ta eskuko dana zaindu nai izatea, ezta iñundik be griña nabarmena, ona ta berezkoa baiño.

Arildu kondaira la ikusi. Igaro gizaldian ba-zan *gure artean* ezin-aitu naikoa. Españako barne-arazoak ez joiazan onen egoki, ta pitean bein sortzen ziran eztabaida ta izkillu-otsak: karlista ta liberalen artean gordin burrukatu zan. Gure erriak, ostera, iñok baiño gogorrago jokatu eban garai aretan, ta Karlos jaunaren alde jokatu be. Baten batek jausi bear, ta karlatarrak jan ebeu samin-ogia. Eta, a «elako astiñaldia izan eban Euskalerrriak! Ondurako be naiko murriztuta eukazan lege-zar ta eskubidea oso billostu eben: Cánovas de Castillo gobernuko nagusiak —1876-VII-21'an- gure foru ta lege zarren ondar ta puskak osoan suntsi-azo zituan. Karlisten sailleko askok ez eben begi onez ikusi beeratze ta murritze ori, ta garai artakoak doguz ainbat euskaldun zintzo lege ta eskubide arein alde, bai erderaz bai euskeraz. idatzi ta ots garratzez oiuegin ebanak.

Ta erriaren taupada zain, belarri zoli, egon oi diran bertsolariak, zer? Oneik izan «tira, na i-no/ ta nun-nai, politikuak eurak baiño geiago, *erri* loetzanak esnatzeko. Erri guztiak bear dabez, zerbait izatekotan. onelako zuzpertzai-lleak, txibita ezker-eskuma egoki erabilten dakienak. Gurean be sortu ziran, ta ez gitxi, garai mingots aretan. Or Iparragirre bere ezkongeia - gitarratxoa— lagun, erririk erri *Gerrika'ko Arbola* kantuz. Ordukoak bai ta Uranga, Egaña, Artolatarrak, Ganboa, Etxegarai, Otaegi, Manterola, Otaño. Landart, eta abar. Ordukoa, ta guztion gaiñetiko, Otzandio'ko santugille Arrese Beitia.

* * *

Nok ez daroa biotzean ernemin larri bat? Askotan ezta kezka ta zimiko orí argitara agertzen, baiña barruan darabilgu. Labor: zelan edo alan, guztiok gara eder-zale; jakiña. batzuk geiago, beste batzuk gitxiago; danok ez daukaguz. ba, gogo-ondasunak era bardiñean edaturik.

Eta geugaz daroagun eder-zaletasun au, noz agertuko? Egunero dakusgunez, garai bat, biotz-kilikatze bat, edozer gauza guztiok izan oi dogu geure nortasunaren jit ixil berezi ori zirkindu ta agert-erazteko. Ta orduan jarten da, eguzki-izpi goria baizen islatsu, gure barrua, gure izana. Lora bat. eriotza bat, mendi-gaillur bat, edozein larri-min ez ete dira askotan gure barren-osiña nasi ta bizlu-azoteko? Orrela zo-

rroztu oi yako olerkariari adimena, oparo datorkioz irudiak. bizi ta egoki gogaiak, ur-sorburu antzo, ta biotza kilikakor, osto egon-eziña bailitza; or, azkenik, zelan moldatu ta osoztzen dauan olerki, poesi bikaiña, zorabio Ia lilluraz gainezka.

Lenago be iñoiz esana dot: euskal olerkariak ez dau. Ganges aldera-ta, irudi ta asmakizun billa zetan joanik. Jarri bedi Iparragirre'n antzera, «zoraturikan, zabal-zabalik begiak», ta orra-or Euskalerrria irudi-leku ezin-bestelakua. Or zek adimena arrotu, or ahapaldi gartsuak zegaz jantzi, lora-pitxiak nun ebagi. Bai, iturri ortara jo eben gure antxiñako bertsolari ixillak; bai ta gaurko bertsolari ta olerki-zale jator ta egizkoak be. Entzun Karmelo Etxegarai jaunari: «Batzuek idazti edo liburuetan ikasten deguna, beste batzuek Jaungoikoak gure begien aurrean ipiñi dizkigun zelai, baso ta faere, ibai ta erreka txistor, arkaitz eta leize-zulo, itsaso zabal, ots-garbi ta lañoetan ikasten dute. Gure jakiteaz ez degu geiegi arrotu bear. Guk. liburuen aurrean danean, orduan maiz arrituko gera bere ateraldi zorrotzakin». Ikusi *Pernando Amezketarra* itzaurrean.

Eusko-mendiak, gaur piñu ezez geienik, baiña lenago Jainkoak orrela naita aritz zapal ta tantai eregiz apainduak izan genduzan. Eta guztion arbaso, euskal-sen jatorraren irudi garbaia. Gernika'n daukaguna. Onen erakar-indarra ezta edozelako izan, gizaldiak zear. Zugatz santu onen kerizpean ezarri oi ziran gure asabak, erriarentzat lege jatorrak atondu ta oni egokiozan gauzak garbitzeko. Baiña aitatutako garaian sustraietaraño dardaratu eban astiñaldi gogorrak. zorigaitzoko bela tzar itxusiak kua garaillela jorik. Zoritxarra. ostera, geienez beiñik-bein, zuzpergarri izan oi yaku; ta orduko estualdian sortu ta jagitako bertsolariak ugari be ugari dira. Areitan gnraiena —Gernika'ko Aritzaren itzalpean ernea gero— Arrese-Beitia dogu, olerkari errez, aberats, izkera gozo ta durundi meeduna. Onek baizen bigun ta sentikor ez ditu iñok kantau Euskal-Erria, Euskera ta Aritz aren atsekabe-lorrek. Arrese askotan urreratu oi zan, biotzak eraginda, antxiñako etxe santu ta batzartegi artara. ta burua billos ta begiak tanka-tanka malkoz, zenbat bider oi: «O Aretx itzalgarri!, o Aretx danetan autua!, o Zugatz agurgarria!, zeruak daki noztik zagozan or erne ta azia; zure gorputz-suster, buru-besanga. abar, kimu ta orriak, bizez aldioro garbi ta zindoak!»

Gizon nai erri batek, zorigaitzopean bere burua ikusten dauanean, ditun indar guztiak bateratu ta kemen osoz bizi-

naia erakutsi daroa. Orrela jazo zan orduan be: ezin elai iltera, bizi nai oraindik. Eta, Kanpion jaunak dirauskunez, euskaldun erriaren bizi-naia ta olerki-sena nastu ta dardar batean jarri ziran. Eta gizon batek —Arrese'k noski—, adimen ta biotz uts-utsik, deadar zulagarria bota eban munduan zear, lurraren ulu eskerge irudi. Bai, gizon bat jagi zan zoli gartsua erriaren samin gordiña kanta naita: la gizon ori bere bizitz-une aretan, gizon ta batez be olerkari dai-kenik zintzo ta tinkoen agertu yakun: erri baten nortasun osoa. Asieratik saiatu zan bidegabekeriaren irudi txepel a begietatik urrintzen, nai-non agiri zan ezin-ikusi aula, indar lotsabagea. zigor abere taiuzkoa, eskubideen auste mingarria arinduten. Bera jaio zan erriaren antzera biotz-zabal izanik, ez eban ezer biraokatu, ez apentzale ta aierkor agertu, ezta zeruari ordain-bidez au oiñazgarririk, ezta mendian erral-doiaren bustin-oiñak auts biurtzen dabezan arkaitz zakarrik eskatu be. Ez eban olakorik egin. Bai, ostera, negar malko garratz ta zizpuru luzez, negar Jeremias'en antzera, Euskera ederraren illctn —erostari talde aundia— izadi osoa era-karririk.

Irakurri, egiña dan lez, gartsu ta biotzez esku artean daukazun liburu mardul au, ta zeuk esango daustazu, euskaldun jator, nor dogun olerkari aritz-ostoz koroetu au. Ugari jagi ziran, or-emen, olerkari gazteak garai artan Euskera ta lege zarrak biztu-naiean. Urre-arora edo goi-maillara eldu ez, baiña askotxo edertu ta ugaldu zan gure izkuntza. ta batez be olerki edo poesi-sailla. Baiña Arrese'k jakin eban iñok baiño oso ta barneago erriaren samin lorra jaso ta bereganatzen; lurpean ernemin dagoan gal-aziaren jaio uneko otsaz beste iñor baiño lenago konturatu zan: au da; euskaldun erriaren biotz azpiko zaratak, onen gogai ta eritxiak berak senti ta jaso ebazan egoki ta giartsuen. Izan be belarri-zoli egon bear da erriaren mu in-barreneko taupada zain, olerkari ona izateko. Ori egin euskun Arrese'k, bere erriaren samin aundia elerti-mamiñez ornidu. Bai ta orrela, naiz-ta len ixilla izan, bere izena ospe-dardaraz mundu zear edatu ta oroitz-ormetan ezilkor untzez josi be.

* * *

Azken urteotara arte ezтира euskal poesi guduak onen zaratatsuak izan, Beiñola Iruña'ko gotzain Venegas de Figueroa jaunak eratu eban lenengoa 1609'garren urtean, da-kigunez, Geroago, 1865'an, Sara'n be egin ebezan bertsuetako saioak, eta eleiz-jai areitan ohorezko sariz oمندutako neur-titzak ezтира baztertekoak.

Andik urte batzuetara, Abbadic lapurditar jaun argiak eta Iruña'ko *Asociación Euskara* eritxon bazkunak batera, euskal olertia berotu ta goratzearren, poesi-konkursu ta zein-

geiagokak «iraun bidean jartzea» erabagi eben. Eta onein ardura ta babespean, Elizondo'n atondua izan zan lenengoa. 1879'an. An agertu zan Arrese-Beitin. sugar ta kemenez gai-ñezka. Mai-burukoen uste ta aburuz, bere olerki *Ama Euskeriari azken agurrak* zan, an aurkeztu zireanetatik sarigarrien. Gerora be. or-emen, Euskalerrri guztian ugaritu ziran poci-batzaldi ta gudu orreik, eta otzandiar olerkari bikaina, amabost-ogei bat bidar beintzat, saritua izan zan. Urre tn zidarrezko esku-muturrez aberastutako makilla zan orduko saria; ta zenbat olako jasoa dogun bera!

Garai aretan, gazte oraindiñokarren. 38 urte ebazan Arrese'k; ekiñez ta idatziz, geitu ta sendoagotuko yakon nunbait olerki-garra. Eguneango lanaz bizi bearra eban, giza-seme guztikiak lez; santugintza bere ogibidea: irudi asko ditu arri ta zurez eleiza ta ermita la beste toki askotarako berak egillak. Baiña au, ogia zegaz irabazi bai, zegaz jan la jantzi zan arien, etzan ezelan be ak barrenean sentitzen eban berezko dei la joera. Poesi-zale zan sortzetik, amaren sabelean xurgatu tu edoski eban griña indarrez. Erli-lanak egitorduan «arri jo oi dabe antzelariak ausaekana, argi-billa nunbait; Arrese'k eztau orren laguntza bearrik, eztau iñoren aTgirik bear, beekorik batez be; gogo bailan bai daroa naikoa, neur-titz zoragarri ta esaera biziak eratzeko. Egia, ikasiz be asko birtu eban bere irudimena, geien bat Liburu santuak irakurriez. Osterantzean, bere biotza zan iturri jori ta apartsu. Bein, Iruña'n aurkitzen zala. Kanpion jaunak itandu ei utsaln, gizon ez-jakiñak olako bertso kementsuak egileaz arrituta antza; «Zelan atera dozu ilieta ain eder ori?» «Biotzak eraginda, jauna», erantzun utsaln Arrese'k, bape ikaratu barik.

Ez, euskal kantari jator onek, Otzandio' ko seme argi onek, eztau iñok emona poesi jario ixurkor ori; berea dau uts-utsik, mendi guenean kantuz diarduan birigarroak kantu ori berea dauan antzera. Ez, usta iñoren soñekoz dotoretu, barnetikoa dau edertasun, joritasun eia bizitasun gutzia; luma-muturretik dariona, bere nortasunaren errota-zokoan eiotako uruna. Itxura ederrez jazten ditu olerkiak, bere nortasunez idaz-tankera berarizkoa, hierekin nasi-eziña egiñik. Onela Kanpionek: «Nik neuk beintzat, eun olerki irakurriko ba'leuskidez be, ahapaldi hat edo bi naikoa neukez bertatik esateko; *Ori Arrese'na dogu.*»

Kantu errikoiak idazteko, erriagana makurtu zan entzun-miñetan; aren biotz-pilpira ta sarruslalo ixil estuenak, zolimai, entzuteraiño. Bai, naita barriro esan, etengabe bizi izan zan erriakin ukoz-uko, aren larrimiñak jaso-zale; aren oitura, maitasun, griña, eritxi, gurari oker la abar, lauki zabalean margoztuteko beti prest; cta ortikoak ditugu bere erri-olerkiak, gurean oindiño iñok egin eztabezan lakoxeak. Ezln arrausika diñoguna: Anboto babeseko olerkari aundi

onek baizen zintzo ta egoki ez ditu iñok gure erria, gure euskera ta gure gauzak eregi ta aintzaldu, neurtitzez beñik-bein.

Bai ta biotzak craso eutsozan lirika kantak be, guztiak zagai ta sentigarri. Aberkoi neurtitzak eder ditularik, niretzat oneik zelanbait obeak. Barne-kanta oneik sortzeko biotzari ta irudimenari batez be eraso bear, ta Arrese'k ba-ditu bai biotz-ondoa bai irudimena: au kilika gozoz gaiñezka ta a antzirudiz bete-betea, udazkenean sagar-buru aletsua iduri.

Benetako erti-lanak sortzerakoan, olerkariak oparo izan bear ditu bere doai ta barren-ondasunetan iru oneik: adimen zorrotza, irudimen bizia ta biotz kilikagarria. Gai sakonak darabiltz geienbat Arrese'k, esaera zur guntsu txanbeliñak: eta buru-muiñean sortzen yakozan gogaiok egoki baiño egoikiago apaintzen ditu, irri-jostari noizka, zur ta ben ondoren. Biotza datorkio gero, gar urdiña dariola, izadi nai giza-edertasun orri benetako zoragarri itxura emotera. Ta or poesi lan bikaiña. Ta era ortakoak dituzu Arrese'k egindako danak.

Barrenago atxurtu nai ezkeru, iru iturburu ebazan bato/, be gure olerkariak, adimena jan-ase, irudimena ixio ta biotz-leza malats ta muxinkor ipinteko: erriak dauan barren-sua, Liburu santuak eta izadia. Izadiak sarri sor-erazo ditu gure artean olerkari mardulak: Lizardi zana Txindoki gaiñera igon oi zan, andik izadiaren, au da, mendi ta zelaien kiña ta soin-ikarak jasotzera; ta zelako poesi-saila itxi euskun! Otxandioarrak, urteak lenago, askotan egin eban beste aihbeste. Bere euskaldun erriko inguru ta alboetan eukazan zenbat-nai muna ta mendiska, gogo-txarroa poesiz asetzeko; oneitara joaten ei zan sarri samar. Ez dozu iñoiz erlerik ikusi, irakurle, erlauntza goiz-goizetik itxi ta burrun-burrun mendi aldera egaz egiten? Lore-gun bilia doa. ziuurki. Bardin joian Arrese be, ta arek bai eztigui ugari batu ango bazter ta txorrokaietan! Zentzun ta ernabideak oro —begiak margo, kantuz belarriak, sur-zuloak usainkiz ezin geiagoan asetzen yakozan, olerki-gaiz ondo beteta etxera bihurtzen zala. Gero, luma-muturra paper gaiñean, gertu dago, ta or nun datorkiozan dei gozo baten zoragarritz, barreneko ixil-gelan kuku eukazan gogai, antzirudi ta kilika guztiak, sorgin-zurrunbillo antzera, zein baiño zein ariñago, luma-muturrean zear kanpora. Biotz asetuari berez dario.

Arrese'rren lenengo olerki liburua argitaratu zanean. Kanpion euskaltzale jakintsuak egin eutsan itzaurrea: ta txalo-zartaka goratu eban. Ona bere itz batzuk: «Olerkari gorengoa dogu Arrese, baiña *euskal* olerkaria gero, ta aberri-miña kantatzen, nik uste, iñor baiño euskaldunago. Eskuratu bere olerki ederretatik edozein, ta euskal erriaren muin gartsua ta azal islatsua bertan aurkituko dozuez. Foru-zale da Arrese, ta onek emoten euskuezan eskubideak ilda ikus-

tean, eurok negartzen ditu, malko-jario; Jaungoikoa maite-dan, ta Aregana biotza jasorik. Aren lege jakintsuak goratzen ditu, Aren egiñen osotasuna abestu; gizon ona dozu, siñismen bizikoa, ta erlejiñoeko ezkutapen aundiak gogora dakaz. Kristo'ren erasketa zulagarria zur ta sor iragarten dau, Andra Mari'ren omenez goratzarre ta eresiak jo; Auñemendi'z andiko ta emendiko izadi ederra be gogora dakar. ta mendi gaillur lainoñoz nasiak, itxas-uñak ondartzak zaplaka, oian-baso zabal urdiñak, baserri zuri mendi malkartsuan lolostuak, nekazarien eskariaz naste zerura digoan sukaldeetako keia, zelako biotz-ondoz abesten dituan!. Ta entzun-erazo zer? Ardi-bildotsen bee sentikorra, idi-beien murruna. ola-erroten zarat otsa, ibai-erreken leiar txintxira. tuntunaren ekin sorra, txirolaren soñu zolia, artzaiñen irrintzi durundutsua». Auxe dozu Arrese'ren olerkia.

Ezta errez gure olerkariaren izantza egoki egitea. Orrialde asko bear neukez, hai ta astia be, bear giñoan egiteko gizon ertz ugarikoa bai dozu. Garai artan, ots, igaro eunikiaren azkeneruntz, bere izena zan ospetsuen euskal olerkarien artean. Augaitik, urriñeraño eltzen zan artu-emoñez be.

Euskal-Erria, orduko aldizkaririk ederrena. Arrese'k bartoa argitara ebazan olerki asko ta asko. Aren artezkariaz lagun aundia zan; bai ta Arzak, Soroa, Lopez-Alen, iru Artolak., eta abar be, biotzez maite ebazan: etzan komeni be ordu larri aretan alkarregandik sakabanatuta ibiltea, danak sail baten baturik baiño. Menendez y Pelayo'k be iñoiz eskutitz ederrez agurtu eban; bai ta Pardo Bazan andereño idazleak bere olerki jagiakaitik zoriendu be.

Baiña Bidasoa'z andik bizi zan gizon euskaltzale jator bat. Duvoisin kapitaina, ta onegaz be artu-emon zabala ixan eban. Ederto aitzen ziran eskutitzez, ta izan be askotxo dira Kapitainak Arrese'ri egindakoak, eta geienbat oiuz latz antzera, orduko euskaldun txepeltxoak biztu zeitezen: batasun oso bat egin bedi Eskaldun guzien artean», ziñoan sarri. «bihotz bat eta arima bat beat ditugu». Bonaparte jaunari idatzirik esaten eutsanez, uste osoa eukan Arzandio'ko olerkariagan. Berak itzuli ebazan pantzerara Arrese'ren olerki sarituak; ona zer diñotsan eskutitz baten, 1879-VIII.25'an: «Guziagatik zure eresia athera da mila kopiatan eta gero «La Semaine» Bayonakoan 1500 kopiatan, frantsesezko biurterakin batean». Gero beste izkuntza askotara bc itzul gura izan eban, batez be Ama *euskeriari azken agurrak* olerkia- ona bere itzak: «Nahi ginduke ezarri elkarri beko* beko Eskera, Española, Frantsesa eta Angelesa, goan dadin Erropa guziko gixon argituetera». Ta gerora, iñun olerki

gudurik bazan, beingoan iragarten eutsan, bertarako zerbat idatzi egian Arrese bizkorlurik. 1891'an. Zuburu'n il zan Duvoisin kapitaina, ta Arrese'k, adiskide samur antzo, amalauko gozo bat idatzi eban aren azken-omenez,

Bilbon bc adiskide asko zituan, Azkue, Trueba, Etxegarai. ta abar. *Euskal-zale* aldizkariak bere betroso asko dakaz.

Arrese'k ez eban, dakigula beintzat, ezer aintzat artzeorik idatzi, bertsoz izan ezik. Eskutitz batzuk ba-ditu, baiña besterik ezer bez itz-lauz. Olerkitanustu eban bere arima guztia. Tu bere poesi-lan guztiak —adua txeratsu agertu antza— argitaratuak izan dira. Ez, etzan egoki ta eztira egon inoiz be kantari garai onen bertsoak autspan. esku-maite zain, beste askorenen antzera.

Beraren bertsoetatik lenengo saila, 1900'an, azaldu zan liburu mardoan: Felipe Arrese ta Beitia'k egiñiko AMA EUSKARIAREN LIBURU KANTARIA eritxon, eta Bilbo'ko Jose Aslui'ren moldetcgian argitaratu zan. Urte bi geroago. 1902'an, ASTI-ORDUETAKO BERTSOZKO LANAK, Bilbon bertan eta Astui'ren etxean au be. Andik geroago, urte mordo igaro ondoren, 1933'an, JAUNGOIKO-ZALE bazkunak asmo eder bat arlu eban: Arrese-Beitia'ren olerki guztiak argitara emotea, aren seme-alabai atsegin yakenez. Onela lbargutxi apaiz jaunak OLERKIAK len-liburuari ezarririk sarreran: «Arrese-Beitia'ren olerkiak barriro argitaratzeko asmoa artu dabe aren seme-alabak. Asmo ederra, bein! Urietako zeyetan, giza-gurenen gomutaz jasoten diran irudiak. gomutaki illak izan oi dira. Agoa bai-ta, itzik ez dagie. Lau idaztitan bananduta agertuko dira Oztandioarrrik ospetsuenaren olerkiak. I. Uzkurtzgayak; II. Ipuñak; III. Aberkoyak; IV. Nasketa. Lau idazti oneik dirauken artean dantzakegu Arrese'ren otsa». Oraitiño, lenengo idaztia baiño c;2an argitaratu.

Gaur, barriz, orduko asmo bardiñez su-garturik, iru liburu aitatuak ale baten dakarguz. Ale errotsua, ziñez, begipean daukazuna. Arnas auodiko tantai arek emoniko ale guztiak —olerkitxoren batzuk, oso gitxi, palla dira oraindik— ementxe daukazuz, zeure esku mendea. Eder-zale ba'zara. emen ito zeinke egarri ori. Euskera-zale ba'zara, emen ikasi zeinke naibeste.

Bederatzi zatitan banatu ditugu Arrese'ren olerkiak. Ona emen:

I. *Kantu errikiok.*—Ederrenak nunbait, askoren ustez. Biotz-muñetik urtenak bai beintzat. Eta geienak bere luntegian, santu ta irudigintzan eragoiola neurtu ebazan.

II. *Lirika kantuak.*—Esku artean ez? Biotzean bai beinik-bein. Arrese'k ba-erabillen, bere ezkongei deitu geikeon

otskin edo liraxoa. Ta onen ariai aizez ikuturik egiñak ditu neurtitz rnazalak, txori antzenn egalariak. Niretzat onetkek onenak bc. Biotza negarti dogu geienez; Arrese'k negar egian: ez gero gaurko pilosopu Sartre, Heidegger. Zubiri, Unamuno ta beste askok lez negar larria: ez, etzan Arrese'na il-miñak emoten dauan negar ikarakorra, ets goiarnasduna baiño. Ikasi *Agur, ume, Anjela, Illeta* ta antzekoak.

III. *Gora kantuak*.—Egoki yaku beti gizaseme gurenak jaiotea. Orrelaxe egin eban Horati'k bere oda bikaiñak idaztean; orrelaxe beste askok. Aren lorratzez ibillirik, euskaldun umantak aipatu ebazan gure kantariak be.

IV. *Amalaukoak*.—Oneik be ezтира kazkar, oso txukun egiñak baiño. Ia guztiak, emen batera jartea otu yat. Ba-dira onelako saillak beste izkuntzetan be: Lope de Vega, Quevedo Shakespeare...

V. *Eliz kantak*.—Arrese olerkari ugaria dogu, ta erromantikuen bidetik ibillia. Ia beti, aurretikoen neurri ta keru erabilli arren, iñoizka olerkari arrotz antzera be jokatzen dau; esate baterako, biotzez maite ebazanak eta erlejiñoko gauzak goratzean, zortzi bertso nausiko ahapaldiak, erderaz *octava real* deritxona, erabilli eban.

VI. *Alegiak*.—Ipuin antzeko oneik antxiñakoak dira nunbait. Kristo'ren jaiotza baiño bost gizaldi lenago bizi izan zan Esopo'k egin ci ebazan lenengoak; gero Fedro erromatarren artean.. La Fontaine Prantzian. Samaniego ta Iriarte españeraz izen aundikoak ditugu. Arrese'k be idatzi zituan, eta ez gitxi; baiña ez iñorengandik artuta gero, sail onetan askok egiten daben antzera. Bizkaitar onek, geienak beintzat, bere-bereak ditu azal ta mamin.

VII. *Ipuñak*.—Bere burutik ateratakoak. Errian bazan trakets edo griña txardunen bat, nai gizon nai emakume, santugilleak laster astinduko eban bertso-zigorka. Etorri ugaria dau onetan be: esaera cdo egi biribil antzera, biñako gatz-ozpinduak atontzen dauz.

VIII. *Irakurgeiak*.—*Gai* ezbardiña dabe oneik; batzuk erria goratu, heste batzuk ele zar antzera. alkar izketa, uzkurtz aldeko ta abar. Orraitiño, atsegiñez irakurten diranak, hai batzuk bai besteak.

IX. *Erderatik euskeratuak*.—Zorrilla, Herrera, Quintana ta Valbuena ezтира errezenak euskerara itzultzeko; Arrese'k, alan be, alegiñak dagiz olerkari españar orrena Kantu epikunk euskeraz jazten, ela eztagoz gaizki jantzita. Izkuntza bion joskera ta gaiñerantzekoak ezтира bardiñak; baiña uaikoa txairo azpiratzen ditu eragozpenok. Iñoizka ahapaldi batzuk, egilleak baiño euskeratzailleak egokiago laiutzen dauz.

Jaungoikoa bakarrik ut- eziña. Gizonok beintzat askotan jausten gara, arrian ez ba'da, orbelen baten oztopo eginda. Arrese'k bc, olerkari punterengo izanik, nok esan akatsik ez dauala? Baditu bereak, eta ez bakarrik bere garaiko seme dalako; orrezaz gaiñera be ba-ditu kantu oso puztuak, orduko gaztelar taldekoak egin eroiezan antzera, ta gaur ez-togu ori aintzat artzen. Noizik bein zabarlxo be agertzen da, neurria ez baitau ondo begiratzen. Iñoiz Duvoisin jaunak au bota eutsan: «Hartzen denean zorziko bal, 10 eta 8'ko kopla, guzietan bardin egon behar, ez aldi batez hola ta bertzean 11 edo 12, eta zortzi behar denean 9 silaba. Poesia ta musika bi ahizpa dira, urhats batean behar direnak ibili». Esaera ta itz-joskeretan ba-ditu oindiño beste uts batzuk be, Ia oneik be ordukoak: zeren, *noren, nun* ta abar, gure idazle zarrak lez darabiltz. Batzuetan mitologi apur bal sartzen dau, zur ta sor itzalez gaiak jazteko nunbait.

Onelako ta erderakadaren batzuk kendu ezkerro, artez ta egoki egiñak dira Arrese'ren olerkiak. Argi ta bero azal-tzen ditu gaiak, sakon ta zaintsu, jakitun baten antzera sarri; artutako ariari dagokionez, bizkor orain, arnas nun-diko geroago. Aditza ondo daznu; itzak modu askotara eratzen ditu, ta, banaka batzuk izan ezik, darabiltzan guz-tiak dira ezagun-ezagunak.

Euskaldun zintzo: ederrak eder ta akatsak akats, emen daukazu liburu bizi, mamintsu, bete-betea; emen daukazu euskera nun ikasi, dan lez jori errez gozo; emen daukazu, azkenik, biotza nun berotu.

Goikoak nai dau euskerak burua jasotea. Gurari orrek bizkortuta gogotik diardugu askok eta askok bere alde. Zuk ez dozu ezer egingo? Euskera, gure asaben izkuntza: berau dogu, arein ekandu garbiai iraun-erazteko, biderik ouena. Gabiltzan bide ortatik. Ederto Balentin Enbeita'k Arantzazu'ko euskal billeran (1956-IX-20):

*Jaso daiguzan gure biotzak
Euskeraren alde egiz,
Eta maitatu ama Euskera
Egizko maitasun garbiz.*

Eibar'en, 1956-XII-25'an.

Aita ONAINDIA, K. O.

I.—KANTU ERRIKIOIAK

*Euskaldun jayo nintzan,
Euskalduna ari,
Euskara utsik amak*

*Eurtan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti;
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi;
Don Felipe Arrese eta Beñal 1881 an*

•

AMA EUSKERIARI AZKEN AGURRAK

(Saritua izan tan 1880.an Elizondo-n)

Neure biotzeko Amatxo zarra.
Antxiñako ama Euskera,
Seme leyal bat orain datortzu
Azken agurra emotera;
Ainbeste gerra goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu galduta,
Amatxo, zuaz illtera.

Zori gaiztoan negargarri ta
Dot sentimentu andia,
Geure lur maite dakustalako
Gaztelatuta jarria;
Bestela erdu, erdu ikustera.
Tubal euskeralaria;
Baña, ez dozu ezagutuko
Orain zure jatorria.

¿Nun dira bada zure semiak
Foru ta euskera zaliak?
¿Nun dira bada. Tubal, gure aita.
Zure ondorengo garbiak?
¿Nun dira bada zure ume zintzo
Eta leyalen legiak?
¿Nun dira orain, orain negarrak.
Nun dira nire begiak?

Agur illun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak.
Umezurtz batzuk gelditu garn
Billosik foru bagiak;
Izan bagiña eurak legetxe

Euskeriaren zaliak
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura aiñ miragarriak.

Errazoiagaz esango dabe
Gure urrengo umiak,
Izan giñala duda bagarik
Ero ta zoro garbiak ;
Jakingo dabez euskeriagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera zale giñalako egin
Galdu zirala guztiak.

Zorioneko arkaitzak eta
Zorioneko mendiak,
Oraiñ artian zuek zare izan
Foruen gordelariak;
Zuek goyetan beti euskeldun.
Ez alan beian erriak,
Orra zer gero ekarri deuskun
Azkenian erderiak.

Beietan iya ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik,
Ez dalako gaur emen entzuten
Erderaz baño besterik;
Onexek dauka nire biotza
Naibagez erdibiturik,
Ez dodalako gure euskera
Osatuko dan usterik.

Euskeriari gorroto eta
Gozau nai bere foruak.
Dirala uste dot barru barrutik
Auterestia zoruak;
Izan leiteke ori alan baña.
Niri ezetz diñost goguak:
Baldin euskera bitzen ezpada
Illtzat daukadaz foruak.

Geure, erruz bada, ekarri dogu
Eriotzako unera,
Berbeta eder gozo ta leun au

Beste munduko atera;
Norbait ezpada laster minduten
Osasuna emotera,
Mundutik laster juan bear dau
Ama Euskerak bestera.

Ainbeste seme emon zituzan
Itxasorako zoliak.
Liorrerako ez gitxiago
Gerrari bildurgarriak ;
Liburuetan ta izkuntzetan
Ugari miragarriak,
Ill ziran danak. ta oraiñ ill biar
Euskera maitegarriak.

Or. Gernikako arboliaren
Oñian dago etziñik,
Estu ta larri iya illian
Arnasaz bete eziñik ;
Au ikusita ¿ez ete deutsa
Iñok artuko errukirik,
Ez ete datoz bere semiak
Osagarriak arturik?

¡Ai! neure Ama, gaurko semiak
Deritxat dagoz aztuta,
Estura onetan lagundutera
Iñor ez da agertuta ;
Ill zaite bada, bakar ta soillik,
Paradisuko izketa.
Sei milla urtian ainbeste damu
Garratz mingotz iruntsita.

¿Zer al daiketzut. Ama. bakarri
Agonia estu orretan?
Zotin, zizpuru, negarrez urtu
Etziñik zure oñetan;
Parka eskatu seme danentzat
Biotzez bene benetan.
Zure arimia lagun ipinten
Jainkoaren eskuetan.

Zuaz mundutik orban bagarik.
 Zuaz mundutik garbia,
 Zuaz mundutik adarau бага
 Ez idi eta ez beya;
 Beti gorrotau, beti zapaldu
 Zenduan idolatría,
 Ta orain zagoz Jaunari emoten
 Fedian zintzo bizia.

¡Ill da Euskera! ill da Euskera.
 ; Betiko itxi dauz begiak!
 ¡Negar Arabak! negar Gipuzkoak!
 Negar egin bei Bizkayak!
 ¡Negar arkaitzak! negar mendiak'
 Agortu arte iturriak,
 Ainbeste geiso. ainbeste gatxen
 Osasun emongarriak.

¡Negar Naparrak, geure anayak.
 Ta euskaldun Frantziakuak!
 Neugaz batera danok urratu
 Sentimentuz soñekuak;
 Aztu istoria edo kondairak
 Emengo antxiñakuak,
 Ta euren lekuan asi barriak
 Aurrera erderazkuak.

Eta ¿nun dozuz, zeruko arbola.
 Zuk bere jantzi berdiak?
 Zure erramok billos dakustaz
 Igar ta ezkur bagiak.

¡Ai mingarria! Gaztelako arrak
 Jan deusuz sustrai guztiak,
 Baila biotza, baita barruak.
zala itxita besuak.

¿Zagoze oraindik zutik, arkaitzak?
 ¿ Dollortu бага, mendiak?
 ¿Samur emoten Somorrostrogaz
 Zeuen ondasuntegiak?
 Errotak klan klan, taun taunka olak.
 Eta pill pill iturriak.

Biziro errekek baita itxasuak
Opaka arraintza ugariak?

Geyegi da ta ausi, arkaitzak,
Onegi ez izan, mendiak,
Lurpetuteko Euskera illa ta
Bere ondasun biziak;
Bera tontorrek, bete anaiak;
Erdue Gaztel-lau igarrak,
Agortu, errekek, lurtu, itxasuak,
Agur, euskeldun ibarrak.

Geure Erria, gizaldi danak
Zugaz dira gomutauko,
Ez dabelako beste erri bat
Zu duin garbi aurkituko ;
Etsai batzuek alper alperrik
Zure izena zikinduko,
Zeure Jaungoiko egi bakarrak
Dau oso garbi gordeko.

BIZI DA AMA EUSKERA

(Saritua izan zan 1880.an Mauleon-en)

Iru gaubela Amari egiñaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda
Bere buruko zapian;
Jaunak ez baleust gorde bizia
Anbeste miñen erdian,
Bakezko lotan arimiau ta
Gorputza neukan obian.
Eguzki ederrak ikuste ez arren
Negargarri au lurrian,
Odei illun bat ipini eban
Arpegiaren aurrian;
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz goizian goizian,

Gorde illargia, lotsaz izarrak
Gabaz azaltzen etziran.
Ni gizajo au, Amari munka
Bekoki ta begietan,
Sur, ezpan, okotz, matralla biai,
Esku cta oiñ otzetan;
Erdeldun askok ikusi arren
Estura samin orretan,
Ezer-ez utsa bazan legetxe
Aurrera euren bidetan.

Irugarrengo gau erdirako
Eztarri au zarratu zan,
Begiak agor, pultsuak geldi.
Ozta-ozta bizi nintzan;
Gizon argitsu bizi eder bat
Nun dakustan zeruetan,
Zuriz jantzita odei gain baten
Laiburugaz eskuetan.

Ule luze ta bizar urdiñez
Agura itzaltsu bat zan,
Odei gañian puzkaten geldi
Ikusi neyan egon zan;
Asi zanian baña beruntza
Ez dakit nola ez zelan,
Oñaztarri bat baño lenago
Jausten jat albuhan bertan.

Justuri batek alako otsik
Ez dau ez iñoz atera.
Mendiak dar-dar, aitzak lokaka
Euskel-erria ikara;
Arri bat legez ni otz ta gogor
Iya zentzun asko бага,
Ots gozo batek bertatik diñost:
«Jaunak gorde zagizala.

Bakia zugaz, baita anayakaz
Natortzu iragartera;
Tubal aita naz, zerutik nator
Amatxo osatutera,

Atsegin eta pozez beterik
Zerutar «lanak batera,
Kantetan dabe: izketa artian
Garbiena da Euskera.

Omen artian baña nituzan
Entzun nik zure negarrak,
Aitu nituzan zerurañoko
Zure dei eta deadarrak ;
Beian itxirik illargia ta
Eguzkia zein izarrak,
Oraindik gora igoten eben
Amodio orren sugarrak.

Baña nasaitu, atsedean zaite,
Seme maitea, ez da ill Ama ;
Ume gaiztuen atsekabiak
Geisotu dabe orrela;
Orain guztiak negar dabe egin
Ezagaturik okerra,
Ill dalakuan beti betiko,
Euskera Ama laztana.

Negar dabe egin Bizkayak eta
Araba ta Gipuzkoak,
Negar dabe egin Naparrak eta
Euskeldun Franziaquak;
Orain arteko uts egitiak
Daukazuez parkatuak,
Baldin bazare aurrera izaten
Anayok alkar artuak.»

Auxe esanda, putz egin eutsan
Ama geixuari aotik,
Eta bertatik gazte bat legez
Oñen gañera zan zutik ;
Eta dirautsa: «Ama, jatsi naz
Zeruetatik zugaitik,
Seme leyal au ill ziñala ta
Neukalako otsez lurretik.

Biziko zara baña zu emen,
Munduak dirauen arte;

Lur onetara etorri ziñan
Neugaz orain lau milla urte,
Etsai gaiztuak gerra miñ asko
Ta zauri egin deutsue,
Baña oraindik, Ama, bizkorrik
Ikusi biar zaitue.

Agur, zerura banua.» Eta
Geyago etzan ikusi,
Ama bakarrik neuri begira
Eta ni barriz berari,
Zabal-zabalik bere besuak
Eustazan laster ezarri,
Sotil tn umill entzun neutsazan
Berba samurrok berari:

«Pasiño latza irago dot, ai!
Juan diran egunetan;
Neure arimau neukan ala ez
Ez dakit gorputz onetan;
Indar barri ta bizi bizi bat
Biotzian dot sometan,
Odol gaztia darabildala

^{TT} ₁
Oste dot neure zanetan.
Seme guztiai esan eyezu
Bizirik nazala emen,
Ta datozela txar eta onak
Danak ikusi nagien;
Mundua mundu arbolapian
Bizirik euki naizuen,
Berbeta gozo eder onetan
Sayatu danok egiten.
Egia da bai, umo-zurtz gagoz
Foru baga lotsarian,
Baña emongo arbola onek dauz
Orriak udabarrian ;
Negu gogor ta ekatx andiak
Artu gaitue erdian,
Ainbeste gatxez ez gara egon
Lenago Euskel-errian.

I.— KANTU ERRIKOIAK

Baña begira, neure semia.
Arbola oni an goyan,
Nun antxiñako Lauburu zarra
Zelan daukan agirian;
Esan egizu lotsarik baga
Ta arrokeria andian,
Beste gauzarik ez dala adarau
Sekula Euskel-errian.

Zuaz, barriro dirautsut eta
Neure bedeinkaziñuaz.

Zuaz, anayak argitutera
Emen ikusi dozunaz;
Baña ez arren geyago nastu
Erdeldunen oiturakaz,
Neugaz bakarrik biziko zare
Munduan atsegiñakaz.»

Irakatsiok entzun neulsazan
Malkuak gorde ezinik,
Aldendu nintzan, eska-oñetan
Laztan gozoz mun egiñik,
Neure erriari iragartera
Ez dala ez ill Amarik,
Eta anayok gaitiala izan
Euskeldun garbi bakarrik.

Neure anayak, bat izan beti
Euskeldun siñiskeretan :
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan;
Fede bizi bat baldin badogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx eta ibarretan.

ARBOLA BAT

*(Donkitua izan zan Bilboko Euskalerrriako Alkartadeari
1881.an)*

Arbola bai zan Paradisoan
Jaunak apropos jarria,
Mundu guztiak artu egion
Lotsa ta itzal andia;
Bere azpian bizitea zan
Aita Adanen gloria,
Andik kanpora zer topau eban
¿Ezpada negargarria?

Arbola santu aren azpian
Bizi zan. Zeruan legez,
Eukazalako atsegin danak
Eta nekerik baperez:
¡Ai, begiraiu baleutsa beti
Lotsa on eta itzalez!
Mundua etzan gaur aurkituko
Onenbeste atsekabez.

Arbola bat zan Bizkayan bere,
Neure anaya laztanak,
Zeiñen azpian, pozez beterik
Egoten ziran asabak ;
Kerizpe zabal arian jarririk
Eginda euren Batzarrak.
Buztarri baga, nasai ta libre,
Bizi ziran bizkaitarrak.

Bere azpian umildu ziran
Errege Gaztelakoak,
Ela lekurik ez eben izan
Sekula barriz moroak;
Aizera gura badogu izan
Libre len giñan lakoak,
Itxi daiguzan erdaldunentzat
Erdaldun diran kontuak.

Aztu daiguzan geure artean
Izan diran aserreak,
Izan gaitean anaya eta

Euskaldun zintzo garbiak:
 Betor guraso zarren fedea.
 Betoz asaben legeak,
 Bere negarrak Leortu daizan
 Ni jayo nintzan Erriak.

¡O neure Erri maite maitea!
 Zakustaz triste negarrez,
 Zure alabak euren buruak
 Baltzez estaldu dituez,
 Trentza mardoak tiraka atera
 Ta sutara bota dabez,
 Gaur euskaldunak dirala orrek
 Ezin ezagutu leikez.

Isildu ziran neskatxen kantak,
 Mututu artzaiñ-txistuak,
 Zelai zabal ta jolas-lekuak
 Gaur dira basamortuak:
 Arroak beera, itxasoruntza,
 Doiazan errekatxoak,
 Gau eta egun txilioz dagoz:
 ¡ Ai, gara Gaztelakoak!

Bakarrik dakust pozgarritxo bat,
 Euskaldun amen fedea,
 Benturaz onek bigundu leike
 Jaungoikozko aserrea,
 Eta zerutik jatsi barriro
 Galdu zan libertadea,
 Mundua mundu bizi dakigun
 Gernikako Arbolea.

NEGUKO GAU IZUGARRI BAT

1880.an

(*Euskeldun seme leyla mendi andi baten galduta aurkituten zala, gaba egiten geratu zan bertan koba zulo baten. ela un gau artan Erriari kantau eutsozan bertsuak*)

Neguko egun laburrian bein
Galdurik mendi artian,
Nai ez nebala aurkitu nintzan
Itxasuaren aurrian;
Ezkatu jatan Eguzkia ta
Nun nenguan ez nekian,
Gaba egiten geratu nintzan
Bertan atx zulo batian.

Illunen andiz gau erdirantza
Ez nekusan lur zorna,
Begiak gora jaso nituzan
Eta ain gitxi zerua ;
Larritu nintzan nire Errian
Jarri ete zan Linbua,
Edo gelditu neu ete nintzan
Begietaik itsua.

Eia alanbere gorputzak nai lo,
Baña ez espirituak,
Gogora etorri jatazalako
Neure erriko kontuak;
Ez neban uste iñoz zirala
Atxak ain errukitsuak,
Zeintzuk lagundu eusten kantetan
Negarrez sentimentuak.

Bakar bakarra nintzan gizonik,
Berba soñuak ugari,
Nire aotik urteten zana
Atxak erantzun bertati;
Nozik-nozera goiz arteraño
Lagunduagaz alkarri,
Kantau geuntsazan koplak samurrok
Asaba zarren lur oni.

¿Nun gorde ziñan, egun ederra?
 ¿Nun ezkutau, Eguzkia?
 ¿Nun desagertu zaree, izarrak?
 ¿Nun ostendu, Illargia?
 Eta azkenez, nun estaldu zu,
 Ni jayo nintzan Erria,
 Zuri begira zoratzen zana
 Lenago mundu guztia?

Nun dozu lengo argi ederra
 Iñok ez lako gloria?
 Ai ene! dana galdu zenduen.
 Zakustaz illun jarria!
 Galdu zenduzan eskubideak.
 Galdu zenduan legia,
 Galdu dozu ia berbetia ta
 Asaba zarren ondria.

Gozotasunik iñun ez dakust,
 Dana dot garratzgarria,
 Gabau irago artian emen
 Nago estu ta larria;
 Negu baltz onek izango aldau
 Ondoren uda-barria,
 Ikusi daidan neure Erria
 Berriro loraz jantzia.

;0! neure Erri aukeratu»
 Millaka errien artian,
 Doe askogaz jantzia zara
 Ariman ta gorputzian;
 Adimentuan zur ta argia.
 Bizi ta zailla lanian.
 Alperkeriak ez dau lekurik,
 Ez beintzat zure lurrian.

Geiso txar batek baña zinduzan
 Ia antxiña zu artu,
 Urtiak asko juanagaitik
 Gatak aurrera jarraitu;
 Osotuko ete zorian bere
 Sarritan nozu bildurtu;

Unetaraño sartu jatzula
Gatx ori neban siñistu.

Jira egizu Mundu-bolia.
Pozezko egunak erdue,
Zatoze arin egun argiak,
Etortekuak bazare;
Nire begiok lausotu ziran,
Ezer ikusten ez dabe,
Baldin aguro ez bazatoze,
Illa aurkituko nozue.

Erdue arin ez diralako
Jausi atx eta mendiak,
Ez dira agortu errekek *eta*
Ez mututu iturriak,
Ain gitxi olak eta errotak
Isildu gabi ta arriak:
Negu danetan jasoten dabez
Tontorrek buru zuriak.

Zatoze, bada isildu ziran
Ontzen garaitz-diadarrak,
Ta aspaldian ez dira entzuten
Gautxori ta saguzarrak;
Ez dakit nora ezkutau ziran
Ipurtargi uts zantarrak;
Izarrak baño arruago len
Emcn argitzen ziranak.

Ene!... Zerua ¡zarratu **jat**,
Agertu da Illargia,
Itxas ederra isildu da ta
Dirudi landa zelaya,
Ipar aizin gozo mee dator,
Gaztelaratu egoia ;
Mundua jiran ara badakar
Nik gura neban garaia.

Ollarrak orra kukurrukuka
Balira legez zoratu,
Goizeko izarra bein bere baño
Argiago jat agertu:

Orañ benetan egun ederra
 Datorkula dot siñistu,
 Illuntasunak iges-bidia
 Deritxat dabela artu.

Nire begiak argitu dira,
 Poza sartu jat barrura,
 Ez al da atzera bart lako gaurik
 Ez etorriko Mundura.
 Ordu aiñ larri eta illunai
 Betiko agur eginda,
 Ego bi baldin euki banituz
 Igoko neban zerura.

Ezagutzen dot denporak txandan
 Txar eta onak dirala,
 Gure Munduak burpillak legez
 Jira egiten dabela;
 Gabak urrengo dakar eguna,
 Neguak uda-barria,
 Onek atzetik uda loratsu
 Eder ta zoragarria.

Neure Erria, itxaron bada.

τ.

Itxaron egizu poza,
 Jaunak Zeruan lur onarentzat
 Gorderik daukan garaitza;
 Jarraitu beti goiz eta arrats
 Egiñaz zeure otoitza,
 Eleizatxo bat begitanduten
 Niri jat zure eskaratza.

Keiagaz nasi b'-rtatik dakust
 Gora doian erregua,
 Zure biotza dagoalako
 Fedian ixiotua;
 Gero zerutik inontz gozuaz
 Zara zu bedeinkatua,
 Orrexegaitik nik deitu neutsun
 ¡O! Erri aukeratua!

Eunda ogeita zazpigarren da
 Dabid-en Salmo artian;

Erri maitia, kanta samur au
 Gorde egizu biotzian ;
 Zure siñiste ta oiturentzat
 Dator au bete betian,
 Igarla Santu Erregiagaz
 Kantauko deutsut batian.

«Doatsu dira gizon guztiak
 Bizi diranak lurrian,
 Jaungoikuaren bildur santu ta
 Bere lege ta bidian;
 ¡O ! zu, justua, zuk jango dozu
 Neke ta lanen atzian,
 Euren frutua bakian eta
 Bedeinkaziño artian.

Zure emazte Ieyal garbi ta
 Etxian gorde zaliak,
 Mas-parra batek legez emongo
 Ugari dituz umiak;
 Oliboaren pipit ederrok
 Mayan inguru jarriak,
 Eukiko dozuz bedeinkaziñoz
 Diralako etorriak-

Sion gañetik isuru beízu
 Jaunak zoriontasunak,
 Erabiliko dozuz goguan
 Jerusalengo ondasunak;
 Gozau egizu bizi guztian
 Eta ikusi lurrian,
 Zure semien semeak eta
 Baita Israel bakian.»

NEGUKO GOIX ZORAGARRI BAT

Gaba joan orduko eguaa eldurik
 Mendi gañean nintzan ni bere igorik;
 Alde guztietara begira jarririk
 Erri on bat nekusan jantzita bakarrik
 Eta beste guztiak billos mutildurik.

Negua izan arren, zerua garbia,
 Udan legetxe au zan goiz bat aiñ argia!
 Mendiak bardin, atxak jo ze miraria!
 Eguzkiak ezarri orduko begia.
 Guztiai asten jaken barrez arpegia.

Zer egin neikean nik ezpada samurtu.
 Belauniko jarrita Jainkoa agurtu,
 Biotz onen barrutik eskerrak agertu,
 Neure Erriarentzat gloriak eskatu,
 Damu ta poz artean kantau abiatu.

Negu ta uda badagoz kanpoak berdiak.
 Etorteko onaren dira señaliak,
 Soñeko orregaz jantzi beti dan Erriak.
 Goitik itxaroten dauz egun pozgarriak,
 Entzutean zeruak bere eskariak.

¡O! Erri jaungoikozko ta atxurlaria.
 Atxai burruka kentzen deutzazu ogia,
 Botiaz bekokiko zeure izerdia,
 Samurtzen dituzula lur zall zen arria,
 Emoten bearturik lan orren saria.

Lau mill urte onetan Euskaldun garbia,
 Jaunari izateko zara eskiñia,
 Mendi atxen artean gorderik bizia,
 Orbandu бага iñoz zeure jatorria,
 Ofturen iznn zedin irakaslaria.

Alan iraun zenduan gizaldi askotan,
 Iñoren bear бага ziñan gobernetan,
 Baña aurkitzen zara egun batzuetan
 Biziera barri ta neketsu latzetan.
 Zure gatxaz pozturik txarrak auzoetan.

Arek zuri ikasi egin bearrean
 Ipiñi zinduezan euren bardiñean ;
 Sortu arren plan asko gaurko egunean,
 Zu baña nausia zara mundu zabalean
 Lege onak asmetan errien artean.

¡A! Ebroz onuntzako Israel barria,
 Mundu osoak atzo eutsun inbidia ;
 ¿Zelan baña zakust gaur katigu jarria?

¿Nundik etorri jatzu orren gatx aundia.
Erdeldunak lotzeko euren buztarria?

Eretxi desbardiñak gauza batzuetan
Ipiñi zinduezan emen burruketan.
Oker asko zenduzan egin bitzuetan:
Kastiguz oran Jaunak zaitu garbietan.
Zeure gaizki eginen negar malkoetan.

Fedez oraindik baña zu zara nausia,
Esperantzan daukazu iraupen aundia,
Karidadez aiñ bero sutsu ta gorria,
Jaungoikua dalako beti zure naia;
Agaitik entzungo dau gaurko eskaria.

Amar justo badira. Jauna, zure Errian,
¿Noz arte bear dogu egon lotsarian?
Franziako anayak lengo gizaldian,
Gero Naparroan ta gaur nire alderdian
Oso menderatuta iñoren azpian?

Librau egizu, Jauna, librau zure Erria.
Zuregana dalako zuzendu guztia;
Urrin baña urrindu beraren etsaia.
Artu dau Israel'ek betiko garbaia,
Euskeldun izateko gaur erabagia.

Goratu daian zure izen aiñ santua,
Amaren titiagaz iruntsitakua,
Gure lenengo Aitak beti ondratua,
Eta bere semeak zintzo ezautua,
Euskeraz adoretan dogun Jaungoikua.

Joko diluguz gero gure zortzikuak,
Aterako kantu ta musika gozuak.
Garaitzak iragarten danbolin txistuak,
Araluko dituez kale ta aзуak,
Urietan piesta iñoz ez lakuak.

Neskatxen atanborak. mutillen tuntunak.
Alboka, txilibitu, gañera dultzaiñak,
Artzaiñen dantza, salto ta uju-juak,
Alegerauko dabez mendi ta basuak
Ikusirik oitura zarrak biurtuak.

Buruak zutituta itxaroten zoli

Mendi-atxak egongo jakoz egunari
Sortaldera begira ete dan agiri,
Agur bat egiteko goiz Eguzkiari
Gure Foru ederren rnaitetzailleari.

Argiz bat dira asiko txori kanta otsak,
Beor, ardi tn beiak orroeka pozak,
Akitian beoka, txal eta bildotsak,
Bizar eta adarrak armatuta auntzak,
Txuntxurretan beeka zuri eta baltzak.

Geisoak zelan gura daben osasuna,
Atsegin billa dabil atsekobeduna,
Itsua argitzeau dauka poztasuna,
Izate onek bere euskelduntasuna
Kantauko dau elduten danean eguna.

Eleizak aiñ jarriko doguz apainduak
Argi urre damaskoz danak estalduak;
Jaunari eskinteko opari dontsuak
Artzaiñak ekarriko dituez autuak,
Bildots zuri otzan ta orban bagakuak-

Eskintek egiñaz abade santuak,
Korutik erantzunaz soñuz organuak :
Otseztituko dabez kantiko gozuak,
Alabantza, gloria, esker onezkuak
Oraiñ esango dodan baten erakuak:

«Pozetan zoraturik gora daigun Jauna
Erri fededunaren salbatzalle dana,
Samur eta errukiz Erri onegana
Begiratz jaso dau jausi egoana,
Oitura zarretara biurturik dana.

«Beragan eukalako uste os-osua,
Oraiñ egiaztu da itz Jaungoikozkua ;
Tubal gure Aitari eukan agindua,
Lur au zala izango aiñ berarizkua,
Deitu eyoen danak zorionekua.

«Erakutsi dau Jaunak beso indartsua,
Gizon txarren asmoa itxi ondatua,
Lurrera zelai bota Erri anditsua,
Goratu ta eregi umill beratua,

Gozau dagian bere lege euskerazkoa.
 «Gloria. bai Aitari, bardin Semeari,
 Gloria Espiritu guztiz Santuari,
 Baila gloria bere Euskel erriari
 Oitura garbientzat ispillu danari.
 Mundua dan artean alan izan bedi.»

LIBERTADEA. BAÑA GERNIKAKO
 ARBOLAPEKOA

1882.an

Zeruok beti dakustaz dollor.
 Odei bal bere bagarik.
 Iya sei urte onelan emen
 Ez dabe opa euririk;
 Eguzkiaren berotasunak
 Gaukaz aiñ baltzizkaturik,
 ¿Nok esango dau ez gagozala
 Azalez gaztelarturik?

Negu danetan leyaz dakustaz
 Errerik solo ta larrak,
 Uda danetan kiskorrik oso
 Bedar, ota ta arbolak ;
 Lorarik iñon rz da agiri
 Girtanak dagoz igarrak;
 lira bakarrik dau itxasoan
 Egarriz illten dagoanak.

Baldin entzungo ezpaneu emen
 Geure Berbeta ederra,
 Entzungo ezpaneu, barriro diñot.
 Paradisuko Euskera,
 Eta zutinik ezpanekust gaur
 Gernika'n Aretx laztana,
 Esango neuke «¿Gaztelan nago!»
 Bapere dudarik бага.

Baña oraindik zarden zakustaz,
 Zorioneko Arbola.
 Orañdik zuzen ikusten zaitut

I.—KANTU ERRIKOIAK

Abe adarrez zabala,
Bedeinkatua zugatz guztien
Artean zu bai zu zara,
Libertadeko banderea zu
Zarealako bakarra.

¡ Libertadea ! libertadea !
Nun nai dantzudan soñua.
Zure azpian au bizi zan ta
Ill egin dabe gaixua:
¿Zeiñ libertadek kenduko deusku
Daukagun sentimentua?
Ez beintzat gaurko libertadeak.
Dalako erderazkua.

Au ez da bada Libertadea,
Au da buztarri astuna,
Au da izenez osasuna ta
Izatez geixotasuna ;
Au da kayola estu-estu bat,
Bere txoria da llsua,
Nok ezin daben egan aratu
Lenago legez zerua.

¡O! Libertade katoliko ta
Euskeldun benetakua,
Or aretx-pean milla urtean
Asabak gozaurikua !
¡O! Libertade mundu guztian
Zarata egindakua,
¿Zelan zakustaz zeure Erritik
Orrelan desagertua?

Erdel erritik sartu jakun bai.
Suge bat zorigaiztuan,
Bere berba leun gaztelarrakaz
Danok engañau ginduan.
Suge zikin au buruan *jo* ta
Ill bagendu lenenguan,
Euskel-erriko libertadea
Gaur biziko zan munduan.

Gaur biziko zan libertade au

Bakarrik egiazkua,
Zeñegaz gure lur onek eban
Irudi Paradisua.
¡Ai: ez bagendu jan suge aren
Sagar politikakua!
Mundua mundu, ementxe geunkan
Zerutxo benetakua.

Beti ta beti biziko giñan,
Asaben libertadean,
Lan, jan eta lo egingo euskuen
Umeak beti etxean;
Eta mirurik iñoz belorren
Arrapetako ustein,
Aitarren- seme jagiko giñan
Ill edo goitu artean.

Etzaitetz baña ill atsekabez,
Laztan zaitudan Erria.
Bizi dalako oraindik emen
Zuretzat Salbagarria;
Zeure Arbola gañean orra
Libertadeko Eguzkia,
Asaba aundi Jaun Zuriaren
Kurutz adoragarria.

Libertadea kurutza orrek
Bakarrik daike ekarri,
Zugatz orretan guraso zarrak
Agaitik euskuen jarri;
Ez dakigula, ez, arren, bada
Bere gañetik erori,
Euskal-erriak Libertadea
Zor deutsalako berorri.

Berorregaitik emon zenduan
Zuk bai, arbola santua,
Milla urtean ezkurra ugari,
Gozo Ia osasuntsua :
Osterantzean, ¿nun izango zan
Lur au parebagakua?
;Zelan gozauko eban beronek
Libertade egiazkua?

I.—KANTU ERRIKOTAK

Beti librea, beti nasaia
Zan emengo bizitea,
Bere ondasun danen guztien
Erri au oi zan jaubea;
Ez eban iñoz ez onek egin
Gaztelar borondatea,
Baldin ezpazan euskel oiturai
Ondo etorken gauzea.

Orra baña gaur Gaztelan legez
Nekezka jalen ogia,
Urte askoko leorteagaz
Zeruruntz eske euria :
Gure arbola aiñ dontsuari
Urten dakion orria.
Gozadu daigun bere azpiko
Kerizpe maitegarria.

Erdue, bada, lengo jutzuri,
Ekatzak eta indriskak:
Erdue, edur, erdue, euri,
Urjola ta zaparradak;
Erdue, arin, ezkotutera
Mendi basuok ta larrak.
Soñeko berde euskaldunakaz
Jantzi daitezcan dandanak.

Urten dakizun, bai, zuri bere
Orria eta ezkurra,
Gazte-gazterik jarri zaitean.
Gure Arbola kutuna,
Mundu guztitik egin daizuen
Iñoz ez lako agurra;
Umeak dabe itxaroten bai
Laster orlako eguna-

LAÜBURUGAZ LAURAK BAT

(*Saritua izan zan 1883.an Euskalerrria-ko Alkartadeak*)

Esan daiala Eguzki orrek
 Esango ezpancu ondo nik,
 Ondra aundian lau Amu Aizta
 Beti euskeldun izanik,
 Ea ibilli diran sekula
 Lotsaz begiak baturik,
 Ta alargun triste batzuen gisan
 Buruak baltzez jantzirik.

Gaur arte joan bajakez bere
 Asko gizaldi luziak,
 Millaka aldiz uda eder ta
 Negu ekatxez betiak,
 Badakiz bere Eguzki orrek
 Oneen gertaldi guztiak,
 Esan beigu gaur noz izan diran
 Onelako aiñ tristiak.

Baña badakit gaur bestekorik
 Ez dituala ikusi.
 Ez diralako lau Ama aitzok
 Sekula onelan bizi;
 Ez diralako jayo ezkerok
 Iñoz aurkitu aiñ gaizki,
 Ez dabelako erbestekorik
 Emen ezautu nagusia.

Etxeko-andra bazter onelan
 Eurok beti izan zirean,
 Aginpiderik ez eutselako
 Bestek arrapau etxean;
 Munduan ziran lau Aitzok bizi
 Aukera aiñ ederrean,
 Laurok bakarrik zorioneko
 Zirala diñot lurean.

Laurok bakarrik ziran doatsu
 Egiaz mundu onetan ;
 Baña orra gaur otseñak legez

Erdeldunai serbietan,
 Onen lege ta erabagiai
 Indarrez obeditan.
 ¡O zorigatxa ! semeak barriz
 Soldadu deutsez tratetan.

Edan eziñda garraztasunok,
 Urratu dabez zapiak,
 Beti buruan ekarrezanak
 Edurra legez zuriak;
 Mundu guztian baziran bere
 Aiztok ezagugarriak.
 ¿Nok esango dau, gaur direala
 Euskaldun garbi garbiak?

¿Nok esango dau leenak dirala
 Gipuzkoa ta Bizkaya?
 ¿Nok esango dau lengoak eurak
 Naparroa ta Araba?
 ¿Nok baña ez daki. Euskera Amaren
 Alaba ederrak dirala,
 Ta euren ondrea illunduteko
 Baliau dala indarra?

Orregaitiño zail eta gogor
 Dagoz euskeldun fedean,
 Laurok begiak josirik daukez
 Zintzo Lauburu zarrean:
 Laurok biotzak loturik barriz
 Sendo korapill batean,
 Juramentaurik ez banatzeko
 Lurrak dirauan artean.

Errazoerik aundienagaz
Laurak-bat oi jake deitu,
 Fede bat zaintzen direalako
 Beti biziro sayatu ;
 Lauburugaz zail laurak batera
 Ekiñik ill edo goitu.
 Areriorik indartsuenak
 Egin zituen apurtu.

Alperrik eben etsai arroak
 Pentsetan zirala artzak,

Euskal-erriko semeak gaitik
 Barriz zirala bildotsak;
 Ustelak baña urten jakezan
 Asmo, eretxi ta amesak,
 Euren odolaz egiñik emen
 Jan ziralako buzkentzak.

Zergaitik beti sartzen zirean
 Cure asabak batera,
 Euren bandera jasorik gora
 Arerioen artera ;
 Aukeran ezin biziko ziran
 Erri onetan bestela,
 Izan balitza euren odola
 Gurea legez epela.

Ez dago bada beste biderik
 Ezpada euren bandera.
 Ez dago beste salbagarririk
 Utsik Lauburu ederra;
 Baldin badogu auxe jasoten,
 Neure anayak, batera,
 Oraiñdik emen lenago legez
 Doatsu izango gera.

Baña bestelan bildur bearko
 Dogu, anaya neuriak,
 Lauburu dogu euskeldun utsa,
 Erdeldun dira bestiak;
 Dirala erdeldun guretzat diñot
 Enparau guzti guztiak.
 Ez ebelako besterik jaso
 Iñoz asaba maitiak.

Bandera auxe agaitik dakust
 Emen ainbeste tokitan
 Mendi, atx, txuntxur. kanpantorre ta
 Jauregi zar gallurretan;
 Bandera auxe ondra aundian
 Gorde dabe lur onetan,
 Lau Ama aitzok jaio ezker
 Dingilizka bularretan.

Bandera oni eusten badeutse
 Aurreruntz bene-benetan,
 Bandera auxe jarten badeutse
 Erdeldunai begietan ;
 Bandera auxe guk bere danok
 Badabilgu biotzetan,
 Zapi zuriak laster jantziko
 Amok dabez buruetan.

Bandera auxe dakust azkenez
 Gure Arbola gañean,
 Arren euskeldun dan-danok batu
 Gakiozan gaur oñean;
 Eta kantadu danok batera
 Geure Berbeta ederrean,
 Entzun daiguen ikaratuaz
 Mundu guztian danean.

¡ Gora Bizkaya ! ¡ gora Gipuzkoa !
 Naparroa ta Araba !
 Laurok genduzan eskubideen
 Besteren eske ez gara ;
 Eta azkenez ¡gora Lauburu !
 Euskel-erriko bandera,
 Beragaz geure Foru maiteak
 Biztuko doguz atzera.

BIZKAITAR ZARRAK ETA ERROMATARRAK

(Suritua izan zan 1883.an Bilbon Diputaziñoak)

Nundik ta nora izan zirean
 Aiñ zall ta eutsiak,
 Eta nungoak mundu batentzat
 Bildurgarriak,
 Emonik beti arerioai
 Zurra larriak,
 Izanagaitik oneek asko ta
 Areek murriak?
 ¿Nun eta nortzuk ziran Jaun batek
 Lotu eziñik,

Leor ta itxasoz ezarri arren
Sare ez erkiñak,
Laster zulatzen eutsezala oni
Besteen agiñak,
Naiz da sareak burdiñaz izan
Gogor egiñak?

Ela azkenez ¿nungoak ziran
Beli libreak.
Egundo bere iñok buztartu
Egin bageak,
Beti ta beti gorderik zintzo
Zarren Legeak.
Zorion eta dontsutasunez
Bete-beteak?

Idigi bitez kontraeradun
Liburu zarrak.
Idigi bitez milla garaipen
Dakarrezanak,
Eta astiro irakurririk
Zearo danak,
An ikusiko doguz zer ziran
Bizkaitar zarrak.

An ikusiko doguz zer ziran
Gure asabak.
Orain bi milla urte munduan
Bizi ziranak.
Antxe begira ete zirean
Gu duiñ koldarrak.
Urxolak legez etozanean
Erromatarrak.

¡O! berbadunak balira barriz
Gure mendiak.
Orreek esango leuskiguz bai,
Gauza aundiak;
Eurok esango leuskiguz aiñ
Egi garbiak.
Olloturik gaur gagozanentzat
Lotsagarriak.

I.—KANTU ERRIKOIAK

Lauburu zar bat beti ebela
Euren bandera,
Lauburu apaz bizi zirala
Beti batera,
Lauburu agaz beti sarturik
Etsai artera,
Lauburugaz bai danetan ondo
Zirala atera.

Berba egizue baña gaur zuek,
Iturrifxoak,
Berba egiñik itxi gaizuez
Gu lotsaluak;
Berba egizue, esa-iguzuez
Limen jazuak,
Azana aundi bizkaitar zarrak
Egiñikuak.

Berba egizue, gure itxaso
Orroetsuak,
Berba, artega zabiltzazanok
Amorratuak,
Erromatarrak zireanean
Azpiratuak:
¿Etzare zuek odol errekek
Edanikuak?

Berba egizue jotorriakaz,
Mendi ta atxak ;
Berba, kontau Ia esa-iguzuez
Emengo gauzak ;
Berba egin ta adierazo
Zarren garaitzak,
Irabaziten izan ziranak
Gutzizko gatzak.

Baña ez dot nai zuek bakarrik
Berba egitea,
Ez dot nik gura zuek soll-sollik
Gaur kantetea,
Ez dot pentsetan lagundu baga
Nik bere istea,

Ez dot ez uste lirau isillik
Ezkutctea.

Zuekaz naste gura nitukez
Kantau gloriak,
Zuekaz nasi kantau nai dodaz
Garaitza aundiak,
Zuen aurrean direalako
Irabaziak,
Lekobide ta bere martizdi
Ez illgarriak.

Beti biziak, esango dot nik.
Orain oster, a,
Beti iraunkorrek, esango dot ni
Baita atzera,
Ez eutselako ezelanbere
Itxi igotera,
Arrano bati egan egiñaz,
Euren gañera.

Oktabiano agaitik etzan
Emen nausia,
Ez ebalako menpean artu
Euskal-Erria ;
Alperrik euki eutsan betiro
Egarri aundia,
Busti bagarik baña joan zan
Bere eztarria.

Gure itxasoa iruntsi eben
Aren ontziak.
Uste izanda etzireala
Ain ur gaziak ;
Emonik baña guztiai laster
Tripalarriak,
Aldendu ziran apalduagaz
Belarri andiak.

Alperrik soldauz erein zituan
Landa zelayak,
Zirudiela tontorretatik
Txindurridiyak,

Alperrik ziran lantza ta ezpalaz
 Ondo jantziak ;
 Bost urte barru izan jakezan
 Zeatz ausiak.

¿Nok ta nun barriz artu zituen
 Gure mendiak?
 ¿Noz jo zituen euren gañetan
 Tronpet zoliak?
 ¿Noz iragarri mundu danari
 Garaitza aundiak,
 Menderaturik Lekobideren
 Soldau biziak?

¿Noz joko eben, baldin biotzik
 Ez beuken bada,
 Azartuteko iñoz igoten
 Mendietara,
 Gureak sarri deituagaitik
 Zantzoka ara,
 Lauak isteko beti begozan
 Bildur ikara?

Agaitik dabez Lekobidenak
 Beti kantetan,
 Garaitzak baso, mendi, tontor ta
 Atxen gañetan,
 Ekutsezala erromatarrak
 Zelan egozan
 Lanetan urriñ, tripak janagaz
 Arrabietan.

Iñoz sartuten bajakoezan
 Barriz urrera,
 Biurtzen ziran arturik laster
 Tunda ederra,
 Txingorra Jegez zalako jausten
 Euren gañera,
 Atxen txuntxurra bilinbolaka
 Or-emen bera.

Eta su ta gar, otoz-otuan,
 Milla aldiz milla

Jakezanean gure mutillak
Sartu erdira,
¡Ai! ango orduko negar, txilio,
Burdiñ-ots miña;
Infernuagaz bakarrik oi zan
Bardiñ bardiña.
Alan arturik ainbeste bidar
Zurra aiñ larriak.
Itxasoruntza zirala jasten
Urak gorriak.
Negargarriok. ikuste ez arren
Euren begiak.
Istea zituen erromatarren
Ontzi aundiak.
Diñot azkenez, baziran bere
Leorrekuak,
Soldau aiñ asko aiñ bioztsu ta
Adoretsuak.
Geyenak emen bizia itxirik,
Enparaduak,
Probetxu baga doaz Bizkaitik
Gizaixotxuak.

- USTE EZ NEBAN ORDU BAT

(Saritua izan zan 1883.an Ondarrabia-n)

Bizkaiko orma arrian
Josirik neure begiak,
Kantauko dodaz Euskai.
Erriaren gloriak.

Itxas olatu irakiñetan,
Ara ona. jira bira.
Pilloto larri dabillan gisan
Ontzia salbau ezinda,
Nundik ta nora ez dakiala
Joten dan legetxe kaira,
Emen sortu naz uste bagean
Oraiñtze zuri begira,

Itsu triste bat otoz-otoan
Sartzen dan legez argira.

Leikarraldorik gogortuenak
Eguzkiagan begiak,
Josi orduko badira asten
Negarrez urtzen guztiak.
¿Zer egin daike gaur nire biotz
Bigun ta argizagiak?
Ez dauz botako begietatik
Ugari malko goriak,
Zure personan pozez kantaurik
Euskal-Erriko gloriak?

Nire mingañoak ots egin begi
Trumoe baten soñuan.
Odei peleak oi daben legez
Sarritan egiñ zeruan,
Pentsamentuzko burruka asko
Ditudalako buruan;
Euren tximistak urten begie
Zirt-zart kanpora beinguan,
Zu zelakoa izan ziñean
Jakín dagien munduan.

Zu zer ziñean mundu danari
Esanaz bildurrik baga,
Lurra guztia zuri begira
Beti len zurtu oi zala.
Zoru danean zure antzeko
Lorarik iñon etzala.
Zure orria beti zalako
Mardo, eder ta zabala,
Zeure fedea beti zuria
Izan zalako bakarra.

Zuri begira gomutetan jat
Inbidiagaz onuntza,
Lorau ostzera etorri zala
Aldi askotan arrotza.
Baña otso orreek dituen legez
Bakotxak bere bildotsa,
Alan iruntsi oi zenduala

Etsayen odol garratza.
Guda danetan irabazirik
Etozan danai garaitza.

Zergaitik beti zure zantzoa
Beli izan zan aurrera,
Erantzunagaz atxak bertatik
Aitu orduko berbera:
«Aurrera, aurrera, garaitu edo
Burruketan ill bestela ;
Gora, mutillak, aguro goazen
Arrotz zikiñak ¡litera.
Geure euskaldun fede garbia
Datozalako galtzera.»

Zu ikusirik gogoratzen jat
Beste denpora batean.
Zelakoxea ziñean izan
Padurako ibarrean :
Zu zelakoa zinean baila
Nabasen moro artean.
Bizarra agertu zendualako
Batean ela bestean,
Nungo azañak ez diran illgo
Lurrak dirauan artean.

Beti ta beti izan zara zu
Alako argikaria,
Iruditurik Ipar-aldeko
Izar distialaria ;
Lañotxo batek bere ez deutsu
Iñoz zikindu arpegia,
Millaka urtetan zu zara bada
Errien migarria,
Danetan nausi, danetan leneen,
O! zu Euskaldun Erria!

Gloria zuri, españatarren
Artean utsik garbia,
Gloria zuri dierri onetan
Erein ziñean azia,
Beste guztiak zikindu arren
Zuk dozulako grazia.

Oso gordetan odol oitura
 Ta izket aiñ miragarria.
 Armenia'tik Aita Tubal'ek
 España'ra ekarria.

Gloria zuri, Erri ugari,
 Dozuna mendi naiz atxa.
 Zure semeak zerren sorreraz
 Dakarren euroen antza.
 Odeyez gora direalako
 Eregiten zeruruntza ;
 Bat hada andi, bestea da azkar.
 Hat eta beste uníanla.
 Beste erriak hadauke bana
 Zuk dituzu gaur eundaka.

Gloria, zerren zure umeak
 Galant diran gorputzetan,
 Leyaltasunez bardin bageak
 Biotz eta arimetan;
 Zoliak euren adimcmtuan
 Asko andiak letretan,
Biurtsariak eziñ geyago
 Erderaz eta Euskeran ;
 Solían, kantuz ta gerretan nausi
 Leorrez zein da uretan.

Geyago oraindik, neure Erria.
 Gura zinduket goratu,
 Zure umantak baña gaur banan
 Ezingo dodaz zenbatu,
 Zerren zakustan jardín bal legez
 Aiñ aberats ta loratsu,
 Eta mueta danetakoak
 Zelan dozuzan zuk sortu,
 Nire begiok or ezin dabe
 Zeiñ dan onena ezautu.

Txikia zara lurrez, Erria,
 Birtutez aundi gaurdaño,
 Etsayak ezin iruntsi arren
 Zu añakorik ez dago;

Beste Suiza zoragarririk
España'k ez dau zu baño;
Bera ikusi daben nai-nori
Baldin itauntzen bajako.
Gloria ori zurea ez danik
Ez deusku iñok esango.

NERE ERRIKO UJOLA

1882.an

(*Gipuzkoako euskeran*)

D. JOSE MANTEROLA JAUNARI

Fuerorik gabe ~~eta~~ zorion-
tasunik gure Euskal-errian

Ujola aundi izugarri bat
Izan zan mundu onetan.
Mendi ta aitzik goratsuenak
Ito ziraden uretan;
Gaizto guziak ziran bukatu
Kastigu gogor latz artan,
Zeren justoak ziran orduan
Gitxi ikusten gizonetan,
Baña oyek ditu Jaungoikoaren
Arret aundiak zainketan.

Geroztik ere izandu dira
Euskal-errian ujolak.
Baña etziran urak egiñak
Baizikan beti odolak.
¡O! zenbat aldiz etorri ziran
Ujolak antzera gizonak!
¡O! zenbat bider etsayez ase
Ziraden emen sakonak!
Baña asnasa artu oi zuten
Beti nayeran tontorrak.

Orretxegaitik izandu ziñan
Iñoiz ondatu gabea,
Doatsu eta zorioneko,

¡ O ! nere Erri maitea !
 Beti uztargi ederrak lizun
 Adierazi pakea,
 Zeren aiñ sendo zeunkan egiña
 Zure euskaldun kutxea,
 Idolatriak nun ezin zuen
 Iñoiz iritsi sartzea.

Kutxa orrekin salbatu ziñan
 Sendoki ujol danetan,
 Gure ontzia beli azaltzen
 Zalako uren gañetan;
 Baña gaur emen zazpi urteko
 Ujola gogor onetan,
 Dabil txit estu iya itoan
 Ordurik larrienetan,
 Baga irakiñ, aize puztu ta
 Ekaitz indriska tartetan.

Kutxa onetan arkitzen gera
 Elkartutako anayak,
 Beti erreguz zeruruntz zuzen
 Jasorik gure begiak.
 ¡Ai! ikusiko balizkigu gaur
 Edo/eñek arpegiak,
 Esango luke dirudigula
 Anima errukarriak,
 Garbitegian ayetxen gisa
 Gaudelako eraen itxiak.

Ayek bezela egiten degu
 Beti ots eta garrasi,
 Ayen erara gure besook
 Beti gorantza eraiki.-
 Ayetxea gisa egin artean
 Zeru gogorrok erdibi,
 Isilltzaka dei egingo degu:
 «¡Erruki! erruki! erruki!
 Kartzela illun onen atearak
 ¡Noiz bear dira idiki?»

Ayek su-garraz, gu negarrokiñ
 Bearko gera garbitu,

Ayen erara baña penau guk
 Nai degu onean artu,
 Ayen modura zeren noizbaiten
 Guk uste degun libratu,
 Zeren Jaunari zorra egingo
 Diogun aurki kitotu,
 Ta orduan berak zarren gloria
 Egingo digu biurtu.

¿Noiz gozatuko ditugu, Jauna,
 Asaben eguraldiak?
 ¿Noiz eguzkitan arkaitzai farrez
 Ikusiko arpegiak?
 ¿Noiz iturriak diruditela
 Leyarki garbi biziak?
 Gure errekak zillarkiturik.
 Loretsuturik zelayak.
 ¿Noiz esnatuko gaituzte goiz goiz
 Txorrotxioka txoriak?

¿Noiz entzungo da erromerian,
 Euskaldunaren tuntuna?
 Dultzaiña, alboka, txilibitu ta
 Txistuzko soñu leguna?
 Ogei urtetik ogeitalaura
 Mutill anka arinduna,
 ¿Noiz ikusiko erakutsiten
 Plazetan biguntasuna.
 Pelotan beti erdaldun danai
 Sartzen diela beldurra?

Fuerorik gabe ez da izango
 Ikusgarri aiñ ederrik,
 Fuerorik gabe ez dago zertan
 Uste alako egunik,
 Fuerorik gabe ez da guretzat
 Mundu onetan gauz onik,
 Fuero gaberik zeren guretzat
 Ez dan Euskaldun Erririk,
 Euskal-erria gabe ez degu
 Berriz zorientasunik-

Bukatu bada ¡O Jaungoikua!
 Gure erbeste luzea;
 Beeratu, Jauua, zuk gure kontra
 Jaso dezun ezpatea;
 Bigundu, Jauna, guretzat dezun
 Antziñako asarrea;
 Birali, Jauna, zerorren uso
 Pake adiera/lea,
 Ikus dezagun laster uztargi
 Kolore ederrez betea.

Atoz, usotxo zuri zuria,
 Olibo adarraz mokuan,
 Kanta dezagun gaur esperantza
 Euskeldun kutxa barruan;
 Gure begiok zu ikustean,
 Noek zinduzan moduan.
 Esango degu atertu dala
 Epe gitxiren buruan,
 Oñak jarriko ditugula bai
 Euskal-Erriko zoroan.

Gure belaunok bertan josirik,
 Gurasoen Jaungoikua
 Adoratzeko eskañirikan
 Antxumea ta usoa,
 Ayetxen bidez elkartade bat
 Egiñ ez urratzekoa,
 Aurrera beti euskaldun lege
 Santua gordetzekoa,
 Dalako berau Jaunak Aitorri
 Antziña emandakoa.

Dierri danak esan dezaten
 Arri egiñaz batera,
 Gure zaintzalle euskaldun zarren
 Jainkoa dala berbera;
 Ujola aldi gogorrenetik
 Ark gaituala atera,
 Berak zuzendu mirari batez

Ararat-eko gañera,
Leorra oso agertu arte
Euskaldun zarren lurrera.

JAUNGOIKOA TA FUEROAK

1883.an

Gauza bakotxak, Jaunak emonik,
Badauz doe bereziak,
Zar eta gazte, gizon zeñ andra,
Dierri ta probintziak,
Dala arraiñak, dala txoriak,
Abereak zeñ pistiak,
¿Lege bategaz zelan leitekez
Bizi munduan guztiak?

¿Zer deutsa bada atera arren
Uren barrutik arraiñak?
Joan daitezen leorrez ariñ
Une badituez oiñak?
¿Egazti batek zer balio dau
Uretan barriz sartziak?
Zer abereak ego bagarik
Aidez igoten astiak?

Ezin leiteke leorrez bada
Arraiñik iñoz ibilli;
Ez egaztirik uren barrutik
Joan leiteke igari;
Ezin leiteke ez, abererik
Egan aidean eregi,
Eta aiñ gitxi Euskalerrria
Erdeldun oso imiñi.

Beraz usoa egiña dago
Ibilli dedin aidean,
Ez abereak dabiltzan gisan
Beian emen lau oiñean;
Tiroz, ego bat eiztari batek
Baña austen deutsanean,
¿Zelan kantau leiz lengo urruak

Erreken aldamenean?

Deituko deutsut gaur zuri bere,
Neure Erria, Usoa,
Ez legoia Ia ez arranoa,
Ez belea, ez otsoa ;
Izanik zu aiñ sotill, zuri ta
Otzan, leyal ta gozoa,
¿Alan errenik nok jarri zaitu,
Usotxo biotzekoa?

¿Nun dozuz oraiñ zuk autxiñako
Urruela ezlitsuak?
Millak urteetan ibar oneetan
Euskeraz kantaurikuak?
Isilldu ziran. Uso maitea,
Zure euskeldun urruak,
Zure orde z gaur kantetan dabe
Bela baltz erbestekuak.

Zeñ parebaga ziñan munduan
Beti zeure Erregiña.
Zeñ Ama ona barriz gureztat,
Zeñ eztitsu, zeñ biguna,
Zeñ Uso bizkor, zeñ arranoak
Iñoz arrapau eziña!
¡Ai! baña orain legoiak deitsu
Jaurti atzamar samiña.

Zeñ gozoa zan, barriro diñot,
Lenago zure urrua;
Zeñ eztitsua ipar aizetan
Joten zenduan soñua.
¡O zeñ zuria agertzen ziñan
Goizetan egan jasua.
Edur moltsua mendi gañean
Itxirik baltzizkatua!

Jaunak emonik zenduzalako
Zuk alakoxe egoak,
Eskumakoa Jaungoikua ta
Ezkerrekoa Fueroak;
Ego biokaz orrexegaitik
Berrogei eunki osoak

Gozau zenduzan mundu onetan
Danak zorionekoak.

Baña gaur, ene uso maitea,
¡O! Ama erri laztana!
Ume-zurtz legez ikusten zaitut
Gure guraso ziñana;
¿eu ta umeok zorioneko
Iñoz izango bagara,
Zu osatuten bearko dogu
Sayatu dudarik baga.

Asaba zarren Jaungoiko ona.
Arren egizu lagundu,
Erri oni gaur biguntasunez
Begira, arren, egiozu;
Zugan ustea jarri dabenik
Bein bere al da lotsatu?
¿Noz Erri onek zure izenik
Egin dau barriz ukatu?

Beronek beti, beti deitu dau
Jaungoiko euskerazkua,
Zeiñen egape artan nai daben
Billau osasun dontsua;
Zeiñegan daukan jayo ezkerro
Itxaropen os-osua,
¿Eta nok bestek osatu leyo
Zauritutako egua?

Biurtu, Jauna, egiozu gaur
Len eukan al izatea;
Biurtu, Jauna, zuk egiozu
Euskeldun bizierea;
Biurtu, Jauna, arren eyozu
Euskeldun zarren bakea;
Biurtu, Jauna, nai dogulako
Gorde guk euren fedea.

Zerren aizerik ez jakun emen
Geiago aserratuko,
Zerren burrukan itxasoetan
Bagarik ez dan jagiko;

Zerren erdeldun diran gauzetan
 Ez garean gu sartuko,
 Zerren guztiok geure ontzia
 Salbetan goazalako.

Zerren bakigun balen giñala
 Ibilli oker begira,
 Nun Iparrera bearrean *jo*
 Genduan Eguerdira ;
 Zerren nai dogun oraiñ guztiok
 Biurtu lengo tokira,
 Asaba zarrak libertadean
 Biziten ziran Errira.

Euren Jainkoa gure Ipar da.
 Nogan ditugun josiko,
 Biotzctako gure orratzak
 Gaur danik beti- betiko;
 Odei gaiñ baten Lauburu zelan
 Gidari deuskun jarriko,
 Bere ondoren oker bagarik
 Kanan'en gara sartuko.

Bere ondoren joango gara
 Aurrera basamortuan,
 Aurrera, aurrera, leorrez legez
 Bardin bardin itxasuan;
 Aurrera, eta Jaungoikuari
 Euskeraz deitu orduan,
 Uren erditik zabalduko da
 Bide leor bat beinguan.

Alperrik dira Ejipton barriz
 Suzko euriak jausiko,
 Sodoma legez alperrik dira
 Uriak aula biurtuko;
 Alperrik trumoi tximistatsuak
 Zoma dardaratuko,
 Loten andreak legez atzeruntz
 Ez dogu begiratuko.

Alperrik bere etorriko da
 Faraon armaz jantzia,

Damuz beterik Israel'eri
Libre joaten itxia ;
Baña jaristen noz ondo daben
Itxaso erdi erdia,
Ur biak trilla eginda deutse
Illgo amorru guztia.

Dakialako Jaunak emoten
Danai euren alogera,
Erri leyal Ia baita mukerrai
Irabazita daukena,
Itxas erditik eroaten dauz
Onak baterik bestera,
Dongak botaten ondarreraño
Arraiñak gizendutera.

GERNIKA'KO ARBOLEARI

(Saritua izan zan 1886.nn Durango-n)

Ez dot kantauko gizonak nozbait dabela ezau-
Ez dala emen biotzarentzat poz osorik, [tzen
Ez dot kantauko gazteen lora zororik bere
Begi-itxi baten dagozalako iragorik,
Ez dot kantauko barri onaren lekuan oraiñ
Aizeak egan dakartazala ots tristeak,
Ez-ta aizea bera duiñ ariñ doalazala
Eni egunak, asteak, illak zein urteak.

Enoa bere jasotera gaur Euskal-erriko
Gizon andien doe argi ta birtuterik,
Gizaldioro dagoalako berau umantez,
Atx eta mendiz dagoan legez apaindurik.

¿Nok zeatz kontau zenbat gerrari leor ta urez?
¿Zenbat lumadun eskribatzalla aiñ entzunak?
¿Zenbat langin on, kantari eta musika zale,
Edozetara nausi direan euskaldunak?

Ez dot bere nai begi biok gaur eukiagaitik
Atsekabeen atsekabakaz negar baga,
Ez dot ez joko euskeldun lirau senlimentuzko

Otsakaz triste iñor jarteko ustez bada;
 Ez da ori ez lira onegaz egun onetan,
 Eregiteko gogoan dodan jasogeya,
 Gaur dot niretzat eregigarri Euskal-errian
 Oraindik zutik ikusten dodan Arbolia.
 Kantau nai deutzut. zuri bai zuri, Abe bizia.
 Zugatz danetan zu zareala Erregea ;
 Kantau nai deut/ut zu zareala Euskeldun lurra.
 Apaintzen dozun gomutagarri eskergea.

Zarealako bazter onetan gorde dozuna,
 Erri bat zeure kerizpeagaz aiñ librea,
 Zeure semeak mendi ta atzez or utsalako
 Arerioai beti itxiten arratea;
 Paradisuan egoan zugatz aren antzera,
 Zuk dirudizu jakituria-dun Abea,
 Zure barrutik or jatzulako goruntz urteten
 Jakituria zerukoaren Arbolea.

Zugan zugatz bi ikusten ditut, or Abe baten,
 ; O zugatz bikotx parebagako Landarea !
 Begitanduten zatxatazela bizi-biziro,
 Bata gorputza eta bestea arimea.

Corputza zelan arima бага beti dan illa,
 Autsa, errautsa, lur puska-puskat bakartxorik.
 ¿O zugatz dontsu agurgarria ! Lauburu бага
 ¿Zer ziñateke erretako zur bat besterik?

Baña, Lauburuk ipinten zaitu orren eregi.
 Lauburugaitik asi natxaitzu gaur kantuan,
 Kristo baño len bere euskaldunak zirealako,
 Fedegaitik kantetan Illten Lauburuan.

Lauburuetan emoten eben euren bizia,
 Eurea fedea eta legea zaintze arren,
 Orrexegaitik Erroma'tarren Janok ez eban
 Adoralairik bapere euki iñoz emen.

Lau milla urte Euskalerrriak badaukaz bere,
 Lauburuk bere beste ain beste bardin ditu.
 Aretx santua, jaso-izu jaso, Lauburu gora;
 Lauburuduna, beti Erriau gorde egizu.

Zuregan dago euskeldun lur au personaturik.
 Bere ispillu benetakoia dauka zugaz;
 Zu zakusanak ikusi daike Euskel Erria,
 Paradisu bat dirudiala Arboleaz.

Zure frutuak ain dira bada osasuntsuak.
 Arima eta gorputzerako adyutuak,
 Aretx ezkurrok foru maiteak esan nai dabez,
 Ta Jaungoikua Lauburu orren lau besuak.

¿Nogaz bardindu ete zaikedaz. zugatz bakarra?
 ¿Nogaz, zeurorren antzekorik bat ezpadakust?
 ¿Nun topauko dot irudigei bat zuri deitzeko,
 ¿Zeu bakartxurik Lauburuduna nik bazakust?

¿Nun topauko dot. lurra guztia aratu arren?
 Topau ezinda baldin banator gaur atzera?
 Lauburu orrek gogoratuten deustazan deyak,
 Noatzu, Abe bardin bagea, egitera.

Deituko deutzut zu zareala gure Erriko
 Apaingarria, poza, ondrea, ta gloria,
 Armada andi bildurgarriai oi zeuntselako
 Unetaraña zuk beti sartu ikaria.

Deituko deutzut zalxakusala torre sendo bat.
 Zein ezin daben areriuak iñoz bota.
 Euren olatu amorratuak direalako
 Triskau, puskatu zure ondoa beti jota.

Deituko deutzut zu zareala aukeratua.
 Landara eta arbola guzti-guztietan,
 Zergaitik, ez dan zure antzeko aberik iñon
 Mundu osoan beste lekutan aurkietan.

Deituko deutzut gure anparua, gaur zareala,
 Daroaguzan zorigatxeko egunetan;
 Oneen ondoren baita dirautzut uste dodala
 Nik kantetea gloriak zure kerizpetan.

¡Agur! agur bai, Arbola utsik bedeinkatua!
 Sortu ziñean unetik zara beti zu or;
 Agur, dirautzut, agur, nik barriro bere.
 Jaunak zaitzala mundua mundu zintzo jagon.

Aretx maitea leyak errerik badozuz bere
 Zeure orriak igartuta, gaur ez da ardura.

¡Noz aretxari igarra, bada, noz sartu jako?
 Arrik, zerenik ta sitsik bere ¿noz barrura?

Gabetan otz ta egunez bero egiñagaitik,
 Bero zein otzen kontra egingo dozu gogor,
 Euririk baga joanagaitik emen luzaro,
 Aretx maitea, ez da izango beti agor;
 Agaitik, aretx laztana, zukan aiñ sendo daukat
 Itxaropena biotz guztitik nik jarria,
 Lauburu zeugan dozun artean ez dala illgo.
 Eta fedean aiñ gitxi jausi gure Erria.

Lauburu ori ortik jausirik ikusi baño
 Nayago neuke atxok ikusi bere jausten.
 Ene Jaungoiko euskndunena, ez eizu itxi
 Euskal-errian orrelakorik gertatuten.

Beti euskeraz zaitugulako emen adorau,
 Gorde egizu euskeldun danen Arbolea.
 Aretxa eta bere Lauburu direalako,
 Naste bagako euskeldun utsen banderea;
 Arren, gaur bere egingo al gaitu bedorrek batu,
 Ama on batek umeak legez besapean:
 Zorionakaz bizi gaitezen zorioneko,
 Arbola zutik emen daukagun bitartean.

GURE BATEZTASUNA TA ASABEN FEDEA

1883.an

Zer zare zuek, atx aiñ goitsuak,
 Zer zare, mendi txit zarrak,
 Zer zare, gure errekatxo, ta
 Zer zare, zer, ibai-tzarrak?
 ¿Zer zare, gure iturri Koak,
 Zer zare, itxas zabalak?
 ¡Zer zaren zuek ez dakit baña.
 Zare euskaldun leyalak!

Guztiok zare euskaldun beti,
 Euskaldun bere izango,
 Euskaldun dabe zuen izenak

Mundua mundu iraungo;
Eta berbetan bazenkie, gaur,
¿Zer zendukee esango?
«Erdaldun izan baño guztiok
Ill gura dogu lenago.»

«Erdaldun izan baño lenago
»Atxok nai dogu zelaitu,
«Mendi tontorrek beera jausirik
»Landa eginik geratu;
«Ibai errekok agortu eta
«Iturritxuok mututu,
«Erdaldun izan baño lenago
«Lur itxasuok biurtu.»

Orrelakorik ez bedi gerta,
Oraindik bizi zaiteze,
Oraindik bada egun obeak
Guganuntz egingo dabe;
Orain etsi ta zuek orrelan
Baldin amaitzen bazare,
Galduak gara euskaldun danok
Gelditu бага bapere.

Ez da ardura sartuagaitik
Plaga bal zuen lurrian
Nok ezin leyan oso garaitu
Zuek zareen artian;
Fedea illten ezpada txito
Euskaldunaren biotzian,
Plaga ori da desagertuko
Laster lurraren azpian.

Plaga orrek dauz ipiñi gaizki
Aberats eta pobriak,
Plaga orrexek geixotu ditu
Mirabe eta nausiak:
Plaga berorrek gatxez bete dauz
Otseñ ta agintariak,
Bai, plaga orrek azkenez josi
Izurritz erri guztiak.

Plaga ori da, nire ustean,
 Aiñ infernutar dongia,
 Plaga ori da mundu danaren
 Pozoi akabagarria;
 Plaga orrexek gaur zelan daukan
 Zabal-zabalik saria,
 Sare orretan jausirik dakust
 Neure lur maite maitia.

¡O! neure Erri katigatua
 Bateztasunen sarean,
 Zeure indarrak uts biurturik
 Zelan argaldu zarean;
 Esanik dago: «Bateztasuna
 Ereñik bada errian,
 Erri au laster jausiko dala
 Erbestekoen azpian.»

Erbeslekoen azpian zakust
 Danori makur-makurrik,
 Euren sokakaz zeure besoak
 Dozuz errime loturik.
 Noz erdaldunak? ¿noz jantzi deutsu
 Alan zuri buztarririk,
 Euren burdia ibilli zara
 Iñoz eroan eziñik?

Mintza zaiteze, agura zarrak,
 Aiton itzal aundikuak,
 ¿Izan ziñeen iñoz semeok
 Garean lako olluak?
 ¿Nor zan azartu zuei austerera
 Ol santu euskerazkuak?
 ¿Nor botatera lurrera zelai
 Batzarretako Tenpluak?

Jagi zaiteze, Asaba illak,
 Biztzero gure fedea,
 Urten zaiteze obietatik
 Sartu dakigun lotsea ;
 Onelan bizi baño nayago
 Zenduelako illtea,

Gorde zenduen Erri Bantu au
Garbi euskaldun librea.

Zuen fedea zaindu balitza
Gaur bagenduan indarra,
Etsai guztiai sartzeko izu,
Bildurra eta ikara ;
Eta lenago botako ziran
Mendi ta atxok lurrera,
Lotsa gorrian ikusi baño
Erri libre au onela.

Neure Erria, gaur dirudie
Israeltar gizaixuak
Zure semeak, dabiltzalako
Asko egabanatuak;
Bildurrez nago ete gaukazan
Jaunak rñadarikatuak,
Ez orrenbeste; nai dogu izan
Kristiñau katolikuak.

Fede onegaz alkar arturik
Guztiok baizen bagara,
Bildur bagarik azartuko naz
Berba egiten onela;
Betoz orduan, naiz datozala
Mauruak gure lurrera,
Baña joango ez direala
Orriz jantzirik atzera.

Fedetik dator batasun ona,
Batasunetik indarra,
Indarrak barriz beragan dauka
Etsayentzako itzala;
Euskal-erria orregaitik zan
Oso libre ta bakarra,
Itzalaz beti eukazalako
Erdaldun danak ikara.

Arri pisuak egonagaitik
Lotan legetxe errotan,
Gabi astunak nagi-nagi ta
Geldi geldirik oietan;

Iturri askok ibai egiñik
 Baldin badeutse bultzetan,
 Tximistea gisan ¿ez dira asten
 Ibillten ariñeketan?

Batasuna da indarra bada.
 Alperrak dira ipuyak,
 ¡Ai! bagenduke ezagaturik,
 Anaya laztan maitiak!
 Bat ez bagara, diñot henetan,
 Egin ebala guriak;
 Baita igesi egin ebela
 Guraso zarren legiak.

Guraso zarren fede zintzoan
 Goazen bai batzandotera,
 Txita gaixoak doazan legez
 Olloaren egapera :
 Goazen, aguro, baña dan-danok
 Bandera onen itzalera:
 Banan bagabiltz laster datorkuz
 Miruak iruntsitera.

GURE BANDERA

(Saritua izan 1888.an Gernikan eta gero emienda hatzuk eginda, Euskalerra-ko Alkartadeko lagunen aurrean egilleak gure Aretxaren azpian irakurri eban 1895.ko Garagarrilla-ren 21.an)

Anboto dakust triste, bai, triste,
 Negarrez Oiz-mendia,
 Euskaldun goyak danak diñoste
 Ilten da zarra guztia;
 Ill zan ill Lelo, ill Lekobidc,
 Ill zan, ill zan Jaun Zuria,
 Ill ziran gure gizon andiak,
 Iya ill Euskal-erria;
 Alan ezpada esan daijala
 Arbola orrek egia.

Aretx maitea, esan egizu
 Euskeraz berba egiñik,
 Iñoz aurkitu ete dan lur au
 TAYU onetan geixorik.
 Autortu zaite zeu bere egon
 Bazara orren sikurik,
 Bazara egon iñoz orrelan
 Ezkurrik emon eziñik,
 ¿Urte askogaz ukatu cta
 Bazengoz legez sarturik?

Autortu zaite, lotsa bagarik,
 Arbola entzutetsua.
 Autortu zaite ¿etzara zu zeu
 Aretx danetan santua?
 Esan egizu zeure gloria
 Zelan jarri dan gautua,
 Nondik ta nora gaur zu zagozan
 Orrenbestean galdua.
 Iñoz ez izan baziña legez
 Arbola Gernikakua.

Gaur emeretzi urtetxo dira
 Ill jatazala bai pozak.
 Zerren buztartu ein ginduezan,
 Sekula cz-da, gu motzak.
 Eta euren nausi gaztelar batek
 Jaurtígi eutsun aiotzak.
 Zergaitik zuri eutsuzan bada
 Besangok itxi billoixak ;
 Ordurik ona pozik ez dauka
 Nik legez zure biotzak.

Ordurik **ona** negarrez zagoz,
 Aretx lenago dontsua,
 Zergaitik jausi jatzun tximista
 Sutsu bat donga gaiztua;
 Orrexegaitik ikusten zaitut
 Iya orririk bakua,
 Agaitik zagoz lengo aldean
 Ain asko aguratua.
 Zure azpia ¿nok kantau daike

Dala Batzarren lekua?

Beli ikusi or zinduezan
 Jakitun danak itzalez,
 Zarealako zu Arbola bat
 Zerutik jatsia legez,
 Zure adarrok direalako
 Irabaziak odolez,
 Itxi bagarik iñoiz loiluten
 Dongen fede txar zilalez.
 ¡O, baiña miña-gaur erdaldunak
 Darabilguez dandarrez!

Eurok indarrez ebagi cta
 Darabilguez lurrean.
 Darabilguez lotsa bagarik
 Sua egiteko ustean;
 Antxiñakoak erdaldunen bat
 Balebe euren aurrean
 Ikusi zure orri bat bere
 Zapaltzen ostikopean,
 Ill edo goitu egingo eben
 Galtzairu zorrotz artean.

Ill edo goitu jaritxi ziran
 Caraipen andi zarrenak,
 Goitu eginda gorde zirean
 Lege aiñ eder eurenak,
 Goitu eginda egin zirean
 Munduan ezagunenak;
 Agaitik ziran kantetan non nai
 Gloria euskaldunenak,
 Zugaitik illda eukezalako
 Libertaderik onenak.

Etzinduezan, Aretx maitea.
 Euriak utsik or azi,
 Etzinduezan iñontz bigunak
 Perlakaz bakarrik jantzi,
 Ezpada milla gerretan gogor
 Asabak einda esetsi,
 Euren odola suster danetan
 Egin zenduan iruntsi,

Aixe erreak zeu igartzerik
Iñoz ez eyen jaritsi.

Sarritan izan ziran benetan
Uda odeitsu tristiak;
Sarri bai sarri Gaztela-aldeko
Trumoi-ots bildurgarriak;
Zugana eldu ezin zirean
Baña euren oñaztarriak,
Ta bai atzera biurtzen ziran
Erdal-errira guztiak,
Ipar-aixeak zirealako
Lur onetako nausiak.

Alperrak ziran euren asmoak.
Utsak gaztelar indarrak,
Zirealako bai euskaldunak
Beti izaten bat danak;
Erdaldunakaz nastu bagarik
Ziran zur biziten zarrak,
Euskal-legeak gordetan zintzo
Izanik zoli ta zalak,
Bizkayan beti agindu eyen
Bizkaitar garbi bakarrak.

Agurtzen zaitut orrexegaitik,
Guraso zarren bandera;
Agurtzen zaitut, izar argizko
; O estandarte ederra !
Agurtzen zaitut iraun dagizun
Zedro tantaien antzera,
Bizi zaitean eurak legetxe
Millaka urteetan aurrera,
Zabaldu daizun zeure kerizpe
Barria euskal-lurrera.

Osatu zaite eta barriro
Jasoizu bekoki ori,
Zerua bera jo arteraño
Lauburu zarra eregi,
Bere besuok izan bekiguz
Beti ta beti pozgarri,
Erakusteko zer dan Bizkaya

Oraindik mundu danari,
Ezeutsalako buztartzen itxi
Iñoz erromatarrari.

Bizkortu zaite ainbat lasterren.
Sendatu zeure zauria,
Indar barriak artu egizuz,
Alageretu begia,
Zabaldu begi Lauburu orrek
Bere zeruko argia,
Beli kristiñau izan dakigun
Gure Euskaldun Erria,
Eta bertatik alden du dedin
Libertade txar guztia.

Berorregaz *guk* egingo dogu
Arerio danen kontra,
Zure gañetik ez da ekatxik
Egingo deuskunik **bota**,
Zerren Bizkaya lenago txito
Ikusiko dan lur jota,
Gure odola erreka legez
Itxasoagaz batuta.
Gure Aretx au ikusi baño
Lauburu zarra kenduta.

¡ O euskaldunen Lauburu zarra!
Gatoz zu adoretara;
Gatoz jo Aretx illezgarria!
Zure kerizpe onetara,
Arerioak jakin dagien
Gatozan ona zertara,
Gatozalako Euskaldun utsak
Ementxe batzera bada.
Ots egiteko bizi dedilla
Gure Arbola **laztana**.

JAUNGOIKOA ETA FORUAK.

(*Eskribidu zan 1896.an gure Aretxaren azpian irakurteko
ustez, Euskalerrriako Alkartadeko lagunen aurrean
Garagarrillean*)

Zeruak nozbait urratutean
Gure kalea lodia,
Lazotik librau egiñikoan
Zelan asten dan txoria;
Alantxe bardin abaiauko da
Kantuz Euskaldun Erria,
Dirudiala pozaren pozaz
Beronek txantxangorria,
Ez Gaztelako kabelai ixill,
Txori arrapalaria.

Ez dau barruan luzaro poza
Onek gordeko itorik,
Ezpada laster agertuko dau
Biotzak gañez egiñik:
Egon zalako ainbeste urtean
Kartzelan legez sarturik,
Ta ikustean zarratzen eben
Ormak lurrera botarik,
Zer jazoko dan egun areitan
Ez dakit orain ondo nik-

¡ O, guk orduan zelako kantuz
Dogun Zerua alabauko!
Gure Jaungoiko euskeldunena
¡O zelan dogu ondrauko!
¡Zelan ditugun berak eindako
Mesede danak kontauko!
Zergaitik diran gaurko negarrok
Jarriko siku betiko,
Uste doguzan egun ederrak
Direalako elduko.

¡ Ze naibagea baña gaur dago
Euskaldun zintzo danetan!
Zeintzuk dituen biotzak triste
Sarritan gorantz altzetan.

Dakuselako Arbola zarra
Igarrik suster danetan,
Bere bizian jazo ez dana
Jazorik Erri onetan.
Non egun onak irago eta
Bizi garean dongetan.

Triste bai. triste dabiltz benetan,
Gaur gure nekazariak,
Mendietako artzaiñak mutu,
Gorderik txistu zoliak,
Ixill ixillik basoetako
Burdi irrintzalariak,
Itxasoetan bela balzakaz
Arrantzalien ontziak.
¡Poza guztia galdu bagarik
Utsik dakustaz mendiak!

Berdez jantzirik eurok kantetan
Deuskue esperantzea,
Eurok ez dabe oraindik galdu
Antxiña euken legea ;
Lenago legez bardin gaur bere
Nai dabe jarraitutea,
Euren euskaldun izen ederrak
Sekula bere ez galtzea.
; Etu geixoak euren urakaz
Urtero osatutea!

Orrexegaitik nik bere ditut
Negarrak daridazala,
Goiz guztietan zuzentzen gorantz
Begiok mendietara.
Jakín gurarik errekatxoak
Ete dakarren nigana
Barri onen bat poztu dakidan
Biotz gaur triste dodana;
¡Ogei urtean gagozalako
Niniben katigu ala!

Eta txarkuok beti diñoste:
Zutik badagoz mendiak.
Uren bearrak ez dituala

Ilgo euskaldun erriak;
 Atxak zuzenik bere badaukez
 Euren buru zar zuriak,
 Añ gitxi erre Gaztelan legez
 Eguzki sutsu goriak,
 Eurok izango jakuzalako
 Kerizpe egiñlariak.

Erri onetan gaur arte beti
 Mendi eta atx aituak,
 Izan zirean gure gaztelu
 Jagola guztiz senduak,
 Eurak buruak daukezalako
 Iya zeruan sartuak,
 Augaitik ziran kanpotarrentzat
 Jaritxi ezindakuak.
 Agaitik emen ez eben sartu
 Orporik kasta gaiztuak.

¡ Ai! baña Erri *Ubre* eder au
 Lotuta dabe gaur jarri!
 ¡ Ai! orain deutse buztarritzar bat
 Samatik estu berari!
 Beragaz naste baita gañera
 Burdi astun bat ezarri.
 Erdaldun oso gaur onek dala
Egingo leuke irudi,
 Baldin deituko ezpaleuskio
 Euskaraz Jaungoikuari.

Euskaraz deutsa berari dei ta
 Eskatzen ordu danetan,
 Arren begiak jarri daizala
 Errukiz Erri onetan,
 Egin badogu lenago utsik
 Damu dogula benetan,
 Orain nekatu gura dogula
 Utsik euskaldun gauzetan,
 Sartu bagarik barrien barri
 Geyago erdaldunetan.

Bakar bakarrik guk gura dogu
 Guraso zarren legea.

Geure euskaldun Jaungoikuagaz
 Foruen libertadea;
 Ortik kanpora guretzat beti
 Beste dana zan dongea,
 Ekarrelako beti nastea,
 Burruka ta ezdabaidea,
 Zeñen frutuak aor zelan jarri
 Deuskun Aretx zar maitea.

Gu erdaldundu giñealako,
 Arbola, zara igartu,
 Motzakin nastau garealako
 Orri bagarik geratu,
 Maketoakin batzeagaitik
 Guk geuk zaitugu amaitu;
 Baña gaur zelan oker egiña
 Garbiro dogun ezautu,
 Arbola gazte zure semea
 Nai dogu obeto maitetu.

Zu zara bada gure pozgarri
 ¡Aretx Arbola semea!
 Zugaz nai dogu aurrera zaindu
 Obeto zarren legea.
 Zelan zarean aiñ Aita zar ta
 Euskaldunaren umea.
 Bere lekuan guretzat izan
 Zaitzezan ortxe ordea.
 Deituko deutsut zu zareala
 Euskaldun Esperantzea.

Deituko deutsut Euskalerriko
 Goixeko izar barria.
 Zatorkuzana gure zerua
 Jartera oso garbia:
 Desagerturik illuntzen daben
 Laño baltz astun guztia.
 Udan uda ta neguan negu,
 Egiñik eguraldia,
 Eldu dakigun ainbat lasterren
 Justiziaren aldia.

Ondo dakit nik Iretargia
Eguzkiari eskean
Ibilten dala aren argiaz
Zuzendu gaizan gabea;
Jakitun onak gura badabe
Lege onik jarri lurean,
Zugana eldu bearko dabe
Ikaslarien antzean,
Lauburu zarra dakartzulako
Lege guztien gañean.

Orrexegaitik zure Aitz orren
Azpiko erabagiak,
Len beti ziran gu zuzentzeko
Zuzi gartsu ta biziak;
Itxas gizonai oi deutsen legez
Portuko farol argiak,
Orren legeak gu argiturik
Geunkazan bide garbiak.
Baña gaur doguz illunak eta
Aldats zorrotzez josiak.

Au ez da bada bide zelaya.
Ezpada latz ta pikea,
Au egunerik egunero da
Osasun ona galtzea:
Au da Uso bat apurka apurka
Zepotzar baten sartzea,
Gura dalako luma bagarik
Gero bertantxe istea,
Jaritxi dedin egunen baten
Egoak ebagitea.

Orrexegaitik miñaren miñaz
Atzo Arbola zar oni.
Oiz gañera nekez igota
Begira nintzakon jarri,
Ta gorautaurik gure erruak
Zelan deuskuen ipiñi,
Neure biotz au damuen damuz
Egiñik bertan erdi bi,
Oiñen gañera egon ezinda

; Lurrera nintzan jausi ni !
 Raña edurra lako egazti
 Zuri bat urreraturik,
 Ak esan eustan gu salbetako
 Dala ontzi bat bakarrik,
Jaungoikuak ta Foruak utsik ;
 Bertako belan jarririk,
 Anaya danok arka orretan
 Sartzen bagiñan baturik,
 Noek legetxe guk genduala
 Urtengo sano bizirik.

Ontzi orregaz jo daikegula
 Oraindik euskal-portura,
 Aretx gazte au osasunagaz
 Bizi leiteken lekura;
 Egazti aren berbak ain sartu
 Zelan jatazan barrura,
 Anaya danai iragartea
 Etorri jatan burura ;
 Alan kontu au esan baño len
 ; Eneban bada ill gura !

Auxe ementxe esate arren
 ; O ! Aretx gazte zardena !
 Onaxe nator neure anayai
 Kontu au azaldutera;
 Danai deiturik bai, datozala
 Ontzi onetan sartzera,
 Ez gaitetzala maketoakin
 Geyago nastau aurrera ;
 Nai badabe eurak jarri daiela
 Legea gure antzera.

; O ! Esperantza gure zarean
 Aretx samur ta laztana!
 Orra or datoz Bizkaya legez
 Gipuzkoa ta Araba ;
 Orra or dator oneen antzera
 Bai Nafarroa azkarra,
 Baita Frantzian beste anayak
 Diñoce elduko dirala,

Zazpirok egin daigun Erri bat
Deritxakona *Euskara*.

Bai, Eguzkia, markau egizak
Eske gagozan orduak,
Baita argitu guretzat izan
Diranak areriuak;
Ainbat lasterren kontuan jausi
Daitezana euren buruak,
Ezagaturik gure legeak
Dirala Jaungoikozkuak,
Ots egin dayen bear dirala
Biztu Euskaldun Foruak.

GURE ARBOLA GAZTEARI

*(Eskribidu zan irakurteko ustez gure Aretxaren azpian
1897.ko Garagarrillean)*

Itxasoaren erditik iñoz
Farolen bati begira,
Pilloto larri ibilli dana,
Ontzia salbau ezinda,
Nekez da larri zelan eltzen dan
Nai eban portu ta errira;
Modu berean ni bere nator
Arbola onen azpira,
Basamortutik gabaz ementxe
Ikusten neban argira.

Leyak gogortu arren goyetan
Iñoz edurtza andiak,
Urtzen baditu ikutuagaz
Eguzkiaren begiak;
¿Zer egin daike gaur nire biotz
Bigun ta argizagiak,
Ikututean aurrean dodan
Euskaldun izar biziak,
Agertu baño neure barruko
Sentimentu zar guztiak?

I. KANTU ERRIKOIAK

Arantza min bat dot biotzean.
Odei astunak buruan,
Neure eztarri moteltxo onek
Trumoe baten moduan,
Adierazo dayan nai neuke
Tximistazoka munduan,
Zelan oraintxe sartu garean
Arbolearen ortuan,
Edo obeto esan dagidan
Euskaldun Paradisuan.

Jakin begie gaur Aretx onen
Azpira batu gerala,
Euskaldun zarren seme zintzoak
Erdaldun bildurrik baga;
Maketo batek emendik bota
Egiñikoak bagara.
Gura dogula urtero batu
Dei egitera bertara,
Egin euskuna egin ebal
Nausi zalako indarra.

Jakin begie bere ezpata
Gaur bada biar eztala,
Jakin begie sekula baña
Ez dala illgo Euskara ;
Arbola zarra ill bazan bere
Seme bat emen badala,
Eta zelan dan berau orritsu
Eta besangaz zabala,
Bere azpian zarren Batzarrak
Oraindik eingo dirala.

GURE ARETXAREN KERIZPEA

*(Eskribidu zan irakurteko ustez gure Aretxaren
189T.ko Garagarrillean)*

Egiñagaitik Mundu
Guztia aratu.
Au lako kerizperik

Baña ¿non billatu?
Nik beintzat nai ta nai ez
Bear dot autortu,
Kanan euskaldunean
Gaur nazala sartu,
Eta biotz au zelan
Aiñ jatan zatitu,
Ez dakit bizitzeaz
Zelan dan gelditu.

Ez dot iñon zapaldu
Lur bat aiñ dontsurik.
Paradisuaeren antz
Geyago dabenik,
Bertan daukagulako
Aretx bat zutunik,
Mundu danak Arbola
Santua deiturik :
Osterantzean ¿non da
Beste Gernikarik
Arboleaz ainbeste
Entzute daukanik?

Bere azpian barriz
Zeinbat gizalditan,
Batu ziran asabak
Euren legegintzan:
Eta nik gaurkoagaz
Egon naz birritan
Dei tzera euren seme
Nai dogula izan,
Eta aurrera bere
Urtero bai bertan
Gura neuke anayok
Alkartu gaitezán.

EUSKALDUNAK GARA

Euskaldunak gara gu ela Euskerea
Zaintze arren nai dogu emon bizitzea.
Nai dabelako askok lurperatutea,
Ela gaztelar oso gu biurtutea.

Baña, zelan garean odolez euskaldun,
Euskeraz guk kantetan dakigu edo-nun ;
Egiten gareala munduan ezagun,
Ez dala euskalduna dan lakorik iñun.

Leku danetan jayo ein arren umiak.
Egiñagaitik amak edo-nun semeak;
Ruña Euskalerrira Jaungoiko gureak
¿Zerutik ez dauz bota aparteko doiak?

¿Non da beste lekutan emengo bakea?
¿Non da beste erri bat aiñ alegerea?
¿Non dauke guk Gernikan dogun Arbolea,
Zarra igartu arren, badogu gaztea?

¿Non da emcn legezko gozoa udea?
Emen da aize meia, nun-nai kerizpea,
Emen daukagu non-nai gaur bañu-etxea,
Osasunaz jarteko geixo dan tristea.

Erri onetan dira asko miragarri,
Emendik urten dira onenak kantari;
Zeiñbat atera diran barriz pelotari,
Mundu danak daki ta ez itandu guri.

Arrotasun onagaz esan giñain bada,
Au dala jayo giñan geure lur laztana;
Lur bat euskaldun utsa lenago izana,
Raña gaur ¿zer da emen ikusiten dana?

Gaur jazoten jakona da negargarria,
Bizkayak ez dirudi euskaldun erria :
Ezin ezautu leike ¡o! ze gatx andia!
Sekula ez-da, orain dogu buztarria.

Gurako al dau Jaunak begia edegi.
Daiguzan euskaldunak esanaz alkarrri:
Nai ez badogu izan guk erdaldun garbi,
Hear doguz Foruak barriri ekarri.

Urratu bear doguz erdaldun kaleak,
Bear ditugu zarrak eukezan legeak;
Agindurik Bizkayan beti Euskereak,
Osasun ona gozau daian Arboleak.

Bizkaya, Gipuzkoa ta gure Araba.
Eta Naparroagaz lau anaya gara:
Beste aldeko irugaz baizen gareala,
Zazpirok bear dogu gaur salbau Euskara.

Zazpirok bear dogu egin batasuna.

Zazpi Euskaldunerrik anayatasuna:

Egin ezkerro zintzo guk alkartasuna,
Ziur, ziur, letorke euskalduntasuna.

Baturik biztu daigun guk geure Erria.
Askok izan deutsana oni inbidia;
Betoz lengo oiturak, ta lege garbia,
Ta geure lege zarren aginte aldia.

GERNIKA'RI

«Eman ta zuhal zazu munduan frutoa-
Iparraguirre-ren *berbak Gernikako Ar-*
bola-ren kantuan.

Ez dakit berba egiñ,	Antxiñatasuna.
Ala egon mutu,	Ela gure Aretxak
Ainbeste jente argik	Eukan osasuna:
Egiñ nau bildurtu:	Orain barriz Gernikan
Eta ¿zer egiñ iya,	Gertetan jakuna,
Aizera biurtu?	ikustean gordeko
;. Ezer kantau bagarik	Dot ixilltasuna?
Bazter baten sartu?	Ez, alabau nai zaitut,.
Ez orrelangorik, ez;	Gernika gurea.
Naiz zerbait lotsatu.	Zarealako ondra
Nai dot neure barrua	Andiko Andrea:
Ementxe askatu.	Baña ondragarrien
Emen autortu nai dot	Dozu Arbolea.
Nazala euskalduna.	Zeiñ dan Euskal-erriko
Gure berbetearen	Gure banderea,
Laztan ta kutuna ;	Agertzeko danai zer
Beti maitetu badot	Zan gure legea,

Libertadea baño
f.enago fedea.

¡O! Gernika, ez daukat
Nik beintzat azturik
Ez deutsut gaur itxiko
Itandu bagarik.
Jarten zireanean
Zarrak etorririk
Zure Arbola-pean
Anaya egeñik.
¿Non zan beste lekutan
Añ toki librerik?
Paradisua deitu
Agaitik neutsun nik.

Ipona'ko Obispo
Zanaren semiak
Agaitik emen dabez
Ase egarriak,
Erabilligaitik
Enparau erriak.
Zugan dabez. Gernika,
Ipiñi begiak ;
Zure doiak badira
Barriz aiñ andiak,
¿Zelan kantau gaur nire
Lira motz txikiak?

¡Ai! kantau albaneizu
Jatortzun gloria;
¡Ai! baneki zearo
Zure istoria !
¡Ai! baneuka gaur bear
Dan jakituria !
Baña, zelan enazan
Asko ikasia,
Parkatu egidazu
Biotz larregia,
Eukirik izan banaz
Azartuegia.

Parkatu egidazu,
Baña, nai dot kantau,
Kantetako dalako
Gaur jayo egun ao;
Eguzkiak goixago
Ta argiago urten dau :
Berberak kantetako
Bizkortu bere nau;
Alan, beste bertsotxo
Irubat edo lau,
Kantau бага amaitu
Ez dot gura lan au.

Kantauko deutsut, ba-
Gernika argia. [da.
Egoki datorrela
Eskola barria;
Nok dakarren oliba
Berde pozgarria,
Baketzeko gu jayo
Giñean Erria ;
Erantzita erderazko
Usaindun jantzia,
Salbau daigun euskaldun
Legien ontzia.

Kantauko dot gabetan
Legetxe zuzia,
Izango dala gure
Parola argia ;
Kantauko dot izango
Dala mintegia.
Ereiñik osasuntsu
Beti dan azia:
Izan dedin Jesusen
Gero tantaiduya,
Ipinteko dar, dar. dar,
Infernu guztia.

Kantauko dot gañera
Dala iturria.
Zerutik dakarrena

Bere jatorria:
 Kantauko dot oraindik
 Bere edaria,
 Izango dala gaxik
 Baga ur garbia,
 Iruntsiten dabena
 Bertako euria,
 Dala Aita Santuaren
 Txabolako ardia.

Kantauko dot zan le-
 Noe'ren arkea, [gez
 Berau izango dala
 Barku bat gurea,
 Berau gaur bildugarria
 Jakun urjolea,
 Amaitu arte oso
 Gure aldospa.
 Non aterpetuko dau
 Euskal-bizitzea,
 Ito ez dedin guttiz
 Gure lur maitea.

Kantauko dot izango
 Dirala frutuak,
 Etxe santu orrenak
 Miragarrizkuak.
 Egazti zuri batek
 Legetxe eguak.
 Zabalduta batuko
 Ditu ollaskuak.
 Berorrek zuríturik
 Biotz nabartxuak,
 Urtengo dabe danak
 Uso biurtuak.

¡O! Landara barria
 Zatzakuna sortu!
 Ezin zaikedaz iya
 Geyago goratu;
 Buruaz zeruan
 Zeuk arren ikutu,

Uri polit au daizun
 Besazpian artu;
 Bakit lurrik onena
 Dozula billatu,
 Gernika ebalako
 Jaunak bedeinkatu.

Eleixako Artzaiñ bat
 ; Ze ondra andia !
 Etorri da jartera
 Lenengo arria.
 Lumen bat izango al da.
 Ondo ebagia.
 Ipinteko gaur emen
 Jazo dan gutzia.
 Dalako Gernika'ren
 Alabagarria,
 Zeiñ gaur alegere
 Dauk an arpegia.

Mayatzaren bosteko
 ¡O! egun kutuna!
 Gernika, aztu bear
 Iñoz ez dozuna;
 Niri beintzat galduten
 Ezpajat zentzuna,
 Naiz da milla urtean
 Euki osasuna,
 Milletan kantauko dot
 Gaurko batasuna,
 Dalako goiko Jaunak
 Bialdu deuskuna.

Egun onetan beti,
 Euskal Jaungoikua.
 Alabauko dot zure
 Beso indartsua;
 Aspalditxoan egon
 Arren beratua,
 Gernika ikusten dot
 Ez dozulako gura
 Oraiñ goratua.

Berau menpekua,
Ezpada izan dedin
Gure gurasua.

Izan zaite, Gernika,
Beti gure Ama,
Izan zaite aurrera
Gure Irakasla ;
Ikastegi orregaz
Izan zaite bada,
Gure Ipar aldeko
Euskaldun izarra ;
Ona gure semeak
Bialtzen dirala,
Eurak zuk argituta
Giau gaiezala.

¡Agur! bada ¡o! etxe
Jayoten asia,
Jausi bekizu goitik
Iñontzaz grazia.
¡Agur! eguzki barri
Onuntz etorria,
Eldu da zuretzako
Gaur egun sentia,
Ipinteko ibar au
Urretan jantzia,
Izan dedin ibarren

Erregiña andia.
¡ Agur! Bizkaiko toki
Lur zoragarria !
Maitetu erne jatzun
Lirio zuria ;
Eldu jatzula diño
Uda pozgarria ;
Goizetan orregaitik
Ugari txoria,
Bertara pillatzen da
Ain banda andia,
Lora oni egiñaz
Ongi etorria.

Eta zuk ¡o! Gernika.
Urte luzietan,
Jarraitu lora onen
Gloriak kantetan,
Bizi dedin bai bizi
Jauna serbietan,
Bere gloriarako
Direan lanetan;
Alan iraunikoan
Beko egunetan,
¡ O ! zelan alabauko
Daben zeruetan !!!

II — L I R I K A K A N T U A K

*"Ego baketsuekaz jatsi ta zatorkit,
Begiok estaltzera eurokaz bertorik;
Erdu, ta eldu zaitez, zatoz bereala,
Jo dagidan gaur lirau, zuk emon zeunstana:
Negarrez soñututen lagun egidazu.
¿Ez al dakizu ondo, zer jatan gertatu?"*

EGUZKIARI

(Donostia'ko Lora-jokuetan saritua)

¿Zer darabiltzu orren ederrik zeru urdiñean,
Ez dala agertzen besterik iñor zure antzean?
¿Zer darabiltzu jarririk burdi suzko batean,
Gabez estaldu, goizez azaldu, ainbeste urtean?
; Zer darabiltzu, diñot ostera, zuk Eguzkia.
Sekula lorik egin bagarik iratzarria?
¿Sei milla urtean ez aspertzeko. nor zara bada?
Zeru-munduen egilla aundia, zu ete zara?

Goizetan ozta zelan agertu zuk arpegia
Ikuste arren dalako esnatzen lodun guztia.

Zorigatxen bat ez dakizula gerta bidean,
Jarri ez zaiten joan ezinda zu onenean,
Bizi bearko geunkelako guk emen lurrean
Negargarri ta lazeriarik gogorrean.
¡ Agur! orduan egun, aste, ill eta urteak !
;Agur! negu baliz, agur ¡uda argi, loraz beteak?
¡Agur! jatorri, agur gizaldi, agur eunkiak !
;Agur! denporan aldantza eta egotaldiak!
¿Zeiñek markauko leuke orduan asierea?
¿Jayoeratik ill arteraño dogun bidea?
Ori litzake betikotasun baten antzera,
Lurrean bere bizi bearra modu batera.

Orrelakorik ezelan bere ez bedi gerta,
Lurrean bada iñorentzako konbeni ez da.
Gauzak sen baten iraun begie beste munduan,
Aldatu bitez betiko gisan baña emenguan.
Ill bitez zarrak, seintxoak jayo, azi umeak,
Mallarik malla aguratuaz igo gazteak.

Betoz egunak, asteak, illak, eta urteak,
Jira begie gizaldi eta eunki luzeak.
Lengo moduan jarraitu beye aize puztsuak,
Otzak, beroak, epelnk, eta ipar gozuak.
Triskau zaiteze burruka alkar odeizko taldak.
Zauri odolez gañeztu arte errekak danak.
Justuri soñu burrundara-ots dardargarriak.
Dantzan ikaraz asi-erazo atx ta mendiak.
Zeru-sutunpen bala suzkoak, erdue beera,
Gaztelutzar ta torre sendoak lurreratzera.
Urten zuk bere zerurañoko arku andia.
Gerren atzetik milla kolorez bakez jantzia.
Uda Ederra, agertu zaite negu onduan,
Loren atzetik milla kolorez bakez jantzia.
Negar aldiai jarrai beyoe atsegintsuak.
Gau baltz illunai urrengo egun eguzkitsuak.
Apaindu beye gabez izarrak zeru zabala :
Ik, Eguzkia, egunez poztu egik lur dana.
Bota egizak suzko saeta meiak zorura,
Nai duan beste, gitxi zeñ asko, nire burura.
Zugatz azpian giro-girotan kerizpetxo
Artuko juat irc leptok gozo-gozua.
Abil nai badok urrez jantzirik Febo arroa.
Izar guztien baintzan legetxe i Jaungoikoa,
Ua aurrera sart-alderaño, ta an obiturik,
Iratzarri naik, gaur legez bigar, goiz-goiz jagirik.
Azalako i gure erlojutzat Jaunak egiña,
Orduak zuzen marketan daukat egikizuna.
¡O! zorigatxa ¿nok Jaungoikotzat induan autu?
¡O! lazeria ¿zeñek benetan umill agurtu?
¡O! doakabe, ezbear eta ¡tsumendia !
Gizonarentzat intzalako izan agurgarria !
Alde urruti, denpora illun negargarriak !
¡ Ken, ken ! mundutik, gagozalako (edez argiak !
Gaur, Eguzkia, neurtu juaguz ire bideak,
Baita zenbatu egun, aste, ill eta urteak.
¿Jaungoikoa baintz, zeñek egingo induan neurtu?
¡Nundik ibilli, nok agindu ta zeñek markatu?
Barri guztiok ditugun legez jakin ireak.

¿Zelan ez dituk, mamotzar orrek, asmau gureak?
 ¿Zer balio jok ikusteak ik gerta aldiak?
 ¿Zer balio jok ikusteak ik gerra aundiak.
 Ikusi bai, ta ez badituzak gogoan artzen?
 Abere batek zentzun geyago jok erakusten.
 Beraz, ez az i, ezelanbere orren dontsua,
 Ez Jaungoiko ta ez biziduna, ez-ta altsua.
 Bakarrik az i, iñok eginda gauza ederra,
 Baña ik eurez ez dok aldatu ezer gañera.
 Ez az galantu, ez az matxartu, sortu ezkeru,
 Beti bardiña, beti, beti bat az egunero.
 Lenago, oraiñ, bai eta gero, beti bertatik,
 Jira-biraka jardun bear dok bide batetik.
 ¿Nun, gizaxoa, daukak guk dogun libertadea?
 ¿Gomuta, adimen, borondate ta ¿nun arimeaa?
 Ire aldean dontsua nok ni ¿o Eguzkia!
 Jaungoikoaren urrengoa dok gizon, aundia.

GORBEIAKO ARTZAIÑARENAK

Kantau begiez gloriak nai badabez gerrariak;
 Baña obeto kantau giñaikez artzain ta nekazariak,
 Gure biarrak ez diralako sekula negargarriak.
 Gerrari otpetsuenak etziran danak zuzenak,
 Euren artian guztiz ugari gaiztuak eta okerrak,
 Zeintzuen lanak ez diran asko ondria datorkuenak.
 Esango dot nik zer ziran nausi asko gudagintzan,
 Zenbat baserri, uri, erritan, jazarrarik izan bazan,
 An bizi ziran gixajoetan negar luzia jarri zan.
 Norberenez urten zedin, jazarran biar zan egiñ,
 Baña soldadu crrubagiak artzen ebela askok miñ.
 Buruzariak igote arren, ¿zeinbat alditan milla ill?
 Agaitik diñot nazala zorioneko ni bada,
 Nazalako gaur txabolatxuan bizi gatxik egin бага,
 Biotz zabalaz lo egin eta esniaz taina janda.

Kantetan beti bakia, geitu dedin artaldia,
 Artu dagian nekazariak naiko arto ta garia,
 Mundu guztiak izan dagian ugari bizigarria.

Guk erein arren solua, isten euskuen galdua,
 Gu biziaren aldera beti, arek bestera gogua,
 Ia ezpada nekazariaz desbardin bizi soldaua.

Beti gara gu pozgarri, iñoz bere ez izugarri,
 Alabantzarik emon ez arren munduak sekula gurí,
 ¿Sarrastadarik noz sartu deutsa gure soñuak iñori?

Dalako gure txistua dantzan eragitekua,
 Gerra tronpet-ots garratza barriz biotza larritzekua,
 Al diran gauzak batek arturik iges urrindutekua.

Ill bedi alan gerria, zeñegaz nago erria,
 Jaubia bidez izanagaitik, soldauak jan artaldia,
 Mundu onetan plagarik bada, axe bera bat dongia.

Iñoren miñez gloria daukana irabazia
 Sekula bere ez da niretzat gizon alabagarria ;
 Gerra zalia sarri alan da, gitxitan nekazaria.

UDA BARRIARI

Kantatu gura neuke gauza bat,
 kantatu, noa egitera,
 kantatu, ¿baña nok al leikean
 kantatu, gauza aiñ ederra?
 Kantatu, egidazu, biotza,
 kantatu, zuk bere, mingaña,
 kantari, aurrean dozulako
 kantetan gaur sortitza dana.
 Kantetan, orra or txoritxuak,
 kantetan, orra or bildotsak,
 kantetan, negua joan dala
 kantetan, zoraturik pozak.
 Kantetan, berdeturik mendiak,
 kantetan, baita bere atxak,
 kantetan, soñeko barriakaz,
 kantetan, gaur euren garaitzak.
 Kantetan, orra barriz zelayak,
 kantetan, orra loratxuak,
 kantetan, goixetik gaberaño, •

kantetan, agur dau neguak.
 Kantetan, basoetan artzaiña,
 kantetan, gaur jorik txistua,
 kantetan, ez dedilla biurtu
 barriro, ain negu gaiztua.
 Kantetan dabe zar ta gaztiak,
 kantetan gaur dago pobria
 kantetan, erdu ordu onean,
 zatoz, bai, ¡o uda barria!

RASEKRIKO JAÛN BATEN BIZITZA

Gogaitu ta asperturik erri aundietan
 Nun egon izan nazan gazte urtietan;
 Bizitza gozorik an ezin billaturik
 Baserri onetara nago biurturik,
 Emen jayo nintzan ta baita bere azi
 Zartzaroan atzera orain naz etorri.

Egiaz urietan dagoz gauz aundiak,
 Zeintzuk niretzat ziran len zoragarriak;
 Orain obeak emen ditudaz ikusten,
 Pentsetan dodalako beste modu baten,
 Gaztea nintzanetik zartu na/anean
 Izatean dagozan gauzoen gaiñean.

¿Zer nekutsazan nik an? gizonaren lanak ;
 Emen ikusten dodaz Jaungoikoarenak.
 Orrexek aztertuten zoro oi naz jarri,
 Diralako benetan danak arrigarri;
 Berak bakar-bakarrik, bestek ezin leikez:
 Gauza miragarririk ez da egin berez.

Zelan ez dituezan nik lako begiak.
 Euren adimentuan gaur nekazariak;
 Uriko gauzaz oneek dira arrituten,
 Emengoak uts legez jakez iragoten,
 Ta ara askotan doaz erdi zoratuak
 Ikustera, eukirik baserrian obak.

¡O ene baserriko bakartadetxoa !
 Zu zaitut neure poz ta atsegiñ osoa,
 Nire adimenaren eskola aundia,

Arimako onaren leku egokia;
¡Sentidu guztientzat ze gozagarriak
Eskinten deustazuzan noizik beñ barriak!

Tint askok uste dabe ez dala neguan
Baserrian zer gozau uriko onduan:
Orduan dakustaz nik ereiñik aziak
Udan emon daiezan ale ugariak:
Edurra harriz bada zerutik jausiten.
Deritxat dagozala koipez gozotuten.

¡Nun da udabarrian ikusgei aiñ onik.
Urietan, nik emen dodazan lakorik!
Zelako lora polit usaintsu ederrak
¡Zoragarriak oso! baldin au gizonak
Jarten badauz begiak, gogo ta zentzuna.
Topauko dau ugari miraritasuna.

¿Zer diñot, zer, elduten danean udia?
Alde guztietara, au da pozgarria!
Zenbat orripetxotan fruta eztitsiak
Dakustaz gorde nairik lotsaz mordotxuak:
Geriza, ginda, bardin musikak. sagarrak.
Makatz urtsu. mizpira eta okaranak.

Laugarren tandarako da uda azkena:
Biotzak gozau daian au ez da txarrena.
Ikusirik batuten ale ugariak
Mundu guztiarentzat onetsigarriak;
Gaiñera ordaindurik nekazari lanak
Arrastaka izerdi botariko danak.

Gauza asko oraiñdik dodaz gozagarri:
Landa zelai berdeak ibillteko toki
Itzal otzaroetan aixe mee gozotan.
Ur bizi mueta asko iturritxoetan.
Eizatzat erbi asko, arraintzat sarbuak.
Goix iratzarri nadin txorien kantuak.

Eta gabetan barriz illargi argitan
Begiak josten ditut zero urdiñetan.
Gomutaurik euretan Jaungoikoa dala
Guretzat aiñ ederrak egin zituzana:
Gogamen onek pozez danau zoraturik,
Lo gozo eztitsuan jarten naz etzunik.

Beste bat bere badot emen gozamina
 Urietako askok artuko leukena:
 Lotsa aundi bat deuste guztiak auzuan;
 Kalean aintzakotzat iñok ez ninduan,
 Jauna danak diñoste, txapelak erantzi;
 Ill arteraño emen gura neuke bizi.

POLITIKAKO KANTUAK

Negarren jainkosa, samurtu nagizu,
 Egin dagidan malkoz biotz danau urtu;
 Antxiña emon neutsun lenengo tantia,
 Baita beterik itxi zure edontzia.
 Urteokaz nik egin ez arren negarrik,
 Ibilli nazalako erdi zoraturik.

Iñok baño obeto zuk bada dakizu,
 Mundura zelan nintzan ozta-ozta agertu;
 Zure lira tristea joten bereala,
 Garrasi ta negarrez nik ekin neutsala,
 Naiz-ta gero lurreko gauzen durunduak,
 Itxi arren negar ots guztiak ituak.

Ego baketsuekaz jatsi ta zatorkit,
 Begiok estaltzera eurokaz bertotik:
 Erdu, ta eldu zaitez, zatoz bereala,
 Jo dagidan gaur lirau, zuk emon zeunstana :
 Negarrez soñututen lagun egidazu.
 ¿Ez al dakizu ondo, zer jatan gertatu?

Zenbat aldiz lenago ames zoroetau,
 Poztuten zan biotz au etorkizunetan,
 Usterik ziur ziur egunen batian,
 Koronel izatea neure batalloian;
 Desegiñ ziran baña alako amesak,
 Begitanziño areek gaur jataz garratzak.

¿Zer dira inguratzen naben gogamenak?
 Biotz au illun-illun ipinten deustenak?
 ¡Ai! dira gaztetako esperantz aundiak,
 Beti neure aldera danak ikusiak;

Baña partiduetan geyegiko pozak,
Izan oi dira barruz mokol arro utsak.

Deslaurik umeak eta emaztea;
Eskutatu neban nik gure banderea,
; Zorigaiztoko kontu politikakuak,
Ekarri deustazuez egun ain estuak !
Nire egiñ-bearra uste dot etzala,
Umeak ta andrea zaintzea ezpada.

Orañ bildurrez nago dala kastigua,
Geixotasun ta gatx au Jaunak bialdua;
Egun batean gerran preso nintzan jausi.
Ugarte onetara ninduen ekarri,
Galdurik umeak ta galdurik andrea,
Galdu dot osasuna, ta ia bizitzea.

Zelan bialdu orañ zizpuru samur bat,
Emazte ta umeai iñogaz ez daukat.
Aixeak zarioiazan odeitxo zuria,
Ai baziña niretzat gaur mandataria;
Eta or itxasoan zabiltzazen bagak,
Eroan bazengiez nire negar tantak.

Bestelan egan azkar zoazan elaiia,
; Artuko al deustazu, arren, errukia !
Iragolen bazara nire etxe aldetik,
Diñotsut biotz eta arima arimatik,
Ene emazte maite ta ume laztanai,
Gorantzia illunak emoteko danai.

Azkenez, biotzeko amodio-garra,
Tximista biurturik zoaz, zoaz, bada ;
Baita zeugaz batera nire espiritua,
Gorputzetik urten da bijua, bijua,
Agurtzcra umeak ta andrea betiko,
Bakarrik gaur ementxe nazalako illgo.

BASERRITAR BATENA

(*Neure adiskide D. Bizente Arana Jaunari*)

Vanitas igitur est, divitias perituras quaerere et in illis sperare. *Kempis*. Lib. 1, cap.

Banidadea da bada laster amaituko diran ondasunen billa ibiltea eta eurretan konfiantza ipintea. *Kempisek* 1 liburuan 4.n kapituluan.

Txistuzko orroez lurrin ta ketsu
 Ur zelayetan aurrera
 Doian ontzia, urrinduagaz
 Urten egin dan aldera,
 Eta bertako jente piztia
 Agur ta agurka lurrera.
 ¿Ete doaku benturaz iñoz
 Ez biurtzeko atzera,
 Ainbeste ama negar-txilioz
 Emen itxiten dabela?

Eldu zakidaz gaur enegana,
 Neure musatxo aiñ leuna,
 Eldu zakidaz argilutera
 Neure adimen illuna;
 Eldu zakidaz neurtiztu daidan
 Zer dan zoriontasuna.
 Neurtiztu daidan gazte askoren
 Gaurko zoriontasuna,
 Neurtitzez gura neuskielako
 Buruan sartu zentzuna-

Neurtitz oneetan ikusi daien
 Doatsuera lurrean,
 Gozau daikela uste ez arren
 Naiñok baserri etxean,
 Bizirik bertan Jaungoikoaren
 Bildur santu ta legean;
 Itxasoetan joan bagarik

Zoriontasun atzean,
Gaurko ontzian doazan legez
Gorputz ta arimen kaltean.

Gorputz arimak biak galtzera
Euskaldun zentzunik bagak,
Mutill ta neskatx baserrietan
Zuzen etozan landarak.
¡O baña miña! Amerikara
Orain joaten diranak:
Aize biurrak geyenez oi dauz
Beruntz makurtzen dan-danak,
Añ abe liraiñ emen zeruruntz
Zerden igoko ziranak!

Zerden igoko zirala diñot
Jayo zirean lurretan,
Aretx tantaien gisan indartsu
Emengo mendi tartetan;
Ementxe gero bizi izateko
Urte asko Ia luzeetan,
Gorputzean ta bardiu ariman
Osasun onaz bietan,
Aita zar asko dakusgun legez
Euskaldun baserrietan.

¡O baserriko bizitza gozo,
Zaukadazana etxean!
¿Nok topau zaikez urez andik
Ameriketa aldean?
¿Nok topau zaikez ain beste kasta
Loi ta zikiñen artean?
Iñok bere ez an, ezelan bere,
Kantari onen ustean,
Orren probeta dakustalako
Garbiro neure etxean.

Nire etxean sagar zintzoak
Ez dau osatzen ustelik,
Nastu bagarik ustelak baña
Ez dau itxiten lagunik;
Au alan dala, zelan ez dodan
Erakusteko bildurrik,

Amerikako kontuak orra
 Irudi baten esanik;
 Orra an zelan gaur ez dagoan
 Arimarako gauz onik...

Mundu onetan arima geyen
 Nai dodalako maitatu,
 Urez aruntza iragoteak
 Oi nau osoro bildurtu:
 Agaitik jayo nintzan tokian
 Bertan nai neuke amaitu,
 Bertan naiz pobre biziagaitik
 Doatsuera billatu.
 ¡O birtutea! zu zaukazanak
 Zoriona dau aurkitu.

Zu zaukazanak balitza bere
 Egingo dirutzen jaube,
 Daki doatsu ez litekela
 Egingo orregaitik bere,
 Iturri danen urakaz zelan
 Ez dan itxasorik bete;
 Daki gizonen zuloa ez dala
 Iñoz ondasunez ase,
 Naiz izan konde, zein izan rnarques,
 Alperrik izan Errege.

Zu zaukazanak zelan aiñ ondo
 Lurrau daukan ezautua,
 Banidadctzak dauka armak
 Billa tzen daben gustua;
 Daki Jesusek esau ebala
 Ganbeloaren burua,
 Orralz zulentatik iragotia
 Dogula errezagua,
 Aberats batek jaditsi baño
 Betiko salbaziñua.

Zu zaukazanak kamaleonen
 Gisan ez dau nai nekatu,
 Dakielako aizez goserik
 Ezin leitela amaitu,
 Zelan ibairik ez dan sekula

Iñoz guruntzu biurtu;
Daki arima ezin leitela
Beeko gauzetan geratu,
Dalako berez odeiez gora
Bear dabena egatu.

Zu zaukazanak agaitik oi dau
Billatzen bere ertegia,
Zu zaukazanak beti aurkitzen
Beraren Ipartokia:
Zu zaukazanak oreñak baño
Ariñago iturria,
Zerren biotza daukan aiñ sendo
Jaungoikoagan josia,
Bera dalako Ipar-ertegi
Ta atsegiñ danen sustraia.

Zu zaukazanak dakusanean
Txoritxoren bat kantetan,
Ez dana iñoz etortekoaz
Bildurrez ezer penetan,
Begiraturik bere soñeko
Luma politezkoetan,
Mirariturik Jaungoikoaren
Probidentziaz benetan.
Autortuten dau ardura obea
Daukala arek gizonetan.

Zu zaukazana nekazaritzan
Sendo egiñik bearra,
Egunoroko ogiaz dago
Pozetan biziten dala:
Zu zaukazana andrea bada,
Amazte bat da leiala,
Senarra bada Jaungoikoaren
Bildur santua daukana;
Semea edo alaba bada
Gurasoentzat otzana.

Zu zaukazanak umeakaz **dau**
Etxean otoitz egiten.
Iragokoak atsekaberik
Ez deutse iñoz emoten;

Etortekoak bere geyegi
 Ez dau egundo estutzen.
 Dakialako bein bere Jaunak
 Hat ez dabela itxiten.
 Baldin badeutsa biotz ta fedez
 Aita gurea deituten.

o
 Zu zankazanak ondasun askoz
 Euki ez arren etxea.
 Orregaitiño beragaz dauka
 Aukeran libertadea :
 Gizon bildurrak ez deutsalako
 Kentzen arin logurea,
 Morrollu sendoz ez dauka zetan
 Gabetan itxi atea,
 Dakialako ez doakola
 Lapurren diruzalea.

Zu zaukazanak azkenez nasaĭ
 Baserrian bizi dala,
 Kezka bagarik daroa eguna.
 Lo gozo eztian gaba;
 Zu zaukazana zelan dan bizi
 Orra neurtitzez esana.
 Orra dirutza asko bagarik,
 Zorioneko izanda:
 Zoriondunik ez dago emen.
 Birtutetsun ezpada.

"

GERREA

Lenengo osasuna,
 Bigarren bakea.
 Biziteko on dira
 Bata ta bestea.

Aberea abere dalako jayoten,
 Errazoe bagako beti ikusten,
 Baña zentzun ezduna naiz dala aurkitzen.
 ¿Noz dau bere lagunik illotzik botaten,
 Iñoz bata besteaz aserratu arren?

Ez da mirari, bada, ganau zentzun bagak
Ikustea egiten nozbaiten jazarrak,
Zerren daukozalako jayokeraz armak,
Tronpa, agin, adarrak, erpe eta zarpak;
Baña baketsuaren antza dau gizonak.

Bizidun guztietan au da ezaguna,
Berba egiteko onek dauka mingañ leuna.
Barrea agertzeko bere esker ona,
Errukia artzeko biotz aiñ biguna,
Alkar adietako buru zentzunduna.

Bestek ezbadauz bada bizidun artean,
Gizonaren doerik beregaz aldean,
¿Zelan au ikusten dot abere antzean?
¿Zelan bere lagunai ekiten pelean?
¿Jayokeraz baketsu badator soñean?

¿Zelan, atzera diñot, errazoi ta guzti,
Iru almen dituan arimeaz nasi,
Dabil au gau ta egun esetsi ta esetsi?
Gorago dagoana beian nairik euki,
Mitxiñadak asmetan egin arte nausi?

¡O zorigaiztoko! ¡O andigurea!
Jayoten diran gizon geyenen griñea!
Emendik sortu oi da geyenez gerrea,
Emendixek atera orren gatx dongea.
Ainbeste atsekabe dakarren plagea.

Emendik, bai, emendik, dalako sustraia,
Griña oker danentzat bai andikeria,
Edo deitu oi dana bardin soberbia,
Zerren bere aita dan Txerren itxusia.
Jaungoikoaren kontra zeruan jagia

Onek jarri oi ditu gizonak gerretan.
Beronek pillatzeko frutuak eurretan.
Onek ixotzen dau sua biotzetan,
Adorau daien Marte kanpo zabaletan,
Bere serbitzariak odol erreketan.

Gerran agaitik nun-nai dantzut ayenea,
Nun-nai negar, txilio, nun-nai kurriskea,
Nun-nai erruki baga, gizona iltea,

II.—LIRIKA KANTUAK

Nun-nai erru bagako odol edatea,
Beragaz egarria nun-nai kendutea.

Orregaitik gorrotoz dakus gerra Jaunak
Baita begi txarrakaz errege-gei zurrak,
Dakilazalako bere ondore zitalak.
Negarrez baño kontau ezin leikezanak,
Diralako on gitxi, beste danak txarrak.

Loitu oi dira gerran oitura txito onak,
Etsaitu bere sarri len lagun ziranak,
Galdu artu emonak merkatarienak.
Atzeratu arteak, baita ikaspenak,
Ostu eskubiderik legez zuzenenak.

Gerran, atxak ikusten ditugu dardaraz,
Erriak kiskalduten suaz eta garraz,
Zerua zenbat aldiz arpegi illunaz,
Ez dabelako egin iñoz gizonakaz,
Orrenbeste zorigatx bere tximistakaz.

Aiñ da bada gerrea aiñ plaga gaiztua,
Askoz obetzat daukat kolera murmuu :
Orduan umiltzen da gizon anditsua;
Gerran, baña, makurtze ez arren burua.
Naiago dau ikusi dana auts biurtua.

BAKEA

Lurrean ezer beste gauzarik
Bakeak ez dau bardingarririk:
Naiz izan urre gorria,
Baldin bagagoz gerran nasturik
Etxaku aiñ pozgarria.

Gerra denporan bildurra danak
Dauke gitxi zeñ asko daukanak;
Danik pobreena barriz,
Bake denporan bear ta lanak
Dauka kontentuz beterik.

Zorioneko bake dontsua.
Zeruetatik jatsitakua.

Zatzakuz orren ederra,
On guztietan aukeratua.
Ziñan etorri lurrera.

Da antxiñako esaerea:
«Osasunagaz naste bakea»,
Dirala lenen guretzat:
Eurak bagarik Erregetzea,
Bere nai ez dot neuretzat.

Errege bere dabil artega.
Galdu bajako bake ederra,
Gau eta egun asmuan,
Nundik ekarri lengo senera
Zoriona erreñuan.

Baña Erria bake-bakean
Gerra bagarik dagonean.
Pobrea txabolan bere
Bizi da atsegin bete betean,
Izan ez arren Errege.

LARROSA ZORO BATI

Larrosa eder ixíotu ta gar antzekoa.
Esaterako atzo goixean jayotukoa,
¿Zelan zakustaz, aiñ alegere. pozez betea?
¿ Zelan Zeruak emoten deutsun bizi pusken
Egan badoa, dirudiala putz tn aixea?
¿Zelan ez dabe balio zure anditasunak?
¿Zelan purpura darakuskuzun nausitasunak.
Atzeratzeko aduak egin gura deutsuna.
Dakustalako zure egoen galantasuna,
Doiala galtzen berealaxe gartzetasuna?
Luma ederrok ¿ez d'ra emonak Amodiuak?
¿Urre gorritzko ulleok bere ak bialduak?
Izan ziñaiten bere irudi bizi bizia,
Izan ziñaiten bere ispillu garbi garbia.
Izan ziñaiten bere antzeko egi-egia.
Izan ziñaiten gorri ederrez parahagia.
Dirudizula Jaunaren odolagaz bustia?

Eta, alanbere, ¿ezingo dozu puskat luzatu.
 Bizitza ori ez dakizun aiñ laster amaitu?
 Eguzkiaren tximist zorrotzak puskat mozturik
 Etzagiezan billosik itxi gaur mutilldurik;
 Goizean neskatz zareala zu ezagaturik.
 Arratserako zaituelako izten sarturik,
 Ezain, itxusi, edertasuna oso kendurik?

Baña alperrik, larrosatxoa, natxatzu mintza,
 Alperrik deusut bertsua bola, alper neurtitza,
 Zerren aurrera doian bidean gure sortitza,
 Zerren beragaz naste daroien gure bizitza.

Orri zabalok zimeldu jatzuz, doaz lurrera,
 Antxe usteldu, antxe simaurtu, sats egitera,
 Zapo, koko ta ar atsituak gizendutera ;
 Eta, benturaz, nik bere biyar, zure antzera,
 Barko dot joan euren gosea asetutera.

¡O! zeñ laburra jatzun bizia, larrosatxoa! ,
 ¡O! baña nar aiñ zorrotz artean ez txit gozoa!
 Gozoa zara ¡baña urrean dozuz arantzak,
 Kiñatuteko zure gorputza diranak latzak,
 Zeñen kiñadak onean artzen direan gatxak!

¡O! zeñ garbiro irudituten dozun gizona!
 ¡O! zeñ ederto arrorik eta estu dagona !
 ¡O! zeñ argiro bere zorion iragokorra !
 ¡O! zeñ benetan bera gozetan dakarren lorra !

Edertasuna, zure antzera da kanpokoa,
 Zure antzera, gazte denpora laburrekua,
 Zure antzera, maiteegi badau iñok mundua.
 Zure antzera, betiko legez balitz jayoa ;
 Zure antzera, narrez izanik inguratua.
 Zure antzera, azkenez bada txoriburua,
 Zure antzera, esango neuke dala zoria.
 Zerren zorrotz at zaukadazan zu, larrosatxua.

UDA BARRIA

Ene adiskide on Antonio Trueba Jaunari

Negu baltzean atso bat legez zan izatea.
Orain dakusgu burua zabal dakarrela,
Apainduagaz bere uleaz neskatxen gisan,
Itxaropenez gorputza jantzi oi dabela.

Ikustekorik ikusgarrien oraiñ au dogu,
Begira daigun kanpoetara gaur bestela,
Zelan dagozan jayorik milla lora mueta,
Euren lurrunaz atseginduten gaituela.

Aizea dator gaur bigunago len baño emen.
Gozogarri da bat jarritea bera artzen,
Zeñen bagetan txori politak egan dabiltzan.
Uda barria etorri dala iragarten.

Ontziak doaz zabalduagaz bela zuriak,
Ekatz gaiztoak ez dauz len legez bildurtuten.
Amerikara joan zirean egazti asko,
Asirik dagoz barriro onuntz biurtuten-

Artzaiñak dabez txilibituak ur korrontaren
Alboko landan kerizpetxotan soñututen;
Auntzkumak eta bildots guriak, dantzan egiñaz.
Emoten dabe zer eldu jakun adituten.

Txal ta moxalak salto ta brinkoz besteen gisan.
Gogo argia deuskue bere erakusten;
Leyak kiskaldu zituzan lurak nekazariak,
Layez ditu itzuliagaz astinduten.

Egun sentiak ezotuten dauz urrezko perlaz.
Lurak agertu dituzan lora ta bitxiak,
Dirudienak egon dirala len ezkutuan.
Ikusi daizan uda barrian Eguzkiak.

«Ongi etorri» esaten deutse Errege bati
Oi jakon legez landara samur aiñ guriak,
Eta besteak zeinbat gorago igoten daben,
Obetoago ezarten deutsez bi begiak.

Agurak bere bota dituez kapa lodiak.
Ikusten dira gaur txairoago kaleetan,
Eta atsoak bizkor-bizkorrik lengo aldean,
Ez daukelako ainbeste sorki gorputzetan.

Gazteak barriz poztuten dira ezin geyago,
Euren gogoa dakarrelako piestetan;
Eiza zaleak oia itxirik goixetik doaz
Ibilte arren erbi atzean mendietan.

Ugaraxoak asirik dagoz kar, kar egiten,
Txindurri piñak abiau dira bearrean,
Burruudaraka erleak dabiltz lorarik lora,
Eztigintzako egoki diran gei atzean.

Kukuak ku, ku, zozoak zor, zor, negutak txuiñ
Birigarroak barriz tantaien gallurrean. (txuiñ.
Kantetan dabe danak guztiak etorri dala
Uda barria negu baltzaren ondorean.

NEGU AGURA ZAR BURU ZURIA

Agura guztiz zantar eta erkin, zital bat,
Negua deritxona, gaur da agintari;
Arpegiz baltz, zikin ta izurtsu izan arren,
Nai ta ez obeditzen deutsagu berari.

Bizi da basamortu bakartsu illun baten,
Otzen otzaz agiñak jakoz dantzatuten;
Malko gogortuakaz labanduten dau lurra,
Txistu izoztuakaz gañera loituten.

Eguzkia guztizko gitxitan ikusten dau,
Begiraturik zear toki urriñetik;
Gaba eguna baño geiago dau ametan.
Ez dau aldendu gura leku añubetik.

Bere arnasea da zorrotz, miñ, illgarria,
Surretako lurrunaz nai-nor dau bildurtzen;
Bizi da dardar leitan, orria aizetun legez,
Urak bere putzagaz arri dauz biurtzen.

Sustraiak dirudie bere zanko zimelak,
Errama igar batzuk bere beso meiak.
Arte zaill guztiz zar bat gorputz aiñ sikatuak.
Zati guztiak daukaz ganora bagiak.

Ikusgarri aiñ ezaiñ ta onen itxusiak,
Ama sortitza dauka oso tristetuta :

Jantzi berdeak deutzaz kiskaldu surik baua.
Narru gorritz itxi dau leilan alatuta.

Billox dakusanean burla geiagorako
Agura arek deutsa eyoten kapea,
Kolore ederduna ; baña berotuteko
Jaunak ez eban egin alako trastea.

Zeinbat lodiago dan estalki zuri ori,
Deituten deutzaguna Bizkayan edurra,
Ainbat beraganako zugatzik mardoenak
Biotzeraño dauke sarturik bildurra.

Agura maltsiñari oluko balitxako
Ulle dana ebai ta onuntz botatea.
Errez gertau leiteke bere pisu andiaz
Zugatzak beso baga asko geratzea.

Eta ¿nun ete dira udako lora polit,
Ainbeste fruta mota nun dira saltuak?
Zorionean dagoz nunbaiten ezkurtarik,
Kiskalduko zituan bestelan neguak.

Ez dago jakin baño satorrak bildurturik
Lur barruan noraño direan sartuten,
Txindurritxoak aurrez egindako etxean
Pillatutako janaz gaur dira zaillduten.

Erle burrundari hat orain ez da sometan,
Ondotxo ostendurik dagoz erlautzean ;
Udan batu ebezan loratxoai eskerrak,
Osterantzean larri biziko zirean.

Txori buru ariñak laguntza billa dabiltz.
Baña ez deutse bere jaramonik eiten.
Dalako Agure au arrizko biotzduna,
Gaixoak isten ditu lazerían ilten.

Aiñ da gogorra eze pobre guztientzako,
Oneek ikusten dira gaur asko negarrez,
Garrasiz ta uluka ill dedilla Negua,
Eta bizi dedilla Udea deadarrez.

AMA BATEN SENTIMENTUA

Ardiak egin pekatu,
baña bidotsak pagatu. (*Esaerea*)

Laster mutillzen da larrosa bat.
Zotz bat bereala ausi,
Kristal bat brintzau golpeaz errez,
Argi bat putzaz itzali:
Modu berean baten aiñ laster
Biotza jatan erdi bi,
Uste bagako barri samin bat
Jatalako eldu neuroni.

Egazti batek maítetuten dau
Txit asko bere abia,
Lañoak legez baita lurrinak
Laztandu oi dabe goya:
Itxas orratzak ipar aldea,
Arriak bere ertegia,
Alantxe maite nik bere neban
Seme bat maitegarria.

Zorioneko edo txarreko.
Gerra bat emen sortu zan,
;Zeinbat ama on seme bagarik
Gaizki ipiñi ginduzan!
Garaitza zala kanpaiak joaz
Jolasa ugari bazan,
Baña ez dakit biamonean
Zelan miñez ill ez nintzan.

Armadatzar bat musika joten
Sartuten jaku errian;
Ni bizi nintzan etxe aurretik
;Biba gu! oska bajoian.
Soldadu batek diño penaurik:
«Jose ill jaku goixian;
»Beraren ama gaixoa, ustez.
»Bizi da ortxe etxian.»

Tximistak ez dau iñoz aiñ errez
Zugatz igarrik urratu,
Zeinda berba areek nire biotza

Eben guztia zatitu ;
Ez eguzkiak iñoz aiñ laster
Edur tantarik bere urtu,
Zelan barri ak nire begiok
Malko zituzan biurtu.

Seme bat euki, bera soldadu
Eroan eusten gerrara;
Orduan etzan beste nausirik
Agintari zan indarra;
Eta gaur barriz zartzarorako
Dot semearen bearra ;
Baña niri a kendu eustanak
Ez deust gozotzen negarra.

Euskal-errian esaera au
Antxiñakoa daukagu.
Ardiak egin pekatu eta
Bildotsak bear pagatu.
Esakune au asmau ebanak
Ez eban ezer erratu:
Ama gaxo au egia orren
Ona emen bat testigu.

AITA ZAR BATEN ESPERANTZA

¿Zelan bada gizona sarri dot ikusten
Arrisku andietan errez dala sartzen?
Ordu une danetan bizi nekatuten,
Lorik egin bagarik gabak iragoten,
Burua ausiten, bizia laburtzen,

Osasuna galtzen,
¿Es badeutsa pozen bal zerbaitek emoten?
Alan itandu leiket ez danak zolia,
¿Zer da orren pozgarri zu, bertsolaria?
Nik erantzungo deusat ¿o adiskidia !
Esperantza bat oso dudarik bagia,
Aberats andia, ezerdun txikia,

Bardin ezeukia,
Poztuteko munduko bizidun guztia.

Bestetan, ¿zelan dakust nik nekazaria
 Egunera baño len oetik jagia?
 Soluetan lanean goizetik asia,
 Itzaiña idiakaz arturik burdia,
 Naiz eguraldia, izan otzegia,

Zein beroegia,

¿ Ezpaleu esperanzan poza ipiñia?

¿Zenbat jakitun andi zoro diran jarri!
 Diralako egunez ta gabaz ibilli,
 Atsedeen emon bage iñoz gorputzari,
 Ta bai eriotzea sarri buruari,
 Egiñik ekarri, zergaitik larregi,

Ziran ikasian,

Pozturik gloriaren esperantzeari.

¡O! ta zenbat gerran ziran azartuak,
 Burruketan sarturik aiñ amurratuak,
 Beingo baten istera etsayak goituak
 Izan arren sarritan eurak menpetuak,
 Edo lolsatuak, iges bialduak,

Baña sendotuak,

Esperantzak jarten dauz barriro gaixuak.

Itxasgizonak bere ditugu ikusten,
 Arrisku andietan uretan ibiltan,
 Ta onen onenean sarri ondatuten,
 Ontzi ta ontzizaiñak bertantxe galduten,
 Batzuek urteten, besteak itoten...

Diranak salbauten,

¿Ez dira esperantzaz ostera joaten?
 Azkenez, ¿zer egin lei dntzanak geisorik?

¿Osatu leileala ez euki usterik?

Ez neuke siñistuko aiñ gauza okerrik,
 Ta bai osagarriak gogo onaz arturik,
 Jaunak lagundurik, ikusteko onik

Len legez oraindak,

Esperantzeak dauka geisoa pozturik.
 Errukarrizat ez dot iñoz ezeukia,
 Aiñ gitxi aberats bat lurrera jausia,
 Gerran menpetu ta jakitun txikia,

Ezta luzaro oian dagoan eria,
 Orren azkarria, nik dot eretxia,
 Dala mingarria,
 Esperantza bagako errukigarria
 ¡ O ! neure biotzeko esperantza ona !
 Zuri begira pozik ni euki nozuna !
 Ez egizu nai arren beti alan baña.
 Poz onetan bakarrik ni bizi nadilla.
 Ezpada bestera, obeto aurrera,
 Esperantz ederra,
 Sartu nagizu laster atsegin betera.
 Egiaz ni geisorik ez naz iñoz izan.
 Baña beti arlote bai mundu onetan,
 Semetxo bat joanik dot Ameriketan.
 Jakinik nago zelan aberastua dan.
 Pozez nagoala, a datorren eran.
 Urrengoko udan,
 Aberats biziteko ni bere esperantzan.

ETORKIZUNA

^T
¹
 Iragokoa irago ziñan,
 Baña betiko irago;
 ¡Ai! ezagutu nik bazindudaz
 Irago baño lenago.
 Iragoaren biurtuterik
 Ez dodalako geiago,
 Etorkízunaz bildurrez larri
 Eta ikaraz txit nago,
 Enazalako etorkízunaz
 Kontuan jausi gaurdaño.
 Etorkizunak. etorkizunak,
 ¡ Zelan ninduan poztuten!
 Mendi gañeko zelai eder bat
 Au jatan begitanduten;
 Etorkizuna loraz jantzirik
 Baneban bere ikusten,
 Etorkízunaz siñislari au

Banintzan bere puztuten,
 Etorkizunaz desengañauta
 Naz baña gaur esnatuten.

Ezkutau eustan etorkizunak
 Bere eguzki argia.
 Estaldu eustan etorkizunak
 Bere goix zoragarria.
 Ostendu eustan etorkizunak
 Uda barriko arpegia,
 Gorde betiko etorkizunak
 Itxaropen on guztia.
 Len pozgei jatan etorkizuna
 Orañ jat illungarria.

Jayoa doa koskonduagaz
 Lenengo ainbat urtean,
 Gaztea bere goruntz ¡goaz
 Bizitzan aldats latzean,
 Piesta zaleen gisan zantzo ta
 Uju-ujuka bidean.
 Etorkizun bat alegerea
 Topetea ustez gañean,
 Ames egiñaz biziteko ondo
 Gora elduten danean.

¡A! igo neban nik bere gora.
 Baña ez topau zelaitza,
 Ezpada ota, sastraka asko.
 Nartzea eta arantza ;
 Billatu neban mendi guena
 Zelayen orde zorroztza;
 Poztu ninduan etorkizuna
 Zan irudi uts, zan bitsa.
 Iduri utsa, bitsa, amesa
 Dalako gure bizitza.

Zartu egin dan guztiak deutsa
 Mendi orri igo gañera,
 Baña atsedeen nun ez topaurik
 Jarrai bear da aurrera.
 Eguerdia artuagaz bat
 Eguzkiaren antzera;

Gizona bere iragoten da
 Bizitzan arratsaldera,
 Etorkizuna joan ezker
 Baña ez dator atzera.

Atzea cdo oste aldea
 Gelditzen jaku gauturik,
 Etorkizunak ezin dabela
 Araño bota argirik,
 Eguzki onek igex eginda
 A geratu zan illunik;
 Irago ezker bide artatik
 Aurreruntz baten bakarrik,
 Ale sendoaz geratuten da
 Bein ta betiko itxirik.

Zarturik nago arratsaldeko
 Eguzkiaren antzean,
 Aurkietan naz beeko zokora
 Laster joteko urrean,
 Eriotzea jabetua da
 Irago dodan bidean;
 Etorkizunak erakusten deust
 Obi sakon bat aurrean,
 Etorkizunak nora daroan
 Orra gizona azkenean.

URTEROKO KONTUAK

Etxegaray-ko Karmelo neure adiskideari

Karmelo, alegere jaku agerketan
 Udabarri zoroa urte guztietan,
 Loraz apainketan.
 Dituala kanpoak ederto jantzirik,
 L rteroko soñua uts egin bagarik.
 Udea egiten da bigarrengo sortu,
 Beroaz egiteko mendiak leortu.

Txarkoak mututu,
 Eroateagaitik Donosti aldera
 Jentea orko aixe giroa artzera.

Irugarrenak Uda-azkena izen dauka.
 An hetri dator gari ta artoa opaka,
 Sagardau botaka ;
 Askoz prestuago da beste biak baño,
 Pobreai egiteko mesede geiago.
 Raña gaur sartzen gara. Karmelo, neguan.
 Aurtengo au ez dakit Belan izango dan,
 Aurkitzen naz dudan,
 Edurrak beintzat atzo poztu ez ninduan.
 Fara-fara jausiten emen ziarduan;
 Negu au bada igaz zan legez zitala,
 Egurrik ez daukanak bildu dagiala.
 Bestelan su baga,
 Triste iragoko dau aurtan Gabon gaba.
 Gabon ondo irago ;o lagun lastana !
 Zergaitik dirudian euskaldunen gaba,
 Jesus jayo zana,
 Itxaroten ala,
 Dozu zeure ama,
 Noz joko ete dozun etxean aldaba.
 Baturik euskaldunak geure ezkaratzetan.
 Gabon kanta zarrakaz gomutau gaitezan;
 Txurru bat geitxoago edan arren bere,
 Esan leike Gabonez au dogula libre;
 Eta nik sutondoan kantetako aurtan,
 Urrengo bertso biok ditudaz ipinten:
 «Biba Jesus, ta biba Maria ta Jose,
 Anjela, edan daigun beste baso bete.»

EIBAR'KO BURDIN-BIDEAREN
ESTREÑAKO KANTUA

Ixi, xixi, ixildu.	Gu bere mutuak,
Txori barritsuak;	Gazte, zar, aberats la
Ixildu, errekatxo	Pobre gizajuak,
Zentzun bagakuak;	Entzun daiguzan ondo
Ixildu ;o abere	Tren-txistu soñuak.
Basuetakuak !	;O egun, baña egun
Gagozalako emen	Goguangularria,

Sekula ez du ilgo
 Zure gomutia!
 Kondairean izango
 Zara ipiñia,
 Bedeinkatu dagigun
 Jaungoiko aundia:
 Or, or datorrelako
 Tren txistularia.
 Iragorik azpitik
 Eizako mendia.
 Ongi, ongi elorri,
 Ongi, tren dontsua;
 Aspaldian genduan
 Zure desiuia :
 Zu errezibitzeko
 Jantzi da Zerua.
 Eguzkia jagi da

Gaur argiagua,
 Illargiak estreñau
 Ei dau soñekua.
 Izarrez iñoz baño
 Apainduagua.
 Zure lurrun ta keia
 Jaku pozgarria,
 Lur leorrari legez
 Trumoi ta euria.
 Geyenez oi dalako
 Au izan ogia;
 Zu bere zara gure
 Mesedegarria;
 Zuk, zuk biztuko dozu
 Gure industria,
 ¡Bizi dediñ! ¡bai! ¡bizi
 Eibarko erria !

GIZONAREN ALTASUNA

Jaungoikoak egiñik
 Gizonari argi,
 Onek atera ditu
 Zeinbat gauza barri:
 Oraindio badauka
 Zer asmau ugari.
 Gura gendukelako
 Aidian ibilli.

Etorriko balira
 Asabak mundura,
 Ez leukee ezagutuko
 Jayo ziran lurra :
 ¡ *Aiñ da* aundiya eze
 Ein daben biurra.
 Len bide luze zana
 Gaur dogu laburra !

Legoak ta legoak
 Itxirik atzian.
 Egaztiak duiñ bizkor
 Gaur guaz trenian:
 Mundua jiraturik
 Lau illabetian,
 Barrero sartzen gara
 Urtendako etxian.

Bergara, Plazenzia,
 Eibar ta Durango,
 Erri bat legez dira
 Aurrera *izango*:
 Lauretan egon leike
 Ordu batgarrengo.
 Mundu guztitik tren au
 ¡Ojala balego!

EKATXAREN ONDOKO GERAALDIA

Ekatzak oso alde egin eban:
 Dantzudaz txori kantuak,
 Bidera atzera etorri eta
 Klokadak daukaz olluak.
 An sartaldean urdinduten da
 Garbi jarririk zerua,
 Mendi gañean bere agertu
 Baserri illunpetua;
 Ibar erditik garbiro doa
 Arekan errekatxua-
 Surrumurrua abietan da,
 Poztuten oso biotza,
 Eguneroko zeregiñetan
 Asten da laster bakotxa.
 Zeru ezoa ikusitean
 Agertuten da atera
 Beargillea kanta soñuan
 Bere lanagaz astera;
 Ela andratxoak urten nai leuke
 Euri ur barria artzera.
 Etxalde eta goyetan barrez
 Eguzkia da azaltzen,
 Eta etxeakoak galeria ta
 Leyoak dabez zabaltzen;
 Entzuten dabez bide urriñeko
 Kaskabel ots ta zaratak,
 Baita ibiltan abiau diran
 Burdi irrintza garratzak.

Atseginduten biotz dana da.
 ¿Noz da aiñ gozo bizia?
 ¿Noz dau gizonak ikasiteko
 Orren egarri andia?
 Lan zarraz, zeinda barria asteko
 ¿Noz dau ohea gogua?
 ¿Noz gitxiago gomutetan da
 Bere gatxaz burua?
 Atsegiña, ume naiestuaren

Poz zoroa, da izuaren,
 Onek ikaraz oso jarrita
 Bildur zan bai illtearen.

Nok gorrotetan eban bizia
 Larri ikaraz miñetan,
 Ixil, izerdiz, otz ta desmayoz
 Jentea zan aurkietan.
 Geure iraiñak zerren odehyak,
 Tximista ta urakanak,
 Ikusiteak irabiatu
 Zituela egin dandanak.

;Sortitz maitea! onexek dozuz
 Askorentzako zuk doiak ;
 Atsegiñetan ipinten gaitu
 Penetatik urtetiak,
 Zure eskuz gozuz asko penetan,
 Damua azten da berez;
 Baña atsegiña guztiz gitxitan
 Dator au mirariz legez,
 Naiesturen bat desegiteak
 Dakarku nozbaiten errez.

Goijaunak maite alan zaituen
 Giza arraza dontsua
 Zara, nozbaiten atsekabetik
 Bazagoz alderatua,
 Eriotzeaz bazara osatzen
 Zara zorionekua.

NAPAR TA EUSKALDUN IKASLARIAK

(Zaragozari, agur)

I	Agur, agur, Pillargo
Agur, Ebro ertzeko	Ama Birjiñea,
Zeruko Lorea,	Itzalez begiratzen
Arago apaintzen	Deutsugun Andrea;
Dozun Larrosea;	Zuri zor jatzulako

Lenengo ondrea,
Orra Euskaldunaren
Agur umildea.

II

Agur ¡o! Zaragoza
Gure ikastegia;
Umetxoak amari
Legetxe titia,
Zuri edanik goaz
Bai, jakituria,
Igaz etxetik ona
Illun etorria,
Doialako burutik
Zuk argi jarria,
Kantau bear deutsugu
Azkentzat gloria.

III

Egon au bada gozo
Eta ez mingotza,
Diñotsugu zugaitik
Dala gaurko poza;
Zugaz ez da aztuko
Ikasten biotza,
Euskalduna zergaitik
Ez dan iñoz otza.
Zerurano jasorik
Alegiñez boza,

Kantauko dogu ¡bizi
Bedi Zaragoza!

IV

Napar ta euskaldunok
Agurturik gaur zu,
Bagoaz dogulako
Kurtsoa amaitu;
Bagoaz, Zaragoza,
Trena dago estu,
Goazela aguro
Txistuka dirausku;
Bagoaz, bagoaz, bai.
Artu arren damu,
Ez daigun onenean
Biajea galdu.

Y

Zelaietatik goaz
Mendi arteetara,
Leku eguzkitsutik
Kerizpietara;
Zatoze, emengoak,
Zuek bere ara;
Artzean ango aixe
Eztitsua dana,
Ots egin dagizuen
Danok bereala,
Udan Euskalerrria
Zerutxo bat dala.

MUNDUKO GORABERAK

Seaska eder sedaz jantzian nintzan jayo.
Baita lenengo urtea bere an irago,
Palagu eta eregu danak nituala,
Baña joan ango aldia bereala.

Aurrera bere bizi nintzan ni naikeretan,
Mizkeria ta ariguria gozoetan;

Beti gu izan giñealako eukitsuak,
Aberatsetan errian goren-gorengiak.

Gaur baña zelan aurkitzen nazan oso pobre,
Enazalako lengo eukien baten jabe,
¡Ai! ezbearrak nebazalako izan asko.
Okertu ziran gauza guztiak niretzako.

Aldakuntze au mundu onetan ikustea.
Neure bizian egin ez arren ori uste,
Gatx eingo jatan aldi batean siñistea:
Kolerari legez lagunak iges deuste.

Gaztezarroan alkarren kutun gu giñean.
Genbitzalako beti batera jolasean;
Eskolan bere ibilli giñan beti nasi,
Anaya batzuk legez giñean iya bizi.

¡ O! baña oraiñ areik goi-goyan ta ni beian,
Aurkitzen gara oso desbardin suertian;
Zeinbat alditan eurai jo arren nik atea,
«Jaunak lagundu daizula» dabe limosnea.

Albotik bere sarritan jataz iragoten.
Senide urtzat len jatazanak autortuten;
Jausi nintzanik ona ez deuste ein agurrik,
Ezta zuzendu nire alderuntz arpegirik.

¿Baña, pobretu arren, ondrarik galdu neban?
¿Ausaz au ez da len legez bizi gaur enegan?
¿Ausaz agurrik egin ez arren aberatsak,
Neugan egoan azpiratzea zorigatxak?

Pelotatxo bat guztiz errez da biurtzea,
Naiz da etorri indar askogaz aterea ;
¿Iñor da bada gizon argal ta gizajua,
Alzeratzeko Probindentzia indartsua?

Edur artean egiten bada erabilli,
Mokilla joan oi da egiñaz beti andi;
Nire lagunak jarraitu dabe andituaz,
Zeinbat zarrago diru geyago pillatuaz.

Eta ni, barriz, asi ezkeru mallak galleen,
Lurra jo arte enaz gelditu beratuten;
Galdu jatazan uste bagarik ondasunak,
Ala ez dakit baziran bere txartasunak.

Ni nintzan legez. bizi danen bat jausitea,
Gertau leiteke, tu kantuz ezin nasaitzea;
Jausi arren nik, kanturik ezin neike laga,
Naiz da negarrez itxi egiak esan baga.

Ez da ardura, biotza illun euki arren,
Berau dagoan aroan kantau nai dot emen;
Egunak bere ez dira danak goi urdiñak,
Hatzuk argiak, besteak motzak, desbardiñak

Alantxe bada errama baten soñuetan.
Ez da txoria ikusten egun guztietan;
Batzuetan dau kantetan tantai gallurrean,
Beste askotan lenengo daukan adarrean.

Entzun izan dot Jaungoikoaren lanbidea,
Eskellarak bai, dala egiten jardutea;
Bekoak askok igo dagien zeruraño,
Ela goikoak jatsi daitezcan lurreraño.

Ta niri bere gertatu bajat jatsitea,
Beste askori oi jakon legez igotea,
Mundu onetan beti dakusguz gora-berak.
Suerte on ta txarrak eztira gizonenak.

AMODIOAREN ABIA

Igaroaz doiala
Gizona lurrean,
Bizitzako bide latz
Arantzaz betean,
Ikusten ditu bada
Ain bide luzean,
Uste bagako gauzak
Takean, takean;
Ikusten dau munduak
Kopea eskintean,
Irudiz dala gozo,
Mingotz edatean;
Baita ñoz laguntzat
Eukana aurrean,
Zelan zan etsai daki

Bertatik atzean ;
Orri berde mardoak
Igarrik jaustean,
Gogoratuten jako
Etorkizunean ;
Zer gertatu lekion
Bati azkenean,
Edo uste bagarik
Emen onenean;
Agaitik esperantzak
Daukaz baibenean,
Len bere txarto urten
Zergaitik zirean.
Agaitik ainbat gauzak
Barrua mintzean,

Badaukaz andra on ta
Umeak etxean,
Areik poza sartuko,
Deutse biotzean.
Ez bestek lur onetan
Bizi dan artean,
Biziten bada bere
Larogei urtean.

Baña, kanpotik triste
Etxera sartuten
Bada seme alabak
Au deutse urteten,
Danak ao batetik:
Aitatxo, deituten,
Danak eskuetatik
Arin oratuten;
Danak, negua bada,
Sutondoan jarten
Dira, antxe batera
Berotute arren;
Baña gazteak arin
Asirik aspertzen,
Ez diralako zale
Geldirik egoten,
Minutu gitxi barru
Dirala jagiten,
An deutse jolasean
Guztiak ekiten,
An alkarreri kezkan
Gero sendo joten,
Gerratxo bat dabela
Bertan konponduten.
Ama orduan zelan
Dan aserratuten,
Asten da norbaiteri
Zurrea emoten;
Asten da negartia
Laztanka ixilltzen,
Oi danez gaztena,

Dalako izaten.
Alan bertatik ditu
Bakeak egiten,
Neba eta arrebak
Adiskidetuten,
Lentxoago aserre
Ziranak ikusten,
Jolasean dirala
Barriro asiten.

Orduantxe aitari
Barreak urteten
Deutsa komedi ori
Danean jazoten;
Orduan asten jako
Barrua nasaitzen,
Nonbaiten dabelako
Poztasuna artzen,
Daukalako andra bat
Zeñek maite daben,
Bera ta umeak gaitik
Zeñ illgo litzaken,
Eurentzat zoriona
Jaritxite arren...

Onelako gizonak
Kantau lei benetan,
Daukala ugarte bat
Itxaso onetan,
Itxaso oi dalako
Bizitz au pintetan,
Zergaitik asko larri
Gabiltzazan bertan;
Baña sukaldean bat
Bada aurkietan,
Bere emazteagaz
Autuak kontetan,
Ikusten dituala
Umeak olgetan,
Kantau lei: «Ementxe ni
Bizi naz pozetan»,

II.—LIRIKA KANTUAK

Kantau lei gloria dot	Maitetasun zintzoa
Abia onetan,	Dalako gozetan,
Zerren amodioak	Emendik kanpora zein
Daben erreñetan.	Iñongo lekutan,
Ta au dagoan lekuan	Gizartean ez dodan
Nago zeruetan	Gaur arte topetan.

ARITZARI

I

Euskaldun jayo nintzan,
Ta euskaldun azi,
Euskaraz eustalako
Amak erakutsi;
Euskara laztan maite,
Zabiltz nigaz beti,
Euskara ill ezkeru
Ez dot gura bizi.

II

Euskaldun neban ama,
Ta euskaldun aita,
Euskaldun neu bere **naz**,
Eurak legez baita;
Euskaldun ill zirean,
Euskaldun bizita,
Euskaldun Arbolea
Zutirik itxita.

III

Ill zan aren Arbola,
Guk dogu gaztea,
Izango al dau onek
Osasun luzea;
Biztu dakigun gure
Lege zar maitea,
Zeñen alde nai neuken
Emon bizeitza.

IV

Eriotza gozoa
 Litzake benetan,
 Illtea Arbolagaitik
 Gure mendietan;
 Asko ill ziralako
 Gizaldi zarretan,
 Asabak bizi ziran
 Libre lur onetan.

Ene — Aritz — Maitea

ELAIAK

Idargiari deika doa eguzkia,
 Arrastegi aldera billa lotegia;
 Ni leyotik nagoka begira berari,
 Iparra dalortala gozo *firi-firi*.
 Baña gaur eroaten deustenak gogoa,
 Ez dira mundua ta eguzki arroa;
 Dira txoritxo batzuk begien aurrean
 Dabiltzanak poz-pezik aidez jolasean ;
 Ezin jarraitu arren gorputzez atzetik,
 Baña begi biokaz oi deutset emetik.
 Unetxo baten bere geratu bagarik
 Txilioka ;ze pozik dabiltzan zororik!
 Dabiltzaz ikusnayaz ariñen zeñ diran,
 Postura einda legez alkar neurtzen egan,
 Eta itanduten dot nik neure artean:
 ¿Zek pozten ete dituz orreik ainbestean?
 Ondasunez izanik bapere bagako,
 ¿Zetatik poztasuna datorke ain asko?
 Eta iruditzen jat eurak diñostela,
 Jaungoikoz atsegin ta poz ori daukela;
 Aitatzat daukelako txori danak bera,
 Zoriontasun ori andik datorkela.
 Bai. egilzat nik daukat erantzuerea,
 Dakust zuk deutsezula, Jauna, ardurea;
 Zuk egiten deutsezu gurasoen lana,

Baita eskuratuten edari la jana;
 Zuk luma ederrakaz dituzu jantziten,
 Eurak jakin ez arren soñekorik josten.
 Agaitik bidez dabe zure ontasuna
 Alako jolasakaz goratzea gura;
 Eta aituko baneu pikuz zer diñoen,
 Zure mesede onak eskertute arren,
 Nik bere neuskioe lagundu egingo,
 Zarealako ongin niretzat geyago.

BEARGIN ALEGERE BAT

Beti ugazabentzat diardut lanean,
 Naizda ez aberastu iñoz bearrean:
 Lanera jagi arren arduraz goizean,
 Alogerak poztzen nau txito arratsean.

Ene aita izan zan neu legez arotza.
 Alogeraz ez eban, ak gizendu poltsa.
 Pobrezan eukalako kontentuz biotza.
 Agaitik gaur zeruan gozetan dau poza.

Alogerekoak lez ez daukat bildurrik,
 Iñoz sartuko danik gurean lapurrik :
 Baba, arto, urdaya jan arren bakarrik.
 Familia ederra azia daukat nik.

Irabazia zelan, alan dot kastua.
 Ez dot nai lebitarik. brisa dot naikua;
 Egin gura dabenak gustora pausua.
 Zapatea bear dau ona bestekua.

¡Zeiñbat etxe direan euren erruz galtzen!
 Txikiak izan arren andiai jarraitzen;
 Neu beñik-beiñ enoa orrelan izaten.
 Zorrak pagau ezinda trístetu enaiten.

¡Zeiñbat gizon munduan enpleo andiak
 Jariste arren dabiltz galtzen gaberdiak!
 Baña, boteagaitik askok izerdiak
 ¿Non dagoz guztientzat goyeian aulkiak?

Gaur arte ¿nok jakin dau zer dan uelgea?
 Enredo zalez dakust mundu au bete;

Nik nai dot osasuna, luna ta bakea,
 Iñor engañan бага denpora emotea.

Ardaurik ezin badot, edaten dot ura.
 Orregaitik gerrarik baña, ez dot gura.
 Pazientziaz zelan bat doian zerura,
 Pizkat sufridu arren ez deustu ardura.

Zeiñbat galtzen dituzan andinaikeriak,
 Luzifer bere galdu eban soberbiak;
 San Migel otseiñ onak jaritxi gloriak,
 Umillentzat zeruak dagoz edegiak.

Andi izate arren enoa iñora,
 Ez dot estutu gura igo nairik gora,
 Nausitasuna baño mendeko dot oba.
 Naikoa dot nik banaz guraso bat ona.

¡Ai ! balekie askok nor dan aberatsa !
 Niretzat igertea ezta orren gatxa;
 Euki arren munduan batek asko gauza,
 Kontentuz ezpadago bizia da latza.

Txori koitau bat baño ;nor *du* pobreago?
 Alanbere kantari geyenean dago;
 Txindurriak naiz euki ondasun geyago,
 ¿Nor da mutuagorik beste bat au baño?

Iñoz izan ez arren txoria joskiña,
 Soñekoa darabill ondoen egiña;
 Sedea eztalako lumea duiñ fiña,
 Aiñ ondo ez da jazten beĩntzat erregiña.

Jaungoikoak badeutsa ardurea artzen,
 Zelan siñistuko dot dala gugaz aztzen?
 ¿Egaztiak baditu aiñ ederto jazten,
 Ni zelan itxiko nau gosegaz ¡Ilten?

Beraz, ¿ez dau esaten eskatu daigula?
 ¿Joteko atea ta entzungo jakula?
 ¿Ala, fedea guban osoro galdu da?
 ¿Onenbeste gatx nondik bestelan eldu da?

Egia da kontentu osorik munduan,
 Ez dala jauregian, aiñ gitxi tronuan ;
 Gure ditxa ez dago lurreko diruan.
 Gloria dana dago bakarrik zeruan.

Kantau gura dot baña auxe kopiau beti,
 Pobreza banaz bere, enaz ni negarti,
 Aberats asko dago ene aldean gaizki,
 Larrosak dakustaz nik arantzakaz nasi.

Larratxoria dabil egunen erdian,
 Txorrotxioka pozez igoten aidian;
 Errosaioa kantau nik oi dot gabeen,
 Beraz obetoago bizi naz lurrean.

MASUSTA ZUGATZ BATERI

Egun-izarra atzo bajoian,
 Ezkutau bear eban sasoian,
 Lotseaz gorritzen zala,
 Bere kutuna agurtutean,
 Galai bat zirudiala.

Agurtuagaz, azkenez baten,
 Orri artean neutsun jolasten :
 ¡O zugatz koronadua !
 Loraz erramok jatzuzan jasten.
 Eukelako asko pisua !

Orduan, ¿zelan uste zeinkean
 Biaramonak goiz jagitean,
 Zure bekokiko orriak
 Aurkietea zeure oinpean,
 Zimelik bera jausiak?

¡O zugatz berde, atzo ziñana !
 ¿Zelan eguzki gaurkoak, dana,
 Zimelik baitu aurkitzen,
 Ederrik bizi ak zinduzana.
 Zaituala igar ikusten?

¿Zek ditu zure lora arroak,
 Gorputza zeuri gordetakoak,
 Lurra estaltzen ipiñi,
 Eurai gañetik marraskilloak
 Dakioezan ibili?

¡O masustera ! ¿nok deutsu lurtu?
 Autsaren jaki ¿zeñek biurtu
 Zure koroe galanta?
 Neguko otz batek al dau tximurtu.
 Ederrik atzo zeunkan ta?

¡Ai! biursari onek zapaltzen,
 Zugatza, deutsu koroia,
 Bekokian zeuk galanto atzo,
 Arrorik erabillia :
 Oñen azpian bere darabilt.
 Neuk nekarrena jantzia.
 Zeñ egun baten damu gloriak
 Dagoan igar jarria.

Eguzkiaren errañu meiak
 Gordo gurarik loretan.
 Txoriak eureu antzera sartzen
 Jatzuzan orri artetan;
 Ene loratxo bizitzakoak,
 Baita bekoki onetan
 Abiak egin gurarik pozik.
 Batuten ziran aldretan.

Orduan ames, biursate ta
 Elorkizunen gloriak:
 Gomuta gozo gaztelakoak.
 Amore pozgei guztiak,
 Biotz oneri jantzi eutsezan
 Bitxi ederdun koroiak,
 Zelan lorea daben apaintzen
 Mitxelet jira zaliak.

¡O masustera ! zuk legez ^{aso}
 Neban bekoki zutia;
 Zeñek agertzen eban, barruan
 Eukan alegerentzia:
 ¿Nok daki beti nai beban izan
 Lora ederrez jantzia,
 Azturik otz bat naikoa zala
 Eurai kentzeko bizia?

¡Ai! baña egun batik bestera
 Ames ta biursatiak
 Lora uts ziran, eta beingoan
 Kiskaldu eutsuzan leiak;
 Txalo otsaz zelan igesten daben
 Zugatza itxirik txoriak,
 Esku otz miñak jorik, jatzuzan
 Mundutik joan bitxiak.

Zure zoriaz nirea bere
 Izanagaitik bardiña,
 Obcagoren ustean dago
 Zure naibage samiña.
 ¡A! eguzkiak emongo deutsuz,
 Oraindik lora guraiña;
 Bere beroa gitxituagaz.
 Niganuntz doakit baiña.

DONOSTIA

Donostia	Eta Iau;
Politena.	Ainbat ez dot
Ederrena,	Gaur artian
Etxeetan :	Españian
Urietan	Nik topau.
Duda бага	Baita dauka
Gaur da bada	Bañurako
Danetan-	¡O! zelako
Arek daukaz	Kontxia !
Arlanduak,	Azalduten
Talladuak.	Ez da erraz,
Ugari;	Ez da beraz
Eguna azkar	Txantxia.
Da pasatzen.	Euskal-erri
Begiratzen	Ederraren
Eurari.	Da beraren
Kale ederrak	Ondrea ;
Ta zabalak.	Orregaitik
Zelai danak	Udan ara

Dator bada	Danean.
Jentea	Zeru garbi
Dirudi ak	Atsegiñak
Bai, jakizu.	Ta ur urdiñak
Paradisu	Ikusi;
Goizean,	Donostia
Eguzkiaz	Nik benetan
Dizdizketan.	Oi dot esan
Agerketan	Da nausi.

SOLDADU BAT

Bizitza onetako lenengo kontentua
 Gozetan asi nintzan pozez zoraturik ;
 Bere ondran asmetan abiaurik kantua,
 Amaitzera orduko nengoan tristerik.
 Maite neban maitea ikustean illik.

Goiz baten eregi zan barrez egun sentía.
 Ari bere nik bota neutsan itz neurtua;
 Baña arratsaldera asitean bidia,
 Lireak gura eustan jo negar soñua.
 [litera joialako egun aiñ dontsua.

Baita gazte denporan larrosak batuta nik,
 Neure buru zoroa nai neban edertu ;
 Bana topau ezinda luzaroko lorarik,
 Maikogiñan begiok jatazan agortu.
 Zergaitik lorak illik oi ziran igartu.

Mundua, nik zer neukan itanduten asi zan,
 Ikusirik naibagez aurkitzen nintzala;
 Baña erantzuer bertatik eban izan,
 Egi andi au neutsan esan bereala:
 Jayoa nazalako, ¡litera noiala.

[Ail ezagutu baneu bear legez mundua,
 Zeren on betiko bat nenbiltxakon eske;
 Baña ¿nun dau pozgei bat ez amaitutekua?
 ¿Zegaz nire biotza atsegindu leike,
 Eriotzak billoxik itxi al banaike?

Au dogu soldadu bat, zarra baua zolia,
 Beti garaipenagaz deuskuna urteten,
 Baita urtengo dana, zerren bere bizia,
 Ill eziña dalako, bagara jayoten.
 Jayoak diran arte, iraungo dau illten.

ERRELIJIOSO GAZTE BATEN AGURRA

{Bere erri eta ama maiteai}

Agur, Euskal-erriko
 Lur beti berdiak;
 Agur ¡o! mendi eder
 Aiñ alegeriak;
 Agur, atx txuntxur polit
 Iturriz betiak;
 Agur, kerizpe gozo,
 Erreka biziak;
 Mundu barrira orain
 Obedientziak
 Naroa onduteko
 An pekatariak:

Fraille nik egiteko
 Urten nebanian,
 Agur bat egin neban
 Samurra etxian;
 Geiago ez dot ama
 Ikusi aurrian,
 Baña gomutetan jat

G
 Goizian-goizian,
 Eskatzeko Jesus'i
 Meza esatian,
Biatadellibakindó,

Bizi zaitez, bai, ama,
 Euskaldun lurrian,
 Euskaldun oitura ta
 Euskaldun legian.

Euskal-errira atzera
Eltzen nazanian,
Billatuko al zaitut
Osasun onian.
Baña, agur, orduraño,
Agur bitartian ;
Agur... ama, zaroat
Biotz-biotzian!

JAYOTERRIARI

Lenago jente askoko neure jayoterria.
Basamortua dirudizu.
Sortaldetik ta sartalderaño agintaria
Ziñana, orain ¿zer zara zu?
Errukarriro, malkoak jausten jatzuz lurrera,
Mundu guztiko erregiña,
¿Es al datortzu iñortxo bere leortutera?
¡Ai! au naibage ¡o! ze miña!
Eriotzeak soñeko baltzez jantzi zinduan.
Arerioa jatzun poztu,
Bere egarria jakon zagozan dasanparuan
Tkusiagaz desagertu.
ill jatzun gerra-zale gaztia, erri maitea.
Ill betiko zar itzaltsua,
Ain zan zorrotza bendatzalleen galtzairu mea,
Jarri zinduzan mutildua.
Ikus-dazue mundu guztiko bizilariak,
Ain egoera neketsua,
¿Nogaz bardindu lekidaz nire larri-aldiak.
Zeñegaz jarri neurritua?
Miñaren miñaz, semeai deika bere besoak
Españak ditu zabalduten,
Lagundutera joanagaitik seme zintzoak,
Saldurik dira aurkituten.
Jayoterria, ¿nun dozuz artu ezin zirean
Arako torre indartsuak?

¿Nun dozuz nausi ziran ezpatak beti pelean?
 ¿Nun dozuz umant bioztsuak?
 Gaurko semeen bekokietan atsekabea
 Eskribidurik da ikusten;
 Euren begien lurrerantzako erabiltea,
 Damua dago autortuten.
 Eundaka ziran, España, baten zure umantak,
 Zorioneko ¡o aldia!
 Bildurra artzen eutsuen erri arrotz galantak,
 Ikustean zu ain andia.
 Libanon zelan zedroak daukan buru jagia,
 Zuk bere zeunkan eregia;
 Odei oskarrak izutzen daben legez umia,
 Zure itza zan justuria.
 Raña gaur zagoz erri baldres bat basamortuan
 Legez osoro bazterturik,
 Erru bagea aldarrai sarri oi dan tayuan,
 Zakustaz gia bat bagarik.
 Dakustaz bere estaltzen zure edertasunak,
 Ondarrez eta bedarragaz;
 Dakust bildurtu lenago sarri egin jatzunak.
 Txalo deutsula egin burlaz.
 Errczki ulle-kopet ederrak arras atera
 ¡O! nekastillak, daikeuez!
 Arpak arturik zatorkidaze lagundutera,
 Illen soñuak jo eizuez.
 Gure etxeetatik urrin bai, urrin gaur. Jaun maitea,
 Negar egiñaz gagoz danok.
 ¿Zeñek arindu leike Españak daukan penea.
 Bere negarrak leortu ¿nok?

IKAZKIN BATEN NEGUKO KEJAK

Oraindik negu luzea bada,
 Eingo dabela ustea,
 Pronostikoak alan diño ta
 Au da barri bat tristea :

Garirik ez da, artoa palta.
Besteak konfiantzea,
Ez dakit zelan izango ete dan
Uda-barria artzea.

Bart egin deusku edur asko ta,
Sartu jat sartu bildurra,
Enintzateke ni estutuko.
Baneuka sendo egurra;
Baña gureztat ez da besterik.
Dugan iturrian ura:
Amaika pena iragoteko
Etorri ginan mundura.

Familia dot erdi billoxik,
Ez dauke oñetakorik,
Otzen bildurraz barruan dagoz.
Kanpora urten eziñik
Oñok ez-eze eskuak bere
Daukez ozpelez beterik:
ure etxea neguan ez da
Ospitaltxo bat besterik.

Zapatariari esaten deusat
Ein daiguzala zapatak.
Nunbait jakin dau, zelan garean
Zor pagatzalla eskasak;
Eleuskit iñok burlarik ingo.
Bei bi haneukaz galantak:
Okelea jan eta narruaz
Egingo neukez abarkak.

FUMALARIA gaztetatik naz
Gaizki azien legera,
Ordu betean ezin egon naz
Ketu bagarik ezela :
Aspalditxoan dirudik ez da.
Beste askotan bezela,
Pipa motxean ¿zer fumau daiket?
Tabako ordez orbela.

Zortzi daukadaz umeak cta
Neguan ez daukat lanik,
Neu ta andreaz amar lagunen

Arduraz nago kargaurik :
 Afariteko geyenez daukat
 Talo bat erdi errerik,
 Eta basoko otorduetan
 Lau jaten ditut bakarrik.

Ikazkiña dot opizioa.
 Udan gitxi dot aurratzen,
 Lengo zor zarrak pagetan ditut
 Diru guztiak emoten;
 Baña dendetan geroko bere
 Zuloak jataz gelditzen.
 Umeok azitakoan tapau
 Bearko, ezpanaz illten.

Pobrea gaizki udan bizi da.
 Eta txarrago neguan,
 Orrexegaitik arlote izan
 Ez dau iñok nai munduan;
 San Juanetan beroz erretan,
 Otzaz illten abenduan.
 Gure Jaungoikoak egingo al gaitu
 Gu bere aberats Zeruan.

NESKATILLA BATEN ERIOTZAKO AGURRAK

*(Neure adiskide on Ezekiel Etxebarria euskaldun
 jakintsu andiari)*

Agur ¡o! zemendiko aurrenengo eguna,
 Eguzki motelagaz zareana gorde;
 Agur zuk egitean jaubetu jat illuna,
 Geiago goiz gozoak poztuko enabe.

Agur ¡o! uda eder amaitu ziñeana,
 Bear ziñean aña eziñ neurtiztua;
 Agur, udazkenetan zatozan urakana.
 Egan eroateko orri igartua.

Agur, loratxo polit, usaiñ onak opaka.
 Bizi ziñeenak atzo kolkoak zabalik ;
 Agur, txori zoliak egunari dedarka.
 Zenbiltzenak goizetan ni esnatu nairik.

Agur, mundu zoroa, agur deutsut egiten,
Niretzako ez dozu gaur balio ezer;
Zerren orain niñoiari bizitera asiten,
Eta uste guztiak urten deusten oker.

Agur, bertako nire dontzella lagunak.
Agur edertasuna, agur ondasunak,
Agur ¡o! Mariaren alabazko taldea,
Agur, bertako nire dontzella lagunak.

Agur, familiako maitetasun gozoak.
Agur, amatxo zure laztan atsegiñak.
Agur, aita maitea, aizta ta nebatxoak.
Agur, jolas pozgarri zuekaz egiñak.

Agur, agur, banoa, banoa bai, betiko.
Banoa, baña noa, beti iraunera;
Banoa, baña enaz atzera etorriko.
Ama biotzekoaz bizi izatera.

Arbolatik gaur jausten diran orri igarrak
Legez, ama, zugandik noa jausitera;
Emon deust uste baga gazterik ill bearrak,
Orbel bat legez noa auts biurtutera.

Ez egizu, amatxo, ainbeste negar egiñ.
Agertuten jat beste ama bat ohea;
Gorputz au osatuten zuk deustazu alegiñ,
Ak zoriondu nai deust baña arimea.

Zn itxita, agana noa, ama samiñdua,
Ak gozatuko deustu gaurko zure miña:
Gorputz au largetan dot. arima au, banu».
Gozetara zeruan, hai. Ama Birjiña.

Loratxo baten gisan, sameak akatzean,
Neskatilleak eban makurtu burua;
Zemendian orriak igarrak jausitean.
Agertu eben danak ill aren damua.

ALARGUN GAZTE BATEN ZIZPURUAK

(Bere senar zanaren obi-aurrean)

Ezkonduteko erabagia artutean,
 Neure aiztea ipinte arren jakiñean.
 Orain urte bi joan ninlxakon komentura.
 Zergaitik berbaz adierazo neutsan gura,
 Senargei on bat artzeko laster nengoala,
 Oitura guztiz ederrak berak eukazana.
 ¡O! ze egia izan zan esan neutsan dana!

Gomutetan naz ak entzutean albistea,
 Esan eustala: «Pizkat itxaron or. aiztea.»
 Eta barrura berealaxe ezkutaarik.
 Ekarri eustan sama-samatik ebagirik,
 Pasiño-lora motel-motel bat neuretzako.
 Gomutagarri euki nengian sekulako.
 Bizia dodan artean beintzat gordetako.

Eskein eustan zizpuru luze bat egiñik,
 Esanaz: «Ez dot beste gauzarik zer emonik.»
 Baña, ak emon eustan pasiño loratxua.
 Da beti neugaz aldean dodan liburua.
 Neure estura, neure naibage mingotzetan:
 Begirik ez dot gaur non ipiñi billaketan.
 Ezpada utsik ispillu onen orrietan.

[Bai! orri oneik igar-igarrik ikustean,
 Eta neu obi onen aurrean aurkitzean !
 ¿Zer egiñ daiket begiraturik lenagora.
 Gazte-zaroan iragoriko ain gozora?
 Gomutetan dot orduan zala, bat ustea.
 Eta gaur dakust beste bat dala suertes.
 ¡Ze irakasla ederra jakun denporea!

Gomutetan dot, lorau badaukat igarturik,
 Zelan senarra emen dagoan usteldurik ;
 Zelan nagoan ni pasiño bat iragoten,
 Aide bat бага zergaitik nazan aurkituten,
 Ta aizpa bakarra zelan daukadan komentuan.
 Ez dodalako aita ta amarik nik munduan,
 Uste dot bizi nazala soillik eremuan.

Gomutetan dot, senarrau бага geratzean.
 Zelako narra sartu ein jatan biotzean :
 Gomutetan dot, zeinbat alditan naukan larri.
 Ze zorrotz jatan, ta zeinbat bidar au illgarri :
 Neure maitea obi onetau gaur ikusi,
 Eta ni ¿zelan ete naz bada emen bizi.
 Ain zurrutada miña edanik eztarriti?

Gomutetan dot. zeñ egunetan ill zan igaz.
 Urtet.xo bete egin baño len oso nigaz.
 Eriotzeak urreraturik goiz batean,
 Bere koraña zorrotzuegaz ikutzean.
 Zelan gorputza eutsan otz-otzik bertan itxi.
 Arimeari eragiñagaz txit igesi;
 Orregaitik jat orain zeruan urrin bizi.

Gomuta oneik illuntzen nabe gaur barruan.
 Pozgarri ezer here ez dakust inguruan,
 Lora guztiak iya dakustaz zimeldurik:
 Zugatzen orri berde ziranak orbeldurik :
 Bedar, orri ta lorak: ill gara, badiñoste.
 Izate danak ipinten banau triste-triste.
 ¿Ze gauzak poza orañ emongo ete deuste?

¿Zelan ni poztu, ikusi arren izar danak,
 Gabez azaltzen arpegietan loirik bagak.
 Euren argiaz egite arren lur au poztu.
 Ni oi banabe askoz geiago naibagetu.
 Zergaitik eurak baño gorago nik senarra
 Eukirik, ezin gaur igo badot beragana,
 Negar zotiñok lurtean isten ditudala?

¿Zelan ni poztu, ikusi arren arranoa,
 Dala enparau egazi danen ganekoa.
 Dala zeruruntz igoten bera nagusia.
 Dala odeyak artzen deusena inbidia.
 Nire begiok jarraitu arren puska baten,
 Egorik ez da, ementxe banaz geratuten,
 Gorputz astunak beruntz deustala tiratuten?

¿Zelan ni poztu, justuri burrundaratsuak.
 Ta andik urteu dan oñeztu sutsu ta gartsuak.
 Niri urteten baldin ezpadeust arimeak.
 Eten egiñik zarratzen daben orma meiak.

Zeñek tximistak beruntza baño azkarrago,
Egiago leuken goruntza egan ta pozago,
Pentsamentua itxirik urrin atzerago?

„Zelan ni poztu, ainbeste mundu ikusirik.
Goyan dirala, emen banago amarraurik.
Arimau badot katigaturik oso-oso,
Zoru onetan kastigupean preso-presu,
Aldendu nai Ia alde eziñik goyetara,
Jai alegere alegereak gozetara,
Poza bakarrik bizi dan erri areitara?

Abill, nai badok, itxas-arroa, orroeka.
Abill. abill bai, mendi eskergai or topeka;
Abill. abill bai, baña i baño jasoago
Munok egoten badituk ezin dok urtengo;
Abill artega, abill amorrus eta asarre,
Ezi bagako zezen indartsu bat legetxe;
Baña adarka millaka urtetan babill bere,
¿Gizajo orrek nora egin dok iñoz alde?

Alantxe bardiñ nik arimeau gorputzean
Aragiagaz loturik dodan bitartean,
Lora onegaz nire aizteak ein ebana
Eriotzeak egiñ artean nigaz ala.
Egarik onek ezin egingo deust ezelan
Zeruetara senarrarenak eban eran,
Ta bitartean bizi bearko dot kartzelan,
Beti negarrez, beti naibagez, beti penan,
Muna garratzak orma egiñik inguruan,
Atsekabezko urak daukazan itxasuan.

KANPANILLA-LORA ZURIARI

Arbolak billox narru gorrian dagoz oraiñdik.
Marti illaren asierako egunean;
Kanpoa here ez da oraindik asko abiau
Bizkortu eta pozgarritzera azalean;
Baña, alan bere, Eguzkiaren errañu batek

Ikusi dot nik egun sentían ikutzean,
 Batu-baturik eukan kolkoa kanpanilleak,
 Berealaxe zabal ipinten zan bestean;
 Esan gurarik aurkitzen dala negu zitala.
 Ill bear-eta, estu baña ill eziñean.

Lora kolorga bakarlekuko onek dirudi.
 Dala guztien aurretik jayo egin dana ;
 Txantxangorria txorrotxioka datorren legez,
 Iragarriten Udabarria laster dala.
 Ongi etorri zaite, lenengo lora zuria,
 Jarraitu beye zure atzetik urrengiak ;
 Apainduagaz landak, basoak, baita mendiak,
Zein7.uk daukazan negu gogorrak billostuak.

AMA

*(Neure adiskide laztan On Franzisko Ozerin, Gatsogo'ko
 abade jaunari, bere amaren eriotzeagaitik)*

Adiskidea, damuz beterik
 Gaur zukan gogoratuaz.
 Amaren doiak gura neuskizuz
 Goratu negar-kantuaz:
 Baña, nik ¿zelan kantau daiketzut
 Itzak egoki neurtuaz.
 Zer dan amu bat semetxoari
 Bularra biotz osuaz
 Emon da emoten dagoanean
 Azturik bere buruaz,
 Zoratzen dala laztanka pozez
 Añ ondorengo gozuaz?
 ; Zelan kantau nei, zelako begiz
 Dakusan bere umea !
 ;Ze atsegiñaz zartzarorako
 Kerizpegarri maitea!
 ;Ze aukerakaz ikusten daben
 Etorkizuna berea !
 ;Ze jolasakaz besartetuten
 Landara guri gaztea !

¡ Eta ze gogoz bere on arren
 Artu edonoz nekea!
 ¡Gogoraturik bera jakola
 Erraietako lorea !! !

Ak, bai, zaindutea dabela zintzo
 Gau ta egun lora dontsua,
 Izotzen batek galdu eztayon
 Daiorrenean negua;
 Ak, bai, daukala lora arentzat
 Ardura berarizkua;
 Ak, bai, otzitzen bada baturik
 Emoten deulsa berua;
 Ak. bai, udea daiorrenean
 Ipar aizetxo lekua,
 Ill eztakion biotz erdiko
 Biotz zorionekua.

Arek gogoia beste lekutan
 Lurrean eztau ipinten,
 Amak ez daki semea maite
 Noraño daben egiten;
 Pelikanoak bere odolaz
 Umeak badauz aziten,
 Eta onegaz entzun orduko
 Edozeiñ bada arritzen,
 Adiskidea, ¿zer gitxiago
 Amagan dogu ikusten,
 Umeak gaitik eurak badabez
 Eurrez biziak galduten?

Ezin neike nik ze andia dan
 Azaldu amatasuna,
 Nire biotzak bakarrik daki
 Zelan dan aitatasuna;
 Baña onek ¿non umeentzat dau
 Amaren maitetasuna?
 ¿Non aren txera, non aren laztan,
 Non aren apaiztasuna?
 Itxasorratzak Iparrerako
 Badauka zaletasuna,

Ama-semeak onak badira
 ¿Non dago naieztasuna?

Zeuk gaur, ondo ta ondo dakizu,
 Ze bakotasun andia
 Geratu jatzun etxean amak
 Utsitutean aulkia ;
 Agaz berrogei urtean euki
 Izan badozu gloria,
 Bere begiak itxiagaz bat
 ¿Etxatzun etxe guztia
 Illun gelditu, zirudiala
 Upa bat bizi-bizia.
 Aize-bolada batek amatau
 Baleutsu legez argia?

Gaur ¿ez dakusu ixilltasun bat
 Illuna zeure etxean.
 Basamortuan ikusten dana
 Udea amaitutean?
 Txoriak doaz orduan damuz
 Leku obien atzean,
 Dakuselako negu gogorra
 Datorkuela ostein;
 Ta zure amak zeruetara.
 Eriotzeak jotean,
 Ez dau iges ein negarrez urtzen
 Zeu itxi arren lurrean?

Orrexegaitik pozik bagarik
 Gaur sartzen zara etxera,
 Ez dozulako nok egin lengo
 Ongi etorri ederra,
 Amak gomutan ikutzen deutsu,
 Baña ez urten atera ;
 Ta begiratu arren zuk miñez
 Au egoten zan oera,
 ¡A! an ez dago, egunak dira
 Egin ebela atera,
 Arimeak ux egiñikoan,
 Eroateko lurpera.

II.—LIRIKA KANTUAK

An bere gauzak bakar, geldi ta
isillik dozuz billatzen,
Zeintzui deulsezun mututasunaz
Diñotsuen au aituten:
«Ai! ugazaba, etxekoandreak
Gaur ez gauz erabilliten.
¿Zer gertetan da etxe onetan,
Beragaz zer da jazoten?
Zure zotiñak dantzuguz baña
A ezpadogu sentitzen,
Ixilltasun au ¿nondik sortu da?
¿Zek zaitu minberatuten?»

Adiskidea, laguntzen deusut
Soilltasun illun orretan;
Zuk artu dozun tamal andia
Andiena da benetan ;
Senide ur bat baga aurkitzen
Gaur zara mundu onetan ;
Danak guztiak largau zaitue
Batel bat itxasoetan
Oi daben legez arrantzaleak
Deslai itxiten sarritan,
Abietean larri aldian
Euren buruak salbetan.

Beste ainbeste gaur zugaz bere
Niri jat begitanduten,
Olatu garratz artean deslai
Bakarrik zaitut ikusten;
Burutantziño batek emendik,
Besteak bestetik joten
Zaitue, eta zure biotza
Paimenak dabe larritzen;
Ta larritasun orreik ariman
Zeinbat zaituen estutzen,
Ezin dot esan zotinka cta,
¡ ¡ ¡ Nago ixillik puskaten ! ! !

Intziria ta guzti bere nik,
 Gaur deutsut lagundu gura,
 Barreka sarri natxatzulako
 Alboan izan laguna;
 Eta lagun bat izango bada
 On ta gatxean ziurra,
 Jaso bear dot neure biotz au
 Zeugaz batera Zerura,
 Eskatze arren amarentzako
 Ango zorientasuna,
 Baldin garbitzen badago beian
 Erruen ezaintasuna.

Adiskidea, bene-benetan
 Gogoan eukitekoa
 Izango jatzu zezeillaren
 Egun azkenengokoa ;
 Urte danetan lenengo illun
 Jarriko deutsu barrua,
 Baita argitu berak egingo
 Deutsu barriro gogua,
 Bururaturik Kristo'gan zelan
 Ill jatzun ama gozua,
 Bere illtea izan dalako
 Eriotza bat dontsua.

ERRETXIÑOLARI

Kantau egizu, erretxiñola,
 Bakartadean,
 Errama gallur berde berdean,
 Zarealako txori guztien
 Zu erregea,
 Ondo kantetan parebagea ;
 Kantau egizu zoragarrizko
 Txorrotxioa,
 Eztia baño gozoagoa,
 Berarizkoa,
 Naibagez eta atsekabetan

II. LIRIKA KANTUAK

Aurkitzen daua,
Poitzen dalako zuregaz bada.
Aztu-erazo eidazuz niri
Diludan miñak,
Zorigatx dongak garratz egiñak.
Gutziz gordiñak;
Eia zu zara euroentzako
Aringarria,
Txori kantari gutziz andia.
Bai, entzutean orretariko
Zure kantuak.
Dirudienak gutziz goikoak.
Gloriakoak
Igo gura deust lurretik aruntz
Gora gorantza.
Izarretatik bere arantza.
Zu ikusteak orren kantari
Eder lurrean.
Ainbeste gizon dongen artean
Aleginean,
Eurai atsegin eraon gurarik
Or illargitan
Gabez sarritan,
Diñot samurrik Jaungoikoa da
Zure Egillea;
Altasunagaz bete bete,
Ta borondatez neurri bagea,
Itxaso gisan bere epea.
Dakust benetan dala eskergea.
Ta bere etxea
¿Zetarikoa izango ete da
Kantariakaz?
¿Lurrean bada gizon dongakaz,
Ain oparoa, esku zabaldun
Eta prestua?
¡O! Jaungoikoa!
¿Zer izango da zure Zerua?
Eta alan bere gizon astua,
Fede bakua,

Eleizearen arerioa,
Dirudiala lau oñekua,
Balitza legez lur utsezkoa,
Dala barro sortua,
Dabill loituten biraoka
Zure izen bai guztiz santua.
; O ! zer mundua !
Gaur ain galdua!
Dirudi dala iya linbua,
Eta itz gaiztoz okerragua.
Toki askotan gaur infernua.
Jesus dontsua,
Zure Biotz on eztia baño
Gozoagoa,
Gaur darabille oiñperatua:
Egia da bai zu zareala
Bildots mansua,
Eroateko ixillik aren
Irain gaiztua !

Erretxiñola biotzekua,
Jasoizu gora zure kantua
Eta alabau egizu beti
Zuk Jaungoikua,
Eta lotsatu gizon sastua
Dirudiana eskuz ta agoz
Demoniua.

DANOK IRAGO BEAR

Olatu garratz samin artetik
Bizitzau mundu onetan
Danok irago bearra dogu
Gaztelan edo zarretan:
Zoriontasun danen erdian
Jaiogaitik askotan,
Jauregi eder aberats eta
Naiera gozodunetan.
; Alarikoak bere ez dira

Gerora egun latzetan,
Ikusten ontzi ona galdurik
Sarritan itxasoetan?

Larratxorien gisan itxirik
Egazi andiak bean,
Igotakoak odeyetrnra
Suerte onak jotean,
Eta orlako asko naiz bizi
Ondo geyenen ustean,
Aberasturik dagozalako
Emcn, an edo bestean;
¿Baña etziran jayo beartsu
Ezcukidunen artean,
Goyan Zeruaz, beian zoruaz,
Utsagaz aldamenean?

¡O! eta zeinbat dirudun barriz
Beti aberats bizirik,
Ikusten diran osasun baga
Poza billatu eziñik;
Ta zeinbat pobre osasundunak
Diru egarriz tristerik,
Gomutau bere baga munduan
Badago gexotasunik;
¿Batzuk legetxe bestek bizi
Ez dira naibageturik.
Bakotxa bere olatuetan
Ur mingoztuak edanik?

Zeinbat gazte eder bere dakusguz
Arrotu eta jagirik,
Dirudiela jaungoikotxoak
Askoi agurrak arturik;
Lora galant bat zirudiana
Atzo oraindak guririk;
¿Baña ez dogu gaur ikusiten
Zimeldutera asirik,
Bizimoduko itxasoari
Arpegi emon eziñik,
Atsekabezko ur mingotzetan
Lengo poz dana galdurik?

¡Ai! zeinbat zoli jakituriaz
Diranak zaratatsuak,
Dituezanak erakutsiten
Orriz jantzirik buruak;
Naiz umant izan ¿baña al dira
Atsekaberik bakoak?
Ez. orreik bere urrean daukez
Etsai ta arerioak,
Zeintzuk eregi eiten deutsezan
Olatu amorratuak;
Edan-erazo oi deutsezala
Zurrutada ozpiñezkuak.

Pozari miñak beti nora-nai
Jarraitu oi deutsa egan,
Gizona beti dabil zabuka
Ontzia dabillan eran ;
Antxiñakoak alan ebiltzan.
Gaurkoak dabiltz orrelan.
Urrengokoak bere ez dira
Bizi izango bestelan;
Emen ondatu bearrean ta
Ur miñak egiñik edan,
¡Ai! itxasoa irago bear.
Jayolakoak nai zelan!

ETXEZAR

I

Etxezar íñoiz ez da dirutzen etxea.
Dirutzetan badago ondo bizitzea;
Baña, nik Elxezarren pozezko kabia
Daukat, an naizelako jayo ta azia.

Neretzat Elxczar det onena arkitzen
Zergatikan enauten berriak poztutzen;
Antxe zalako jayo ta ill nere aita,
Bere aita ta aren aita ere baita.

Etxezar argatik det nere goitizena.
Mundu onetan au zail onragarriena ;

Naizela euskaldun uts eta garbia.
Asaba Tubal'gandik zuzen etorria.

Etxezar mendi batek dauka malkarrean,
Itxasoa du bistan osgarbi danean;
Añ da leku alaia, añ da egokia,
Ikusteko goizean laster eguzkia.

Beko kamiño ondoan andik da ageri,
Etxe berri bat, izen duena Jauregi,
Non bizi dan markes bat, oso aberatsa,
Baña aren bizitza da neretzat latza.

Alperrik berak ditu dirutza aundiak,
Alperrik kotxe asko, naidiñ bat zaldiak;
Baserriak ugari, morroiak ez gutxi,
Baña markesa triste beti det ikusi.

Zergaitik ark eztuen seme-alabarik,
Mirabeakin bizi bera da bakarrik:
Andrea euki arren, dauka zoratua.
Bi urteokiñ gela baten zarratua.

¡Zeiñ bizimodu latza, arena benetan!
Ez diot nik iñori nai mundu onetan.
Alaitasuna opa diot nik nainori,
Batez ere auzoko gure markesari.

Baña, gaur kanta nai det. Azaroan guri
Gertatu zitzaiguna, ari eta neri:
Dalako gertaera egokia oso,
Zeiñ etzaidan sekulan neroni aztuko.

Mendiak zuenean gorde eguzkia,
Gabak zabaldu baño len txit estalkia ;
Idiak larakoan nituen nik lotu,
Golda eta area gurdian kargatu.

Pipa ere txit bete ta suaz pizturik,
Keia goruntz, txistua lurrera botarik,
Banetorren etxeruntz, bertsoak kantatzen.
Buruan berez-berez ziranak sortutzen

Zeintzuek diran letraz gaur jarritakoak,
Izan arren balio oso gutxikoak;
Irakurleak emen oraintxe lenbizi,
Paper onetan ditzan guztiak ikusi.

II

Fumatzen duela ere Erregek, badakit nik,
Eizean aspertutzean, asnas artzen jarririk;
Ordea, artu ez arren onen belar merkerik.
Apostu egingo nuke eztiola gustorik.
Abanoari ark artzen nik piponi lakorik.

Gañera ez dala bizi, lasai nerau bezela.
Basotik ez daramala nere poz au etxera;
Koroia da txit pisua, izan arren ederra;
Itzalnrrri arin bat da, berriz, nire kapela;
Aññ ardura gutxirekin ¿non bizi ni onela?

Badakit errege dala ondasenez txit aundi.
Baita askoz dituala geyago eskalari,
Nola ezin dion eman premiadun danari,
Atzetik gero dabiltzaz gerragiñan berari.
Baña ¿al da nere kontra bear bada bat ari?

Jenerala txit burruka bukatzean exeri
Oi da, gusto emateko gorputz nekatuari.
Ematen diola baita su puroren bateri,
Fumatzeko: baña lasai ¿arrek al du ipiñi.
Ikustean zeinbat odol egin duen ixuri?

Ainbeste negar kurriska dituela entzuten.
Ainbat ill ta erituri diela begiratzan,
¿Miñez badu Jeneralak puroko keia artzen,
Nik ez det maiz itzalpcan pipa motxau betetzen.
Ta entzunaz txori kantak atseginez fumatzen?

Merkataria sarritan dijoa fumatuaz.
Feriatic etxeruntza burua urratuaz,
Atsegiñik artu gabe pipako ke gozuaz,
Gogoratu oi dalako bakarrikan diruaz;
¿Noiz dijoa ni bezela bertsoak moldatuaz?

Tratu ona egiñ arren, ark ezin du kantatu,
Geyago irabaztea zuelako pentsatu. •
Aberastutzen ari da, baña ezin da poztu.
Zulo bat du biotzean, ezin dana itsutu,
Ta urteko laboreaz ¿ni enaiz bai, kontentu?

Irurogeita bost urte euki arren gañean,
Oraiñdikan zama ona darabilt bizkarrean:

Berrogeitak daramazkit igaroak lanean,
 Idi. gurdi, laya, goldaz ta berdin aitzurrean;
 Ala ere miñez enaiz iñoiz etzan oyea.

Egia da, zartu naiz-ta azkena zail urbiltzen:
 Baña, enau asko orrek beñik-beiñ ni beldurtzen.
 Aloz, eriotza, atoz, zerura joan naiten,
 An ez dalako negarrik iñoiz ere entzuten,
 Eta kantua bakarrik jatalako gustatzen.

Aida gorri, aida txuri, kantatuaz goazen.
 Igarorikan eguna gari-saill bat ereiten:
 igaz baño giro ohea izan dalako aurten,
 ¿Enaiz bada sayatuko bertsoak ateratzen,
 Nere biotzeko poza dedilla argiratzen?

Baña, danen aurretikan esperantza Jaunagan
 jarria det, zereu uzta ona degun beragan :
 Alperrik nekazariak neke asko eraman,
 ¿Zer balio dio, baña, egiñ arren sendo lan,
 Zeruak laguntasunik ezpadio nai eman?

Larretikan datorrela or da ere semea,
 Txintxerri-otsak diote: badator artaldea;
 Andreak egosi dezan batutzean esnea.
 Ta gogoa nik jateko nola dedan irmea,
 Jaungoikoari eskerrak ¡o! zer ditxa nereaa!

Onelaxen nijoala nere koplak kantatzen,
 Pipa ere zijoala ondoraño gastatzen,
 Eskopetaz sorburuan, purotzar bat fumatzen,
 Gaztañadi batetikan markesa zait irtetzen,
 Ta aiñ pozik: «¿nola bizi aiz», ez dit bada galde-
 -zen?

Erantzun nion nik: «Jauna, enaiz dirutzen jabe.
 Etxezarren baña bizi natzayo alegere,
 Andre on bat daukat eta ditugu iru seme;
 Nekazari lenengoa, bestea arrantzale,
 Irugarrena artzaia, dalako ardizale.

Zarrena. Jauna, nai nuke oñordeko nik utzi;
 Etxezarren egiñ dedin oi bezelaxen bizi;
 Aingeru bat da andrea ark zuena iritxi,
 Urrikaltsu, zur ta garbi, ta Jaunaren beldurti;
 Alabatzal orregatik guk oi degu iduki.

Arrantzalea bizi da ezkondua kalean,
Berea du txalupa ta, itxasoko lanean ;
Nola dan begiratua gastatzeko bidean,
Ta poliki duelako aurreratzen urtean,
Inoiz ez du ontzako bat berak falta etxean.

Artzaia ezkongai degu, bera Kuban izana.
Osasunakin etorri ala ere ura da ;
Nolako gauzak kontatzen ark dizkigun bai, jauna;
Ango gerra azaldutzen duen bezela bada,
Etxezarko pake ona ¿askoz obe ez al da?

Oraindikan beste lore on bat gurean bada,
Jakiñ beza baiña, jauna, ura degu alaba;
Beste aizpa gabetanik maitegarri bakarra,
Eta berez bera nola zan monja bat bezala.
Dote diñaz aspaldi da komentura joana.

Nere umeai begira, atsegiñez nago ni,
Ematen didatelako danak poza neroni;
Enuen nai izaterik semerik merkatari,
Baizik arrantzale, artzai, ta geyen nekazari,
Zergatik ori diodan beti eska Jaunari.

Nekazaria lurrean dalako zimendua,
Artzaia da bigarrena, edo ondorengua,
Arrantzale irugarren dudarik gabekua,
Oñean egongo bada zutik, lerdin mundua,
¿Bestela elitzateke gizartea galdua?

Bizibide oiek dira nere ustez onenak,
Iruretan nik dakuskit kristaurik garbienenak.
Iruretan leyalen ta euskaldunik zailienak,
Gordetzen dituztelako oitura on zarrenak,
Antziñako guraso on gureak zituztenak.

Azkenez, jauna, maiz neri alaitzen zait barrua,
Oroitzean guregatik bizi dala bekua,
Oroitzean guregatik bizi dala goikua,
Nola markes, zeñ errege, baita Aita Santua,
Kantaturik gure lana dala bedeinkatua.»

Markes jaunak au entzunik bereala puro bat
Eman zidan, esanikan: «Zaukazkit doatsutzat;
Alperrik nik kabiatzat Jauregi berri daukat,

II.--LIRIKA KANTUAK

Etxezar izanagatik bizileku zuretzat,
Zere poza antxe dago, ez bestean neretzat.»
Alaxen kontu kontari eldu giñan gurera,
Semea ere artaldeaz laster zan gu bezela;
Fumatzeko ari eman nion puro ederra,
Arkume guri batekin markesari eskerra,
Geroztikan ura ta gu adiskide txit gera.

GOIKO ITXASO GOZOA

*(Eskuitza nere adiskide leyal dan On Antonio
jaunari)*

Adiskidea, negarrez ala
Eztakit nsi kantuan;
Irudi guztiz mingarri batek
Illun jartzen nau goguan;
Kendu ezinda berau darabilt
Aspalditxoan buruan;
Jo ta biraldu arren, datorkit
Eulien gisa beinguan.
Orregatikan azaldu nai det
Ito gaberik barruan,
Jakín dezaten ez etxean ze
Gauz au gaur zer dan auzuan.

Adiskidea, entzuten nago
Erreka-soñu gozua,
Nere artean nik diotala
Minberaturik barrua:
¡Ai! ondo orrek baleki zer dan
Itxaso amorratua !
Baña gaztea dalako, nola
Ariña daukan burua,
Ondamendira joanagatik
Arkitutzen da itxua,
Bestela ain pozik orrek eraman
Eluke egingo gogua.

Osterantzean galdetuko det
Errekarikan bidean.

¿Nork geratzen du ipiñi arren
Eragozpenak aurrean?
Obeditutzen ezpadakite
Iñori ere txarrean,
Kolpe aundiak artuta lertu
Naiz egiñ arri artean,
Presetatikan saltaturikan
Emen, an eta bestean,
Konturatutzen ezpadirade
Erori gabe sarean?

Baña erreken begi itxuak
¡Zeiñ laster diran argitzen!
¡ Zeiñ laster diran ur gezak berez
Ziranak gazi arkitzen!
Eta kartzelan preso daudela
Txil dutenean ikusten,
¡Zeiñ laster ere arkaitzen Kontra
Diran suturik jaikitzen!
¡ A ! gizajoak, orra jetxirik
Ezta mendira biurtzen,
Ezta beñ galdu ezkerokoan
Kondenaturik salbatzen!

Adiskidea, egiñagatik
Gaur gauza arrigarriak,
Erreken kontra alper litzake
Artzea baña neurriak;
Mendietatik begizatzean
Itxaso zelai aundiak,
Zoratzen dira daudelakotzat
Antxe berentzat gloriak;
Ta uzten dituzte bein da betiko
Jayo ziraden tokiak,
An bizi arren ardiak pozik
Eta kantatzen txoriak.

¡Zeinbat gizajo ere ur gisa
Iñozentzia garbian,
Goyetan jayo ta aziagatik
Nastutzen dira urian;
Siñistu zuen kale ederretan

II.—LIRIKA KANTUAK

Zala aukera guztian
Bizi izaten erosa ela
Pozgarri danen erdian.
¡ Arzak maitea ! baña aingeru
Gazte ziranak mendian,
¿ Askok ez dira zartu ta txartu
Einda ill Babilonian?

¡ Zeinbat jakintsu fedegabekok
Erreka itsuen moduan,
Ere jarraitzen dute ill arte
Beren iritzi zoruan ;
Zoriontasun billa jardunik
Arkitzen eztan lekuan,
Eta alperrik nekaturikan
Bizi guztian munduan,
Ondatzen dira, baña ez urdun
Ta bai itxaso suzkuan.
Ez irtetzeko andik geyago
Betikotasun osuan !

¡ Anton kutuna ! ezin niteke,
Baña ni emen mututu,
Ari onetan egi samiañak
Esaten nai det jarraitu ;
Aita Adan'ek egin ezpalu
Bezela iñoiz bekatu,
Mundu au dala Paradisua
Askok oi digu siñistu ;
Salbea jarri zuenak, baña.
¿ Ez ote zuen asmatu
Negardun ibarraren izenaz
Lur au egiñaz markatu?

Adiskidea: Paradisua
Galtzeak gabiltz onela;
Jayotzatikan begira ondo
Zer dan gizona bestela;
itzik eztaki batere egiten,
Negar maisuak bezela,
¿ Nola ote da ark egitea
Mundura alako sarrera?

Baldin badator bizi izatera
Eta aiñ erri onera,
¿Nola jotzen du agoniako
Soñurik onen onena?

Nik esango det, lagun laztana,
Egi au barru-bnrruti:
Negarrez asi nintzan bezela,
Ozta jayorik lenbizi,
Seaska baten gero negarrez
Nintzala ere bai azi:
Len gaztetan ta oraiñ zartzean
Negarrez nazala bizi:
¿Negar gabeko egunik emen
Gaur arte ezpadet ikusi,
Nondik ta nora aurreruntzean
Izan ninteke farreti?

¡Anton nerea! abereak txit
Alaya dute jayotza,
Nik jostaketan ikusi oi det
Berealaxen bildotsa;
Jayo ta laster ikusi oi det
Txala poz-pozik saltoka,
Orobat ere ikusitzen da
Txikoa nola beoka;
¿Negarrez baño lenago ere
Txoria txorrotxioka
Asitzen bada, nola ote da
Aurra asten illeta joka?

Errekak bera jetxiko diran
Bezela nago seguru
Ez dala iñoiz lur au egingo
Guretzat biurtu zeru;
Pobrelasunak bagaitu illuntzen
Eta diruak alaitu,
Aberats aundi ziran ainbestek
¿Nola buruak urkatu
Dituzte emen diruz biotzik
Egin gaberik asetu?

Arrosak nai-ta, zituztelako
Arantzak non nai arkitu.

Adiskidea, biok dakigu
Iya sei milla urtean
Gizon itxuak dabiltzatela
Zorionaren atzean :
Baña alperrik, zergatik ori
Iritxi dute lurrean
Santuak utsik, jarraiturikan
Jesus'i leyaltean;
Jarraiturikan Golgota'raño
Aldapen bide latzean.
Sarri askotan kantatzen illik
Gurutze samin batean.

Adi zazute, fedegabeak,
Emen bakarrik dontsuak
Izan dirala eta izango
Jesus'en eskolakuak;
Illko zerate zuek bigar ta
Etzi biziko santuak;
Diradelako oyen egintzak
Ez lurrak usteltzekuak,
Eta bai. andik ernetzen diran
Landara besangatsuak,
Mundua mundu eman ditzaten
Azi onaren frutuak.

Nere lagun on krislau zintzoa.
Aldapan gora igotzea
Ondo dakigu eztala berdin
Nola menditik jeistea;
Orregatikan txit erreza da
Errekai jarraitutzea,
Baña gloriak nola Olinpo'n
Daukan beretzat etxea,
Obeko degu guk fededunok
Aruntz artzea bidea,
Maiteturikan Jesus'ek goitik
Fkarri zuen legea.

Nere anima, etzera ura.
Baizikan zera usoa,
Ezker aldean bezela dezu
Eskuyan ere egoa ;
Zera egazti guztiz azkarra
Ego zabal on bikoa:
Aldapan bera ur gisa narras
Etzera jetxitzekoa,
Ezpada aidez egan egiñaz
Zerura igotzekoa,
Goza dezazun atsegiñezko
Goiko itxaso gozoa.

ITXASOARI ITAUNA BAT

—Urzelai zabal, gizon askoren ito lekua.
Ni bere beti bizi naz zugaz aserratua ;
Ezanerea dodan ezkerik dot siñisturik
Zugaitik ezin neiala aratu oñez mundurik.
Ontzian barriz etzaitut gura zeartutea,
Arriskueta eztozalako nai sartutea.
¿Zer diñostazu goi urdiñ orrek bere azpian
Zure ostetik aurkietan dan leortegian,
Bauka au baño gizonarentzat leku obarik,
Etorkizunak dakarzan gora-berak bagarik?
Jayo ta azi. bizi ta zartu alde onetan
Ni nazalako, ibilli бага erbestietan.
Emengo gauzen aldantza andiak gauT gomutetan
Zure ondoan jarri natxatzu muna onetan:
Zeinbat atx, mendi, zelai ta erreka ditut irago.
Ordu bardiñik bi erreskadan emen ez dago,
Zeinbat eguntxo gaurko au legez jagi arrorik.
Eta etzaten ikusi ditut motel gaixorik.
Zeu bere lentxo izanagaitik zoragarria,
¿Etzoaz iya aldatuagaz gozo-aldia?
An olatuak abiau dira asarre atzean.
Eta or datoz alkarri danak jarraika ertzean.
Eta zeinbati gertetan jakon urreratzean.
Ondartzan gora igo ezinda ukatutean,

Lotsaz biurtu lengo bidetik egiñ bearra,
 Oso isilldu eginda ekarren barailazarra;
 Eta ¡o! zeinbat ondartzen ordeztotean atxa,
 Au apurtzeko dalako gogor zail eta gatxa.
 Danak birrintzen dira usterik gitxienean,
 Ulu, deadar ela garrasi miñen artean.
 Ze itsua dan olatuentzat etorkizuna!
 Jazotekoa zuretzako dan legez illuna,
 Atzera bere itauntzen deustut gaur, itxasua,
 ;,Beti bat al da beste aldeko bizimodua?
 Esaidazu zeuk, jasorik zeure dedar zolia,
 Zer gertetan dan urez anditik egi-egia.

—Ementxe legez an bere dago aldasdun lurra,
 Baita gizonak gerokoaren dauke bildurra,
 Zergaitik ara joanagaitik dirutzen billa,
 Lau aberastu orduko pobre ill oi da milla.
 ¡Ai! irakurri balei gizonak etortekoa.
 Zuk irakurten dozun legez gaur iragokoa :
 Ni asieran bere enintzan orain lakua,
 Emen ill diran ainbeste millen kanpo santua:
 Augaitik ez da zetan arritu banaz gazia,
 Gaur nazalako negar maikoen pozu andia.
 Ez da mirari nik egitea urrumak sarri,
 Neure egiñak gomuteteak jarten nau larri;
 Nire arrañak sarritan izan dira txakurrak.
 Jateko pozik gizonen mamin cta azurrak;
 Bai, banaz bere itxaso gogor antxiñakoa.
 Gauza andi ta asko ikusi egiñikoa;
 Baña alanbere ez dazaut ondo etortekoa.
 Daukalako orrek nik baño barru sakonagoa:
 Bestela ¿zelan udan datortaz ibai gizonak
 Bide onean neguan jatsi bear leukenak?
 Dana da, bada, gauza bat nai ta beste bat jazo,
 Alan nik bere askori deustat negar erazo.

Benetan zara sakon illuna, etortekua,
 Zuri igarten alperrik nekau oi da burua.
 ¡Ai! naiz ez izan orain arten itxaso zale.

¿Nok daki bertan ito egingo banaz ni bere?
¿Gaur garbitzeko nai ez dodan ur lizunduagaz.
Egarria il bear izan nei biar beragaz!

AGUR. UME

Zerura joan nayago osatu baño.»
(*Arrese-ko Muría Pilartxoren azken egu-
netako berbak*)

Ez al nozue gogortzat, arren, iñok eukiko :
Ez nagizue, atx arrizkotzat iñok bota :
Ez nagiala zentzun bagakaz iñok bardindu.
Nire biotz au erdibiturik gaur dagota.

Ez deustazue ausaz malkorik gaur ikusiko.
Begiok malkoz dodazalako gorriturik.
Añ luzaroan nire biotzak eukan patiaña.
Dalako oso iya gelditu agorturik.

¿Nok esan daike baña beraren kordel mejetan
Amaitu dala soñututeko indar dana.
Iturritxo bat mututu oi dan erara bardin
Agorrillean sikatutean urik bago?

¿Nok esan daike berau aurkitzen dala galduta.
Basamortuan galtzen dan legez bidaztia.
Laño artean dabillenean topau ezinda
Berak atsedean gura leukean baserria?

Bidetik alde daben bat legez orain bizi naz:
Ezin dot topau atzo nekusan goix-izarra,
Ezin dot jarrai zerren errendu bere egin nazan.
Eta aldatsok iragoteko nago zarra.

Orrcgaitiño agurtzen zaitut, Probidentzia.
Lurreratzen naz ezkutapenok adoretan.
Nire asmoak badira bere oker atera,
Zureak beintzat zearo dira gertaketan.

Parkatu, Jauna, parkatu, Jauna, baldin geyegi
Maite baneban eta amelan alabea,
Zerren eskini neutsun azkenez biotz guztiaz
Artil zengion zeuk besoetan arimea.

II.—LIRIKA KANTUAK

¿Zergaitik orren gazterik baña nai ete eban
Nire loratxo guri-guriak amaitzea,
Galtzen ebela bere matrallak gorritasuna.
Ta bere begi izarrezkoak ikustea?

Larrien larriz ¿zergaitik aren estu jarri zan.
Goregi igoten danean legez txoritxua,
Bere biotza gelditzen zala taupada бага,
Isten eustala neure au baña taupatsua?

Oraindik zortzi urte bagarik ¿o mingarria !
Gorputza itxi arimak eutsan deslaitúrik.
Aita ta ama onen ondoan aurkitu giñan
Zer jazoten zan ezin ezelan barruntaurik.

Marmola bera zirudiala geratu jakun,
Len biziduna izan zan nire alabea:
Ez dakit zelan geratu nintzan neu biziagaz.
Zalako bera aitarentzako bizitzea.

Emon neutsazan laztanak asko berari baña,
Larrosatuten etxakon mosu zurbildua;
Ez eben bere ezpan politik zabaldu gura,
Deitu egidan «ene aitalxo gogokua».

Egazti batek goix jagitean bere abia
Beti isten dau otzitu бага epeltxorik ;
Modu berean gelditu arren aren aoa
Geratu jakon laster gerora otziturik.

Zerren etorri etxakon ari urten eutsana,
Egaztitxoa datorren legez bere etxera:
Ezpada nire umeak eukan uso zuriak
Egatu eban ez biurtzeko ona atzera.

Ordurik ona agaitik nabill beti artega,
Damuz ezin dot iñon billatu atsedenic,
Biotz oneri eukan biotza ill jakolako,
Aitaren biotz onek nor eukan biozturik.

Itxas azalez dabillan ontzi polita zelan
baga eskerga batek oi daben ondoratu.
Baletzar batek ao zabalaz ene umea.
Niri ostuta, sabeleraño eban sartu.

Lora eder bat atzo zan eta gaur da zimela,
Atzo zan nire poza ta gaur jat naibagea;

Atzo zan nire etxe au agaz uda-barria,
Gaur bera baga au jat negu baltz illunpea.

Uste bagako aldakuntze au ikusitean,
¿Zer egin daiket? ¿noruntz zuzendu nik begiak?
Zeruetaaruntz eregitean biotzak diñost,
Araxe egan ebala nire alabeak.

Bizi ohea artu ebala fedea diñost,
Bizi ohea artute arren egin jat ill;
Bizi ohea goyan gozetan dagokit eta,
Ni barriz beian onen negarti ¿zelan nabill?

Arbola batek baña adar bat galdu ezkeru
Agertzen badau sentimentua dabela artu,
Aitaren biotz onek biotza galdurikoan,
¿Zelan damurik egingo ez dau gaur agertu?

Ez da mirari, neure umea, zu gomutauta,
Aitau negarrez oraindik bere asitea;
Ez da mirari entzun neutsuzan berba andiak
Neure burutik oraindik ezin kendutea.

Zuri, zuri bai, alabatxoa, entzun neutsun bai,
«Osatu baño zerura joan dot nayago».
Ez dakit nundik asmau zenduzan itz orrek, baña
Niretzat gauza ezkuturen bat or badago.

Gaux ixillen bat sentietan dot or badagola,
Gaux ixillen bat batek bakarrik dakiena ;
Ezin erantzun bestela alan zinaidan, Pilar,
Zarrago batek dalako ori al daikena.

Osatu baño joan nayago zenduen legez,
Ontzat artua izan zan goyan zure naya :
Osatu baño joan nayago zenduan legez,
Egiatzu zan euki zenduan erabaya. >

Orrexegaitik urten eutsuen bidera, Pilar,
Zeure nebatxo aingerutxoak laguntzera,
Euren erdian igo zinainn izarrez gora,
Eurakaz nasi, kantu artean bizilera.

Eurakaz naste errubageen artean zagoz,
Iñoz orbandu etzendulako arimea ;
Edurrezkoak zure jantziak dirudie ta
Eguzkia duiñ argia dozu arpegia.

Orlxe gozctan bizi zaitez bai, alabatxoa,
Orban bagako Bildots otzana adoretan,
Erreguturik egunen baten zure aitamok
Igo daigula orraxe bera alabetan.

Orrexegaitik zuk ez daukazu damurik oraiñ,
Aita ta ama bakarrik emen itxitezaz,
Eriotzea irago eta zagozalako,
Atsegiñetan emendik orra igoteaz.

Zure gorputza badago bere lurperatuta,
Egunen baten aterako da ain ederrik,
Azuzena ta lirio zuri-zuriak baño
Zuriago ta iñon orbantxo bat bagerik.

Agur, umetxo, ikusi arte ortxe zeruan;
Agur, agur bai, gelditzen gara gu lurrean;
Agur, biotzak zerren eroan zeuk deuskuzuan,
Agur, ume, guk pozik ez dogu emen bean.

NEURE AMA MAITE ZANARI

Ze izen samurra dan, Ama !
Euskaldun garbi garbia!
Gaur kantau dagidan, betorkit,
Lira bat ondo jarria ;
Seme on batentzat dalako
Atsegiñ emongarria,
Dalako Amaren izena,
Gozoa, zelan eztea ;
Dalako Ama bizitea
Zorion guztiz andia,
Agaitik negarrez bizi da
Ama ill bajako ume guztia.

Adilu bertsuok arduraz,
Egia dalako nik diñodana ;
Izan bik bizia emonik
Mundura etorten gara;
Aitaren aldean maitetzen
Bakigu nor jakun Ama,
Dakigu txoriak umerik

Largetan ez dakiala,
 Ta ¿nondik jakin legi Amak
 Urrintzen ardura baga,
 Ilxirik etxean negarrez
 Bere biotzeko biotz laztana?

Nozbaiten motel aurkituta,
 Kumatik artutakuan,
 Laztantxo samurrak emonaz
 Arpegi larrosazkuan;
 Ta irriz, ta barrez, barriro,
 Umea asitakoan,
 ¡O! ze poz parebagakoa
 Amatok daukan orduan!
 Bardiñik eziñ leikelako
 Billatu iñok munduan:
 Obea bearako jaritsi.
 Ill-eta, zenira igo-takuan.

Umeetan, Amaren kantuak,
 Aiñ dira aiñ gogokuak,
 Oraintxe gizaldi erdi bat
 Nik bere entzunikuak;
 Alperrik sortzen dauz indarrez
 Itz onak nire buruak,
 Bein bere ez dira Amaren
 Berbakaz bardintzekuak,
 Arcnak zergaitik eurenez
 Zirean urtenikuak;
 Enrayen errai la erditik,
 Errezto, eroso, erne-takuak.

Benetan, dontsua benetan,
 Umeetan Ama dozuna;
 ¡O! zeñek leukaken lurrean
 Aldi on zuk daukazuna!
 Amatxo zurea dalako
 Gabetan bere eguna,
 Etxatzu aren arpegia
 Sekula zuri illuna;
 Ez otza, ez motza, biotza
 Apaiza, maiatsa ta bai biguna,

Zergaitik zaituan bertako
 Bizia, odol ta frutu kutuna.
 ¡Ai! baña, nik galdu neban ta
 Alako maitetzallea,
 Gaur bere miñez gomutetan
 Dot ¡o! dot, bere illtea!
 B-uritik ezin aldendu dot
 Beraren agur tristea.
 Lapur bat legetxe eldurik,
 Agana Eriotzea,
 Norgaitik gaur dauka oetzat
 Lurpean arren etxea,
 Ta arima benturaz penetan
 Garbitu artean dago tristea.

Ezkutau egizu. Jaungoiko
 Zuzena, ezpata mea;
 Ezarri Garbilekurantza
 Samurra bigiraunea,
 Ta bertan, garretan, erretan,
 Badago Ama nirea.
 Balio bekio ¡o! zure
 Odola, Jesus maitea !
 Nik bere gozadu dagidan
 Zeruan zure bakea,
 Amaren obira joan da
 Errezau gura dot Aita-Gurea.

ANJELA

*Beati mortui, qui in ilumino moriuntur.
 Zorionekoak, Jaunagan illten direan illak.
 Apokalipsi-an, XIV kap.-an, 13-en bere.*

Ee dot tintarik edo ur baltzik bapere bear,
 Begietatik odola darit gaur naikoa:
 Utsik bear dot paper illun ta baita luma bat,
 Labañearen aldean ondo zorroztua.

Gutziz biziro gaur eskribídu dagistan berak
 Garbiro nire barruan dana iragoten;

Nire damu au zelakoa dan mundu guztian,
Malko gorriaz ipiñi eta leidu daiten. •

Sabel au daukat laba hat legez gori-goritan
Garrak kanpora urten nai eta eziñ urten;
Ok egiten deust eztarrian ta larriak legez
Suzko boladak asi bearko dot botaten.

Urten zaiteze nire agotik, suzko errekek.
Urten zaiteze estuen estuz enadin ill;
Urten zaiteze, kolkoan zuek zaituedala,
Ito gura, ta ilo eziñik, ¡ai! gaur nabill!

Urten zaiteze zuen beroak zergaitik naukan.
Topin bat legez *gar-gar-gar* oso irakiten;
Alan basoan, zelan etxean, aiñ gitxi oyan,
Atseden piskat gozetan here ez deust isten.

Astcak doaz, asteak datoz; baña au onek
Garren indarrik apurrik bere ez deust galtzen;
Iya mamiñok ezer-eztu ta unetaraño
Asirik daukat kiskaltzen naben gar au sartzen.

¡O! amodio benetakoa, ze desbardiñak!
Direan zure aiñ egitada zurgarriak!
Len poztu eta oraiñ tristetu egiten nozu,
Zelan al dozuz nigan kontrako gauza biak?

Gauza bi oneik eragiñ deustaz amodioak,
Azur usturik jarririk nauka igartua,
Jarririk nauka anka bakar bat oi dan erara.
Nai eta nai ez bear dodala makulua.

Jarririk nauka soldau eridu baten antzera,
Iñor bagarik leku urriñean non topauko
Ongillaren bat; eta dei triste oneik entzunda.
¿Nortxobait etxat errukiturik azalduko?

Iñondik bere ez da izango nire zauri au,
Kurauko deustan biotz onen bat agertua?
Ai! ez ete jat norbait onuntza urreratuko,
Jagiko banaz, luzatutera bere eskua?

• Zorura zelai adore бага jausia nago,
Nire lagunak bakarrik dira naibageak;
Nire etxeko zurkuluetan ez da besterik,
Lenago berau zer izaten zan señaileak.

¿Non da an argi egiten eban izar bizia?
 Gaurko argi-gei danen aldean eguzkia?
 Ogei eta bat urtean pasau, amatau baga,
 Bere garragaz ni argitzeko zan zuzia?

¿Non da beraren arpegi eder errañutsua?
 Non da ak niri egiten eustan abegia?
 Non aren txera, ongi-etorri ta ago gozoa,
 Eztia baño jausten etxakon iturria?

¿Non da gureko egazti zuri ego-zabala?
 Txitatxo biak euren barruan gordetako?
 ¿Non ama samur eta epatza bere aigeru
 Biak altzoan beso artean estutzeko?

Zer da gaur gure ezkaratz edo su ingurua?
 Kantu barriak egiten ziran tokitxua?
 ¿Nora biurtu jaku kayola euskerazko au?
 ¿Zelan jarri da aiñ basamortu mututua?

¿Non da bertako arbola eder besangatsua?
 Kerizpetuten ebana bere etxadia?
 ¿Zeñek girotu egingo gaitu uda errean,
 Garretan jagi egiten bada eguzkia?

¿Non da arako karidadedun andra andia?
 Gazte pobre ta billox tristeak jantziteko?
 ¿Zelan itxi dauz gaur emen bere zatiak deslai,
 Len besterenak izaten zanak jasoteko?

¡ O ! zeinbat ume-zurtzek beragan euken ama
 Orain bereak aurkitutean ama baga, [bat!
 ¿Zer diñozue, zeru gogorrok. ¿zer diñozue?
 ¿A]an saritu nai gaituzue, alan bada?

Au da ordaña, ¿au da eskerra, au alogera,
 Aingeru baten antzera bizi zanarentzat?
 ¿Nor izango da bere lekuan beste aingeru
 Gordetzalla bat bere ume-zurtz gaixoentzat?

Bakit, Anjela, zeruak nai ta zelan egiñ zan,
 Jayo Aingeru Goardakoaren egunean;
 Bakit, Abade Jaunak eutsala Aingeruaren
 Izenaz deitu, ura burura botatean.

Bakit, izen au loitu bagarik ebalá gorde,
 Egitadakaz ebalako ak erakusten ;

Alan ezpada, itandu bedi auzo guztian,
Ea zer daben Anjela'gaitik erantznten.

Bera izan zan ume denporan pitxi-lora bat.
Lirio zuri niri eskua emotean;
Gero izan zan Aingeru-Goarda gure etxean,
Eriotzeak korañeagaz jo artean.

¡O! zeñ ederto ak bete eban Aingeru lan au !
Niretzako zan bere betiko ardurea;
Nik ezingo dot lumaz ipiñi norañoko zan.
Bere biotzak niretzat eukan amorea.

Bera izan zan gure etxeko ondragarria.
Bera izan zan ni gordetako gaztelua,
Bera izan zan ekatx mueta guztien kontra
Buru gañean jarriten jatan eskudua.

Bera izan zan neu legez arte-eder zalea,
Bera liburu asko ebana irakurten;
Nire lumeak eskribietan ebazan letrak,
Berak zituzan borrau ta asko obetuten.

Bera izan zan, egia garbi kantau nai badot.
Gauza askotan ni zuzentzeko irakasla ;
Bera izan zan, tantai bat legez aretx motzetan.
Anjela, andra askotan buruz jaso zana.

Agaitik ¿zeñek osatu leiket bere faitea?
¿Zeñek ornidu alboan itxi eustan utsa?
¿Ze garratza dan edan bearra kalizatxo au!
Alako lagun bagarik ¿ze miñ alarguntza I

¿Nok lagun egiñ leiket urteten troka aiñ sa-
Sastraka baño besterik ez dan onetatik? [kon,
¿Zegaitik alan largau ninduan neure usoak,
Iges egiñik moldan genduan abiatik?

¡O! ez-bearra! odehyak kontra jagi jatazan,
Oñaztarri bat gure gelara jaurtigirik;
Negu otzeko gaberdi baten itxi ninduen,
Neure bizitza erdia zana ebagirik.

Itxi ninduen mendi zorrotzez inguraturik.
Itxi ninduen atx arte baten txito preso;
Itxi ninduen bide guztiak zarratu eta,
Txarrago dana, begietatik itsu oso.

Itxi ninduen ontzia ausi ta orratz bagarik,
 Itxas asarre amorratuan illunpetan ;
 Farol bat bere eziñ begiztau iñon nebala,
 Ezelan bere Euskal-erriko portuetan.

Itxi ninduen narru gorrian lotsaz billoxik,
 Itxi ninduen biotz bikotx au bakartua;
 Narros, lurrean, lorrinka, larri, garrasi baten,
 Eztarri danau jarri artean zarratua.

Goyai laguntza eskatutera beartu nintzan.
 Baña len bigun jatazan atxok gogorturik;
 Sortu, leortu, gortu, dollortu, danak egiñik,
 ¡Ai! batek bere ez eustan egin kausiñorik.

Izarrai gero poza eskatzen bildurtu nintzan,
 Bat jausi eta bertan zapaldu enengian ;
 Bildurtu nintzan lurrak uts einda bear nebala,
 Ondatu bere errayetako sutegian.

Jauna, ¿cnintzan neure Anjelaz betiko batu?
 Jauna, ¿eneutsan beretzat emon nik biotza?
 Jauna, ¿beragaz bat-bat nintzan ta batera illik
 Zelan ez dogu bardin guk igo Zuganuntza?

¿Ausaz enintzan, jauna, ni jayo Anjela legez?
 ¿Zu gozetako beti-betiko urtictan?
 ¿Jausiko naz ni agiñ-kurrixken lekuetara?...
 Ez, ene Jauna, artu naizu zeuk besoetan.

Gorde naizu zeuk, Jauna, betseiña oi dan era-
 Ezkutau naizu, zuk zeure beso zabalagaz; [ra,
 Jarri naizu zuk, zeuk gura dozun orduren baten,
 Goiko Errian gozau zaidazan Anjelagaz.

¡A! bitartean, baña, baneki baso ixill bat.
 Bertan egiñik txabola txiki barri baten,
 Neure emazte, neure zatia, len zanagaitik,
 Negar malkoak utsik edanaz bizi naiten.

Antxe bai, pozik emongo neukez ordu osoak
 Gogoratuten nik Anjelaren birtuteak;

¡An bai, egunak emongo neukez irakurriaz,
Itxi eustazan gomutagarri aiñ luzeak!

¡An bai, beraren espirituak ninduke poztu,
Egingo gabaz lotan nagola amesetan;
Agertuagaz edurra baño zuriagorik,
Kontauko leuskit zelan bizi dan zeruetan ?

ERIoTZEA

Laburrak dira gizonaren egunak; Zuk dau-
kazu zenbaturik bere illabeteen lumeroa.
(*Job, IV, kap.an*)

Ikusiten dot nik, eguzkitan nabillanean,
Neugaz batera, doiala neure kerizea;
Nondik igaro egin dan, baña, keriza ori,
Ez da gertatu markarik iñoz ikustea.

Tximinialik ikusi oi dot boladan keia.
Zelan lenengo indar andiz dan urteten ;
Baña puska bat igo orduko ezer-ezera
Edo utsera dala guztia biurtuten.

Kandelatxo bat bere dakust nik ixiotzean,
Eta arnasa batek zelan jo, beingo batean,
Gela bat zabal izanagaitik argituten:
Kandela itsu eta gelea illun jarten.

Eta, azkenez, ontzia dakust uren gañetik.
Iragotean zelan arraya daben isten;
Baita, bertatik, urak leunduta arraya orí,
Ezertxo izan ez balitz legez geldituten.

Modu berean edo antzera ¿ez da gertatzen,
Gure biziak ontzi bat legez ez dirudi?
¿DI zan askoren markarik emen luzararako,
Non ikusten da? non billatuten? non agiri?

¿Zer jazoten da gorputzak daukan al izatean?
¿Illten danean osoro ez da akabetan?
Kandelatxo bat aixe puskatek jotean legez.
Gatx txiki batek ez dau guztia amatetan?

Bestelan ¿zer da nire Anjelaz gertatu dana?
 Bere oñatzak ez doaz desagertutera?
 Ke moltsotxo bat desegin oi dan legetxe bardin,
 Ezer-ezean ez doa dana gera tzera?

Nire emazte izan zanagaz, badakit ondo,
 Iya ez dala gaur batxo bere gomutetan;
 Kerizearen antzera bardin, bere izatea,
 Lur onetatik irago eta ¡bai! aztu zan!

Ni neu, bakarrik, zuzenduten naz bere obira,
 Neuri bakarrik, gogotik etxat aldenduten;
 Nik neuk errezau egiñagaitik bere alboan,
 ¡Ai ! arek baña, berbarik ez deust erantzuten.

¿Zer da gaur berak arturik daukan ixilltasuna?
 ¿Zergaitik ez dau mizti bat bere bada egiten?
 ¿Zergaitik dago ipiñi eben lekuan geldí,
 Oetik zana goíz guztietan len jagiten?

¿Ze sentimentu ete dau oraiñ artu nigaitik?
 ¿Zergaitik nire berbai ez deutse jaramoten?
 Iñoz tristerik, ela muturik nengoanean,
 Berba eustanak nai eta nai ez eragiten?

¿Zelako loa ete da bera artu dabena?
 Iya ainbeste illabetetan irauteko?
 Bederatzi ta egunak bere irago arren,
 Esnatuteko señale бага jarraitzeko?

¡ O ! ze gogor ta ze otso-biotz, Eriotzea !
 Azan, jarteko orrelan nire emaztea;
 ¿Zergaitik eutsan ik orri aren goixetik kendu
 Niretzat falta egiten eutsan bizitzea?

Igaitik jagok tayu tristera gaur etorríta.
 Igaitik mamin guztiak iya usteldurik:
 Azurrok bere denporaz igar jarriko dozak,
 Gero austuta lurragaz danak bat egiñik.

¡Agura zital, arriak baño arriagoa !
 Abel'egandik asi intzana gerra-gintzan :
 ¿Noz aspertuta, gogait egiñik itxiko deutsak,
 Eu noz illgo az, ill бага bizi gu gaitezan?

¡ A ! bajakiat, i ez azala sekula illgo,
 Iñor bizirik munduan badok aurkietan;

Arboletatik orriak bera datozen legez,
Zelan jausiko garean ire sareetan.

Danok guztiok, bear juagu txiki ta andi,
Aita Santua, naiz Erregea izan arren;
Naiz jakituna, zein ezjakiña, eder ta ezaiñ,
Ire atzamar zorrotzetara danok emen.

Ez dago emen, danoentzako, bide bat baño,
Ez da izan ta besterik bere ez izango;
Asmo barriak atera arren gizonak asko,
Illtetik zelan librau ez dabe aterako.

Asmau begie ibillitea uren barrutik.
Asmau begie zelan ibilli iya aidean;
Baña, ez dabe iñoz asmauko zelan bizia
Gorde eragin gura dan arte gorputzean.

Jayotea da utsik naikoa, eta guraiña.
Eriotzeak euki dagian laster nor ill;
Zuzi sutuak nai badau beti argitan bizi,
Itsu zoro ta buru bagea legez dabill.

Mendietako crrekatorik ez da gelditzen,
Itxasoaren kolkoan sartu arteraño;
Jayorik bere ez da gelditu, ez geldituko,
Lurrera jausi egin bagarik egundaño.

Arriak beruntz egiten dabe garayetatik,
Lurrinak doaz sakonetatik zerurantzaz ;
Eta gizona sortuagaz bat abietan da,
Nai eta nai ez, bere azken ta amairantzaz.

¡ Eriotzea ! eriotzea ! danen azkena ;
Eriotzeak, irunsten gaitu danak bardin;
Errezago da legoetzar bat birrindutea,
Eriotzatik libru baño, ta iges egiñ.

ILLETEA

Bedeinkauta izan dedilla ¡o! Jaun andia!
Zure eskuak nasaituten
Nabelako gaur itxaropena bialduagaz.
Penan deustala gozatuten.

¡Zeiñbat geyago nik dodan. Jauna, zugan pentse-
 Aiñbat urrintzen jat mundua ! [tan.
 Eta arimau lurrean bizi ez balitz legez,
 Zeruruntz daukat aldatua!
 ¡ An billatuten ditut, liburu baten legetxe.
 Zure egintzak miragarri;
 Bat irakurten asi orduko geratuten naz
 Zur eta arri eginda ni!
 ¿Zelan ez dot nik egau emendik oraiño baña
 Alako erri bctikora?
 Nondik daukadan arima maite naben bat deika,
 Aldamanera noakola?
 Berak igexi eustanik ona neure ondotik,
 Ezin bete jat utsunea;
 Urte bi datoz neure esposa ill jatalata.
 ¡Bizirik daukat gomutea!
 Bere gorputza datzan toki ixill ta mutu onek
 Onaratu nau, nai ta nai ez;
 Aidez dabillan egazti triste egarritua,
 Pozu gelditxo batek legez.
 Eta emendik erdibiturik nire biotzak
 Iñoz ez lako zotiñakaz,
 Kantetan ditu atsekabezko bertso samurrak.
 Bustirik negar malkoakaz.
 Orri leidunai, Eguzkiaren begiak jota,
 Badeutse negar gaur erazo;
 Damuak niri iturritxo bi begietatik
 Ateratea ¿da millagro?
 ¿Ze millagro da beste alderdi danak itxita
 Ipar aldera bai orratza
 Jausten dan legez, zuzendu arren, nire biotz au
 Emaztearen obirantza?
 Nardietako arri libreak bilin-bolaka
 ¿Ez dira jausten arrokara?
 Nire biotz au bere lurretik aldendu nairik
 ; Ez dator zulo onetara?
 o
 Ontzi ausia urpera legez natorrenean
 Emaztearen tokitxora,

Nire arimak egau daiala aren arimak
Daukan abia zerukora.
Ez dabelako Eriotzeak an aginduten,
Oi daben legez lur onetan,
Bizi dedin an, emen ain laztan ebanaz nasi.
Danoen Jauna alabetan.

UDAKO ILLUNKERA GOZO BAT

Egunez eginda neure bear aldia,
Apalduta bertatik naz atera egin;
Zugatz azpi baten billatu dot aulkia,
Arria izan arren, emen dot atsegin.

Sart-aldera nago esnetan ni begira,
Itxasoa urdiñik aiñ dago ederra;
Txalupak alkarren atzean asi dira,
Beterik arrañagaz urreratutera.

Urriñ-uriñean, guztizko arin doia,
Ontzi bat eskergea gorde agiñean,
Bertatik urteten daben lurrun ta keia,
Desegiten dirala lañoen antzean.

Goizean aiñ arro egiñ jakuna jagi,
Esan leite uretan doa itotera,
Erraño punta bat nik dakutsat berari,
Eta au bere doa desagertutera.

Ausaz, ¿nai cte dau orretan iruditu,
Gure bizitzearen iraute laburra?
Jayo ta bertatik oi dalako amaitu,
Emonik illteraño eriotzak zurra?

Enaz estututen, zergaitik gure Feho
Beti-betiko ez dan ondatu arean,
Zerren kanta ori, ak daukan egunero
Jayo zanetik ona gabeen-gabeen.

Egia da kanpai triste bat dantzudnla ;
Baña ez dau esan nai, ill da Eguzkia,
Ta bai, erregutu kristiñauak daiala,
Arimak gozau daien betiko gloria.

Illargia talo bat legez agiri da,
Kopla-zaleak daukaz estu itxaroten,

Emendik nagoka begira, bai, begira,
Mendi baten ostetik zelan dan jasoten.

Ondo etorria, izan bekigu ona,
Odeyak zidar, urrez, poli-polituaz,
Igo begi igo, bai, igo gora, gora,
Izar erregeari zintzo jarraituaz.

Arnasagarririk diñoe ez daukala.
Ezta lora bal bere bere mendietan,
Ango ibarretan iñor ez dabillega,
Jaunaren gloriarik gu legez kantetan.

Orregaitik bere, ditu erabilitcn,
Itxaso orretako urak gora beera,
Bertan doazanai baita erakutsiten,
Bildurrik бага, nundik jarraitu aurrera.

Zelan ak agertu gabea arpegia,
Basoan nazanean bakarrik aurkitzen,
Zabaldurik laster neure barru larria,
Jaungoikoari biotz au deusat jagiten.

Gaur bere artzean ak mendiaren gaña,
Egin badira bere txoriak tristetu,
Alegeratu da patin tritea baña,
Illargiaz beragaz dalako galantu.

Zuloetan zapo triste bizi ziranak,
Abiau dira klonk, klonk, musikea joten,
Gabak poztzen ditu, argiz triste diranak,
Egunez nik soñurik ez deutset entzuten.

Kar kar, kar kar, dira ugaraxoak asi,
Nok baño nok obeto derautse kantetan;
Siñistu ezin dot, zeñek poztu erazi,
Gabak zelan dituan zoro biurketan.

Onak bere baukaz beronen obariak,
Egunak utsik ez dauz edergarri danak;
Ara an zeruan, an zelako bitxiak,
Mantu aren urdiñak daukazan izarrak.

Baita itxasoak dakarren aizetxoa,
Egunezkoa baño eztiagoa da,
Eurokaz gozauta. orain oera noa,
Zerren lo egiteko egiña dan gaba.

NERE ADISKIDE LAZTAN

*On Jose Manterola Zanaren
Andre Eloisa Alargun Ateketuetuari*

Damuz, gau eta egun jo gaur, andre Eloísa!
Bizi zerala dakit, lutoz estalirik;
¿Ez al dakizu, bañan, denok bear degula,
Iges beste mundura noizbaiten emendik?

Ezagutzen det ongi, dela oso tristea,
Zu zeraden antzera alargundutzea;
Ezagutzen detala, diotsut berriz ere,
Zure senarra lako bat zer dan galtzea.

Ezagutzen det ja bai! dezula gai naikoa,
Dezula suerte bat bizitzeko triste;
Ezagutzen det zure senar onak adiñbat
Zerorren amak ere etzaitula maite.

Ezagutzen det iñork, ez dizula kenduko
Bizi zeran artean bere oroipena :
Dazaut biotz orretan daukazula zauri bat,
Ill arte gordinkiro iraungo dizuna.

Bakarrik al dezake pena ori arindu,
Bakarrik barren ori gauza batek poztu,
Bakarrik ark ditzake munduko lazeriak,
Bakarrik pena oiek ondoen gozotu.

Bakarrik esango det. bakarrik bera dala,
Bakarrik alargun ta ume-zurtzen poza,
Bakarrik zeñek biotz estu-estu dagona
Zizpuru egiñ arren jarten duen lasa.

Bakarrik degu, bada, zuk dakizun bezela,
Pozgarririk onena daukagun Fedea;
Gañera berarekin batera biotzean
Zerura igotzeko daukagun ustea.

Bakarrik antxen, bada, berriz bilduko gera,
Cure guraso, senar, seme-alabakin ;
Bakar bakarrik antxen, berriro ez ill Izeko,
Bizi egingo gera beti elkarrekin.

Bañan ara baño len, ementxen bear degu,
Lendabiziko bian ementxen penatu;
Ementxen bear degu, emen, emen lurrean,
Eriotza larria iretsi ta artu.

Santuak ere zuten malla onetatikan
 Pasa ta egan egiñ Zeru ederrera;
 Gure Jesus maiteak, bere Ama laztanak.
 Orobat artu zuten tregua berbera.

Alaxen egunen bat izango da guretzat,
 Etorriko zaiguna erio garratza.
 Koraña zorrotzakin lapur bat bezelaxen
 Kendutzera betiko bizi eta asnasa.

Bañan ez da ajola, betor nai duenean,
 Betor, erasotzera amorru bizian;
 Ez dio, ez, ardura, Jaunarekin bagaude
 Garbi ta adiskide gu kontzientzian.

Betor, eldu bezaigu, azpiratu gaitzala,
 Bere atzapar zorrotz erpe luzeakiñ;
 Bañan bere garaitza bakarrik izango da,
 Soillik gure gorpuztxo erbal illkorraikiñ.

Zergatikan anima, ezin dezakean ill,
 Dalako ezillkor ta beti-betikoa;
 Nork, ona baldin bada, daukan zeru eder bat.
 Eta antxen bizitza zorionekoa.

¡Eloísa! zure Pepe ere ona zalako,
 Igo zuen Zerura beraren animak:
 Aingeruak bezela araxe ega zuen,
 Gozalzera betiko ¡o zer atsegiñak!

¡Ku raitu zaitetz, arren, kemen artu, Eloisa !
 Alaitu eta epe pizkatxo bat artu.
 Nekeetan oi ditugu, lorerik bikañenak,
 Frutarik gozoenak Zerurako bildu.

Laster iragoko da erbeste onetako
 Denbora labur eta naigabez betea,
 Etzuen Jaungoikoak guretzako ez egin
 Orain arkitzen geran mundu aiñ tristea.

Beste toki bat degu guretzako egiña.
 Nun ez dan iñoiz ere egunik illuntzen;
 Beti negurik gabe, beti-beti eguzkiz.
 Beti uda-berria antxen da arkitzen.

Beti soñu gozoa, beti aingeru-kantak,
 Negarrak an ez dute zer-ikusirikan;
 Iñork ez daki zer dan pena ta naigabea.
 Zeren an ez dagoan penen usairikan.

Eta atsegiñezko itxaso zabal artan,
 Igarian ikusten det zure senarra,
 Nundik aditzen dizun, nundik zuri entzuten,
 Zotin, zizpuru eta auen ta negarra.

Andikan, bai, Eloísa, lagun egiten **dizu**,
 Jaunari eskatuaz dizula grazia,
 Onez eramateko lurreko naigabeak
 Gero goza dezazun Zeruko gloria.

JOAN-ETORRI BAT GERNIKA'RA

Gaztezarohan neukan aldian
 Alegera biotza,
 Txairoagoa barriz gaur baño,
 Bideetarako **gorputsa**;
 Joan-etorri arin bat neban
 Nik egin Gernika'runtza,
 Eta gaur kantau nai neuke zelan
 Ibilli nintzan aruntza.

Basorik baso Sollube'n zear
 Jatsiaz beruntz niñoian,
 Mendiak berde nekutsazala
 Itxas urdiña aurrean;
 Etxalde zuri asko or-emen
 Gorderik zugatz artean.
 Non bizi ziran len bizkaitarrak
 Aukera bete-bete.

Bagilla zan-da, zugatz guztiak
 Egozan orriz jantziak,
 Perlaz legetxe loreagotu
 Eginda lora guztiak;
 Iñontz gozoak eukazalako
 Txipristiñakaz bustiak,

Gari buruak mardo egozan,
Arloak sendo jagiak.

Astiro bera jatsi nintzan da
Lauan banoa aurrera,
Zoratuagaz begiratzean
Alde bat zein da bestera;
¿Nor ez zoratu ikusitean
Aren ikusgei ederra,
Txori politak txorrotxioka
Eztitzen beben gañera?

Eguzkia zan goizetik jagi,
Erraño meiak jaurtika,
Laster txuntxurak asi jakozan
Barreka iratzarrita ;
Bildots ta txalak ikotian da
Ibai errekak dizdizka;
Alako goizik ez dot ikusi,
Ikusi arren amaika.

Bizkayak ditu ibar galantak,
Danetan baña nausia
Uste dot dala Gernika aldeko
Zelaitza zabal andia;
Ain da balatsa, aiñ lur ugari,
Madura zoragarria,
Non bizi oi da neke gitxigaz
Eroso nekazaria.

Begiztetean baña Gernika
Toki aiñ entzutetsua,
Samurtu jatan biotza laster
Bai eta poztu barrua;
Bera zalako joateko ara
Biztu eustana gogua,
Bera zalako gure ertegi
Gure Batzarren lekua.

Bai, antxe neban garaitxo baten
Begiztau etxe santua,
Gure legicn ol zar zabalen
Gordetegi aiñ dontsua;
Zugazti batek eukala ondo

Egoki kerizpetua,
Baña zugatz bat an ortu baten
Nekusan berarizkua.

Antxe egoan maitetzen neban
Aretx danetan autua,
Zeiñen aurrean itzalez laster
Billostu neban burua;
Ikusitean baña zartuta
Osoro aguratua,
Begietutik abiau jatan
Tantakaz jausten malkua.

Malko artean deituten deusatz:
¡O! Aretx itzalgarría!
Zizpuru luze bat egin eta
¡O! Zugatz agurgarria!
Zeruak daki noztik zagozan
Or erne eta azia,
Izan ziñaiten Bizkaya'rentzat
Bere banderan jarria.

¡O! Aretx dontsu, busti bagea
Erejiako euriak,
Zure ezkurak agaitik ziran
Danak osasungarriak;
Beti ezkotu eutsuzalako
Erroma aldeko odehyak.
Gorputz susterrak. buru besangak.
Abar, kimu ta orriak.

Etzinduezan iñoz eurendu
Gaztelar ta arrotz gaiztuak,
Nai izan arren areik sarritan
Izan bai zure goikuak;
Baña bat einda pillo batean
Asaba antxiñakuak,
Gorde ehezan akatsik бага
Euren lege zar dontsuak.

Osterantzean esan daiela
Gaur Padura'ko mendiak,
Zirealako eurak an izan
Orduan ikuslaríak,

Burua arro ekarri arren
 Ordoño bildurgarriak,
 Ea etziran bere odolaz
 Gorritu ango arriak.

Autortu beye Gordexolako
 Txuntxur andi ta txikiak,
 Zeintzuk dagozan orduan zelan
 Alan gaur bere zutiak;
 Ze zurra artu eban Juan Zerda
 Zekcn azartu andiak,
 Ta ze garaipen barriz bestera
 Jaritxi eban Bizkayak.

Autortu begi Anbotok eta
 Autortu begi Gorbeyak,
 Zer artu eban bigarren aldiz
 Zerda betiko etsayak;
 Urreratzean Otxandiora
 Ta askok galtzean biziak,
 Ea irakin ezpeutsen ari
 Orduan errai larriak.

Kantau begie Sollubek eta
 Mungia aldeko tontorrek,
 Ezpazirean izan beste beñ
 Asabak ausiezkorrek ;
 Non erdaldunai emon eutsezan
 Gomutagarri gogorrek,
 Ez eukalako neurririk bere
 An bota eben odolak.

Egun guztian an ekin eutsen
 Alderdi biak sutuak,
 Lantza, ezpataz eta su-armaz
 Biziro amorratuak;
 Baña nagusi urtendakoan
 Bizkaitar otso zintzoak,
 Bildotsak legez emendik doaz
 Bildurrez Gaztelakoak.

Orretaraxe zirealako
 Izan len gure Asabak,
 Gorputza sendo gorde zenduan

Baita besangok zabalak;
 Erakutsita arrotz guztiai
 Euren bizkaitar bizarrak,
 Aukeran eraen eiten ebezan
 Zure azpiko batzarrak

Agur ¡o! Aretx aztu eziña,
 Banoa oraiñ etxera;
 Etzaitez, arren, oraindik jausi
 Alditxo baten lurrera;
 Semetxo orrek bota artean
 Kerizpe zabal ederra,
 Bizi gaitean Asaben gisan
 Lege zarrakaz aurrera.

Zeruak alan gura daijala,
 Landara barri samurra,
 Aitak legetxe ugari emon
 Arren egizu ezkurra;
 Artu egizu baita zuk bere
 Eiten deusuden agurra,
 Ikusiko al zaitut barriro
 Egin baño len agura.

Nik emon neutsan berba orixe,
 Sarri jatana gomutau,
 Bete egiterik ezelan bere
 Baña biotzak nai eztau;
 Arbola zarra ill zan betiko,
 Semeak poztuten enau,
 ¡¡¡Ai! gure lur on Bizkaia zana,
Vizcaitu dalako danau!!!

GURASOENTZAT GOMUTAGARRIA

*(1898'ko Zezeillaren 4'an
 Albinatxo Gabiola ta Militari lenengo urtea
 beteriko egunean)*

Gaur urte bete zure etxean
 Agertu ziñan, izarra,
 Zuri begira zoratzen dira
 Pozarren aita ta ama;

II.—LIRIKA KANTUAK

Zarealako euren biotzen
Maite, kntun ta laztana;
Zarealako euren atsegiñ
Ta gozotasun bakarra.
Illgo baziña, begietan ¿noz
Geratu biai negarra?

Egun bat legez, irago jakez
Irureun baño geyago;
Mundura agertu ziñan ezkerro
Eurentzat gaurik eztago;
Zure etxean ez da gozetan
Gaur beti eguna baño;
Zure begiak direalako
Izarrak baño izarrago,
¿Zelan zu aztu. ¡o Albinatxo!,
Aitamai noz ziñan jayo?

Gaur legez urte askotan izan
Zaite etxeko gloria,
Duukazulako zerutar baten
Antz ta irudi bizia ;
Urregorritzko ulleak dozuz,
Larrosazkoa arpegia;
Egoak goyan itxita aurki,
Zara lurrera jatsia,
¡ O ! aragizko aingeru eder,
Albina zoragarria !

*(1898'ko Zemendiaren 15'an
ill zan Albinatxori)*

Aurkitu baldin bere ezpaneban
Nik kantetean zugaiti,
Bertan egoak itxita jatsi
Ona ziñala Zeruti;
Aurkitu neban baña zer eingo
Zan zure etxean ikusi,
Illten bazinan atsekabea
Eginda bertako nausi,
Eginda bertako nausi,
Zure aitamak beti negarrez
Bearko ebela bizi.

Ederregia ziñealako
Nik artu neutsun billdurra,
Bizilekutzat ezetorrela
Zuretzat egoki lurra ;
Nire bildurrak oraiñ dirudi
Zala benetan ziurra,
Ta apurtu arren aitari legez
Amari biotz samurra,
Negarrez biak urtzen itxita
Iges deutsezu zerura.

Ikusitean zala mundu au
Sentimentuzko erria,
Igarri zeuntsan au egoala
Danau arantzaz josia;
Eta bakarrik zelan gustetan
Jatzun alegerentzia,
Urte bi baño len nai zenduan
Eten ekizun bizia:
Izan zintezan igorik gora
Zeruetako txoria.

Bai, Albinatxo, jaritxi dozu
Gura zenduan guztia,
Jaritxi dozu beti berderik
Loratsua dan Erria ;
Jaritxi dozu or izatea
Egazti kantalaria,
Kerubiñakin naste emoteko
Jaungoikoari gloria,
Amairik бага bizi dalako
Bertantxe udabarria.

III. — GORA KANTUAK

*"Gizon txikien egin guztiak
Kia bezelaxen berdiñ,
Eriotzak putz egin orduko
Oi ditu denak desegiñ;
¿Umant argien azaiñ aundirik
Denborak nun ta noiz du ill?
¿Noiz eriotzak burrukatzeko
Biotzik dauka oiekiñ?"*

ANTONIO OKENDO

UMANT DONOSTIARRAREN ALABANTZAK

Kantauritarrak asko dira ospetsuak,
Gerrarietan barriz iñor ez lakuak,
Naiz dala liorreko, zein itxasokuak,
Guztirik izan dira biotz andikuak,
Etsayak itxiteko beti birrinduak.

¿Nun aurkitu leiteke beste bat bardiñik.
Antonio Okendo, zarian lakorik?
Kondairak aztertuko dituguz alperrik,
Ez da antxiñako ta aiñ gitxi gaurkorik,
Bigarren Okendorik billau leitekenik.

Milla bosteun ta irurogeita amazazpi
Garren urtian ziñan mundura etorri.
Zure izen ta otsa euskeldun danari,
Biotzian sartuta nai neuskio itxi,
Alabau zagiezan umant andiori.

Amasei urte bete noz jatzuzan zuri
Erregerentzat ziñan sartu serbitzari;
Zure doyak aiñ laster egin eben argi,
Erriak zoraturik zinduzan ikusi,
Ziñalako beretzat seme ondragarri.

Denpora gitxi barru jaditxi zenduen
Ibillia armadan itxaso barruan ;
Gaztía izan arren oraindik munduan,
Ogeita zazpi urte zeunkan inguruan
Korsario bat goitu zenduan beinguan.

Mallak igoaz laster zinoiazan gora,
Olandarraiz bizi egiñagaz gerra,
Zeintzuk etorri ziran gure kosta aldera
Al ebezan ontziak erre ta galtzera,
Ez bazenduz zuk arin bialdu atzera.

¿Ene euskeldun anayak, zelan neikez esan
Okendoren jazarrak noz cla nun ziran?
Eundik gora zirala dago kondairetan;
Arritzeko ezpada, ain burruka askotan
Ontzi bat galdu baga urten zan danetan.

Baña oraindik gero egin zituzan bi,
Lengo danen artian diranak azkarri;
¿Entzun bagarik nori burura etorri?
Ondra bi, baña andiok, zor jakoz berari,
Antonio Okendo Donostinrrari.

Milla seireun ogeita amaikako urtean
Estu ziran plaza bi Brasil-go partían,
Eskuadra etsai bat ebilkuen jiran;
Erri areek bildurrez alan bizi ziran,
Antonio Okendok nasaitu artian.

Etsaiaren buru zan Adrian Hanspater,
Okendo juakola jakitun zan laster;
Amasei ontzigaz an jako aurkeztuten,
Berak beste ainbeste orduan dauz artzen,
Ontzidi bardiñagaz burruketa arren.

Gure Kapitanari dua jo artian,
Artzen dau trabesera hrankiaz azpian;
Nai nok esango eban au an ikustian,
Izango zala nausia burrukan Adrian,
Baldin urten baleutsa alan azkenian.

¿Zer uste dok, Adrian, Olandar arrua,
Okendo itxitia alan lotsatua?
Itxok, itxok puskaten, ez dok ain mamua;
Eldu dok eguna ta badatok ordua,
Ikusiko doguna gaur nor dan goitua.

Zortziretan abiau ta laurak artian
Ezpatia Okendok erabillan goian;
Saiatu zan bakotxa al eban bestian,
Bazan estutasuna, bazan larria an,
Zeiñ urtengo ele zan nausi azkenian.

Urik etzan agiri, ezpada odola,
Itxasuak aiñ gorri iñoz egon ez da;
Ikaragarria da an bota zan illa,

Guriak seireun urta, ia areek bi milla,
 ¡Milla aingerua! ex da desbardin txikiña.

Azkenez bere orra, zer jaken gertatu.
 Gure tiro-talco bat jaken bada sartu
 Santa Barbaratik, ta ontziak sua artu;
 Beraz naste nun ziran soldau asko ondatu
 Adrian bere guraz itota geratu.

Nai izan baleu onek umildu burua
 Okendok laster eutsan emongo eskua :
 Baña jarle ez arren alan lotsatua.
 ¡O! zer gatx txarra dan izatia arrua!
 Etsi ta bota eban uretan burua.

Beste onlzidi dana igesika dua.
 Ikusi ebenian burua galdua:
 Euren bandera bere guriak artua.
 Orra, bada Adrian betiko goitua,
 Eta Okendo barriz oso goratua.

Baña beste garaitz bat iñoz ez lakua
 Kanlauko dodana da danen gañekua:
 Milla seireun ogeita emeretzikua,
 Noz itxi eban dana oso ikaratua,
 Olandarren armada bildurgarrizkua.

Antonio guria Kadiz-en urten da.
 Paises-Bajos-etan laguntzera dua,
 Olandarrai barriro kontra egitera:
 Eta eldu zanian Dunas ingurura.
 Duakoz amazapi ontzi ekitera.

Une artan Okendo artu eben soilla,
 Lagunak zabaldurik ebiltzazan bada:
 Danai gogor eginik, nun arerioa,
 Ontzi bat an galduta, oso lotsatua,
 Arratsalde erdian igesi badua.

Okendoren adore ta biotz andia.
 Norbaitek esango dau zan zorakeria,
 ¿Baña zer zan besterik aren egarria,
 Ezpada goitutia olandar etsaia,
 Kristau katolikuen gerrari bizia?

Ogei ta bal ontzitxo dau bere indarra
 Eunda amalaugaz laster duako Olandarra.

Gure bakotxarenlat bost irago bada.
 ¿Zeñek esango leuke bertan beriala
 Ez ebela goituko armada ain txikarra?

Ondotxo beben bere etsayak pagadu,
 Beiñik bein ogei ontzi euskuezan goitu,
 Bat ondatu ta beste batzuk preso artu,
 Eta gañcrakuak ziran eskumatu;
 Kapitanaz Okendo soillik zan geratu.

Orduan bai daukala Olandarrak poza,
 Usterik laster zala Okendo goituta.
 ¡O! mundu bat osua arritzeko gauza!
 Eskuadra danari egiteko kontra,
 Antoniok oraindik badauka biotza.

Dunas-era guazen, bildurrez betia,
 Batek, nai ezpadogu, diñotsa, galtzia;
 Nun erantzuten deutsa: «etsayak atzia.
 Iñoz ez dau jadtixi niri ikusiia,
 ¿Ta zelan leiteke gaur ondrau loitutia?

Ez bildurtu, mutillak, biziak galduten,
 Lagun biotzkatuai oska jake asten,
 Geure fede santu ta Erriko ondriaren,
 Ill biar bada bere danok ill gaitezen,
 «Santiago ta eurai», mutillak zail emen»

Alperrik jarten dabe an inguratua,
 Alperrik etsaya da eskuadra altsua;
 Kapitanaz bakarrik Okendo gaixua,
 Aurkitu arren, dan ak biotz ain sendua.
 Beragaz baleu legez eskuadra osua.

Ogei ontzi uretan oso ondaturik,
 Etsai burua iges dua epel-epelik,
 Kapitana guria zapaldu bagarik,
 Galdu ez zedin bera oso bildurturik,
 Antonio itxita gloriaz beterik.

Estados-Unidos-etan laster aurkeztu zan,
 Barriak jakin arte jentia estu an;
 Olandarren buruak nun autortu eban,
 Okendo Kapitanarrealaz beguan,
 Ez ebala goituko ez iñok munduan.

Orra berba gitxitan etsayen omena,
 Iñok emon leyonik da au andiena.
 Jaso daigun guk bere erritar aiñ ona.
 Dalako gauz onaren alde ebillena,
 Antonio Okendo gerrari zaillena.

Gloria gaur, Okendo, gerrari andia,
 Donostiaren ondra, umant eregia;
 Gloria, Kantauritar izar aiñ argia;
 Kristiñau zintzo eta fededun bizia,
 Munduak ta zeruak beizue saria.

KOSME DAMIAN TXURRUKA

ITXAS-GIZON UMANTARI DAGOKION OÑ-ALKIA.

(Saritua izan zan Donostian 1881.an)

Ez da egia gizaldi askok
 Zura dutela usteltzen,
 Ez da ziorra urteak ere
 Gaztea dutela zartzen,
 Ez da jakiña gure bizitza
 Denborak duela aitutzen,
 Eta umantak beti bizirik
 Nola ditugu ikusten?

Gizon txikien egiñ guztiak
 Kia bezelaxen berdiñ,
 Eriotzak putz egiñ orduko
 Oi ditu denak desegiñ;
 ¿Umant argien azaiñ aundirik
 Denborak nun ta noiz du ill?
 ¿Noiz eriotzak burrukatzeko
 Biotzik dauka oyekiñ?

Nola zanpatzen duten umantak
 Oñ-alki galant ederra,
 Beren azaiñak zanpatu zuten
 Eriotz zital okerra,
 Illunduko onek aixago luke

Egun sentiko izarra,
Itzali baño gizon ospatsu
Eta umanten izena.

Umant aundiak nola dituan
Ainbeste Euskal-erriak,
Gaur alabatu gura nituke
Balen bertute argiak;
Milla ta aundiak badira ere
Emengo aitz zeñ mendiak,
Dira geyago ta aundiagoak
Seme txit miragarriak.

Beraz, ez aite, Arno,i ere,
Ez aite izan aiñ arrua,
Ainbesteraño altxaturikan
Lerden lerdetik burua;
Seme bat badek ire errian
Askozaz altuagoa,
Zeñen oñ-alki, gaur ipintzeko
Ez aut billatzen naikoa.

Motrikok dauzkan mugen artean
I aiz txit errez barrutzen,
Kosme Txurrukak leku geyago
Ordea ziguk eskatzen;
Erria ez ezik erresuma bat
Ez diat diña billatzen,
Bere izena nijoialako
Mundu guztian zabaltzen.

Apolo, zure laguntasuna
Ederki letorkit emen,
Bial zadazu musa eder bat
Argitutzera gaur, arren;
Baztar danetan nere kantua
Gozoro adi dezaten
Eta euskaldun umant batekiñ
Arri ta zurtu ditezen.

Zurtu ditezen txikiak oso,
Zurtu ditezen aundiak,
Zurtu ditezen gizon illunak.
Zurtu ditezen argiak :

Zurtu ditezen denak guztiak,
Entzunik bertute aundiak.
Gutzizko miragarriak.

Miragarriak dirala guztia
Esaten ez det lotsarik,
Probatzcko ere itzxo bi baño
Ez ditut bear besterik;
Mundu guztiak ikusi beza
Ote diodan gezurrik,
Ote diodan Txurrukagaitik
Izandu ez dan gauzarik.

¿Nun da bestela itxas-gauzetan
Nun da onekin berdiña?
¿Nun da Txurrukak aiña lan aundi,
Nun da beste bat egiña?
¿Nun armari ta buruzaririk?
¿Nun au lako mapagiña?
¿Nun izkribatzen, nun arkitzen da
¿Nun Kosme beziñ bikaiña?

Ez det billatzen liburuetan
Bal jartzekorik onduan,
Ez det billatzen ainbeste doaiz
Jantzirik onen moduan;
Ez det billatzen antziña-eran,
Ez det billatzen gaurkuan,
Ez det topatzen. ez det arkitzen
Iñortxo ere munduan.

Bakar bakarrik billatutzen det
Kosme Txurruka aundia.
Bakar bakarrik topatutzen det
Doai danakin jantzia ;
Bakarrik nola izar danetan
Argien dan Eguzkia,
Kosme ere da itxas-gizonen
Umant danetan nausia.

Kondairak kanta beza nai badu
Ill zala gure umanta,
Irabazirik Trafalgar-eko
Jazarran koroï galanta;

Kantatuko det baña nik beti,
 Ori orrela ez dala,
 Koroï ederra gozatzera igo
 Zuela zeruetara.

Kantatuko det bizi zaigula
 Gizon aïñ miragarria,
 Kantatuko det bere bizia
 ala eziñ ilgarria ;
 Kantatuko det bizitza ori
 Dala umanten saria,
 Umant artean zeruan berriz
 Dala Txurruka jarria.

¡O! Kosme. jaso albanizuke
 Gaur nai nuken dorria!
 ¡Itxasoaren erdi-erdian
 Olinpo beziñ aundia !
 Bere gañean ikuste arren
 Altasunez zu jarria,
 Zeradelako España baten
 Seme aïñ onragarria.

Orrelakoxe jargoi eder bat
 Zerorrek dezu merezi,
 Arrigarrizko bertute oyekin
 Dezulako irabazi;
 Mundu danari beatz onekin
 Zatzayodan erakutsi,
 Oyuz esanaz ¡ara, an Txurruka!
 Nun jarri dedan ikusi.

MATEROLA'REN ERIOTZEA

(On Antonio Arzak Iaunari)

Jatsi zakidaz, euskaldun musa, gozo ezta,
 Edo jaso neu oraiñ Parnaso alderontza,
 Soñutu daidan Apolo'k emon eustan liria,
 Negar egiñaz euskaldun baten eriotza.

Negar artean kantau dagidan bere bizia,
Kantau dagidan jadtixi eban garaipena,
Kantau dagidan, oraiñ gozetan daben gloria,
Kantau dagidan bere betiko oroipena.

Kantau dagidan, umantak bizi arren goyetan,
Kantau dagidan, baita dirala beian bizi,
Kantau dagidan, naiz lurretan ta, naiz zeruetan,
Toki bietan oi deuskuela egiñ argi.

Kantau dagidan, baten argia eldu jatala,
Baten errañu, saeta zorrotz bat lakua;
Osterantzean ¿zelan aurkitu nindeke bada,
Berez gogora datorkidala itz neurtua?

Egi egiaz isurten dabez ona ta ara,
Eguzkiaren antzeko tximist garrezkoak,
Baña ez dira iñoz gordetan aren erara,
Iñoz ez ditu bere gu legez, artzen loak.

Areek dagoz zañ, beti zoli ta iratzarriak,
Beti gloriáz eta bertsozko kantuetan,
Beti otseztiz an bizi dira biursariak,
Etorkiaren Iturburua alabetan.

¡Ze pensamentu geratu eta Jaungoikozkuak
Antxe jakezan errez burura eratsiten!
Ez dituanak sekula bere adimentuak
Beeko gauzetan orren arira billatuten.

Baña atarako bear da igo Olinpo baño
Askoz gorago dan mendi baten txuntxurrera,
Ezarriteko begiak ondo andik beerago,
Mundu, Illargi, izarrak eta Eguzkira.

Eta oraindik goruntza barriz begiraturik
¡Zeñ zurgarri dan euren Egillia dan Jehoba!
Nori aro ta eskuetako palmak etzunik,
Itzalez egin oi deutsezan txit umill opa.

Apolo-k baño lira obeak deutsez soñutzen,
Homero-k baño bertso obeak bere bota,
Berba ederrez Zizeron dabe atzeratuten,
Jakituriaz Salomon izten zapalduta.

¡Zelako toki zoragarrira egatu eban!
 Usoa legez sotill izan zan arimeak,
 Bere egoak astinduagaz uts-urdiñean,
 Billatu arle atsegin, gozo, poz beteak.

¡Zelako pozik! a! elduko zan Iratargira!
 Ta pozagorik andik urrengo Eguzkira,
 Askoz pozago izar argiak beian itxita,
 Argiago ta pozgarriago dan Tokira.

Baña gu emen deslai itxirik umezurtz **gisan**,
 Ama gaixorik daukagunaren albotxuan,
 ¿Zergaitik bada gure burua orrelan ill **zan** ?
 ¿Ez al ekian zelan jareiten gu ginduan?

¿Ez al ekian bizitzearen loran joiala
 Gizonak daukan aldikadarik onenean?
 ¿Ez al ekian zeruraturik oraindik ala
 Gaixorik Ama izten ebala gaur lurrean?

¿Ez al ekian zala argi ta zala izarra?
 ¿Zala maixu bat legez guretzat, ez ekian?
 Errañuz zabal mundu guztira aurkitzen **zala**
 ¿Zergaitik largau ete ginduzan illunian?

¿Ez al ekian itxasgizona orratzik бага
 Aurkitzen dala beti itsuan, beti larri?
 ¿Ez al ekian armadan nausia iñor ezpada,
 Galdu oi dala burrukaldia guztiz sarri?

Baña, urakan gogorak oi dauz zugatzak ausi,
 Eta alantxe esetsi gatx dongeak,
 Aretx gaztea izanagaitik lurrera jausi,
 Eragin eutsan urratuagaz suster meak.

Eriotzek irunsi eban j o barri miña !
 Eta arrezkero gaixorik nago biotzian,
 Azturik kantu poztugarriak daukat zotiña,
 Daukat korapill mingotz, estu bat eztarrian.

Ill zala bada, irakurten dot nik aspaldian,
 Euskaldun neurtitz ta moldaera samurretan,
 «Ill zan» diñoie eskribitzallak berba larrian,
 «Ill zan» malkozko letrakaz dakust paperetan.

«Ill zan, baña ¿nor, itandutea dot, ill jakon ba-
 ¿Ill zala negar malko tantakaz ipinteko? [da?
 Ill bazan bere ¿ez ete dago ill egin zana
 Ill ez danen bat bere utsunau betetako?

Ill zan, betiko gure Amaren osatzallea,
 Ill zan Euskera gura ebana sendo jarri,
 Ama osatu baño lenago eriotzea,
 ¡Etorri jako jo zorigatxa semeari!

Ill zalako gaur ¡orra tristerik gure sortitza!
 Ill zan gorputza aurkietan da obipean,
 Bere arimak zeru goyelan dauka bititza,
 Bere izenak euskaldun danen biotzean.

¡Illunik dago baltzez jantzirik Euskalerria,
 IU jakolako semerik oneen Manterola!
 ¡Naibageturik gaur ikusten dot Ama maitia!
 ¡Ezin da poztu ! ezin bizkortu au iñola!

¡O Manterola! deiez dagotzu Ama Euskera.
 Eskatzen deutsu zeru altura anparua,
 Bialdu arren egiozu gaur ortik lurrera,
 Osagarri bat egoki eta adjutua.

Bialdu-yozu ortik indar ta sendotasuna.
 Onek lurrean munduak aña iraun daian,
 Gorde daiogun guk bere zure semetasuna.
 Maitatu daigun zure antzera beti leyal.

ARTE NAGUSIKO NEURRIA

EUSKAL-FESTA ONEN ASMATZALLE ETA GIDARI ON
 JOSE MANTEROLA ZANARI KOROKITZEA

(Aita Jose Ignacio Arana-Koari)

Baten gloria gaur	Alabantzarikan
Ongi kantatzeko	Ez daki iñori
Nere musaren det	Bein ere ensaten:
Putza sentitzen,	Eta bai gloria,
Onek gezurrezko	Onra ta alabantza

Merezi dutenai
Zintzo jasotzen;
Orixen berori,
Gizon andi bati
Oraiñ egitera
Dijoa asten.

Izanagatikan
Bertsolari motza,
Nere laudaki au
Ez det saltzeko,
Baizik gure umant
Jakintsu zan bati
Zor diogun otsa
Zabalduzkeko:
Mundu os-osoan
Aren izen ona
Leor ta itxasoz
Barratzeko,
Euskal biotzetan
Bere oroipena
Beti beti bizi
Erazitzeko.

Asmo andikoa,
Ernai ta trebea,
Beti bearrean
Au zan sayatzen,
Zeñen lanak azkar
Moldizkiratuta
Arranoen gisa
Zuten egatzen;
Jose Manterola,
Argatik guk beziñ
Asko Amerikan
Zuten maitatzen.
Orra or noraño
Aren entzuleak
Bere Donosti au
Zuen onratzen.

Euskaldun arraza
Bizi zan tokitik
Artu oi zituen
Agurak naiko,
Borondate on bat
Sortutzen zitzayen
Bere izkribuak
Letu orduko;
Argatik zitzaigun
Izar bat bezela
Gure Euskal-Erri
Laztanerako,
Zeñen onagatik
Irago oi zituen
Buruu nekatzen
Gau ta egun asko.

Bere Probintziko
Gia egin zuen,
Moldatu euskaldun
Kanta-tegia,
Euskal-Erria-ren
Izenez asmatu
Gure errebista
Laudagarria,
Kalderoni jarri
Euskaldun-oroitza,
Irabazirikan
Garaisaria;
Ama Euskarari
Drama bat azkenez
Antolatu oso
Miragarria.

Eman zion bada
Febok jakindea,
Alde askotara
Aditutzeko,
Likon, Temisteco,
Naiz Anakreonte,

Iñork ez bezela
 Iduritzeko;
 Argatik erakin
 Orain arkitzen d»
 Betikotasunez
 Bizi izateko,
 Gizon ospatsuen
 Errañuz josirik
 Pindoko menditik
 Gu argitzeko.

Orra, or esanda
 Zeñen trebea zan
 Orra Manterola
 Paregabia,
 Orra. Zerutikan
 Artu zituena
 Asko grazia ta
 Anitz doaya;
 Orra guretzako,
 Orra, or maisua,
 Orra, euskaldunok,
 Ispillu gaya;
 Beroni jarraitzen,
 Arren, izan bedi
 Gure alegin ta
 Danoen naya.

Ontziak igaro
 Arren uretatik,
 Ez dute oiñatzik
 Uzten bidean ;
 Baña bai zuk, Pepe,
 Utzi zenituen
 Bizitz onetako
 Itxas gañean;
 Jarrai dizayegun
 Zintzo zuzenkiro
 Zure arrastoai
 Leyaltadean,
 Bizitu gaitezen

Oitura zarrakin
 Zoriontasunez
 Euskal-lurrean.

Koroi bat argatik
 Ejo nai nizuke,
 Zure buru ori
 Apaindutzeko,
 Lorerik ederren,
 Ostorik onenak
 Batzuk ta besteak
 Nabill biltzeko;
 Ustai bat eginda,
 Palma bat gañera
 Dagokizun gisa
 Eskañitzeko;
 Baña bear diña
 Enaiz gizajo au
 Orrelako lan bat
 Antolatzeko.

Azkenez fest'onen
 Ziñan gidaria;
 Beronek zor dizu
 Orain gloria.
 Marmol zabalean
 Urrezko letrakin
 Zure izena or
 Dauka jarria;
 Zere oroipena
 Nola izango dan
 Gaur, geroz ta beti
 Ezillgarriak,
 ¡Goratu nai zaitut!
 Festa lagunokin,
 Uri onetako
 Seme argia.

¡Goratu dezagun.
 Anaya maiteak!
 ¡Goratu dezagun
 Odeiez gora.

Zere beragatik	Sugarrez zebana
Leku urrunetan	Maite Erria.
Gaur duten onratzen	¡Koroitu dezagun !
Gure Euskara ;	Lirio txit zuriz,
Eta beragatik	Zalako euskaldun
Esan dan bezela	¡Uts ta garbia!
Euskerazko beat' au	¡Koroitu dezagun
Sortua bada.	Bioletaz ere,
¡Gloria berari!	Zeren jakintsu ta
¡Koroitu dezagun !	Zan umildia-
Gure zuzentzalle	¡Koroitu dezagun!
Zan Manterola.	Orañ Aritz ostoz,
Koroitu dezagun !	III arte zalako
Arrosa txit gorriz	Fuero-zalia.

ASTARLO ASKO JAKIÑARI

{Saritua izan zan Durango-n 1886.an}

Sinismen osorikan ezin artn oni,
Euskera ezagutzen ez **debanak ongi**;
 Baña au lortuko da **gogoz eta garbi**.
 Bera ikasitzera nai debanak jarri.
 (Iztuetak *Gipuzkoako kondairarett*
 IOn planan)

Ezin kantau nei ezelanbere
 Astarloarik ill zala,
 Ezpada txiki begitandurik
 Mundu au itxi ebala ;
 Osterantzean odeyez gora
 Begiratuten dodala,
 ¡Zelan dakust an eder-ederrik
 Aingeru baten erara,_
 Izarrik izar iges egiñaz
 Uso bat dirudiala?

Nire bular au isiotzen deust
 Berak alako modutan,
 Adimentu au argitasunez
 Ainbesteraño betetan;

III.—GORA KANTUAK

Orren sarturik zerren daukadan
Astarloa nik burutan ;
Enaz aurkitn zoro bat legez
Sekula modu onetan,
Gogoia ezin dodalako gaur
Ipini beste lekutan.

Bere gorputza lo euki arren
Eriotzeak besuan,
Suberte ori daukagulako
Jayotakuok zoruan,
Aren izena ¿zeiñ obik baña
Ezkutau daike barruan?
Eriotzea badabilkio
Ikaraturik albuán,
Izen argi au bizi dalako
Ill-ezgarrien munduan.

Agaitik kantau dayoguzan gaur
Garaitzak Astarloari,
Paradisuan sortutnkotzat
Euskera daukan Jaunari;
Eta siñisten deutsalako
Bene-benetan berari,
Gura neuskioz jo alabantzak
Euskeldun iñoz Illargi
Izango etxakunari.

Erdue, bada, gipuzkoatar.
Menditar maite maiteak,
Erdue, Araba zelayetako
Euskera zale-zaliak :
Pirineo ta Ebro artetik
Erdue, uapar anayak :
Erdue bere Bidasoa'tik,
Beste aldeko aidiak;
Zuek eta guk garealako
Aita Tubal'en semiak.

Zuen biotzak taupa bai laupa
¿Ez al deutzue egiten?
Durangoruntza urreratzeko

Ez deutzue gaur esalen?
Ene anayak, otallu baten
Ingurura arin guazen,
Ots egitera Astarloa'ren
Izena galdu ez daiten,
Oñ-aulki baten deutzagula gaur
Irudi on bat jarriten.

Ekarrizuez al dituzuen
Lurrungei usaintsuenak:
Ekarrizuez aztu-bagarik
Palmarik dotoreenak,
Ekarrizuez ereñotzezko
Arorik albait onenak;
Baita bertsorik euskera gogoz
Ondoen moldatuenak.
Eskiñiteko Astarloa'ri
Doerik eregienak.

Jo, jo soñuak pozen pozagaz
Orain, musika zaleak;
Jo euskeldunen aire politak,
Zortziko alegereak;
Jo, soñu orrek direalako
Bakar bakarrik gureak.
Direalako gure Amari
Jaio jakozan umeak,
Erbestekoen soñuetatik
Izpirik artu bageak.

Etxaplcruak bota aidera
Igo dagien zerura,
Gure kantuak jaso daiezan
Paulo dagoan tronura,
Eta begira zelan jausiten
Jakuzan lorak zorura;
Zuri gorriak, urdiñ oriak,
Ta argiak izar modura.
Bere irudi miragarria
Dagoan aulki ingurura.

¿Zelako gauza arrigarriak
Daukaguzan gaur Durangon?
Ikusitera etorri baga
Eneban gura nik egon.
Ene anayak, alabau bada
Gizon andiren bat iñon,
Bear deulsaguz alabantz asko
Guk bere Paulori emon,
Etxakolako oraiñ ariea
Zor geuntsan legez jaramon.

Jainko fama zabaltzaillea,
Etzaitez jardun orren ur;
Zoaz lurraren kabuetara,
Joizu Nordea, joizu Sur,
Eguzkiaren ondoren gero
Zabiltz zoli, zabiltz zur,
Mundu danari egiñaz jira
Atzera zakidaz biur,
Ereindakoan Astarloaren
Otsa tronpetaz ur ta lur.

Esan egizu Paulo gureak
Probau ta itxi ebala,
Izkuntzetatik antxinakoen
Zelan dan gure Euskera;
Esan egizu errazoyagaz,
Deituten jakola zarra,
Esan egizu onik aurrera
Deitzeke beroni Ama.
Leku urriñetan zitualako
Nozbaiten umeak laga.

Esan egizu Euskeraz dala
Asia zein da Asiría,
Irlauda legez Olanda berdin,
Dala euskera garbia,
Afrikan eta European bere
Badala euskal-sustraya;
Paulo andiak dirauskun legez
Barriz España guria,

Duda bagarik dago euskeldun
Izenez bete betia.

Esan egizu beroni, arren,
Emon daitsela gloria,
Larramendi ta Errok zergaitik
Dauken erdian jarria ;
Irurak andi badira bere
Au dala aiñ miragarria,
Dariolako iturri bati
Legetxe jakituria,
Agaitik eban jaso zerura
Euskera miragarria.

Irakurri bei bestelan nai-nok
Euskeldun apolojia,
Baita lenengo berbetearen
Gañeko errazoi-aldia;
An topauko dau zolia danak
Paulo ikaslun andia.
An topauko dau aren buruak
Zelan dan arrigarria,
Zeñi ezin nik ipiñi neyon
Noraño daukan neurria.

An ezagutu leike edonok,
Ez dala iñor ikusten,
Euskerearen susterrak ziatz
Pauloren gisan aztertzen.
Gure jakitun danetatik bat
Onegaz ez da bardintzen;
Au da 8;n gora euren artetik
Bere buruaz urteten,
Pirineoak dituen legez
Gure mendiok apaltzen.

¡O! gizon andi eta illezkor
Durangon jayo ziñana !
Milla zazpireun berrogei eta
Amabiko urtea «ala,
Parebagako Paulo azkarra,

III.—GORA KANTUAK

Euskeldunetan zu zara;
Jayo ziñandik cunda ogeta
Amairu urte dirala,
Kantau gurarik gloria zuri
Ni bere nator zugana-

¡Gloria zuri, o eleizgizon
Birtutez argi-argia !
¡Gloria zuri, fede jagola,
Arima guztiz zalia !
¡ Gloria zuri, euskeldun danen
Maisu ta irakaslia t
¡Gloria gabaz ziñana egoten
Goiz arte iratzarria !
Liburuetan zendualako
Biotza josi-josia.

¡ Ai albaneizu emon gloria
Dagotzun legez guraiña!
¡Ai baneuka nik bizkorrago ta
Zoliagoa mingaiña!
Baña, ezin dot enazalako
Bertsolaritzat egiña;
Ezin dot, ezin geiago, aiñ naz
Kantari oso txikiña ;
Jaso zaitzala zurrago batek,
¡ O ! Paulo asko jakiña!

Jaso zaitzala zurrago batek
Nik baño tayu obian,
Ez dalako bat zu duiñ zolirik
Euskal zaleen artian;
Jaso zaitzala askoz gorago
Zuri dagotzun aiñian ;
Jaso zaitzala, jaso, bai jaso
Merezi dozun neurrian,
Jarririk Paulo Astarloako
Euskaldun danen gaiñian.

ISRAEL'GO MIRARIAK

GURE AITA SANTU LEON XIII-GARRENARI BERE
URREZKO EZTEGUETAN

«Neuz naz. »
S. Joanek 18, kap. V ber.

Denporea da ausi jatala
Lira zolia,
Soñu artetik guztizko urrin
Gaur naiz bizi;
Basamortuan erbesteturik
Aurkietan naz,
Egun garratzak ditugulako
¡Ai! jadtixi.
Nire musatxo biotzekoa,
¿Ez al dakizu
Bizi modu au jatala triste,
Eta samiñ?
Gura al dozu lira bagarik
Nagoalako,
Koldar bat legez kobaren baten
Gorde nadiñ?
Adore baga neguko txori
Mutu bat legez,
Otzak kikillik, txio bat bere
Egin baga,
¿Gura al dozu erneguren bat
Nik egitea,
Adietara emonaz etsi
Genduala?
Ixilltasun au illteko betor
Lira barri bat;
Musa, ekatzuz gogoraziño
Eregiak,
Irudi onak, etorki gozo,
Itz egokiak,

III.—GORA KANTUAK

Kantau daidazan gaur Israel'go
Mirariak.

Gaur Israel'go mirariak nik
Kantau nai ditut,
Jazoak legez jazotekoak
Iragarri,
Gure Jaungoiko mirarigiñak
Deutsazalako
Oraindik asko egingo bere
Erriari.

Onen mirariz beñ itxasoa
Erdibitu zan;
Jordan atzeruntz beste beñ asi
Igesika;
Mendiak salto ariak legez
Egiñ eben ta
Bildotsak legez mendiskak bere
Ikotika.

Onen mirariz mana jasten zan
Iñotza legez,
Erri bateri izan ekion
Bizigeya,
Beronek nai ta, gizon on baten
Esan utsera
Geldi jarri zan, loturik legez,
Eguzkia.

Onen nai eta beste beñ bere,
Itxas arroa,
¿Ez dok gomutan jarri intzala
Beeraturik,
Esan orduko ontzi batetik
Jaun altsu onek,
Geratu ari ixillik eta
Mututurik?

Jarraik, jarraitu, Jaun onek isten
Badeusk oraindik,
Barauts ta bitsok odeyez gora
Boteagaz;

Baña, mukerra, baldiñ ez badok
Iñoz garaitu,
¿Noz urien daikek beronen kontra
Garaitzagaz?

Badarozak emeretzi bat
Gizaldi iya,
Adarka, adarka, eten bagarik
Ontzi orri;
Baña alan bere ez gayoazak
Gu oraindiño,
I gora bera, deitutera Jaun
Altsu oni.

I gora bera, ez gayoazak
Lorik galtzera;
Ez-ta bildurrik egitera gaur
Erakutsi;
Etxuagu nai beste bein legez
Esan dagian,
Guk daukagula berorregana
Fede gitxi.

Balea legez baña baletok
Ur-mendiren bal,
Ago zabalaz iruntsi nairik
Sabelera.
Ontzitik salto egiñ baño len
Orduan bere,
Asiko gaituk modu onetan
Deitutera.

Salbau gagizuz, mirari barri
Bategaz, Jesus;
Desegiguzu gaiztakeria
Truyutsua,
Eguzkiaren begi zorrotzak
Laster desegiñ
Daroen legez aurrean dauken
Odeitxua.

III.—GORA KANTUAK

Salbau gagizuz, ikusi dayau
Itxas-zartadak
Direan legez atxaren kontra
Birrinduten,
Gaiztakeria azartu onek
Zelan bereak
Pedro'ren kontra beti dabela
Ustel urten.

Salbau gagizuz, ikusi dayan
Zure Eleixa,
Dala mendi bat Olinpo baño
Goragua;
Onek azpian artzen dituan
Legez ekatxak.
Zure mendiak dabela artzen
Infernua.

Salbau gagizuz, infernutarrok
Ikusi dayen,
Pedro dagola atx bat duin gogor
Siñistean,
Dakialako beste ainbeste
Mirari, Jesus,
Daikezuzala aixe, ur, eta
Leorreat.

Salbau gagizuz, salbau, bai. Jauna,
Ardi ta bildots,
Geure Artzaiñaz gagozan danok
Zuri deyez;
Ela uretan dabiltzan bale
Izugarriok,
Otzan-otzanik gure sareetan
Jausi bitez.

Mundu guztira sare onexek
Bota nai doguz,
Arraiñ ta abere dan-danak artu
Dagiezan,
Arrantzale bat izan dakigun
Danoen buru,

Danok kristiñau egindakoan,
Gure Eleixan.

Leon amairu-garrena dogu
Arrantzale au,
Zergaitik berak zuzentzen daben
Eleixea;
Leon amairu-garrena Artzaiñ,
Aita Santu ta
Leon amairu-garrena baita
Erregea.

¡ O ! Leon andi miragarria !
¡ Nok leukekezan
Zu jasoteko berba duiñ eta
Eregiak,
Mundu guztian dozuzalako
Zuk, zeuk bakarrik,
Zeruko atea zabalduteko
Giltza biak !

Zuri begira nago emendik
Zar itzaltsua,
Zakustaz gure Arbolearen
Irudian;
Ikusten zaitut au mutildurik
Dakustan legez,
Modu berean zelan zagozan
Italian.

Ikusten dot nik ereñotzezko
Aroz jantzirik,
Gaiztakeria eskerga orren
Egillea;
Baña, ostarku barri bat laster
Jayoko jaku,
Zeiñ izango dan egun obeen
Señalea.

«Neu naz, neu naz, bai» Jesus'ek laster
Esango dau, ta
Ikusiko da bere berbeak
Zer al daben;

III.—GORA KANTUAK

Ikusiko da gaiztakeria

Armaz jantzia,

Zelai lurrera beti betiko

Dala jausten.

Ikusiko da egiaztuten

Aren berbea,

Baita betetan arek agindu

Ebazanak;

Ikusi geinkez zerutik jausten

Izarrak baña,

Ez uts emoten Pedrori esan

Eutsazanak.

Ikusiko da irago zala

Txarren tandea,

Ikusiko da dongak ebela

Jo azpia;

Ikusiko da euren sutunpak

Eziñ ebela

Zelaitu Leon jasarriten dan

Jartokia.

Baña ikusi ezkeru preso

¡O! Artzaiñ ona!

¿Zeiñ ardi ez da zure okerraz

Saminduko?

¿Zeiñ bertsolari Erroman zugaz

Gertetan danaz

Ez da asarre santuzko suaz

Ixiotuko?

Bitzen nozu, bai, lira motel an

Zolituteko;

Sntuten nozu zorrotuteko

Luma motza,

Garretan jarten artzeko bere

Zure aldera

Ezpata miñ bat, zure naya gaur

Au balitza.

Odei burruken burrundadetan,

Ene Erregea,

Atxak badodaz dardar saltoka
 Ikusiten,
 Zure etsayen sutunpen otsak
 Entzun ta ¿ez da
 Gure biotzik saltoz asiko
 Irakiten?

Niri taupaka beintzat asi jat
 Egon ezinda ;
 Gerrara diñost gura dabela
 Urtetea ;
 Gerran, bai gerran, gerran zugatik
 Milla bizitza
 Baleukaz bere, gerran nai leukez
 Emotea.

Parkatu, Aita, herbaren baten
 Erratu badot,
 Askatuagaz ainbesteraño
 Barrua nik.
 Esku orregaz indazu arren
 Bendeziñoa,
 Auxe artzeko jarten natxatzu
 Auspazturik.

HOMERO EUSKALDUNA

IPARRAGIRRE-RI KANTA

(Ene adiskide on Federiko Baraibar-Koari)

Jaso nai nuke kantatzalle bat,
 Mendiok baño gorago,
 Jaso nai nuke albanezake
 Odeyez ere arago,
 Illargitikan Eguzkiraño
 Andik izarretaraño;
 Izarretara jaso dezadan
 Almena baña ¿non dago.

Egorik gabe nere buru au
 Jaso ezinda banago?

Izarretara jaso dezadan
 Betor andikan almena,
 Goragotikan grazia, etorki
 Eta doairik onena ;
 Betor zerutik mingan ezitsu,
 Legun bat aingeruena,
 Arek gaur artu dezan gloria
 Irabazita duena,
 Dalako bera euskaldunetan
 Neretzat euskaldunena.

Euskaldunetan euskaldunena
 Kantatutzeko lur oni,
 Mundu bietan euskaldunena
 Kantatzen Euskera Amari;
 Orregatikan zorretan gaude
 Euskaldun danok berari,
 Koroï eder bat antolatzeko
 Euskaldun umant zanari,
 Urez anditik, zeñda emendik,
 Ain ospatsua danari.

Guri konsejo onak ematen
 Bera zan euskaldunena,
 Ark esan zuen batzar danetan
 Eiteko gure izkera;
 Eta biziko gerala emen
 Pakez, garbiro onela,
 Ots egiñikan lotsagaberik
 Bizi dedilla Euskera,
 Nork uste zuen au dala Jaunak
 Zerutik jetxi duena.

Nola berari onrau zor zayon
 Abiatzen naiz onratzen,
 Zeren gitarra zartxo batekin
 Zuen poztu, naiz tristetzen,
 Zeren estutu, zeren lasaitu,
 Arek zekien egiten,
 Itxasoko urak diran erara

Gogoraturik itz orietan
 Apaldu zeñ da jaikitzen,
 Modu berean gure biotzak
 Zituela ill ta piztutzen.

Argatik Jaunak zabaldu zion
 Laster izena Frantzian,
 Ingelaterran, Alemanian,
 Orobat ere Italian;
 Beldurra nola ipiñi zuen
 Ementxe gure Españian,
 Erbesteru zan eragotzita •
 Bizitzen Euskal-errian;
 Gero ogei bat urte egin zuen
 Lurraren beste alderdian.

Ara baño len utzi zizkigun.
 Jarrita kantak ugari;
 Beren artean samurrena bat
 « Adio Euskal-erriari »;
 Beste kanta bat eder ederra
 «Alzkibel jakintsuari»;
 Oraindik berriz ederrago bat
 Jarria «Aritz zarrari»,
 Zeñek ematen dion gloria
 Andi bat Euskal-lurrari.

Au da kanta bat, mundu guztian
 Zabaldu dana nai-nora;
 Kanta aiñ bikaiñ, aiñ ospatsu au,
 Etzaigu illko iñola;
 Zeruko argiz Joxe-Mari'ri
 Uste det jetxi zayola,
 Homerok ere etzuelako
 Jasoko obeki arbola,
 Apolok ere beste kanturik
 ¿Noiz altxatu du aiñ gora?

Kanta dezagun batzar danetan
 Kanta aiñ paregabea,
 Kanta dezagun adoratuaz
 Arbola santu gurea,
 Kanta dezagun bera degula

III.—GORA KANTUAK

Loirik gabeko lorea,
Iparragirre trebea.
Zergatik berak kantatu zuen
Biztzeko gure fedea.

¡O! zein ederki biltzen gaituan
Aritz zarraren oñean,
Lau probintziok anayaturik
Batzen an erramapean,
Irme ta sendo elkaturikan
Laurok korapill batean,
Laurokin lazo bat egiñikan
Fuerodun izan gaitean,
Goza ditzagun zorion danak
Guraso zarren legean.

¡O! zenbat bider Madrillen bertan
Entzun izan zan *kant* ori,
Euskal uriak adi zioten
Asmatzalle ez-illkorrari,
Errietako konsejuetan
Askok ikasi berari;
Duda gaberik euskaldunetan
Kanturik onen dirudi.
Joseri baño nik enioke
Deituko errege iñori.

Orregatikan eo dezagun
Koroi bat artearekin,
Lau probintziok gaur dizayogun
jantzi burua berakin;
Molda dezagun, molda bertatik,
Molda alegin danakin,
Ez urre, ez perlaz, ez diamantes,
Ezpada obearekin.
Diña dalako, iñor bada din
Jazteko ostoarekin.

Aritz ostoz bai, jantzi dezagun
Euskaldun orren argia,
Arbola ostoz ornitu ari
Kopeta zabal garbia;
Utsik Arbola ostoz apaindu

Iparragirre andia,
Arbolarekin betiro bizi
Dakigun Jose Maria,
Arturikan gaur anayok gandik
Illko etzayon saria.

Bizi zaitea, Iparragirre,
Ortxe Parnaso mendian,
Zergatik musen maitetzallea
Ziñan bizitzan zu beian;
Apolok zauzka euskal kantari
Danen guztien erdian,
Deitu dakizun zuri Homero
Zerorren jayoterrian,
Naikunde ori erabilli det
Iya aspaldi guztian.

Deitu bekizu, deitu euskaldun
Bertsolarien izarra,
Deitu bekizu ajola gabe
Maisua jotzen gitarra,
Zortziko soñu onak asmatzen
Zera danoen azkarra,
Kantatutzeko eztarritikan
Geyen daukazu indarra,
Gañera zera eztitasunez
Erretxiñola bakarra.

Beste Joserik ez dakust ez nik,
Nere gidari zu zera;
Jaurtigi-dazu zure txinpart bat,
Jargoi ortatik lurrera;
Lagun zaduzu Parnasotikan
Izaten zure antzera,
Jaso dezadan inkuntza zar au
Izkuntz berrien gañera,
Berau dalako geienen ama
Nere laztan dan Euskera.

NOBIA SALZEDO'KO ON PEDRO'RI KOROIA

(Bera jayo zala eun urte bete diran egunean)

Zergaitik biotzak ete deust
 Barruan egiten salto?...
 Zergaitik kantu bat egiñaz
 Nai daben umant bat jaso...
 ¡Ai! Baña ¿nun daukat egoki
 Miñ garbi leundu bat oso?
 ¿Nun daukat? nun daukat lira bat
 ¿Nun daukat? nun dot eroso?

Erzilla, ¿nun daukat zuk legez,
 Apolok ez badeust emon?
 ¿Nun daukat etorki gozoa,
 Au al da aurkitzen nai-non?
 ¿Obeto egingo ete dot
 Ixillik zokoan egon,
 Esanaz epelen antzera:
 «Nigaitik bedi or konpon?»

Anyerusa Nerbiongoak,
 Ezin nei gauz ori egin,
 Umant bat eregi dagidan
 Argitu naizue arin;
 Zoakuz, euskaldun famea,
 Ego luzeokaz urrin;
 Nobia Salzedo nor jakun
 Munduan zabaldu dedin.

Umant aiñ onari gagokaz
 Oraindik koroe zorrez,
 Eta nik gaur gura neuskio
 Ornidu lora ederrez;
 Alako loratxo politak
 Baña ¿nun billatu neikez,
 Kanpoak osoro neguan
 Erreta leyak badaukez?

Ez deutsa ardura lorarik
 Neguak euki ez arren,
 Ereñotz berdeak zergaitik

Ugari ditugun emen;
 Gañera kantariak dabiltz
 Erleak lorak lez batzen,
 Nobiak eukazan onkayak
 Eurakaz alabau dayen.

¡O! umant euskaldun argia!
 Goratu zinduket nai ta.
 Bizkaiko guraso legetxe
 Benetan nik zaitut maita;
 Agaitik zeurorri koroi au,
 Jantziko deutsut gaur, aita,
 Obea balitza bere duiñ
 Zergaitik zarean baita.

Duiñ zara, Nobia, zergaitik
 Zoliago zanik zaintzat,
 Bizkayan ez dot nik billatzen
 Arbola gurearentzat;
 Alantxe bere orrizko dan
 Aro baten zaukat duiñtzat,
 Al baneu onegaz orain nik
 Jantziko zinduket beintzat.

¡Zelan etzinduket jantziko
 Erriak aututa sarri,
 Arbola azpian gorenen
 Egiten baziñan jarri?
 ¡Zelan ¡o! zelan ez jantziko
 Foruak egonik larri,
 Madrillen bazeuntsen etsyai
 Miñean kandaua ezarri?

¡Ai! euki gaurdaño bagenduz,
 Zu lako zaintzallak lumaz,
 Zorigat.x andiok etziran
 Jazoko emen benturaz;
 Zu ziñan jadtixi eziña
 Gaztelar txoriak egaz,
 Arbolak arrano bat eukan
 Illteko miruak zugaz.

Ea, bada, euskaldun onak,
 Frantzes ta españar danak,

III.—GORA KANTUAK

Atondu daiguzan eskribuz
Al diran kantuzko lanak:
Zergaitik merezi deuskuzan
Erritar onen bat zanak,
Gugandik gaur artu dagizan
Gloriak Nobia Jaunak.

Gloriau begie ganera
Bizkaiko trenak guztiak,
Boteaz odehyak jo arte
Ke baltz ta lurrun zuriak:
Entzunik eurai oskar eta
Txistuzko soñu zoliak,
Nobia tren zale zanari
Kantetan jarrai, mendiak.

Eta nik gura neuke barriz
Kalandriak legez igo,
Kantetan: gaur dira eun urte
Nobia jakula jayo;
Nobia, Nobia. Nobia.
Sekula etxaku illgo,
Bitezar-tegiaz jaztea
Zergaitik nai eban Bilbo.

Azkenez gloriau kantetan
Gayarre izan nai neuke,
Zergaitik seme onak legez
Euskera euskun, bai, maite;
Beronen susterrak billatzen
¿Nor jakun nekau ainbeste?
¿Nok gaitu Ama onen argi
Errañuz aiñ asko bete?

Tallu bat eregi begio
Bizkayak marmolki arriz,
Eregi dayola gure gaiñ
Oiñ-aulki eder -la andiz,
Edertu dakigun Bilboko
Plaza bat alako juntziz.
¿Ze poza geunkean lastertxo
Egun au elduko balitz!

Eun urte orain baditugu
 Mundura au jayo zala,
 Urrengo eunkian obeto
 Goratu egingo al da;
 Emendik ordura nor jakun
 Jakingo deuskue ala,
 Gaur nor zan ez dakien askok
 Gizon aiñ argia zana.

Umanten artean zakiguz,
 Nobia, biztuten asi,
 Izarrak legetxe kondairan
 Egiñaz guretzat argi;
 Ispillu ederra zaitugu
 Daizugun zuri ikasi,
 Zeu legez Aretxa zainduten
 Ber-a!de egiñik bizi.

GURE AITA SANTU XIII.en LEONI

(Erroman bagillaren 9.an)

AURTEN ARTU DABEN SENTIMENTUAREN ARINGARRITZAT

Lorea jayotzen danean
 Sasipe gordean umill,
 Ikusgei gozo bat Zeruak
 Niretzat oi dabe egiñ.

Ederra bere jat erexten
 Laño bat doiala goyan,
 Eguzki begiak badabe
 Artuten parean beian.

Txorien kantuak entzuten
 Mendian ditudaz gogoz,
 Aix me bigunak jo eta
 Orrien berbeta gozoz.

Erreka soñuen zale naz,
 Basauntzak poztuten ditu,

Beltxargai alsegin emonta
Aratai bertara deitu.

Alargun jarri dan usoak
Damuzko urruak jota,
Biotzik zaillenai eragin
Oi deutsez malkoak bota.

Eta nik entzuten ditudaz
i Ai! urru tristeak eltzen !
Biotz au urratu eginda
Deustenak mindurik isten !

¿Norenak ta nondik onañ
Datorkuz aiñ urru miñak?
Eskatzen laguntza gugana,
Eskatzen gaur bertso-giñak.

Lireau arruta banoa,
Po/tzeko gogoaz bera.
Baña gaur negarrak joteko
Eldu da bakarrik era.

Banoa dalako sotilla,
Usoa dan gisan berez,
Banoa zerren dan guraso.
Munduan nausia legez.

¡O! Leon Agura santua,
Kristiñau arimen Aita,
Banator. banator zugana.
Arindu gurarik gatxa.

Alargun bat legez **zakustaz**,
Inguruz lagannik бага,
Zorra da niretzat Aitari
Lagundu daiodan ala.

Bakit zer nai dozun ¡o Jauna!
Zer dodan zer egin bear,
Malkoak isuri geratu
Artean begiok igar.

Erroma zugaitik oi bada
Errien burutzat jarten,
Ume zurtz badozu itxiten,
Ez daki zer doian galtzen.

Illetak gaur dozuz, oi Aita.
Daukazun pcnea bere,
Bardiñik bagea dalako,
¿Nok ondo azaldu daike?

Obeto biziko zarean
Lekutxo batera zuaz,
Erroman atsegin garririk
Iñondik ez dozu zugaz.

Erroma gaur ez da zuretzat
Rarrua poztzeko diña,
Erroma gaur jatzu garratza,
Erroma gaur jatzu miña.

Erroman oi dozu zizpuru.
Or egun eta gau negar,
Erroman ¡ai! arri biziak.
Zerura oi dabe dedar.

Erroman errege aulkian
Bidez zu zinean jarten,
Burlatzat Erromak Barrabas
Koroiaz gaur deutsu jazten.

Ikusi au eta. egodun
Galaiak. ¿nun zare gorde?
Aizeak gartuta garrokaz
Errekak ein бага erre?

¿Nun zare, aideko armadak.
Gu jarri bagarik dar dar?
Tximistak besook lotuta
Dozue gaur egon bear?

¿Nun zara? nun zara Sodoma
Kiskaldu zenduan Jauna?
¿Nun zara gaur egin bagarik
Orduan zeuduan lana?

Baña ¿nok jo Leon andia!
Daukazun naibage Izarra,
Kentzeko billatu ¿nok leike
Pozgei bat jatzuna parra?

Nik beintzat poz pozik egingo
Neuke bai, al dodan dana,

Naiz emon eguna neketan,
Naiz latza irago gaba.

Ogirik zein urik, zein ezer,
Probau ez; zein egin barau,
Zein galdu ditudan ondasun,
Zein galdu osasun danau.

Naiz erre naiela garretan,
Naiz zurrau, naiz untzez josi,
Naiz bakez, naiz gerraz edo noz,
Zur-alde gura dot bizi.

Zugaitik edo noz mundu au
Prest nago dagidan itxi,
Iya alan zerutik pozen bat
Zureztat albadait jatsi.

Nai neuke nik gastau nazau au,
Zugaitik desegin nik nai,
Nai neuke okerrak onduta,
Zugandu daitezau gaur bai.

Edo bai, izate guztia
Asarre jarriko balitz,
Itsuok argitu daitezau ;
Gaixuok dongaro dabiltz.

Bildurtu daitezau betiko,
Kantari guztiak ixu:
Txoriak, emendik aurrera
Maturik zaitezau bizi.

Bildurtu daitezau betiko
Azkatu bekigu lur au;
Izarrak gabetan begiok
Osoro eizueza tapau.

Bildurtu daitezau betiko
Eguna biurtu linbo:
Goixetan, Eguzki zolia,
Ez al az esnatu ingo.

Zezenak, otsoak, legoiak,
Gaiztoai burrukan ekiñ;
Faraon gordiñak Israel,
Ezpadau libran nai egiñ.

JESUS'EN TERESA SANTEARI
AMODIOKO KANTU BAT

(Ene adiskide maite Iñarra'ko on Antonio'ri)

Españatarra nazalako ni, nago zerura,
Neure biotz au ordu onetan jasoagaz;
Españatar dan santa bat zerren neukean gura,
Alaban gaurko kantuagaz.

Zabaltzen doa zerua egun pozez betea,
Alako santa arrigarria danarena;
; Nok leukakean berberak eukan lako lumea !
; Nok amodio Jesusena !

Bai, Karmeloko lirio zuri parebagea,
Kantau daizudan zure egun au jagitean;
Jarri nagizu beian itxirik zoro tritea,
Sion'go mendi ederrean.

Igoa zara Esposoaren abiara zu,
Uso sotilla, emengo bullai urrindurik;
Goyan dozuzan urruetakaz gaur nadin batu,
Soñutai on bat ¡ai! baneu nik!

Ze pozik daben azuzenazko lora salletan,
Jaunak girotzen zu lako lora eskertsua;
Amodiozko aize bigunaz zerren goyetan,
Arnasegeia dan gozua.

Ulle-kopeten albeni baten zenduan jarri,
Katigaturik Esposoaren arimea;
Zure begiak jakozalako ispillugarri,
Nun bera nai dan ikustea.

Lora lurrenez eztitutako urruetakaz,
Deitutean zuk Esposo laztangarriari;
Zentzuna galdu baleu legetxe itzxo leunakaz,
Asiten jatzu berbaz zeuri:

Autortu-idazu, ¿norena zara, neskatillea?
—Galai ederra, ni naz Teresa Jesusena—
—; O! uso zuri, neure ortuko loren lorea,
Ni nozu Jesus Teresena.

—¡A! Sunamitis, itzuli-dazuz begi lau lauok,
Zizpuruz urtzen zagozan ene tortolea,
Zenbat anpulu geiago daben botaten eurok,
Nayago zaitut ikustea.

—Nire biotz au, kutun laztana, zauritu dozu,
Begirature zuk egiñiko aiñ samurraz;
Urre gorrizko ulle orrekaz zuk lotu nozu,
Preso naukazu asko guraz.

—¡Ai! Esposoa, esku errogaz eidazu batu,
Nire esku au gaur deusudana eskiñiten;
¡Ai, ene bada Arimatxo au jat arikatu,
Zure amarez noa illten.»

Ain batzandute atsegintsu ta arimazkoan,
Enkantuz bertan Esposea zan lo geratu,
¿Zeiñ maitetzallek amodio aiñ garbiz besoan,
Iñor egiñ dau au lez batu?

Taupaka dagoz bien biotzak soñu batean,
Amodiozko besoz sendaro amarraurik;
Alako berbaz bien arimak euren artean,
Bat egiñago geraturik.

Batak diñotsa: ((Eutsi urratu dozun biotz au,
Eutsi neure au». Au da besteak diñotsana:
«Zauritu-idazu zeure amarez geyago berau,
Zauri bat oso jarri, Jauna.»

Au ikustean, uts urdinean jatsiaz bera,
Dator serafín ego-zabal bat Teresana ;
Nok jaurtigiten deusan saeta bat biotzera,
Eta irago bereala.

Orduan jakoz amodiozko errekak asten,
Orduan eldu ill ez dakion Esposoak;
Orduantxe da lirio odol gorritan nasten,
Orduko penak ¡ze gozoak!...

Maitetzallea samurtuten da, bai eta jantzi
Egiten deusa larros ederdun giraldea;
Itxasoari lanbro gozoa eutsan erantzi,
Otzarotzeko Esposea.

Esmeráldazko laranja eta sagar zugatzak,
Azukarezko ale urtsu ta umaotuak,

Eskiñiteko euren besanga aiñ aberatsak.
 Lurrera daukez makurtuak.
 Lora guztiak inguruz dabe esitzen dana.
 Dosel kerizpe-garri eder bat egiñagaz ;
 Esposearen arima eta gorputzagana.
 Lengo zentzunak biurtuaz.

ZORTZIKO BATZUEK

KRISTOBAL KOLON AUNDIARI

Nor zayo bat munduan	Ontzitik bereala
Bere berdingarri,	Egiñik atera,
Lur berriak billatzen	Inkatzen du lurrean
Jenobatarrari?	Kristoren bandera.
Mundu bat gendukanok	Len ezekian iñork
Orañ ditugu bi,	Zer zan Amerika,
Glori au zor diogu	Nondik ondasun asko
Kristobal Kolon-i.	Degun ekarrita ;
Kristobal, zaigu gizon	Kristobal-gatik gaude
Aiñ miragarria,	Aberats jarrita.
Batez ere Indien	Bere alabantzan jo
Beneragarria;	Dezagun musika.
Zeren beronegatik	Musikarekin nasi
Gaur duten argia,	Gañera kantatu,
Jesukristok zerutik	Kristobal zeruraño
Lurera jetxia.	Dezagun altxatu ;
¿ Zer zan beste gauza-	Lareun urte luzeak
Ezpada fedea, [rik	Naiz egin pasatu,
Sututzeko Kolon'en	Aren azaiñ andiak
Biotz aiñ noblea?	Ezin dira aztu.
Kristau egite arren	Ezin litezke aztu
Infiel jendea,	Kristobalen lanak,
Arriskuan ipiñi	Legortzen ezpadira
Zuen bizitzea.	Itxaso zabalak;
Itxasoz iristean	Nola ziran atera
Zijoan aldera,	Ondo aren planak,
Agertzen da legorra	Esker asko zer dio
Ark esan bezela ;	Kristandade danak.

Onra dezagun bada	Eguzkia nola dan
Ai dezagun añan,	Buru izarretan,
Bakoitzak bere moduz	Zu zera argiena
Norberen izkeran;	Itxas-gizonetan.
Gizaldi guztietan	Jantzi gaur nai nizuke
Egiñik onelan,	Alako koroia,
Kristobal biziko da	Erregiena baño
Ill gabe sekulan.	Askozaz obia;
Bizi zaite, Kristobal,	Etzeralako erri
Gloriaz goyetan,	Batzuen jabia,
Gizonik aundien bat	Baizikan mundu berri
Zu zera benetan ;	Baten jaun andia.

LOPE OTXOA ORO'KOA

*(Neure adiskide euskara-zale argi on Juan Karlos
Gerra Jaunari)*

Iragoriko denporetako gertakizunak
Jakite arren begiraturik liburura,
Istoria bat gaur irakurri egin dot, eta
Pentsamentu bat berak ekarri deust burura ;
Birtute eder ta egiaren arerioak,
Zelan direan gaiztakeria ta guzurra,
Orrexegaitik ez da faltako mundu onetan
Gerra, ikara, lorra, negarra ta bildurra.

Direalako, baña, egia zaintzen dabenak
Beti gizonik onen, zuzen ta argienak ;
Euren izenak bear litzakez urrez ipiñi,
Izan ditezen mundua mundu ezaunenak;
Eta nik zelan nai nitukean beti goratu,
Gloria andi gure euskaldun umantenak,
;Ai! banituke neure miñean arako berba
Erzilla zoli bertsolariak zituenak !

Goratu daidan Mondragoeko familia bat,
Goratu ango seme argiak izenean;
Batzuk galtzairu-giñik onenak legetxe zerren,
Ziran besteak gerran itxasoz ta lurrean;

Jaungoiko eta Erregegaitik areik baziran
Soldadu onak Flandesen legez Italian ;
Errazoa da alabau daidan gorenengoa,
Neure indarrak al daben aiñan ta neurrian.

Lope Otxoa Oro-koa zan familia artan,
Izarrik geyen agertu zana anayetan;
Nork dirudian tantai andi bat landara artean,
Ingurukoak arturik beso azpietan ;
Beste anayak izanagaitik bere andiak,
Bakotxak berak euki zituen lanbidetan;
Lope Otxoa, baña, zentoi bat zentoi artean
Zalako, jarri gaur gura neuke izarretan.

Berrogei eta zortzi urtean beti gerrari
Izan zalako, eten bagarik armadetan,
Ozeanoko gerretan bazan leyal ibili,
Galeresetan alperrik iñoz jardun etzan;
Baita armada lurrekoetan euki zituan,
Ardura asko, berak geroko urtietan,
Nun bere Lope ispillu bat zan askorentzako,
Bere kontura euki zituan bearretan.

Infanterian Idiakez-en terzio zarren
Artean bere bera izan zan bat kapitan,
Erakusteko azkortasuna Milanen legez,
Países Bajos ta Alemanian, guztietan ;
Beti izan zan Aita Santua maite ebana,
Beti beraren alde ebana pelietan ;
Beti gerrari katoliko on fedetsuen bat,
Ta batez bere kantetan noian burruketan.

Milla seireun da ogeta amalagarren urtean
Agor illaren bostgarrena zan jayo egiñ,
Nordlinga uri guztiz zarraren mutu aurrean,
Amaikarentzat azken eguna izan zedin;
Asiera joian batallan, nai ta nai ez, bear zan
Askok artzea bala, lantza ta ezpataz miñ;
Orrexegaitik bakotxak bere aldetik eulsan
Pelearako prestetan zoli aurrez ekin.

Alde batetik Gustavo Horne et Bernardo
Weimar, zirean euren martizdi andiakaz,
Zeintzuk pentsetan eben zirala katolikoan

Aldean nausi jaritsitako garaitzakaz;
 Ez eben uste iñor zirala besteak iya,
 Pelietako geyago euren soldauakaz,
 Agaitik josten zituen arro tanbor tronpetak,
 Ots eragiñik mendiai euren soñuakaz.

«¿Nun aurkitzen zan katolikoan Jaungoikoa».
 (Omek ziñoan), egiñ ditugun pelietan? [nun?
 ;Guk zelan dogu garaipenakaz urteten beti.
 Arei emonda zurrak batalla guztietan?
 ¿Juramentaurik ez al gagoz gu jarraituteko,
 Zaill eta zintzo asi genduzan pausotan?
 Ikusiko da zein Jaungoiko dan gaur bere nausi
 Emongo diran batalla garratz samiñetan.»

Ungriatarren Erregea zan gurien buru,
 Ta Españaako kardenala zan Infantea ;
 Baita eurakaz bazan oraindik irugarrena,
 Lorenatar bat Duke gerran errimea:
 Zeintzuk jasorik biotzak gora, eskatutean.
 Batalletako Jaungoikoaren laguntzea,
 Azkortu ziran esetsileko protestanteai,
 Garaitu edo emon artean bizitzea.

Batallearen joan-etorri dana egoan,
 Menditxo baten bat jarri, edo ez eitean;
 Nundik azpian zirealako artzen guztiak,
 Eta beragaz jabe gureak ein zirean;
 Idiakez-en terzio zarra ikusiaz bat,
 Bandereagaz bere gaiñ edo tontorrean,
 Estutasuna, ikarea ta larri aldia,
 Bazan ugari protestantien biotzean.

An ikusi zan katolikoan estandarte,
 Orain zabaldu, orain aixeak biribiltzen;
 An eguzkiak gabaz begiak estaldu arren,
 Katolikoak idigiago dabez jarten;
 An dabil bere Aita Kamara injineroa,
 Gastadoreai munak non egin erakusten;
 Arrats batean trintxeraz josten dabe mendia,
 Egunerako gaztelu dabe biurtuten.

Arerioak otsoak legez amorratuaz,
 Egunari zain aurkitzen ziran baña estu;

Besteak bildots mantsotxo batzuk ziralakoan.
Goiz-goiz sartuta trintxera on bat «utsen artu:
Baña, bildotsak legoelurik ekin eutsen ta
Egiñ zituen gaba baño len kanporatu.
Ez, baña, danak; zergaitik, zelai egotzietan,
Agoaz gora naikoa ill da zan geratu.

Alper-alperrik Gustavo Omek asaltuakaz
Biamonean amabost bidar dau esesten ;
Alper-alperrik izan zirean bere indarrak,
Jentea galdu baño besterik ez dau eiten;
Baita alperrik Weimar, zelayan artilleriaz,
Dabil Duke Juan Lorenarrari tiratuten ;
Aren lekuan jo arren Lope, ez da ardura,
Zergaitik onek biotz geyago daben artzen.

An ikusi zan gure kapitan Mondragotar au.
Zelan gerran egiazko bal zan benetan;
An kañoeko baleak beso eskumakoa
Eroan arren, ezkerrekoaz balietan;
Antxe beragaz pikea altzaurik uluka asten da:
«Ea, mutillak, ez itxi armai amatetan,
Aurrera ! aurrera ! suan jarraitu, ill ala bizi,
Jaungoikoaren gloria-gaitik batalletan.»

Arrituien da gure kardenal Infante zana.
Ikusitean euskaldunaren adorea;
Lope Olxoak agertu eban biotz andia,
Dalako utsik umant andien balorea;
Zeñek aurrera bere sallean daben jarraitzen,
Azturik falta ebala beso eskumea,
Jaritxi arte oso ta santu katolikoan
Garaipena ta arerioen desondrea.

Protestanteak antxe betiko lotsatu ziran,
Millaka illda, millaka jausi sarietan;
Euren artean baita Gustavo preso jausirik.
An ikusten da nai eta nai ez umilletan
Zergaitik euken gureak fede egiazkoa,
Eta Lope zan legoi bat legez au zainketan.
Bere izena mundua mundu agaitik bizi
Egingo jaku istoria ta kondairetan.

III.—GORA KANTUAK

EUSKALDUN MARTIRE SARA'KO
NESKATILLA

LARRALDE'KO MADALENARI

(Saritua izan zan IS86.an Mauleon-en.)

Gura neuskizuz zuri gloriak
Kautau, neskatxa samurra,
Frantzian igo eben denporan
Gorriak Gobiernura ;
Oinperaturik ain gizon gaizto
Ifernutarren bildurra
Oraindik izan arren amabost
Urteko gazte biguna.
Pinet ta bere lagunak gaitik
Ez eutsulako ardura.
Alperrik eutsun, lotu zinduzan
Piketearen buruak,
Esan guzurraz estalduteko
Berako zure kontuak;
Jakin etzedin zetara emon
Zenduzan ara pausuak.
Ta gitxiago an zelan artu
Zenduzan sakramentuak.
Zeintzuek gatik pagau ez eyan
Ondoko zure lepuak.
Orduan baña fedez sututa
Ain modu miragarrian,
Erantzun zendun: «Naiz ill nayela
Ni illgo nabe Egian;
Jakin begie, gura badabe,
Agintariak Frantzian:
Zelan konfesau eta komulgau
Nazan Bera-ko errian,
Jauna iraindu baño len zerren
Ill gura dodan grazian.»
;.Nor ez da arri egingo oso
Nonnai zu ikusitean,
Mendi bat legez, gogor ta zutik,
Katolikoen fedean;

Ikara baga, egia beti
Autortzen era batean,
Naiz soldaduen, zein jeneralen,
Bardin juezen aurrean,
Jakiñagaitik epai gaizto bat
Zeunkala zeure gañean?
Baña, Jesus da egia, eta
Zu ziñan egi zalea,
Orretxegaitik, ¡o Madalena!
Kristo zan zure maitea;
Nogaz zenduan zuk bizi gura,
Nogaitik bere illtea.
Nogaz guzurraz etzendulako
Txarto nai geratutea,
Bere etsayak emon eutsuen
Kastiguz eriotzea.
¡O neskatilla, Sara-ko gazte,
Fedez bardiñik bagea!
Ill bear eta kantetan dozu
Birjiñ Amaren Salbea,
Lirio guri ziñan denporan
fkusgarrizko loria
Gillotiniatz gorriak zuri
Ebagi arren samia,
Orain zeruan gozetan dozu
Martiriaren koroia.

MILLA BETIKO-LORAZ EGIÑIKO

AROA

KALDERON ILLEZKORRARI

Nun da niretzat lira gozo bat?
¿Nun miñ bat Leun ta zolia?
¡Ai, baletorkit nundibaitetik
Musaren baten argia!
Neurez ez daukat idurimenik,
Laburra dot etorria;

III.—GORA KANTUAK

Goratuteko gizon andi bat,
¿Ausaz naz biursaria?

Erdue, musak, lagundutera;
¿Nun zagoze, irudiak?
An ete zaren jasoten dodaz
Zeruruntz neure begiak:
Nun ikusirik ainbeste izar
Ziargiz txito josiak,
Erraño batek zabaldu deustaz
Adimentuko begiak.

Egiaz areek argiak dira
Zeru zabal urdiñean;
Jakitun onak iñoz illunak
Ez dira gure artean:
Noz arteraño iraungo daben
Izarrak argiz gainean,
Ez dakit; baña, bai gizon batek,
Zeruan eta lurreau.

Gizalditxo bi uts aiña jakoz
Sekulakoa danari,
Beeko bizitz au ames bat baño
Ez jakon bati irudi:
Orrexegati, ¡O Kalderon ! gaur
Zatxataz alabagarri,
Zeru goyetan zagozalako,
Argi egiñaz lur oni.

Izartxo batek ez dau itxiten
Gaba danean ederra,
Errañutxo bat bialdu бага
Ezpada bere lurrera:
Zureak gau la egun dakustaz
Zabalik mundu guztira,
Zeruruntz barriz nire begiok
Eltzen ez diran tokira.

Urregorrizko luma eder bat
Eskuan dozu saritzat,
Bear andiak zenduzalako
Egiñda itxi guretzat;
Eskribu orreen artean ondo

Gogoan sarturik daukat,
Berba neurtuan, onen antzera
Jarri zenduan egi bat.

Amesa dala eukia, eta
Amesa bere ezeukia,
Amesa astea geituaz eta
Gurariz nekatutea,
Amesa iñor iraindutea,
Amesa mundu guztia,
Txikia onik andiena ta
Amesa bizi izatea.

Irakurrita au ezin ukatu
Neizun daukadan aroa,
Milla betiko lora ederrez
Zuretzako atondua:
Jantziko deusut beronegaz gaur.
Orren duin dozun burua,
Zuri begira, arritu dedin
Mundu bat oso osoa.

¿Noz gertatu da beste ainbeste
Gaztelar biursaria
Mundu guztian agertutea
Euskaldun loraz jantzia?
Ez dakit, au dan gizonen lana.
Ez dakit, dan miraria,
Ez dakit ezer; baña, badakit
Kalderon dala andia.

¡O españatar, biursarien
Arieañ gorenengoa!
Zu alabetan gaur euskaldun bat
Oso dago zoratua ;
Gizon illkor bat nazan legetxe.
¡Ai, banintza aingerua!
Kantau daizudan omen eder au,
Zurturik lurraz zerua.

Gloria, bada, zuri bietan.
¡Eskribitzalla argia!
Gloria goyan, gloria beean.
Kalderon miragarria:

Gizaldi bitan izan bazara
 Zeru lurretan andia,
 Eunki danetan izango zara
 Gure gomutagarria.

BITORIA'KO URIA

Araba lauan bizi zarean uri galanta.
 Araka-n leku gorenengoan naz jasarri.
 ¡Ai! emen baneu euskal lira bat zu ondretako.
 Soñu eragin orain daiodan nik berari.

¿Nor ez zoratu gaiñ onetatik zuri begira,
 Odei bat бага gaur legez goya dagonean,
 Kanpo guztia gaiaz jantzirik dakusdan legez.
 Urte danetan aurkitzen dala Bagillean?

¡Ze ikusteko arrigarria zarean bada!
 Zure zorua aberasturik dot ikusten,
 Gariak dagoz alez betetan mardo ta zarden,
 Goseaz gaizki uri maitea ill ez daiten.

¡Ze zelai zabal landuz zagozan inguratua!
 Ainbeste erritxo eleixa eta torredunetz.
 Dirudizula ollo ama bat erdi-erdian,
 Korro egiña txitatxo polit edo umez.

Erregiña bat begitanduten niri zatxataz,
 Albo erriok eresten jataz menpekoak;
 Agaitik dozuz zeatz gozetan bertan sortutuen
 Direan ciza, esne, arrautza ta arraiñtxoak.

Zure kristalen islak izarrak dabez irudi,
 Zure etxeok edurra legez dira zuri,
 Eta Ebroruntza Gamarran zear doian Zadorrak.
 Izarrentzako ispillu dala gaur dirudi.

Zure torreok ikusten dodaz zelan dabezan,
 Euren buruak odeyeta eregiten;
 Danen artetik Santa Maria, baña, nik dakust.
 Goren dalako zerutik urren aurkituten.

Arratsaldeko seirak jo ditu an erlojuak.
 Gorbeya alderuntz urreratzen da Eguzkia;

Gebaran dago gaztelu zarra ari begira,
Eta nik barriz Bitoriaruntz dot begia.

¡O! Bitoria, zeinbat direan zure umantak!
¡Ai! albaneizuz zearo kantau gaur gloriak!
¡Ai! albaneizuz gaur iragarri anditasunak!
Dituzulako ugari cla zurgarriak!

Baña, ezin nei kontu orixe ezelan egiñ,
Dituzulako aiñ asko eta aiñ ugari;
Gura dabenak billatuko dauz istorictan,
Dozuzalako antxe egiten danak jarri.

Deituko deutsut nik alabere, seme askoren
Abia ederra; Euskal-erria ondretako,
Balio izan, deuskuelako berbaz, lumaz ta
Armaz, asaben eskubideak gordetako.

Arteetan bere, ez dira azken zure semeak.
Industrietan aurrera doaz aspaldian;
Eleiz-gizonak Araban dira gaingañekoak.
Sermolariak lenengokoak Bitorian.

Nik bere zuri zor deutsut dodan ofizioa.
Ikasi neutsun biziteko laiñ irabazten,
¡O! zenbat esker zor deutsudazan gañera, santu-
Irudi asko deustazulako eragiten.

Arlu egizu ordaingarritzat gav.rko kantu au,
Naiz bertsolari motzak au izan ipiñia,
Obeago ta zoliagoak zaizala jarri.
Dagotzun añañ, dagotzun mailan eregia.

Agur, betiko, azkenengoa begiraldi au,
Benturaz balitz, leku eregi onetatik,
Ni Illda bere biziko al zara zorionakaz,
Zerren maitatzen zaitudan beti biotzetik.

MENDIBURU JAUNARI

Mendiburu izan bada
Euskaldun guztiz aundia,
Nola ez det nik itz neurtuetan
Dala esango egia?

Ikusirikan izkribu gozo
 Berak jarriak aiñ ondo,
 Uste det dala benetan au gu-
 Re lumentzako guraso;
 Uste det dala gure nagusia
 Jaun au euskaraz ipintzen.
 Agaitikan da euskaldunetan
 Umant au Zizeron deitzen;
 Nork igo zuen bertut askotan
 Añ gora mallarik malla,
 Razoiarekin altxa dezagun
 Izen Mendibururena.

BITORIA'KO ABADEGEYEN IKASTEGI BARRIARI

(Don Francisco Sanz de Frutos, bestako erretore jaunari)

Arbola batek mendean artzen eban Erri bat.
 Gizaldi luze asko-askotan gaur artean;
 Arbola orrek. Eguzki sutsu naiz ekatxetik,
 Gorde oi eban giroz Erri au orri-pean.

Bere beso bat eltzen zan Ipar-itxas ertzera.
 Egoi aldetik Ebroko ibai andiraño.
 Eguzkiaren urleeratik Bidasoako
 Erreka zabal mugagarria joteraño.

Bere kerizpe gozoko iru aizta maiteak.
 Dira odolez sarri gorritu zireanak.
 Euren fedea nastu bagarik zaindute arren
 Beti jagiten zirealako gora danak.

Bere azpian gordetan ziran mendi eskergak,
 Bere azpian Anboto, Aitzgorri ta Gorbeya;
 Bere azpian Gipuzkoa ta Bizkaiko ibarrak,
 Baita Araba menditsua ta bai zelaya.

Irurok dabe gaur arte egin beti ta beti,
 Erri bat fedez kristiñau eta aparteak;
 Iruroi kendu arren lege zar Euskerazkoa,
 Ez dabe galdu, ez ta galduko, siñistea.

Irurok dabe gaur bere egiten bazter onetan,
Deritxakona ondraz Erri bat Euskalduna ;
Irurok dauke Elex-barruti katoliko bat,
Irurok Artzaiñ eta Buru bat mitraduna.

Irurok dauke euren Obispo argitsuaren
Agindupean Ikastegi bat gaur barria.
Bitoriako urian leku gorenengoan.
Araba zelai urriñetatik agiria.

¡O! egun dontsu, gomutagarri benetako!
On Sebastian Herrera jauna zara etorri;
Milla zortzireun irurogeita amazapiko
Zezeillaren bederatzi zanjazo ori.

Bitoriako kaleetan zaiñ, ari begira,
Bazan zalduna naiko aurkitzen artuteko.
Ongi-etorri, txera, abegi, agur argiak.
Euskal-Eleixa Burujaunari egiteko.

Ozta ezautu eban guztiak maitetasuna,
Guraso samur **bati** legetxe izan eutsan :
Duda bagarik Ikastegi au egite arren,
Artzaiñ aiñ ona Euskal Errira etorri zan.

Jatorriz zaldun txit noblca da, baita Obispo
Españatarren gloria here ez txikia;
Eleixearen Prinzipe argi, arimen Artzain.
Jagola zintzo, arduratsu, zur ta zolia.

¡O! Etxe santu, o Ikastegi agirikorra !
On Sebastian argitsuaren gar bizia,
On Marianó-k sutuagotu egiñ zaituen.
Zara zuzi bat errañuz bete ta josia.

¡Zeinbat alditan Araba zelai urriñetatik!
Gomutau zaitut zatxakuzala zu. eguna,
Zatxakuzala Euskal Erriko gau iltzallea.
Gure illunpe astunak galtzen dituzuna.

Zabaldugaz argi-erramak goi orretatik,
Uri, erri, zeñ baserrira naiz txabolara,
Errama orrek deuskuelako erakarriten
Ebanjelio zerukoaren su ta garra.

Jaurtigidazu gaur niri bere tximistatxo bat
Kantau daizudan zuri dagotzun ondra ona;

Kantau daizudan zu zareala Euskal-Errian
Erne zarean Aretx Arbola ezillkorra.

Kantau daizudan, zu zareala Aretx bat aiñ zaill
Ez gizaldiak, ez ta ekatxak galtzekoa;
Kantau daizudan, infernutarrak esetsi arren,
Zutik eukiko ortxe dozuna goi burua.

Kantau daizudan, udean legetxe bai neguan,
Guri emongo deuskuzuzala zuk frutuak;
Kantau daizudan, zure semeak, ardi izanik.
Otsoak jarten dituezala bildostuak.

Kantau daizudan, zure semeak dakustazala,
Ugarituaz zorionean aiñ modulan;
Kantau daizudan zeruko izar biziak legez.
Argi dagien Euskal-Erriko eleixetan.

Kantau daizudan zuk argiturik euren bitartez
Goazala gu Zeruko bide bedarrean,
Ez ezkerrera, ez eskumara okertu baga,
Erdi erditik bertara zuzen jo artean.

Kantau daizudan, onak obetzen dituezala,
Zelan arteztu adierazo baita dongai;
Kantau daizudan zelan bakea emoten deutsen,
Jesuskristogaz len arerio zireanai.

Kantau daizudan poza deutsela baita emoten,
Errukarriai premiñadun ta ez eukiai;
Baita eskintzen zeru zabalén jaubetasuna
Jaungoikoaren serbitzari on diran danai.

Kantau daizudan, zelan Jesus-ek Apostolui.
Baita eutsela iñoz egiten dei, argia,
Eta zugandik bear dabela artu abade
Izango diran rautill gazteak ikasia.

Kantau duizudan, erlijioñorik zurea legez,
Bat bere ez dala bere semerik gartuteko,
Ez jakitunik len oraiñ eta gerora bere,
Bardintzekorik gizartean eskinteko.

Igarla batek agaitik diño, izarrak legez
Jakitun onak dirala bada argituten,
Glori andi bat, baita gozauko dabeela beti,
Erakusla on izan ziranak erriaren.

Errazoiagaz agurtzen zaitul ertegi eder,
Egia utsik erakutsiten deuskuzuna.
Agurtzen zaitut ¡o! zuzi barri ixiotua!
Argitu daizun inguruko lur euskalduna.

Agurtzen zaitut, Euskal-Erriko Eleixearen
Metarri sendo eta Arbola errimea.
Agur, Zeruak bota daizula bere inñotza,
Egin daiguzun euskaldun danoi kerizpea.

Gure Arbola igartu zanak legetxe gora.
Jaso eizu jaso, Lauburuagaz banderea.
Agur, euskaldun zorionaren Landara barri.
Prudenzio ta Inñazioren eskolea.

Santu bi oneek emon bezue zeruetatik,
Sendotasuna, indarra eta laguntzea;
Izan zaitezcan euren Erriko ostarku eder,
Izar zaitezcan egun obeen señailea.

Triskau daizuzan gure gañeko odei astunok,
Infernuaren illuntasun, gau itzaltsua,
Ipiñiagaz Erri onetan laño bagako
Jesukristoren egun eder ta gozotsua.

ESKORIATZA'KO MEDIKU JAUN BIKTORIANO ILLUNBE

Senar-emazte gazte doatsu
Amorez zintzo garbiak
Zeraten biok lotu zaituzte
Bai Sakramentu aundiak;
Ezin obeki zaituztelako
Elkartu bere graziak,
Korapill baten baturik sendo
Biotz bi maitelariak.
Urte luzeetan iraun dezala
Zuen ezkontza berriak,
Zoriontasun osoz gozatu
Egiñik egun guztiak.

III.—GORA KANTUAK

Biktoriano Illunbe, nere
Adiskide txit maitea,
Oitxarik asko da iristea
Bertutetsu dan andrea;
Dirudiana larrosa eder
Amore garbiz betea,
Dirudiana lirio zuri
Animan loirik gabea;
Nola dan bada zure Eustakia
Doai oietxen jabea,
Bera izan da Eibartarretan
Usai ederdun lorea.

Erori zayon loteriakin
Ain bioleta gordea,
Nik siñistzen det zeruak gura
Zuela sariztatzea;
Probidentziak dakialako
Danoi ematen gurea,
Modu berean eman diola
Eustakiari berea,
Emateakiu bere senartzat
Alako gizon noblea,
Calai zaldun ta Kristau on eta
Mediku ezin ohea.

Orregatikan kantatuko det
Daukadan indar guztiaz,
Eskoriatza pozik dagola
Alako gizon argiaz;
Kantatuko det Biktoriano
Mediku jakinduriaz,
Dala bikaiña, dala aparta.
Eta au diot egiaz:
Pruebak eman dituelako
Sarri askotan eriaz,
Bestek sendatu ezin zuena
Sendatutako zauriaz.

Suerte ona egin dezula
Esango dizut kantuan.
Zuk, Eustakia, ain gizon ona

Daukazulako albuan;
 Nork irabazi egingo dizun
 Errian eta kanpuan;
 Eta zuk berriz zintzo gorderik
 Arraultzak kabiatsuan,
 Txit aberatsa izan zintezke
 Urte gitxiren buruan;
 Zer kanta dedan bertso onetan
 iduki zazu kontuan.

Kanta ezazu zuk ere iñoiz
 Kopiau arturik goguan,
 Erlieñ gisa zabilzanean
 Lanetan etxe barruan;
 Txoria daukat arrapaturik
 Beti-betiko eskuan,
 Au bizi bezait enaiz erruki
 Ni onezkero munduan;
 Zeren goseak ez didan illko
 Berau sekulan neguan,
 Dakialako alea biltzen
 Elurra ein arren zoruan.

¡ O ! baña nola ezin gintezken
 Gu beti bizi kantetan,
 Senar on orri baita lagundu
 Zotin ta zizpuructan ;
 Amorioa ezagutzen da
 Geyenez naigabietan,
 Ta amorioa eten gabarik
 Ezpada ezkonduetan,
 Ez-ta izango beren bizitza
 Doatsu mundu onetan,
 Purgatorio luze bat baño
 Zeiñ ez diodan txantxetan.

Amnriozko batasun zailla
 Ez da diruaz ordaintzen,
 Amoriozko batasun ona
 Ez da ezekin berdintzen:
 Amoriozko batasun ori
 Dauka duenak iristen,

III.—GORA KANTUAK

AU da gauza bat, gura duenai
Goyak diena bialtzen.
Biktoriano ta Eustakiari
Nola mesede orixen.
Jaunak ein dien, beren ezkontzaz
Lagunok poztu gaitezen.

Poztu gaitezen, eta bedeinka
Ditzala intzaz Zeruak.
Bedeinkazioz eman ditzaten
Landare oyek frutuak;
Bedeinkazioz izan ditezen
Beren aitamak lakuak,
Izan ditezen euskaldun utsak.
Kristau garbi ta prestuak;
Maite izango dituztenak, bai,
Cure lege zar dontsuak,
Zeintzuen izen euskalduna dan
Jaungoikoa ta Foruak.

IÑAZIO TA SEMEAK

Lur au itxirik doa, bai, doa
Goruntz nire espiritua,
Dalako berau guztiz ariña,
Bizkor ta lau egokua;
Beingo batean bere azpian
Urrin largauta arranua,
Jaritxi gura leuskit bertatik
Zoriondunen lekua,
Non bizi jakun gloria artean
Zaldun bat Loyolakua.

Espirituak igo nai arren,
Gorputza daukat nagia,
Nok katigatzen deustan oraindik
Neure arima bizia;
Baña biotz au zelan daukadan
Gaur alegere jarria,
Izarraitz-peko seme bateri

Bertsoaldi bat barria
Kantauko deusat dalako santu
Eta euskaldun garbia.

Euskeraz kantau nai deusut bada
¡O! Iñazio ederra!
Zure begiak egin daizuzan
Biurtu onuntz lurrera,
Zeure semeak dabiltzalako
Zoli baterik bestera,
Alan itxasoz, zelan leorrez,
Zabaltzen zeure bandera,
Ekarte arren bere azpian
Mundu guztia jartera.

Mundua dana gura leukie
Bandera orregaz menpetu,
Ama Eleiza Santa ez dedin
Ontzi bat legez ondatu;
Danok Kristogan bat egin eta
Salbau dedin ta sendotu,
Orretarako ¿ze armada
Egin zenduan moldatu,
Zelako soldau aukerakoak
Zuk Iñazio billatu!

Alkarren leyan zar eta gazte
Doaz guztiak gerrara,
Dedar egiñaz: «Gure bearra
Jaungoikoarentzat dana da,
«Bere gloria anditu dedin
«Goazen gu burruketara;
«Goazen bai, goazen, ill edo bizi,
«Arrisku andietara,
«Adiskiderik бага geratu
«Dedin Luzifer zitala.

«Ditugun armak dira Jesus'ek
«Eskura emonikuak,
«Bere soldadu gu gereala
«Kantetan doguz bertsuak;
«Gerraketara goazanean
«Jo zelakoxe soñuak,

«Baita galtzairu zorrotzuakaz
 «Indarrez jaso besuak,
 »Eta irabazi arerioen
 «Kontra garaipen senduak.

»Iñok jokatu nai badau gugaz
 «Agertu baño eztauko;
 «Jaungoikoa guk badogu geugaz
 «¿Nok gaitu azpiratuko?
 «Eta alanbere esetsitera
 «Balitza norbait jagiko,
 «Berealaxe azartasun au
 »Ondotxo leuke pagauko,
 «Buruauestetik gaur Luziferrek
 «Eleukelako librauho.

»¡ Aup! egin eta urten begie
 «Luterok Alemanian,
 «Ingelateran Enrikek eta
 «Kalbiñok bardin Frantzian;
 «Askotu bitez euren semeak
 «Arrokeria andian.
 »Ez buru ta anka, baña gaur dabiltz
 «Ganora lotsagarrian,
 «Mailluaz guk jo ditugulako
 «Danak buruen erdian.

«Euren dotriñai ezelan bere
 «Ezkoaz iñoz parkatzen,
 «Katolikoan egi garbia
 «Jardungo gara ereiten;
 «Alper-alperrik arantzadoiak
 «Bidean jakuz ipinten,
 «Ezpataz danak ebagi eta
 «Aurrera dogu jarraitzen,
 «Dragoeren bat azaltzen **bada**
 «Kurutzeagaz birrintzen.

«Egur onegaz ill bear dogu
 «Pistia donga guztia,
 «Suagaz erre erne eztedin
 «Bedar txar danen sustraia ;
 «Eta tankean-tankean ereiñ

«Kurutzearen azia,
«Beronen ezkur ederra izan
»Dedin arimen jakia,
«Bertan ill zana aurrera euren
«Errege ta Agintaria.

«Oneixek dira gure dedarrak
«Oneixek gure asmuak,
«Oneixek gaitik nekau oi doguz
«Gorputzak eta buruak;
«Mendi, atx eta basarteetan
«Emon ugari pausuak,
«Pillatze arren tegi batera
«Ardi erratu galduak,
«Osterantzean ondamendira
«Doazalako gaisuak.

«Ardi danakin nai dogu egin
«Artalde on bat lurrean,
«Danok ipiñi Leon amairu
«Garren onaren mendean;
«Bera dogula gure Burua
«Guk jarraiturik atzean,
«Bizirik danok Artzain bategaz
«Berak zainduta bakean,
«Estaldu daigun arerioa
«Bein da betiko lurpean.»

Entzun ditudaz Iñazioren
Soldau zolien dedarrak,
Badakit zelan parebagarik
Diran gerrari leyalak;
Gañera asko itxasoetan
Direan legez ondarrak,
Direalako Iñazioren
Seme errotso azkarrak,
Lurrak daukazan bost aldietan
Gaur eurak dira izarrak.

Ikusten dira beti egiten
Irabaziak aurrera,
Ameriketean, Ozeanian,

III.—GORA KANTUAK

Afrikan bere ez atzera;
Europan ela Asían barriz
Ze frutu daben atera,
Danok guztiok dakigulako
Enoa luzatutera;
Onenbestegaz neure kantua
Gaur noa amaitutera.

Zergaitik ezin leikezalako
Iñazoren semiak
Egin dabezan gauzak ipiñi
Zearo nire lumiak ;
Orretarako bearko deutsa
Ekin nik baño obiak,
Euskalerrriak badaukaz buruz
Argiak bertsolariak;
Ni ixilduta, zarata egiñ
Begi gaur euren liriak.

Auspaztuten naz ¡o Iñazio!
Isillik zure oñetan,
Semez aberats zaitudalako
Ikusten zeru goyetan;
Danak dakustaz euren bearren
Sari andiak goietan,
Ta irakurten bandera zuri
Zuk dozunean altzetan,
JAUNGOIKOARI EMON GLORIA
Urregorritzko letretan.

IRAKASLE AINGERUARI

Kantatzeko gaur gogoia daukat,
Ezpanaiz ere kantari;
Pentsamentu au ez dakit nondik
Burura jatan etorri.
¡ Ai! kantatzeko gogo au baña
Gaur biraldua neroni,
Baneki nor dan abiatzeko
Laster kantatzen berari:

Baña, au nor dan nola nik ezin
 Diodan beian igarri,
 Izarretara zuzendutzen naiz
 Ea an bada ageri.

Ta an ikustean bost izarrekin
 Garbi-garbiro ageria,
 Letraz bezela eskribituta
 Tomas'en izen aundia.
 Gogoratu naiz berealaxe
 Bere gogoangarria,
 Egun au dala ta augatik Tomas
 Jatala kantagarria;
 Eta gañera nola clan gizon
 Argienetan argia,
 ¿Ez du merezi ipintzea gaur
 Odeyez gora jarria?

¿Nola nezake utzi isillean
 Umant ain miragarria?
 Egun au bada goizetik izan
 Iñoizko pozen jaikia?
 ¿Ez dakutsute urdin obeaz
 Zerua ere jantzia ;
 Gartsu diraden pitxi ederrez
 Bete beterik guztia?
 ¿Onratze arren albait ondoen
 Tomas garaipenlaria,
 Jesukristo'ren etsai guztien
 Ezpata beldurgarria?

Onra dezagun, onratu bada
 Gaur Tomas Akinokua;
 Eliz Amaren pilarictan
 Indartsuenetakua ;
 Munduan ere bazan jatorriz
 Etxe aundictakua,
 Utzirik baña bizitza bigun
 Lasai ta naierazkua ;
 Nai zuelako ark komentuan
 Egin latza ta estua,

III. GORA KANTUAK

¿Maitagarri ez da benetan
Santu aín egiazkoa?

Bioletatxo baten antzera
Nai zuen leku gordea,
Etzuelako bere doirik
Kanpora agertutzea;
Bere naya zan erretiroan
Bizitza igarotea,
Arrazoiaren legera griñak
Osoro menderatzea,
Birtute danen Iorez anima
Apaindurikan jartzea,
Eta gezurra egiarekin
Ostikopean sartzea.

Nai zuelako ark txiki izan,
Deitu bekio aundia;
Bai eta donzel garbi zalako
Lirio zuri zuria,
Jesukristo'ren amorioan
Zalako berriz gorria;
Alde ontatik baldin irudi
Badu larrosa gorria ;
¿Luma zorrotzaz ez da Jesus'en
Gerrari bizi-bizia,
Ereje danai burua austeko
Nor da au bezin zolia?

Orregatikan deitzen diote
Eskoletako aingerua,
Izen onekin mundu guztian
Tomas da ezagutua;
Bera dalako irakasletan
Maisu askoren maisua;
Bera dalako Kristo'ren alde
Lan asko egintakua;
¿Ta bizi zala ez da areri
Bera bai entzundakoa:
«Ederki dezu eskribituta,
Zegaz nai dezu pagua?»

Kristo zalako baña bakarrik
Tomas'en maitegarria,
Erantzun zion: «Jesus, zeu izan
Zakit neronen saria.»
¿Zerekin eman bestela ari
Zor zayon irabazia?
¿Zerekin bere ain egitada
Askoren ordaingarria?
¿Fedeagatik baldin igaro
Bazuen bere bizia,
Lanean beti gau eta egun
Ill arteraño guztia?

¡Nola onratzen lurrean ere
Dira aren lan aundiak!
¡Nola maitetzen dituan eurak
Eliza Santak guztiak!
Orregatikan amairugarren
Leon Aita txit argiak,
Tomas'en letra argiakiñ nai
Luke argitu erriak;
Diradelako izarren gisa
Danak gartsu ta biziak,
Lañorik gabe izan ditzagun
Zeruruntz bide garbiak.

An, bera ere dakust luma bat
Duela bere eskuan,
Daukazkiala beste lumadun
Txit asko jiran onduan;
Baña, guztiak baño berak du
Koroi obea buruan;
Bera daukate danak erdian
Maisu zar baten moduan;
Irakatsiten dirudiala
Diarduela zeruan,
Esan ezpain bezela emen
Nai zuen dana munduan.

Duda gaberik berak ere dit
Andik gaur bota begia,
Berak eman dit kantatzeko len

III.—GORA KANTUAK

Neukan egarri aundia;
Berak mingañau leundu dit ela
Agoan jarri eztia,
Barberak sartu nere burura
Errañu me bat bizia;
Eten gaberik ekarri nezan
Azkeneraño aria,
Beraren onran gaur kantatzeko
Einen euskaraz gloria.

KARIDADEKO AIZPA BATI

Turunta otsak gerra soñuaz
Biotzak ditu goibeltzen,
Mendi gañeko sutunpak berriz
Dardaraz lurra ipintzen :
Turmoi antzeko dunbots artetik
Bonba danean irtetzen,
Jende aundia arkitutzen dan
Erdian bada erortzen;
Lertzen danean bere pusketak
Nola diraden banatzen,
¡O! zeñbat gizon duen zauritzen,
Zeñbat illotzik lagatzen !

Otso ta legoi biurturikan,
Jazarran dabiltz anayak,
Diruditela elkarrentzako
Txakur, katu, ta etsayak,
Dierri baten jayoagatik,
An sortutako ezbaiak
Amorratutzen nola dituen
Ipiñi beren errayak,
Alde bitara jarririk baten
Len lagun ziran galayak,
Orain dabiltzaz odolez loitzen
Mendiak, nola zelayak.

Ango garraxi cta añenak
Biotza erdibitzean,

Karidadeko aizpa iñola
 Eziñ egonik etxean,
 Zauritu egiñ diranetara
 Dijoa beiño batean,
 Gaixotegia bertan utzita
 Gudun premia sortzean,
 Lagundutzero gizagaixoai
 Aingeru baten antzean,
 Dadukalako Karidadea
 Fedearekin nastean,

Bere burua belo zuriaz
 Duela oso estaltzen,
 Illen aurrean zeruetara
 Begiak ditu goratzen;
 Ayen animak gatik gloria
 Biotz beroaz eskatzen,
 Biraoka eta gaizki esaka
 Miñez danari sututzen,
 Itz santuakin eraman ona
 Artutzero du pizkortzen,
 Baita Jaunaren amorearren
 Penen artean ixiltzen.

Bai, gazte guri oraindik zala
 Ostikopetu mundua
 Egin zuen da, baita esleitu
 Barruko bizilekua ;
 Ospital edo gaixotegian
 Berez zekarren gogua,
 Igarot2eko bizitza dana
 Gobernatutzen mintsua ;
 Bai gorputzean, baita animan,
 Arkitzen bazan gaixoa,
 Lagundurikan sendatzen biak
 ;O! zer lanbide santua!

Zeiñbat erida kirats **ta usai**
 Txar zituztenak botatzen,
 Beren oyetan zeuden mintsuai
 Ziezen gozoz kuratzen;
 Baña gaur dabil guda tokian,

Arriskueta da sartzen,
 Bere bizitza besten on arren
 Duela oso eskaintzen:
 Eta, ala ere, erituari
 Ongi badio laguntzen,
 Orretzek dio bere biotza
 Eziñ geyago poztutzen.

Ara non daukan amak bezela
 Arturik beso artean,
 Dierriaren martire zail bat
 Asnasa bukatutzean;
 Balak millaka erori arren
 Albo, aurre ta atzean,
 Ez du nai utzi bakarrik illtzen
 Alako zorigaitzean,
 Botoa oso gordetzearren
 Uts gabe bete-betea,
 Zeiñ egiñ zuen abitu ura
 Profesatzeko jaztean.

¡O! emakume, aingeru baten
 Pare zerana munduan!
 Iñork badauka lekuri nere
 Biotzean, zeñ goguan,
 Zuk dezu-eta, zeren zorutzen
 Nazun alako moduan,
 Aro eder bat jantzi nai nizun
 Ejorik nere kantuan ;
 Baña, laburra nola ni naizen
 Etorki ta adimentuan,
 Argiagoren batek bearko
 Dizu ipiñi buruan.

EUSKALDUN BIOLETEA

ARAMAYORI GORATASUNA

(;809.ko euskal-jayetan Aramayon saritua izan zan)

Anboto, Udalatx eta Murugaiñ,
 Goyok gorago eregi,
 Ta begiratu zuek gordetan
 Dozuen ibar oneri;
 Euskaldun lorategi eder bat
 Beronek badau irudi,
 ¿Bioletaren izena ondo
 Eletorkio danoni?

Bioletea izanik berez
 Be-zale umill benetan,
 Bedar artean lotsaz legetxe
 Dana, al badau, gordetan;
 Bertsolariak baña, alan bere,
 Umilltasuna goyetan
 ¿Ez dabe jarten euren kantakaz
 Lekurik ederrenetan?

Ta bioleta be-zaletxo bat
 litar au mendiz gorderik,
 Irudituten bajat, nik ¿zelan
 Itxi gaur jaso bagarik?
 Zelan Araba'n berau izan da
 Euskaldun utsa bakarrik,
 licitan lorarik «'cierren dala
 ¿Ez dot kantauko emen nik?

Kantauko dot nik ibar au dala
 Arabar danen ondrea;
 Kantauko dot nik berau gaur dala
 Euskaldun bioletea;
 Kantauko dot nik dala pitxi bat,
 Motzak ezaindu bagea,
 Euskal-usaiña baño besterik
 Jausten etxakon lorea.

Kantauko dot, bai, kantau gizaldi
 Asko ein arren munduan,

Garbia dala au oituretan,
Bertako erreken moduan;
Mendi ederrez inguraturik
Ementxe bakar lekuan,
Lan egunez, ta gabez lo einda.
Euskera Amaren altzuan.

Onek dirudi Euskerearen
Alaba berarizkua,
Pitxiletakaz dabena jazten
Txukun-txukunik burua ;
Dalako berau milla abia
Zuri-zurien lekua,
Eta ainbeste santutegien
Esparro eder dontsua.

Toki autua benetan zara
Ainbeste eleixaz jantzita.
Ibar malats bat zu, Aramayo,
Etxalde ederrez josita;
Murugaiñdik nik zuri begira
Kerizpetxotan jarrita.,
Zeiñbat alditan esan ete dot
¿Zu zareala polita?

Damugarria litzake, baña.
Gozetan dozun gloria,
Ikusitea dana galduta
Zu buruz bera jarria ;
Damugarria izanik zu gaur
Euskaldun bizitokia,
Amai edaten gero ikustea
Umeak erdal titia.

Damugarria litzate, bada,
Osasunagaz Euskera,
Zugan gaur bizi eginda, biar
Bialdutea lurpera;
Baña, mendiok zutik badagoz
Lotsa bagako erdera,
¿Azartuko da ¿o Aramayo!
Zure izketau illtera?

Orretariko arerio ta
Etsai aiñ gerralaria,
Sartu eztedin inguru inguru
Jarri egizu esia ;
Orren azpira makurtu baño
Lenago erabagia
Artu egizu, zein azpiratu
Jokatuteko bizia.

Zure erripak, zure aldatsak,
Zure tontorak euskeraz
Zainduten dabez euren izenak,
Aldatu бага bestegaz;
Eta iñozko alditan deitu
Egin baño len erderaz,
Jausi zaiteze txuntxurok danok
Arroetara tutarraz.

Ez, Aramayo, ez orrenbeste.
Jarraitutea euskaldun
Nai dozulako, euskal-jayokaz
Eiten zaitue ezagun;
Kantau daikezu: «Arabar izan
«Arren, enaz ni erdaldun;
»Ze odol dodan beti euskeraz
«Autortuko dot edonun.»

Oraindik zure iturriok nai
Dabe jarraitu batera,
Lorik ein бага kantetan beti:
«*Bizi bekigu euskera;*
Baita mendiok berdez nai dabe
Jantzi urtero aurrera,
Igartu eta esan eztedin
Egin dirala Gaztela.

Kantau begie: «Anbotok zarden
«Gordetan badau burua.
«Baita Aramayok ondo zaiñduko
«*Dau Euskera Ama atsua;*
«Atsoa izan arren Euskera
«Dalako garbi, gozua.

«Ez dakiana ñoz loituten
«Jaunaren izen Santua.»

¡O! Ama maite, Euskera zarra,
Jaungoikoaren izena,
Mundu guztiak ondo esaten
Zu zara jakitunena;
Zergaitik goyan bizi dalako
Jabea guztioena,
Beraz arentzat ¿non da izenik
Euskalduna duiñ ederra?

Bene-benetan beretzako da
Egokien Jaungoikua,
Bere Erreñu berarizkoa
Zergaitik jakon zerua;
Eta zerua izarrak baño
Dalako goragokua,
¿Nondik ta nora deitu eikeon,
Euskeraz jaun bat bekua?

Dalako goiko Jauna, deutsalagu
Jaungoikoa emen deituten,
Beste izenek baño geyago
Berak gu gaitu poztuten;
Berak *Dios-ek* baño geyago
Biotza deusku samurtzen,
Samurtasunez euskera bestek
Eztabelako bardintzen.

Argizagia bera baño da
Euskera apatzagoa,
Eztia bera dan baño bere
Gozo ta eztiagoa;
Dontsua ume ama daukana
Euskaldun garbi osoa,
Titiaz naste edan dagion
Berbeta jaungoikozkoa.

Emen alantxe orain arte da
Oiñetik oiñera edan,
Euskera utsik, ta berau gaitik
Bizi da bizi dan eran;
Zorioneko jayo ziranak

F. ARRESE BEITIA. OLERKIAK

Eta ill euren Euskeran,
Eztabe oraiñ damu izango
Ez bizi izana Gaztelan.

Ainbeste milla urtetan eben
Emen alantxe jarraitu,
Eta gu bere bide erdian
Ez gaitezen gaur geratu,
Euskal-azia ereite arren
Danok gaitezen dendatu,
Eta euskaldun semeak jayo
Egingo dira ziurtu.

Bai, Aramayo, gura badozu
Izan zorionekua,
Maitetu zeure guraso zarren
Berbeta garbi gozua;
Gordeizu arren, ill arteraño
Euskera bedeinkatua,
Nok dirudian Paradisura
Zerutik jatsitakua.

IV —AMALAUKOAK

*Errotak ez dabe otsik gaur egiten..
Ez dantzut oietan gabi-soñurik;
Euskal-izatea, ¡ai! jat iruditen
Dagoala miñez naibageturik.*

G E R N I K A

Erabilli arren mundua guztia,
Leku aiñ on bat ¿nun neike billatu?
Bene-benetan da nire eretxia
Lur eskiñikoan nazala sartu.

Ementxe gozetan dodan kerizpea
Aretx Arbola zar baten ondoan.
Ez dodala topau nai dot kanteteta
Iñongo erritan Gaztelakoan.

Auxe, dogu, auxe, lur bedeinkatua,
Asabak batuten zirean lekua,
Auxe, barriz auxe, euren Arbola.

Euskaldunak, jaso buruak gora,
Deadar egin daigun geure Gernikan:
«Heti Foru-zale nai dogu izan.»

EUSKALERRIAREN NAPARRIA

Ur gaza danak iruntsi nairik bere barruan,
Beti gazirik itxasoa da aurkituten;
Kolorez baltza jayotzaz dana bere narruan,
Eguzkiaren argiak ez dau zurituten.

Ezaiña danik, edergarriak bere buruan
Ipiñi arren ¿noz ikusi da edertuten?
Atxak zutunik dirauen legez euren lekuan,
Orreik ez dabe lengo aririk urratuten.

Bardin odolez garbia danak mundu onetan,
 Gurasoz badau osasuntsua aragia ;
 ¿Zer esan daiket Euskalerrria danak zanetan
 Erdaldundurik oraiu badakar arpegia?
 itz min zorrotzok baño besterik ez dot topetan,
 Maketoena dala dakarren Naparria.

TRUEBA'REN ERIOTZAN

Muturik daukaguz gaur koplakariak.
 Ez ditut entzuten euren bertsuak,
 Ixillik artzaiñen alboka zoliak,
 Danbolin txistu ta txilibituak.

¿Nun dabez irrintzak bideko burdiak?
 ¿Nun dira gazteen bai, ujujuak?
 Bide, baso, solo, kale ta etxaldiak
 Orain badakustaz oso mutuak?

Errotak ez dahe otsik gaur egiten, ¡
 Ez dantzut oietan gabi soñurik.
 Euskal izatea ¡ai! jat iruditen,

Dagoala miñez naibageturik;
 Bere kantaria jakolako illten,
 ¡Ez dauka penia baño besterik!

EUSKALERRIKO IZAR ZIREANAI

Illaz, illaz doaz euskaldun izarrak,
 Errañuak jakez askoi amaitu,
 Enabe berotzen euren lengo garrak,
 Zerren amataurik direan gautu.

¿Nun dira Truebak? ¿nun dira Aranak?
 ¿Nun Billabasoak? ¿Nun, Klaudio, zu?
 ¿Nun dauz seme onok gaur Ama Euskarak...
 Eriotzak baldin badeutsaz ostu?

¡O! ze ezbearra! ez dabe geyago,
 Euskaldun argirik eingo munduan;
 Baña nik uste dot askoz argiago

Egingo dabela goyan zeruan,
Kantaurik Gayarrek, nik baño leunago,
Enren ondraz gure berba gozuan.

BIZI BEDI A. LARRAMENDI

Nola ontziak ez duen uzten uren gañean,
Lorraztik nondik joan dan iñork igarteko,
Ala arranoak airetan egan dabillenean
Ez du markatzen non igaro zan ikusteko.

Sñalerikan lagatu gabe lengo astean,
Aitu zan oso *Igaz*, sekulan ez bizitzeko;
Baña illaz bat. *Aurten* zan jayo bere antzean,
Arra?torikan utzi gaberik bukatzeko.

Jayo denakiñ au, baña, ez da beti gertatzen,
Umantik illten ¿menturaz iñork du ikusi?
Beren oñatzik ¿non ikusi da noiz ezkutatzen?

Beren egintzak argiz ez dira beti bizi?
¡O Larramendi! umant bat nola zeran benetan.
Zure izena ¿zenek lezake ill-erazi?

LARRAMENDI'RI LORA BAT

Ur zelayetan doian ontziak ez dau bidean,
Lorraztik eiten nundik joan zan igarteko;
Ez arranoak aidetan zear dabillenean,
Ezaugarririk gure begiak ikusteko.
Beti betiko ill jakun *Igaz*, lengo egunean,
Bera legetxe. *Aurten*, jayo da amaitzeko;
Urteak bere doaz keriza doian antzean,
Ezer-ezera danak guztiak biurtzeko.

Jayo danakaz baña, au ez da beti gertetan,
Umantak iraun oi dabe atxok legez zuti:
Euren gomuta mundua mundu ez da azketan,
Euren egintzak direalako beti bizi.
¡O Larramendi! zarealako umant benetan.
Zure gloriai lorau nai deutset nik egotzi.

NEGUARI

Negu baliz ta motza, bizar zuriokaz.
¿Atorkigu leiaz kikildutera?
Zeru urdiñari laño arreakaz,
¿Zertan itxi deutsak arpegi ederra?

Agura zitala, arnasa otzakaz.
Ipar erriraño oa atzera;
Eure alderdian, ago ekatxokaz,
Etorri bagarik Egoi aldera.

Azalako sartu, i, gure lurrera,
Narru gorrian or, zugatz guztia;
Errekea orroez, zelai ta mendia
Pitxitxo bat bere ez dakarrela;
Itxasoa asarre, lotan Eguzkia,
Begirik zabaldu nai ez dabela.

URTE ZAR ONI

Agur, zuri, urte, bazoakuzana :
Agur, sekulako deusut egiten ;
Agur, zu joanik, gelditzen naz, bada.
Urte bal zarrago eginda emen.

Urte bat lenago daukat ill bearra.
Urte bat denporan orain dot galtzen;
Urte bat galduta, urte galdu dana,
Eriotzeak deust beraganduten.

Urtez ni zartzen naz, gaztelu bestea.
Ak dau metatuten kendua eni;
Eta azkenean egiñ oi dau beti,
Urteak kenduaz bere legea,
Urteak ostuta isten nabela ni.
Urte ta bizona biak bagea.

UDEA

Euri eta ekatxai darraikoez atzean,
Egualdi on eta uda txito ederra,

IV.—AMALAUKOAK

Eguzkiak, ziargiz mendiaren gañean.
Dabela erakusten goixetik urteiera.

Len baño gaur dakusguz doi azala bidean,
Goixago nekazari piñak euren lanera.
Naiz Eguzki begitan ibilli bearrean,
Euren saillari zintzo gogoz esetsitera.

Nekeak artu arren, zerren dauken ustea.
Denporea eldurik biltzeko laborea,
Artoak, babak eta baña lenen gariak.

¡O zeñ gozoa jaken euren esperanzlea!
Alan pozik daroez lor eta izerdiak,
Gorputz urratze eta arrastaka guztiak.

NEGUARI

Kanpoak oi deuskuz Florak aldi baten
Apainduten loraz aiñ zoragarri;
Uda andik laster, eskiñiaz jaten,
Datorquio barrez gose danari.

Bioen aldia danean joaten,
Agertzen da Bako, penen pozgarri;
Triste bat badakus, emonik edaten,
Ipinten dau arin pozez kantari.

Baña, gaur laugarren dogu etorria,
Surretik botiaz, tan, tan, dindirria.
Neptuno urtetsu, buru urdiña.

Otzak kikildurik, kapaz estalia.
Aguren ílltzalla. gazte zartzallia.
Negu baliz, itsusi, zital, zikiña.

KOLERA MORBOARI

¿Zek daroa orain, alan bildurturik,
Orrenbeste jente al dan lekura?
¿Euren arerio txar bat agerturik
Bagendu legetxe gaur Erreñura?

¿Zek daroaz batzuk ontzian sarturik?
 ¿Zek barriz besteak basamortura?
 Topetan badabe leku segururik
 Bertan bizitea dabela gura?

¡Jaun aserratua, errukitu zaite!
 Jasoiguzu, arren, zeure zigorra!
 Ainbat ama pobrek, ; zenbat ume maite !

Ill zirealako largauta orra,
 Oneen kurriskakaz, nozbait ausi bite.
 ¡O kolera! zure biotz gogorra!

GURE AZKEN-LEKUA

Orri igartuak uda azkenean
 Arbolatik dira lurrera jausten.
 Euren izateak bizia galtzean
 Lurrean dirala sata biurtuten.
 Zelan itxasoan ontziak urean
 Markarik ez daben iñoz egiten,
 Alan orritxoak zer ziran ez dabe
 Gomutagarririk guretzat isten.
 Bardin ill ziranak toki au largaurik
 Guretzako jareññ eben mundua,
 Nortzuk gaur dagozan geyenak azturik.
 Aztu oi dalako iragokua,
 Agaitik orriak legez ¡gerturik
 Obíra daukagu jausi-lekua.

NEURE ADISKIDE BATI

Esker oneko izan-gureak deust eragiten,
 Gomutagarri txiki au zure izenean;
 Zeñegaz dodan neure damua erakutsiten
 Dala andia, ill zareala jakitean.

Zure alabak gau eta egun negar egiten.
 Ase ezinda dagoz umezurtz aurkitzean;
 ¡O! nik baneki luma onegaz iragarriten,
 ¡ Ze pena miña zu бага dauken biotzean!

Eriotzeak zelan ez eutsun gura parkatu,
Etorri jutzun korañeagaz oe aurrera;
Nok emontiko golpeaz ziñan oztik geratu,

Ez biurtzeko berorik iñoz gorputzera;
Baña arimea zanean egiñ ortik azkatu,
Irrada baten igo zan zero ederrera.

UMILLEN SARIA

¿Zelan dakust nik errukarriro mundu onetan,
Errubagea, daroazala ainbat gerra?

¿Zelan ikusten gaiztakeria gora altzetan,
Onoidadea balitza legez gaur alperra?

¿Zelan umill ta zuzena dana egikeretan,
Dogu esaten ezin ikusiz: «da okerra»?

¿Arro, anditsu direan asko, ta alabetan,
Dirudun bada, naiz izan donga, naiz mukerra?

Alantxe baten, gauza orretzek gogoraturík,
Aurkitu nintzan sentimentu ta damuagaz;
Argitasun bat, baña, burura goitik sarturik,
Nasaitu jatan biotz estu au, laster agaz,
Umillak zelan jasoko diran konturaturik,
Goi zeruetan beti-betiko gloriagaz.

EUSKERA ZALE ANDI BATEN ERIoTZEAGAITIK

Indarrak asko galduaz doa Erri maitea,
Bere umeak beste mundura asko doaz;
Minberaturik aurkietan da gure Euskera,
Ezin azturik desagertu dan erritarraz.
Aurrera doa goyak artuaz ¡ ai ! erdereaz;
Gu bere aurrera, geitu ez ¡baña gilxituaz!
Aiñ da andia gure Amaren atsekabea,
Aiñ seme leyal aurten Ziburu'n ill jakonaz.

¿Zeñek ornidu egingo deusku bere lekua?
Aren oñatzai zeatz ta zintzo ¿nok jarraitu?

¿Nok eskribidu gure berbeta atsegintsua,
Ak eban legez ipiñiagaz aiñ goratu?
Testamentu zar eta barria euskeratua,
Duvoisin zanak lana egiñik da geratu.

ESPAÑA'KO SANTA ANDI BAT

Emakumea bat, Españan izan jakun andia.
Bere aurrean mundu guztia arritzeko;
Bere lumea ain ondo izan zan ebagia.
Bere atzean letradun asko ipinteko.

Bera izan zan, onoidadezko tantai zutia,
Beragaz asko ez dira izan bardintzeko;
Bera zan Uso, Esposoaren zoragarria,
Beraugaitik prest, bizi zalako beti ¡llteko.

Bera da onen ortuan lora berarizkoa,
Bera aingeru aragizkoa duda baga;
Bera andrazko irakasletan gañ-gañekoa.

Berari deitzen Karmentar danak deutse Ama;
Bera zan dana Jaungoikoaren biotzekoa.
¿Nor? Jesus'ena dan Teresa maite ta laztana.

MAYATZEKO GOIZALDEAK

Odei puska bat desegin zan da agorrillean
Ikusi neban izar bizi bat agertuten,
Eta odeyak gero guztiak uts biurtzean
Zerua jantzi loratsuagaz apainduten.
Aizeak joten eban soñuak orri ariea
Ainbesteraño ninduan barriz gozatuten,
Arroa bera murmurka arin bere bidean
Joian korrontak zergaitik eutsan lagunduten.

Izar, aizetxo eta korronte murmurlariak
Biotzarentzat gabaz baziran ain pozgarri,
¿Zer izango da negu ostean uda barriak
Erakustean ainbeste bitxi jayo barri?
¿Zer txoritxoak txorrotxioka, deika guztiak,
Dabiltzanean Mayatzean goiz egunari?

LEGAZPI'REN KOROIARI

Nik ere bear dizut zertxobait, gizon argia,
 Orain kantatu, gure izkuntza jégunean;
 Nai dizut oroigarri txiki bat utzi josia
 Zuretzat ejo egin dan koroï galantean.
 Zendualako fede bizi ta biotz aundia
 Ugarte lasai eta zabalak menpetzean,
 Filipinetan orregatikan zure gloria
 Ez da itzali, eta aiñ gitxi Españian.

' Zere gisako gizon argiak dira izarrak
 Distiatzeko euskal kondairan aiñ ederki;
 Iñoiz illundu gaberik gure umanten garrak
 Diradelako antxe egingo beti bizi;
 Nola zeraten berriz aiñ asko Gipuzkoarrak,
 Osto au zuri zor izan dizut gaur, Legazpi.

NEGARREZKO ITURRI BI

Euskal-panason bart amesetan ni banenguan,
 Eta eneban len baixen argi a ikusten;
 Zuzi bizi bat len beti egon oi zan lekuan.
 Koroia eukan kurutze baltz bat zan agertzen.

Ta begiratu egiñik zoli eukan artian.
 Lirio zuriz zein zan bakarrik konponduten,
 Esnatu nintzan eta abiau pentsamentuen,
 Nor ill ete zan naigabeturik buru austen.

Igarri neutsan, buruz ezpanaz bere azkarra,
 Zer esan gura eustan kurutze mingarriak;
 Gizon ingeru onen bat zala ill zan izarra,

Zirealako lorak edurra duiñ zuriak;
 Ta jakitean jill dala, ill bai! apaiz Iñarra,
 jNegar iturri biurtu jataz begi biak!!!

NORA ARTE

(Nere adiskide On Ramon Artola jaunari)

Al izatea baldin baneuka nere eskuan
Eingo nituken ala ez ere, eztakit nik,
Gazte aldiko doai ederrak nere buruan
Piztu-erazi barrundik nola azaletik.
Gaztetasunak berdiñik ez du ezer munduan
Aginpiderik, itzaltasunik, ez dirurik;
Beste gauzarik ez duelako arrek goguan
Poz, jostaketa, farra, írintza ta besterik.

Gaztetasuna guzientzat da Udaberria,
Giltza batekin nork al lezaken bera gorde.
Ramon, joana joanik dago ¡o! zeñ egia!
Bakizu gure gaztetasuna non dan ere,
Bakizu nondik noraño doan txarko bizia,
Gu noruntz, nola, joan da joan, nora arte.

BETI GAZTE

(Rosario Artola bet solariari)

Zorakeria diote dala antziñakoa,
Urteak dauzka, baña, kontuan crotzeko.
¿Nola etzayo zentzuz betetzen baña burua?
¿Zer du aiñ gitxi urte askokiñ jakiteko?
Gizaldi denak ikusi dute beti gaurkua,
¿Zer ote dauka illerikan ez elurtzeko?
¿Mundu au balitz bezela toki txit doatsua
Lore ederrez bere burua estaltzeko?

Bustin izanda, urre irudi nai duen orri,
¿Nola da andre eta gizonak siñistzea?
¿Arrosategi deitzen badio lartegi oni,
Baita kantatu bizitza data txit luzea?
Sei milla urtez baldin ezautu ezpadu ori,
Zorakeria beti izango da gaztea.

PREMÍAK ERAGIN

(*Nere adiskide On Jose Artola Jaunari*)

Pepe, guretzat premia oi da eragilia,
 Uste etziran erabakiak artutzeko,
 Umetandikan zana pobre ta errukarria.
 Aberastuta maiz oi dalako gora jaso;
 Duda gaberik asmoz dalako arrigarria,
 Gau eta egun iñoiz prest dago nekatzeko,
 Aurrerapenak ari diote gaur zor aundia,
 Beragatikan argitaratu diralako.

Baña, ala ere, gaiztoak baita oi ditu sortu,
 Kartzeletara beragatik da asko juan,
 Baita biguñdu argatikan da aski gogortu.
 Beartasuna utsik badakus inguruan,
 ¡Ai! zeinbat diran premian damuz ongi aitortu,
 Apaizarekin aitzena eldu dan orduan !

ZORIONEKO AFARIA

(*Nere adiskide Ramon Artola gazteari*)

Doatsua dan Juan Iñazio bart illuntzean
 Sorotik sollik kantuz zihoan etxeratzen,
 Non illargiak egiten zion lagun bidean,
 Erori gabe joan zedin ta baita zuzen.
 Bere andrea zebillelarik ezkaratzean,
 Atsegingarri zitzayen jana gertu jartzen,
 Poz-pozik bere seme-alaba bien artean,
 Irurak laster aita zutela itxedoten.

Noiz sentitzen dan eldua zala norbait etxera,
 Aitaren eztul bakantxoa zan atarian;
 «*Aita, aita da*» otsez umeak irtenda atera,
 Parrez irurak sartu ziraden sukaldían ;
 Talo ta esnez beste gaberik ezer gañera,
 Juanak prest zeukan zorioneko afaria an.

JESUS JAYO BARRIARI

Palma leortuen kerizpe sikuan
 Erromesa zelan dan atsedeten,
 Iturri leyarki bizi ta oztxuan
 Basauntza sarri da urez asetzen.
 Goizean goiz dabez uda agortsuan
 Loratxuak iñontz tantak edaten,
 Bide galdudunak gau illun itsuan
 Egunari deika dira egoten.
 Illunpe onetan, Jesustxo ederra,
 Izango zatxataz gaur Eguzkia;
 Izan zakidaz, bai, ene gidaria
 Izan ez nakizun lengoa bera ;
 Izan egidazu, Jauna, errukia,
 Izango natxatzu leyal aurrera.

GABON GABEKO MIRARIA

Aldospe batera aingeru pilluak
 Dakustaz zerutik urreratuten,
 Euren soñu eta kantu ain gozuak
 Entzula guztia dau zoratuten.
 Uda barria gaur dirudi neguak,
 Gaba bere dakust nik egunduten,
 Artzañak bildots ta esnedun kaikuak
 Artuta kobara dira elduten.
 Ikusgeyok nabe osoro poztuten,
 Beste pozgei bat dot, baña obea,
 Ama bat dontzela dala geldituten,
 Jayo egin jaku Jesus Umea;
 Jaungoiko bat gizon gaur da agertuten
 Izanik len gauza gorputz bagea.

BELEN'GO ESTALPE BATEAN AURKIETAN
DAN BATERI

¿Nun, zelan eta nor, negu-biotzean,
Eta zertarako ain toki txarrean,
Zakust, Amarik men ta samurrena,
¡ O! zu Erregiña aingeruena?
¿Zelan sartu zara korta ain zarrean
Aiz-edur, izotzak gaur lako gabean.
Egiten badabe gura dabena,
Leiturik odolik dan beroena?
Eta zu izanik mizkatxo azia,
Joakin ta Ana'ren Alaba guria,
Otzak baña ¿zelan illten etzaitu?...
¡ A ! kontuan jausi naz. bularra, Maria,
Sugiñak deutzula laba biurtu.
Zein, jayo danean, or dozun batu.

GURE AMA PEKATU BAGARIK SORTUARI

Loretan lora miragarrien, Ama, goizean
Zara, egunak oi dabenean bota loa,
Dirudizula intza edaten dagozanean
Argi ta garbi zu zareala lenengoa.

Izar danetan bere nagusia goi urdiñean
Zara, jaubetu oi jakunean gau artoa,
Da esatea, Erregiña bat euren artean,
Zarealako Eguzkiaren antzekoa.

Zara egin bat egin danetan paregabea,
Etzan zuretzat besterik egin bardingarri,
Betitik poztu zendualako zuk Egillea.

Beti ziñean bere begien zoragarri,
Alan bakarrik sortu ziñean, Ama gurea,
Keriza eta loi bat bagarik oso garbi.

MARIA'RI ZERURA IGOERAN

¿Nora zoakuz, Ama Maria, gu largaturik,
 Izar ederrez zeure burua apainduta?
 ¿Nora zoakuz zerutar baten antza arturik,
 Odei pillotxo eder batean jazarrita?
 ¿Nora zoakuz aingeru taldaz inguraturik,
 Izarrak baño askoz gorago goratuta?
 Zu baga be au, geratzen bada naibageturik,
 Bat geratuten danean legez ama ilta?
 Badakit, nora zoazan, Ama laztan maitea:
 Zoaz, goyetan obetoago bizilera,
 Zoaz dalako goyan Errege zure semea.
 Zoaz, beragaz zeu Erregiña izatera,
 Zergaitik utsik alboan daukan zure sillea,
 Errazoa da zoakozala gozautera.

JAUNGOIKO-GIZONDUAREN JAIOTZA

Ea, aingeruak, kantau goyetan zuek gloriak.
 Ea, artzaiñak, bildostxo bana bizkarretan
 Eta kaikuak arturik esnez bete betiak,
 Baita makillak lagungarritzat eskuetan;
 Erdue ujuju/ astegindurik baso-mendiak,
 Saltoz irago errekatxoak aide-aidetan,
 Dontzella batek argitaratu daben Semiak
 Gabean jarri gaituzalako eguzkitan.
 Eskintzariok emon Printzipe ain Altsuari,
 Lastotzan txiro billatu arren otzak kikil,
 Dakartsolako libertadea gaur gizonari,
 Luzbel'ek eukan nausitasuna eginda il;
 Zeñetarako bere Jaungoiko izateari,
 Itxi bagarik, jayo egin dan ume umil.

JESUKRISTO GURE JAUNAREN
ZERURATZEA

Gau ostean oi dau, igoaz gorago,
Febok gorrituten egun-aurrea;
Baña, beste batek larrosatuago,
Gaur zoragarritu dau goi aldea.
Garaitzala legez ; o bai, o ! zelango
Martxa jo deutesen aiñ alegerea !
Musika ohea emengoa baño
Zalako, eroan deust arimea.
Zeru-atarian: atek zabaldu,
Deitu dabenean gordetzalleak:
—Nor da? barrukoak egiñik itandu,
—Errege, erantzun deutse bestiak;
Buruak bertatik danak desestaldu,
Eta idigi deutsez ate guztiak.

MARIA GURE BITARTEKOARI

Esetsi begit korañeagaz eriotzeak,
Betort galtzera gerraka mundu os-osua,
Askatu begiz itxas sakonak esi ez meak,
Abiau bekit gar okadakaz lur barrua.

Betoz menditik erreka-zezen bitsez beteak,
Bolea legez bebil justuri oskartsua ;
Nasaitu begiz gaur infernuak sabel ta esteak,
Iruntsi nairik nire arima bildurtua.

Jeobak bota beidaz tximistak irakindurik,
Jesusek itxi biotz zauriaz idigia;
Baña zurea badago nire onez samurrik,
Eta zabalik, bigun zarean ; o Maria !
Naiz bidez egon Jauna nigaitik aserraturik,
Ausituko da bere su bero ain bizia.

V - - - - ELIZ KANTAK

*Egiten dabeela jira
Gau-egunak ikusi da;
Baña denpora joandakorik
¿Noz atzera etorri da?
Neure begiak, begira
Ezker eta eskubira,
Nire guraso izan ziranak
¿Egun onetan non dira?*

ZERU-LURREN EGILLEA JAUNGOIKOA

Dantzudanean gitarraren bat
Ederto dabena joten,
Eta alkarregaz bere kordelak
Okastan bardin soñutzen;
Naiz ez ikusi nok joten dabena
¿Lotsatuko naz esaten
Soñulari on argien batek
Dabela eskuztatuten?

Erlojutxo bat bere badakust
Gelditu bada doiala,
Burpil bakotxak urrengoari
Zintzo laguntzen deusala;
Eta orduak marketan bada
Utsik bagako leyala,
¿Erlojugilla on batek ez dot
Usteko egin ebala?

Untzi bat bere itxas-zelaitik
Baldin badogu ikusten,
Ekatx artean salbauta kaira
Garaitzaz zelan datorren;
Alako gauza uste bagea
Dakusguncan jazoten,
¿Pilloto on bat zala gidari
Bildurtuko naz azaltzen?

Dakusdanean eikidatzar bat
Oso ta guztiz ederra,
Erara ondo bere zatiak
Utsik iñon ez dabela;
Beian, gerrian, azkeneraño,
Modu berean doielara,
¿Zeñek ez dazau maisuren batek
.Moldauko ebala orrela?

Gitarra, erloju, ontzi, zeñ obran
 Premiña bada maisua,
 ¿Etzan bearko orren ederrik
 Egingo bazan mundua?
 ¿Etzan bearko obetoago
 Egingo bazan zerua?
 ¿Etzan bearko nai eta nai ez
 Norbaiten esku altsua?

¿Nun da bestelan soñualdi bat
 Berez egoki sortua?
 ¿Nun da berezko erlojurik ta
 Ontzirik berez nun dua?
 ¿Nun da berezko eikida onik?
 ¿Nun? nun ezer berezkua?
 Zeru ta lurrik etzan izango,
 Izan ez bazan Jainkua.

¡O MUNDUKO DENPOREA!

Ikusi neban bein bada
 Gabez lotan nengoala,
 Egaz agura guztizko zar bat
 Usoa legez joiala:
 Zer zan nik ez nekiala,
 Ilandu neutsan ¿nor zara?
 Erantzun eustan «beti joan ta
 Biurtuten enazana.»

Sustoz iratzarri nintzan,
 Zer bear ete zan izan,
 Agura arek esan eustana
 Biotzean sartu yatan;
 Zelan joan zeitekean,
 Urrinduaz beti egan,
 Geiago onuntz itzuli baga
 Ezin asmau izan neban.

Gauza guztiak jirea
 Eukala neukan ustea,
 Gaur Eguzkiak iges ein arren

Dauka biyar etortea;
 Amaitutean urtea,
 Barriro dator bestea:
 Mundua sortu zanik geyago
Au da betiko kalea.

¡ Esan ezkutapentsua!
 Agureak aitatua,
 Asmau ezinda gaba guztia
 Irago neban osua ;
 Zer zan ez biurtzekua
 Atera eziñik kontua,
 Neure buru au egunerako
 Jarri yatan zoratua.

Aztertu eta aztertu
 Ustez neban nik aurkitu,
 Etzan ikusi neban gauzea
 Ez gizon, ez ta aingeru.
 Ta gitxiago deabru;
 Orretan nago seguru,
 Gaiztoen antzik iñondik here
 Ez neutsalako asmadu.

Nozbait bururatu jatan
 Zelan guztizko zarra zan,
 Adan'ek *aña* urte beukala
 Ziertu daiket nik esan;
 Agaitik modu orretan
 Nai ta ez bear *ak izan*,
 Denporaren irudi bizi
 Gizon zar baten itxuran.

Egiten dabeela jira
 Gau-egunak ikusi da,
 Baña denpora joandakorik
 ¿Noz atzera etorri da?
 Neure begiak, begira
 Ezker eta eskubira,
 Nire guraso izan ziranak
 ¿Egun onetan non dira?

Joan bai, ta etorri ez,
 Askorentzat da uts legez,

Denporak iges egiñagaitik
 Damurik arlu baperez;
 Au etorriarren berez,
 Ezen geratu indarrez,
 Ezin irabazi bein galdu bazan
 Urтуagaitik negarrez.

¡O munduko denporea!
 Zure balio andia
 Bardinduteko ez dira gauza
 Es zidar, ezta urria.
 ¡Askoren maitegarria!
 ¡Enetzat bildurgarria!
 Zara zorion edo txarrera
 Caroazuzan zaldia.

GURE EROSLA EDO ERREDENTOREAREN JAYOTZA

(Zerutarren piestia)

Diamantezko atepak
 Zeruak dauz zabalketan,
 Bake ta garaitz banderaz
 Balkoiak orniduten;
 Eguzkizko ustaiz jantzi
 Jauregiak leyoetan,
 Alako klarin zoliak
 An dabez soñututen.

Eyorik tela me piñak
 Zeruko euntegietan
 Eskuadra egodunak
 Soñean dabez jazten;
 Areen zuritasunagaz
 Edurra da lotsaketan,
 Zerren zuri izatean
 Ez deutsan irabazten.

Jazintoakaz politu
 Ditue euren egoak,
 Amatiste, zafir eta

Esmeraldaz gañera;
Izar txikiz egin dabez
Girnalda eta aroak.
Urrezko txartesak jakez
Lepotik jausten beera.

Egindako koroiakaz
Jantzirik euren buruak,
Uleak astintzen yakez
Putz egiñik aizlak,
Ezpata biurtzen dabez
Zeruko argi sutsuak
Urrezko errañu zorrotz
Ingurura boteak.

Rubi eta topazioz
Zoru leun bitxituetan,
Leyarrez plazetatik
Doaz aurrera aurrera,
Eskuadra zerutarrak
Otslankai ots ez tietan,
Betiko ateetara
Aurkeztu egitera.

Oneek dagoz margarita
Eta urrez apaindurik,
Nun aurkitzen dan glorien
Iturburua Bera,
Norentzako ez dagoan
Iñon leku ezkuturik,
Ikusi ezingarririk,
Guretzat dan legera.

Bere aurrean egoak
Laster dabez apalketan,
Argiaren arpegia
Dabenean ikusten,
Zabalduten dituana
Gloriak goiko saletan,
Gaur diranak iñoz baño
Obeto erakusten.

Dirudie dagozala
Jantzirik danak izarrez,

Itxarondoko Umea
 Jayo izan danean,
 Dontzell Amaren altzoan
 Aurkitzen dana negarrez,
 Bizi dala atsegiñez
 Aitaren bularrean.

JESUSI JAIOTEAN

Kanarioaren boz gozoa baño
 Baneuka leunago nik berba-otsa,
 Edegiko neukez ezpanok bertatik,
 Agertzeko. Jauna, zuri gaur poza.

Fedeagaz ziur sortaldean dakust
 Egun barri baten goigorritxo,
 Gabagaz igesi badoa illuna,
 Eguzki orren da bildur lañoa.

Jaungoikoak orain firmau dau bakea
 Jayotera doian Izar barriaz,
 Lurrau alai pozez laster jarriko da,
 Beragaz dakarren argitasunaz.

Mendi ta zelayak udeak leortu
 Arren, oraiñ urak dabez ezkotu,
 Mesias dalako zeruko euria,
 Ak biotzok deuskuz eingo gozotu.

Jaungoiko gizondu danari soñuak.
 Urrezko lirakaz jo Aingeruak,
 Eregi gloria gizon ela andrak,
 Aberatsak eta pobre gaisuak.

Itxasoak periak, iturriak urak,
 Egunak argia, usaña lorak,
 Txoriak txioa, barrea arpegiak,
 Ta aizeak Jesusi emon laztanak.

PASIÑOKO EGUNAREN SENTIEREA

Gau ostekoa gorriska dator gaur sortaldean,
 Bere gañean dabilnaz lurrun odolduak,
 Laño motelak bere arpegi eder aurrean,

Dirudiela urre autsetan orbanduak;
 Kurutzeratu bear danari obediuaz
 Egun sentia, indarrez legez, dator nagi,
 Ez eukalako gogorik onek gaur jagiteko,
 Dakialako dongak zer daben erabagi.

Txingar geldotsu bat dirudisku ¡o! Eguzkiak.
 Oztaz lurrera errañuxorik dau botaten,
 Bere barruan ito gura dauz garrak guztiak,
 Zerren begirik beruntz itzuli nai ez daben;
 Al balei barriz ezaintasunez dana sasitu,
 Laster egingo gindukez oso irabiau.
 izate dana bana-banatu eta nasitu,
 Goya, be egin, gaba egun, ta eguna gau.

Odei boladak burrukan legez dabiltzaz pillak
 Loraz jantziak dirudiela leku unetan,
 Argiak jorik sortzen dauz mota aiñ biribillak.
 Bertako orban, natu, oreñen nabarretan:
 Estaldu nairik nekatzen dira egunizarra,
 Ikus ez daigun bere arpegi biztzalea,
 Eldu dalako elduteko dan egun bakarra,
 Noz gertauko dan gaiztakeria eskergea.

Egunak begi alegereak zabaldutean,
 Txoriak poza bastetan dabe erakusten,
 Gaur euren Jaun ta Jabeagaitik egotxopean,
 Lotsaz buruak gordetan dodaz nik ikusten;
 Len barritsuak baziran bere, tayu orretan
 Agertzen dabe euren barruko naibagea,
 Darakuskue isiltasun au ¡ai! goiz onetan!
 Dakuselako ilduraz euren Egillea.

Ur me garbitan arraña bada beti ibilten,
 Eguzkiaren izpi zorrotzak ikuturik,
 Zoro zororik dabela jolas asko egiten,
 Orain dirudi dala aurkitzen gaisoturik;
 Urtenik dira talda andiak ur-azalera,
 Jakite arren leorrez zer dan iragoten,
 Eta bizia eurai emona alan gaur Bera
 Ikusi teak, mingoztasun au deutse emoten.

Basa abereak nekez bai, nekez dagoz geldirik.
 Gurago leukee etorri arin gizartera,

Leza sakon ta kobetan dagoz orroi egiñik,
 Ausaz zerbaitek ez deutse isten urtetera;
 Ezin iruntsi dabe gizonen esker dongea,
 Guztioi ondo eginda deuskun Jaunarentzat,
 Ain da andia eurak deuskuen bengau gurea,
 Amorraturik erretan dagoz gizonentzat.

Baña badago ez dakusan bat gauzok gertetan
 Gizon gogor bat inbidiagaz itsuturik,
 Zeñek ez daben gauza barririk ezer sometan,
 Zentzun bageak dagozanean larriturik;
 Lo legez dago Eguzkiari jazoagaitik;
 Ez da esnatu izatearen gaurko gaitzaz,
 ¿Zer esan neike, zer baña gizon sor onegaitik?
 Arria baño dala arriago ¡ai Kaifas!

BARIKU SANTU GOIZERAKO GOMUTALDI BAT

¡Orra Jaungoiko, guztiz altsu ta itzalgarria!
 Jakiturian neurri bagako baita onegia,
 Gu salbetako gogo ta asmoa berak arturik,
 Gizon egiña Dontzella Ama Mariagandik.

¡Orra! Ikusi bere arpegi samur, biguna,
 Sotil, baketsu, gozo, otzan, lau ta eztiduna!
 ¡Orra, justoen, baita aingeruen zoratzallea,
 Ta pekatari damutuaren parkatzallea!

Suerte danak zuzenduteko giari izanik,
 ¡Orra! nun daukan gaur beretzako aukeraturik,
 Gertaldi onik baperez ta bai, dana dongea,
 Lauburu baten artu artean eriotzea.

Gaiztakeria guztiz oker bat gaur da jazoten.
 Mesede asko artu dabenak dabe zauritzen
 Burutik eta beatzeraño mesedegiña,
 Zein dan esker on eta alabantza guztien diña.

Nazareteko Jesusek ¿zer gatx ete dau egiñ?
 ¿Sekula iñor ez dan bestean kastigau dediñ?
 Bere oinkadak ¿etziran izan mesedetsuak?
 Bere aoko berba dan danak osasuntsuak?

Bestelan orra : ikusmen бага itu aurkitzen

Ziranak, zelan begi biakaz daben ikusten,
Gizon Jaungoiko onek egiñik mirari andia,
Dalako berau gauza guztien agintaria.

Dantzue gorrak; ta egozanak beti muturik,
Illak legetxe berba bagarik beti isilik,
Gaur diardue Jesusegaitik ondo esaten.
Here mirari arrigarriak iragarriten.

Azkenez illak bere jagirik obietatik,
Agertu ziran gizon artera berta bertatik,
Jesusen deira orrei bizia jake etorten,
Eriotzeak bildur ikaraz iges egiten.

Pobreak bere Ebangelioz gaur argiturik,
Neke artean bizi oi dira pozez beterik,
Biotzez pobre direanentzat Zerua dala,
Zergaitik daukan Jesus Jaungoiko onek esana.

Baita aberatsak zabaldu dabez pobre artean,
Eukezan diru ta ondasunak euren mendean,
Jesusi pobre jarraituagaz beian, munduan,
Gero beragaz bizitearren goyan, Zeruan.

Orain Judegu esker bageak ¿zelan asartzen
Zare orrelan ¡Il bedi Jesus! dedar egiten?
; Alan ordaindu uste dozue Gizon ain ona.
Mesede baño besterik egin ez deutzueña?

¡Begira bada! zelan dagoan ia amaitua,
Dana azotez urratu eta odol ustua,
Ukabilkadaz ain ezaindurik matralla biak,
Eta illunik eguzki ziran bere begiak.

Burua arantzaz ta gorputzean mantu bat zarra,
Kañabera bat gañera eskuan zetrotzat bada.
Burla ta barre egitearren deutsez ipiñi,
Zeru ta lurra egin zituan Jaungoiko oni.

Eta alanbere ¿etzare oraindik errukituten?
¿Etzare Jesus onegiagaz gaur samurtuten?
¿Etzare bildur bere odola eskatzen bada
Jausi dedilla zeuen ta umeen gañera dana?

¡O Erri gogor, madarikatu, legoetua!
Asetu arte edaik odol bat errubakua,
Baña ondotxo pagau bear dok pekatu ori,
Erre, kiskaldu, auts biurturik, bertan danori.

EGARRI NAZ

Lurra dago ikaraz, gatx egiñen bildurraz.
Kurutzeari josirik gaur Erru-ezduna,
Erri leigoetua odolez aseturik,
Izar-erria ¡ya osoro illuna.

Fariseo ta Eskribak. zuena da garaitza.
Egur lotsagarrian Jesus dago ilten,
Aitalenen ta Igarlak, kantau kantau gloriak,
Antxiñako eskintzak bete dira emen.

Kalbario-egian errubaga litera
Doianari uste dot jakola entzuten;
«Ilten naz zuekaitik. pekatua azpiturik.
Zuekaitik ilten naz, zuek maitetuten.»

Sortitza makurtzen da Jaubearen aurrean.
Negarrez gaurko gatxen damu ta atsekabaz.
Begiak jasoten dauz Jesusek miñen miñaz,
Borreruak entzuten deutse «Egarrri nas».

¿Egarriz aurkietan zara, ítxasogiña ?
;.Egarriz aurkietan, iturrigillea?
¿Egarriz zure atzak, odehyak urraturik,
Nai noz sortu oi badau euri ugaria?

¡O, Jaungoiko aundia! ezin nik aditu dot
Une artako zure miñen mintasuna,
Baña fedeak diñost egarriz egoala
Guganako daukazun ondonaitasuna.

Egarriz egoala esku oñak burdiñaz,
Egarriz Lauburuan amarrau artean,
Egarriz iru untzez, egarriz josi arte,
Egarriz jartearren gu libertadean.

Egarriz odolezko iturriak isurten,
Egarriz gu eurakaz garbitu gintezan,
Egarriz sugarrezko amodioz erretan,
Egarriz sartu nairik danok zeruetan.

Nekearen egarriz arintzeko gizona,
Gerrearen egarriz baketzeko bera,
Ilteko egarriaz betiko biztu dedin,
Il ez dedin egarriz pekatuz aurrera.

Egarriz, zariana gloriako argia,
Mundu illunpetsua dozuna argitzen;
Zeure eskuz zuzentzen dozuz osarteak ta
¿Egarriz zelan baña, zara aurkituten?

Loren lurrunetan nik dakust zure arnasa;
Egintzak zure aulki ikusten badodaz,
Txirringolan izarrak oinpeetan doatzuz ta
Gizona ¿zelan ez da samurtuten zugaz?

¿Beretzat etzeuduzan egin zeru zabalak?
¿Beragaitik etzara lurrera jatsiten?
¿Bere maitetasunak alan jarri etzaitu?
¿Bere maitez etzara gaur egarrituten?

Bere amodioak, bestek etzaitu, Jauna,
Beste gauzak etzaitu josi Kurutziaz,
Bera zeruratzeko daukazun egarriak,
Jauna, esau eragin deutzu «Egarri naz».

JESUSEN ERIOTZEA

Diamantezko errañu biziz inguraturik,
Eukala garbi, Febok barreka arpegia,
Palestiñako gañai tximista meiak sarturik
Ebalako ak bere bidean artu goya;
Une berean gizonak zerren Egilla altsua,
Kurutze baten euken billosik eregia.
Itxirik bertan zeru bat askoz obeagua,
Laugarrenera jasten da Migel gerraria.

Eta bertako zaldi indartsu galopalari
Urrezko bitsa erioela joazanai,
Tiraka burdi oñazturizko burpildunari,
Berak gelditu erazo eutsen laster danai;
Botarik zaldi aurrekoari ezker eskua,
Eskuman eukan ezpateagaz atzekoai
Bildurra sartu, eta bat baten Febo arrua
Geldituten da laguntza бага bertan deslai.

Mugarritzar bat legez burdia geratutean,
Ikaratu zan jazoten zanz Eguzkia,
Nok ikusirik nausiago bat bere aurrean,

Adi ipiñi eban bertatik belarria;
 Eta Migelek egiten dautsa min zoliagaz,
 Justuriaren aldean ots bat ain andia.
 Ezpan gorriak zabalduetan itanduagaz:
 «¿Zergaitik ez dok baltzez estaltzen arpegia?

«¿Zelan diarduk ¡o! kriatura prestu noblia,
 Ikusi arren eure Egillea billosturik,
 Kurutzean gaur josi dabenen gaiztakeria,
 Sentidu ez beu legez nai al dok irago ik?
 Gorde-ik gabagaz orren arpegi alegerea,
 Jarrik gizona bere biziko gorriturik,
 Argitu dedin itsu dagoan fede bagea,
 Ikustean i, Munduak lutoz estaldurik.»

Entzun orduko sermoe ori Errege-izarra,
 Abietan da errañu dank pillatuten,
 Illunprietan ito naiagaz mundu zantarra.
 Arpegi dana bereala dau ostenduten;
 Erroma legez Grezia bardiñ dago zurturik,
 Iñoz ez lako dauzau danean gertatuten,
 Ebreotarra dago zital ta gogor itsurik,
 Bere arre ta trenian dabela jarraituten.

¡O! Jaungoikoa, berariz zure esku andiak,
 Baldin ezpadauz begi itsuak argituten,
 Irago oi dabez illunprietan egun guztiak,
 Ez direala, judegu gisan, konturatzen,
 Eguna gautzen ikusiteak eguerdian,
 Ezpadauz onek ezaupidera erakarten,
 ¿Zer izango da lo eta ames zoro artean
 Jausirik beko surtara danaz iratzarten?

Badator Migel lurrera egan aserratua,
 Serafiñezko soldadu pillo galantagaz.
 Eta asten da dardar ikaraz Luzbel gaiztua,
 Kalbarioan aurkitzen zana lagunakaz;
 Berealaxe artzen dau baña inguraturik,
 Gallur Santua Migelek bere zaintzallakaz,
 Nun eldu arte ordua, dagoz isil muturik,
 Geldi ezpata, txuso, lantza ta banderakaz.

Dakuselako euren Errege gloriakua,
 Jabetu бага oraindik garaitz guztiakaz,
 Esku ta oñak iturriturik odol ustua,
 Andik isuri egin jakozan errekekaz;
 Zeñak igarлак esana zeatz zintzo egiña,
 Nai daben itxi, oraindik neke barriakaz,
 Sufritzen dago, ainbestean ze, uren premiña,
 Ur-giña Bera izanik, diño: «Egarri naz».

Ozpintzan busti egin da laster esponjeagaz,
 Saldadu batek ezotu eutsan bere agua ;
 Penau arturik, baki Jesusek, zelan beragaz,
 Bere egintza itxiten daben azkendua ;
 Orduan bere Aitaganuntza zuzentzen dala,
 Zabaldutean ago ozpiñaz samindua,
 Adietara emoten deusku osotu zala,
 Bere pasiño dana, esanaz: «Amaitu da».

Baña oraindik Kurutzan daukan pisuagaitik,
 Artega dago jaritxi arte atsedena,
 Lurra oraindik jazo bear dan gauzeagaitik,
 Aurkietan da iñoz egon dan estuena ;
 Onek ez eze, baita olatu amorratuak,
 Ilxasoetan dauke penarik andiena,
 Pozu bateko urak legetxe geldi lotuak,
 Zain dagoz gertau arte gauzarik nausiena.

Gañera aize burrunlariak dagoz kobetan,
 Izuz gordeta ezinda eragin orri bati,
 Kanpo guztiak arnasa бага arrabietan,
 Iya itoan, iya galduan errukarri;
 Sua dakusgu berorik бага izotz antzean,
 Eta eguzki pozgarri zana negargarri,
 Jaungoiko gizon egiña ilten doakunian,
 Berak lenago ilgo jakula gaur dirudi.

Baña guztien arrigarri da oraingoagaz,
 Ikusitea **beti** bereaz urten dana,
 Eriotzea urreratzen da larri ikaraz,
 Baimena umil eskatutera Jesus'gana ;
 Emon artean eskubidea geyago zanak,

Ez da azartzen egiten berak daukan lana,
Nun bizitza ta eriotzaren Nagusi danak,
Agintzen deutsa egin daiala nai ebana.

Baimen onegaz azkortu eta da abietan,
Jesusen kontra korañeagaz esetsiten,
Osterantzean etzan asiko a gaur ezetan.
Jaungoiko batek a ebalako bildurtuten;
Augaitik deusku Jesusek bere borondatea,
Dala ilteko, azkenez emen erakusten,
Eta ilten da, ots egiñagaz: «Aita neurea,
Nire arima zure eskuetan dot ipinten.»

¿Justuriaren orroi, marru ta urruma andiak.
Belarrietan ezpadeuskue on egiten,
Oñaztuaren gar gorri miñ ta biziegiak,
Nai eta nai ez begiak itxi eragiten;
Baña, oñaztu argi, ta trumoi durundutsua,
Sentitzen itxi baño lenago bada jasten,
Tximistak ez dau uste bagako tantai sendua,
Sarri askotan goitik beraño erdibitzen?

¿Zer da trumoia baña, Jesus'en bozaz parean,
¿Noz oñaztuak isten beartu dau begiak?
¿Zer da tximista bizitasunez baldin atzean
Ipiñi badau Berak ekarren arimiak?
¿Arboletako orriak legez demonioak,
Dardar beukazan Jesusen itz bat entzuteak,
¿Zer gertauko zan Arima milla eguzkizkoak
Errañupean arrapetean gaur guztiak?

Bilinbolaka mendi gañetik Luzbel maltsiña
Eta lagunak amildu ziran larri danak,
Ondoren Migel eta bereak egiñik kiña.
Lezara bota artean urten zireanak ;
Nun txilio ta ayena artean zirean jausi,
Botiaz birao eta arrenik gaiztoenak,
Atxak jo eta buruak lertu, adarrak ausi,
Eta arrabioz eiñaz ulurik tristienak.

Beste aingeru batzuk zabaldu barriz zirean,
Sentimenturik ez euken gauzak negar egin
Egien euren Egilla altsua ilten zanean,

Zentzun bagetan bere agertu miña zedin;
 Batek Tenpluko kortiñea dau erdibituten,
 Iñok ikustea bera ez ebala, baña arin,
 Judegu lege zarra zergaitik dan amaituten,
 Eta Jesusen barria orain bizi dedin.

Sentimentua ez dauka gitxi bere munduak
 Agertzen daben Iokatasun ta ikareak,
 Darabillala alan besteren baten eskuak
 Ezagutu lei zentzun gitxiko personeak;
 Itxas zezendu aserratuak igoten deusku,
 Beian itxirik orain arteko señaliak,
 Norbaitek bultza deusala egiten garbi dirausku,
 Iruntsi gura litukeala goi ta beiak.

Koba fezatsu sakonetatik dabez azkatzen.
 Legoiak baño sutuagorik aize txarrak,
 Muru torre ta mendiak bera dabez botatzen,
 Alkarren kontra direalako asi danak;
 Batak bestea jo cta dabiltz oraiñ ausiten,
 Iñoz apurlzen erraz etziran atx zail otzak;
 Aínbesteraño damua deutse artu eragiten,
 Euren Jaungoiko gizonduaren eriotzak.

JESUS GURE SALBATZALLE

(Lauburuan untzez josiari)

/ure aurrean mundu zabala,
 Ez dot usterik gaur kantetako uts aña dala,
 Ez dot asmorik triste nagoan egun onetan,
 Iragarteko zareala Jaun goi zeruetan;
 Seme Berboa, bazara bere sortu bagea.
 Augaitik ez dot eregiteko artu lirea:
 Eta ain gitxi daukat gogoa,
 Alabetako, arako garaitz bein batekoa,
 Noz eban nausi eta Jaungoiko zala pentsetan,
 Luzbel arroak zeru danetan,
 Tximista eta oñaztarrika zuk bereala.
 Su-gar artera betiko bota zenduala.

Ez dot kantau nai, ene Jaubea,
 Israeleri emoteko zuk zeure legea,
 Odei artean justuri utsez guztiz itzala,
 Tronpeta soñu zorrotz artean asi ziñala.
 Ez dot kantauko orain Faraon lotsabagea,
 Ta bere indar armada andi ain eskergea,
 Zuk zenduala ondatu dana,
 Erakutsirik zeure besoko al ta indarra,
 Aizeak keia ezereztuten daben antzera,
 Beingo batean ur ondarrera,
 Itxaso zati biai tope ta trilla eraginda,
 Zelan bertantxe itxi zenduzan ito eginda.

Gaur ez dot bere pentsamentua,
 Kantetako auts dozula egingo noz bait mundua,
 Eta irunsi gu oi gaituan Eriotzea,
 Zuk beartuko dozula jarten iñor bagea,
 Zergaitik zure arnasea dan nun nai elduko,
 Eta il ziran gizon guztiak dira biztuko.
 Ain gitxi bere nai dot aitatu,
 Eingo jatzula juizioan ona ikaratu,
 Ezta zabaldu beti iraunak bere agoa
 Egindakoan dabela edango on zein gaiztoa,
 Ta zuk emongo deutsezu batzui betiko sua,
 Eta besteai amaibako zero dontsua.

Jauna, jauna, gaur kantau dot gura.
 Poztu dedilla goyan zerua, ta beian lurra,
 Lauburu baten zu bitartean or zagozala,
 Zeru ta lurra adiskidetu nai dozuzala.
 Kantauko dot gaur libre gizona dala zugaitik,
 Infernuaren buru danaren loturetatik,
 Noren bandera su lezeetan,
 Zure bandera ikusiagaz dan bildurketan;
 Zeure maitea ateratera ara jatsirik,
 Gaurko garaitza irabazirik,
 Sugarretako agintaria erneguz dago,
 Zerren lurrean agindu ezin leian geyago.

Sortaldetik ta sartalderaño,
 Milla aingeruen ego gañetan. Jauna, zu baño
 Ez dabil iñor, zerren goya dan zure Erreñua,

Eta gaur barriz erosi dozu baila mundua;
 ¡0! gure Jaube, Erosia ela Jaungoiko andia!
 Ez da bakarrik orain Israel zure erria,
 Gu bere zure semeak gara.
 Guretzat bere zure odola emona zara.
 Eta aingeru antzera garbi gaituzu jarri.
 Ondra au deusku/u zuk bai ekarri,
 Lauburu baten zeure bizitza eskiniagaz,
 Zeruko ateaq zabaldu dozuz. Jesus, beragaz.

¡O Lauburua! zugatzik noblena,
 Orri, lora eta frutu gozotan,
 Basoak emon deuskuen onena,
 Zerren zuk daukazun iru untzetan;
 Danok erosi orain gaituena,
 Zugana josirik dakust penetan;
 Egurrik gorri eta ederrena,
 Gaur zaitut umil nik adoretsu.

Kantau, gizonak, txaloka eregi,
 Gerrarik dontsuen dala gaurkoa,
 Lauburu dala nai nok esan begi,
 Garaitz banderetan lenengokoa;
 Antxe bada Josus, egin da esegi,
 Garaitutearren gaur infernua:
 Ardura бага, nai nok esan legi
 Zabaldu deuskula beraz zerua.

Gure Errege, Adanen erruaz,
 Abe baten da gaur illik amaitu;
 Ak zugatz baten txarra zan frutuaz
 Eban guretzako baten erratu,
 Beste zugatz bat onek esleiduaz,
 Orduko okerra deusku arteztu;
 Erru bagea zauri zaurituaz,
 Gure zauri danak dira osatu.

Zugatz zardena, egizuz tolestu,
 Besook egizuz beruntz beratu,
 Errai gogorrok orain gogor-eztu,
 Ainbeste ez daizun Jesus alatu;
 Bera jarri da gure ordez prestu,

Zorrik izan ezta, zordundu jaku,
 Libre ipiñi, gengozanok estu,
 Zugaz ¡o Lauburu! gaitu azkatu.

JESUS GURE SALBAGILLEA

Bedeinkatua Jaungoiko Jesus, izan dedilla,
 Bedeinkatua, benetan zure pasiñoa;
 Bedeinkatua, orren neketsu jatzun aldape,
 Darakuskuna guztioi bide zerukoa.

Ezkutapenen ezkutapena, ¿zelan leiteke
 Azkatutea gizona menpetasunetik,
 Libanok emon egingo eban zugatz bategaz,
 Gelditzen zala libre gizona illunpetik?

¡Zenbat zor deut/un, Jesus maitea, zuri gizonak!
 ¡Zenbat bake ta zelako poza naibagetan!
 ¡Zelan direan gure arimak loibagetuten,
 Zuk isuriko odol garbizko erreketan!

¿Biotzik gogor arrizkoenak bere iraun lei,
 Gaur urtu baga bere begiak negarrakaz?
 Atxak ausiten miñez ikusi ezkerokoan,
 Ez da asiko park-eske zuri dedarrakaz?

Eta ¿zelan ez egun onetan baldin ikusten
 Zedron-Jordanak biak baditu oso triste;
 Karmelo-mendik azten dituan lora politik
 Edertasunik erakutsi nai ezpadabe?

Eta ¿zelan ez gaur Justiziak gorde ezpata
 Badau, ta erallak puñala bota errekaraz;
 Eguerdia geratu bada illun illunik,
 Dirudiela bene benetan oso gaba?

Eta azkenez ¿zelan Eleiza-ama badakus
 Zotinka, mantu lutozkoagaz estaldurik;
 Iñoz ez legez bere semeak ikusten badauz,
 Begiak itxi eta buruak makurtutik?

Errukia ta biguntasuna eske da gotzu,
 Jauna, umilik zure aurrean kristiñaua;
 Erruki eta biguntasunez biurtu egizu,
 Zuk ekarriko lege santura bai, mundua.

Bedeinkatuak, Jesus maitea, zure nekeak,
 Amodiozko zure legean gaizuz bata;
 Liburu eta karutxo batek egin begie,
 Lurra guztia zuzendu eta zeruratu.

Kurutzea ta liburu bat bai, jakuz pozgarri,
 Gizon artezak arindu daizan neke miñak;
 Eurakaz zuri Golgotaraño jarraitu eta
 Gero zeruan gozauko dita atsegiñak.

JESUKRISTO GURE JAUNAREN BIZTUEREA

Al izatea illak biztzeko euki ebana,
 Israeleko Santua zana,
 Aurkietan zan arlosapean obiraturik,
 Bere bizitza, errurik ez da, iñok kendurik:
 Agaitik lurra laño artean egoan miñez,
 Negar zizpuruz eta zotiñez,
 Ta mendiaren txuntxur atzean,
 ¡ Ai! eguzkia gorde egin zan damu artean!

Eriotzea bere koraña gorrituagaz,
 Bandera gisan goratuagaz,
 Jiran ebillan isi isilik obi ondoan,
 Gura ebana jadtixi eta egindakoan;
 Zeñek jayoa daroian dana,
 Mundutik burdin zorrotz aregaz berarengana:
 Adauek zelan eban erratu,
 Gizon guztiai oi deutse eragiñ onek pagatu.

Baña Jeoba argi utsa dan eguzkitsuak,
 Mugarik baga errañutsuak,
 Aulkia daukan Arek goi goyan danen gañean,
 Mundua daukan Arek atz bigaz aide aidean;
 Izarrai nundik egin bidea,
 Deutsenak markau; gañera emon neurri legea,
 [tzaltasunaz diño berbetan,
 Nori entzuten jakon bertatik osarteetan:

((;Ausaz Luzbelek gaur ete deusku goya artuko
 Ta erri eroak desagertuko,
 Erru bagea danaren izen gain gañekoa,

Zeru zabalak adarau ela ondrautakoa?
 Ez, ez, alperrik da gaur jasua,
 Guztiz altsua dan besoaren kontra infernas,
 Onek gizona dau azkatuko,
 Nik zitalaren kontra garaitza dot kantatuko.»

Ez dan izarrek usterik baga agertutean,
 Arratz itsu ta gau illunean,
 Argitaratu zerua upa gisan jarria,
 Zein da Jesusen arimak jarri eban obia;
 Abran lekutik inguratuta,
 Aita lenenen arimak bere lagun artuta,
 Munduratu zan gorputzagana,
 Eriotzea azpiraturik eitera laga.

Bere argiaz lurpeko utsuna dau zerututen,
 Gorputz etzana laster biztuten,
 Eguzkiaren errañuz josten dala guztia,
 Arpegi zambroz eta eratziz ezaiñ jarria,
 Ta zutiturik oñen ganera,
 «Garaitu neban» ots egiten dau; ¡ze itz ederra!
 Zeñek itxaso arroa legez,
 Mundua bere ikaraturik ipiñi eban.

«Garaitu neban» betirauneko goiko ateetan
 Gizona sartu leike euretan,
 Zerren Luzbelek ezin lefikien asmo dongakaz,
 Gaurdaño legez gura dabenik eiñ gizonakas;
 Eragotzirik sartzen zeruan,
 Engañuz artu eta loturik sare barruan;
 Baña sareok jakoz urratu,
 Eta gizonak zerura libre daike egatu.

«Poztu zaitere, gizon ilkorrak, negarrok kendu,
 Egun barria jatzue eldu,
 Zeruak emon deutzue on bat neurri bagea,
 Zein dan zuentzat ori mesede ezin obea;
 Edengo lurrak ezin eukean
 Emon, ta alperrik zuen asabak neke artean
 Jardungo eben, ori topetan:
 Goikoak emon ezian emen sortuko etzan.

«Jauna, zuk jurau zenduan eta zeure besua.
 Izan zan zintzo baita agertua,

Irabazi dau zuk emoniko ezpata altsuak,
 Zuk eustazuzan jarri oinpean erreñu oiua;
 Nire izena *jenterik*, jente,
 Mundu guztian. gloria artean, zabaldu beite,
 Eta Tartaro txit sakonean
 Ondatu bedi, ango bandera illunpe artean.

Jausi zan jausi Salen beera ta. Erroma *urroa*»,
 Nun dok aidetan zabaltzekoa?
 Erakusteko aizetan zure nausitasuna?
 Lauburuk jeutsak Kapitoliori artu gallura,
 Pedrok jori jok antxe betiko;
 Errelejiño nik ekarria an dok biziko;
 Zelaitu dituk lurrean danak,
 Errakuntzari eregitako lengo attarak-

Zuk tramoyaren semea, egizu otsa munduan;
 Erri iberotarra beinguan,
 Zeurorren zelo isiotuan da gaur biztuten,
 Fededua beti izango dala dau aginduten:
 Eta Esperiak beban garaitu,
 Kurutzeagaz errakontzea eban amaitu:
 Ka. dontzella jaungoikozkua,
 Ituzlarri Ixarra ausi dalako egin kantuak.»

Esan eban ta eriotzea au entzutean,
 Desagertu zan txilio artean,
 karatu zan sulezatarren bizitokia,
 Vngo bildurra zalako andi eta larria;
 argoi ballzetik Luzbel arrua,
 austen da beera, puskatuagaz bere zetrua,
 bizi izateko lotsaripean,
 erra galduta beti betiko kalea arieen.

GURE JAUNARI BERE BIZTUERAN

Jesukristo'ri emon dayogun ondra guztia.
 Izar-erriak agertu begi bere poza;
 Txoriak bizkor kantuz asirik alegeretu
 Deuskuelako iñoz ez legez gaurko goiza ;
 Baita ausitu dau itxasuak arrabioa,

Bigundu bere zarata eta orroi-otsa,
Zerren Jesus'ek erakutsirik Jaungoiko dala.
Biztzean daben azpian sartu Eriotza.
Galdu dau oso Txerrenek orain bere gerrea,
Irabazi da aren kontrako garaipena,
Beterik dagoz Profetak aurrez iragarriak,
Neurri bagako gloria da gaur Jesus'ena.

LOIRIK BAGA SORTU ZAN MARIA

Txori batek bein kontu au kantuz kontau eustan,
Zer lorategi baten antxiña gertatu zan,
Ta txori arek zelan onaren antza eukan,
Siñistu neutsan esan eustana bertsoetan.

«Nazareteko lorategia moteldurik
Aurkitzen zan da, lorak zimeltzen abiaurik;
Edertasuna eukielako maluskaurik,
Etzan aurkitzen euren artean poztasunik.

Au zan andia, baña lora bat Zerutarra
Neguan sortu an egiten da uste baga;
Bera usaiñez, bera kolorez zan bakarra.
Iru mueta usain beragan eukazana.

Oi legez lorak goxean ziran iratzarri,
Baita buruak eguzkiagaz goruntz jagi,
Eta begiak ebezanean zabal jarri,
Laster zuzendu eutsezan sortu barriari.

Bera zan bada moduren baten larrosea,
Lirio zuri ta bioleta urnildea ;
Bera zan lora iñoz ikusi ein bagea,
Bat izan eta ainbeste loren itxurea.»

Nik esan neutsan orduan: «Txori kantaria.
Esan eidazu baña benetun gaur egia :
¿Zelan deitzen zan alako lora zurgarria?»
Diñost: «Loi бага sortu ta jayo zan Maria.»

MARIA PEKATU BAGARIK SORTÜARI

Arrigarrizko edertasundun Andra andiak,
 Sara, Judit ta Rakel eta zu bere, Diña;
 Benus da Palas ela Pandora zoragarria,
 Zein ederrago gnr daikezue alegiña;
 Zein ederrena zaren zuekan ikusi daigun,
 Zeñek dozuen galantasunez artzen gaiña;
 Baña jakin bei zuen artean galanten danak,
 Beste bat dala aren artean gaur bikaiña.

Ausaz bazare þzurren gisan errañutsuak,
 Beste au jaku gitxíenetik Iratargi,
 Eta bazare Iratargiaz benturaz bardin,
 Gnr sortu jakun neskatille au da Eguzki;
 Enparau Andra guztiak bnño baldin bazare
 Galantasunez mundu onetan ikusgarri,
 Beste au jaku gizon ta andra, aingeru eta
 Bere Egilla danaren bere zoragarri.

Gizeldi danak baño lenago berau egoan,
 Jaungoikoaren gogamenean ikusirik;
 izango zala lenendaria egin danetan,
 Bera añako miragarri dan bat bagarik;
 Lur, itxasoak, mendi-errekak egiterako,
 Aurkietan zan Jauna beragaz itsuturik.
 Danak guztiak baño lenago zergaitik laztan
 Eban Dontzella ain ederra dan au bakarrik.

Ain da galanta, ain da ederra, dontzella ori,
 Dírudiala Kadesen azi dan palmea :
 Bere mosuak begitanduten deusku biziro,
 Larrosa eta jazmintegiko baratzea;
 Bere begiak egun sentiko izarrak dira,
 Karminezkoak ezpanak, bata zein bestea;
 Jme orregan garbi dakusgu. Jaungoiko batek
 Bota dabela bere eskuaz arrayea.

Bera dalako utsik bagea gauza danetan,
 Garbi ta argi, illuntasunik iñon bagea:
 lerak gizondu nai eban gorputz-aragizkoa,
 Garbia izan bear zan nai ta nai ez bada,
 tan bear zan iturri urdun berarizkoa,

Bere bizian loirik ikusi ez ebana ;
 Izango bazan bertako ura Jaungoiko oso
 Garbiak eta guztizko Santuak edana.

¿Zelan ezaban bada egingo orban bagarik
 Bere Amatzat izango zana bakarrik duin?

¿Zelan ezaban beste danetan baño geyago,
 Begiratuko akatz-bagea izan zedin?

Bestela ¿zelan garbitasuna berbera zanak,
 Soñeko loiaz gurako eban jantzi egin?

jaungoiko batek ori egingo ebala uste

Dabenak, dauka fede txarra ta burua arin.

Eldu zan bada, eldu zan nozbait, nai zan eguna,

Jaungoiko baten Ama duin zana sortuteko;

Eldu zan bada, bein bere gertau etzan gauza bat

Gizonarentzat zorionean jazoteko;

Eldu zan bada, errua cdo grazia goyan,

Burruka garratz baten ostean ikusteko.

¡O! Ze garaitza bana graziak jaritsi eban,

Arerioa azpiratuta itxiteko !

Orrexegaitik garailariak bandera eban

Inkau Dabiten Gazteluaren gallurrean;

Ezebalako sugeak topau sartulekurik,

Alako Torre galanta sortu izatean;

Zeñek eukazan jagola zintzo arduratsuak,

Aurrez jarrita bere inguru dan danean,

Agaitik ezin arterik topau al izan eban,

Barruratzeko Paradisura zan antzean.

Mirari guztiz arrigarri bat bene-benetan,

Une atan da egiaztu ta gertatua;

Mirarigiña barriz bakigu, nai dabenean,

Izan oi dala gure Jaun eta Jaungoikoa;

Dakialako bide eder bat laster sortuten,

Alde bitara atzeraturik itsasoa ;

Dakialako amatau bapa suari kentzen,

Erre egiteko berez dakarren amorrua.

Oneik ta asko geyago egin dituan Aitak,

Ezin eikean loituten itxi alabea;

Beste ainbeste al daben Seme arduratsuak

Ezta ezaintzen jarein Ama on, ain maitea;

Bataz legetxe besteaz bardin dan Espiritu
Santuak nastzen ain gitxi largau emaztea;
Irutasanak ezin eikean zabalik itxi
Txerren sartzeko, beretzako zan Eleizea.

Bere inguru eta urretik bere kanpora
Biyoa loa, baita beraren kerizea;
Bera bai, bera, infernuraño Luzbel guzurti
Ainbeste gatxen eta okerren ekarlea;
Armada andi itzalgari bat norentzako dan,
Oraiñ sortu dan ume graziaz txit betea;
Zeñek oñagaz ari burua triskau egion,
Sortu da sortu itxaroten zan Dontzellea.

Au alan dala zintzoro danok sinizten dogu,
Pio andiak fedetzat euskun iragarri;
Beretzat daukan irakastegi gorenengotik,
Adierazo eutsan garbiro munduari;
¡Gloria! bada emon dayogun al dan bestean!
¡Garaitzak kantau, gaur sorlu jakun umeari!
Ez eutsalako erruak iñon bere ikutu,
Sortu zanean zorioneko Mariari.

MARIA ORBAN BAGARIK SORTUARI

Jaungoikoaren eskuetako bear ta lanak
Alabagarri dudarik бага dira dandanak,
Alabagarri izar, Illargi eta Eguzkia,
Alabagarri arraiñ, egazti eta pistiak,
Alabagarri bedar, lora ta zugatz guztiak,
Alabagarri ura, aizea, lur eta sua.
Alabagarri illuna, argia, baita Zerua.
Alabagarri itxaso, ibai eta iturriak
Alabagarri iñontz, lei, zurda eta euriak;
Alabagarri lororru edo Paradisua,
Alabagarri lenengokuau Adan don»*ua.
Alabagarri lenengokuan emazte Eba,
Alabagarri sayetsaz Jaunak egin eutsana;
Alabagarri zeruetako espirituak,
Alabagarri euren kantu ta euren soñuak;

Alabagarri baña obe bat egun onetan,
 Alabagarri bikain bat dogu zeru-lurretan;
 Alabagarri, besteak danok bere oiñetan
 Jarrita, noa berau bakarrik gaur alabelan.

Alaban gura zindukedaz ¡o Jaunaren Ama!
 Alabau gura emonda al dodan gloria dana,
 Espirituan baña igorik izarretara,
 Zeintzukaz dozun txit apaindurik zuk arpegia,
 Oiñok Illargiz, galanto Eguzkiz soña jantzia,
 Aingeru ederrez barriz inguru dana josia.
 ¡ Nok leukekean raingain dontzellak duin eztitsua !
 ¡ Ai, nik bancuka martiri baten biotz sutua
 Alabetako Erregiña bat erregiñena,
 Agintari bat, baña agintari zerudurrena,
 Emakume bat, baña emakume dan ederrena.
 Alabetako baña au ondo, ni ¿zer naz bada?
 ¿Zer da ni lako gizon gizaxo illun argala,
 Baldin naikoa, mundua ez eze, zerua ezpada?
 ¿Zelan leitekez nire ezpanok izan guraña?
 ¿Zelan leiteke izan naikoa nire mingaña?
 ¿Eta nun daukat biotza sutan bear dan aiña?
 ¡O Ama! bada egidazu gaur dontzellen boza;
 Mingañau leundu, ezpanok meetu, sutu biotza,
 Alabau zaizan, agertuagaz beraren poza.

Agur, dirautzu beronek, ume zoragarria,
 Agur, mingañak, Birjiña eder danen nausia,
 Agur, ezpanok, Egillearen egin aundia,
 Agur, begiok, begi guztien ikusgarria,
 Agur, sorreran Rakelak baño ederragua,
 Agur, sorreran Susanak baño garbiagua,
 Agur, sorreran Judik guztien Judit sendua,
 Ikaraz dardar gaur dozulako jarri infernua.
 Agur, sorreran gure Udabarri liriotsua,
 Agur, sorreran gure Egun senti lañobakua,
 Agur, larrosa, klabeliña ta jazmín gozua,
 Lora guztiak baño zu zara loriagua.
 Sorreran zara Tortola zuri guri guria ;

Sorreran dozu urnieta bat, baña ain eztia !
 Sorreran zara doe danakaz jantzi jantzia,
 Sorreran Aita Betikoaren dana grazia;
 Sorreran zara berariz sortu Fenix liraña,
 Sorreran zara berariz sortu zarean aiña,
 Sorreran zara berariz sortu ain garbi baña.
 Izan zaitean Berboarentzat Ama bikaña.
 Sorreran zara Uso bat, baña... alako usoa!
 Ederra baña, askoz oraindik ederragoa,
 Zure aotik ateraten dan zotin gozoa.
 Da Espiritu Santuarentzat txit gogokoa.
 Sortu baño len ziñan tristen poztutzallea,
 Sorreran barriz Jaungoiko baten maite maitea,
 Sorreran izan zarcalako orban bagea,
 Sorreran bertan oinpetu dozu Txerren dongea.
 Sorreran bertan trískau deutzazu burua dana.
 Lau milla urtean guregan beti arro eukana,
 Guzurras galdu ebalako bein danoen Ama.

Eta, azkenez, sorreran zara alabantzea,
 Igarla danen eta Asaben esperantzea.
 Martiri eta Apostoluen ondra betea,
 Autorgilla ta dontzella santeen Irakaslea.
 ¿Nun topau leike beste bat, zu duin onik, María?
 ¿Nun topau leike beste ume bat bardingarria?
 Begi hi onek begira daien mundu guztira,
 Igoko neuke igo al balei gaur Eguzkira.
 Lurra ez eze aratu daidan izar-lekua,
 Ia an ete dan izakiren bat orren dontsua;
 Baña badakit azlertuarren Zeru osua,
 Utsik gorago dala aurkitzen Jaungoiko Altsua,
 Utsik gorago dala aurkitzen Egilla aundia
 Zagozalako aingeru koruz gora jarria;
 Jaunaz ostan onetan dozu beste guztia,
 Abraan. Isaak ta Jakoberen ume zoragarria.

MARIARI BERE SORRERA GARBIKO
EGUNEAN

Profeta Santu Erregearen Torre sendoa.
Txit Altsuaren Jauregi eder nagusia,
¡O! Espiritu Santu Jaunaren jarri- lekua.
Jaungoiko baten semearentzat Amageia;
Itanduko dot ¿nor izan da bat izakietan
Zuk egin dozun gauzarik iñoz ein dabena?
¿Iñok triskau dau zuk baño bestek bere oñagaz
Buru gutzizko arro Luzifer baltzarca?

Zeruetako aingeru talda zoragarriak.
Jaungoikoaren dosel ondoan zagozanak,
Erdue arin, jatsi zaitetze danok lurrera,
Baturik ego edur antzeko ta zabalak,
Sortu dalako neskatiilla bat gan-gañekoa,
Ikutu бага jatorriz dogun errutzarrak,
Aragizkoa izanagaitik zuen aldean,
Garbiago ein daualako Goiko Jaunak.

Dontzella eder lirio garbi, sekula loitu
Bageak, zeuen biotz zuri ta izen ona,
Osotasuna galtzea baño askoz lenago,
Nai zenduenak galdu osasun ta odola,
Erdue eta auspez ipiñi zeuen buruak;
Zuen aldean ederrago bat ara orra,
Kantau berorri gloria danak, bada birjiñen
Birjiña eta Erregin andi berori da.

Baita erdue, Aita lenen ta Igarlak bere,
Israeltarren zuzentzalle ta giariak,
Zuen amabi tribuetako lanak itxirik,
Agur eder bat artu daizuen gaur Mariak;
Erri esleidu zuenak entzun baldin bebazan
Zuen kontseju, erabagi ta esaldiak,
Sortu dan neskatx onen semeak dituelako
Beteko zuen itxaropen ta gurariak.

Martiri ela konfessore ta Penitenteak,
Gloria artean bizi zarenak goi Zeruan,
Zuen egiñen neurrian danok dituzuela,
Gutzizko palma eder on baua gaur eskuan,

Agertu zeuen onerctsi Ia barruko poza,
 Zuen pozgarri dan oni sortu dan orduan,
 Bada beroni iruditzea gura zenduan,
 Danok guztiok albait ondoen len munduan.

Adan lenengo gurasoaren ondore dana,
 Zeure erritik gaur zagozana aterea,
 Erdu botarik zotin zizpiru eta negarrok,
 Adoretara oraintxe sortu dan Umea:
 Adorau ondo umiltasunez Sein eder ori;
 Zein izango dan zure guraso zaintzallea,
 Ondra, Gloria, Bitarteko bat aiñ Altsua ta
 Ama bat ona, zuri artzeko ardurea.

Erdue, bada, prudente cdo arima zurrak,
 Eldu zaiteze kastidadedun ta garbiak,
 Etorri arin jakintsu eta andikiak;
 Baita aberats eukitsu eta ikasidunak;
 Erdue baita agintaritzta daukazuenak.
 Erdue Errege tronuetara eregiak,
 Erdue danok eskiñitera Ume orreri,
 Zeuen duintasun eta beste on eregiak.

Zuk bere ondrau, Libano mendi entzutetsua.
 Zedro, aloe, iturri eta errekakaz;
 Ondrau egizu baita Karmelo mendi Santua,
 Zeure lora ta arbola eta ur danakaz;
 Ondrau zuk bardin Nilo'ko ibai atsegintsua.
 Zeure korronta leun, baratz eta biziakaz,
 Azkenez ondrau zeru ta lurrak, gau ta egunak.
 Daukazuezan edergarri on guztiakaz.

Dedugarrien zarealako ¡O! Jeriko'ko
 Lorarik onen ta Jaungoikozko miraria,
 ¡O! edertasun danen guztien bizilekua.
 Grazia danen kutxarik onen ta tokia.
 ¡O! Kaliz gozo: atsegintasun eztitsu danen
 Ama ugari jaio-lekua ta iturria,
 ¿Zelan zeiteken zugan orbanik aurkitutea
 Jaunak nai beban zugan artzea aragia?

¡O! izar bizi gure itsaso bildurgarrian.
 Zatzakusana ain argigille pozgarria,

Zure arpegi errañutsua illundutera,
 ¿Zelan azartu egin leiteke eguzkia?
 Au izan ezik ¿zelan azartu leiteke barriz,
 Zugaz bardindu nai izatera Ilargia,
 Bazara izar egunez eta bardin gabetan,
 Gu argitzeko sortu zarean gar barria?

Zara benetan Egun senti bat ain ederra ae,
 Gaur arte Jaunak etzaituzana erakutsi;
 Zara arako ezaugarri zeñek diñoan,
 Gerrea laster egingo dala irabazi;
 Zara arako eguzkiagaz soña jantzirik,
 Dakarguzuna Iratargia oiñen aulki,
 Zara bekoki inguruan zuk edergarritzat
 Dakartzuzana amabi izar eder bizi.

Rakel, Rebeka, Ester, Judit ta Zara ¿zer zi-
 Ezpada zure keriza motel baño danak? fran
 Areik zikindu arren izpia berenotsuak,
 Zuri ez eutzun ikutu sugetzar zitalak;
 Zu zara bada Neskatilla bat beren-berariz
 Aukeratua beti-betitik Altsu danak,
 Zara arantza arteko lora akats bagea,
 Sortu egiña iñon ikutu baga narrak.

Zara mendi bat eregiena mendi danetan,
 Txuntxurra dozu besteak baño goragua,
 Non daukan Jaunak bizileku bat apartekua,
 Zeruan egin ebana baño obagua.
 Ezpada betor ikusitera mundu guztia,
 Zugan jazo dan mirari pare bagakua,
 Ikusi daian argi ta garbi zelan, Maria,
 Izan zarean loirik bagarik gaur Sortua.

MARIA TXITO SANTEARI BERE JAYOTZAKO EGUNEAN

Eiten bayako mundura jayo
 Oi dan danari,
 Bere jayotzan poztasunezko
 Igarria,

V.—ELIZ KANTAK

Esker ta doez aberatsago
Datorrenari,
Berez zor jako dagokan mailan
Jayaldia.
Jayo ezkeru parebaga bat
Orain lurrean,
Jayo ezkeru emakumeetan
Esleidua,
Jayotz onegaz danok guztiok
Poztu gaitean,
Eldu dalako gura zan egun
Doatsua.
¿Ze mirari da lurra guztia
Zoratutea,
Alako egun-senti eder au
Jayotean?
¿Ze mirari da Zerua pozez
Gañeztutea,
Jese-n Landara argotar au
Ikustean?
Errazoagaz alegeratu
Zara, Zerua,
Egilleari kantaurik kanta
Ain ederrak;
Lora danakaz agiri zaite,
Lurra, apaindua,
Eguzki onek merezi ditu
Danen txerak.
Jatsi, gaur jatsi zaite egodun
Goiko taldea,
Baratz usaintsu atsegiñetan
Bizi arren,
Jatsi, bai jatsi galantago dan
Kriaturea
Ikusitera zelan jayo dan
Nazareten;
Noren begiak diran argiak,
Baña ain argiak,
Noren matrallak larrosak baño

Larrosauak,
 Eguzkiaren ondoan nolan
 Izar txikiak,
 Noren aldean diran zurbillak
 Aingeruak.
 Ixildu beitez, ixildu, ixildu
 Andra andiak,
 Rakel, Rebekak, Debora-Esterrak
 Ta Susanak,
 Ixildu beitez, ixildu, ixildu
 Danak guztiak,
 Sara-Abigailak, Jael-Juditak
 Baita Anak;
 Bada direnak dira beerago
 Onen aldean,
 Orreen ondoan berau dalako
 Nagusia:
 Palma ederraz ezin bat egin
 Leitealako
 Mirtoa deitu egiten jakon
 Landarea.
 Ixilik gorde beiz Eguzkiak
 Ule gorriak,
 Onek daukazan urrez egiñak
 Ikustean,
 Alperrik euki arek ain eder
 Miragarriak
 Onek Illargi legez binrtu
 Ez dagian;
 Ixi, izarren argitasuna
 Egun onetan,
 Izarren izar diran begien
 Aur-aldean,
 Ixi, bekoki goiz-zale onen
 Aldamenean,
 Larrosaturik jagiten dana
 Sortaldean.
 Ixi, metralla onen ondoan

V.—ELIZ KANTAK

Lirio zuri, larrosa mardo
Ta zabalak;
Ixi, zidarra, rubí, jazinto,
Peria (a granak,
Ixi, nakarrak, baita ixildu
Gaur koralak;
Ao aia polit orren atear
Idigitean,
Ta bular orrek bialtzen daben
Arnasian,
Ixildu bedi gauz onik ezer
Bada Pankayan,
Bardin ederrik aurkitzen bada
Arabian.
Esku ta bular orren ondoan
Leyar garbiak,
Alabastro zein edurrak dira
Ain motelak,
Bata Jaunaren etxea bada,
Dira bestiak
Zeruak berak gloria andi bat
Zor deutsenak;
Bala Jaunari bere gogo
Da poztuteko,
Besteak dira bere grazien
Zabaltzallak;
Bata ispillu Jauna berbera
Begiratzeko,
Maitasunezko fletxen besteak
Tiratzallak.
Bere agiñak dira ain zuri
Baña ain zuriak,
Marfillik ez da bardinduteko
Gaur eurakaz;
Bere okotza biribildu dau
Arte guztiak,
Poto txiki bat erdi erdian
Egiñagaz;
Beso, sama, oin, zankoak daukaz

Ondo atereak;
 Alperrik daukaz Zeruak pilar
 Biribillak,
 Baña ume onek lurrean daukaz
 Askoz obeak,
 Bardingarritzat ez diralako
 Areek diñak.

Gorputz guztiko zatiak ditu
 Utsik bagiak,
 Dana guztia ondo egiña
 Dau agiri;
 Ezagun dago beren berariz
 Au Egilleak
 Egiñ dabela, gorputz ta ariman
 Miragarri;
 Bere sarrera zan legez garbi
 Eta santua,
 Jayotz au bere alantxe bear
 Zan gertatu,
 Bata loi бага eta beste au
 Onen dontsua,
 Izan zeitezan Jaunak zituzan
 Aukeratu.

Ongi etorri, umetxo eder
 Ain Zerutarra,
 Zeruko leyo eta bertako
 Eskallera,
 Paradisuko atea eta
 Izar goiztarra,
 Zatozalako Egun ederra
 Ekartera;
 Ongi etorri, Jcse-n Landara
 Jayo barria,
 Zure jayotza zabaldu begi
 Gaur Fameak,
 Zerren larririk aurkietan zan
 Gizon tristea,
 Zerren katibu legez ekarren
 Illunpeak.

AINGERUAK MARIA GUZTIZ SANTEARI
EMON EUTSAN ALBISTA EDERRA

*(On Arturo Kanpion ene adiskide maite
euskerazale txito andiari)*

Jordan dontsu ta Feniziaren artean dakust
Judea andi aberatseko Probintzia,
Ta Idumeako zoru oparo entzutetsua
Palmak sortuten berez dalako ugaria;
Begira, zelan aruntz jasten dan galai bat egan,
Nnn begiztetan daben etxe bat berezia,
Nundik urtetan dabeen errañu argi biziak,
Bertantxe bizi balitz legetxe Eguzkia.

Ain etxe argi agiriko ta zoragarria
Ero-rik onen zeñetan bizi danagana,
Aize olatu artean uger egiñaz arin
Doa Leandro albistalari zerutarra;
Ekusanean iya urrean nai eban lurra,
Piloto leyal eta Mariñel aiñ azkarra
Bere atzeko lagunai pozez azaltzen jake,
Esanaz: «Gura genduan kaira laster gara.»

Beltxargak, Kaistron ur leyarkia edan ondoan,
Nun oi dan pozez inguraturik bizi izaten,
Bere ondasun gordelekua, au da abia,
Ikusiaz bat laster asten da egatuten;
Modu orretan beraren zuri urrez jantziak,
Gabrielek dauz egatu nairik zabalduen,
Joteagaitik ainbat lasterren joian portura,
Zeñen argia goi zeruraño zan elduten.

Jasten da Aingeru larrosa eder antz antzekoa,
Izarrez eta azuzenakaz arroturik,
Bere Erregin bizi zanaren etxe aurrean;
Baña, isten dau Eskuadrea gelditurik,
Eta barrura bera sartzen da zabaldu baga
Jauregi atan ez leyo eta ez aterik,
Eguzkiaren aldean argi diran begien
Aurrean laster agertuten da auspezturik.

Belaunak bertan inketan ditu zoru gañean,
 Adoretan dau izatez gorputz ilkor dana,
 Luzbel arroa, nai ez ebanak goyan adorau,
 Beste askoren gisan esanaz «Jauna zala».
 Aurrean daukan kriaturia garbiro dazau
 Jaungoikoaren eskuko lanik onen dala,
 Begiraturik ain edertasun argitsuari,
 Zerren norbera izar biurtzen daben bada.

«Agur, dirautso, Fenix galant ta lirain zuria,
 Agur, Tortola apaintasunez ederrena,
 Agur ¡o! Uso txukuntasunez guztien buru,
 Abera aldatu egin jatzuna Eba izena;
 Agur, goigoyan dan Abe ari deutzazulako,
 Agur, egingo luma orrekaz gaur soñera,
 Agur, abia zerren izango zarean Abe,
 Betiko aitagan utsik kabitzen dan arena.

Agur, bada, zu zatxakozan txit zalegarría.
 Agur bizi dan-ari orturik onenean,
 Aizcen ego gañetan jira bira egiñaz,
 Jarriten dala gar-Aingeruen bizkarrean,
 Agur arexek zukan. Maria, bizi gura dau,
 Azuzcna ta jazmintsu dozun baratzean;
 Agur, Jainkoak gorde zaizala, Amagei eder,
 Gizonen poz ta ene Erregin nor zarean.

Jainkoak gorde zagiz graziaz beti betea,
 Zuri bakarrik izen ain ona datorkizu,
 Erru bagea beti garbia zarealako.
 Izen onegaz zeruak deitu gura zaitu,
 Gizonarentzat ¡zein pozgarri dan deigarri ori!
 Zeñek grazia bearko deutzun maiz eskatu,
 Grazia danen grazia leku zarealako,
 Graziadunak egingo dozuz graziatzu.

Jauna da zugaz, neskaxa danen neskatillea,
 Bere izatez, bere almenez, bere aurkeraz;
 Jauna da zugaz, Dontzella zuri edur antzeko,
 Bere grazia baturik zure ontasunaz;
 Jauna da zugaz, zeindan Betiko egun argia,
 Bere betiko mesedeakaz lagunduaz,

Jauna da zugaz, sortu ziñean une beretik,
Bere antzeko arima duin bat emonagaz.

Zugan dagotzun berorrek nai dau orain, Andrea,
Bere guraso aurrera izan zakiozan,
Gaur arteraño egin bazaitu graziaz geyen,
Bere amalzat andretan zaitu begiztetan;
Berak nai zaitu zeru lurretan jarri Erregeñ.
Herak gura dau zeurroren seme umil izan,
Zeurroren Seme bada Aitaren gloria izaten,
Gizonduko da Berboa zure errayetan..

Bedeinkatua, andra guztien artean zara,
Aingeru danak baño bere zu dontsuago;
Bedeinkatua zeure sorreran ziñean legez,
Aurrera izan bear ez dozu gitxiago;
Bedeinkatua, zergaitik iñoz ez dan ikusi,
Zugaz, zuregan, zugaitik dana gaur egingo,
Dontzella garbi zarean legez, Neskatala ta
Ama, batera, zarealako zu izango.»

Mandataria ain miragarria ikusitean,
Ikaratzen da Dontzella umil txit garbia;
Ikaratu zan esan eutsazan alabantzakaz.
Ez ebalako sinisten zanik ain andia;
Kolorgatu zan, alako izar errañutsua,
Ezaguturik goitarra zala Mandataria;
Bere soñera, albista eta modu onagaz
Geratuten da oso arri ta zur Maria.

«Ez ikaratu, (esaten dautsa) bada. Maria,
Zuregan dauka Jaunak begia ezarria;
Zure errayetan izango dozun Seme Jesusek,
Zeure odolaz artu bear dau aragia.
Jaungoikoaren Semea deitu egingo jako,
Ta eukiko dau aulki Dabiden jartokia,
Baita Jakobean etxean bere aginduko dau,
Azken bagarik izaten dala Nagusia.»

MARIARI GARBITZEKO EGUNEAN

Arpegia badakar
Barrez egun sentiak,
Kanpoak Eguzkiak
Urrez badauz janzten,
Andrea, da zeurorri
Agur bat emon nairik,
Diralako goizetik
Guztiak jagiten.

Gaur emoten dautzue
Alboradea danak,
Txoritxo abeslariak
Zugatz-adarretan,
Euren txorrotxioak
Esan gura dabela
Zarealako ederra
¡ O Ama, sorreran !

Errekatxo garbian
Kardintxai ezkoturik
Lumatxoak kiskorrik
Bajakez jarriten,
Maria, zareala
Gutzizko egokia,
Galant miragarria
Dabe iragarten.

Larroseak dotore,
Lirioak arrorik,
Lurrunak ísuririk
Dabe erakusten,
Sorreratik, Maria,
Arein usain gozoa,
Baño gozoagoa
Dozula botaten.

Bere zuritiesuna
Bellxargak dau estaltzen,
Itxasoak gelditzen
Uiñak bereala.

Zakusenean zelan
Zu zareen ederren,
Dontzella dontzellen
Ela amen Ama.

Erregiñea zara
Edertasun danena;
Udarik galantena
Zugaz oi da zurtu.
Neguak iges egin.
Infernuak gerria
Eta here antzia
Lotsarian galdu.

Baita uso politik,
Zidarrezko errekan,
Deutzu zuri kantetan
Dabilela pozez;
Bakotxak bere txandan
Euren doe andiak,
Urteko lau aldiak
Eskinten deutzuez.

Zure oñatzai laztan
Deutse egiten astruak,
Dauka zure buruak
Tzarrez arua,
Zeure oñatzai laztan
Daukazu illargia,
Ta barriz Eguzkia
Da zure mantua.

Nai zaitue agurtu
Aingeruak Zeruan,
Ta lurtarrak zoruan,
Gaur alkarren leyan,
Zeuroarren gorrería
Loirik бага garbia,
Eta miragarria
Txit zalako izan.

Jaunak zinduzalako
Egin orren dongsua,

Orren bedeinkatua
 Ta Beretzat Ama,
 ¡Agur, agur, milla agur!
 Guraso orren diña,
 Izateko egiña
 Jayo ziñeana.

Izanik zu ¡o Andrea!
 Zorionez ain betea,
 Noruntza, Emakumea,
 ¿Zoaz gaur goiz jagiriz?
 Goizaro orren txarrean
 Otzak kikilik bidean,
 Edur ieituen gañean
 Zeure Jesus arturik?

Zek zaroaz Salen'era
 Loirik ez da garbitzera,
 Garbitasuna berbera
 Baldin beti bazara?
 Egun sentia goizetan
 Jakunean agerketan
 Ibar, lau ta tontorretan
 Ezpada ain ederra?

¿Zek zaroaz ¡o Maria!
 Mota bagarik zuria
 Uso edurrez jantzia
 Tenplura garbi jarten?
 ¿Ezpadot nik erreketan,
 Eta euren korrontetan
 Urik iñon begiztetan
 Zu duin leyar joaten?

Zu izanik ederrago
 Illargia bera baño,
 Izar bal txit argiago
 Gaur ¿nai dozu garbitu?
 ¿Nun daukazu baltzunarik?
 ¿Nun orein ta nun orbanik?

¿Nun loirik ta nun motarik?

¿Nun dozu zek ezaindu?

Zu zara bai, zu Andrea,
Gaurko legetik librea,
Ta zure onoidadea
Ezkutau gura dozu:
Beste andrakumen gisan,
Loitu baga seingintzan,
¿Zertan nai dozu Elizan,
Andra garbia, sartu?

¡O Jaunaren Esposa!
¡Bere Ama ta Alabea!
¡Zeruko Erregiñea!
¡Arriturik naukazu!
Ikusirik zareala
Legera, loien erara,
Erru bagea izanda,
Borondatez umildu.

Ez dakit agaitik bada,
Zein dan zurgarrien. Ama,
Umiltasun ori ala
Dozun garbitasuna;
Biok nabe lotsaketan,
Biok nabe kondenetan,
Nazalako arroketan,
Izanik loitasuna.

Umillen irakaslea,
Egin naizu umildea ;
Loirik bagako Andrea.
Egin naizu garbia,
Egin naizu loi au zuri,
Umil eta garbiz zeuri
Nik dagizudan iduri,
Andra utsik zuria.

MARIAREN BIOTZ ZORAGARRIARI

Laketu-idazu. Ama gozoa, zure kolkoan.
 Erleak lora politen kopan legez bardin,
 Zure amore eztitsuaren zumoa edanda,
 Amodiozko abau gozo bat daidan egin;
 Zure biotza dalako zuri, dalako gorri,
 Dalako bera lirioa ta bera jazmín.

Bene benetan, il eder au da parebagea,
 Kardintxen kantik diño pozez: «da mayatza»,
 Erretxiñolen soñueteak: «il galanta da»,
 Uso sotillak urruetaka: «da malatsa».
 Malatsagoa askozaz baña, Maria, jaku
 Darakuskuzun biotz ain gozo, ain apatza.

Kerizpetxoa udan guztiz da gustagarria..
 Gustagarria kanpoa berdez agertzea,
 Gustagarria erle zintzoen abaua bere,
 Gustagarria labore onak ikustea,
 Gustagarrien gustagarria, gustetan jaku,
 Biotz orreri gure biotzok gustetea.

¡ Ai! zein eder dan ostarku guztiz koloretsua !
 ¡ O! ze galanta bere soñekoz goiz gorria,
 Ain ikusgarri egun sentía bere izarraz.
 Zoragarriak illargi eta eguzkia;
 Zoragarrian zoragarrien zoragarria,
 Gu zoratzeko aiu biotz gozo, ain guria.

Bioletagan dakutsut *zure* umiltasuna,
 Amodioa larrosa eder gorriagan,
 Garbitasuna lirioan ta jireguzkian,
 Jaungoikoaren zaletasuna dala zugar;
 Errekatxoen ur garbi eta argitan barriz.
 Zelan iturri bizia zure biotza dan.

Gogoratzen deust zedroak zure altasun ori,
 Zarealako zeu Salomonen lo-lekua;
 Urregorria badakust laster gomutetan jat,
 Zelan zarean Jaunaren etxe urrezkua;
 Trumoiak dardar gaukazanean, diñot, biguntzen
 Zure biotzak dabela gure Jaungoikua.

Ertzik bagako itxaso eta zero garbi ta
 Salbaziñoko kutxa bat zara segurua,
 Bendiziño ta emokai danen ibai ugari,
 Jaungoikoaren ondasuntegi doatsua;
 Zure biotzak zerren guztia beragaz daukan,
 Zarealako Jesukristo'ren gurasua.

Triste bagagoz zu zara gure poztugarria,
 Geisotiaren osagarrizko zeu miritza,
 Arnasa eta indargarria, daiorreanean
 Eriotzea, guri kentzera bai bizitza ;
 Ta gero bere gure arimen jaubea zara,
 Daukazulako zeruratuten beargintza.

Larra-txoria, egan doiala dakustanean,
 Igoaz gora, esaten deutsal: dontsua zu,
 ¡Ai! banituke zure eguok zeruetara,
 Bee onetatik egin dagidan gaur egatu,
 Mariak daukan biotz gozoan neure abia,
 Nai neukelako beti betiko aukeratu.

Zabaldu-idazuz ango atea, Ama laztana,
 Entzu-idazu gaur, biotz barruko nire deya,
 Kendu eyozu arima oni egatu dayan,
 Nai ta ezean geratzen daben lokarria;
 Zergaitik zure semea naz ta, biotz orretan
 Zeugandu. naizu arren lastertxo ¡o Maria!

MARIAREN BIOTZ ORBANIK BAGEARI

(Bere sorrerako egunean)

Fedezko koroï disdisgarria jantzitakoak,
 Eta ainbaga bizi zareenak illunpetan,
 Biotz ta arimok naibageturik zabiltzazanok
 Amoregarri mundokoren bat billaketan:
 Alde batera larga betiko lureko gauzak,
 Igo bai, igo odehyak eurak oinpeturik,
 Igo gorago neugaz batera, Argia bizi
 Dan lekuraño, geratu arte an sarturik,
 Nun deutzuezan urrezko ate eder zabalak,

Sortu egin dan zero barriak gaur idigi,
Zein dan Jaunaren grazia danez dana betea,
Nun bake poz ta amodioa diran bizi.

Erdue, arima onak, bertako iturrietan
Atsegin eta gozotasunak edatera;
Erdue bada beraren biotz orban bagea,
Jakun Eden bat zerua bera duiñ ederra;
Jaungoikoaren Paradisu da, bertan Maiteak
Bere eskuaz isuri ditu emokaiak;
Bertan arbola bizitzakoa loraz jazten da,
An gloriako errekek doaz gaur biziak:
Bertan Esposo jaungoikozkoak azuzena ta
Larrosa artean etzan lekua dau ezarri,
Milla eskudoz, milla koroez apaindu eta
Ain da baketsu, ain da argitsu, ain zurgarri,
Ain kanta onak, antxe kantaurik goikantariak,
Serafín gorri galantak jakoz gordelarí.

Zorioneko arimok, arren, jaso eguok,
Bere loretan zuen abiak jarri arin,
Eyo, dontzellak. lora orrekaz korda galantak.
Gizon santuak, bitxizko sortak laster egin;
Bere lirio mardoen beian pekatariak,
Atsedeteko amore santuz jarri lotan;
Euren lurrinak lengo su loia il dagizuen,
Eta osatu zauriok, euren baltsamotan.

Uda-barria beti loratsu emen bizi da,
Gabarentzako beti alea da itxia,
Eten bagako eguerdiak aginduten dau,
Loirik bagako Bildotsa jako Eguzkia.
Emen bizitza dauken guztiak errege dira,
Izardun aroz koronadurik buruetan,
Estola zuriz euren bularrak kurutzaturik,
Erru bagako zetroak dabez eskuetan.

Irutasunak bertantxe dauka bere jargoia,
jaunak laztantzen gu bertan gaitu, ta guk bera.
Deitzen deuskula,» ene semeak» eta bakezko
Laztan artean eroanagaz bere maira.

¡O! biotz garbi miragarrizko zero barria.
 Orrako zero izarratuen artekoa,
 Neurtu ezin dan Argiarentzal bizitokia,
 Aren amatzat ziñealako esleidua;
 Amore santu arentzat zara etorrerea,
 Zara ortu on sortaldeetan ipiña,
 Ontasun oso uts bagearen mapa zabala,
 Graziarentzat egon-leku bat egokia,
 Eta zafiroz moldaturiko torredun etxe,
 Maite-banderak gallur danetan ezarria.

¿Nok kontau daikez ederlasunok direan legez,
 Eta maitatzen zaituenentzat zuk gorderik,
 Zeugan dozuzan gozotasun ia zein emokaiak,
 Kontau ezinda geratzen bada bat muturik?

Nik adoretan zaitut, Jaunaren toki dontsua,
 Jainko Aitaren jakituriarentzat duiña,
 Dana urrezko zati landutan guztiz egoki
 Ezin obeto beraren eskuz alan oiña;
 Nik adoretan egun sentiko izar ederra,
 Done guztien itxaso azbal ugaria;
 Nik adoretan zaitudaz, Ama zaitugulako.
 Nik Luziferren zarealako galgarria,
 Zeure sorreran deutzazulako burua ausi,
 Emonaz iñok emon ez deutzan lotsaria.

AMA BIRJIÑARI

Agur, larrosa eder Jeriko'n
 Arantza бага sortua,
 Agur lirio zuritasunez
 Edurra lotsatzekoa;
 Agur ¡o! palma bardin bagako
 Kadesen lenengokoa.
 Agur, oliba loraz ederren,
 Frutuz dontsuen dontsua,
 Zure Frutua dalako gure
 Osasun egiazkoa.

Zure ondoan ¿zer da eguzki

Gaba egundutekoa?
 ¿Zer idargia bera bayatzu
 Oiñen atsedeen lekua?
 ¿Zer dira bere gabez izarrak
 ¡O! Izar berarizkoa,
 Danak guztiak goiti-beti illun
 Aurkitzen bazan mundua,
 Zu sortu arte bazirudian
 Onek linbo bat itsua?

Zu zara utsik aukeratua
 Izar guztien artean,
 Illuntasunen usaiñik bere
 Ez daukazuna soiñean ;
 Illunpe danen jayotokia
 Daukazu mende-mendean,
 Zeuri ikutu baño lenago
 Sortu ziñean unean,
 Zeuntsalako zuk artu bakarrik
 Bere burua oiñpean.

Zorioneko sortuerea,
 Dana guztia santua,
 Ainbeste eunki edo gizaldik
 Bein bere ez ezagutua;
 Zeiñek ipiñi eban pozturik
 Mundua ez eze Zerua,
 Ta bildurturik unetaraño
 Txerren zorigaldukoa,
 Lurrera jausten asi zalako
 Bere eskuko zerua.

KURUTZEAREN OÑEAN DAGOAN MARIA'RI

Maria da, bai, Jaungoikoa'ren Ama garbia,
 Maria bere tortola samur uso zuria,
 Maria iturri amodiozko bizi-bizia,
 Maria lora usaintsu cta dana ezitia,
 Maria ekatx ondoko arku bakegarria,
 Eta Maria gaur da ume bat errukarria.

Maria da, bai, agintarien gorenengua,
 Mariak dauka Iretargian oñen zorua,
 Mariak dauka Zeru altzuan jesarlekua,
 Mariak utsik Eguzkizkoa bere mantua,
 Maria da, bai, Jaungoikoaren urrengokua.
 Eta Maria ikusiten dot gaur larritua.

Maria da, bai, pasiño-lora, lora arteetan.
 Judea aldean ikusgarrien goiz guztietan,
 Maria da, bai, perla ain zuri-zurienetan,
 Maria da, bai, bedeinkatua emakumeetan,
 Maria ederren Jaungoikoa'ren begi bietan,
 Eta Maria gaur larriena andra danetan.

Mariak beti negartiarri erruki deutsa,
 Mariak dauka bidaztientzat beti laguntza,
 Maria da, bai, gure portuko gia on utsa,
 Mariak dau, bai, beti gordetan ondo ume zurtza.
 Baldin badago «Ama!» uluka bereganuntza,
 Eta Maria orra or bera, gaur zizpuruka.

¿Zelan. Maria, zakust or baltzez ain estalia?
 ¿Zelan Sion'go ateetan zagoz ain negartia?
 ¿Zelan gelatik bakar-bakarrik ona etorria,
 Illun jarriko dalako laster gaur Eguzkia,
 Ikuste ez arren billos-billosik bere Nausia?

¿Zertako baña Kalbario'ra gaur igo zara?
 ¿Zertako dozu ain bide latza irago, Ama?
 Zertako dozu ikusi gura Bildots otzana,
 Gure okerrak zuzentzearren gaur ilgo dana,
 Abe orretan lotsa gorrian errurik бага?

¿Nok sartu deutzuz ainbat ezpata orren zorrotz-
 ¿Nok erakutsi alako min ta oñaz garratzak Tak?
 Jerusalem'en sopinduteko negarrez autsak,
 Aizetan egan egiñik zure zotin mingotsak,
 Sentimentutan ausiteraño askoi biotzak?

Golgotaraño erdu, gaur, Eden odol-zalea,
 Ikusitera emen Ama bat penaz betea,
 Gura deutzuna orregaitiño parkatutea,
 Nai bazenduke zeure okerren damua artzea,
 Kurutz-oñean arinduagaz bere penea.

Erdu, bai, erdu, Salen nasai ta loaia, onera.
 Kurutz-oñean Dontzella ona begiratzera:
 Eta kurutzan ikusiagaz INRI berbera,
 ¿Etzara jausten berta-bertatik auspez lurrera,
 Ama ainbeste samindu oni parka eskatzera?

Edola bere, erdu, arren zu, Malen leyala.
 Baita Sion'go dontzellak bere erdue bada,
 Erdu, zu, bere, Jesus'en aide, Joane laztana,
 Ebangelioz jarri dagizun zearo dana,
 Zeian dagozan ordu onetan Jesus ta Ama.

Begira, Joane, baldin badozu biotz sendorik,
 Ete dagozan iñon Seme ta Amau lakorik:
 Kurutzan bata, narru gorrian ain lotsaturik.
 Esku ta oñak iru untzegaz gogor josirik,
 Gaizki-esalez eta borerreruz inguraturik,
 Eta erdian Jesus ta Ama penaz beterik,
 Betiko Aitak baleukaz legez deslai itxirik.

Kurutz-oñean aurkituten da Ama gaxua.
 Kurutzeruntza jasorik dauka bere burua,
 Kurutzan dauka bere begien egon-lekua,
 Kurutzan dauka bere biotz ta bere gogua,
 Nai leuskiona emon, al balei, azken mosua,
 Eta al balitz beragaz antxe il gaur batua.
 Dalako bera bere Jaungoiko egiazkua,
 Dalako Aita. et; dalako bere Esposua.
 Dalako Jesus, erraietako bere Frutua.

Iya Jesus'en begiak dira, Joane, illuntzen,
 An arnasea zelan doakon iya gelditzen,
 Ara burua zelan lurreruntz jakon jausiten:
 Orain arimak beste mundura iges egiten,
 ¡¡ Bizitzagiña bizitza baga dabela itxiten !!

Bizitza baga or Lauburuan bizitzagiña,
 Bizirik orra, bere oñean, Ama Birjiña;
 Bizirik, baña, gelditu arren gure Erregiña,
 Bizirik dago damuzko uretan ito ezinda.
 Bizirik dago; baña ain estu daukan zotiña

Iragarleko ez nazalako ni barriz diña,
 Gelditu nadin mutu bat legez ixil-ixilla,
 Esan dagien sentiezkorrak beronen miña,
 Eta Golgotan zer pekatua gaur dan egiña.

"na dardaraz, lurra guztia ikaratua,
 Jesus'en etsai izan dan asko an bildurtua,
 Egun erdian Zerua gaur da izan gautua,
 Orain Tenpluan kortiña berez an urratua,
 Ta orra arrien, orra obien sentimentua:
 A da apurtua, au azkatua, illa biztua,
 Dana damua, dana estua, dana da izua ;
 Izate dana ainbesteraño da larritua, ,
 Dirauskuela il jakola gaur. Jaube altsua.

¡Il da guztion Egillea ta Jaube bakarra !
 ¡ Il da. Maria, il da zeuroren bizi laztana!
 ¡ Il da, bai, il da, sekula bere ilgo ez dana!
 ¡il da a baña, etzakiguz il, arren, zu Ama !
 ¡Ilten bazara zure Semea il dan erara!
 Iltzaka ¿zelan ume zurztuok biziko gara?

Negar egizu kurutz oñean, nasaitu arte.
 Negar egizu, baña, il baga ;o Ama maite!
 Negar egizu, negar artean baña poz zaite,
 Zerren Arbola orren frutua jayo ta ainbeste,
 Zeru zabalak egingo diran arimaz bete.

Negar egizu, negar, bai. Ama, kurutz-oñean,
 Negar egizu alargun legez bakartadean;
 Baña poz zaitez, Ama-Semeok, oñaz artean.
 Dozmelako gizona jarri libertadean,
 Demonioak eukana iya bere mendean.

Negar egizu, daukazulako zuk erraietan
 Atsekaberik eskergeena ordu onetan;
 Baña poz zaitez, **Ama larria**, oñaz danetan.
 Bigarren Jesus zarealako modu orretan.
 Gure arimen salbaziñoko lanbideetan.

Negar egizu, lirio zuri Nazaretarra,
 Belendik eta Kalbarioko **gain** onetara.

Oñatz danetan zendualako aurkitu narra;
 Baña poz zaitez, zaitugulako zu irakasle,
 Zein bide dogun erakusteko zeruetara.

Negar egizu arren dakidan Jauna samurto,
 Negar egizu nik dodalako illik largatu,
 Negar, zu bere zaitudalako asko alatu,
 Negar, sarritan nik dodalako egin pekatu;
 Baña, orain, ni zelan benetan nazan garbatu,
 Negar gura dot nik bere egin ta, Ama, parkatu:
 Negar egunez, negarrez gabez nai dot jarraitu,
 Negar artean negarrez nadin illik geratu,
 Negarrok, Ama, egitearren zuri leortu.

GORUNTZA

Zeruko garrak nozbaiten sutu
 Egin oi badeust
 Espiritua, egatu daian
 Edo nora,
 Batez bere gaur duda bagarik
 Isiotu deust
 Iga dagian odehyak baño
 Goragora ;
 Ez begit arren, orain bialdu
 Musa laztanak
 Gogo-argirik, izanenean
 Mundukorra,
 Zerren goi-goyan izardun aroz
 Koronau danak,
 Aldatu deust gaur beeko gogo au
 Zerukora.
 Ene kant-otsak uger egin bei
 Lur zabaletik,
 Garaitz andi bat dalako kantau
 Nai dodana:
 Eriotzea azpiratuta,
 Orra lurpetik,
 Emakume bat zelan jagi dan

Biztu dana;
 Ea. begira dayogun nora
 Doakun, nora;
 Ikusi zelan gorantza igoaz
 Baita doiala,
 Odeizko jargoi eder batean
 Goruntz ta gora,
 Goyan jartera Erregiñatzat
 Bereala.
 Goruntz badoa inguraturik
 Aingeruakaz,
 Goruntz badoa entzunaz kantu
 Ain eztiak,
 Goruntz, bidera urten yakozan
 Zerutarrakaz,
 Goruntz gozaurik joten ((eutsezan
 Otslankayak;
 Goruntz badoa ikaraz dar-dar
 Jarten dirala
 Zorioneko eta doatsu
 Eregiak,
 Dakielako egundo sortu
 Len ez ebala,
 Alagiñako Emakumerik
 Erbestiak.
 Goruntz doaku, goruntz gora,
 Be isten gaitu,
 Goruntz jarraitu gura deusagu
 Begiakaz;
 Goruntz begiok ukatu dabe.
 Eta jarraitu
 Goruntz dayogun oraindik gora
 Bíotzakaz;
 Izarrak baño gorago goruntz
 Jaso daiguzan,
 Goruntz bagoaz espirituko
 Eguakaz,
 Zeruan, esan daigun Maria
 Zelan sartu zan

Ta zelan artu eben jai eta
 Piestakaz.
 Baña gorago goruntz ezinda.
 Bear dot beian
 Jausi barrero goitik beruntza
 Nik munduan;
 Zegaitik ezin dodan gorantza
 Gorago goyan.
 Zergaitik sartu ezin al nazan
 Goi dontsuan;
 Goitik beerantza nekaurik nator
 Ene egalak,
 Bizitza amaitu dakidan arte
 Eremuan,
 Au amaitzean goratu nagi
 Gorantz joan ak,
 Gorantza gora sartu artean
 Goi-zeruan,

ZOAZ ONDO

(Mariari Zeruetara igo zan egunean)

¿Onelan zuk, Ama, largauko gaituzu ?
 ¿Onelan ainbeste seme alaba?
 ¿Zergaitik ez gozuz? ¿zergaitik ez gozuz
 Zeugaz eroaten zeruetara?

Gure zizpuraa ez entzun eginda,
 Arriturik nago zelan zoazan.
 ¿Ete zoaz, Ama? ¿ete zoaz, Ama,
 Pozik бага emen bizi gaitazan?

Zugan ipiñirik daukana biotza,
 Zure besoetan nai dabena lo,
 Ama, zu bazoaz. Ama, zu bazoaz.
 ¿Zelan aurrera da bizi izango?

Zugaz nasi egan egin gura neuke.
 Zure mantuari nik oratuta :
 Baña ezin igo, baña ezin igo,
 Nagoalako ¡ai! lurraz lotuta.

Zoaz ondo, ondo; zoaz, Ama maite.
Zeru gorenean jazarritera,
Erregiña antxe, Erregiña antxe,
Falta dabe eta, agindutera.

Begira dagotzuz zerutar guztiak,
Noz igoko dozun euren Errira;
Ongi etorriak, ongi etorriak
Egiten bidera urtenak dira.

Naiz-ta gu gelditu, Ama, zu bagarik.
Ume zurtzak legez emen lurrean,
Ez gagizuz aztu, ez gagizuz aztu,
Jarriagaitik zu zero gañean.

AMODIO EDERRAREN AMARI

(Kantartea)

*O Maria lora, lora guztietan
Sekula maiztuten etzareana,
Zugaitik jadtixi daigula frutua
Amodio gozo-gozoarena.*

Landararik lirain eskertsuenakaz
Lorategietan galanten zara,
Amodio garbi ederraren Ama.
Eztitasunezko ortu bakarra;
Zare sabel guztiz zorionekotik
Jayo zan lorarik egokiena.
Zugaitik jadtixi daigula frutua
Amodio gozo gozoarena.

Ezkutapenezko landa loratsua,
Semeak deutzuez gaur alabantzak
Kantetan, poz pozik samurtasunagaz,
Edertasunezko zure garaitzak.
Zinamomoaren dozu usain ori.
Galantasun ori *Franzesillena*,
Zugaitik jadtixi daigula frutua

Amodio gozo gozoarena.
 Zedroa legetxe eregitea zara,
 Palma-ren gisan goruntz aziten,
 Plalanoa legez baita zabalduten,
 Zipresen antzera goyan amaitzen.
 Orregaitik gozuz zuri kantetara
 Igitu Amarik maitetsuena,
 Zugaitik jadtixi daigula frutua
 Amodio gozo gozoarena.

Sortueran zara lirio zuria,
 Seingintzan betiko-lora polita,
 Eta *sensitiba* bizitza guztian,
 Pasiñoan zara zu *bioleta*,
 Barriz biztuetan, karminiaren gisan,
 Larrosa gorrien antzekoena,
 Zugaitik jadtixi daigula frutua
 Amodio gozo gozoarena.

AMODIO EDERRAREN AMA DANARI MAYATZEKO LORAK

Zein miragarria dan
 Goazen *ikustera*,
Edengo lirio
Maria ederra,
Eta lora zuriz
Egiñik arua
Apaindu daiogun
Berari burua.

Lorez lora zein goiz,
 Uso txit zuriak
 Topetan dabilzan
 Usain pozgarriak;
 Agaitik Zerutik
 Zatorkuz zu egan,
 Gu poztera, Ama,
 Zure amorean.

Illargi gañeko
 ¡O Neskatillea!
 Larrosen Larrosa,
 Loren txit Lorena,
 Dontzellen Dontzella,
 Andren ain Andria,
 Ametan Ama ¿nor
 Da Zu duin andia?

Zein miragarri dan...

Zein miragarri dan.

¡ O izan danetan
Goren gorengua!
Nok leuken zuretzat
Bear bestekua,
Amore bat sutsu
Gozo ta garbia,
Eskiñi daizugun
Mayatz loralia !

Zein miragarri dan...

Lirioz jantzirik.
Bekokia eder,
Mendi puntan il au
Goiz dogu ikusten,
Dakarrelako ain
Soñeko gorria.
Oriturik don
Iges illargia.

Zein miragarri dan...

Goizez ain gozo da.
Egunez argia,
Gabez izartsu ta
Iparrez eztia ;
Zuretzat dalako
Berariz egiña,
Artu egiguzu
Ama Erregiña.

Zein miragarri dan.

Opa nai deutzugu
Azkenez biotza,
Zu zarealako
Beti bere poza.
Alabau zagizan
Ilguztian gogoz,
Soñu leun, eztiz ta
Berba neurtu gozoz.

Zein miragarri dan.

MAYATZEKO LARROSA BATERI

¡ O! lora guztien Andrea,
Zarean larrosa eder galanta,
Amore garbi ta leunaren
Zu zara loretan bakarrik antza.

Aizetxo bigunen umea,
Zororik naukazu zure begira;
Eitamuz, usaiñez, kolorez,
Kanpoan zu zara gaur Erregiña.

Goizetan intzaren perlatxoz,
Politik esnatu egiten zara ;
Mendien ostetik jagiten
Danean arrorik Egun-izarra.

Idigi eyozu kolkua,
Bizkortu zagizan bere beruak;

Edertu zagizan kolorez,
Beraren urrezko errañtxuak.

Joan zan negu baltz gogorra.
Bere otz, edur ta ekatx dongakaz ;
Mayatza datortzu apatzik,
Denpora eztitsu ta gozoakaz.

Jasoizu burua zardenik,
Bapere bildurrik gaur artu baga;
Neuk pozik artu egiñ eta
Eroan zaidazan leku obara.

Apaindu dayozun burua.
Zeruko loretan Andra danari.
Aliaren gañetan daukagun
Amore ederraren gure Amari.

ZORIONEKO EGUN BAT AURTENGO MAYATZEAN

Arañegun goizeko
seiteTdiak aldian,
nenbillan usain artzen
pozik ortu batian,

Larrosa batek antxe
ziraustan aopian:
«artu nagizu, jauna,
jarri naizun soñian.»
Zor neutsazan eskerrak
emonik ondorian,
esan neutsan: «badakit
norentzat duin zarian,
bada niretzat jayo
duiñegi ziñean.
alan Mariagana
zaitut eroan biar,
arek jarri zagizan
beraren bularrian.
loren loraz erramak

nekatuen antzian.
ikusten nituala
lurra jo agiñian.

«¡A! baña oker nabil,
ain leku eregian
zurbiltxo iduriko
zuk dozu arpegian,
bada zure kolore
eder orren parían,
agan miragarriak
ikusiten direan ;
au gaitik obe dozu
pitxilleta artian,
agertzea burua
al daikezun bestian:
agana eroanda
damuz il etzaitean,
gutarrea sarturik
zeurorri biotzian.»

Berbok amaituagaz
usten da garrasian
 otska: «jarri nagizu
 Aadia orren azpian,
 diñozun legez bada
 ederrena lurrian,
 nai neuke serbitzari
 izan bere etxian.»

Orrenbeste erregu
 aditu neutsanian,
 ezin egonik gogor
 ni neure biotzian,
 asi nintzan arinka
 elexaruntz bidean,
 billatzera Maria
 antxe bere jargoian:
nun nik auspaz etzunik
 bere aurrealdian.
 larrosa opatu neutsan
 modurik onenian.

jarririk apaingarri
 eskumako oñian,
 Larrosen Larroseak
 antxe euki dagian.

¡O egun doatsua!
 neure bizi guztian.
 erabilliko zaitut
 begioen aurrian,
 niretzat esleidua
 zerren izan ziñean.
 gaur dala iru egun
 igaro dan astian:
 eunki onen larogei
 eta lauко urtian,
 Mayatza izen tetan
 dogun il ederrian:
 gañera zapatua
 jausi zan egunian.
 Mariak beretzako
 auturik daukanian.

MAYATZEKO ILLEAN MAYATZIK EDERRENARI

Il onetan dakust lora guritxua.
 Il onetun pozez jayo barria,
 Il onetan bere sabel eztitsua
 Il au gozotzeko dau idígia ;
 Il auxe eurakaz ain da edertua,
 Il auxe dalako eder-zalia,
 Il eder-zale au alan apaindua
 Dontzella eder baten da kerizia ;
 Dontzella, danaren txit birtutetsua.
 Dontzella, danaren dana grazia,
 Dontzella, danaren beti Il loratsua,
 Dontzella, dontzellen miragarria.
 Dontzella, dontzellen goi ta gañekua,

Dontzella, dontzellen jarraigarria,
 Dontzella ta Ama batera aurkitua,
 Dontzella Esposa bat eta bia:
 Dontzella au zalako artzeko **Berbuak**,
 Dontzella jareñik gure aragia,
 Dontzellatasuna iñoz galdu baga:
 Mayatzik ederren zara. Maria.

FLORA GUZTIEN ARTEAN EDERRENA DAN FLORARI

(Mayatzeko illean)

¿Nor da jagiten dana orren goiz,
 Orren egoki,
 Orren bekoki leun ta argija
 Agertzean,
 Inguru dana jantzirik orren
 Bake dontsuaz,
 Orren gozoro zabalduagaz
 Aixte artean?
 Ori balitza legez ekatxen
 Ondoko arku,
 Ori balitza legez goiz eder
 Sort-aldean,
 Ori balitza legez il danen
 Erregiña bat,
 Orrek pozturik goya ta beya
 Ainbestean.

¿Zein arte-zalek egin ete dau
 Orren ill eder?
 ¿Zein eskuk moldau orren ederto
 Pare baga?
 ¿Zeñek atondu orrenbestean
 Bitxi politez,
 Orrek il danak atean izten
 Dituala?

¿Zeñek, bai zeñek, eta nok baña
 Uste eikean,
 Orrenbesteko ekatx-indrisken
 Ondorean,
 Egun baterik bestera jayo
 Egingo zala
 Orren ederrik Flora jantzirik
 Gorputzean?

 Zabaldu-izuez zeuen koikoak.
 Lora politikak,
 Sabeltxoetan dozuen usain
 Ori bota ;
 Or eskutaurik probetxu бага
 Gaur itotea,
 Ezelan bere iñorentzako
 Ondo ezta.
 Jayorik dago zeuen erregin
 Flora galanta,
 Mayatz ederra dakust, dakust bai
 Nik jayota,
 Nik eatzun dautset iñor ez **lako**
 Soñu aldia,
 Txori politai txorrotxioka
 Oni jota.

 Eta beronek entzundakoan
 Soñu ain onak,
 Eskintearren beronen ondran
 Egin dana,
 Nik ikusi dot bere begiak
 Zuzendutera,
 Eleizaruntza flora guztien
 Floragana.
 Nor ikusirik illargiaren
 Gañean zelan,
 Izar ederrez koronadurik
 Dagoala,
 Gure flor orrek bere koroia
 Dris-drask kendurik.

Oñen azpian ipiñi deutsa
 Bereala.
 Arin-aringa, agaitik doa
 Jenterik asko,
 Ikusitera zelan dagoan
 Edertua.
 Jayo bagarik ez eban egon
 Bear il onek,
 Dalako berau illen artean
 Il dontsua;
 Onek edertu oi dabelako
 Jaungoikoaren
 Ama Dontzella, Maria lora
 Ain goitsua,
 Zein dan ederrez edergarririk
 Edergarrien,
 Ederruteko Jaunaz ostean
 Goi-zerua.
 Ondrau egizu, Mayatz galanta.
 Mayatz obe au;
 Ondrau, zergaitik dan Jeriko'ko
 Larrosea,
 Ondrau, dalako Sion'erako
 Aukeratua,
 Mayatz guztien ikasleku ta
 Eskolea;
 Ondrau, dalako lora guztien
 Ortu itxia,
 Ondrau, dalako birtute danen
 Baratzea,
 Ondrau dalako Paradisu bat
 Bizi izateko,
 Zeruetako agintari ta
 Erregea.
 Erdue, erdue, erdue neskatz
 Israeltarrak,
 Ondrete arren orren eder dan
 Dontzellea,

Agur, esanaz, agur loretan
 Lora bakarra,
 Agur, zeruko Lorategiko
 Lora Andrea;
 Zeru guztiak kantau begio
 Pozen-pozagaz,
 Ondra guztien ondragarria
 Da Maria;
 Ondrau zergaitik Aitak Alaba.
 Semeak Ama,
 Ta Espiritu santuak daben
 Esposea.

MAYATZEKO ILLEAN JAUNGOIKOAREN LAZTANARI

Kantari mistikor onen bizileku umillera
 Izareri goitik erdu, etorki argitsua;
 Nire arimeak batu begio arnaseari
 Ur korront garbi, ugari, gori ta galdatua.

Megope jainkotarra erdu, erdu egan beera,
 Biotz onek gura zaitu, soilik ez dau taupa eiten,
 Bidazti onek nai zaitu, erromes onek egarri,
 Kantatzalla onek deutzu gogoz benetan deitzen.

Kantau gura dodalako ez munduko gloriarik;
 Kantau nai arren ez kantau, lureko ondasuna,
 Kantau; baña ez betarren azaiña ta kondairarik.
 Bada onelako kantak uts dabe goitasuna.

Ez dot gura nire kantok jardun daitezcan lorakaz,
 Lorak kantau daien nai dot, kantau gura dodana.
 Danak kantau dnien nai dot kantageirik gozoena.
 Goratu Dontzella garbi kantagarrien dana.

Kardintxak erramen puntan txistueta zoliakaz,
 Jaunaren gloriak pozez kantauagaz batera,
 Kantau daian, kantau nai dot, txorrotxiozko kan-
 [takaz.

Kantageyetan kantagei dan Ama baten izena.

Mitxileta jirazale, gorrizka urrez jantziak.
Terziopel ta granazko egoak zabaldurik,
Agurtu ta bedeinkatu begi Dontzell ain dontsua,
Dontzell onek daukalako sortitza zoraturik.

Oontzell oni emon beyo zuritasuna azuzenak,
Lora Eguzki-zaleak eskiñi modestia,
Tulipan zarden zuzenak eguzkiaren islia,
Bioleta umiltxoak gozotasun ezta.

Lirioak emon beyo Dontzella oni lurruna,
Errurik eza begio aleliak saritu,
.Nardoak, kabelineak, platano ta larroseak,
Altarea apaindurik Dontzella auxe goratu.

Iparrak Dontzell oni, loren usaiñak dakartsaz,
Palma ta iyak eskiñten zizpuru arintxoak,
Aizeak putz ots biguna, mendiak edur pilloak,
Emon beyoz koral, nakar ta periak itxasoak.

Izar-erriak begio oin azpitik jira egiñ,
Edertu beyoz galanto matrallak goiz gorriak,
Odeyak egin aulkia, Illargiak oñak jantzi,
Jaunak koroia atondu, pabelloia Eguzkiak.

Kantau bei danak Maria, bedeinka beye Jaun-
Eskuetatik atera ziran egiñ guztiak, [aren
Zeruetan aingeruak, cta lurrean justuak,
Bero, otz, intz, ur, Eguzki eta izar argiak.

Bedeinkatu beye irestu. oñaztarri ta lañoak,
Lanbro, trumoi, indriska ta truju eta ekatxak,
Izotz. zurda, lei ta txingor, euri, bisuts, zaparra-
Argi, illun, arrats, egun, osgarbi eta gabak, [dak,

Bedeinka euren Errcgiña baso, solo ta mendia-
Landara ta bedartxoak erneagaz batera, [kak
Itxaso, ibai, errekek, iturri, patiñ, aintzirak,
Landa, zelai, ibar, larrak euren Ama ederra.

Abere otzanak eta donga, bizi, sor, uzuak,
Egazti, arraiu, piztiak, bedeinkatu Maria;
Goi-goyetan Serafiñen soñu kantik entzun bitez,
Zeruetan izan bedi Santuen gain jarria.

Bedeinkatu bei seaskan, ume zurtzak kurriska-
Itxasgizonak bagetan, alarguntzan zotiñak, [ka.
Aterik ate dabillen eskekoak ogi billa,
Nekazariak soloan, mendietan artzañak.

Gexo danak deitu beyo erien osatzallea,
Katigu aurkitzen danak, itxien erospena,
Atsekabez dagoanak, bere izar pozgarria,
Ots egin pekatariak, nun daukan parkamena.

Begiraunean dalako usotxoaren antzera,
Aingeruak baño dauka ohea arpegia;
Eguna jayotzan baño askozaz da ederrago,
Bera duin pozgarri ez dn goizetan Eguzkia.

Txito eder dan Dontzell au, jaso daigun gora,
[gora:
Benetan guztiz Santea, Berboarcn Ama da;
Mututu mundu guztiak, il onetan egin danak,
Alegiña ondretako Jainkoaren Laztana.

AMA BIRJIÑA ARANTZAZU'KOARI KANTA

Zoazte urruti gaur neregandik
Munduko gauzen arretak,
Zerukoetan nai duelako
Gozatu nire biotzak;
Eta kantau Birjiña bati
Gloria eta alabantzak.
¿Baña nun ditut orretarako
Egoki datozen itzak?

Billa dezagun, nere begiak,
Kanta berri onen gaya,
Alabatzeko mendi-zale dan
Birjiña miragarria;
Baña ez dakust besterik emen
Arkaitza eta mendia,
Oyek bearko digute eman
Itzaldi onen sustraya.

Ez da mendirik, ain gitxi aitzik,
 Doain onen bat gabarik,
 Euskal-errian guztiak daude
 Ondasun aundiz beterik;
 Batzuek meatzen ugariakin
 Barrundik aberasturik,
 Eta besteak milla irurriz
 Gaisoak osatu nairik.

Mundu guztiak egi andi au
 Ezagaturik txit dauka.
 Augatik dator jendea onuntz
 Osasun billa pillaka;
 Bedeinkatua izan dedilla
 Mendia nola arkaitza,
 Nun osasunak gaitz zitalari
 Kendutzen dion garaitza.

Bedeinkatua, berriro diot,
 Orrelakoxe mendia,
 Ta milla bidar alabatua
 Baldin ango iturria;
 Gaiso mueta guztientzako
 Balitza osagarria,
 Gizon guztiak edan dezaion
 Ur ain estimagarria.

Zergaitik danok geran argalak
 Animaz edo gorputzez,
 Bietan sano edo sendorik
 Ez da billatzen, ez, errez;
 Eder galantak izanagaitik
 Gizonak asko azalez,
 Beren biotzak ¿zenbat alditan
 Egon oi dira naigabez?

Naigabez daukot nik anima ta
 Larri barrundik gorputza,
 Orregatikan iturri artan
 Osatu nai det biotza;
 Maria dala maiz aditu det

Larri ta eatuen poza,
Gure bizitza, gozotasun ta
Baita gañera esperantza.

Berbera dala, Elizak dio,
Ur bizien iturria,
Nundik irtetzen ez dan besterik
Zorion eta grazia ;
Au edateko nere animak
Daukalako egarria,
Billa dezadan iturri ori
Beragan daukan mendia.

¡O! mendi santu goyan dezuna
Ur bizien iturria,
Igoko dizut gallurreraño
Naiz da nik bota izerdia,
Asetu arte nere animan
Dedan egarri andia,
Zein dan gaur bada bisitatzea
Arantzazuko Maria. ,

Atozte, korri, nerekin nasi,
Gaiztoak eta zuzenak;
Atozte gaiso, atozte eri,
Elbarri eta errenak,
Atozte itsu, gorputz gelditu,
Eta beartsu den-denak ;
Baita atozte, demonioak
Barruan dituzutenak.

Arantza baten gañean orra,
Guretzat laguntzallea,
Pekatarien igesleku ta
Gaxoen osatzallea;
Gorputz gelditu ta errenentzat
Berau da ibilpidea,
Demonio ain amorratuen
Izu ta ayenatzallea.

Jaungoikoaren urrengo dauka
Alako alizatea,

Zeruan ela lurrean da au
Gauza guztien jabea;
Mesede danak egiteko du
Gizonai eskubidea,
Jaunak berberak zuen egin ta
Grazia danez betea.

Graziaz sortu, graziaz jayo
Graziaz bizi erazi,
Graziaz il ta, graziaz piztu,
Eta zerura eraiki;
Jaungoiko baten grazia dana
Au da zuena irabazi,
Beraren Ama izateraño
Bakarrik zuen merezi.

Jesukristoren ; O Ama diña !
Bertute danen lorea,
Oien egarriz bizi danentzat
Iturri agor gabea ;
Ona baña gaur izan naizan bat
Ur lizunduen zalea,
Begira zazu, nola gaxotu
Dedan anima nerea.

Aurrera baña, Ama, nai ditut
Edan ur garbi biziak,
Zeintzuek diran ur, guregana
Isurtzen zauden graziak;
Beste gauzarik ¿zer egingo du
Zu bezelako iturriak?
Zoriondu ta sendatu baño
Gaxo ta pekatariak?

Gaxo guztien ; o osasuna !
Etzinik zure oñetan,
Otsez naukazu uagoelako
Gaizki sentidu danetan;
Laguntzeko zu Ama bezela
Guri ditugun premitan,
Badakit ondo ziñala irten
Arantz arbola orretan,

Ortxe zakustaz, Paradisuko
 Arrosa eder gorria,
 Zure usaia bezin gozoa
 Ez da sekula ezitia;
 Dirudizu bai, arantz arteko
 Lirio zuri zuria,
 Mendi arte ta ibarretako
 Lore bat miragarria.

Zu zera Fenix eremu edo
 Bakarlekuen zalea,
 Erreka bizi baten ondoko
 Uso beltzune gabea;
 Irten ziñana iragarteko
 Euskaldun danai pakea,
 Zu zeralako gure erriko
 Ostarku pakegillea.

Pakea bada gorde zaiguzu
 Euskaldun erriko onra,
 Baña pake bat Jaungoikozkoa
 Kristau guztientzat ona;
 Zorioneko izan gaitean
 Erbeste onetan ala,
 Eta zeruan zu alabatzen,
 Arantza gañeko Ama.

GORBEYAKO KURUTZEARI

ERRIAK

*Agur, Salbagillaren
 Kurutze maitea,
 Zuri mun egin eta
 Nai geunke iltea;
 Ezkuan zaitugula,
 Azken arnasea
 Euskal-errian gura
 Dogu emotea.*

KORUAK

Orregaitik gizaldi
 As-barri zarena,
 ¡ Ez dakizu oraindik
 Zer dan Euskalduna !
 Erdu geugaz batera
 Gorbeyen ganera,
 Kurutze bat itzela
 Aintxe ikustera;
 Gizaldi guztietan
 Dogulako gura.
 Andixik bedeinkatu
 Dayan gure lurra.

Asko arrituko da
 Gorbeya ganean,
 Ain kurutze andia
 Bertan ikustean.
 Ogeitamairu metro
 Badituz luzean;
 Jakin beye au dala
 Jesusek lurrean
 Beste ainbeste urte
 Jayota munduan
 Ebazalako egin
 Gizonen artean.

Araba ta Bizkaya,
 Kurutze santua,
 Besapean artuizuz,
 Baita Gipuzkoa;
 Irurak gorde egizue,
 Garbi ta osua
 Jagon dagien fede
 Zar antxiñakoa,
 Jesukristok zerutik
 Ekarririkoa.
 Zoriondutearren
 Beragaz mundua.

Guk bere gura geun-
 Asaben antzean, [ke
 Bizi azkeneraño
 Zure besapean.
 Bizkaitar ta Arabarrak
 Gorbeya ganean,
 Agaitik deitzen dabe
 Gaur zure aurrean:
 Bizi bedi, bai, Jesus
 Beti gure artean,
 Nai dogulako danok
 Il bere fedean.

JESUS ARTZAIN ONAREN TXABOLAKO
 ARDI BAT

Basamortutik itxasoraño
 Jasten da errekatxua,
 Ara doiazan ur pilloakin
 Nastutearren burua;
 Zu barriz zatoz pillo artetik
 Birjiña konturatua,
 Erretirora topete arren
 Zeuretzat bakar-lekua.

Garraren keia ezin egon da

Igo bagarik bakean,
 Euri tantaka ain gitxi goyan
 jo egin baga lurrean;
 Itxas orratza penaz badabil
 Geratu arte nortean,
 Zure biotza ez da baketu
 Klaustroan sartu artean.

Agur bategaz despreziauta
 Mundukeria guztia,
 Zorionean esleidu dozu
 Jaunaren Santutegia;
 Izanagaitik lurra eiztariz,
 Lazuz ta sarez josia,
 Zu izan zara iges egiten
 Jakin deutzazun txoria.

Larra librean larri zebiltzan
 Bildots bildurrez betea,
 Billatu dozu gorde-lekutzat
 Ezin txabola ohea;
 Billatu dozu baita Artzain bat
 Geyegiraño noblea,
 Zeñek idigi deutsu bertatik
 Jo dozunean atea.

Bestela ¿nor da Artzain il danik
 Ardiakaitik munduan?
 Bakar-bakarrik topau dozuna
 Txabola orren barruan ;
 Baleki askok ze bizitza dan
 Egiten bere onduan,
 Emen letorkez bildots pilloak
 Atea joka beinguan.

Artzain ez eze baita Esposo
 Geyetan bere onena,
 Galai ori da, dalako doe
 Ederrez aberatsena;
 Birtute danak beragan ditu
 Jabe da zeru-lurrena.
 Bera dalako Seme Bakarra
 Aita Betikoarena.

Ardiak daukaz Isak'ek baño
Geyago dudarik baga,
Agintaritza Josen aldean
Andi da berak daukana ;
Zeñen onduan utsa legez da
Santson'ek eukan indarra,
Bere ikutuaz izar-Erriko
Arroñak dabiltz ikara.

Odei ederrak ditu kotxeak.
Aize bizkorrak zaldiak,
Izarrik-izar egin dagizan
Bere paseo aldiak;
Pastutzat daukaz askoz gorago
Menditza zoragarriak,
Artaldietan maitien ditu
Zeldran il ziran ardiak.

Usok eta tortolak bere
An dabiltz egan pilloak,
Jesus'i zeldran jo eutsezanak
Urruetatxo gozoak;
Au barriz orain doakenean
Bisitetara basoak,
Abietatik bota oi deutsez
Amore garbiz bertsoak.

Erreñu, erri, zein basoetan
An Jesus ondretan dabe,
Deiturik Santu danen Santua,
Errege danen Errege;
Lenaingeruak auspeztu arren
Bere aurrean umilde,
Zuri eskua eskiñi deutzu
Kunplimenturik bat bage.

Baña jakizu Jaun ori dala
Zeloak artzen nausia.
Biotza euki bearko dozu
Lirioa duin zuria,
Gorputz-usaña dana botata
Espiritukoz jantzia,

Gura badozu izan. Jesus'en
Arditxo maitegarria.

Txabola orretan pasautakoan
Pruebetako denpora,
Artzain orrexek jasoko zaitu
Sorbalдан izarrez gora;
Ango larretan ibilli zaiten
Bildur bagarik nai nora,
Otsoak ezin leikealako
Araño igo iñola.

An ez da bedar bat bere txarrik,
Guztiak dira gozuak,
Ur lizundurik ez dago iñon
Dan-danak edatekuak j
Janari cta edari danak
Osoro osasuntsuak:
Ara bagoaz zu ta gu bere
Izango gara dontsuak.

Ara bagoaz biziko gara
Gau eta egun argitan;
An eguzkiak ez gauz erreko
Emen ein arren sarritan ;
Iratargia ez da gordeko
Sekula bere gabetan,
Artzain Jesus'en arpegi ederra
Ikusten bizi gaitezana.

KANTABRIAKO LARROSEA

Aranlzazuko Izar txit eder
Errañutsua.
Zeru goyetan Jaunaren urren
Zagozana,
Parkatu-idazu lira motel au
Gaur, azarturik,
Jasoten badot zure leku goi
Orretara.

Bedeinkatua ¡o! Euskal-erri
 Orleiz jantzia,
 Zergaitik duzun itxaropen-gei
 Ain altsua,
 Zein dan Zeruko Erregin eder
 Ama maitari,
 Arantz artean larrosa gisan
 Agertua-
 ¡ O! loren lora, nire kantu au
 Arren amarez,
 Ontzat artu-izu, abegi argi.
 Eta txeraz,
 Obeagorik moldau, ipiñi
 Ta atonduteko
 Dagotzun eran kantau daizudan
 Duin ezpanaz.
 Euskal-erriak zor jatzun legez
 Jaso zaizala,
 Bera daukazu zeure oñetan
 Auspazturik,
 Beraz zuregan lau gizalditan
 Ikusitako
 Anditasunak goralduleko
 Ixoturik.
 Berak kantau bei nire lekuan.
 Ama maitea,
 Berak ots begi, berak deadar,
 Berak ulu,
 Berberak dei ta gaur iragarri
 Alde danctau.
 Zelako dontsu emen garean
 Zuregaz gu.
 Berak jarriko deutzu izen bat
 Ain egokia,
 Deiturik zuri, Kantabriako
 Larrosea,
 Zarialako lora guztien
 Lora Erregin,

Jartoki autu zendualako
 Arantzea.

Anbotok pozez ikusten zaitu
 Lora ederra,
 Gorbeiak barrez deutzu artuten
 Gaur usaña,
 Aitzgorri arro dago burua
 Zarden dabela,
 Kerizpetuten Euskal-erriko
 Errcgiña.

Alkarren leyan gure mendiak
 Jasoten dabez,
 Euren buruak zuri begiak
 Ezarteko,
 Bertako artzain bertsolariak
 Egun gozo au
 Dauke, kantuan, Ama, zeurorri
 Eskinteko.

ieste egunak az ez dabe egingo
 Egun au bardiñ,
 Obeto bada, au gura dabe
 Danak ondrau,
 Zergaitik euren Arantzazuko
 Ama bear dan,
 Euskal-erriko Erregiñatzat
 Gaur koronau.

Erri guztiak agertzen dabe
 Poz bat andia;
 Guztietatik Arantzazura
 Norbait dator,
 Aberats andi izanagitik
 ¡O zeinbat oñez!

Nekatu arren euren gorputzai
 Einda gogor.

Dontzella samur begiz batua
 Dator zugana,
 Atx arteetan aldatzik aldatz
 Aloñara;

F. ARRESE BEITIA. OLERKIAK

Ume txikiak gurasoaren
Bizkar gañean,
Mutil ta agurak etxuten zure
Oñetara.

Danak guztiak Arantzazura
Deituten dabe;
Asko goizetik baraurik datoz
Nekatuak,
Zure Semetxo orren gorputza
Sakramentuan
Artutearren, geratuteko
Indartuak.

Kanpaiak oska ;ze goiz, Maria!
Deitu deuskuen:
«Erdue, erdue euskeldun seme
Eta alabak,
Ikusitera zelako koro
Ederra daukan,
Egun onetan jantzi dagian
Zuen Amak.

Erdue bada ikusitera
Ikusgarri au,
Sekula bere etxatzena
Erakutsi,
Euskal-erriak ez deustalako
Len koroerik,
Iñoz gaur legez Patrona gisan
Ospez jantzi.

Erdue, erdue, aberatsak naiz
Bardin pobreak;
Erdue, erdue, txiki, gazte, zein
Nagusiak;
Erdue urte askogaz makur
Zagozen zarrak :
Erdue, erdue batzuek eta
Bai bestiak.

Erdue alargun, erdue ume zuriz
Baita geisoak;

Erdue miñez naibageturik
 Zagozenak,
 Nik osatuko ditut zuen gatx
 Ta pozik jarri,
 Larri ta estu illetaz bizi
 Zareanak.»

Emen gaukazuz, ona ementxe
 Ama maitea,
 Guzti guztiok zugana pozez
 Etorririk,
 ¡O! Rakel eder ¡O! Judit sendo,
 Ester garbia.
 Zure umeok zeure onetan
 Makurturik.

Emen gaukazuz, Kaatabriako
 Larrosa ederra,
 Zelan koroia Obispo jaunak
 Jazten deutzun
 Ikusitera. etorri *gara*;
 Onik aurrera,
 Bere Patrono. Euskal-erriak
 Deitu daitzun.

¡O! zein dontsu dan Ama arako
 Maite dabena;
 Zuro izena zein dan izen bat
 Ain eztia,
 Zeure graziak sendaluko dau
 Argal-unetan,
 Vren arima, aren biotza
 ¡O! Maria.

Iturri-urak dituen legez
 Lurрак samurrik,
 Frutuak emon eragiteko,
 Giro jarten,
 Alantxe dozuz benetan maite
 Zaituenetan,
 Zuzentasunan frutuak sortu
 Eragiten.

Zein maitegarri dirian. Ama
 Ta Erregiña,
Zuk atsedeten, zuk lo egiten
 Dozun dendak!
Pekalariak Erregiña au
 Ondradu daigun,
Ta jaditxiko deuskuz beronek
 Zorionak.

Arren zakioz Jaun altsuari
 Ondoan jarri,
Erregutu ta eskatuteko
 Gaur gugaitik,
Zure bitartez garbitu daizan
 Gure arimok,
Ainbeste erruk an itxitako
 Loyetatik.

Intzentsu erre gozoa baño
 Gozoago da,
Baltsamoaren antzeko dozun
 Erregua;
Augaitik ez da jaditxi baga
 Iñoz geratu
Guretzat guztiz ona izango
 Dan frutua.

Orrexegaitik kontauko doguz
 Pozen pozagaz,
Orrenbesteko errukitasun
 Ugariak;
Euren miritzaz osatu-iguzuz
 Gure biotzak,
Maitasunezko damuz urtuten
 Gaur asiak.

Zugandik utsik euskaldun onak
 Itxaroten dauz,
Baita Euskaldun-erriak bere
 Zoriona ;
Bere jagola lau gizalditan
 Zarean legez,

Orain zatzakoz Ama, Erregin
 Ta Patrona.
 Ots egin daigun, euskaldun danok,
 Bizi dedilla
 Gure zaindari Kantabria'ko
 Larrosea;
 Bizi dedilla, Euskaldun-erri
 Fededunari,
 Bere mantuaz egin dagion
 Kerizpea.

MARIA GUZTIZ SANTEARI

(Bere sorera garbiko egunean)

¿Largau aldozu zeure bidia,
 Izar-erria?
 ¿Mutu biurtu zeure orrua
 Zuk, itxasua?
 ¿Urakan ezain zantarrak,
 Nun dozuez egotzarrak,
 Nun txistuzko deadarrak?
 Nik belarrian ¿zer dantzut bada
 Soñua ezpada?
 Baña soñu bat, berarizkua,
 Ain eztizkua,
 Zeñek naukan zoratua,
 Nok dirudian,
 Ene eretxian,
 Zerutik jatsitakua,
 Ez beiñik bein lurrekua,
 Ain gitxi gizonezkua.
 A... Dabid, Dabid da parebakoa
 Soñu alako
 On jotzallea;
 Bere lirea
 Da entzuten dodana nik,
 Emen ez dago dudarik,

F. ARRESE BEITIA. OLERKIAK

Ez dodalako besterik
Gaurdaño enlzun oberik.

¡O kantolari gorenengua!

Zu, Jaungoikoa,

Alabadua

Zara ainbeste salmugaz,

Itz ederrezko kantuagaz,

¡O zenbat arpa soñugaz

Ni gaur poztuten naz zugaz!

Egun onetan gauza guztiak

Alegeratu,

Aren salmoak gaur, gaur mendiak,

Gaur barriztatu,

Jaso bai, jaso zankoak

Egiñaz gora saltoak.

Arrituak

Ta zurtuak

Geldituak

Jarri zaiteze zeruak

Entzunik beeko kontuak.

Begira zelan gaur poztu daben

Sortu danaren

Sorrera garbiak lurra,

Eta dan oso ziurra

Izango dala

Jaunaren Ama

Ta dan Alaba

Ta esposa-gei laztana,

Bere Tenplutzat ain diña

Berak dalako egiña.

Erdue beera, beera bai beera,

Gure aldera

Onuntz lurrera,

Erdue bai aingeruak,

Itxita goyan zeruak,

Joagaz goiko soñuak,

Makurtutera buruak,

Apal jarririk eguak.

V.—ELIZ KANTAK

Anak dakarren ume sortua
Loi bagakua.
Mirarizkua,
Da txit autua,
Txit esleidua ;
Eba baño askoz obea,
Erru guztitik librea.
Danoen Erregiñea,
Goi eta beeko Andrea.

Zaindu zuek au bear dozue.
Alabaizue,
Dalako bere sorrera
Edo bere asiera,
Uts uts utsik alai ta ederra,
Azpiraturik okerra,
Txerren zital ta muker ra,
Maiten dabena ezkerra,
Engañetan ez alperra.

Bana alperrik, suge gaiztua.
Amorratua,
Eingok orma,
Ire burua,
Zana arrua,
Daukak lertua:
Joan dok ire aldia,
Sortu dok sein bat aundia,
Goizeko izar argia.

¿Nun aleikean,
Suge dongea,
Justiziako Eguzkiaren
Ama danaren,
Argitasuna illundu,
Edertasuna ezaindu.
Edurtasuna orbandu,
Eta pekatuz zikindu,
Egiñik gugaz bardindu?

Ori, ori dok, ori guretzat.
Mundukoentzat,

Egun-sentia,
 Ire illunpeen etsai andia.
 Ire sareen triskalaria,
 Ire ekatxen garailaria,
 Jaungoikozko illargia,
 Eguzkia duin argia,
 Eta bere bekokia,
 Ain garbia,
 Tristeen poztugarria.
 Larritu ari,
 Sierpetzarra.
 Or lotsaz jarri,
 Dragoi zantarra,
 Alper ulu,
 Bardin oyu,
 Zeinda txistu,
 Naiz estutu,
 Ta biurtu,
 Ta amorratu.
 Edo okertu,
 Kiribildu,
 Ta kizkurtu,
 Eta sutu,
 Alperrik eingo az nekatu,
 Mariak au, gaur, apurtu.
 I beeratu,
 Au goratu
 Egingo juat aurrera.
 Kantaurik bere sorrera.
 Dala bakarrik ederra,
 Eta bere etorrera,
 Zorionduna lurrera.

AITA SAN JOSERI ONDRA TA ALABANTZAK

(Neure adiskide maite Agirreko On Domingo'ri)

Intzensoa duin gustagarria balitzakizu.
 ¡O done jose! ope deut/udan ondratxua,

¡Balitzakizu lora barrien lurrunen gisan
Berau atsegin, berau gozo ta gogokua !

Au ezbalitza bere badakit zelan zaituen,
Ni baño izan goragokoak goratuten,
Goragokoen ondoren baña, goragotzeko
Albait goren ni abietan naz lirau joten.

Uda barriak danen aurretik goratzen zaitu,
Iges egiten deutzu neguak guztiz urrin,
Eta izate dana dakusgu jagiten dala
Nai leuskizula abegi on bat zuri egin.

Arantza miñak berdez jantziten asirik dagoz,
Txori tristeak bota dituez lengo penak,
Goizetan uste nik izaten dot alegeratu
Oi dituzala zure egunaren etorrerak.

Kristiñau onak poztu oi ditu zure egunak,
Aberats, pobre, andi zein txiki diran danak,
Ta batez bere adierazo aurten nai dabe,
Egun au jaitzat zelebrauagaz euzkotarrak.

Atso-agura zar zarrak zaukez laguntzalletzat,
Galaiak deutzu biotz garbia eskiñiten,
Eta dontzellak zure altarak bitxiz jantzita
Zeu ondrateko galanto dabez apainduten.

Zarealako lirio gisan loretan loren,
Zarealako ederrez edur antzekua,
Zarealako Bildots ederrak amore-errekaz
Erregali eta erregetakaz edertua.

Berorren ezpan jazmiñezkuak bazituezan
Karmiñez jantzi larrosa gorri usaintsuak,
Zure ezpanak erioela ezti gozoa
Zara emona berorri laztan ¡zelakuak!

Zure zanetan bizitza inkau eban orreri,
Guraso legez emon deutzazu zuk ogia,
Zure biotza arimaz jantzi eutzuna, batzen
Dozu zeuk besoz altzo orretan ¡ze gloria!

Probidentzia exegiten da zure samatik,
Zuzentzen dozu egin guztien Egillea,
Zeuri eskuan mun egitean deitzen deutzazu
Betikoaren Seme danari zeuk semea.

Beko irubat santuan zara gidaila zu,
Aitaren Berbo orrek dantzutsuz zure esanak,
Argi guztien Argitzalleak darraitzu barriz,
Dontsutu arren bere gloriaz zeru danak.

Arpa Soinian goratzen dabe gaur zure jaya,
Jolas aldiak goyetan jatzuz eskiñiten,
Eta munduko alderdi biak alabantzakaz
Zagozan jargoi orretaraño dabe igoten.

¿Nun da beste bat zu legez alan ain goratua?
Izanagaitik naiz bat errege ¿nun da aurkitzen?
Zeru ta lurrak kantau oi dabez zure gloriak,
Dakuselako Jauna zeurorri obeditzen.

Agur ¡o andra danen artean autuarentzat
Zeruak egin zinduan senar duin ta andia!
Agur, Joakiñen eta Anaren alabeagaz
Agur, Joakiñen eta Amaren alabeagaz
Ezkondu ziñan Dabiden seme egokia.

Agur, Eleiza katolikoak gordetzallatzat
Esleidulaku santu eregi goratua,
Ejipton beste Jose zan baño askoz urrago
Errege danen Erregearen ondokua.

Agur, bai, agur, agur millaldiz goiko jauregi
Ederrelako prinzipe dontsu ain argia ;
Agur, zeruko Erregiñaren esposo garbi,
Gorputz ta arima glorieta eregia.

¡GORATU AITA SAN JOSEPE!

Naiz eguzkia izan argia, argiago da
Zuri darizun argitasunen errekea;
Mundu guztiak dazau argiro bere indarra.
Dala arimen lagun ongarriz eskergea;
Zure zaletar, otsein, jarrallak alan daroe
Biotza egin birtute-loren abiea.

Baneuka euren baratzea
Ze zoriona gaur nirea !

Ninduke Josep bai semea!

Bada ezpadak lañotuarren zure burua
Mingoztasunak imiñi miñik tint biotza.

Baña ¿ez ekartsun zerutar batek bere orduan
 Orregaitiño miñ orren ordez baita poza?
 ¡O zeinbat aldiz zentzuzun, Jose naigabetu*,
 Gaintar egari galai galanten berbal-otsa?

Oso lean-leona, ez mingotza?

Gitxik dabena beian goza?

Nok lentsukean euren boza!

Goian edergei ederrenetan ederren zara.
 Justuen kanta kantagarrien kantageia,
 Elizearen Aititan Aita, Aita-lenena,
 Nok jarri daben zure kerizan gaur masteia.
 Atsekabetan gure poz, ezti, atsegin gozo,

Iltean ondo ilteko ongilla nagusia,

¡Eltzean une aiñ larria!

¡Ez daidan topau galmendia!

¡Eukizu nigaz errukia!

Ama Eleiza Santuak zaitu Jaubetzat artzen,
 Goi gora jaso eta buruan arotuten,
 Jose zuzena za reala ko, gizon guztiak
 Goratasuna baño besterik ez emoten.

¿Aita-ordetzat arturik, baña noraño zaitu
 Belengo Jesus Jaungoiko Kristok goratuten?

¡Bidez deutzazu aginduten!

¡Nor beartzen dan umilduten!

¡¡Zendualako mantenduten!!

BERRIO-OTXOA MARTIRIARI

Mutiltxo ziñanetik zenduan agiri
 Zeruak nai eutzula guztiz asko zuri:
 Zeurez ziñealako otzan eta garbi,
 Balentin, il ziñean azkenez martiri.

Asieratik ziñan eskolan argin,
 Ikaslera emona, aituten zolia;
 Ikasiai gomutan eusten azkarria,
 Ontasunean barriz danen nagusia.

Osasuntsu zentozan baita gorputzean,
 Osasuntsu arima guztiz ederrean;

Erregu egiteko Jesusen aurrean,
Illunez goiz gazterik jagi oi ziñean.

Dominiko bat gero latiñez maisua
Izan zan zuretzako bere bizikua;
Nondik urrean egin jatzula gogua
Dirudi izateko bere artekua.

Arrezkero beiñik bein siñistu giñaike,
Nai zenduala izan dominiko praille;
Aitak ezpeban bere olakorik uste.
Gura zinduzalako seme laguntzalle.

Iru urte terdian ak aldamenean
Erabilli zinduzan beragaz lanean;
Zoli arotz jardunaz aitaren mendean
Iruditu zenduen Jesus bearrean.

Ikusten ebalako baña zure naia
Errelijioarako ain zala andia,
Ezagaturik emen zerutiko deia,
Aldatu jakon oso bere eretxia.

Pentsau eban abade beintzat egitea,
Logroño'ra ikasia baita bialtzea ;
Naiz izan goiko notak bertan aterea,
Beti izan ziñean zu bioletea.

Beti goiko graziaz lirio zuria,
Beti zeure barrutik larrosa gorria;
Beli beti zalako laba bat gorria,
Jaungoiko maitasunez sutua guztia.

¡ O ! Seminarioko zure bizitzea !
¡ Norbait nozik nozera doian aldapen !
¿ Nor urrengo izango da ain neke-zalea ?
¿ Noz ? nola ? nondik ? nora ? ta nongo semea ?

Banaka eltzen dira. Balentin, ain gora:
Lurrez egiña da ta astuna gizona;
Arimaz ziñalako aingeru bizkorra,
Egan zenduan baña zuk ein Olinpora.

Bai. arañoxe ziñan, Balentin, zeu eldu.
Nor izan leitekean zu legez aingeru;
Ezpada egin bedi Logroñon ilandu.
Non igarri eutzuen ziñeala Santu.

Baña, iparra topau artean orratza
 Dabil larri, artega, baita ikaraka :
 Bere Iparra topau arte gelditzeka,
 ¿Zelan etzan biziko zuk zeukan biotza?

Abade egin arren, etziñan asetu,
 Etzenduan Logroñon norterik billatu:
 Non egin bear eutzuen biotzak geratu,
 Aita Morey-k garbiro eutzun ezagutu.

Zirautzun egotzula Okañan sartzea,
 Antxe dominikoak eukela etxea;
 Norako zuk zenkarren egarri luzea,
 Non baita topau bere zenduan bakea.

Non irago baiño len epe bat luzea,
 Etzan gatx zuri usain ederra artzea;
 Zalako zeure biotz ain errubagea,
 Jesukristoren lora danen baratzea.

Ango arautegia zintzoro jagoten,
 Ez eutzun beste batek aurea artuten;
 Dana jatzun leun, gozo, ezti an erexten,
 Oitua ziñalako mirria irunsten.

Benetan eder eta zoragarria da.
 Udan lorategia loraz jazten bada;
 Baña, zu ederrago profesau ziñala.
 Apostolu eginda, zoaz Manilara.

¡ A ! ango dominiko anaien artean,
 Taborren lenengoan aurkitu ziñean;
 Baña Martitzen Santuz Tonkiñen eltzean,
 Jetsemanio kaliza prest zeunkan aurrean.

Andia zan orduko persekuziñoa.
 Gobernadorea zan tigre gisakoa;
 Kristiñauen odola barriz ain gozoa,
 Ilteko bere egarri Neronek lakoa.

Diñozu egozala Siongo bideak,
 Lutoz, baltzez jantzirik, illunik, tristeak;
 Kobetan eskutaurik zotinka abadeak,
 Goiko laguntza eske naibagez beteak.

Zorionean baña, ara jo zenduan,
 Non egin zinduezan Obispo beinguan :

Non artzain bat geiago bear zan orduan,
Ardirik etzedin il otsoen aguan.

¡Zeinbat iru urtean zenduan ikusi!
¡Zeinbat ardiai emon, zeinbat erakutsi!
¡Zeinbat iraun eben il artean zoli,
Zugaitik berbak beti eginda Kristori!

Azkenez zeuri bere ebagi burua
Eutzuen idunetik, Obispo Santua:
Zeruan gozetako mitra obagua,
Eta martire palma eder betikua.

¡O! Apostolu andi ta konfesorea.
Martire santu barri, euskaldun ondrea.
Lagundu egiguzu asaben fedea
Il ez, ta biztn dedin gure Arbolea.

JAUNGOIKUAREN ESKUA

(Amairu-garren Leon'i ogetabost urte Aita-Santutzun egitean)

1

Goratasunen goratasunak
Umant bateri gaur emon,
Poztu gindekez, pozez gañezka.
Pozen pozetan bere egon;
Pozik pozaren poz andiagaz
Amairugarren dan Leon,
Daukagulako Ontzia zaintzen
Egite arren geu jagon.

Lenago geunkan Pio ill zan da
Ordeko bere lanetan,
Leon piloto zolia da ta
Ez dago bildurtu zelan;
Onek timoia daukan artean
Beso biakin benetan.
Euki daikegu biotza zabal
Ekatz zein aize dongetan.

Garraz, tatarrez, baita tatarraz,
Aurrean garratzak pillak.

Aize otz-otzak, ipar zorrotzak,
 Otz бага odei otsgillak
 ¿Badaroakuz, eta osgarbi
 Jarrean zero urdiñak,
 Osoro poztzen eztauz gabetan
 Bidea galdu egiñak?

Larratu arte larra goietan
 Larri daroaz ardiak,
 Larregi zañak maite baditu
 Naiz larrez mindu oin biak,
 Eta ¿zelan ez , gura ezpadau
 Paduran galdu erdiak?
 ¿Eztauz artuko mendi eskerga
 Eregiaren egiak?

Izar danetan Febo daukagu
 Buru ta ugazabea,
 Lau oindun danen artean legez
 Danen nagusi legoia:
 ¿Zelan ez kantau ogetabost
 Urte oneitan gurea
 Dala Erromak etxian daukan
 Aita zar urtez betia?

¡O! gure Aita. Maisu, Iparra!
 ¡O! Pilotorik onena!
 ;O! Elizako goi urdiñean
 Izarrik eregiena!
 ¡O! gure Artzain ta agintarien
 Artean lenen lenena!
 ¡Ze zorigatxa zure soldadu
 Izan nai eztabenena!

Bai, zu zaitugu guztiok Aita
 Eta guraso lurrean,
 Ill arteraño nai geunke bizi
 Zeure etxadi maitean,
 Giltza andi ta sendo orreikaz
 Eriotzea eltzean,
 Goiko ateak zeuk zabaldua,
 Zeruan sartu gaitean.

F. ARRESE BEITIA. OLERKIAK

Baita zu zara Maisu argi bat,
Guri irakastekoa,
Zure jakintza dana dalako
Zerutik jatsirikoa;
Bestelan zure erakutsiko
Liburu arritzekoa,
¿Ez da garrezko liburu eder
Itsua argitzekoa?

Bai, zure berbak Ipar-aizea
Legez dira me zorrotzak,
Desegiteko gizon askoren
Buruetakoa lañotzak;
Ainbeste aldau eze zure itz
Leun me bein bere ez mingotsak,
Eragozteko erreñuetan
Jausten eurizko odoltzak.

Baita zeu zara piloto argi,
Bestelan gure Ontzia
Onezkero zan aize txarrakaz
Atxak jo eta ausia;
Baña gietan daukazulako
Jakituria andia,
Doaku zuzen bere bidean
Ain tresna miragarria.

Baita zeu zara Zeruko zuzi
Gaurik bagako argia,
Zure argietan bizi dalako
Kristoren gizon guztia;
Iruerlzeko Eguzkia da
Zure argitzalla argia,
¿Zure erdian berak eztauka
Itxiten ez dan begia?

Baita zeu zara artzañen artzain
Baña ain artzain argia,
Begiratzeko nai noz bitzui
Zarealako zolia;
Bestela zeñek gaurko ntsoai
Sartu ikara larria?

Zu ezpaziña Legoia bera,
Pistien bildurgarria?

Baila zeu zara, munduak baki,
Agintari ta errege;
Baña koroia gaur ostutea
Diñoie ei dala libre;
¿Libertadeak libertadea
Emoten badau ainbeste,
Euskeraz ez da ondo esana
Gogorrena da alkate?

II

Nor leitekean gitxienez gaur
Parnason izan ezauna,
Amairugarren Leonen gisa,
Nor musa danen laguna,
Idigi daisten irudimena,
Zentzunagotu zentzuna,
Argitu adimen, bekor-bekor au.
Itsu, odeitsu, illuna.

Enaz ni baua Joakin Pezzi bat,
Gitxiago naz Omero,
Ezta Zizeron, Salustio, ta
Euskalerriko Obidio.
¿Non barriz Dante? non Birjilio?
¿Nondik norako Orazio?
¿Ausaz Atenas eskolatsu da
Ikasteko Otxandio?

Eztakit latin, ezta greziar,
Eta ez ondo erderaz,
Augaitik deusat seme alabai
Beti egiten euskeraz;
Erriko eskola gitxia dakit,
Ena/ argitu bestegaz:
Gizon aberats ¿zein, zelan izan
Noz Ia non diru bategaz?

Ez uste iñok mendi koskorrak
Ura daukola ugari,

Ez uste bada kandela motzak
 Luzaro leiala argi,
 Ez uste txankaz motz eta zarrik
 Leitela asko ibilli,
 ¿Egunez zelan nei Durangotik
 Ia joan da elorri?

Agaitik dakit neuk ikusita
 Urkiolako mendiak,
 Neguan busti egin ezean
Unetaraño erraiak,
 ¿Etxakoz udan asko mutiltzen
 Iturri urri murriak?
 ¿Bakarrik kantau egin bearraz
 Eztira aurkitzen txoriak?

Gaur ¿nondik izan naikoa bere
 Lekit barruko ontzia
 Pill, pill. ta klan, klan eta tantaunka
 Antxiña dan au asia?
 ¿Baldin nekatu egin bajako
 Lengo eztarri zolia,
 Non goratu leit dain daneraño
 Leon goratugarria?

Goratuko zaut, baña, alanbere
 Tantai zar berde berdea,
 Mundu guztiau kerizpetzeko
 Dalako zeure zeurea;
 ¿Nok asmau eban zuen armetan
 Bere zugatz bat jartea,
 Zerura eldu agiñik zeñek
 Dakarren bere puntea?

¿Nok asmau eban bere atzea
 Urdin zedilla ipiñi,
 Bere gañeko eitamu danak
 Garbi daitezcan agiri?
 ¿Zertako dauka izar bat goian?
 ¿Zertako beian lora bi?
 Osiarku gisa gerriko batek
 ¿Zertan daroa ebagi?

Erantzun begi ni lego naz d
 Orrelan danak zolia,
 Erantzun begi an badakusan
 Jaunaren esku garbia;
 Leon badazau esan bei oso
 Susmetan daben guztia,
 Ta baietz e9an an dakusala
 Ezkutapen bat andia.

Lego naz. baña, neuk bere bakit
 Dala fedeko egia,
 Legokeala Jaunak nai baleu
 Lo legez mundu guztia;
 Orri bat bere zirkinduteko
 Bear bada aren grazia,
 ¿Zer bearko zan atonduteko
 Eskudo ain miragarria?

Esan daiala gizon lurkorrak
 Gura dabena gaur esan,
 Nik kantaudo dot etorkizuna
 Garbiro zeñek dakizan ;
 Jazotekoak jazoak legez,
 Zeñek aurrean daukazan,
 Izana, izaten, izateko ta
 irurak non bat jakozan.

Eta ¿ez dira jazoko barriz
 Zeure agintza garbiak?
 ¿Lenago ustel badabe emongo
 Mundu ta zero andiak?
 Iruzur eta lau mutur bere
 Egin bagarik guztiak,
 Ixill ixillik argira emonik
 Bakotxa beren aldiak?

Alperrik dabil gizonik asko
 le bi milla urtean,
 Eleizearen Ontzi ederra
 Ondatuko ustean ;
 ¿Jesus badago beti guregaz
 Nor gure kontra lurean?

¿Ez al dakiguz arek esanak
Pedrori egun batean?

¿Ez al dakiguz jazo direan
Goibera andietatik,
Gaur tronuetan dagozan asko
Biar eskean lurretik
Ibilli dala? Ezpada entzun
Eta bildurtu bertatik
Ak ziñoanaz antxiña antxiña,
Isaías baten agotik.

«Bai, etorriko dira Zugana
Arerioen semeak,
Zure lorratzai mun egitera
Makurrik biotz bageak;
Eta Zugana lotzen ez tiran
Naziño-Erreñu guztiak
Desagertuko dira lurretik
Batzuek eta besteak.»

BIZKAIKO PATRONA EDO JAGOLEARI BERE EGUNEAN

¡O! Zeruko soñuzale Serafín egalariak.
Dontsutegi zabaletan urrcgorrizko arpaz
Zeuen Erregiñeari orain euskeraz kantetan
Zabiltzenak pozen pozaz atsegiñak emonaz.

Kantaritzako dozuen aduaren izpitxo bat
Betor eta sartu bekit barrura garaunetan,
Betorkit tximistatxo bat, crraietara eldurik,
Biotz au ipiñi daistan sutu eta garretan.

Garrez garbi gardendurik gaur ene espiritua
Uts urdiñetan dakidan eregi nora gura,
Idargitik Eguzkira ta izarrez arutzago.
Bizkaiko Jagoleak an daukan bizilekura.

Izar-errilik arago fedeagaz ikusten dot;
Sollik izar arro danak baño da argiago:
Dontsutegian bere da Jesukristogaz ostan,
Ikusteko danak baño ikusgarri geyago.

¿Zer da gure Eguzkia? ¿Zer da barriz Idargia?
Gaurik urdin onenean, ¿zertzuk dira izarrak?
Zure mantu zabalean edergarritzat jartean,
Azkenenguok esan lei direala txitarrak.

Zuretzat pabelloe bat geienez Eguzkia,
Oñen atsedean lekua bakarrik Idargia,
Aingeru egalariak, andiak eta txikiak,
Danak dozuz serbitzari, esaneko, guztiak.

Zugan Egilleak berak berariz jarri zituzan
Edergayen iturriko edergarritasunak,
Eguzkizko gorritasun, edurrezko zuriera,
Zeruaren urdin antza, loren loratasunak.

Bera zoratzeko duin dan daukazun galantasun-
Ainbestean intsigidu eban Jauna zugana. [ak
Zeu galantuteagaitik osoro agortu eban
Bere jakituriaren itxaso sakon dana.

Zugan berak jarri eban eukan al izate dana,
Apaindura guztiakaz egin arte apaindu;
Askok esan leien legez, zu bagarik Jaungoikoa
Ezin al izango zala aurrerantzean dontsu.

Zuregan beti betitik Jaunak begiak ipiñi
Ebazan ta egin eban bertatik irri-barre;
Egintza danak eukiko ebazan edertasunak
Ekutsazan zugan danak ta askoz geiago bere.

Zu zara ain ornidua besterik ez lakoxea,
Al izatez aren altsu guk ezin neurtua;
Esan gengi ezpagenki, beste bat badagoala,
Bizkaiko Jagolea da Zeruko Jaungoikoa.

¿Ze zoriona daukazun Sorterri maite maitea!
Cure Jaun Jaungoikoaren Ama gaur Jagolatzat.
Jaungoikoa euskal berba dan legetxe, izan zaite
Euskaldun beti, beti, Ama andi orrentzat.

Euskalduna da Artagan, euskaldun garbi Begoña
Ta gure Jagolcaren menpeko dan Bizkaya;
Euskaldun da Artagani azpitik zear doakon,
Itxasoan sartu arte, Ibaizabal andia.

Beraz nik euskeraz kantau bearko deusat ga-
[ur egin,

Aian eskatuten dabe zerzeridade danak,
Baña, zelan enazan duin, bear legez kantetako
Kantau bere gauza diran egitade dan danak.

Ez dodalako kantau nai mundutarrcn gloria-
[rik.

Kantau bai. baña, ez kantau beko anditasuna:
Kantau baña, ez lurreko azaña ta kondairarik.
Zerren onelako kantan uts daben goitasuna.

Ez dot gura nire kantok jardun daitezcan lora-
[kaz.

Lorak kantau daien nai dot kantau gura dodana:
Danak kantau daicu nai dot kantarik eregiena,
Ondraurik gure Jagola kantagarrien dana.

Kardintxak erramen puntan txistueta zoliakaz
Jaunaren gloriak pozez kantauagaz batera;
Kantau daien kantau nai dot txorrotxiozko kauta-
Kantageien kantagei dan Ama Begoñatarra. [kaz.

Mitxeleta jira zale urregorri antzekoak
Terziopelo ta granaz egotxoak jantzirik,
Agurtu ta bedeinkatu begi Jagola ain dontsua.
Jagola onek daukalako Sortitza zoraturik.

Jagola oni emon beio zuritasuna azuzenak,
Jireuzkiak opa eta eskiñi modestia;
Tulipan zarden zuzenak eguzkiaren islea.
Bioleta umiltxoak gozotasun ezta.

Lirioak Jagola oni emon begio lurruna,
Errurik eza begio aleliak saritu:
Nardoak, krabeliñeak, platano ta larroseak.
Altarea apaindurik, Jagola auxe goratu.

Iparrak Jagola oni bekartsaz loren usañak.
Palma ta iiak eskiñi zizpiru arintxoak :
Aixeak putz ots biguna, mendiak edur batunak.
Emon beioz koral. nakar ta periak itxasoak.

Izar-erriak begio bere petik jira egin,
Edertu beioz galanto matrallak goiz gorriak ;
(ideiak ein jarlekua, Idargiak oñak jantzi,
Jaunak koroia atondu, pabelloia Eguzkiak.

Kantau bei danak Jagolau, bedeinka beye Ja-
Eskuetatik atera ziran egun guztiak, [unaren
Zeruetan aingeruak, lurrean zuzen justuak,
Bero, iñontz, ur, eguzki, izar ta idargiak.

Bedeinka beye irestu, oñeztarri ta lañoak
Lanbro, josluri, indriska, truju eta ekatxak,
Lei, karraldo, euri, txingor, bisuts otz ta zaparra-
[dak,
Argi, illun, arrats, egun, osgarbi, ta ain bagak.

Bedeinka gure Jagola Bizkaiko mendi ta atxak,
Baso, solo ta landarak erneagaz batera,
Itxaso, ibai, errekek, iturri, patin, aintzirak.
Ibar, landa, aldats, larrak, gure Jagola ederra.

Abere olzanak eta donga sor bizi uzuak,
Egazti, arraňak jaso Begoňako Maria ;
Goi goietan Serafiñen soñu kantak entzun bitez,
Zeruetan izan bedi Santuen gain jarria.

Bedeinkatu bei seaskan ume zurtzak kurriska-

Itxas-gizonak bagetan. alarguntzan zotiňak,
Aterik ate dabillan eskekoak ogi billa,
Nekazariak soloan, mendietan artzaňak.

Gexo danak deitu beyo mindunen osatzallea,
Katigu aurkitzen danak, itxien erospena,
Atsekabez dagoanak, bere izar pozgarria.
Ots egin pekatariak, non dauken parkamena.
Begiraunez dalako usotxoaren antzera,
Aingeruak baño dauka ohea arpegia,
Eguna jayotzan baño askoz da ederrago,
Bera duin pozgarri ez da goxfan Eguzkia.

Txiro eder dan Dontzellau jaso daigun gora
[gora,

Benetan guztizko dontsu Berboaren Ama da:
Mututu mundu guztia, Bizkayak egun onetan
Eregi dayen beraren Jagola ain laztana.

KURUTZEAREN BEDEINKAZIÑOKO EGUNEAN

Odolez nazalako oso euskalduna,
Gogoraziño batzuk jatorlaz burura;
Gorbeia gañetik gaur eurok deitu gura
Neukez, eta ¡o! banintz berba zoliduna,
Beietan dagozanak dearrok entzunda
Ipiñi daien onuntz belarria zurra.

Ekatzuez, txoriak, gaur txio gozuak, *
Usoak, urnieta leun ta eztitsuak;
Ekatzuz, itxaso, orroe sendoak,
Odeiak burnindara bildurgarrizkoak ;
Nai dot izan daitezán danetarakoak,
Nire aotik urten nai daben bertsoak.

Baña obeto lagun daistala Zeruak,
Orren doiak emonak dira Jaungoikuak,
Danok egin zituan beraren eskuak,
Itxaso, txori, uso, lur, atx ta basuak.
Aize, odei, justuri, gizon ta aingeruak,
¿Zeñek barriz egingo ebazan zeruak?

Jauna, auspeztuten naz goiz eta gabeán
Zure egin ederrai begiratutean, •*•
Baña naibagetuten gizona ikustean,
Arrotuta jagirik bere ezer ezean:
¿Zer da egin koskor au bizitzan lurrean,
Zuk zeure eskuagaz ez lagundutean?

Zure laguntzaz, Jauna, nire eztarriak,
Esango aldauz eraen berba eregiak,
Nai dodaz bada kantau Erriko gloriak ;
Entzun egidazuez, euskaldun anaiak,
Izan dakizuezan gomutagarriak.

Euskaldun jaio giñan ta euskaldun azi,
Euskeraz euskulako amak erakutsi.
Euskera laztan maite, zabiltz gugaz beti,
Euskera il ezkeró ez dogu nai bizi,

Baña lenago ilgo gara Jesus gaiti.
Bera il egin zalako lenago gugaiti.

Maite zaitugu lenen Gizon Jaungoikua,
Laztanduten dogula zure Lauburua,
Urrengo mailan gero lagun urrekua,
Baita jaio giñean lur eta lekua,
Au dalako gauza bat on ta bidezkoa
Izan gura ezpada erritar gaiztoa.

Maitetuten zaitugu Jaungoiko Eroslea,
Gomutetan pasiño zure eskergea,
Goizetik ein badogu onako bidea,
Artu arren igoten andia nekea,
Zure amodioak ¡o! Jesus maitea!
Igo eragin deusku aldats ain luzea.

¡O! Kurutze ederra, ona ¡gotean
Zurtu gara, ain andi zu billatutean,
Ogeta-amairu neurkin badozu luzean,
Ezautu dogu dala Jesusek lurrean
Beste ainbeste urte aragitutean
Ebazalako egin gizonen artean.

Ze asmo ederra zan izan gauza ori,
Zerutik norbaiten jakona etorri;
Datorrelako oso arira berori
Txalo bat eiten deusat emendik jaun orri,
Baita egintza onen zuzentzalleari,
Amaitu dabelako guztia ogoki.

Baña goazen aurrera aldasdun arloan,
Goazen mallarik-malla. ez launan beingoan,
Berbazko lora sorta bat daukat buruan,
Jarri nai dot bakotxa malla adiutuan,
Belarrira ots ona dagien soñuan,
Euren tandea eldu oi jaken orduan.

Bai, iruleak bere gerrian gorua
Dakar aren buruan jarrita amulua;
Baña zelan ipiñi nik dodan kirrua,
Aria nai neuke egin seda antzekoa:
Meia, leuna, erbatz ta trenpil bagakoa,

Luze barriz lurretik Zerurañokua.

Bizkayak gozau badau beti zoriona
 Da euki dabelako Gernikako Arbola,
 Zein dan bedeinkatua deituten jakona :
 Jaso ezpaleu baña Kurutze bat gora.
 ¿Non bera egingo zan orren illezkorra?
 ¿Zetatik izan ezkur ain onak emona?

Ogeigarren gizaldi-Kurutzearena.
 Bizi dakigun zure gomuta ederra.
 Gorbeiarra gaur gara igo ikustera.
 Kurutzeko bandera Jesukristorena
 Ikusirikuetan benaz andiena.
 Bizkayak ta Arabak eregi dabena.
 Kurutzearena da Euskaldun Erria,
 Fedea daukalako kristiñau garbia,
 Beragaitik emongo leukela bizia.
 Jesus izan zalako kurutzan josia.
 Euskaldunak berari deutsa zor andia.
 Gorputz, arimea ta daukan on gu/lia.

Nai leukie gaiztoak mundutik kentzea.
 Ainbeste gizaldidun gure estandartea.
 ¿Arbola bedeinkatu parerik bagea.
 Izan zara ta izango il arte gurea,
 Zarealako Jesu-kristoren giltzea,
 Zeugaz edegiteko Zeruko atea !

Dontsu ziran augaitik gure alderdiak.
 Siñiste santuz beti zirala biziak;
 Alan eukazan lege zoriongarriak,
 Non ez eban topetan iñoz erejiak
 Lekurik loituteko euskaldun gloriak,
 Zeintzuk ziran badakiz gaur mundu guztiak.

Kurutzeagaz il zan Aretx zar maitea.
 Kurutzeduna dogu Gernikan semea,
 Kurutzedun badogu beti Arbolea,
 Ez da sekula ilgo asaben fedea;
 Alperrik infernuak beti ein gerrea,
 Azkenerako goia dalako gurea.

Garbiro ezagun da asaba maiteak
 Bizi ta il zirala kurutze-zaleak;
 Osterantzean, ¿nondik doguz goi ta beiak
 Antxiñetatik emen kurutzez betiak?
 Ta baldin ezpagara gu euren semeak
 Esan begi, Gorbeia, zure kurutzeak.

¡O! tantai guztiz garaieta eskergea!
 Gloriako zara gure igobidea,
 Oña lurrean eta zeruan puntea
 Dozula, dirudizu zuk eskillerea,
 Jakobek ikusia baño askoz ohea,
 A zan aingeruena, zu barriz gurea.

¡O Arbola santua, dingilizka euki
 Zenduna gure Ona iru untzetatik!
 Gatxa sartu bajakun arbola bateti
 Osasuna zugandik dator Jesusgaiti,
 Agaitik zure frutak jan nai geunkez beti
 Betiko osasuna al daigun jaritxi.

Zugatz frutaz garratza, usañez gozoa.
 Zure garauna oi da beli mirrazkoa,
 [Nok ale orri artu leikeon gustoa!
 Arren, egin gagizuz, Jesus Gizondua,
 Mirra-zale, itxirik ezti lurrezkoa,
 Heti zu ziñalako mirraz mantendua.

¡O! Abe kristiñauen pozgarri bakarra,
 Eretxiten zaixataz or portuko garra,
 Itxasoan elduten jakunean gaba.
 ¿Ezkara zuzenduko bertatik zugana?
 ¿Gure illunpetako zuzia bazara,
 Gorbeian gaur agertzen zarean izarra?

Eguzkiak biguntzen dau argizagia,
 Negarretan ur egin edurra zein leia,
 Poztu geisoa eta pobre errukarria.
 ¿Zer daikezu zuk, egin kurutze andia,
 Erakutsi besterik bide bat garbia,
 Garoazana artzera betiko gloria?

Bai, orratza darraiko beti imanari,
 Ogi eske legetxe umea amiari,
 ¿Eta non nai ez izan guk kurutzeari,

Bertan il zana bada guretzako ogi,
Edaria ta geixo danen osagarri,
Maisu, lagun, bizitza, bide eta argi?

Beintzat emoten dogu Gorbeian berbea
Beti maitetuteko gure kurutzea,
Bera Golgotaraño pozik jasotea,
Odolaz bear bada baita gorritzea,
Serbitzearren leial Jesus Erregea.

Mats parreak elduten deutsa egurrari,
Untz erioz ugariak bardin ormeari:
Gure besoak gura deutse kurutz orri;
¡O! balira ori ta eurok galda gori
Batzandu egiteko guztiok berorri
Soltau baño geiago daiezan ebagi.

Ator, mundu arro ta aragi uzua,
Ator, irugarren infernu sutsua.
Eskuan bajoagu ain arma altsua
Jesusek itxiriko Kurutze Santua,
Iru arerioai ausirik burua
Gorbeian kantau daigun garaipen osua.

Agur, itxas-legoioi, beti urrumaka
San Pedroen ontzia iruntsi guraka,
Emeretzi cunkitan derautsak adarka;
Ekin aurrera bere nai badok indarka;
Baña garaitu baga joan dok amaika.
Betiko garretara ¡a! ze zorigatxa.

Bestela non zare gaur, non zare Neronak,
Non Dezioak eta Dioklezianoak.
Non Arrio, Kalbino, eta Luteroak,
Non az Bolter, non dituk ire ingurukoak?
Munduaz bat iraungo jok Aita Santuak
Ezin leyalako uts Kristok aginduak.

Entzutetsuak zare, Ararat ta Sinai,
Oreb, Tabor, Golgota, ¡o! zuek bere bai.
Gorbeya bere izan dedin aurrera nai
Geunke, izan dalako Kurutze onen gai,
Nok diñotsen emendik euskal erri danai,
Belarriak isteko gaurko maisu txarrai.

Erdu, gure gizaldi fede gitxiduna,
Zatoz, eta ikusi zer dan euskelduna,
Erdu gaur Gorbeiera gendulako gura
Lauburugaz apaidu beronen gallurra,
Emendik kerizpetu dayan Euskal-lurra,
Mundu guztian dana Fedez ezaguna.

Araba ta Bizkaya, Lauburu Santua,
Besapean artuizuz, zaindu Gipuzkoa,
Emengo Naparroa ta goixaldekoa,
Lapurdi eta bardin baita Zuberoa,
Zazpi seme galantok euren gurasua
Dabelako Euskera, Adanek sortua.

Bai, Euskera da ustez urte geienduna,
Berandik dogu ziur guk semetasuna,
Beraí bear deitsagu izan maitasuna,
Fedez, berbaz, ekanduz, legez, al doguna
Einda, urrinduteko erdalduntasuna,
Gozau daian Euskerak lengo osasuna.

Baña, ¿non zare bere ume ain dontsuak
Lege zar on euskaldun ta jaungoikozkuak?
Mendiok zutik dagoz, zuek lurpetuak,
Txarrago, gomutatik bere urrinduak.
¿Ain andi ete dira euskal pekatuak
Emen egin diranak erderaz nastuak?

Baña, gauza bat nai dot nik esan egia,
Beti onak daukala ezin ikusia;
Ez-pabere Kaiñi ipiñi begia,
Ea Ab'eli beutsan arek inbidia.
¿Bestela zeñek itxi gixajo andia
Eban bizitza baga lurrera czarria?

Anai iltzalla zeken, Kain txar andia,
Erri askotxok dauka zure irudia,
Inbidiadun etzan iñoz gure Erria ;
¿Baña berea zaintzen naiz izan zolia,
Ama bat beti ez da arduraz andia,
Jagoteko umeai dagoken guztia?

¡O ! Ama zarren zarrez makurtu egiña!
¡ Euskera, urteen urtez zardendu eziña !
Jaungoiko Egiagan ipiñirik oña,

Legegintzan ziñean ain asko jakiña,
 ¿Zein Erri zan, zein Erri, orretan za aña?
 ¿Zeñek, zelan, noz ta non artu eutzun gaña?

Israel Euskaldun au, Kurutze Santua,
 Adoretan dagotzu belaunikotua.
 Mirariturik dozu begira Zerua,
 Jantzirik orretako urdiña mantua,
 Ondreta arren ondo zure jai dontsua.
 Euskal-Errian iñoz ez ezagutua.

Emen isten zaitugu. Lauburu maitea,
 Utsik, soilik, ixilik ¿ze bakartadia!
 Baña txori politak, zuen ardurea
 Izango alda, arren, berau zaindutea,
 Eskerrak egunero pozik kantatea,
 Jagi eta altzatean izar Erregea.

¡ O ! izarren Errege, zuk bai, Eguzkia,
 Goixen Lauburu oni zuzendu begia,
 Arlu dagitzun pozik zeure abegia
 Edo egun onaren agur pozgarria,
 Gabera arte ikusten deutzula arpegia
 Izan dakion jargoi egoki Gorbeia-

Baita, izar ederrok, zuek arratsetan
 Begiok sarri josi Lauburu onetan,
 Non zuen Egillea egon zan miñetan:
 Adorau noizean bein beraren gomutan,
 Lenengo banderatzat ebela altzetan
 Aingeruak gorengo berau zeruetan.

Azkenez, zu. Gorbeia, atzaita, arren, jausi.
 Mundua-mundu buru zarra zutik euki,
 Gorputz indartsu ori zarden gorde beti,
 Tontor orretan dedin kurutz ori bizi,
 Nai doguna adorau guk errietati,
 Bedeinkatu gagizan berorrek emeti.

¡ Agur! salbaziñoko gure Ankorea.
 ¡ Agur ! ¡ o ! Gorbeiako gure esfandartea :
 Eskuan zaitugula, Kurutze maitea,
 Zuri laztan egiñaz, azken arnasea
 Euskaldun danok gura geunke emotea.
 Eta zure gañetik Zerura igotea.

GORA IÑAZIO TA IÑAZIOTARRAK

¿Nun da arako gizon,
Umillik burua
Dakarrena, itxirik
Albora Mundua.
Bizilekutzat nairik
Toki ezkutua,
Laguntzat nai dabela
Beti liburua,
Ezpadago egiten
Erregu Santua,
Bigunduteagaitik
Zeru gogortua?

¿Nor da arako gizon
Zoli dagoana,
Gau eta egun beti
Egiteko lana,
Lagun urkoarentzat
Onerako bada,
Eriotzeagaitik
Bildurtzen eztala,
Erakarteagaitik
Itsua argitara,
Ta bizitza onera
Dongea ta txarra?

¿Nor da arako gizon
Kolorga zuria,
Abadeen antzera
Baltz utsaz jantzia,
Aratu nai dabena
Mundua guztia,
Ercitearren nai non
Fedeko azia,
Oinpeturik guzurra,
Jasorik egia,
Emotearren beti
Jesus'i gloria?

F. ARRESE BEITIA. OLERKIAK

¿Nor da, aor da gizon b
Otzan ta mantsua,
Nor bigun, gatzik baga.
Ardia lakua,
Arerioen kontra
Aurrera arlua
Daroiana, egiñaz
Gerra bat santua,
Alperrik bere kontra
Jarri infernua
Baita beragaz naste
Sarritan mundua?

Onezkero edonor
Dago igarrita
Nai ta ez gizon ori
Dala Jesúta,
Geutarra dogulako
Barriz euren aita,
Orregaitik goratu
Daigun uluz deika,
Odeietatik gora
Bera eregita.

¡Gora! ¡Gora Iñazio!
Gipuzkoatarra.
Odolez zareana
Baita bizkaitarra.
Goyan zagozalako
Euskaldun izarra.
Entzun eiguzu, arren,
Gaur gure deadarra.
¡Bizi bedi Iñazio,
Geure erritarra!
Jesus'en Lagundia
Ipiñi ebana!

Iñazio, alan bere
Gaur fedebageak,
Nai leuskizuez kendu
Mundutik semeak;
Baña, diraen arte

Atlan'en umeak,
 Iraungo dau zuk jarri
 Zenduan taldeak;
 Alperrik kontra jagi
 Guzurren zaleak,
 ¿Zer al lei atxen kontra
 Itxas aserreak?

Atxean zuk eregi
 zenduan etxea,
 Iñazio azkarra,
 Zaindari gurea;
 Jesus berbera bazan
 Erakustzallea,
 ¿Zeñek bota gaztelu
 Orren errimea?
 ¿Zeuek Ia nok zatitu
 Berorren ormea,
 Baldin orrentzat makal
 Bada burdiñea?

Iñazio, diñoe
 Arro mundutarrak.
 Eurak dirala orain
 Murugin azkarrak;
 Ondartzan diardue
 Baña egiten lanak,
 Alan ¿ez ete dabe
 Lurra joko danak,
 Bardin jo egin beben
 Lenagoko zarrak,
 Ziralako guztiak
 Zimendurik bagak?

Iñazio, agertu
 Gaur jaku mundura
 Argiaren izenez
 «Eleetra» illuna;
 Baña ¿zelan leiteke
 Egi izan guzarra,
 Artuegaitik onek
 Antz edo itxura?

Bufia biotza josi
Dabenai zerura,
¿Zeñek sartu leioe
Bertara bildurra?

¿Non al leikie orreik
¡ O Santu kutuna!
Igo zure semeak
Aldaben lekura?
¿Nondik otso arroek
Jan ardi biguna,
Onen Artzaña bada
Gutzizko Alduna?
Nai baleuke idigi
Einda laster lurra,
Bota baleikcz erraz
Danak infernura?

Utsik ez dau emongo
Ez, zure taldeak ;
Jesus'ek beti gorde
Oi dautzuz semeak.
Laguntzera botarik
Aingeru errimeak,
Millak gitxi badira
Urrengo milloiak:
Eta goyak guztiak
Badira zureak,
Zelan artu legiez
Txuntxurak besteak?

Ez daukagu dudarik.
Garaitza zurea
Da hai, Jauna dalako
Glorien jaubea:
Bere gloriagaitik
Utsik banderea
Zuk dozu eregia
¡O ! ¡Santu gurea !
Alperrik gaur dau askok
Tomas'en fedea,

Sekulako biztu zan
Jesus Erregea.

Azkenez, Iñazio,
Erriko ondrea,
Iñazio andia.
Euskaldun semea,
Lagun eiguzu biztzen
Asaben Legea;
Zaindu nai dogulako
Guk euren fedea,
Fede orregaz naste
Len zana gurea,
Euskaldun biziera
Au baño obea.

BIZKAITARRAK IZIARKO ERROMERIYAN KANTETAKO

(Berba neurtuak)

*Ondarroatik Iziarrera
Siñispen bizi bategaz
Amaganako amudinak
Ixioturik garuaz.
Itxas gizonak Debaruntz duaz
Batel ederren ganetan,
Liorrekuak oñaz aldraka
Ama laztana billetan.*

Guezan Iziarrera.	Bere bizilekuak
Guezan, arin guezan.	Diran begiztetan!
Juan бага gelditu	Begoñan, Arantzazun,
Iñor ez gaitezan.	Oron ta Antiguan,
Maria an daukagu.	Baña gaur darabilgu
Itxaroten guri;	Iziar goguan.
Bisita bat gaur egin	An bere daukalako
Dayogun berari.	Etxia Mariyak,
Gure mendietako	Guezan Iziarrera
; Zeinbat tontorretan !	Zar eta gaztiak.

Begira zelan andik	Euskaldun mariñelik
Daguan begira,	Galdu ez deitian.
Gau eta egun zoli	Agaitik guk daukagu
Itxaso zelaira,	Jarririk ustia,
Truju ekatx dongakaz	Bera dala guretzat
Olatu artian,	Anparu guztia.

(Azken agurra)

Agur, bai Iziarko,	Agur, geure biotzok
Agur, gure. Ama,	Zuri eskiñirik,
Agur itxasgizonen	Bialdu gaizuz. Ama,
Pozezko izarra.	Gaur bedeinkaturik.
Lior zuliok agur	Lurrian gura dogu
Dirautzugu Andria,	Zure ume izan,
Agur, bai Iziarko	Zeruan gero beti
¡O Ama guria!	Ikusi zaiguzan.

ERIoTZA BAT

Urte askoren astuntasunak beruntz lepua
 Eta beragaz burua oso makurturik,
 Bizi izan da gizon bat oso aguratu,
 Egun askotan il bear eta il eziñik;
 Bere azkena ikusi arte, mundu osua
 Egon da artega, barrua ezin baketurik,
 Zerren bera zan mundu guztiau gaur gurasua,
 Aita Santua beti dalako bat bakarrik.

Jesukristoren ordeazkoa bera zalako,
 Berak eukazan bere eskuan giltza biak,
 Zeruko ate eskergak guri zabalketako,
 Kristok emonda, Pedrok lenengo ekarriak.
 ¡Ai! baña il da Aita on zana danoentzako,
 Beti betiko Leonek itxi dauz begiak!

VI. — ALEGIAK

*Argia ta illuna iñoz bat ez dira,
Adiskide bein bere ez, gaba ta eguna;
Egiak arerio beti dau guzurra,
Ta sekula anaia onak ez dau txarra,
Zuzenak okerra, olzanak mukerra.*

OLLOA TA ARRAUTZAK

Aiñtxiña, bein, ollo bat ei zan aurkituten
Urrezko arrautzea ebana egiten;
Egunean bategaz jaubea ez asetzen,
Pillo bat topau nairik aberastu zeiten,
Arrautz sortutokia asi zan aztertzen.
Hiten dau zeken arek alako oiloa,
¿.Baña topau zeken arek alako oiloa
Ez, ta bai zorigatxean itxi agortua,
Urrezko iturri on egunerokoa.

*Ai, zeinbat ete dagoz mundu zabalean,
Aberastu gureak egun bat batean,
Saturik asmo barri tratu larregian,
Ondo bizi ziranak len euren tokian,
Geldituta billoxik ta zarren azpian?*

SU-GIZONA TA TXAKURRA

Su-gizon batek eukan txakur bat,
Ez ebana besterik egiten,
Ezpada jan ta jolas,
Ardurarik ez artu ezegaz.
Jagiten zan jaterako maira,
Pozkeri ta labankeriaz,
Joaten zala nausiagana.
Palagu ta loseinkok,
Etziran bestetarako,
Azurak ez-eze mamiñak bere
Beraganduteko.
Dirautsa nausiak baten:
«Bajakiat deitu бага atorrela jaten,
Sutegian sekula ez aut ikusten,
Mallu-zaratak ez due lorik galtzen,

Nire ugiñ-otsak barriz abe iratzarnten.
 Kanpora, alper jale ori, ortik ;
 Bazterretan ik esatea ondo ez jirudik
 Nausi leioak artzen abela,
 Konde bat bezela.»
 Txakurrak orduan dirautso:
 «Konde bal zer da geyago?
 Alperrik biziteko jayota ez nago?
 Ez jayo iñor asto, txakur baño.»
 «Konde jauna, kanpora-kanpora,
 Ikusi egik beste etxeetan,
 Ea, zelan aben tratetan.»
 Joan zan batera serbietan,
 Nun euki eben gau ta egun jagola ateetan;
 Beste etxe balen jarri eben itsu-aurreko,
 Urrengoan sarturik tomu baten,
 Okelea orretako jirak emoten,
 Jaterik ez dabela itxaroten.
 Ezagutu eban orduan astuentzat bakarrik
 Ez dala lana,
 Txakurrentzat bere bai, ona ezpada
 Ugazaba.

PERU ERRENA ETA MUTIL GAIZTO BAT

Erren on bati mutill txar batek,
 Lotsa baga,
 Egin ei eutsan alan burla:
 Oiñkada zelan bota bai ak,
 Kontetan deutsa besteak *bal*;
 Urrengokoan diñotsa bi,
 Eta bestean barriz *iru*;
 Laugarrenean, barre karkaxaz,
Errena da gure Peru.

Onek txit aserratua,
 Jaurti eutsan makulua;
 Nekez oiñ bakar gaiñean
 Gelditurík, bat-batean,

Peru tristeak dirautso:
 «Egin ez daista geiago
 Burlarik niri:
 Tunda bat iri
 Emon nai izateak ni
 Oiñ baten najaukak larri.»

ARTISTA BAT ETA LAURKA

Artista batek ei eban pintau
 Aiñlxiña eun zabalean,
 Legoe tzarra gizontxo batek
 Eukala ostikopean;
 Legoe bizi batek pinturan
 Ikusirik, erdi barrez,
 Esan ei eban: «Ori dok lana
 Egitea nai dan legez; •
 Baldin nik ori pintau banajok,
 Izango zuan aldrebes.»

F O R T U N E A

Ibai baten ertzean etzunik bedartzan,
 Mutill erdi mamu bat egoala lotan
 Fortuneak joanda dirautsa onelan:
 «Etxakiat zelan lo or gelditu azan,
 «Esango leukeek gero (Fortuna gaiztoa)
 »Errekara jausi ta or baintza itoa;
 »Eta geyenez oi dok gizonen errua,
 »Munduan eukitea okerren damua.»

ASTOA TA TXARRIA

Astoak eziñ iruntsi eban
 Txarri gizen baten ona;
 Bere artean, tripak janagaz,
 Esaten joian onela:

—«Lanik baperez, lo eta jolas,
 «Zukoa naikoa janda,
 «Zorioneko mundu onetan
 «Bera legez bizi dana:
 «Niretzat harriz makillakadak,
 «Arree ta ostikadea;
 «Lastoa jaki la, eroateko,
 »Sendor aundi eskergea.»
 Alan negarrez doiala aurrera,
 Dantzu txarri irrintzea;
 Begiraturik aldamenera
 Illten dabille tristea.
 Atzera diño asto ez gitxi jakiñnk:
 «Onetara badatoz gero atsegiñak,
 «Betoz makillakadak. naiz izan samiñak.»

ERBIAK ETA UGARAXOAK

Tiro-ots utsaz ziran bildurrez menditi
 Bilinbolan beeraño milla erbi jatsi;
 Arri arteetan asko zauriz oso josi,
 Ta puska bategaitik beeko errekan jausi.
 An bazan garrasi, negarrez ez gitxi,
 Txarrak biraoz asi,
 Zituenean gaizki buruak ikusi.
 Baña on batek diño: —«Ez gara aiñ gaixua
 «¿Zergaitik alan bota birao aiñ gaiztoak?
 «Millaka orra txarrago, or ugaraxoak,
 «Gure negar-otsakaz danak bildurtuak,
 «Ibaira surtuak, estuca estuak,
 «Benturaz ituak;
 «Guk leorrik daukaguz oraiñdik buruak.»
*Bere bizimoduaz ez danak kontentu,
 Txarrago dagoanari beyo begiratu.*

NEKAZARI ERNEGAU BAT

Mitxel nekazaria bizi zan erneguz.
 Bere suerteagaz ez ñoz soseguz,
 Ez eukalako arek beste egarririk,
 Aberats izatea munduan bakarrik;
 Beti ebillan nondik arlo asko batu,
 Al ebana auzoan egiñagaz ostu;
 Ziñoan: «Nik baneuka ondasun naikoa.
 Munduan nintzateke zorionekoa.»
 Bardin egoanean oyan bere lotan.
 Nondik aberastuko ebillen pentsetan ;
 Itzain bere bazan ta, edonoz bidean,
 Ebillan gau ta egun lana eukanean.

Burdi bat ikatzagaz bein joian olara.
 Logureaz zabuka ezin joan zala;
 Bildurturik etzin zan ikatzen gañean.
 Idiak ez egien artu ankapean.

An bere laster lotan asten da amesetan.
 Betiko aberastu zala bein benetan:
 Bilbora etorrira ontzi bat eukala.
 Beretzako india asko ekarzana;
 Eta urtenda goiz goiz bere baserritik.
 Gaberako atzera biurtzea gaitik;
 Uste eban galopan joiala zaldian.
 Aztu zan lo joiala olaruntz burdian.
 Ta noz eban sinistu ontzien lekura.
 Elduta sartuten dirudun barkura,
 Jatsilen zalakoan lurrera zalditik.
 Mitxe! ameslaria jausi zan burditik;
 Eta jausi ez eze arturik burdiak,
 Erdibitu eutsazan berna azur biak.
 Orduan dazau zelan zoriontasuna.
 Gozetako bear dan lenen osasuna ;
 Eta konturaturik zala kastigua,
 Izan eban suerte alako gaiztua;
 Diño penaz beterik: «sano banengoke,
 ¡Ai, pobre bizi arren kontentu nintzake'.
 Osorik daukazanak almen ta zentzunak,
 Kantau lei daukazala aberastasunak.»

ORMA-TXORIA

Lazoan jausirik
 orma txoritxua,
 garrasika asi zan
 alan estutua.
 ¡Ai! katigatu naz
 nintzan» libria !
 ¡Ona ! negarti gauz
 lengo kantaria.
 Zori-gatx bal dogu
 tripau eukitea,
 siñisteko asko
 da ni ikustea.
 Galdu dot poz dana,
 galdu dot abia,
 gal-azi batgaitik
 galdu dot bizia.

*Sabelari geiegi
 emotea gaitik
 munduan ikusten da
 Zorigatx ugari.*

MONA BAT

Intxaur arbolara igon eban
 Jatera ale bat moneak.
 Agiñak sartu moskolari ta
 Latza zalako jaurti ak.
Beste ainbeste egiñ oi dabe
Eroso bizi zaliak;
Edozer bear neke eretxirik,
Laster izten dau nagiak.

OTSOA. AIZERIA ETA TXIMINO JUEZA

Oísoa baten kejaz joan zan
 Tximiño juez artezagana,
 Alboan bizi zan aixeriak
 Eukan guztia ostu eutsala.
 Doiturik arek erantzun eban
 Lapurra iñoz etzala izan;
 Biak eginda ez-bai garratzak.
 Epai au emon eutsen juezak:
 »Eurerik ezer kendu jatala
 »Ez dok agiri, otso zitala;
 »Aixeria, az beti lapurra,
 »¿Zergaitik diñok dana guzurra?
 »Ken zakidaze biok emendik;
 »¿Zer egin neikek testigu barik?»
 Gura dabenak emon daiodan
 Nik berba utsai gaur siñistea.
 Aixeri otso bitzuak baño
 Bear jok izan askoz obea.

ARRIZKO BURUA TA AIZERIA

Arrizko buru bategana
 Juan ta aixeri zitala,
 Egiñ ei eutsan, zelakoa zan
 Ikuste arren, usaiña ;
 Aragia a eztala
 Igarririk laster ala,
 Diñotsa: «galant azan ezkerro,
 Garaunak nun dituk bada?»
Zeinbat diran ederrak
Kanpo ta azalez,
Baña zentzudun dira
Ezaiñak geienez.

UMILLTASUNA ETA ARROKERIA

Lenengo du andia,
Bigarrenkoa txikia,
Alkarren desbardiñak;
Batu birtute zuzenak,
Bestea griña okerrak
Diralako egiñak.

Arek nai dau beera jatsi,
Izan arren berez andi:
Onek nai dau bestera.
Orrexegaitik mundua
Ta bere bizi modua
Dakustaz goyaz beera.

Agaitik neban ikusi,
Edo buruz irakurri,
Oraingo komedia;
Egiaz ez da jazua,
Benetan ez gertatua.
Baña da irudia.

Nun dan garbiro ikusten,
Nun biziro azalduten,
Zeñ dau on, zeñ okerra,
Zeñ ipuiñ izanagaitik,
Berba neurtuz orregaitik,
Nua eskribitzera

Erregetzat nai ebela.
Deitu eben beiñ batera,
Lorak igazko udan,
Klavel bat txito dontsua
Ta birtutez apaindua
Ikusi ebenean.

Zerren Errege antzera
Jayokeratik soñera,
Eukan granaz josia;
Gañera buruan oso
Iñotzekoa donoso
Koroe bat argia.

Lorarik onenak eutsen
 Itzal andi bat artuten,
 Sartaizeak agurtu;
 Bedarrik usaintsuenak,
 Eztitsu ta bikaiñenak,
 Gura eben serbidu.

Alan ikusi zanean,
 Nagusi danen gañean,
 Artu eban ustea.
 Lorarik egokiena
 Birtutez apainduena
 Andratzat artutea.

Zabaldu zan dierrira,
 Berealaxe guztira,
 Zertan Errege joian;
 Lora askok zelan jakiñ,
 Arrotuten buruakin
 Laster abiau ziran.

Zen baño zeñ ederrago
 Eutsen guztiak erago;
 Ziztrintxoena bere
 Buruak jaso egiñik,
 Zarden zuzen eregirik
 Jarri ziran dotore.

Erregiña izatera
 Nai zan moduren batera,
 Dotoreturik igo,
 ¡O loraburu ariñak,
 Orrelako alegiñak
 Uts deutsue urtengo!

Errege bere kortiaz
 Bajoian erabilliaz
 Bazterrak erresuman,
 Nun illunkera batean
 Gorderik lora artean
 Loratxo bat dakusan.

Zeñek eutsan biotzean,
 Malluka baten antzean,

Egiñ alako malla;
Baita itanduten dotea,
Ezin eroanik poza:
«¿Loratxoa, nor zara?»

¿Zertan zagoz aiñ ixillik?
¿Zertan egin бага itzik?
¿Zertan zara estutu?
¿Zertan zuk bildurtu бага?
¿Zertan dakizun erara?
¿Zertako ez mintzatu?»

Loratxoa izaturik
Aurkitzen zan mututurik,
Asmau eziñik itza;
Alako batean nekez
Erdiak esan eziñez
Onelantxe dirautsa:

—«Ni naz bai bioletea,
Loratxo bat umildea,
Ene Jaun itzaltsua:
Nago emen ezkutuan,
Garbi ta umill munduan,
Gorde nairik burua.

—«Siñisten dot zareala
Birtutetsua zu bada,
Bioleta umilla;
Orregaitik Erregiña,
Nai zaitut jarri egiña;
Zatorkit jauregira.»

Puskatxo bat au entzunik
Geratu zan nasaiturik;
Alanbere begiak
Lurreruntza biurturik
Erdi itxi ta baturik
Eukazan lotsaz biak.

Zenbat zan au umillago
 Aurkitzen zan itsuago,
 Beragaz Erregea.
 Orra nun daben zabaltzen
 Aixé bigun batek laster,
 Nogaz zan ezkontzea.

Esanaz Errege, ala,
 Umilltasunak ebala,
 Bioletatxoagana
 Etsigi ta zoratu.
 Urrengoko egunean,
 Edo biaramonean,
 Katolikoen legean,
 Zala eingo ezkondu.
 Lora arroak zirean,
 Orduantxe umilldu.

Ezagutu eben, bada,
 Arrokeria zitala,
 Gorrotagarria zala ;
 Eta andik aurrera,
 Izango zala ohea,
 Aurkitzeko suertea,
 Ezkutuan bizitea,
 Bioleten antzera,
 Itxirik alde batera
 Piesta ta plazea.

ZARIKA TA NEKOSTA

Atsekabez egoan igaz bein zarika,
 Illerri eder baten negarrez zotinka;
 Anpuzko errekak jakozala jausten,
 Azpiko obi gaña eban sopinduten;
 Eta bere alboan egoan nekosta,
 Zeiñek negar lantarik ez eban nai bota.
 Bata makurrik eta bestea zardenik
 Ikusitean, biai itandu neutsen nik:
 Zertatik jayoten zan euren goiberea,
 Noa artu neban laster erantzuerea,

Zarikak esan eustan: «Makurrik beruntza
 Illakgaitik bizi naz damuz zizpuruka.»
 Eta nekostak diñost: «Zuzen gorantza
 Ara joan daitezán nago erreguka»...
 Euren alde andia nik beingo batean
 Ezagaturikoan auxe esan neban:
 «Agiri da garbiro zarikak munduan
 Gura dabela bizi, nekostak zeruan;
 Orregaitik au dago araxe begira,
 Illen arima onak doiazan errira.»

ITSU ARGI BAT

—Oloa ill dozu ta
 ¿zer egin dozu, Juan?
 ain txarra zíñeanik
 siñisten eneban.

—Ez al dakizu. Txomin,
 bizitza guztian,
 zelau nekez nabillan
 bakarrik eskian?
 etn txakurrak bere
 askoren antzean
 ¿zelan ez daben gura
 pobrerik atean?
 Alan zuenak bere
 aginka deust ekin.
 eta makilleagaz
 nairik ux eragin,
 txakurra jo nai eta
 ¿jo badot ollua,
 errurik bat ez eukañ
 egazti gaixua.
 itsuak egitea
 au al da mirari,
 argiak okerrago
 oi badabe sarri?
 —Argiak okerrago

¿zelan egiñ oi dau?
—Onai txarren errua
eraginda pagau.

*¿Zeiñek esango dau Juan
eztala argia,
begi бага ikusten
ak badau egia?*

MUKERTASUNA

Meza nausi denporan	Ni enabe lotzen?
Egusarietan	----Alkatearen naya
Eragozten dalako	Dozulako citen.
Jokoa plazetan,	Ta onetan ara non,
Obediu nai ez da	Kanpotik beingoan,
Ordena orreri.	Pelota bat sartzen dau
Kartzelan sartu eben	Leyotik barruan,
Andres pelotari;	Eta Paulok dirautsa
Non erautsan leyotik	Barriro orduan:
Javan deadarrez,	—Orra lagun barri bat
Ulua eriola	Or dozu onduan,
Sututa asarrez:	¿Ta non ibilli balitz
—Burdiña oneik nauke	Legien neurrian,
Zarratuta preso,	Orain aurkituko zan?
Erreja gogor batzuk	Pelota tokian.
Eurok diralako.	<i>Legeak zainduteko</i>
Kaletik deutse Paulok	<i>Ez izan mukerrak.</i>
Laster itanduten:	<i>An dauke kartzelea</i>
¿Burdin orreik zergaitik	<i>Bestelan okerrak.</i>

INDARRA TA MANEA

Ate bat luzaroan egoan itxita,
Eta alako baten abiau Benita
Egin zan. giltzeagaz bera zabaltzera,
Baña, ak ezin eban indarrez ezela;
Zergaitik zarrallea ugerraz egoan,
To gilltzeak jirarik egiten ez eban;

Baña, abietan da aizatxo gaztea,
 Esanaz Benitari: «zara kokolea».
 Busti eban orioz laster zarrallea,
 Bera legetxe bardin urrengo giltzea,
 Sartu eban zulotik eta indar gitxi
 Egiñagaz batera ak eban idigi.

Orduan ezauturik zelan zan mañea
 Indar andia baño sarritan ohea,
 Arrezkero kargea nik bere geyago
 Darabil) burditxoan bizkarrean baño:
 Burdia bere barriz askoz ariñago
 Darabilt oriodun sillean badago.

*Indarraren lekuan al bada mañea
 Dabena asmetan ez da burutik dongea;
 Mañatsuak bagiña munduan ugari,
 Tiro bategaz geunkez sarri illgo erbi bi.*

EZJAKINEN KONTUAK

—Juantxo, joan bear dok eskolara laster,
 Geratu ezaitean jakin бага ezer;
 Naiz dala irakurten bakarrik ikasi
 Neguan bearako dok aurten ara asi,
 Ni legez ez aitean itsu i geratu,
 Letra bat bere zein dan ein бага ezautu.

—Aita, ez dozu zetan apurrik estutu.
 Diñozun utsun ori laster da osatu:
 Jakizu, bada, zelan alboko aitaitak
 Urteak daukazanak asko larogeitak.
 Pesetan erosirik begi aurrekoak,
 Irago dan domekan plazan gizajoak.
 Nik ikusi dodala kartak irakurten,
 Lenago ez ebana egiñ al izaten.

¿Al bada peseta bat gastauta ikasi,
 Obe ez da plazara joan da erosi?

—Bai, ohea dok plazan peseta bat gastau,
 Ez negu bat osoa eskolan ik pasau.

*Ain itsu egotea ezta gauza ona,
 Jakitun txarra baño alan bere oba-*

NON NAI ARANTZEA

Eskeko zar bat joian gorantz aldatsean,
 Ta beruntz jasten zan bat topau ebanean,
 Diñotsa: —Errukitu zakidaz zu, gizon,
 Ni duiñ errakarririk ez talako iñon:
 Ez daukat seniderik. ez daukat andrarik,
 Nazalako mutill zar soill eta bakarrik.
 —Nok leukeken, gizona, zure suertea,
 Auxe zan bestearen erantzuerea;—
 Enaz ni mutil zarra, badaukat andrea,
 Iñon dongarik bada, bada bat nirea;
 Senide asko ditut, danak arloteak,
 Neuk ezin irabazi, amaika umeak.
 Zuk daukazu bakarrik zeure ardurea:
 ¿Bakizu zeiñbatena dan barriz nirea?

*Berbarik egin baga geyago alkarri,
 Bakotxak jarrai eutsan bere bideri
 Norberen naibageak pentsetan pentsetan;
 Arantzaren bat non-nai da mundu onetan.*

BETI GAZTE GURA

Andra zar bat jardunda burua baltzitzen.
 Ta kolorezko a utsez arpegi edertzen,
 Joan zan zedulatan Uriko etxera,
 Ta sekretarioak ikustean bera,
 Itandu eutsan laster: ¿zeinbat urte dauka?
 —Ogeta amar gaur bete, erantzuten deutsa,
 Ta bere kautan diño eiñda irri-barre:
 -Ogetamar egiñak ¿nok esango leuke?
 -Jauna, ¿zer pentsetan dau bada, gitxiago?
 -Ez, andrea, birritan dirala izango,
 Neuk ditut ogetamar ta ulle zuria.
 Berorrek eukenean nintzan ni txikia.

*Alperrik bat nekatu gazte iruditzen,
 Urte joanak baña eztabe parkatzen.*

LUZEA LABURTZEA

—Il dalako gazterik Josetxo Altuna,
Patxi aguro joan da beste mundura;
Amar urte eukita oraindik bakarrik,
¡ Ene Jesus maitea, orretarikorik!
—Mari, atzo goizean belozipeduan
Zelan joian beruntza begira nenguan;
Aizea bera baño joian ariñago,
Ainbestekorik ez dot ikusi gaurdaño,
Non alboruntz eginda sakosta batera
Jausi ta arnasarik ez eban atera.

Ain da bizkorra eze sarritan atzera
Tramanku orrek isten ikusi dot trenan;
Mari, ezta mirari Josetxok eitea,
Beste mundura laster biaje luzea.

*Bai, oso ta asko dira gaur aurrerapenak,
Roña kobretan dabez daukezan onerak.*

MUNDUA BETI BAT

Ez dakit dan guzurra, ala dan egia,
Kontu zarretan baña, au dago jarria.

Korsario andi bat Alejandro'gana
Lotuta izan ci zan baten eroana,
Eta ikusitean aurrean Erregeak,
Zuzendu eutsezala asarez itz oneek:

—¿Ez al daukak lotsarik, itxas zabaletan
Ibilteko, al duan danai lapurretan?

Ta erantzun ei eutsan bertatik presuak:
—Egia da lapurtzat naukala munduak,
Zergaitik bizi nazan iñori ostute,
Al dodan guztiari daukana kenduta;
Bazenbiltza ni legez, bakarrik zeu bere,
Lapurra zareala esango leukie;
Baña, deitzen deutsue. Errege andia,
Zeuregandu nai izan arren lur guztia;

Ikusirik inguruz ainbeste armadun,
Egiten deutsuenak jabetuten lagun.

*¡Zeiñbati oi deutsalagu egiñ agur ona
Bada ondasun asko dituan gizona:
Egiñak izan arren al diran moduan,
Ondrautzat iragoten dirala munduan!*

K I T U

Juantxo soldau zaila zan, lanean alperra,
Zein zan gerrara joan alderdi batera:
Matxiñ, bere anaya, bera duiñ nagia,
Baña, a bere soldau guztizko zolia.
Bata alde batean, bestea bestean,
Izan ziran kapitan zazpi bat urtean.
Juantxo jende gitxigaz urten ei zan baten,
Matxiñek au jakinik asko ditu artzen;
Pentsetan ebalako erdian artzea,
Eta guaruiziñora lotuta ekartea;
Baña ak igarririk Matxiñen asmoai,
Bretxea urraturik ertz batetik eurai,
Deitu ei eutsan laster: «Anaya koldarra,
¿Nora ua igesi, ollu ori ala?
¿Ez al dok batidu nai arerioagaz,
Ibillirik erronkak beti boteagaz?»
—«Au ez dok koldar eta ollo izatea,
Au dok erretiretan ondo joatea;
¿Erretirada on bat askozaz gatxago,
Batidu baño dala jakinda ez ago?
¿Zer egin cuan, bada, ik beste batean,
Zuek gitxi gu asko gintzuazenean?»
—«Euk orain oi duana gitxi gora bera,
Atzea emon eta anakaz aurrera;
Zergaitik jausi baño zuen eskuetan
Illtea obelo dan bat erretiretan.»
—«Txotxo, eureztat izan ezpezuan txarra,
¿Zergaitik deitzen deustak ollo ta koldarra?»

Al dana egiten jok dagoanak estu,
 Ta ¿zergaitik etxuat nik egingo kitu?»
j Zeiñbateg gura geunke libre guretzako,
Dan gauzea katigu balitz bestentzako!
Raña nor-berak legez bear dauz besteak,
Gozau eskubideak emonak legeak.

MARIA MARTIÑA

Esaten dabe askok, Maria Martiña,
 Neskatxa bat nazala arpegiaz ezaiña ;
 Bekokian alako oreiña dodala,
 Ta errian neskatxen atzena nazala;
 Baña nik zelan uste oi dodan bestera,
 Ezaiñaren lekuan nazala ederra,
 Ikusi arteraño ez dot siñistuko,
 Ta bai, neure arrean beti jarraituko.

Maria Martiñaren berbetea au zan,
 Ezaiña izaterik zeñek nai ez eban:
 Baña elduten jako nozbaiten eguna,
 Ikusiteko bere bekoki illuna.

Zergaitik ispillu bat erregalau eutsan
 Pcpak, gitxienetik nok zazpi eukazan;
 Non Maria Martiñak bere arpegia
 Ikusitean zelan aiñ zan itxusia,
 Indarragaz lurrera bertatik jaurtirik,
 Geratu zan sei zati bertantxe egiñik.
 Baña atzera seiretan ikustean bardin,
 Izerdi larri otzak emon eutsan ariñ;
 Konorte baga bertan jausirik lurrera,
 Egun bian biurtu etzan zenizunera.

Egia iruntsiten sarri da samiña,
Onen lekuko bat da Maria Martiña.

TRANPEA LOTSAGARRI

Gregario bizi da geyenez jokuan,
Tranpa, guzur ta droga, ganora gaiztuan,
Beti nori sartuko al badau ziria,
Bere bizimodua auxe da guztia.

Estamanguko miñaz luzaroan gaizki
Medikurik mediku zanean ibilli,
Joaten beartu zan don Faustino'gana
Entzule aiñ andia daukan aregana,
Ta konsultaurikoan nekearen sari
Medikuak eskatu einda peseta bi,
Ari bere sartzea nairik larakoa,
Emon eutsan peseta bata ez zintzoa;
Baña osagarriak ondo jarri eban,
Beste medikuenak ezinda ezelan.

Urteak joan eta urteak etorri,
Gregorio geixotu zan barrien barri;
Estamanguko miñak eldurik atzera,
Joaten beartu zan konsultea artzera.

Zuzendu zan barriro don Faustino'gana.
Zeiñek esaten deutsan bere-bereala:

—«Gregorio, pildorak len zenduzan artu,
Txikiak asko eta oraiñ obe dozu,
Gaur emongo deutsudan andi bat artzea,
Nai badozu osasun ona jarisiea.»

Biurtzean etxera papera zabaltzen
Dau. eta peseta bat bertan dau billatzen:
Baña paltsoa zanik konturatu baga,
Medikuari berak beiñ emona zala,
Biotza estuta bere kautan diño:
«Ezin nei eztarritik pesetau irago.»
Alan, ostera, laster doa beragana,
Esatera irunsi ezin leikeala.

Orduan medikuak erantzuten deutsa,
Egoalako guztiz barrutik minduta:
—¿Pildora ori ezin irunsi ziñaike?
Nik irunsi nebala dira amar urte.

Gregorio jarri zan txingarra duin gorri,
 Zer esau gura eutsan eginda igarri;
 Konsultarik geyago artu бага laster
 Urten eban ta dabill osasunaz oker;
 Errian bere zelan danak eutsen jakiñ,
 Zar ta gazte guztiak oi deutse barre egiñ.

*Jakiñaren gañean ez iñor engañau,
 Buruari ez daroa berak batu lor au.*

NORBAITEK JAUSI BEAR

Don Andres zan errian gizon aberatsa
 Alaba bat eukana jenioz garratza,
 Zeiñ ezkondu zan mutil guztizko onagaz,
 Baña, doterik ezer euki ez ebanaz;
 Andreak barriz txarra zelan eban urten,
 Onen aitari eutsan arek e.san baten:
 —Aita, ze dongea dan zure alabea,
 Gurago neuke bera ezpaneu andrea.
 —Epea artuiozu, ene suiñ ona.
 —Baña ari ¿nok artu eperik, gizona?
 -Jakin bei, bada, zure emazte ain txarrak.
 Aurrerantza kejarik badakar senarrak,
 Ez daijala itxaron nire ondasunik.
 Non kejaz etzan joan geyago suiñik.

¿Zer jazo zan geyago ez eiteko juan?
 Andrea ez; senarra jausi zan kontuan;
 Agaitik bera gaur da gizon aberatsa,
 Naiz andreaz eroan bizitza garratza.

AUZI BAT

Beso bagarik jayo bazan Simon manku,
 Begi bat бага ei zan egin Peru itsu;
 Biak zirean legez ibiltan eskean,
 Lagunen bat bakotxak ekarren aldean;
 Itsu aurreko бага bata etzan gauza,

Besteak eskudun bat beti eban palta.
 Itxasoaren munan zirean aurkitzen,
 Alan bearko zan-da, udako goiz baten.
 Arrizko aulki baten jarririk aizetan,
 Biak bakarrik euren autuak kontetan;
 Non egozan lekutik daben uste baga
 Mankuk begiaz joten ostra bat zabala,
 Argitaratu zana ondartzza ganean,
 Olatua eltzen zan markatik urrean;
 Baña, zelan ez eukan beso ez eskurik,
 Etzan gauz jaubetzeko ostreaz bakarrik;
 Augaitik oso tamal andiaz Itsuri
 Diñotsa: «Ostra zabal bat an da agiri,
 Eta zuk esku biak zelan daukazuzan,
 Tñor baño lenago artzera goazan;
 Neuk zuzenduko zaitut zelan edo alan,
 Ondo ez da ostrea geratutea an.»
 Mankuk bere oñagaz egiñik arteztu,
 Itsuk ostrea, eban erreztu aurkitu,
 Eta esku artean ebanean artu,
 Pozen pozaz bertatik poltsan bere sartu.

Orduan baña esan eutsan Simon mankuk:

Ostra ori lastertxo bear dogu jan guk,
 Nabillalako ia oztaz gaur zutunik,
 Egun biokaz zerren nagoan baraurik;
 Peru, goazan geurera ta jan daigun antxe,
 Marik jarriko deusku gertu bertatixe.»

Baña Itsu zelan zan zeken ta dollorra,
 Berekor, muker, zital, pirri ta gogorra,
 Siku-siku diñotsa: «Ostrau da neurea,
 Zeñekaz bear dodan nik gaur ill gosea;
 Ta zuk nai bazenduan bardin egitea,
 Etzeunkan zeuretzako baño artutea;
 Zelan baña neuk dodan ostreau neugandu,
 Beronegaz bear dot bakarrik bazkaldu;.
 Arañegundik ona bazagoz baraurik,
 Iru egun onetan ez dot ezer jan nik;
 Augaitik emon baño len zuri erdia,
 Itxasora botako neuskizu guztia;

¿Ez al dakizu, Itsu, Jaungoikoa lenen,
Beti izaien dala, santuak bigarren?
Ara, nik bere lenen maite dot burua,
Ilten ikusi arren gosez albokua.»

Mankuk ikusitean Peru'ren temea,
Juezagana zuzen egiñik bidea,
Kontu dana berari egiñik autortu,
Aguazíllaz Itsuri laster eutsan deitu;
Baita jarri eragin aurrean ostrea,
Ikusi arte zeñek eukan errazoiak;
Eta amaitutean ez da bai guztia,
Emotera asiten da erabagia.

Plater zabal batean ostrea jarririk,
Kutxilloaz koskola laster idigirik,
Diño: «Gutziz ederra da berau benetan,
Erdi bana parte daukazue bertan;
Biori errazoiak deitsuedaz topau,
Ta ezin zeikiedaz bat bere kondenau;
Bakotxari emongo deitsuet zeuena,
Zeiñ dan gure legeak agintzen dabena ;
Guk bear dogu egin artezidadea,
Topaurik non dagoan lenengo egia;
Orrexegaitik kobrau oi dogu nekea,
Izerdiak bear dau eroan berea;
Alan peseta bana da zuen kontua,
Orixe da markauta dogun deretxua.»

Baña Manku ta Itsuk zelan txurikorik
Ez euken, asi ziran *dar dar* bildurturik;
Asi ziran negarrez umien antzera,
Bata eta bestea esanaz onela:
«Enekian gaurgiño Juezak kobretan
Ebala alogerik au lako lanetan;
Ori jakin bagendu ez gentozan ona,
Zelanbait konponduko giñean gu, Jauna;
Juezean ainbeste gastetea baño,
Ostrea bertan largau asko zan obago.
Baña bene-benetan zelan zan Jueza
Bear daben legetxe gizon bat arteza,
Diñotse: «Jakizue, gizonak, dubarik,

Kontsejuan eztogu egiten bearrik;
 Datorrenak ekarten ezpadau dirua,
 Pagetako eskuan emengo kontua,
 Bere gauzan egiten dogu enbargua;
 Justizia dalako danen lenengua,
 Ezpadozue bada zegaz pagau niri,
 Ostrea enbargauko deusuet zueri;
 Geratzen direala mamiñok neuretzat,
 Eta koskolak barriz nai dabenarentzat.»

Ikusi ebenean Jueza ain zorrotz,
 Biak jarririk odol bagarik, otz ta motz,
 Urten eben kanpora arrausi egiñik,
 Koskol eta mamiñak bertantxe itxirik,
 Egon eziñagaitik zutunik goseaz,
 Esperantza galdurik kentzeko ostreaz.

Egiune txar bat da askotan ohea,

Juezetara arlu baño len bidea..

ONTZIA

Esperantza barriz puztuta,
 ¿Zoakuz, zoroa, pozez urera?
 Biurtu zakiguz, biurtu,
 Urten egin dozun lekura atzera.

¿Ez dozu gomutan lengoan,
 Estutu zinduzen ekatx gaiztoa?
 Fortuna atzean barrero,
 ¿Zoakuz orrelan, ontzi gaizoa?

Ondarrezko menditzarrakaz
 Beterik dagotzu urezko landa;
 Nai ta ez damutuko jatzu,
 Bazoaz jarraitzen aurrera bada.

Zoroa, erdu bai atzera;
 Oraindik denpora zuk badaukazu,
 Oraindik emen dabiltz bagak,
 Kontxakaz egiten ondo jolastu.

Bertatik doaz ekitera,
Boladak atx-mustur onei pelean.
Neptunok ikusi zagizan,
Triskauta, zatika, uren gañean.

Daukazun edertasun orrek,
Ekatxa bapere ez dau bildurtzen,
Asi da tronpetea joten,
Urrindik durundu otsa bialtzen.

¿Balio al dabe EuroVen
Kontra gaur dituzun zure indarrak,
Naiz euki ustez piloto ta
Mariñel besoz azkarrak?

Jaki/n. Euro'k zelan daukan,
Kristalez egiña bizi-tokia.
Goizetan errezíbitzeko
Eguzki ederra urrez jantzia.

Jakizu, zelan dan altsua,
Oitua izaten, bai, agintari;
Zu lako ontzitxo bat-gaitik,
Gitxitxo ardura jako berari.

Jakizu, zelan atzo bere,
Ontzi bat zu legez zeñ geiagoan,
Aizeaz abiau zan eta
Orra, gaur galdurik zelan dagoan.

Len eukan fama aiñ andia,
Galduta, aurkitzen da lotsagarri;
Or dago itxas bazterrean
Atx kontran eginda erdi-erdi bi.

Trumoia urrerago da-ta,
¿Etzaitu bapere atzeratnten?
Zabalago belok jarrita,
Lurretik zoakuz urriñagotzen?

Erdu bai, erdu bai, maitea,
Zatoz bai, zatoz bai, kayara laster,
Eguzki errañuz betea
Lotura etzanda, gorde baño len.

Begira zati bat zerua,
Soñeko baltzagaz eginda jantzi.

Odeiak badabiltz gertetan,
Burrukan nai dabe asi...

Ontziak berea aurrera...
Odeiak burrukan abiau ziran,
Boladak indarrak artuta,
Ekatzak artuten dabe erdian.

¿Nok librau arrisku artatik?
¿Nok poztu orduan ontzi tristea?
Laguntzen ez balitza jatsi.
Zerutik kristauen gordetzallea?

Jatsi zan guztioen Ama,
Jatsi zan Dontzella Ama Maria,
Nok daukan bere otseñetan
Kontu ta ardura andia.

Gordeizu modu berberean,
¡O Ama euskaldun! gure ontzia,
Ekatzez aurkitzen dalako,
Barru eta kanpo dana josia.

Ez dakust iñon pozgarririk,
Ezpada zuregan, Ama maitea ;
Bakarrik zu zara ostarku,
Daikezuna jatsi zarren bakea.

VII. — I P U I N A K

*Antziñako esanak, geienetan egi
Irtetzen dira, zeren ondo ziran jarri.
Ez det nik izan gura utsik bertsolari,
Baizikan itxuari egin ere argi,
Ez dedin ni bezela lazoan erori,
Gorputza ta anima ipiñirik larri.*

A L P E R

Udako goiz batean bostetatik laster
Kalean goilik bera deika joian *Alper*:
—Emoten ezpadeuste gaur nonbaiten zer jan,
Ezingo dot nik gaba jaritxi ezelan.

Atxurlari alboti zelan irago zan,
Alperri bereala onek esan eutsan:
—Ator atxurketara neu noian lekura,
Ta artoa emongo jak jaten zeinbat gura.
—Arto truke ez baña, diru gitxigaitik
Laga egingo deustat nai badok gogotik,
Seiretan asi eta isteko seiretan,
Peseta bategaitik ni nayak prestetan.
—Eutso pesetea ta ator neugaz nasi,
Sei-seiretan lanari dayogun esetsi-

Baita seiren drangadan abiau zirean,
Baita ikustekoa *Alper* zan lanean;
Atxurlari egokan begira zurturik,
Alper aren beargin zintzo ikusirik;
Baña, onek zer eukan laster egiteko,
Atxurlarik ez eban barruntetan asko.
Erriko erlojuak jo-aldi danetan,
Zelan ordua eban errepetietan,
Bigarren seirak joten asiaz batera,
Atxurra bertan bera botarik lurrera,
Alper peseteagaz doa tabernara,
Berealaxe bertan zeatz gastetara.
Egun santu guztian non jan eta edan
Gaberako peseta bin gastu eñ eban.
¡Orduan bai aurkitzen *Alper* zala larri!
¡Zer asmau bear eutsan tabernariarí!

Sartu eban eskua bada partikaran,
Ta zelan peseta bat bakarra eukan an,
Asi zan goyan beian: «Peseta bitik bat

«Ostu deuste ta oraiñ bat baño ez dauka ;
 «Badakit ziur-ziur nik ona ekarri
 «Ditudala goizean peseta zuri bi;
 «Lanean irabazi neutsan alogera,
 «*Atxurlariri* atzo goizetik gabera:
 «Amaika modutako jentea bagagoz,
 «Lapur danak kartzelan oraindik eztagoz;
 «Baneki nor izan dan beiñik-beiñ nirea,
 «Gaur litzateke azken eguna berea;
 «Zergaitik jarri naben lotsa gogorrean,
 «Peseta baten zorra itxi bearrean,
 «Eta baldin ezpadeust ostua biurtzen
 «Ez al da zeruetan ikusiko sartzen.»

¡ Zeiñbat bider pintetan egitzat guzurra,
 Alper izan ete zan bizkorra ta zurra !
 ¿Zeiñbat bidar jentea aora begira,
 Eukan ziñoan dana esanaz arira!
 ¡Zeinbatek deitzen eutsen, Alper-iturria,
 Eten bagarik zerren eukan etorria ;
 Baña, tabernariaz ez eutsan balio,
 Iñoz baño leunago naiz berbak erio,
 Arek zelan ekian *Alper* asmutsua
 Zala aixeri zoli sartzen larakua,
 Zelan ekian ondo peseta dontsua
 Zala *Atxurlariri* garbiro ostua,
 Zelan ikusten eban ibilli ta ibilli,
 Etorkala kargea azkenez berari;
 Zelan ikusten eban iñoz ez atzera,
Alperren zorra beti joiala aurrera,
 Zelan orduan bere lau koska zotzean,
 Beartzen zan egiten bosteunen atzean;
 Azkenez ikustean emoten eutsana,
 Errekara botaten ebala dan-dana,
 Etzan millagro eta, odolak burura
 Igo eta arturik alboko egurra,
 Beragaz bero-bero egiñik lepoa,
Alperri emon eutsan betiko kanpoa;
 Ta zotza ez egion milla koskaz bete,

Emonak galdu eta sutan eban erre;
 Alan nik ez dot uste taberna atan *Alper*,
 Ikusiko dodanik beñik-beiñ ain laster.

Alperrakaz badago munduan zeregiñ,
 Zintzoai deuselako orreik emoten miñ.

DANOK BIZI NAI

—Praisko, ¿zer egin dozu
 Larogei urtegaz?
 —Bizitzea luzatu
 Lapurreta askogaz.
 —¿Zelan izan leiteke
 Gauz ori egia?
 —Zergaitik juezaren
 Dodan setentzia,
 Kartzela onetantxe
 Berrogei urtean
 Lotuta egoteko
 Kirrillo artean.
 —¿Ta gertetan bajatzu
 Lenago ¡ltea?
 —Juezaren izango
 da uts egitea.
 —¿Arena uts egiña,
 Eta zer zurea?
 —Nai baño len kirrillo
 Baga geratzea.

TXUAN-DROGA

I

Udan ikatz ederra egiñik mendian,
 Sakuetan galdurik neguan errian;
 Bizi zan aingeruen bat legez garbi Anton,
 Agaitik ezkenean damutu etxakon.

Txuan-droga bestera, iñor engañetan,

Norbaitegaz ebillan geyenez auzitan,
 Zentimo bat bagarik zelan zan ezkondu,
 Ta aberastu zalako urte gitxi barru,
 Asarrean deiturik batek *lapurtzarra*,
 Urteetako eben sartu kartzelara;
 Aiñ zan bengatzallea, aiñ zan tematia,
 Aiñ zan barriz miñean loi ta itxusia;
 Ez eban ak itxiten ezaindu bagarik,
 Bere birao zitalez ez goirik, ez berik.
 Entzute ezagaitik aren berba dongak,
 Iges egiten eben urriñ persona onak.

Alan bere, nai eban izen onaz bizi,
 Errian emon arren ez zer esan gitxi;
 Eltzen zanean barriz zapatu eguna,
 Ez eban uts egingo iñoz merkatura ;
 Guzur eta drogeaz erosi merketxo,
 Drogakin bere albait karuen saltzeko.
 Baña zelan aurrera urteetan joian,
 Ya tratu askorik ak ezin eikean.
 Azkenez oraiñgoan plazara zan joan,
 Ikusiteru txoririk jausten zan lazoan.
 Ikazdun bat lenengo aurkiturik bertan,
 Itaune au Txuanek laster egiñ eutsan:
 —Anton, ¿zegana daukazu karge au saltzeko?
 —Amar errealean deukat emoteko,
 —Badaroat etxera artuta lepoan,
 Kobretara elorri laurak inguruan.

II

Arratsaldean zintzo Anton lau-lauretan,
 Txuan-drogaren dedan barreka sartu zan;
 Amarleko zuria eskiñirik arek,
 Eskuan artu eutsan bertatik Antonek:
 Baña zelan sakurik ez eutsan ekarten,
 Anton abiau jakon Txuani esaten;
 —((Ikatzan saldu arren danai amarlean,
 Sakua biurtzen jat diruaz batean.
 —¿Ze saku ta sakuzaiñ eskatzen deustazu?
 Amarleko zuriaz dana pagau jatzu;

Nai ezpadozu jarri neure esanera,
 Zu baño lenago ni noa Juezera.
 —Juezak enau iñoz ikusi aurrean,
 Orain arte bizi naz danakaz bakean;
 Ikatza udan cinda neguan galdurik,
 Raña sekula ez dot nik saldu sakurik:
 Ikatza ikatza da, ta sakua sakua,
 Txuan, ikatzaz utsik egiñ dot tratua.

Anton, gura badozu zuzen zuk ibilli,
 Gauzeau neuk egingo deustut erabagi.

A ezetz ori egiñ; ¿nai dozu postura
 Zuzenlasuna eske dagoan modura?

A baietz amarreal mayan dot ipinten.

A ezetz zeuk emonaz nik deustut bardintzen

III

Zatitxo baten biak egonda ixillik,
 Bala eta bastea egin бага mistik,
 Buruari atz da atz egiñik lenengo,
 Estul bat edo beste bertatik urrengo,
 Txu edo gorro batzuk botarik lurrera,
 Autua emoteko pretaurík onela,
 Txuan erabagia emoten zan asi,
 --Posture au—esanaz—dogu irabazi.

Anton, arritzen nozu zelan gomutetan,
 Etzarean gaur zertzuk saldu deustazuzan:
 Sakuak ta ikatzak karga bat konpondu,
 ¿Zelan egiten daben ezautzen eztozu
 Eta karge au zegan egiñik itandu,
 ¿Amar errealean esan ez deustazu?
 ¿Eta emonik zuri eskatua dana,
 Oraindiño daukazu bere zer esana?
 Idia adarretik, txoria ankatik
 Legez lotuten dala gizona berbatik;
 ¿Ez dozu iñoz entzun, Anton tontotzarra.
 Ala mutikoren bat oraindiño zara?
 Jakin egizu bada gaur nogaz zebiltzan,
 Eta miñagaz kontu, ez barritsu izan;
 Onean ni ona naz, ¿baña txarrean nor?

Txerren berbera bere ez da nigaz iñor;
 Ni naz beti gizona berba batekoa,
 Jenteak esan arren nazala seikoa.
 Deitu arren errian niri Txuan droga,
 ¿Elitzate obeto deitu Txuan ona?
 Galdu arren bere zuk nigaz posturea,
 ¿Egiak eztau bear eroan berea?
 ¡Ai! Anton, joan banintz ni Juezagana,
 Eunerleko bat multa zeunkan bereala;
 Zergaitik zuk ez dozun balio ezbaian,
 Ezpada ikazgiñan bakarrik mendian;
 Etzarean legez zu oitu auzietan,
 Uts eingo zendulako berba guztietan,
 Oraintxe zeuk esana zeuk bertan-bera jan,
 Dnkizulako eiten zailldu бага berban;
 Aurkituko zinean antxe barregarri,
 Guzurtizat arturik egon arren garbi.

Eta, ¿zer eingo eutsun Juezak orduan?
 Eunerleko gorriaz kastigau beinguan;
 Eta zelan eztozun zuk iñoz dirurik,
 Pagau bear genduan kartzelan sarturik.

¡Ze mesede andia, gaur andik libaurik,
 Egin deutsun Txuanek eztago dudarik!
 Orretariko lanak badakizu baña,
 Eskatuten dabela sari ta ordaña;
 Alan bere, enago indarka gaur eske.
 Oitua nago artzen beti zerbait epe,
 Ur бага eztot gura iñor itotea,
 Ezpada gizonari emon arnasea.
 Errez egiñ daikezu, baña, kitu nigaz,
 Etzi gaur lako karga on bat ekarriaz:
 Eta ikatza bada gaurkoa lakoa,
 Orduan izango da zeuretzat sakua.
 Betor bosteko ori, Anton, etzira arte,
 Zugaz adiskide zar izan gura neuke.

Anton'ek urten eban lotsaz gorri gorri,
 Sakua ta dirua largaurik berari;
 Baña igarri бага ez Txuan-drogari,
 Lapurtzar bat benetan zala garbi garbi.

IV

¿Eroan ete eutsan baña, bigarrenez,
Beste saku barri bat betea ikatzez?

..... Ez.

Orra azkenengoko Txuanen tratua,
Neuk Antoni entzunda gogoan artua.
Zeiñbat alako egiñ ak ete ebazan;
¡ Ai! banekiz guztiak kontau dagidazan ;
Baña, gauza bat diñot oraiñ azkenean:
Ill ziran areik, eta gaur dagoz lurpean,
Zc]an ez daben urten Txuanen gañean,
Bedartxo batek bere berrogei urtean,
Eta Anton dagoan lekua udetan,
Pitxilora ederrez dana da betetan.

Zetarikoa daben batek bizitzea.
Alakozen bere dau eriotzea.

BI MIÑ

Jose egun guztian
gaur erdi negarrez
zu ikusirik, nabill
neu bere naibagez;
rastrallan eskuagaz
¿zer dozu ¡ai! enez?
aterata agiñen bat
ausaz zagoz miñez?

—Nik agiña nai baña.
ez deuste atera;
ezpada ogerleko
zuri ta ederra ;
eta len agiñean
neukana utsik min,
bigarren miña deuste
patrikaran egiñ.

BESTERENTZAT ERREZ

Don Lorentzok birritan atzo limosnea
Agindu eustan eta gaur jorik atea,
¿ Lagun, zer deritxazu ak egin deustala?
Neskatxea agindu eskalleretara,
Ta arek laster bota nau *Jaungoikoa lagun*
Esanda berba orreik otz, motz eta illun.

—Esaidazu garbiro. Juan, bene-benetan,
Laguntzen deustazuna iñoz premiñetan,
¿Orri esaten jako berbea jatea?

—Bai. baña obeto da esan edatea,
Ez dalako mamin da azurdun gauzea;
Alanbere naiz dala bata zeññ bestea,
Ez dau, Jose, merezi damurik artzea;
Baldin agintzen bada guuza bat birritan
Beiñ emotea aiña ori oi da izan.

—¡Baña orrelan dala ziurra da ori?

—^oAskok diñoenean, Txomin, badirudi.

—Orduan pesetarik ez eskatu niri;
Pagauko deustudala esan deustut zuri
Ez birritan bakarrik, baita geyagotan;
Onezkero zagotaz zeu niri zorretan.

*Konsejua emoten barrez arpegia
Juanek eukan, ta artzen illun bekokia;
Askotan izaten da emoten erreza,
Norberentzat danean irunsten nekeza.*

GOYAN TA BEIAN

Eguzkia bajoian igoagaz gora,
Ni bere baniñoian baita Anbotora;
Txuntxurrera elduta zapatai begira
Asi ta esan neban: asko galdu dira;
Baita erantzi neban kapela ariña.
Lasto leun ederragaz egoki egiña.
Eta a ikusirik dotore oraiñdik,
Oñetakoak legez maiztu ein bagarik,
Buruak emon eustan andik zapatara
Egoala goibera andi, ez txikarra;
Batzuk serbitzen dabe oñetan lurean,
Besteak lekurik dan onen gorenean;
Leortu bekokia ta atzera buruan,
Kapelea ipiñi eginda beinguan,
Zoraturik begira inguru danera
Niarduan zalako ikusgei ederra;

Ketu bere puru bat baita an neban nai,
 ¿Zeñek sutu eragin baña posforoai?
 Ebillalako aize me zorrotza egan,
 Putz egiñik goyctan beti daben eran;
 Baña alako baten dator errimea,
 Nok ostuta eroan eustan kapelea;
 Zapatak, barriz, neugaz ekarri aldean
 Nebazan, ta daukadaz gaur bere soñean.

IPIUNTXO BAT

Orain amar bat egun nik ikusi neban
 Juan Anton Josetxori esaten onelan:

—Seme, bota egizu kartau korreora,
 Gabon gaba baño len eltzeko Bilbora,
 Izekok artu dayan eunerleko ori,
 Ipiní deusadana barruan berorri;
 Gabon jayak irago daizan ondo aurten.
 Errukarri dalako bera aurkituten:
 Aor amabost zentimo selloa jarteko,
 Etorri bereala lana egiteko.

Biurtuten Josetxo da beingo batean,
 Ta amabost zentimoak an dakaz aldean.
 Eta aitak dirautsa: ¿zulora karteá,
 Seme, bota al dozu sellorik bagea?
 —Bai, zergaitik ez dodan iñon erakutsi;
 Gañera, aita, iñok ni enau ikusi.
 ¿Zer nai zenduke barriz, aita. Gabon gabez
 Izekoren eskuan karteá egon baietz?

Aitak laster joanda naiz jarri sellua,
 Oraindik karta baga dago izekoa;
 Eta gabon ez-eze gaur da Urtebarri,
 Eunerlekoa non dan, ¿nok leyo igarri?

Josetxok gitxi daki, norbaitek geyegi,
 Onek gura baleuke non dan esan legi.

ERETXI BAT

—Zu etorri artean aurkitu naz larri.
 Ez deustalako iñok esan gura garbi;
 Kristobal, ¿zelan ill zan zezenetan Jose,
 Beingo balean iñok ez ebala uste?
 —Biotzeko miñagaz, gizajo andia.
 Benetan zan ikusgei errukigarria:
 Ezpatea sarturik toleatzalleak
 Lepotik zezenari ta aren orroiak
 Zelan larritu eban plazako jentia,
 Andia, txikia, zein zar eta gaztea ;
 Orduan geratu zan Jose bertan otzik,
 Nok ez eban geyago bapere egin itzik.
 —Biotzeko miñagaz ¿zuk nondik dakizu
 Baña Jose an zala ill otzik geratu?
 —Neuri zergaitik eustan miñ orrek obatu,
 Eta mediku batek lagundu beiñgoan
 Ezpaleust, gaur nengoan Joseran ondoan.

Eretxiak ez dira sarritan ziurrak,
 Baña bein bere ez egi izaten guzurrak;
 Alanbere siñistu leyo Kristobali,
 Zergaitik deutsan antza emon gauzeari.

JOSE DAMUTUA

Josek oraiñ bost urte ezkontzeko zala,
 Konfesiñoa egin eban jenerala;
 Gaiztoa izan bazan bere lau urtean,
 Bildurra sartu jakon nozbait biotzean,
 Bere arimeaz zer izango ete zan,
 Penitentzia baga baldin ¡Ilten bazan.

Arildu ebanean konfesiño dana,
 Matasatzar bat baño luzeago zana.
 Bere pekatu danak eitean autortu,
 Egin jakon barrua osoro nasaitu:
 Baña penitentzia ikustean zala,
 Pekatuen ondoan labur ta txikarra.

Itauntzen asi jakon, estu eta larri,
 Utseiñ ebalakoan, konfesoreari:
 —Jauna, ¿ez dauz ikusi nire pekatuak
 Zireala milla ta danak pisutsuak?
 ¿Ta karga aiñ ariñaz bialdu gura nau?
 Ez, Jauna, zorren laiñaz bear nau kastigau
 —Seme, gogoan ditut zure pekatuak,
 Zireala milla ta danak pisutsuak;
 Baña ikusiten dot zelan ezkontzera
 Zatozan ta andradun alan egitera;
 Etzai/ bada estutu, Jose damutua;
 Laster dozu lepoan kargea naikua;
 Eroaten badozu bost urtean bera,
 Laugaz zorrak pagauta artzekodun zera.

Ein ebazan Josek bai, zorrak lau urtean,
 Baña zelan kargea daroian bostean,
 Kontuak ateraten joan dan astein,
 Erantsan bere kautan kantaurik etxean
 «Lau urtean zor danak egitean kitu,
 Bostgarren au artzeko egin jat gelditu;
 Urte askotan alan baldin banaz bizi,
 ¿Zeiñbat nik zerurako daiket irabazi?

Alan dala dirudi, zergaitik andrea,
 Aurkitu arren nagi ta ondo gurea,
 Bera jaso ezinda naiz Jose makurtu,
 Bost urtean keja bat etxako ezautu.

DANEN EGARRIA

—Zelan zarean gizon urte askoduna,
 Burnan zentzun asko baita daukazuna,
 Zer diñostazun entzun nai deutsut. Julian.
 Aberatsa aiñ gitxi dalako lurrian;
 Danok gura izanik eukitsuak izan,
 ¿Zergaitik illten gara geyenok pobrezan?

—Guztiz gauza erraza da erantzutea;
 Andres, ori da gitxi burua a ustea :

Gertaera biokaz dozu adituko,
Eurokaz begi biak oso idigiko.

Badakizu Juan zala Juanagaz ezkondu,
Juana laster ill zan da bestea aberastu;
Zergaitik zan andrea ugari eukana,
Ta senarran itxi eutsan diru dana;
Baña, onetariko kontuak gitxitan,
Andres, jazoten dira gizonen bizitzan;
Zergaitik loteriak banakari urten
Egiten deutsan, asko bertan sartu arren.

Bakigu bere dunok urteokaz Paula,
Kikili ta makala beti dabillala,
Eta umezurtz zelan ta aberats egoan,
Ezalakotzan bizi eingo luzaroan,
Siñisturik Paulagaz ezkondu zan Paulo,
Juan legez zalakoan aberats egingo;

Baña zelan eztogun bizia geurea,
Elorri oi dalako edonoz illtea,
Paulori bere gatxak errime eldurik.
Eroan dau luzaro miñez gogaiturik,
Eta Patriak oraindik luzaroan bizi
Uste dau urtcokaz egon arren gaizki;
Naiz izan bere gatxa bularretikoa,
Bere aitzak gazterik eroanikoa...

—Orduan txarto urten Paulori kontuak
Deutse ¿ta Paulak daukaz oraindik diruak?

—Bai, Andres, Paulak daukaz. ¡Ai! gure as-
Nakez urteten dabe guk gura lakoak. [moak
Zintzoro baleuskue urtengo amesak,
Geyenok giñatekez emeu aberatsak;
Paulok aberastzeko egiñ arren ames,
Erantzute ez arren kontuak nai legez,
Juanagaitik Juan buzan oso aberastu,
Paulagaitik Paulo da benturaz lurpetu;
Oni aretara ta bestei bestera,
Gogamenak urtenik sarri okerrera,
Geyenok illten gara munduan pobrezan,
Guztiok nai izanik aberatsak izan...

Baña, gauza bal daukat oraiñ azkenean,
 Zuri aitaturteko Pauloren gañean,
 Etzala arek eukan burutaziñua,
 Bapere zuzena ta aiñ gitxi santua;
 Eta makilla baga daki kastigetan,
 Jaunak ibiliten dana iñor engañetan.

Baita jakizu bere diru guraria
 Dala pobre ta aberats danen egarria ;
 Ta eukiz ase danik bat bere lurrian.
 Joango da billatu bagarik. Julian.

LAPURRA BETI BILDUR

Maritxuk,	Eldurik
Pastela	Bertatik
Eskuan	Ulura
Zelan	Ama,
Ekarren,	Maritxuk
Negarrik	Negarra
Eiten ez	Ei eban
Eban.	Laga.
<hr/>	
Baña Jil	Anaya
Ta Pio	Ostzallak
Jakozan	¿Orain nun
Eldu;	Dira?
Zergaitik	Ez dira
Pastela	Egingo
Nai eutsen	Barriro
Kendu.	Bira.
Umeak	Lapurrak
Deitzen dau:	Oi dira
«Amatxo,	Sarritan
«Zatoz;	Bildur,
«Bestelan	Ete dan
«Pastel au	Ikusia
»Ken tzera	Nor edo
«Datoz.»	Nor ur.

Zergaitik	Ondo nai
Ikusi	Dabenak
Ezkero	Ikusgei
Nor nai,	Izan,
Aldendu	Ez bizi
Oi jakez	Sekula
Bertatik	Lapurren
Eurai.	Gisan.

EIZARI BERTSOLARI BAT

(Neure adiskide on Bizente Agirre euskarazale txito argiari)

Goizean goiz jagita, eizara naz juan,
 Arrastaka eguna emon dot basuan;
 Erbi bati jarraika zortzi bat orduan,
 Ibilli arren, jausi etxaku lazuan.

Bekoki au askotan egin dot leortu,
 Zergaitik izerditan danau nazan urtu;
 Arnasarik ezinda azkenean artu,
 Laurak ingururako egin dot ukatu.

Bota bear ninduan goseak lurrera,
 Auxe izan da nire gaurko alogera;
 Ikusirik eguna joiala aurrera,
 Jarrita bujakatik jana dot atera.

Jatea kerizpetan guztiz zan atsegiñ,
 Erle batek ez baleust ernegau eragiñ,
 Burrun burrun, kantauta, izpiagaz deust miñ,
 Dabla eskuaz jo ta aplastau dot arin.

Asarrez jagi naz ta zekorrak, orma, "
 Jarraitzen abiau jat zezen arranua ;
 Ezautu dodanean ekarren asmua,
 Tiro bategaz kendu deusat amorrua.

Urrengo txakurtxo bat atera jat, txau, txau,
 Jarraitu ta aginka urratu deust prakau;
 Arrabioz jaso dot gora gora ankau,
 Agiñetan jo eta bota deusadaz lau.

Etixeruntz nentorren da, astoak arrantza,
 Esan deusat falta dok kantetako gatza:

Saltoka moldau gura zelanbait dok dantza,
Baña ez dok kenduko iñoz asto antza.

Sasi batetik gero norbaitek deust, txio,
Bertatik erantzunaz diñotsat adio,
Ni nok Pilipe deitzen, sekula ez Pio,
Txori artean izau ik bear dok txibo.

Kukuak bere bota deust bertsoa kuku,
Erantzun baga ez dot nai izan geratu;
Uda-barrian egin ik arren ujju,
San Pedroetan oi dok kukua mututu.

Zozoak ondorean kantetan deust zor, zor,
Erantzun deustat, mutill, zorra beti dok lor,
Jaunari alabantzak ni bizi nok gogor,
Artzekorik badeustak kobretara ator.

Errira sartuaz bat loruak, tontua
Deitu deust ta entzun dau i tontuagua;
Iñok erakutsia bota dok bertsoa,
Ik e u r e z asmetako ¿nun dok talentua?

Basotik etxeraño amaikak nau tenta.
Guztai emon deutset baña errespuesta ;
Arira egitea orren errez ezta,
Alanbere euki dot gaur naikoa beta.

Bertsolari gitxi naz, geyago eizari,
Eskopeta dot ona, kañoiak ditu bi;
Zuzen apuntau eta makiña bat txori,
Pikua ebagita mutu dot ipiñi.

AMAMA JUANARI

Negu gordin ta edurlsuaren arrats batean,
Apaldu eta su galantaren inguruan,
Bere alaba izan zanaren alabatxoak,
Amamak daukaz bi alboetan, bat altzoan.

Aren ulleak dira kanpoko edurra legez,
Eta buruan daukan zapia duiñ zuriak;
Urte askodun bere arpegi itzalezkoak,
Daukar. oraindik matrallak oso gorri biak.

Bere begiak samurrak dira llobakganako,
 Bere alaba zana duiñ maite dauz irurak;
 Euren onarren daroaz gabak asko lanean,
 Eta ez lotan goizik gabera astegunak.

Bere eskuak badagoz bere giarratuak,
 Zintzo derautse beranduraño gorietan;
 Lloba laztanak euki dagien oe zuria,
 Eta alorrek onak zer jantzi domeketan.

Alboko lloba batek dirautso erregutuaz:
 —Kontau eiguzu ipuiñ polit bat gaur, amama,
 Igaz nentsuna alako pozik entzun nik zuri,
 Izentzat Peru eta Maria dituana.

Beste alboan daukanak laster erantzuten **dau:**
 —Orren aldean amamak daki egokia;
 Kontau eiguzu kontau, amama, neuk nai dodana.
 Deitzen jakona *Amalau-errementaría*.

—Ez, ez, amama, beste bat dozu obeagoa,
Txomingorri da danen artean ederrena;
 —Altzoan daukan gaztetxoena esaten deutsa—
 Axe da kontau dagizun gura nik neukena.

—Ixi, guztiok, banoatzue bat esatera,
 Sagar zintzo ta ustelduenn entzuizue;
 Lagun gaiztoai alde egiten ikasiteko,
 Au entzutea oraiñ ondoen jatortzue.

Baña suaren bere gozotan ipuiña esan
 Baño lenago, llobak ebazan loak artu ;
 Aotik bera adurra pozez jausten jakola,
 Eurai begira amama mutu zan geratu.

Orduan danak bat banan laster erantzi-eta,
 Oe zuri apatz garbian dauz etzaten;
 Irurak laztan gozotxo bana emondakoan,
 Aitagurea ta Abemaria erasaten.

Amama samur, lloben kutuna, mundu onetan
 Zagoz bigarren ama aldia iragoten;
 Alabearen lekuan bere iru alabak,
 Orain deutsue biotz danori eroaten.

Ezin obeto, deitzen deitsue ao betean,
 Ama zanari eutsen naiagaz **gaur**: «amama».
 ¡Ai! balekie zeinbateraño **dituzun** maite!
 Len alaba bat, eta gaur dozuz iru, Juana.

TOMAS'EN ERETXIA

jose, ariñeketan
 Añ goiz nora zoaz?
 —Medikuaren billa,
 Adiskide Tomas.

¿Nor dago orren gaizki,
 Añ goiz joateko?
 —Berbarik bage dago
 Manu Landabeko.

—¡Jesus! etzaitez joan
 Medikutan bada,
 Ezpada albaitere
 Migel Antongana,
 Arek daki igarten
 Berbarik bageai.

—¿Nortzui igarri deutse?
 —Gure abereai.

K O P A K .

Aguratu bagarik,
 Paulo, zuk ill bear.
 ¡Ai! Julik bearko dau
 Egin gogoz negar.
 —Jayo nintzala dira
 Irurogei urte;
 ¿Ez al da bizitea
 Naikoa, On Jose?
 —Baña, ainbeste kopa
 Ezpazendu edan, pa
 Larogei urtekoa

Paulo illgo ziñan.
 —¡Olaa! ¿jayoko nintzan
 Orduan lenago?
 —Jayo ez, gaur biziko
 Ziñean geyago.

ORDI BATEN POZA

Katuagaz kalean	achura eriola
astelen batean	pozarren aotik.
Karlos zapataria	Ta Karlos'ek diñotsa :
zabuka bajoian,	—Zu orrelan, Permin.
joakola mutiko	zek poztuten zaituzan
pillo bat atzean	gura neuke jakin.
<i>mix-mix</i> deitzen eutsela	—Ni nau gomuteteak
pitean, pitean.	jai ta domekakin
Permin bere egokan	zeu legez ibillteko
begira etxetik	mutill txikiakin.

ANTON-DIRU

(*Nire adiskide abade jaun eta euskera-zale dan on Jose Maria Bernaola-koari*)

Anton-diru izan zan prantzestean soldau.
 Gero bere denpora ardizaiñ emon dau;
 Zarrez, zerren larretan sarri oi zan jausi.
 Oraiñ alabeagaz kalean da bizi.

Neke geyagorako da begi bakarra.
 Gatx ori dauka joan zalako gerrara ;
 Anton begi biduna prantzesak illtera
 Urten arren, sartu zan bategaz etxera ;
 Baña beste gauza bat beragandu eban.
 Zer zan iragartea atzo pensau neban.
 Zergaitik Anton diru nor dan jakitea.
 Ondo dan gauza dala da nire ustea.

Egia da kontu au jakula ipuiña,
 Ames baten antzera nik neurez egiña,

Alan donoso jarri ezpaneu egingo,
 Aurrez, irakurlea, parka eske nago.
 ¿Zer zan, bada, Anton'en gerrako saria?
 ¿Zer ele da aren gauza andik ekarria?
 Ekarrri ebana zan soldau kapolea,
 Neguan berotzeko ona alajea,
 Eta izanagaitik antxiña josia,
 Zirudian kapote igaz erosia:
 Aññ zan bera oyal bat, sendo eta fiña,
 Kolorez alegere, guztizko urdiña,
 Ta larogei negutan urtean, urtean,
 Ekarrri arren beti bere bizkarrean,
 Aurten norbaitek zelan egiñ deutsan ostu,
 Anton aurkituten da atsekabez estu...

¡O! ze triste dabillan ¡o! ze makurtua!
 Sentimentuz darabill lurrean burua,
 Abarka baga sarri, alkondara loirik,
 Arpegia sekula garbitu bagarik;
 Buruan geyenetan ez dakar txapelik,
 Eunezko praka zarrak, urratuz beterik;
 Surretarako bere palta pañelua,
 Zintz eginda daroa albora eskua.
 An ez dabelako nun gorde aurkituten,
 Praka-istarrean dauz atzak igortziten;
 Orregaitik soñean darabill koipea,
 Artu arren orio bagarik saldea.

Egia da daukala nunbaiten gorderik,
 Arran hat ontzaurrez guztia beterik;
 Baña kapote on bat erosi baño len,
 Itxiko leuko beste begia ateraten.

Oraindiño geiago: iñoz tabernelan
 Ez dakust astegunez, aññ gitxi jayetan;
 Ardaurik ez dau nunhait edaten beretik,
 Basokadea oi dau klink iñoz niretik.

Ez da barregarria gaur bere kontua,
 Burlaz deituten deutse *Anton zoratua*;
 Ezpadeutse biurtzen barriz kapotea,
 Sekulako joan zan bere izatea.

Osterantzean, Anton da ganorazkoa,
 Kristiñau fcdeduna, baita debotoa;
 Alan bearko zan ta, joan dan Domekan,
 Osagillea zelan dakusan elexan,
 Konsulta bat artzea jarririk gogoan,
 Mezatik urten arte nasai ez egoan.

¡O! ze meza ederra izan zan benetan!
 Oberik ez dot entzun aspaldi onetan.
 ¡Zelako kantariak! zelako soñuak!
 ¡Zeru bat zirudian niretzat koruak;
 Baña Anton'entzako inpernu bizia,
 Astiro joialako musikan guztia.

Beste gauza bat bere da esatekoa,
 Sermolaria zelan zan punterengoa;
 Aitatzeko duin dira ak dituan doiak,
 Iragarteko ondo euskeraz sermoiak.

Ikaragarria zan aren etorria,
 Zerutik nik uste dot eukala grazia,
 Kodizia ze txarra dan eban azaldu,
 Zeñek egiten daben Anton beti galdu;
 Oiturau, esan eban, zala ain zitala,
 Eta kentzeko barriz erraza etzala,
 «Zarrago ta txarrago dirala zekenak»,
 Oneek dirala berba jakitun danenak.
 Baña Anton'ek mezan zelan sermoetan
 Pentsamentua eukan josirik konsultan,
 Pagu ederra emon beutsan mezeari,
 Ez eutsan txarragoa emon sermoiari.

Noz edo noz eldu zan, nai eban ordua,
 Pasau zan Santusa, ta bai Komoniñua,
 Eta *Ite missa est* entzunaz batera,
 Anton arrapataka doa eleixpera;
 Nun osagilleari egiñik itxaron,
 Urten zanean berbaz laster asi jakon.

—Osagilla On Juan, ¿zer bear dot egiñ?
 Kapote bagarik gaur otzak nauka kikill;

Ostu egin deuste-ta, kanpoan banabill,
Nai-ta-ez bearko dot negu onetan ill.

Ekatzu bada, Anton, ekatzu eskua,
Lenengo bear deutsut nik artu pultsua...
Errazoa daukazu; dozu aiñ ikara;
Eneban siñistuko aiñ txar zengozala:
Baña ez ikaratu, ez billdurtu. Anton ;
¿Len bere nire gauzak ez eutsun egiñ on?
Sangría bat ederra zendulako artu,
Etziñean orduan bertatik osatu?

—Bai. Jauna, alantxe da, eskerrak berorri,
Osasuna ekarri eustalako niri;
Baña besotik sangrau oraiñ egiñ arren,
¿Egingo naz jaubetu ni kapotearen?

Bai, zelan bere, Anton, ez euki dudarik,
Obeago batena egingo zaitut nik:
Sangretan bazaitudaz, baña ez besotik,
Ezpada ango orde, gaur patrikaratik:
Andik ateraten dan odolagaz dendan,
Zuretzat kapote bat emongo dabe an ;
Eta zelan iraungo deutsun eun urtean,
Biziko zara berak dirauan artean.

—Ondo da ori, jauna, ¡o! ze konsulta!

Baña oraindik nai dot obeto artzea,
¿Zenbat kapote ori kostako ete da?

—Ontza bat urre, Anton, gitxi gora bera.

—Ai ene, galdua da gaur nire arrana,
Neure ontzurre gorri berreun daukazana;
Ene elastikoa eta bardin prakak.
Diraitsuak eta diru-toki bagak;
Eta arrana sangrau baño len, On Juan,
Obeto dot mundutik negu onetan jua.

*¡Zenbat zekenek daben Anton'en antzera,
Galtzen izen ona ta osasuna bera,
Eta txarrago dana, askok arimea,
Diruagaitik dana, ¡o ze lastimea!*

ESKATU-ESKINIA

Peruk, aurkitzen zala oyan miñez larri,
 Deitu eutsan Josepe zulogilleari,
 Jakiteko zenbat zan lurpean sartzea,
 Iruntsi ebalako lastertxo ¡Iltea.
 Zulogilleak esan eutsan: «Iru dukat;
 «Prezio au jarria aspaldian daukat.»

—Ezin leike, Josepe, pizkat merkeago?
 ¿Zelan nai dozu, Peru, iru dukat baño?
 —Egiñ nai ezpadozu, Josepe, batean,
 Ez naz ni bere illgo merkatu artean.

PEPA-ESPERANTZA

Pepak sartu dalako eun da bat urtean,
 Negua irago dau gorderik etxean;
 Udabarria zelan eldu jakun emen,
 Amabost egunokaz kanpora dau urten;
 Kanean dabillala nik dakust agaitik,
 Bere llobea lagun dabela albotik;
 Besotik obatuta onek eleixara
 Legez bardiñ daroa jayetan plazara;
 Gure etxe aurretik pasetean atzo,
 Pepak llobatxoari onelan dirautso:
 —«Jaunak gura daiala, Joxepa Antoni,
 Zu atsotu artean bizi nadilla ni,
 Zeuk orain niri legez lagundu daizudan,
 Eunda bat urtekoa zarean denporan.
 Sarituko al deutsuz zeure amandriak
 Zugandik artutako mesede andiak;
 Bai, ene llobatxoa, entzun dot Paris'en
 Dakiela atsoa umera biurtzen;
 Araxe gura neuke udan joan aurten,
 Zeu baño gazteago ipiñi nagien.»
 Barre-karkaxada bat egiñik llobeak,
 Entzun eban naibagez ori amandreak,
 Eta nik esan neban neuronen barruan:

—«Esperantzak engañau oi gaitu munduan,
Zelan poztzen garean danok esperantzan,
Negar egin bear ta asko gabiltz dantzan.»

GIZON KANPO EDERRA ETXEAN GERRA

Zergaitik bada, Txomin, diñoe nigaiti,
Nazala gizon on bat kafietan beti?

—¿Zergaitik ori daben orrelan esango?
Ejenplo bat jarriko laster deusut, Paulo.
Bisitatik dator da, doa bisitara;
Andra aberats asko bizi oi da ala,
Kanpoan zelan beti direan ikusten,
Gutzizko berba eder ta leunak esaten ;
Gaztetatik zergaitik au daben ikasten,
Alako andrak ontzat ditugu eukiten;
Baña, itauntzen bada neskatxen artean,
Ea etxekoandrea ona dan etxean,
Ez dabe danak. Paulo, baietz erantzungo,
Dongak dirala batzui deutsezu entzungo.;
Etxean ikusiten dalako barrua,
Ikustean bakotxai bere jeniua.
Ondo ezaututeko zein dan zelakua,
Testigutzat nai leuke artu laratzua;
Azala euki arren ederra sagarrak,
Iñoz euki oi dabez biotzean arrak.
Badakit, Paulo, zu zer zarean kalean.
Konbidau nozulako sarritan kafean;
Jokuan dozunean samur irabazten,
Dirua bere bardin deustazu emoten;
Baña zu zelakoa zarean etxean,
Andreak esan eustan lengo jai batean:
Dirurik iñoz ez da astean zurra bi,
Dakiala emoten Paulok andreari.

BLAS LAU OPIZIO

Blas ei zan ieltsero, argin ta arotz berez,
 Guztietan arro, ta danetan baperez:
 Pintetan bere zala bera lenengoa,
 Sinisturik ekarren dotore burua;
 Lonja zar bat erosi ak eban kalean,
 Ta gogoratu jakon kafea jartea an;
 Zelan orretarako puntuan egoen,
 Nai eban ipintea ainbat galantoen;
 Augaitik lagun bati ekarren asmoa
 Agertu ta eskatu eutsan kontsejua.
 Diñotsa: «Gura neuke kanpo eta barru,
 Orma ta tabiketan ieltsoz luzidu;
 Gero edurra legez ederto zuritu,
 Azkenez pinturazko lorakaz politu;
 Erakutsirik neure abilidadea,
 Danak deitu dagien Blas pintatzallea.
 ¿Zer deritxazu, lagun, ditudan asmoai?
 —Onak baño obeak deritxat dan-danai;
 Baña, nola nai dozun kontsejoa artu,
 Emongo deutsut eta. Blas, ez aserratu:
 Zuk legez nik banekiz opizio asko,
 Pinturaz aurrenengo neuke polituko;
 Gero ieltsoagaz luzidu guztia.
 Iñok tatxau ez dayan ango pinturia;
 Zelan ez dozun bere leun-leun luziduko,
 Zuk eiña dala danak deutse igarriko;
 Ieltsozko lan ori amaitzen danean,
 Zurituizu kareaz edurra aiñean;
 Baltzune bat bagarik dan-danean bardin,
 Dirudiala eun bat jarri dala egiñ;
 Esan dagien: «Blas'ek gaur beintzat zuritzen
 Badaki, jakin arren len utsik zikintzen.»

Opizio asko ta guztietan gaizki
 Jakin baño obe da bat ondo ikasi.

DIPUTAU-GEI BAT

Txori danak aguak,
Batzuk obak kantuak.

On *Kaixok* zelan daben nai diputau izan,
Ikusi dogu emen pobre baten gisan;
Limosna bat legetxe botoak eskatzen,
Kapelea nai-nori eutsala erazten;
Ibilli da etxalde, ta erririk-erri,
Askok burla egiten eutsala berari;
Beste batzuk aurean ondo esan arren,
Atzea emotean laster saltzen eben.

Auxe da, bai auxe da oraingo mundua,
Ezin leike nai-nogaz bal egin burua;
Ez da besterik emen bakotxak berea,
Dana da andi-naya, dana da temea;
Txiki-zalerik iñor ez dot aurkietan,
Danok igo-bideak gabiltzaz topetan;
Besteren (aitak barriz dakarguz kanpuan,
Noberenak ezkutau etxean barruan;
Umildadea nonbait egin dogu galdu,
Karidadea diru gitxigaitik saldu.

¡Politika dontsuak! ¿zer ekarri deusku?
Babel'era mundu au egin dau biurtu;
Gaurko gauzokaz ¿nok zer leike zuzen esan?
Alan bagoaz nora ez dakit goazan.
Baña, gure on *Kaixok* batez bere nau ni
Moldaerau zelanbait egitera jarri;
Ikaratuta nauka jaun onek sekula
Alkate bere izan ez dabenak gura,
Zelan aurten sartu dan diputau tratuan,
Bere izen ederra galtzeko tayuan.

On *Kaixo* jayotzatik da lotsor, otzana,
Ezdabaidetarako iñoz gauz ez dana;
Ganera da bildots bat legez baketsua,
Iñogaz asarrerik ez eukitekua;
Baita jakin dabena diru asko galtzen,
Auziari lekurik emote ez arren.

Oraindiño geiago, da praille antzera,
 Nekez balu oi dana gizonen artera;
 Bere familiagaz beti dot ikusi,
 Erretiroan legez jakulako bizi;
 Orrexegaitik nago oso siñistuta,
 On *Kaixok* dakarrela burua galduta ;
 Botorik emongo nik beintzat eneuskio,
 Zergaitik diputautzat ez daben balio.

Gizon guztiok bere, naiz izan personak,
 ¿Danak legegintzako doguz zentzun onak?
 Txoriak bere izan arren egaztiak,
 ¿Kantetako al dira danak egokiak?
 Asko ez dira gauza kayoletarako,
 On *Kaixo* ez da'n legez kortietarako;
 Ara joana gaitik ezpada kantari,
 Esateko egia oso eta garbi,
 ¿Zer deutsa egiñ arren joan da etorri,
 Erriaren onen bat ezpada ekarri?
 Eta zelan goazen aurrera txarrago,
 Igaz gaizki ta aurten pizkat okerrago,
 ¿Ez ditugu egingo kontuak atera,
 Zer izango dan gugaz bagoaz onela?
 Berau gaitik bear au agertu nai neban,
 Itsu egozan asko argitzeko eran.

¡O! baña lastimea amaitu baño len,
 Aurten boto-eguna sartu jaku emen!
 Alan bere balio daiskun urrenguan,
 Jentea jarri nai dot gaurdanik kontuan;
 Augaitik puskatxo bat bear dot luzatu,
 Kreiturik galdu baga on *Kaixo* salatu-

Irakurla maitea, begiratu ondo,
 Zelako gizajoa dan gure on *Kaixo*;
Porru errenteroa zerbait esatera
 Joan jakon goiz baten berari etxera;
Dran dran atea jota, dator neskaxea
 Diñotsa *Porruk*: nai dot nausia ikustea.
 —Ezin ziñaike, *Porru*, nausirik ikusi;
 Gau txarra pasau dau ta dago oso gaizki.
 —¿Benturaz ete eban bart larregitxo jan?

—Ez, *Porru*, bategaz zan berotu disputan.
 —¿Bategaitik ez al zan ainbeste berotu?
 —Bai, *Porru*, iñoz alan ikusi ez dogu.
 —¿Zeinbat obeto eban ezetan ez nastau,
 Bakean egiteko osasuna gozau!
 ¿Gizajoak urteten badeusku diputau,
 Madrillen bearko dau askogaz disputan !

Gizonak zetan daukan berezko modua,
 Alantxe bear leuke artu enpliuia;
 Baña aiñ gatx da ori gatxik bada ezer,
 Agaitik mundutxo au beti dabill oker.

MANU FORTUNA

Denporak zelan aldiz
 Zapataria zaldiz.
 (*Euskal esangia*)

Praisko, ez eizu egin alegin larregi,
 Ainbeste neke бага aberastu naz ni;
 Fortunarik ezin lei norberak ekarri,
 Arek berak bear dau gugana etorri.
 — Egia esan dozu, Manu, lagun zarra,
 Badakizu lanean nazala azkarra;
 Bearra egiñ arren zu lako seik beste,
 Beti aurkietan naz pobre ta arlote;
 Baña, dakust munduan nagia ugari,
 Diruzko erreketan egiñaz igeri.
 ¿Zeu bere beti izan etzara zuria?
 Sorra, gorriz ta zorrez, ganera josia?
 Eta gaur ikusteak zaldun egiñik zu,
 Burura darakartaz milla pentsamentu.
 Mesedez esaidazu, Manu, arren bada,
 ¿Nondik arrano dozu orain sarra-sarra
 Dirua, gastetako non nai firri-farra?
 ¿Zelan jaungoiko zaitu Fortuna orrek jo,
 Ez ete da sekula gugana elduko?

—Ara, Praisko, jakizu Fortunea zer dan,
 Alarikoa zanik pentsetan eneban,
 Emakumearena dauka antz guztia,
 Eta persona batek legetxe bizia;
 Dabill erririk erri, baterik bestera,
 Joten daben guztia aberastutera.
 ¡ Lastimaz iñok ez dau bera ezaututen
 ¡ Agaitik aberastu gitxi da egiten!
 Bestelan balekie zer dan Fortunea,
 Danak naiko leukie ari ikutzea;
 Orduan elitzate uelga bearrik
 Elitzatekelako bat bere pobrerik.

Orregaitik, baziña nozbait aurkituko,
 Fortunea dabillan errian zu. Praisko:
 Besteai oi jakena gertau ez dakizun,
 Ondo da bera nor dan gaur jakin dagizun.

A da emakume bat, aiñ ondo egiña,
 Ez zabal, ez bedarra, garbosea baña;
 Gañera zelan jazten dan iñor ez legez,
 Arri, perla, urre ta baita diamantez;
 Prinzesa danak dira bere inguruan,
 Arbi-lorak legetxe larrosen onduan;
 Jaungoikotxo dat dala, nai-nok leuke esango,
 Edo bai beste mundu baten zala jayo;
 Alako bati gero ¿zer egingo jako?
 Aberats zeñ pobreak, badakizu Praisko,
 Munduko erregiña balitza legetxe,
 Danak bidea larga, zabal eta libre:
 Ez da millagro alan iñor ez jotea,
 Eta mundu au pobre beti ikustea.
 Oraiñ esango deusut neure istoria,
 Eta kenduko dozu dueda guztia,
 Ikusi daizunean zer gertatu jatan;
 Banan, banan, agaitik gura deusut esan.

¿Etzara gomutetan beiñ Donostiara
 Joan egin nintzala ni bañuetara?
 Orduan, bai, orduan, leku baten antxe,
 Fortuneagaz neban jo onetaraxe.

Ondo pentsau bagarik, drangn, dranga, edan,
 Bero andiATEGAZ zelan eiten neban ;
Sagarduak ninduan *Moskorraz* ezkondu,
 Ibilten eninduan; baña asko ondu.

Donostian bideak, naiz izan zabalak,
 Orduan danak ziran niretzat bedarrak;
 Alboruntza egiten neban bakoitzean
 Oi neban ertz batetik bestera artean.
 ¡O! zenbat ume neban egun alan bota!
 Kastiguz bear neban kartzeleaz multa.

Praisko, etzan niretzat naikoa kalea,
 Nasai ibilli nendin bear zan plazea;
 Orregaitik egiten askok eustan barre,
 Nigaz estropezauta, ez gitxik asarre;
 Baibenka banenbillan, au jo ta a tope,
 Borondatez eneutsan iñori nik alde,
 Ordia oi dan gisan, ez buru ta anka,
 Bata eta besteak nerabiltzan loka.
 Auxe zan, ene Praisko, ango komedia,
 Nekarrela atzetik Donosti erdia.

Entzun orain zelan zan nire suertea,
 Kale baten betorren arro Fortunea,
 Neure zintan ta neure alderuntza zuzen,
 Eta ese giñan nik nolan niarduen,
 Gura zeñ ez ebalan, tope eitean bera,
 Diñost: «Manu, jo dozu Fortuna ederra;
 Aberatsa izango zu zara lurrean,
 Nai ezpadozu bere bizitza danean.»

Baña, berak ekarren garboari eutsi
 Ezinda, nekez zaildu egin nintzan zuti;
 Obeto nai dot esan orduko golpea,
 Dalako aitatzeko duiña dan gauzea ;
 Makilleak ez baleust, Praisko, lagun egiñ,
 Oiñpeko arrietan artuko neban min:
 Alan bere pipea egin jatan ausi.
 Txapel erdi-jantzia, sekulako jausi;
 Enintzalalako bera jasoteko gauza,
 Eleixatu egiñ zan niretzako plaza.

¡Bai!... Oraindiño bere gogoratutean!
 ¡Txapel arek miñ emon oi deust biotzean!
 Ezetara ez arren txanpon bal balio,
 Puskatxo bat geiago emongo neuskio:
 Osabak eustalako Paris'en erosi,
 Eta ogei urtean nebalako jantzi...
 Praisko, ¿zer deritxazu, ez eban merezi
 Armayoan gordeta eukitea beti?
 Iñok egingo baleust beñik-beiñ, gaur billa.
 Laster artuko leukez errealak milla.

Baña, sartu gaitezán lengo lanbidera.
 Donostian jazona noa amaitzera-
 Zoro bat legez eta, gañera ordirik,
 Alkandora ta prakak soñean bakarrik.
 Txanka bietan oñak, abarketa baten,
 Tayu lotsagarri bat zelan nik nekarren.
 Mutiko zatar batek iya gaututean,
 Arrikada bat emon eustan kokotean.

Orduantxe jo neban benetan nik lurra.
 Aotik eridala bitsagaz adurra :
 Larri ete ninduen eingo anka-z zapal.
 Aurkitzen nintzan zelai, luze aña zabal.

Jentea egitean, baña, etxeratu
 Ta soillik nintzanean ni bere geratu
Loak egin ninduan kateakaz lotu,
 Baita *Biaramonak* goizetik askatu:
 ¡Ze pozik makillea eskuaz arturik,
 Praisko, ni jarri nintzan jagita zutunik!
 Nonbaitera *Moskorrak* bere eustan alde
 Ez dot iñoz itandu bizi bada bere.

Esan dot istoria Donostiakoa.
 Amaikatxok entzunda barre egiñikoa:
 Orain azaldu nai dot arrezkerokoa.
 Dalako mundu dana arritutekoa.

Eneban siñistuko, Praisko, ezetara
 Fortuneak esanik gertauro jatala :
 Esan ta egiñ oso, ak eustan igarri,

Bestelan zeuk dakutsu zelan nazan jarri.
 Ordurik ona dabill neugaz suertea,
 Beti daukat artzea, iñoz ez galtzea;
 Egiñik adiskide batek testamentu,
 Nondik enekiala nintzan aberastu ;
 Dirua dot ugari, baserria pranko;
 Zorrak pagau nituan, euki arren asko,
 Loterian sarturik, illean illean,
 Milloe bat peseta geitzen dot etxean;
 Agaitik deitzen deuste, gaur *Manu-Fortuna*,
 Deitzen eusten guztiak, len *Manu-zorduna*.

Baña ¡o! inbidia madarikatua
 Deabruak munduan antxiña sartua!
 ¡A! badakizu, Praisko, ikusi eziñak,
 Emoten deuskuzala tripetako miñak;
 Paper barritsu baizuk gaur dabe zabaldu
 Manuk bear dabela kiebran azaldu,
 Geyegi direala ditudan gastuak,
 Baña ez dabez ondo atera kontuak.
 ¡A! balekiez ondo nire iturriak,
 ¿Zer dira edateko gureko euliak?
 Amar ume ditudaz, otseiñak amabi,
 Lau kotxe barri-barri, amazapi zaldi,
 Madrillen jauregia, Parisen etxea,
 Itxasorako bere bapor bat neurea.

Iñok esan bagarik, nik neuk dakit Praisko,
 Jente askok zer deutsan gauzoi eretxiko ;
 Beintzat esango dabe ezjakin tontuak
 Geyegi direala gureko kontuak;
 Baña zuk legez oraiñ balekiez ondo,
 Beste modu batera ¿eleukie esango?
 ¿Zer da burrukan, Praisko. zezenez ardia?
 ¿Ibai bat agortzeko ¿nor? nor? txindurria?
 ¿Onek leortu leike pozu bat sekula?
 ¿Ta ibai bat irunsterik iñoz gertatu da?

Kontau beyez gazetak ipuiñak ugari,
 Manuk edo nun dauka arpegia garbi;
 Agaitik esan deutsut, Praisko, lenengoan,
 Ain belu ikusirik atxurren soloan;

Fortunes egiten ezpada etorri,
Ez dogula egingo indarrez ekarri.

-Eskerrik asko, Manu, mesedeagaitik
Atera nozulako duda danetatik,
Zorionean ziñan izan Donostian,
Guztiok ipinteko zure inbidian;
Neuk bere gura neuke, antxe bertan aurten.
Egun batzuk irago bañuak artuten,
Zure antzera egin daidan pruebea,
Tropezetan ete dan nigaz Fortunea.

¡Ai! alako bat balitz, nik Manu gogoan
Erabiliko neuke bizitza osoan!!!

MARTIN-ILLARGI ETA MARTA-MIMIMI

Aizeriari joan arren ullea,
Antza berea,
(Esaera zarra)

Martin-Illargi gizon, illun ez noblea,
Burua baña argi eukan agurea;
Berrogei urterako zalako kalbotu,
Bizar zuri utsagaz egin da geratu;
Orregaitik andia zan bere famea,
Zalako gizakasta bardiñik bagea.
Agiñik bal ez eukan, begiak ezkelak,
Belarrietan ulle luzeak urtenak,
Ezpanak me sartuak biak barrurantz,
Alboz eukan igitai agoaren antza ;
Augaitik asten bazan zer edo zer jaten.
Okotz ta surpunteak eutsen alkar joten;
Bizkarra tontorduna biribil ederra,
Gorputza okertuten eutsana aurrera;
Egia da. nik zarra ezagutu neban,
Larogei urtez bera eukiko ez eban,
Ordurako eukazan buru ta besuak
Loka, ikaraz, eta anak astunduak ;
Zergaitik ez dakien urteak parkatzen,
Eta bai bakotxari berea emoten.

Sasoi artan gu zelan giñean gazteak,
 Atso-agurai burla egiten zaleak,
 Zenbat aldiz kalean denpora pasatzen
 Genduan Martiñegaz ta eskolea galtzen,
 Zenbat ariñeketa eragiten gcuntsan,
 Berak eukan falten bat deituten bageuntzan;
 Kantoi batetik batek ots einda *Illargi*,
 Eta asiten bazan jarraituten ari,
 Besteak *Buruloka* atzetik esaten
 Beutsan, burua laster eban biurtuten;
 Tolietan genduan zezen baten gisan,
 Ez mutiko zuzenak bagiña gu izan.

Ez da bada txantxea, baldresa zan oso,
 Eta etzana jantzi sekula donoso;
 Baita zelakoa zan bere oiturretan,
 Cura dot berba egiñ puska bat danetan;
 Asi gaitezen bada irakurten emen,
 Amaituko dot gero azkena nonbaiten.

Martin, meza nausitan, baita bezperetan,
 Arpegi zikiñagaz nekusan jayetana,
 Bizarra kentzen beban illean birritan,
Geyenez izango zan, ez beintzat sarritan;
 Txamarrea bekarren domeketakoa,
 Alkondarea loa, astegunekoa.
 Jairik andineetan bere, bai, abarkak,
 Bein bakarrik erosi ebazan zapatak,
 Prarak ekarzan barriz iya beti batzuk,
 Etzituzan eukiko guztira irutzuk,
 Kolore bi bakarrik neutsazan ikusten,
 Zelakoak zirean etxataz aztuten,
 Batzuk zirean pelpa, ta besteak mauna,
 Urteak eukezanak berrogeta amarna;
 Ezkongei zan denporan zirean josiak,
 Txamarrak aiten aita lenengo jantziak,
 Da esatea: Martiñ, eneban ganoraz
 Ikusi nik jantzita beiñ bere soñeraz;
 Ez eban ezagutu sekula *Lotsea*,
 Maitetzen ebalako larregi *Poltsea*.

Beraz esan daikegu, etzala pobrea,
 Bazan bere seme ta alaba bagea;
 Tratuetan nok eban asko irabazi,
 Esanda guzur asko eta egi gitxi;
 Añ zan tranposoa ze eban engañauko
 Deabrua berbera etorri ballako;
 Idi, bei, zezen, zekor, ta txalakiñ aurten,
 Urrengoan txarridun bardiñ zan agertzen,
 Gero beor, beoka, txiko, zaldiakaz,
 Mula, mando, mandako ta asto ostuakaz;
 Baita ardi, auntz, ari, aker armatuak
 Legez ekarzan ollo, zeinda ollaskuak;
 Zeintzuk zireanean auzoan artuak,
 Zarratu oi zituzan bertatik tratuak;
 Salduten *Barrabasak* maliziaz urriñ
 Zituan lapurretan ebazanek egin.
 ¡A baño oberen bat kartzeletan, bada,
 Illgo zan onezkero arratoiak janda!

Martiñ prueba danak zan egiñikoa,
 Etzan bere denporan burutik mankoa;
 Eragina askori bai gogotik negar;
 Orretarako zoli egiñ eban bear.
 Ganau paltadun asko nundik nora saldu,
 Onaren prezioa ze modutan artu;
 Gorputzez bazan bere baldres ta traskilla,
 Ziriak sartzen beti izan zan abilla;
 Engañetan ikasi añ eban ederto,
 Lanean baño artan.ekian obeto;
 Diru txarretan zenbat emon eban, barriz,
 Jaungoikoak bakarrik zireanak dakiz.
 Beti nondik ostuko bizi zan lurrean,
 Ez dakit zelan bizi gaur oí dan bestean;
 Jaritxiko al eban bai parkaziñoa,
 Osterantzean etzan arentzat zerua.
 Oneik baziran bere kanpoko kontuak,
 ¿Zelan ete zirean etxe barrukuak?

Ezkondu eta laster, jarri zan poltseru,
 Andream ebalako konfiantza galdu;
 Oso zan berekorra, temoso pestea,

Ez bapere ohea bere emaztea,
 Zalako atso zimel, baltz, igar, maltsiña.
 Begi gorri, guzurti, prestuez, zikiña;
 Noren miña zan beti meia ta zorrotza,
 Zeñegazko abarka eztena da motza:
 Obeto esateko, bazan benetan bal,
 Errian kontetan zan txarretan txarrentzat.
 Alakoxea zan bai atso maletea,
 Trago baten edana arda azunbrea;
 Au agirian eta ganera ixillik,
 Zenbat irunsten eban ez dakit ziur nik:
 Bakit moskor galantak ebazala artzen.
 Atarako artoa non ta zelan saltzen:
 Laborea ugari egin arren batu,
 Gabon ingururako oi eban ondatu.

Orra Martiñ ta Mariak eroien bizitza,
 Umore on bat baga gerra baten gisa,
 Arek gastau nai gitxi ta asko aurratu,
 Onek dana bestera, tripan gura sartu:
 Batau bazan katua, bestea txakurra,
 Ango bizimodua aiñ zan ze makurra.
 Zalako azkenean indarra nagusi;
 Martiñek errazoia euki zeñ ez euki.
 Ogeitxo bat makilla, ainbeste urtean,
 Gitxienez eutsazan bringau bizkarrean,
 Pagaurik beti ondo Marta'ren sayetaak,
 Asten zireanean ezetz ta bayetzak ;
 Bai, zartada bategaz laster sayestxo bi,
 Brin eutsazan ausi ta beste bein biterdi,
 Gañera egiñiko tontor-baltzituak,
 Zelau ez daukadazan zeatz adituak,
 Erratu ez dagidan, gura dot ixilldu,
 Guzurras ez dayodan nik kreiturik galdu.
 ; Ai! ango laratzuak, berbetan baleki,
 ; Ak bai, esango leukez kontuok ederki!

Baña Martiñ legetxe, zeñ Marta kalbotu,
 Jeniorik etxaken bapere obetu,
 Zeinhat eta zarrago joiazan txarrago,
 Bestelan gertaerau entzun baño ez dago.

¿Nori gogoak emon artu burduntzia,
 T'au sartuta galduko eutsala begia
 Agura berenoak bere andreari,
 Irurogeta amar urttxodunari?
 ¿Gabon-apari, baten, txakur eta katu,
 Abiaurik nai ez da, alkarri parkatu?
 ¡O! baña arritzeko jakun gauzea da,
 Orain iru berbatan esango dodana.
 Begi gorri bategaz naiz Marta geratu,
 Suerte barriagaz jarri zan kontentu,
 Pentsetan ebalako Martiñ ondu zala,
 Cdo mundutik laster bestera joiala.

«Ondo, ondo, eun dukat, Martiñ-Illargiri,
 Kosta jako begi bat galdutea niri;
 Jardun bei kalboari arrabioz azka,
 Tiraka ekiteko ullerik ez dauka;
 Alperrik dabill, baña, burua urrealzen;
 Medikuak ez deutsa iñori parkatzen,
 Bisitak amaika ta bost duro bakotxa,
Martiñ-I llargirentzat sumau da mingotxa.
 ¿Ez al dago andrea tratau baño gaizki?
 Egur bagarik jaunak kastigetan daki;
 Alan badoa, barriz, sentimentuz garbi
 Martiñ egingo da ta Marta libre jarri,
 Orduan iragoko ditudaz *Gabonak*.
 Edanaz arda gozo, kate eta erronak;
 Ez Martiñ-Illargigaz legez ardau baga,
 Porru ta gaztañakaz metalura edanda.
 ¿Zelan jarriko ete zan agura dollorra,
 Benturaz artu baneu ardauez moskorra?
 ¿Apari pobreagaz kejetegaitik,
 Ipiñi baninduan tuerta bertatik?
 ¡ Illgo al da agura, baldres ta trekua!
 Bizkarraz gabelua, belarriz astua,
 ¡ Nok irago bear dauz *Gabon ta Pazkoak*,
 Beti guk iragoten ditugun lakoak?
 Nik gura dodana da urtean bein *Gabon*,
 Errazoia dau legez, pasau eñaz *bonbon*,

Sabelari eginda nai dabena emon,
Martiñ-Illargi, barriz, dedilla or konpon.»

Onetantxe ekarren Mariak bere miña,
 Martiñentzat ez gozo, eta bai samiña:
 Nok, nun edo nun laster, kontu an jakiñik,
 Joatean gau baten etxera suturik,
 Diñotso: «Orra, Marta, berreun dukat garbi
 Eta pagau bertatik mediku jaunari.»
 —¿Zoratuta al zatoz?, ¿zer diñostazu, zer?
 Kontuak ateraten, Martiñ, dozuz oker.
 ¿Zergaitik birritan eun nai deustaznz eman?
 ¿Ez dakizu eun dukat baño zelan ez dan?
 ¿Ez daukazu gomutan paperean garbi,
 Mendikuak bere eskuz zelan eban jarri?
 ¿Eta zeuk bere sumau zenduan kontua,
 Ala iñozentetu gaur jatzu burua?
 —Enaz iñozentetu, atso me sorgiña ;
 Zuk aña zentzun badot, aiiñ txarra ez miña.
 Eun dukat ta kontua bai, Marta-*Mimimi*»
 Baña zuk zelan euki dituzun begi bi,
 Urrengo *Gabonetan* seguru atzera,
 Aserratuko gara eta bigarrena
 Iñolabere zelan deutsudan galduko,
 Ardurea kentzca nai dot ordurako.

¿Ai, esakune zarrak., diru geyenean,
Jarri leitekezanak fedeaz urrean;
Joan arren aizeri 'zarrari ullea,
Raña aizeri antza ak heti berea.

PATXI AGUAZILLA

Daukazu enplioan, bizi baga kejaz,
 Irabazten dozula mantentzeko eskas;
 ¿Aguazill baño, Patxi, obeto etzeunke,
 Askok gura zaitu ta jarrea alkate?

—Mitxel, ¿ez al dakizu entzunda sarritan,
 Alkatetzan jornalik ez oi dala izan?
 Biziko bada bere Patxi pobre gisan,

Onezkero jarraitu nai dau aguazilltzan.
Ikusi ditut sarri Langillea etxeak,
Lurra jo eragiñik alkate izateak,
Pobreak obeto dau umill bizitea,
Ez aberatsen lanak errian artzea.

—Ori da errazoaia, ori, ori, Patxi,
Uste dot ez dozula buruausten gaizki,
Baña ¿ez al dakizu nun etxerik etxe
Ibilli diran pobre asko boto eske?

—Sobra bere badakit zelan boto billa,
Ibilli oi direan ni lakoak milla;
Sarturik bai amaika kanako alkondaran,
Al balebe jarriko litzakez altaran.
Orrelan dabiltz gero gauzak errietan,
Legoak maisu jartzen direan danetan;
Zeintzuk bear leukien lenengo ikasi,
Euren umeak zelan bear legez azi;
Eta gurasotzako danak alan-alan,
¿Ze buru egingo dau kontzejuko salan?
Aurtengoa da, baña, danen azkarria,
Irakurri dodana baldin bada egia;
Iru alkate geigaz jarri dabe lista,
Lorik bere ezin dot gauzok ikusita,
Bata *Tripon* da. eta bestea *Ordillon*,
Irugarrena euren lagun bat *Kiebron*;
Orra ze gatzizenak direan eurenak,
Besterik ez dakie errian geyenak;
Oneikaz beti deitu oi deutse kafean,
Abadeak jarriaz bein berez kalean;
Emendik ezautzen da ze kasta direan,
Bestelan prueba egin tabernan gabean;
Antxe batu oi dira egunero beli,
Zer diran igarriko jake berbetati;
¡Ail euretatik nai-nok badeusku urteten,
Zorrez bete bear dau erri onek aurtten!

Baña, gauz au eukizu. Mitxel, ixillean :
Enpleaduok gagoz arri labanean,
Txar, on ta erdikoaz bear dogu bizi,
Edozeñ alkateri txapelak erantzi;

Ezin euki izanda gaur pazientzia,
 Kontetara beartu narxatzu egia.
 ¿Ez da, bada, ziuru dala miseria
 Nai-nok nai izatea gobernau erria?
 Mitxel, oneixek dira ditugun legeak,
 Obe litzakez jarri barriak obeak ;
 Buruak gura doguz guztiok gaur egiñ,
 Pobreak ¡zan arren aberatsaz bardiñ ;
 Beronek dakar gero galdurik mundua.
 Aixetu jakelako amaikai burua.
 Baña begira eta ikusi ardiak.
 ¿Es dagoz baltzak eta ez dagoz zuriak?
 Naiz ama bategandik euki jatorria,
 ¿Ez dauke desbarbiña antz eta neurria?
 Nai ta ez batzuk goyan, beste batzuk beian,
 Bardiñ ezin gindekez gu bizi lurrian.
 Jaungoikoak lege au jarririk badauka,
 ¿Zeiñ gizonen al leike ipiñi jirauta?
 Fede bagako askok begie alegiñ,
 Bizi diran arteko badauke zeregiñ.

Mitxel, naikoa dot ta egizu mesede,
 Berbok zeure barruan egitea gorde;
 Baña banandu baño lenago deusut nai,
 Esan alkate barri nor bear geunken bai,
 Aspalditxoan daukat botarik begia ;
 Neure kontzientzian dauka merezia,
 Dalako katoliko, oituretan ona,
 Aberatsa zelan dan astia daukana;
 Au lako bat da bear dogun personea,
 Ez besten azpikoa, ezpada librea;
 Alderdi nastuetan sartuten ez dana,
 Gauzak zuzen ipinten bakarrik ezpada;
 Aberatsa legetxe amaurik pobrea,
 Guztientzat bardiña daukana legea;
 Eta erri onetan badaukagu jauna,
 Kontau dodazan doiak, danak dituana;
 Mitxel, duda bagarik. Don Juan zalduna
 Alkatetzat errian da bear doguna.

Ez ni lako arlote buru arrodunik,
Okotzean bizarra daukana bakarrik.

*Txepetx jayo ta Miru nai daben gíxonak,
Praken lekuan jantzi obe leukez gonak.*

BASERRI BATEN TRANPOSO BI

Guzurra esan neban mendian
Ni baño lenago zan errian.
(*Esaera torra*)

Baserri bat nik dakit kaletik urrean,
Abia bikoduna tellape batean;
Nun ditudan ezautzen bost urte onetan,
Familia bi bizi dirala eurretan,
Zarra ezkerrean ta gaztea eskuman,
Bietatik txarrena ez dakit zeñetan;
Aññ dira bada asko, bitzuen kontuak,
Zeiñtzuk jarteko bear dira liburuak;
Zelan ez diran, barriz, bat bere santuak,
Obe da itxitea lurpean sartuak.
Alan bere gura dot, bat eskribitzea.
Bizi dedin betiko bere gomutea.
Nun nai jakiñik gizon, ze kasta direan.
Begterik ez dagien engañau lurean;
Bizi direalako beti guzurretan,
Urrin, ur, uri, erri, leku guztietan.

Entzun, bada, gauza bat gertatua biai,
Ondrarik geitu baña ez eutsena eurai;
Baldin batak egiña bazan gauza txarra,
Besteak egin eutsan bereala parra;
Errazoiagaz da bat deitzen Txomiñ *Tranpa*,
Joakin *guzur* bestea; biak dauke antza.

Ara zelan zan, bada, orduko kontua,
Barre legetxe negar eragitekua;
Irakurri dedilla ementxe bestela,
Ipiñi dodalako jazo zan bezela:

Zuzendurik gaztea zarraren etxera,
Asi ei jakon berba leunez esatera.

—«Mesedez gura neuke astoa gaur, Txomin.
Errotara bear dot biaje bat egin;
Gure asto amea egiñ ei dabe ill,
Astakumea barriz kanpoelan dabill;
Gañera bizkarrean neuk zelan dodan min,
Bakizu kargarako zelan enazan duiñ.»

—«Poz-pozik serbiduko zindukedaz, Joakin;
Gure astoa baña, ¿nun dan zeñek jakin?
Atzo basoan billa naiz luzaro ekin,
Alperra egitea izan zan alegin;
Ona emen zeu legez etorririk, Krispiñ,
Baua, batorri bere gusto emon eziñ:
Bestelan gure astoak bioen kargakiñ,
Errotarañokoa eingo eban bardiñ;
Eta aulki bategaz lagun bi nik ariñ.
Serbiduko nituan arturik atsegiñ.»

Guzurra zelan artzen erraz dan. geyenez,
Bizkorrak errendua oi dabena legez;
Txomin bere bertatik zepoan jausi zan,
Uste-uste bagarik alako modutan;
Astoa abiaurik kortatik orrantzaz,
Guzurtau zan bertantxe gorriturik lotsaz:
Baña, au da andia, etzan mudau Joakin,
Naiz esetsi bereak andiangoakin;
Ta bere ondorean jardunik umeak,
Ikaratu zituzan auzoko jenteak;
Etxeko danak barriz ipiñi gorturik.
Ordu erdian alkar aditu eziñik.
Izan bere, eztarriz, zolia da bera.,
Agaitik premia aurtan dau atera ;
Ill бага luzaroan baldin bada bizi,
Joakin ez da izango aurrera aiñ gaizki.

Baña, ¿zeñek ez dakus orain garbi oso,
Bera ta zelan Txomiñ direan tranposo?
Agirian daukagu dirala aizeri,

Ez bata ez bestea lazurako erbi.
 Tellape baterako ¡o! ¡ze familia!
 Bakea gozetako ¡ai! ¡ze desgrazia !

Txomin eta Joakiñen kontu aĩn polita,
 Albait ondoen orra bertsoan jarrita;
 Nai neban ikustea letraz ipiñia.
 Askorentzat dalako ispillu garbia.
 ¿Zeinbatek euki arren ugari gauzea,
 Bestenaz ez dabe nai aprobetxetea?
 ¿Guzurra (a abarra asmaurik zelanbait,
 Eragiñik sarritan auzokoai gogait?
 Alantxe diralako Txomin zeinda Joakin,
 Eta besterik izan orrelan ez dedin.
 Jakin eragiteko gure *Errebistan*.
 Ejenplugarri edo ikasbide gisan,
 Kontu au Krispin- kalek igaz esan eustan.
 An aurkitu zalako bera ordu atan ;
 Berak entzun zituzan astoen arrantzak,
 Berak irurai arlu ardureaz antzak:
 Berak ezautu ziur danen garrasiak,
 Ziralako beragaz sarri ibilliak.
 (Egia da ikusi begiz ez ebazan
 Zergaitik zarraturik kortetan egozan),
 Baña ¿cntzunagaz bat, personea berbau,
 Ezagututen ez dau belarriak nor dan?
 Ez dago bada emen, dudaren apurrik,
 Ak esango ebala bapere guzurrik:
 Alan bere formala balitz Krispin *Kale*,
 Ez eban jakin bear gauz au batek bere.
 Baña, zorionean da kale-zalea,
 Ez dabelako jan nai taloaz esnea;
 Barri bi batu eta amabi zabaldu.
 Brometan beti bera da danbolinteru.
 ¡ Ai! komediantea izan balitz *Kale*.
 Atxurlaria baño askotxo zan obe!

Alan Txomiñenetik urten ebanean,
 Eskuan makilleaz, pipaz ezpaneau.
 Trentxo bati legetxe eriola keia.
 Errira egiteun bertatik bidia,

Geratu egin jakon siku eztarria ;
 Baña, jakiñagaitik nun zan iturria,
 Sartu zan arda on saltzen zan tabernan,
 Eta eun gizon topau egin arren bertan,
 Abiau zan kontetan guztien aurrean,
 Berak daukan grazia ederraz miñean;
 Aiñ ondo eiñnz Txomin ta Joakiñen plantak,
 Ezin eta obeto astoen arrantzak,
 Malkoak bota arte, eragiñaz barre,
 Naiz da gizon bi itxi, bertan kreitu bage.

*Ze ederto dagozan esaera zarrak
 Jarriak antxiñako euskaldun asabak,
 Guzurra esan arren gizonak mendian
 Bera baño len dala elduten errian.*

¡MEDIKU GIXAJOAK!

Ardieren utsak.
 Pasan bildotsak.
 (Esaera zarra)

On Pedro, kalietan aiñ goiz zek darabil? —Puntuan ill dan andra bategaitik nabill.
 ---¿Ill da *Buruariñ* Felipa'ren ama?
 —Bai, Praixko, gaur larogei urte jayo zana.
 —Mediku txotxoloak osaturik Juana, Eun urte erañegun bete dituana, ¿Zergaitik ez dau Mari *Buruariñ* ala Urteak gitxiago ogei zituana?
 On Pedro. ¿zelan ez dot esango egia, Berori izan arren Barbera zolia?
 Dala bat osatuten bere alegiñez, Eta ez medikuak dauken albidadez?
 Edo fortunaz legez beñik-beiñ gaurkoak, Direala sendatzen miñdun gizajoak?
 ¿Zer balio dau. bada, mediku izateak.
 Diruaz tituloak Madrillen artzeak?
 Eta ¿zer barberuak eiñ arren lagundu, Egunero ikusten baldin baditugu,

Zarrak osatu eta illik gazte asko
Geratzen emen triste, ainbeste guraso?

Larogeiko bat ill dau... eunekoa salbau...
Kontu barregarri au ¿nok daike aprobau?
On Pedro, ez alabau gure medikua,
Erdia zoroa da, edo da lelua...
—Praixko, ezabiltz ondo, bear da lenengo
jakin motiboa ta berba egin gero.
¿Ez dakizu ondo zuk sei urte osuak.
Juana'gaz dituala pasau medikuak?
¿Ez dakizu bi milla bisitatxo kostatxo
Jakola, ta Mari'ri lau ein urren ozta,
Ez dala orren errez geixo bat osatzen.
Alboko miñ zorrotzak baldin badau artzen?
Eta, ¿ez al dakizu zelan dan otzana.
Medikuen esanak egiteko Juana ;
Bear dau orduetan erremediak.
Artu dituzalako eurak aginduak,
Orain aurkitzen dala dana gazteturik.
Eun urtegaz errian zarrena izanik?

— ¡Ola! On Pedro, ¿zer dau esan nai orrelan?
¿Denporaz dala eltzen pikua arbolan?
¿Edo bai, ez balitza Mari aiñ ariñ juan,
Eta eun urteraño bizi izan bazan,
Gazte legez jarririk seian medikuak.
Amalau eukazala atzetik sanuak?
—Praixko. guztiz ei zara eizari ederra.
Biotz erdian joten ei dozu eperra,
Baña gaur orren ondo ez dozu tiratu,
Lumatxo baten bere ez dozu aurkitu.
¿Ez dozu Mari'gaitik iñoz entzun ezer?
¿Zelako atsoa zan zuzen edo oker?
Bera zala neskatxa, bera etxeoandra,
Bera urduri edo ipurdikarea,
Gauza danetan palta ebana epea?
Praixko, entzun egizu, berak zer ein daben.
Berba gitxitan esan gura deusut emen;

Jakizu. zerbait jarri ezkeru buruan,
 Ondo zeñ txarto, eiten ebala beinguan;
 Jakizu, geiso jarri zala eguntxo bi
 Izan orduko dala ogei bider jagi;
 Jakizu, medikuak topau arren oyan,
 Nik topetan nebala etzanda lurrian.
 Orain kulparik ¿zeñek leikio ezarri,
 Marik berak eukita, mediku jaunari?
 Esan egidazu zeuk, ¿ez da pikardia
 Jakitun bati alan sartzea ziria?
 Au ¿ez da Judas baten legea berbera
 Aurrean batera ta atzetik bestera?
 ill bada bere ondo *Buruariñ* da ill,
 Ez eukan obeditzen izan baño umíll,
 Gaur ondo pagauko dau Purgatoriuán,
 Medikuen esanak ein eza munduan;
 Neuk eneuke beñik-beñ orrelan ill gura,
 Eroan ez dagidan ariman bildurra...
 —On Pedro, alan bazan Mari *Buruariñ*,
 Izen ori ederto jarri eutsen egiñ;
 Eneban siñistuko alakoa zala,
 Berori ezbalitza ondo dakiana.
 ¡Jesus! ¡Jesus! jarten naz gauzokaz ikara!
 ¿Noz uste ete eban artzea pixua?
 —Praixko, eutzuizu baña txarrena oraiñdik :
 Ezin artu erazo geuntsan botikarik.
 Eta nai-noz erautsan bizkotxoa jaten;
 Daita errantzioa *txurku txurku* edaten.
 ¿Zeñek osatu leike geixorik orrelan,
 Uraren ordeaz arda gozoa nai beban?
 Felipak bere ez dau erratu gitxi or,
 Erak egiñ bai, eta egiñ ezaz gogor;
 Agaitik bat-batean bart egin da mudau,
 Denporea baño len tripeak galdu dau.
 ¡Ai! Marik zaindu baleu zintzo dietea,
 Eunda ogei urtean eukan bizitza !
 Zorionean gauz au neuk baño ez daki,
 ¿Zer leuskigu On Justok esango baleki?

—Nik ez dakit, On Justok zer esango leuken,
 Nik neuk On Justo banitz bai zer eingo neuken;
 Jarriko nintzateke asarrez sututa.
 Begiok oñaztuak legetxe biztuta;
 Odol guzti-guztia ¡gorik burura,
 Arturik amorratu dan baten itxura,
 Iragoko nituke jan bagarik gaizki,
 Gitxienez egunak zazpi edo zortzi.
 ¿Bestegaitik artzea alako portua,
 On Pedro, elitzake sentidatekua?
 Auxe da nik jatorriz dodan jenua,
 Ama bizia bazan, aita txit berua;
 On Justo medikua, bada ni lakua,
 Ela jakin ezker Mari'ren kontua,
 Eneuke egon gura nik bere onduan,
 Oztitu arte pizkat aste bat osuan;
 Amatetan dalako nire garra baño,
 Larra iger sutu bat askoz lasterrago:
 ¡Izango al da, arren, biotz mantsokua l
 Ez polbora ni legez, ixiotzekua.
 ¡Jarraituko al dau fin, geisoak osatzen!
 Zergaitik ezpaneban bere len siñistzen,
 Orain dakit millatik bat ez dala illten,
 Medikua esana danean egiten.

—Praixko, orixe da, bai, egia benetan,
 Askok ezpadau bere einen siñisketan,
 Esan dozun legetxe lenengo berbetan,
 Zarrak itxita doaz gazteak askotan;
 Baña, ikusi dozu zer dan motibua,
 Engañuz dago oso mundu au galdua ;
 Au gaitik On Justo'ri, Mari'ren kontuak,
 Eragingo leuskioz ez gauza santuak;
 Geixo batek alantxe burla egitean,
 Bakit zer egin eban juan dan urtean:
 Eskandalu andi bat emonaz errian,
 Emon ez dan lango bat gure gizaldian,
 Buruko kapelea (kopaltua bera)
 Eun erreal kostea botarik lurrera,

Makallau me-me baten antz-antzean bardiñ,
 Anka-pean zapalik itxi eban ariñ.
 Gero berealaxe eskuaz artuta,
 Lesna erdi bidean erre kara bota.
 ¡ Ai ! ez dakigu asko noz gagozan ondo!
 ¡ Plagea baña, iñoz oyan ez dago lo!
 Cta bai, zoli-zoli, alako eretan,
 Lazuak ibillten da txoriai prestetan.
 ¡ Lastima arima bal oraiñ dana uso!
 ; ; ; Litzake deabruak artutea preso !!!
 Ez al da alakorik egingo gertatu,
 Damos gero On Justo ez dedin geixotu.

—¡ Jesus! Jesus! Jesus! bai! Mari'n parkatu!
 !Jesus! ez of dau eingo On Justok pekatu!
 Ill zana joan dala, onek ondo daki,
 Baki betiko agur ebalá emeti;
 Baki alperra dala ekitea ari,
 Eziñ giñai kelako atzera ekarri;
 Baki, Marik eukala buruan aixea,
 Ez eukala garaunez aiñ ondo betea...
 (Eta egi guztiok baleu/, gomutnuko)
 ¿Ausaz ainbesteraño litzake sutuko?
 Nik beintzat len agertu arren aserrea,
 Obe dala deritxat dana parkatzea;
 Zergaitik *Buruariñ* zala jayotzati,
 Faltaduna puska bat munduak badaki;
 Osterantzean on bat izan da benetan,
 Zorrik ez eban izten sekula dendetan;
 Gañera nik nekusan beti errezetan,
 Ordu erdiak naiz jo zeñ da osuetan;
 Eta goiz guztietan entzuten meza bi,
 Kanpora urteteko begoan aterri;
 Orregaitik uste dot, arek pekaturik,
 Jakinda ez ebalá bat egin bakarrik;
 Iñozntea barriz dudatxo bat bage,
 Beste munduan ¿ez da infernutik libre?
 Mari'ren arimeak. On Pedro, oraingo,
 Aingeru batek legez zerura dau igo.

¡Ojala! alan balitz, Praixko, diñotsut nik;
 Ññoren gatzaz ez dot artzen atsegiñik;
 Alanbere nai deutsut esku emotean
 Esan, euki daizula kontua miñean;
 Jakizu, uste бага, norbait bada ¡lten,
 Guzsur asko errian dala zabalduten;
 Botarik ezjakintzat mediku argiak,
 Kulpak eukiagaitik geisoak guztiak.
 Gaur legez ez dagizun bada zuk erratu,
 Larregiraño miña eginda luzatu,
 Onena dala azkenez, esango deutsut nik,
 Gauzak jakin artean egotea ixillik;
Ardiaren pekatu, erratu ta utsak
Erru bagarik pagau ez daizan bildotsak.

LINO ANKABAKAR

Mari Anton...
 Bataren gatxa besteren on.
(Esaera zarra)

---Zer esaten deustazu Kuba'gaitik, Lino?
 —Tratu txarrik ez dala danentzat, Faustino;
 ¿Ez dozuz zeuk ikusi gaur ferian bere.
 Batzuk triste ta beste batzuk alegere?
 —Zer esan nai deustazun zipladokaz niri,
 Gura legez igarri ezin deutsut zuri.
 —Zipladok esan gura dabena, Faustino,
 Baldin ezin badozu aditu garbiro,
 Isteria luze bat deutsut azalduko
 Eta garbi beragaz dozu adituko.
 Enaz ni emengoa ta bai kanpotarra,
 Ziburu'tik etorri nintzan España'ra ;
 Eta orain berrogei bat urte dirala
 Frantzesak joan giñan gerran Rusia'ra;
 Eta an gertatzen zan gauza bat polita
 Esatera noatzu soseguz jarrita.

Faustiño, ez dakit nik iñongo gerretan,
 Gurean gertau zanik gertatu cte dan ;
 Jakizu. zelan Jefe gure aldekoak,
 Muniziñotan ziran dollor ta zintzoak:
 Erraziñotan, barriz, amarna jan arren,
 Arpegi txarrik iñoz ez ebela jarten;
 Baña heti fusillak egiela baru
 Nai eben, tripetatik etzeitezan galdu;
 Jarraitu egiela ez jan eta ez Jan,
 Ez da milagro gerrak irautea alan.
 ¿Nok uste leike baten eskaturik amar.
 Purrustadaka asi jatala su ta gar?
 ¿Nok siñistu kaboak kartutxo bi, bada,
 Egunero emoten utsik euskuzala?
 ¿Nok asmau nik barriro *eginda tematu*,
 Berba txarrokaz alkar gendula lotsatu?
 ¿Ela au ikustean gure kapitanak,
 Jeneral egiñ nayaz gerran ebillanak,
 Ni joteko goratu ebala sablea,
 Eta artu nebala galanta tundea?

Alperrik esan neutsan: «Entzun begit. jauna,
 »Dan edo ez justoa eskatzen dodana;
 »Nik gura dot gerreau laster amaitzea,
 «Eta milla bat balu goizetan artzea;
 «Bota daidan bakotxaz lurrera bat beti,
 »Eta sarri askotan baita bere zazpi:
 »Egundaño zergaitik etxatan txoririk,
 » Biziagaz geratu jaurti ezkerro nik;
 »Orra bada ze laster, emengo gerrea,
 »Akabauko nenkean balitza neurea;
 » Baña alan bagabiltz, Jaungoikoak daki,
 »Noz etxeruntz urtengo dogun Rusín'fi;
 »Augaitik amar bala eskatu arren nik,
 »¿Ausaz kapitan jauna, egin dot okerrik?»

Oneik dira, Faustiño, nire ango berbak,
 Umilldade guztiaz esan nituenak;
 Orain zeuk ikusizu errazoia bazan
 Kapitanari garbi nik neutsana esan;
 Baña, arek estimau egin bearrean,

Erantzuera artu neban bizkarrean.
 Emon eustazalako amabi sablazo,
 Agindurik gañera beste lau balazo.
 Urrengoan ixillik kaboak esana,
 Egiten ezpaneban bereala dana.
 ¡Ondo esanik dago! «*Soldau errasuak*
*Direala amaren seme sobraduak,**

Baña, aurrera bere asko iruntsi nik
 Neban, sentigarriak gerran ikusirik;
 Zergaitik letradunak gabetik goizera,
 Perretxikoak azten direan antzera,
 Gaur zireanak kabo, eta besterik ez,
 Agertzen ziralako biarko alferez;
 Ni, barriz, euskaldun ta eskola bagea,
 Bakarrik nekiana neure euskarea,
 Errasu joan nintzan, txarrago etorri.
 Bestela begiaratu ankara Liño'ri;
 Auxe da irabazi neban medallea,
 Eskumako oñagaz utsik geratzea:
 Granada zital batek zergaitik ezker
 Jota eroan eustan beragaz batera.
 Ordutik deitzen deuste Liño *Ankabakar*,
 Arrezkero pauso au bota oi dot kaskar:
 Egurrezko ankeaz nakutsun moduan.
 Nekez nabil kalean, ez ondo basuan:
 Baña, koplak bat dago jarria euskaraz.
 Gomutetan nazana oraintxe beragaz.
 ¿Ez da esaera bat antxiña aterea
Pobrearen oñean beti arantzen?
 Sekula beintzat niri etxat falta narra,
 Daukadalako beti sufridu bearra :
 Lenengo pobre jayo, gero pobre azi-
 Granada batek gero anka bakar itxi,
 Lau urteren buruan etorri etxera,
 Ama sentimentuaz illten ikustera;
 Aiñ pena andia ze nigaz eban artu,
 Zortzi egun baño len eben lurperatu.
 ¡Orduan, bai, orduan nintzala geratu.

Aide bat eneukala nogana urreratu !
Zurtz, soill, deslai, nondik al biziko banintzan.
Eskean asi bear Liñok neban izan.

¿Zelan esan ez bada barriro bere nik,
Danentzako ez dala iñoz tratu txarrik?
Liñok ankau galduta urten arren gaizki,
¿Gradudunak ez eben asko irabazi?
Bat gure kapitana Jeneral egiñik.
Paris'en ez da bizi gaur diruz josirik?
Komandante egiñik barriz milla kabo
Gitxienez dirala, dudarik al dago?

Orra bada esanik nire istoria,
Arilldu ta toTapill бага ipiñia.
Oraiñ zeuk begiratu begozan egoki,
Aurrenengo bertsoak erantzunak zuri;
Baña, puntadak zelan sartzen etxatzuzan,
Zabal jarri deutsuaz adilu daizuzan.
Oraiñ, ¿zer diñostazu, orain zer, Faustiño,
Rusia'n errazoia/, etzan penau Lino?
Errazoia ez eukan kejak agertzean,
Gerreak irautea nai ez izatean?

—Errazoia zeunkala, Liño, dot ikusten,
Errazoiatz zenduzan balak eskatuten;
Raña, bestea bere errazoia euken,
Drogea gura beben amaitu etzeiten.
Baña, españatarrak ¿egin jatzu aztu,
Melilla'n zelan eben bertatik amaitu?
¿Izan arren txarrenak munduan moruak,
Ipiñi eutsezala apalik buruak?
Entzun dot nik sarritan, antxiña gerrea,
Frantzesentzat oi zala gorako bidea;
Baña, gure Jefeak, ¿noz zuenak legez,
Amak nai dabez euki luzaro negarrez?
¿Batek bere gura dau gerrak irautea,
Eta anayak alkar illten ibili tea?
Ez; eta auxegaitik burua postura
Eingo neuke, baketu laster bayetz Kuba;
Eta badatozala mutillak etxera,

Gabonak aitamakin pozik egitera;
 Gerreagaz gradurik ein ez arren geitu,
 Diralako bakeaz Jefeak kontentu.
 Eurak gaitik ez daigun kantau: «*Mari Anton,*
Bataren gatxa oi da bestearentzat on.»

ON LUIS GORENGO ETA ANDRES BERENGO,
 KAFEAN

Izen bi aldrebes.

Kale garbitzalla bat emen aurkitzean,
 Ez dakit zer irago jatan biotzean.
 —Millagroren bat al da gaur, On Luis *Gorengo*,
 Ni emen aurkitzea berorrek lenengo?

—Millagrorik asko da, kafean sekula
 Ez dodalako entzun nik zure estula,
 Katillua ustuta, aurrean kopea,
 Gitxienez dozula birritan betea;
 Punía musturrean dariola keya,
 ¿Mira eretxiteko au ez da gauzia?
 Andres *Berengo*, ¿nor da beste bat zu legez
 Erri onetan bizi? ain ondo bat berez.

—¿Ja! ja! On Luis *Gorengo*, nire inbidia
 Badauka berori da errukigarria;
 Suerteaz berori ezpada kontentu,
 ¿Zer esan lei ni legez bizi danaz estu?
 ¿Berorrek ez al daki sekretarioa,
 Kontzejukoa legez bardin juzgaukoa.
 Itz baten esateko, erriko burua,
 Obeto aditzeko, danoen maisua
 Dalako, deusagula deituten *Gorengo*?
 ¿Bizi arren Zerutik onuntz neu lenengo,
 Dogun aldea, On Luis, ¿ain al da txikarra?
 Lau pisu ez ditugu bitartean bada?
 Bai, ikasteko da bai ofizio ona,
 Munduan bizi dedin soseguz gizona.
 —Ez orrenbesteraño esan. Andres, Andres,

Larregiraño egiñ ez egizu ames;
 Gibelean ez dozu sekula zuk arrik
 Esta errian bere ikusi eziñik.
 Txakurrak badakizu tokian, tokian
 Dirala, ta naukela ni dongak erdian;
 Kaleak garbituaz zu zabiltz kantetan.
 Paperak zelan loitu ni beti penetan.
 Danakaz euki nairik errian bakea,
 Ta onen-onenean sortzen jat gerrea;
 Ez dakit ze denpora direan gaurkoak.
 Alkar aditzeko len ziran obagoak.
 Gaur gizon danak dauka bere eretxia,
 Balitza legez bera fedeko egia;
 Ta zelan ezin nazan danakin ezkondu,
 Andres, sarri askotan loa dot zek kendu.

--¡Ola ! On Luis, al ditu ¿gabak bere galtzen?
 Nik ez dot egun on bat beiñ bere billatzen;
 Isuskiaz aurkitu ditut asko poltsak,
 Eta guztiak dira beti izan utsak,
 Baña korotz-pilloak atsa dariela,
 Burkadak batzen ditut goizetik gabera;
 Berori barriz bapo, kontzejuko gelan,
 Neguan epeletan. kerizpetan udan,
 Alan ezpada esan berorrek bei garbi;
 Familiarik ez dau, zintzoa andrea,
 Bankuan dauka bere dote eskergea;
 Eta nik ditut, jauna, umeak bedratzi,
 Nausienak urteak ditu amazortzi,
 Bost erreal jornala, andrea biguna,
 Begira kurutze au ezpada astuna.

On Luís, txakur goseak ames okelia,
 Egiten badau bere ¿ez da errazoia?
 Nik bere egiñ arren empleo obe bat,
 ¿Orregaz pekaturik egiñik badaukat?
 ; Ai berorren lekua lako bat baneuka,
 Eun otsok egiñ arren inguruan zaunka,
 Enintzake biziko orduan guardillan,
 Ta bai berori legez lenengo bizitzan.

—Baña, berorrek baki iñarra-sortea,
 Ez dala ain eder zein-da luma berdea,
 Ez dala Obispoak dakarren purdoia,
 Añ gitxi Jcneralen borladun bastoia:
 Ela azkenez baki bere probetxua,
 Ez dala egunero kafea 8rtzekua ;
 Baña kalerik kale dabillenentzako,
 Txakurren kontra ezer ¿oberik al dago?
 Kurutzerik ezin dau plageak ikusi,
 Ta nigandik ¿ez doaz txakurrak igesi?
 Gaur bere artu arren amaseik erdian,
 ¿Ez deuste laster alde kilometro bian?
 Danak abiau arren batera ausika,
 ¿Ez dabe bertatik ux agoak itxita?
 ¿Ez dabe ariñ egiñ al eben lekuruntz,
 Ipiñi dodanean isuskia goruntz?
 ¡O! zeinbat bidar gaurko ninduen galduko,
 Noz-gura ebelako nigaz bazkalduko!
 Onezkero ninduen azur ta mamin jan,
 Isuskia ezpaneu neugaz beti izan !
 Bizi dedilla, bada, alako armaa,
 Kale garbitzallentzat ezin da obea...

¡Ai pobreak bere bai, bear dauz bentajak,
 Lasterregi ez gaizan iil gu zorigatxak;
 Alan pentsaurik ez dot, On Luis, ernegatzen,
 Ezta txakurrak gaitik lorik bere galtzen;
 Eta baldin berorren txakur añ gaiztoak,
 Ankabidunak legez balira lauokoak,
 Bereala neuskioz egabanatuko,
 Eta berori nasai neu legez jarriko.
 On Luis, beste ditxa bat bere badot ona,
 Ni lako aberatsai zeruak emona;
 Ez daukat inguruan inbidiadunik,
 Eleixan dodalako partea bakarrik,
 Ez dot beste etxerik, ezta lurrik bere,
 Neure familiaren bakarrik naz jabe;
 Ez daukat zorrik iñon, ez ta artzekorik,
 Ez dot iñogaz euki kontu erraturik.
 Onelantxe bizi naz, neure miserian,

Pobre baña maitatzen nabela errian;
 Enpleau guztiakaz ondo naz konpontzen,
 Alkateak eskua sarri deust emoten;
 Eskandalurik ez dot sekula zabaldu,
 Aingeru Goardakoak beti deust lagundu,
 Orra iragarrila bigarren bentajak.
 Parkatu, izan arren neure alabantzak.
 On Luis berori beian, ni iya tellatuan,
 ¿Zein ete gara bizi ondoen munduan?

—Andres, siñistuten dot oraingo zuk, nonbait,
 Entzunda daukazula «*nun-nai dago zerbait*».
 Dirutzetan ez dago gure zoriona,
 Gitxigaz ondo bizi leiteke gizona:
 Zuk dozu osasuna, biotza zabala.
 Arimea prestua, baperez zitala.
 Txantxetan daroazu/ egunak kalean.
 Diñozunez ondo lo egiten gabeen:
 Espiritutik zara aiñ alegerea,
 Dirudizu udako goiz laño bagea:
 Eta ni zelan nazan. Luis, tripa errea,
 Ez dakidan bat zelan eiten dan barrea.
 Deitu lekit negua ta zuri udea,
 Beti daukazulako ona umorea;
 Augaitik bear neuke nik zure izena,
 Eta nik barriz zuri jarri eutsuena.
 Ez da ardura bizi arren zu guardillan.
 Andres *Berengo* deituagaitik kuadrillan,
 Ezta ni bizi arren lenengo bizitzan,
 Zuk uste dozun legez aberatsen gisan ;
 Gurean bardin dira egunak ta gabak.
 Domekak, jayak eta astegun diranak ;
 Neu berba gitxikoa, andrea isilla ;
 Txori bat badogu ta bera da okilla.
 Beti bizi naz, Andres, aste santuetan,
 Zu beti Pazkoa jai alegerietan ;
 Iñok ez lako soñu ederrak gozetan,
 (Ez pentsau diñodala guzurrik onetan)
 Ditzuzu lau kayola kanpora begira,

Eta ango txoriak neureak balira,
 Saldu bañe lenago ni erdi gosean
 Egongo nintzateke iru bat urtean;
 Euren musikea da gitxiren lakoa,
 Zergaitik dirudian Paradisukoa;
 Aurten gure kalea igazkoa ezta,
 Egunero diruri bertako fiesta,
 Derautselako zure txoriak kantuan,
 Udazken, udabarri, udan zeñ neguan.

Baña oraindik ez dot azaldu onena,
 Zure gozotasunik zoragarriena;
 Nok litukean, Andres, dituzun umeak,
 Obe neuke banitu erdiak neureak;
 Eurak abieten drogan ta olgetan,
 Aingeruak oi diran legez, zeruetan,
 Orduan oi dituzun barre karkaxadak,
 Ez dira diruagaz erosten diranak.
 Zenbat bider nagotzu adi balkoetik!
 ; Zizpuru egiñagaz sarri biotzetik!
 Esanaz neure kautan, albait ixilltxoen:
 «Enpleauetan enaz ni bizi ondoen,
 Andres bizi da pozik guardillan pobrezan,
 Luis lenengo bizitzan, dirutzan. tristezan.»
 Alantxe ikustean zure atsegiñak,
 Pobre onentzat jaunak apropos egiñak,
 Bakar bakarrik deusut zuri inbidia.
 Zergaitik ez daukadan zuk dozun gloria.
 Agaitik guk izenak ditugu *aldrebes*,
 Ni naz *Berengo* eta zu *Gorengo* Andres.

JUAN, JUANA ETA JUAKIÑ

Senar-emaztien arieen
 Ez sartu atzik, egoan bakean.
 (*Esarrea zarra*)

Juan zan su-gizona ta Juana joskillea;
 Juakiñ euren otseña, Juanaren nebea;
 Irurak bizi ziran batera etxean,

Jaten ebela naste danak mai batean;
 Baita Juan eta Juakiñ egunez lanean
 Batera sutegian jarduten zirean;
 Koñatu izan arren bata besteakin
 Biotzez bizi ziran alkargandik urrin.
 Juakiñ biguna legez, Juan zan ain gogorra»
 Gerran edan ebana etsayen odola;
 Deitzen eutsela danak Juan *Ododzalea*.
 Augaitik aurkitzen zan galdurik ondrea,
 Lantzean beñ oi eutsan andreak igesi,
 Zergaitik lauorrian ikaraz zan bizi
 ;Zenbat bider Juakiñek besotik oratu
 Eutsau Juani, ta egiñ eskua geratu!
 Zazpi bat zurraterdi asteen asteen,
 Bestela bazituan Juanak bizkarrean.

Onez gañera eukan, baita jenioa,
 Munduan gizon askok daukan antzekoa;
 Eukiten ebalako beti ixill-poltsa,
 Zeiñ ostu eutsen beñ ta galdu jakon poza.
 Augaitik esan eban bazkaltzean mayan:
 «Lapurtxoren bat bada gure familian;
 Baldin baneki nor dan alako txoria,
 Laster egingo leuskit munduko aldia;
 Baita aginduten dot, norbaitek baleki,
 Eta probauko baleust testigu ta guzti,
 Emongo neuskiola saritzat erdia,
 Lapurrari kendurik ontzako gorria.»

Diruak zelan danok gaituan poztuten,
 Juakin bere asi zan zerbait autortuten;
 Esan eban: «Garbiro ezin nei agertu;
 Txoria bakit baña nik nor dan ziertu;
 Testigu baga baña jakin arren ziur,
 Salatuten bear dau batek izan bildur;
 Gañera ez dot nai nik neure arrebea,
 Kreitu baga senarra legez ikustea,
 Juan odol-zale dala, andrea lapurra,
 Esan dayen errian ez dot iñok gura;
 Egia da, letorkit gaur ondo dirua,

Baña ez dot disputan sartu nai burua;
Obe da pobre eta bakezko mundua,
Ez diru pizkat gaitik jarri inpernu.»

Onen bestegaz urten egin zan kalera,
Ordu batak jotean sartu bearrera;
Eta mutu egiñik geratu zirean,
Juan eta Juana berriz mayan suetean;
Baña gauza bat dago erabagi бага,
Orduan sukaldean jazo egin zana;
Iñok ez daki Juanek zergaitik luzatu
Eban besua maira ta kutxilloa artu;
Baña. Juanak barruan zetan pekatua
Eukan laster egiñik sayu txur gaiztua,
Oñaztu baten gisan urten zan kalera,
«¡Ill nau! ill nau senarrak!» ulu egitera,
Eta zer gertatzen zan sustoz auzokuak,
Erlautzetatik legez erle bildurtuak,
Kanporatu zirean, baña lenen Juakiñ,
Zeñek Juanari eutsan gelditu eragiñ...

Baña, ez eutsanean ikusten zauririk,
Ez eutsanean jausten ikusten odolik,
Itandu eutsan: «Juana, Juanek ¿al deutsu miñ?
—«Miñ ez, baña ak gura ninduan ill egiñ;
Kutxilloa eskuan artu dabenean,
Igesi ezpaneutsa aide gogorrean,
Onezkero ¡ai !, Juakiñ, joanda nenguan,
Ez dakit ze lekutan, an beste munduan!»

Ur-tantak arriari ekiñ eta ekiñ,
Zuloa oi badeutse denporeaz egin!
Akuloak kiñadak emonik zarratu,
Idirik astunenak oi badauz bizkortu;
Ta txitarrak badaki erri bat aututen,
Itz miñok Juakiñ'egan ¿zer egingo eben?

Au zelan aurkizen zan oso aseturik,
Koñatuen gauzak gañez eragiñik;
Kontua garbiago Juan'ek jakin бага,
Ikusitean Juana ill gura ebalá,

Kabelai bat legetxe txoritxoagana,
 Erpcakaz arturik irunstera dana;
 Alantxe bardin-bardin, Juakin bereala,
 Arrebea negarrez atzetik ebalá,
 Tximistea duiñ ariñ Juan'en sukaldera
 Sartu zan, atzamarrak saman ezartera.

Kaleko jente dana ¡o! baña ze larri!
 Juakiñ'en asarreak ebalá ipiñi!
 Zek urtengo ete eban egozan ikara ;
 Esaten eben dana: «Juan gaur galdua da.»

Au da baña andia, siñistzen ¡ze gatxa!
 Munduan gertatzen da amaikatxo gauza;
 An jakitean zurtzen ez dana guztia,
 Diñot ez dala gizon, dala mugarria.

Ez al jakon abiau Juakin errietan,
 Baita besoa zerbait gorunza altzetan;
 Bestetara jarririk Juanak beletea,
 Bere senar Juan'egaz arturik parteá,
 Mutil gizajoari biak eutsen ekin;
 Zurrau-zurrau eginda oyan eben etziñ.

Eta noz arteraño an egon zan Juakiñ?...
 Urte bian, ta iñok au ez eban jakiñ..

Senar-emaztielan atzik ez sartzeko.
Esaerea da-ta, ez da aztuteko.

LOTSARI BAT

—Mari, sei konbidaurí
 Tripak betetako.
 Esan dot imin-erdi
 Baba baltz jarteko;
 Eta eskutxo bete
 Uragaz bakarrik.
 Ipiñi dozulako
 Nago lotsaturik.

—Orregaitik etzaite
 Lotsatu, senarra,
 Seirentzat imin-erdi
 Bakit asko dala ;
 Esku bete ur utsaz
 Gaur nik jarri arren,
 Igaz agaitik gatzaz
 Imiña jan eben.

AURREKO FAROLAK

—Egiten dozulako	—Mari, nik ez dot gura
Limosna geyegi,	Argi illunean,
Peru, esan nai deulsul	Egin daidcn atzetik
Eretxi bat garbi.	Noiala bidean;
¿Obeto etzenduke	Izan daitezcan nai dot
Itxi azkenean	Oraingo limosnak,
Zabaltzeko, mundutik	Mundutik noianean
Zeu zoazanean?	Aurreko farolak.

ZORIGATX BI

Bata da negargarri.
Bestea, bildurgarri.

Urjola andiokaz, domeka egunean,
¿Zetan zabiltz, Juan Pedro, ibai egalean?
¿Errekara begira orren arduratsu,
Arraiñen baizuk gura al dituzu artu?
—¡ Ene Jose Prantzisko ! urtu nai dodana.
Da gure Usola gaur ito egiñ dana.
—Ixillik egon zaite, ¿ Nun ta ze modulan?
—Diñoenez, an beko arri pausoetan;
Zubitik bide pizkat eite ezagaitik,
¿Etxat bada atsoa aldendu mundutik?
Neuk esan arren garbi denpora beukala. . .
Neuk esan bedratziak baño etzirala.
Neuk esan oraindiño meza nausitara
Amarrak baño asko len elduko zala:
Ta alan da guzti bere irago mezea
Ez ekion, Usola eperik bagea,
¿Ez da arrietatik bada asi pasetan,
Atertu egiñ ezta sei egun oneetan?
Baña, zanean zala, buruan jarria
Egiteko zalako beti berekoya;
Aor, zelan galdu daben gaur bere burua,
Artute ezagaitik nire kontsejua.
(Etxekoai emonik bazkari ederra,

Alan bere *grazian jillgo al zan bera!*)
 —Etzaite ainbestean, Juan Pedro, estutu,
 Zergaitik ez dakizun ito dan ziertu;
 Etzaite barriz joan orretara goruntz,
 Urak doazalako beti itxasoruntz.
 Supitoan artzean aiñ barri tristea,
 Dazaui erraza dala burua galtzea;
 Baña kontura zaite, aurrera begira,
 Zeian ez doian urik igoaz mendira;
 Eta zuk igo arren bere puntaraño,
 f Au da, urak jayoten diran lekuraño),
 Ez uste billatuko dozula andrarik,
 Beruntz datozan urak goruntz eroanik;
 Ez uste iñoz egiñ ez daben gauzarik,
 Urak eingo dabela zuretzat bakarrik.

Zoaz gizajo ori jausi dan tokira,
 Eta antxe lenengo jardunik begira,
 Iruntsi daizunean aurkitzen ez dala,
 Jatsi zaite berantza tiraren erara;
 Ausaz ibilliko da bazterren balean,
 Munara igo nai ta igo eziñean.
 Raña goruntz bazoaz billatzera ala.
 Zoratuta esango dabe zagozala.
 —Ez dauke esan baño nazala zoratu;
 Baña egingo dabe orregaz erratu,
 Jose Prantzisko, nabil ni bene-benetan,
 Ito dala Usola badakit uretan ;
 Baña orregaitiño ikusi nai neban,
 Noruntza azkenean egiñ ete eban,
 Ez ebalako arek sekula bizitzan,
 Besteren kontsejurik ontzat artu izan.
 Alan da guzti bere gaur gure Usola,
 Uragaz nasi joan bada itxasora,
 Harru au egingo jat puska bat nasaitu,
 Azkenean dalako errazoian sartu;
 Ta zerbait, noz edo noz egitea ondo,
 Jose Prantzisko, ¿ez da baten berez baño?
 —Bai, obe da nozbaiten ondo egitea,
 Bai, obe bein edo beiñ zentzuna artzea;

Bai, obe azkenean alan umilltzea,
 Bai, bai, tematu baño bakean illtea.
 ¡ O ! baña ¡ o ! Juan Pedro, zuk ondo bazenki.
 Ni bere zelan nazan andreagaz bizi;
 Ez daki iñok ondo nor dan gure Iñazi:
 Area senar ez dana ez da bizi gaizki.
 Mukerlasunean da bardiñik bagea.
 Santatxo bal izan da Usola zurea;
 Txarrerako ez eukan sekula griñarik.
 Eta gure atsoak ez dauka besterik.
 ¿Entzun ez dozu iñoz tigre ta legoyak
 Prantzesak dituela eziten guztiak?
 ¿Baña, gure Iñazi ezi daikeanik
 Iñon al da prantzesik edo ingelesik?
 Itz onak balio ez, aiñ gitxi indarrak,
 Alperrak izan dira egiñ alak danak;
 Lenen-lenengotik da ezigatx mukerra,
 Amar illabetegaz jayoa da bera;
 Ez deutsa kausiñorik iñoz ein legeai.
 Bakar-bakarrik bere buruko aixeai,
 Jakin baneutsan nor zan, ¿beragaz neu batu?
 Ez beintzat, bai lenago mutill zar igartu.
 Beragaz eninduen aiñ errez lotuko.
 Urkatzea lenago neban esleiduko.
 Etzan ez millagroa, bizar banakea.
 Okotz ta ezpane an ari ernetea;
 Eta baldin da baldin jayo balitz mutill
 Kirrilloak urratzen bearko eban ill;
 Bai ¡zenbat bider prakak ta txapela jantzi.
 Eta gizontzat pasan egiñ Iñazi!
 Alakoxea dauka arpegian antza*
 Pipea fumetako iñon ez dn lotsa.
 Baña, oraindik entzun pizkat zer dan bera,
 Prueba bat obea noatzu jartera;
 Nai dot nik iragarri ak zer egiñ daben.
 San Anton egunean Urkiola'n aurtan.

Amazazpi kandelaz igo eban ara.
 Santuari jartera esanda joiala ;

Eta, ¿zer dala uste dozu eiñ ebana?
 Sekula Urkiola'n gertatu ez dana;
 Ipiñi bearrean San Anton Abatí,
 Jarri eutsezan bere arerio bati;
 Zein dan oinpean daukan deabru gaizkiña.
 Zazpi buru daukazan etxura ezaiña.
 Eneban sinistuko ainbesteraño nik
 Euskaldun andra batek egin leikeanik;
 Itandutean bada zelan zan ibilli,
 Urkiolatik jiran zanean etorri,
 Bapere lotsa бага eta arro-arro,
 Erantzun eustanagaz bildurturik nago:
 Azaldu eustan berba zorrotzakaz garbi,
 Deabrua ebala argitan ipiñi:
 Santuak ez daukala kandela bearrik,
 Arek ez dakiala artzen bengantzarik;
 Baña deabruagaz bagenbiltzan txarto,
 Zorigatxa etzala etxean paltako.
 Ea, neuk ez dakidan lau bei ta sei txarri,
 Galantak igaz zelan ill deuskuzan guri;
 Zortzi urteterdian ea. ez dakidan.
 Zelan Urkiolara bera ez dan izan;
 Eta iñoz ez dodan entzun plageari
 Kandela bigaz beat jakola eiñ argi;
 Eta jarri beutsa2an berak amazapi,
 Izan zala zor zarra pagetea gaiti;
 Haría, orain urtero ipiñirik bitxo,
 Egon gura dabela deabruaz kito;
 Ez dakigun gertatu igazko antzean,
 Amar buru ¡ltea geyago etxean...
 Aor, irurogetasei urteko atsoak,
 Lotsa bagarik bota eustazan bertsoak !

Orain, ¿zer diñostazu, zer dala Iñazi?
 —Sorgiñaren izena aurki dau merezi.
 ¡ Usola azkenean zuzendu dau urak!
 ¡ Iñazi. kastigauko urrean dau suak !

Gureko zorigatxa bada negargarri,
 Zuenekoa ¿ez da oso bildurgarri?
 ¡Errezki zabal eta nasai naz jarriko,
 Entzunik zure kejak gaur. Jose Prantzisko!

MUTILL-ZAR

Artzeko ustez egalti india.
 Ez itxi galtzen eskuko txoria.

Jose, mutill zar bere kulpaz aurkitzen zan,
 Pobreagaz ezkondu zerren nai ez eban :
 Bizi zan etxearen zalako, jaubea,
 Nai eban dote asko eukana andrea:
 Diruduna ez eze, nai eban langiña,
 Baita izan zedilla zolia ta fiña;
 Bigun, leyal, sotill ta umill ta apatza.
 Itz baten esateko on ta aberatsa.
 Azkenez ez eban nai etxean errana,
 Ezpada konpondurik aserrerik haga.
 Izan balitz legetxe etxeko alaba;
 Entregaurik zar biai ekarren dotea.
 Bizi modu eder bat laurak egitea.

Orretara oi eban Josek ames asko.
 Baña ustel urteten ziran beretzako,
 Zergaitik andia zan ak eukan faitea,
 Alan etzan millagro ori gertatzea:
 Jayokeratik eukan begi bat okerra,
 Zuzena gerran eutsan baleak atera;
 Zeiñtzuk gaitik arpegiz Jose zan itxusi.
 Naizda begi okerraz naikoa ikusi,
 ¡Zenbat baño geyago nai eban bestea,
 Kristalezko bategaz disimuletea!
 Baña zelan ez eukan tokia egoki,
 Jarri ezinda eutsan bertan bera itxi;
 Orregaitik Jose gaz iñor aberatsik
 Errian ez egoan, ezkonduko zanik ;

Alperrik pauso asko berak eban emon,
 Gaztezaroz guztia atan jua jakon;
 Amabost urte santu eta oso-osoak,
 Pasan zituan lotsaz artzen ezezkoak;
 Eta zituelako berrogei lepuan,
 Bizarra zurilua erdia mosuan,
 Azkenez gobiernu txarra zelan eukan,
 Amar urte geiago iruditzen eban.

Orregaitik *mutill zar*, eutsen danak deitzen
 Arpegia eutsela orregaz gorritzen;
 Ez da arritzekoa bizitea ala,
 Larogei urtekoa eukalako ama ;
 Eta bera zalako aiñ zantar, zitala,
 Neskatarik etxean gura ez ebana.
 Jose, aurkietan zan zeñbat maizter baño,
 Etxejauna izanik askoz okerrago :
 Lan asko, txarto janda, jantzita ez ondo,
 Neu enintzan mutill zar a legez egongo.
 Bai ekarzan gaur praka zar-zar zulatuak,
 Biar modu txarrean berak konponduak;
 Alkondara zurian bardin botoi baltza,
 Josek garbiro eukan mutill zarren antza;
 Ez egoan ibilli zetan itanduten,
 Bere tayuan eban zer zan azalduten;
 Bere artean barriz ¡o! zeñbat alditan!
 Ibillten zan bakarrik onelan berbetan:

«Euki dot eskuetan sarritan txoria,
 Naiz da ez izan neuk nai besteko andia;
 Au da enebalako iñoz nai pobrea,
 Oraiñ mutill zar naz ta biar agurea.
 Eta aguratzean ¿zer jat gertatuko?
 Iñok bere enau ni ikusi gurako;
 Orduan izango da ¡nirea tristea!
 Deituko deustelako *mutill agurea*.
 Eta gaur bizi banaz ganorarik baga,
 ¿Zer izango da nigaz zartzaroan, bada?
 Mutill zar nazalako banaz barregarri,
 ¿Ez dot izan bearko gero negargarri?»

Orra Jose zetara mutill zar zan bizi,
 Bere erruz naikoa eginda ikusi;
 Zorioneko edo gaiztoko dirua,
 Gitxiago maite dau askok Jaungoikua,
 Geiago dabelako zeñbatek siñistzen,
 Zoriontasun dana an dala aurkitzen;
 Baña diruan balitz utsik zoriona,
 ¿Zelan bizi alegre pobre dan gizona?

Alan bere intxaurra austeko arria
 Aurkitu oi dalako nun nai egokia,
 Jose'ntzat oraiñdio bazan andrageya,
 Bete ez arren diruz eukan egarria;
 Zeñi deituten eutsen Juanatxo Erlea,
 Fintasunez berakatz bardiñik bagea;
 Gañera kristiñau on, zoli ta noblea,
 Aberats asko baño Jose'ntzat obea;
 Noren aita ta amak barriz zelan eben
 Jose mutill ondraztat beti ezaututen,
 Pentsau eben eurentzat suiñ egitea,
 Juanatxo Erleagaz bera ekontzea;
 Eta alabea zelan beti zan otzana,
 Egitekoaita ta amaren esana.
 Ekialako barriz Jose mutill zarrak,
 Zer nai eben Juana'ren aita eta amak;
 Mandatutxo bat egin ezkerro txoria,
 Esku-eskuan eukan naiz izan txikia.
 Alantxe euki oi dauz gure Jaungoikuak
 Ordenaurik gizonen estadu moduak;
 Berak Joseri bere eutsan lagun egin,
 Ordenauta eukanaz, bai, ezkondu zedin.
 Ara, bada, non ota zelan erabagi
 Eban Juanatxo zala beretzat konbeni,
 Ara, bada, non eta zelan erabagi
 Oraiñ eskribiduko dodan istoriak.

Feriara auzoko Pedro eta bera
 Joan zirean baten salbenta ikustera,
 Pezeta zuri bana arturik etxean,

Afaria tabernan jateko ustean ;
 Plazara jatsi eta ganauai begira,
 Luzaro ebiltzala jira eta bira:
¡Errifa-errifa! joian erren bat deituaz,
 Eskumako besoa goruntza jasuez;
 Eskuko billetes nori enpleauko,
 Prediketari ebalatzen onelan ederto:

—«Bosteun bat gitxiago diluí bereala
 Saldu, eta bat daukat oraindik eñiñ bage,
 Eta beronentzako gaur da suertea,
 Tontakeria bat da au ez eroatea.
 Ea, norbait alimau bedi artutera,
 Osterantzean ni neu, noa jaubetzera;
 Eta gero alajak neuretzat guztiak,
 Izango dira danak andi ta txikiak;
 Alperrik artuko dau askok sentimentu,
 Neu izango naz baña, poz eta kontentu ;
 Peseta bategaitik ez da, ez txantxea,
 Millaka erlen gauzak puntuan artzea ;
 Amabi kutxillo ta amabi kollara,
 Amabi lauortzeko, guztiak zidarra ;
 Salako erloju bat. sei poltsillokoak,
 Baña euren artean iru urrezkoak;
 Baita diamantezko belarritaknak,
 Erregiñak daukazan baño obagoak!...»
 Nor arrapauko alan uluka joiala,
 Albotik Pedrok urten eutsan bereala:

—«Txotxo, obe dok beti eskuan txoria
 Gordetea seguru naiz izan txikia;
 Largau bagarik egan doiala aidean,
 Andiagoa dan bat artzeko ustean;
 Ire peliguruan sartu egin bage,
 Poltsan obeto juat pesetea gorde;
 Norentzako alajak urtengo direan,
 ¿Nok jakik suertea ikusi ariea?
 Ori dakiana dok gure Jaungoikua,
 Ez i lako barbari eta barritsua;
 Neure peseteagaz apaldu tabernan,
 Obeto juat egin bapo illunkeran.»

Baña Jose zelan zan erreza siñistzen,
 Ondasunak larregi ebana poztuten;
 Pesetea poltsatik egiñik atera.
 Billetearen truke emoten dau bera.
 Baña ¿beretzat izan ete ziran prendak,
 Kantetan eban legez kalean errenak?
 Arek bat esan eta arten beste batek
 Fortuna jausi jakon lumero biari,
 Bosteunegaz erratu iya bereari;
 Orduan esan eban: «Pedrok errazoia
 Euki dau, gordetea poltsan pesetia;
 Egingo dabelako apaldu tabernan,
 Ura bearko dot nik iturrian edan.»
 Azkenez esan eban zizpuru artean:
 «Geiago nekau baga, aberats atzean,
 Obe dot emaztetzat Juanatxo Erlea,
 Pobre on bat dalako neuretzat artzea ;
 Ez dakidan gertatu errifeaz legez,
 Pesetea galduta prendarik artu ez.»

TXOMIN-NAGI

(Mondragoiko uri' noble ta euskaldun garbiari)

Anboto'ko beteak
 Anboton gura.
(Esaera zarra)

Anboto'ko beleak, beti bertan bizi
 Nai izatean ez du arrozoi ain gitxi;
 Baña, ez iritzirik nik orri egoki,
 Nere erri emen bertan bera utzi
 Ta ama alargunarl erantzunda txarki,
 Amerikara nuen gaztetan igesi.

Ogeitamar urtean leku urrutian,
 Bizitu naiz ni beti erdi miserian;
 Biotz onek suela arantza erdian,
 Onuntza abiatu artean ontzian,
 Eta bart sartutzean nere baserrian,
 Esan zidaten: «aroa illa da aspaldian.»

VII.—IPUINAK

¡ Ai! nere ama ona sentimentuz ill zan !
Soill geratu zalako bere alarguntzan,
Noren kartak len artzen nituen sarritan,
Erantzuen nagia baña nola mt/an.
¡ O! zeinbat pena eman nizkion bizitzan!
Beti nitzayolako seme muker izan !

Baña, etzaizkit aztu aren kontsejuak.
Berak gañean daukan lur bedeinkatuak,
Goizetik ikusi nau isurtzen malkuak.
Begiok jarri arte oso gorrituak,
Busti nairik amaren ezur legortuak,
Nigatik bear baño len lurperatuak.

Orrela pagatu det zor bat txit justua.
Zeiñ dan biziak illai lagundutzekua;
Arkitzean ixillik toki aiñ santua,
Izketan neri baña asi zait barrua,
Ela billox jarririk bertatik burua,
Amagatik euskaraz eiñ det erregua.

Andik urrena gero sartu naiz elizan,
Euskaldun fededunak bear duen gisan;
jaunari orazio lenengo eginikan,
Gero ikusi det non baliatu nitzan,
Iñon geratu gabe andik irtenikan,
Bisitak egin ditut amar baserritan.

Bai, nere erritarrak, dakuskigu emen
Paseko egaztiak joan da etortzen,
Alaxen *Txomin-Nagi* etorri naiz aurtan,
Uda ta negu asko kanpoan ein arren,
Etu nola onuntza nitzan alderatzen,
Zijoakidan biotz estu an lasaitzen.

Bilbotik netorrela atzoko trenean,
¡ Ai! Udalatx txunlxurra begiaz jotzean,
Ez dakit zer pasatu zatan biotzean,
Gogoraturik nola aitz orren oñean.
Denborarik onena nuela lurrean,
Igaro ait-amakin ume nitzanean.

Billatutzean gero nere baztertxuak,
Lenago bezelaxen txit gobernatuak.

Aritz, pago, gaztañaz, jantzirik basuak,
Arto, baba ta gariz, aberats soruak,
Esan nuen: «ementxen nere gurasuak
Bizi ziran, igaro gabe itxasuak.»

Ikustean azkenez euskal-baserriak,
Gure oitura eder garbien tokiak,
Eta len bezelaxen gaur nekazariak,
Botatzen dituztela beren izerdiak,
Esau nuen: «oraindik euskaldun ernayak
Bizi litezke ondo, ez baña nagiak.»

Ni desengañatuta gaur nator onera,
Nere baserriaren jabe egitera,
Non bizi nai nukean ill arte aurrera ;
Ikusitzean berriz erri au onela,
Pakez danak anayak balira bezela,
¿Nola igesik egiñ emendik atzera?

Ez da orrelakorik berriz gertatuko,
Beste beñ lotsari au ez det nik artuko,
Lengo bizimodura enaiz biurtuko,
Zergatikan lanean naizen sayatuko,
Nola ditudan berriz lur onak ta asko.
Bizimodua ¿ez det samur aterako?

Nere eskuan daukat ori egitea,
Badaukat osasuna, gañera pakea,
Urtero beti daukat dirua artzea,
Zartzarorako diña laster pillatzea,
Eukirik jatorririk aulako etxaldea,
¿Nola iges ein nuen billa suertea?

Ni naiz ori eindako lelo aiñ andia,
Txomin Nagi geyegi kalera jetxia ;
Ni makurtze ez arren lurreruntz gerria,
Artu nuena oso asmo galgarria,
Amari utzirikan nere baserria,
Probatzera joana mundu bat berria.

Baña gura nuena eitean probatu.
Laster igerri nion nuela erratu,
Ala ere gaixoak, egiñik sendatu,
Oi badu biotzeko poza kanporatu,

¿Ez det orain egingo nik ere agertu,
Añ urrutitik banaiz ondo erriratu?

¡O! urte miñ garratzak ziñaten bukatu.
¡Agur! zuekin ez det gura gogoratu.
¡Agur! bai, Amerika, zuk jakin ezazu,
Enazula geiago ingo arrapatu.
Nere errira atzo nitzanean sartu,
Zerutxo baten antza niolako artu.

Etzuen asko uste onelako festeak,
Emen arkitutzea ez nere biotzak,
Nork pozik dakuskien euskaldunen gauzak,
Makilla dantza eta bertsozko jolasak,
Ta ainbestek dituztela ganadu galantak,
Ez gitxik, premioak artzeko esperantzak.

Pozik ikusten ditut, nere erritarrak,
Zuek erriगतik egindako lanak.
¡Gloria ! merezi du gaur gure F.uskarak,
Olo batek bezela txitotxo laztanak
Dituelako gorde oitura on zarrak,
Bere errayetako umeak diranak.

Zoro bat izan nitzan ni gazte denboran,
Igaro nuelako guztia kanpoan;
Bizi bear nuena amaren onduan,
Lagun egiñarekin bere zartzaruan,
Euskaldun seme onak oi duten moduan,
Illtzean arkiturik oyaren albuán.

Diru-goseak nindun emendik eraman,
Berau-gatik itxasoz, ¡o! zeinbat dijoan!
Emen nai duenari lurrean egiñ lan,
Arako kontsejurik ez diot nai eman,
Zergatik ez dakiten zeinbat gizajo an,
Txarki bizi ta nola txarrago illtzen dan.

Esango det oraindik egi bat tristea,
Izozturik topatu nuela an Fedea,
Beroagoa ere, ez Karidadea;
An triste bizi oi da suerte gabea,
Ugari badute ere gaur libertadea,
Obe lukete utsik Kristoren legea.

Beste gauza bat ere orain *Txomiñ-Nagik*,
 Esango det iñori egin gabe gaitzik;
 Ameriketari dabiltz txakurrak oiñ utsik,
 Gosea padezitzen ez dutela gitxik,
 Onela egin badet gezurrakin itzik,
 Esan beza nerekin etorri dan Patxik.

Urrutiko intxaurreak asko ta andiak,
 Esaeratu dakite gaur iya guztiak;
 Billatuko balira naiz izan erdiak,
 Izango luke zerbait itxura egiak,
 Baña, topatutzean urri ta txikiak,
 ¿Ez ditu zabalduko gizonak begiak?

Ez diot kendu gura iñori kreiturik,
 Geyegi ez altxatu baña Amerikarik,
 Aberastzeko ez da arako bearrik
 Emen ere billatu ditudalako nik,
 Len pobre ziradenak aberats egiñik,
 Arriskuan buruak ipiñi gaberik.

Altxatuko det goren Euskaldun Erria,
 Ni jayo ta azteko izana kabia;
 Mundu guztian onek geyen du grazia,
 Intza oi dan bezela Zerutik jetxia.
 Au ez da iritzia, ezpada egia,
 Ta egiak non-nai dauka garbi arpegia.

Antziñako esanak, geyenetan egi
 Irtetzen dira, zeren ondo ziran jarri,
 Ez det nik izan gura utsik bertsolari,
 Baizikan itxuari egin ere argi,
 Ez dedin ni bezela lazoan erori,
 Gorputza ta anima ipiñirik larri.

Zor diot duda gabe Jaunari eskerra,
 Zergaitik bere eskuz ni nauen onera
 Erakarri aitonen euskaldun lurrera,
 Nere ezur gogorrok deskantsatutzero,
 Ayen ondoan sartu nazaten lurpera,
 Pakean lo dezadan berakin batera.

Orregatikan, nai det nik erri onetan,
 Nere bizi laburra azken arte eman,

Bere arkaitz ta mendi eta ibarretan,
 Bizirik gurasoen oitura zarretan;
 Iraunik beren fede ta siñiskeretan,
 Bildu nadin berakin gero zeruetan.

¡ Ai! baneuka oraindik eztarrian boza !
 Entzun dezaten denak nere itzen otsa!
 Diot barru-barrutik enaizela lotsa,
 Agertzeko argiro gaur nere biotza,
Txomiñ-Nagik gaur artu emen dedan poza,
 Al balitz, eun urtean nai nukela goza.

Diot berriro, poz au andia dedala,
 Euskara degulako oraindikan Ama ;
 Bere seme on beti bagera gu ala,
 Elkaturik anayok gaur geran bezela,
 Sendaturik aspaldi daukan zauri zarra
 Fueroakin oraindik biziko gerala.

Nik beinzat Euskarakin nai det bizitzea,
 Baita berau sendatzen nekea artzea,
 Euskaraz euskaldunai beti egitea,
 Naíz izan aberatsa, orobat pobrea,
 Bizi dakigun emen euskaldun fedea,
 Erdarak dakarrena baño txit obea.

Nik ez det oraindikan oberik billatu.
 Lur asko egin arren munduan aratu;
 Gure euskal-fede au dezagun maitatu.
 Bestekin egin gabe sekula trukatu;
 Euskaldun sabelean nola giñan sortu,
 Euskaldun besoetan gaitezen amaitu.

¡ O! belea, zuk ere ill arte Anboton
 Jarrai, ez dezulako lur oberik iñon,
 Amerika zaleak an bitez an konpon;
 Perun, Buenos-Aires'en, Txilen zein Mejikon,
 Guri oi digulako lur onek utsik on,
 Zuk Anboto bezela, nik nai det Mondragon.

MANU-ZANTARRA

Manu-zantarrak baten galdurik poltsea,
 Periara joiala, ontzakoz betea,
 Praketan aurkitzen zan estu eta larri,
 Eta errian eban laster iragarri;
 Topauta eroaten eutsanari zintzo,
 Ontzako bat saritzat eutsala emongo.

Eta *Martinek* zelan topau eban bera,
 Periara joiala Manuren antzera,
 Iñoz ez lako poza sarturik barruan,
 Barreka ziarduan egun ososuan;
 Baña poltsa kontua bertatik auzuan
 Ebillan zabal-zabal, lekuan-lekuan,
 Ekiela guztiak *Manurena* zala,
 Jita sari ederra eskintzen ebara;
 Augaitik joan jakon bereala *Martin*,
 Amaseiko gorria artze arren arin.

Baña, Manuk abegiz artu bearrean,
 Poltsea utsiturik laster mai gañean,
 Banan-banan asi zan diruak kontetan,
 Eta kontaurikoan onelan berbetan:
 «Amaseikoak ziran ogei ta amabi,
 «Baña, guztiak emen ez dira agiri,
 «Emen billatuten dot nik bateren utsa,
 «Beragaz norbait dago pozik jaubetuta.
 «*Martin*, onexegaz naz oso arrituten,
 »Ez dakit au onelan zelan jazo leiten;
 «Saritzat ontzako bat emon nai nebana,
 «Plagaren batek ostu bera deusku bada:
 «Poltsa barruan ziur ogei ta amabi
 Dakit periarako nituala jarri.»

Martinek ezaturik Manuren asmua,
 Zelan etzan besterik ezpada marrua,
 Diño: «*Manu*, nai ditut neuk barriro kontau,
 «Iya dagozan ondo nituzanak topau,
 «Bereala egingo neuk dot pruebea.
 «Eroan dayan zuzen egiak berea.»

Eta sartuagaz bat diru danak poltsan,
 Musturreraño zelan guztia bete zan,
 Diñotsa: «¿non da emen lekurik geyago,
 »Ogei eta amaika sartuteko baño?
 »Ba zureak beukazan ogei ta amabi,
 »Ez dala zure poltsa, au dakusgu garbi:
 «Alan berau artuta banoatsu, *Manu*,
 »Billatzera, al badot, zuk dozuna galdu.»
 Geyago ez da, baña, *Manuren* aurrean
 Poltseagaz ikusi *Martiñik* lurrean.

Bai. ordurik ona oi dau Manuk buruan atz,
 Martiñ barriz bizi da arenaz aberats.
Dana gura dabena guztiak galduten
Manu legez munduan asko da ikusten.

SEME ON BAT

Praigko otzara-giña zan seme bat ona,
 Bere guraso zarrak maite ebazana.
 Ama ill eta aitaz zanean geratu,
 Denpora gitxi barru egin zan ezkondu,
 Baua, aurrera bere bizitza barrian,
 Gazteak zarraz ziran bizi armonian;
 Itzal andi bat artzen eutsela berari,
 Jaten emonik ondo, jantziagaz garbi.

Baña zelan oi diran emen gora-berak,
 Orregaitik bardiñak ez dira denporak:
 Zorigaiztoan sortu egin zan gerrea,
 Zorigatx guztietan bardiñik bagea;
 Eta bear guztiak orduan amaitu
 Zirealako Praisko egin zan larritu.

Jatorduan sei lagun batzen ziran beti,
 Aita, bera, andrea, iru seme txiki;
 Eta zelan ez eukan irabaz- biderik,
 Praisko ipinten eban oñexek tristerik;
 Au ikustean bere aita zan estutzen,
 Egunik egunera baita joian galtzen;

Eta semeak eban laster erabagi
 Topetea leku bat ohea berari,
 Euki egian antxe falta бага zer jan.
 Zerren gosea zek ill etxean ez eukan.

Arturik damuz bada astelen batean,
 Goizetik aita zarra bere bizkarrean,
 Abiau zan bidean ospitalerantza,
 Bere biotzarentzat naiz ¡zan garratza;
 Gañera zelan bizi ziran baserrian.
 Erritik apartetxo egoan tokian.
 Atsedean bearrean Praisko zan aurkitu.
 T'arrizko zubi baten zirean gelditu,
 Non aita zarrak eutsan kontau semeari,
 Gertaldi bat bardiña jazoa berari,
 Esanaz; «Neure seme, gaur berrogei urte
 Dira egin nebala beste orrenbeste,
 Zuk ni legez nekarren aita bizkarrean.
 Zeu legez nekau nintzan ni bere bidean.
 Eta petril onetan giñan bere jarri,
 Azkenengoko berbak egiñaz alkarri;
 Emen neban nik aita azkenez laztandu.
 Emen ak egin eustan barrutik zizpuru,
 Emen bota zituzan erreka negarrak.
 Etxataz bere aztu ak emen esanak:
 Ospitalera bere nik eroatea,
 Izan zan egun atan bizia kentzea,
 Urrengo egunean egin zan lurpetu,
 Lenengo arratsean zalako amaitu...»

Au entzutean Praisko ulleak zutitu
 Eta arri egiñik oso zan gelditu;
 Eta jarri zanean bere konortean,
 Aita zarra arturik laster bizkarrean.
 Berealaxe eban etxera biurtu,
 Berari *ez* ekion kontu au gertatu ;
 Andik gero luzaro aita bizi arren,
 Topau eutsan zer jana an, or, edo eraen.

Azkenez besoetan ill jakon etxean,
 Larogeta, amabi, eukazan urtean;

Eta Praisko egin zan bera bere zartu.
Iru semeak ondo eginda lagundu.

Zeintzuk, barriz, gaur dira aiñ ederto bizi,
Eurak ditugu bada errian nagusi;
Lenengoa abade, bigarrena juez,
Gazteena alkate danen borondatez.

*Zeure gurasoakaz zer dozun egiten,
Pagu bardin-bardiñak deitsu itxaroten.*

PEDRO OGIGIÑA

«Jaungoikoak etxea egiten ezpadau.
Izerdiak alperrik botako dira.»

(Dabid'en 126.en Salmoan)

Jaungoikoak nai badau au edo bestea,
«Pedro, nik gura neuke aurten egitea;
»Au da gure Petraren betiko kantea,
»Neuri gogoan sartzen etxatan koplea,
Veu beintzat aberastu egiñ naz lanagaz,
«Eta ez goitik jausi oi dan iñontzagaz;
«Gau ta egun ekiñik beti ogigiñan,
«Bestelan Petra ta ni gaur ezer ez giñan.

«Beste bertso bat bere Petrak dau kantetan,
«Aserratzen nabena ni bene-benetan;
«Gizonak asmau arren gauzea batera,
«Goikoak erabagi oi badau bestera,
«Zentimo izateko egin dana jayo,
«Pesetea sekula ez dala izango ;

Eta ni jayo arren oso miserian,
«¿Zelan bada gaur nago leku eregian?
«Petrak aitatu arren beti Jaungoikoa,
«¿Alegiña etxaku guri Jaunbekoa?
«Nik esango dot beti egiñik al dana,
«Aberastuten **dana**, aberastzen dala,
«Diñot zentimo jayo egin izan **dana**,
«Dirudunak peseta egin leikeala;
«Diñot dakusdazala nik mundu onetan,

»Pobre jayo ziranak illten dirutzetan;
 »¿Ez dakusguz garbiro dabenak eredau,
 «Kale onetan bere aberasturik lau?
 »¿Ez baleutsez benturaz senideak itxi,
 «Ondasunak jausiko jakezan zeruti?
 «¿Aberastu al ditu orreik Jaungoikuak
 »Ala aide aberats eta dirutsuak?
 «Jaungoikoa ondasun kontuetan sartzen
 «Dala, ezelan here nik ez dot siñistzen.»

Onelan zan Pedroren betiko sermoia,
 Petrak baña emoten ez eutsan fedia;
 Bakotxak jarraiturik beti bere teman,
 Jatordu guztietan ebiltzan demandan;
 Arritzeko kontua baña da benetan,
 Ikusten dan aldantza sarri gizonetan,
 ¿Nok siñistu gaur pentsau egiñik onelan,
 Biar egin leikela guztia bestelan?
 ¿Zeñek esango leuke miñututxo bian,
 Pedro aldatu zala bere eretxian?
 ¿Zelan ta nok aditu munduko kontuak
 Ezpadira ikusten gauza ezkutuak?
 Auxe gertatu jakon Pedro ogigiñari,
 Munduan jakon legez gertatu askori.

Bazan bere berekor eta zaila teman,
 Birtute bat begoan ederra Pedro'gan ;
 Seme ta alabarik ak zelan ez eukan,
 Iimosnak egiteko guztiz prestua zan;
 Bere biotza berez zan argizagia,
 Ikusitean pobre errukigarria ;
 Zeintzuk esaten eben Pedro ogigiña,
 Bilbo guztian zala lenengo ongiña;
 Alantxe bizi zala fama andiagaz,
 Ondasun asko eta osasun onagaz.

Sarritan oi dan legez munduan jazoten,
 Negargarri bat Pedrok bere dau izaten.
 Uste uste bagarik bere arrebea,
 Antoni aurkitu zan senarrik bagea;

Obra barri batean goi-goitik jausirik,
Juan Jose geratu zan lurrean ill-otzik.

¡Orduan, bai, Pedro'ren biotz uin noblea,
Ainbeste gura eutsan Antoni maitea,
Iru seme alaba gaztetxoren ama,
Alargun ikusirik naibagetu zala!
¡Ze laster gogoratu jakon arrebea,
Bertatik zerbaitegaz sokorrietea;
Ze bearrekoa zan ari laguntzea,
Ogi bat bazan bere sarri emotea;
Ete bere emazte Petra bere zelan
Egoan bera legez eretxi orretan,
Ogi hat egunero agindu ei eutsen,
Familian goserik euki ez egien.

Baña ogi bategaz Pedro zelan etzan
Nasaituten, ezpada geyago nai eban,
Ogiaren barruan iñok jakin baga,
Abiau zan dirua bialduten bada ;
Bost pezetako eder zabala ixillik,
Ogi danetan eutsan ipinten sarturik.

Baña, asteak joan asteak etorri,
Zelan bizkortzen etzan bapere Antoni,
Egun baten kaleau tope egitean,
Itandu eutsan zelan aurkitzen zirean,
Pentsaurik erantzungo eutsala barreka,
Antoni asi jakon, baña, zizpuruka,
Esanaz biotzetik :« Ai ! neba maitea,
«Asko estimetan dot zure mesedea;
»Zure ogiagaitik gu gagoz bizirik,
«Bestelan gaur gengoan mundutik joanik;
»Bera pezeta baten plazan dot salduten,
»Eta erreal bigaz artoa erosten,
«Enparetan danagaz sarritan babea
»Eta beste askotan dakargu esnea,
»Ona gaurko artoa ta esnea bere
«Pozik nire umeak jan egingo dabe;
»Alantxe bizi dira, Pedro, zure llobak,
»Juan Jose izan zanak itxiriko lorak.»

Pedrok entzunagaz bat ain berba samurrak,
 Irunsiteko latzak zirean ezkurrak,
 Cañera ikustean beraren asmuak.
 Oker zirala urten ta galdu diruak,
 Aldendu zan egiñik agur bat tristea,
 Ikusirik Antonik eukan suertea;
 Esanaz bere kautan ixillik bnrruan,
 Petra'ren berbak zeintzuk eukazan goguan:
 Gizonak asmau arren gauzea batera,
 Goikoak erabagi oi badau bestera,
 Zentimo izateko egin dana jayo,
 Pezctca sekula ez dala izango.

Andik aurrera barriz ordu guztietan,
 Etxean zein kalean ak eban kantetan:
 «Petrak diñoan legez, nik leku altura
 »lgo dot, Jaungoikoak ebalako gura;
 «Utsa dala bakarrik gure alegiña,
 »Siñstzera jarri da Pedro ogigiña.»

JULIAN-ARGIÑA

•
 Orain berrogei urte Julian bizi zan
 Bilboko etxe baten lenengo bizitzan;
 Argiña izan arren aberats moduan,
 Nai ebalako bizi eroso munduan;
 Eta zelan zan bera puskat bertsolari,
 Alper jokulari ta baita barregarri;
 Gañera bakotxari emoten berea
 Beti-beti izan zan ardura bagea;
 Errentak bere danak zelan zituan zor,
 Etxe-jaubeak eutsan baten egin gogor,
 Esanaz: «Ara jakin egizu, Julian,
 Enozu ikusiko geyago aurrian,
 Ditudalako iya pare bat zapata,
 Gitxienez urratu zugana jiraka ;
 Orregaitik dankadaz tripok irakiten,
 Alan ber zuk barre deustazu egiten.
 ¿Ez al daukazu lanik aurtengo urtean,

Niri ez pagetako sei illabetean?»
 —» Don Kosme, egunero bearrean nabill,
 Baña ugazabetan dirurik eztabill;
 Aurtengo alogerak ditut kobretako,
 Kobretetan gogoia zorrak pagetako.»
 Baña zelan ekian au zala guzurra,
 (Zergaitik Don Kosme zan zolia ta zurra)
 Erantzun eutsan onek: «Obe da, Julian,
 Etxe au libretea zuk biar goizian,
 Eta baldin egiten badeustazu orí,
 Pozik nik parkatuko deusatz zorra zuri,
 Ta biok adiskide apartauko gara,
 Gizonak itz obeto ezin leike bada.
 ¿Etzenduke obeto etxe bat merkea
 Billaturik errentak zuzen pagetea?»

-«Ez. jauna, naiago dot kargau errentea,
 Ta gaur arieen legez emen bizitea;
 Eta berori egin arren asarratu.
 Asarrea egingo nik deusatz parkatu;
 Ta alkarri parkaturik nik eta berorrek
 Etxe merkerik ez dau bear Julianek.»

ANTON-UME

Anton zalako nano ta txiki gelditu,
Anton-Ume jenteak eiten eutsan deftu;
 Ez dakigu ze neurri berak eukan ziur.
 Baña, bai, kaneari emon eutsala ur,
 Zergaitik Anton-Ume etzan iñoz neurtu,
 Orduan talletarik etzalako usu:
 Baña askotan ziran ipiñi posturak,
 Alde bitan jarririk sendo ondasunak,
 Kana hat baietz, ezetz, *Anton*en gañera,
 Baña geratzen ziran danak len añean;
 Zalako beti-beti *Anton*en esana,
 Kaneak ez ebala egiten gizona,
 Ezpada bear zala jaritxi ondrea,
 Gizona geyen jantzi oi daben lorea;

Luze, labur, erdiko, andi eta txikin,
 Jaunak guztiak ondo ebazala egin.
 Orregaitik neurtzera ezin eben jarri,
 Ogei milla erreal ein arren eskiñi,
 Ez eban ezelan nai ze altura eukan,
 Paperak zabaltzerik bazter guztietan;
 Munduak egin eyon burla eta barre,
 Baño gurago eban beti izan pobre.
 Osterantzean Anton ona zan benetan,
 Aberats zeñ pobreak danak serbietan,
 Zalako kristiñau bat leyal ta justua,
 Baña gizajoari zer gertatu jakon,
 Iragarri nai neuke egun baten Bilbon.

Sekula iñoz ez da orduan tabernan,
 Gosearen goseak *Anton* sartu eban,
 Non peseta batena egiñik gastua,
 Deskuiduz emon eban peseta bikua;
 Errakuntz ori. baña, ak eban gabean
 Ezautu poltseari begiratutean;
 Orduan ak ez eban sei gautan begirik
 Ixti barrua estua nasaitu eziñik.

Ta zazpigarreanean auzoko Peruri,
 Tabernetan sarritan jaten ebanari,
 Azaldu eutsan bere biotzeko miña,
 Zeñek osatzen eutsan egin alegiña.

«Ez estutu bapere, esan eutsan, *Anton*,
 »Fama guztiz andia artu dozu Bilbon,
 »Peseta bat gastua, beste bat propiña,
 «Diño e dala ori *Antonek* egiña;
 »Gastua, pagau eta bakarrik doiana,
 »Zuri ur emoteko ez dala gizona;
 «Nik, bada, lo egin dot bart zure tabernan,
 »Non zure alabantza asko entzun neban;
 »Danak kantetan eben ¡bizi bedi Anton!
 «Laburra izan arren dalako gizon on,
 »Bernr; deitu arren *Anton-Ume* danak,
 «Gizona ez dabela egiten bi kanak,
 «Andiak bota arren kerizpe geyago,
 «Txikia leitekela izan gizonago;

«Anton ez dala izan sekula umea,
 «Agirian dogula bere pruebea,
 «Bete daiala, zein ez, neurrian kanea,
 «Beintzat bete dabela gizonen legea;
 «Gorputzak ez daukala barriz zer ikusi,
 «Gizona oi dabela obrak erakutsi...
 »Orra peseta batek Anton zer dakarren,
 »Penok botarik egon zindekez pozarren...»

Orduan Anton-Ume jarrita pozpozik,
 Etzalakoan bera besteko gizonik,
 Oeratu zan laster apalduta arro.
 Ur tragu bat edanda egitearren lo.

Sentimentuz sei gautan len egin ez arren.
 Gero aste osoa ein eban lo baten.

BIZIMODU MERKEA

Paulo aurkietan zan igazko neguan,
 Ur utsaz illabete santu ta osuan.
 Beste gauzarik artu ezinda bizirik,
 Alan bere pentsetan ez eban illterik;
 Eta ezin asmauta zelan zan gauz ori,
 Itandu eutsan zer zan mediku bateri,
 Zeñek erantzun eutsan baña bereala,
 Berba guztiz gitxitan esaten eutsala:
 —Paulo, zuk daukazuna kalenturea da.
 Bizitzeaz luzaro alan zaukazana ;
 Berak dirautsun arte etzara illgo zu,
 Janariak legetxe serbietan deutsu.
 —Jauna, eskerrik asko, on da jakitea,
 Obeto dudetatik barriz urtetea,
 Eta zelan dan berau bizitza merkea,
 Beste mesedetxo bat nai dot eskatzea;
 Berorrek daki erraz jarten personea,
 Kalenturaz erretan zarra zeñ gaztea,
 Beragaz jarri beidaz andra ta umeak,
 Bestelan illgo deustaz biarko goseak;

Gañera, jakin begi, gu gara **amabi**,
 ¡Ai! ori eingo baleust diñotsat benetan,
 Amaika ditudanak zer jan ezta da **larri**,
 Eurak kalentureaz baleustaz jarriko,
 Negu au ill bagarik geunke iragoko.
 Eukiko neukeala nik beti gomutan!

Ez dakit egin eutsan mesede aĩn **andia**,
 Beintzat bizi da Paulo, baita familia,
 Seme-alabak amar, aita ta ama bi,
 Konponduten dabela guztiak amabi.

ARABAR BI ABADIÑON SAN BLASEZ

San Blas'ez urte baten *Txanton Arabarra*,
 Bere zaldi txarragaz joian periara;
 Zeiñ izanik gizon bat guztizko lodia,
 Erren, makal ta zarra eroian zaldia :
 Augaitik astiro ta nekez-nekez joian,
 Danak barre egiñik bera ikustian.
 Eldu zan Amaitermin ingurura-nozbait,
 Ordurako egoan baña einda gogait;
 Non jaritxiten daben bere lagun batek,
 Zaldi galantaz joian auzoko Matxiñek:
 Onek zelan zan oso biotzez prestua,
 Gorputzez bazan bere txiki ta nanua,
 Bere auzotarrari berbertatik eutsan
 Borondate eder au agerturik esan:

Txanton, etzoaz ondo aĩn zaldi txarrean,
 Zergaitik pisu asko dozun gorputzean;
 Nai bazendu emongo neuskizu neurea,
 Niretzako dalako naikoa zurea.
 ¿Gura dozu trukea biderako egin?
 —Bai, pozik zelan bere, adiskide *Matxin*.
 Aldaturik zaldia bereala bertan,
 Bajoiazan bidean aurrera aukeran;
 Eldurik Abadiñon peria lekura,
 Zaldietatik jatsi zirean zorura;

Non bertatik diñotsen *Matxiaek Txantoni*:
 —Eutsi au, eta betor neure zaldi ori,
 Salmenta ontxo bana egingo bageunke,
 Pozik etxeratuko gabean giñake.
 —¿Ze zaldi ta zaldi-zain dakartzu nigana?
 Txanton'ek erantzuten deutsa bereala.
Matxiñ kolorgatu zan eta ikaratu,
 Aiñ esker txarraz *Txanton* zanean azaldu,
 Eta diñotsa: ¿ausaz neurea eskatu...
 Arren egiten zara, *Txanton*, aserratu?
 —Bai aserratuten naz. zaldi au neurea
 Dalako beti izan, eta ez zurea.

Orduan asi ziran goyan beian biak,
 Alkarri atereaz deadar andiak;
 Baña *Matxin'ek* zelan ziñoan egia,
 Kontaurik dana zeatz jazo zan guztia,
Txantonek eutsalako guztia ukatzen.
 Pillatu zan gentea dudan zan aurkitzen.
 Zek bear eban urten ez da bai artatik;
 Baña ezagutu zan egia bertatik,
 Eukazan bada manta ta kapea biak,
 Bizkarrian jarririk *Matxiñen* zaldiak,
 Eta berealaxe kapea arturik,
 Beragaz zaldiari mosua tapaurik,
 Txantoni egin eutsan dearrez itandu:
 —¿Zein begi jakon igaz zaldi oni galdu?
 Eta zelan erantzun zerbait bear eutsan,
 —Ezkerrekoa. eutsan bada ezpadan esan.
 Orduan jenteari *Matxiñek* bertatik,
 Zaldiari kapea kenduta burutik
 Deitu eutsen guztiai, ikusi egien,
 Ea, beukan (aitarik ak begien baten;
 Ta danak ikustean eukazala biak,
 Begi zintzoak eta on eta argiak,
 Deadar egin eben zala *Matxiñena*
 Zaldia, ta iñondik bere ez *Txantonena*,
 Guzurras nai eutsala ak *Matxiñi* ostu,
 Eta lapurtzat egiñ bear zala lotu;
 Eta beingo batean ez nondik ta nora

Ezkutau zan igesi egiñik basora;
 Zaldia plazan bertan itxi eban deslai.
Txanton bera gaur Kuba'n dabil nldarraí.
Esaera zar bat da guraso zarrena,
Laster jausten dirala guzurra ta errena.

URRIÑEKO INTXAURRAK

Askotan agertzen dau goiz ona zeruak,
 Egun argi bat gozau dagian munduak;
 Lorarik lora egan dabiltzaz poz-pozik
 Mitxileta arroak jantzia politik,
 Eta mutikotxoak deutse jarraituten,
 Eskuak zabaldua arrapeta arren.

Zelan daukezan urre antzeko egoak,
 Diruriela gauza balio andikoak;
 Baña artuagaz bat, batek eskuetan,
 Auts biurtu oi jakez ego areik bertan,
 Orra mutillen pozak zetara datozen,
 Gauz eder baten jaube ustez egiñ arren.

Eguzki argiagaz urria landa baten,
 Ikusten bada zerbait islea egiten:
 Lora guztiak baño au da ederrago,
 Bertara joan eta ¿baña an zer dago?
 Ez lora pitxi eder, zoragarri danik,
 Ispillu zatitxo bat sarritan bakarrik.

Urietan piestak dirala ederrak,
 Kantetan dabe beti urtero paperak;
 Ikustera joanda ¡o! zenbat alditan,
 Pentsetan zan Lakorik etzan aurkietan.
 Diru asko gastauta tamalez etxera,
 Etorri oi da sarri joana ikustera.

Bizkayan nik entzunda emendiko gauzak,
 Zoro-zororik egin nituan amesak;
 Ona etorten daukat neukana gastaurik,
 Non ez dodan billatu pentsetan nebanik,
 Siñisten nebalako neke asko бага
 Dirua Amerikan irabatzen zala.

¡ Ai! baña eroan dot engaño osoa,
 Zoratzen ninduana zan ispillutxoia;
 Mutiltxoen antzera mitxileta antzean,
 Iragorik arrisku andiak bidean,
 Itxasoz onagiño nago iragorik,
 Ta atzera biurtzeko ez daukat dirurik.

Baña alper alperrik gaur daukat damua,
 Izan nintzan garbiro Txoriburutxua ;
 Iñok gura ezpadau nik legez erratu,
 Esaera zarrenak, gazteak, siñistu:
 Urriñeko intxaurreak ots andiak daukez,
 Bertara eldu eta benturaz baperez.

GAUTXORIA

Gregorio ta Markos, ogeiko urtean,
 Sarturik Durangoko ostatu batean,
 Jarri zirean mayan umore onagaz,
 Apariteko guztiz gogo andiagaz.

Asi zirean laster jan eta edaten
 Neskatxeak eutsena aurrean ipinten;
 Sopa, txuleta, bildots, oilasko samurrak,
 Lebatz, angira, barbu eta txorikumak.

Baña txorikumetan zelan azkenean
 Jateko aurkitzen zan batxo platerean,
 Gregorio lotsa zan eskua ezarten,
 Markos modu berean etzan azartuten.
 Baña, pentsau ta pentsau Gregoriok asmau
 Eban bear ebala argia amatau ;
 Baita laster ill eban agoaz einda putz,
 Baña atzamarragaz txoria eban uts.
 ¿Nok egiñ ete eban, bada, bera bete?
 Markos'ek ein ebala egin leike uste,
 Argia biztutean zergaitik zan palta,
 Garbi egoalako plater aiñ galanta;
 Ta zelan etzan sartzen oiñ otsik sentidu,
 Gregoriok salea eiñ arren illundu,

Duda bagarik zala Markos kazaria,
Durangoko erriak dauka eretxia.

Bai, ak ei eban ereiten beti arto gitxi,
Kamarara pillatzen baña ci zan nausi:
Eta sobrea zelan udan eban saltzen,
Markos'i *Gautxoria* izen jarri eutsen.

ZANTZO BAT

Irurogei urtean etziran ikusi,
Gaztetako lagunak Lorentzo ta *Patxi*:
Non da San Antonioz Urkiolan aurten,
Uste-uste bagarik alkar dabe joten.
Eta diñotsa laster batak besteari:
«Lorentzo, aguratu egin az oso i,
«¿Zertatik buru ori egin jak zuritu?
«Edurpean duala ein leikek siñistu.»

—Mutill, ni zartu banok, i ago gazterik,
Oraindiño ullea dok jayo bagarik;
Ta arek urten artean, beti az umea,
Deitu arren jenteak *Patxi agurea*.
¡O! nik izan banayok ire suertea,
Urteak euki arren nintzoan gaztea.
¿Zelan egin jaikeat. *Patxi buruargi*,
Edurrezko txapel au betiko erantzi?
Ainbeste aguratu ein badok Lorentzo,
¿Zeñek gorago egin gura dok guk zantzo?
Orduan geratu zan Patxi mututurik,
Jenteen barreakaz lotsaz gorriturik;
Eta Lorentzo txaloz eben zeruratu,
Ta aren zantzoak eban Urkiola gortu.
¡Zelan ikusten dira besteren buruan
Urteak oi dabena egiten munduan!
Nor-berenean bere eiten dabe bardin,
Denporeak guztioi oi deusku eragin.

ANDRA BARRITSU BI

Askotan andrai jake deitzen barritsua,
 Eurak giza-semeai legetxe astua;
 Oneik euki leikie izen au ederto,
 Baña emakumeak bestea obeto.
 Diralako askoren miñak ain zorrotzak,
 Alderik-afde dabez zulotzen biotzak;
 Jostorratzen puntea ¿zer da bardintzeko,
 Andrearen izpia bada bat ¡Ilteko?
 ¡O! ta zenbatek daben alkar laztanduten
 Ta alkarregandik alde eitean galduten!
 Egia da, ez dira andra danak atan,
 Jaungoikoak ona ta ohea bestelan.

Baña, zelan ikusi nebazan lengoan,
 Alkarregandik alde eginda beingoan,
 Beste lagun banagaz Praiska ta Juakiña,
 Azurrik ez daukanaz eiten alegiña;
 Juakiñak Praiskarenak. Prniskak Juakiñaren.
 Gauzak aomiñean erabilte arren,
 Ordu bian etziran beñik beñ aspertu;
 Baña, zutik egoten egiñik nekatu,
 Largau zituen bada beste baterako,
 Zergaitik larregiak ziran ordurako.
 Alan biamonean iturri bidean,
 Seiretan asi eta amarrak artean,
 Juakiñaren kontuak guzur edo egi,
 Praiskak kontau eutsezan Mari Iñaziri.
 Oraindiño Juakiñak barriz Praiskarenak
 Zelan daukazan utsik esanda laurenak,
 Bear ei diru ondo zortzitxo bat ordu,
 Kontetako astiro (eta zelan modu)
 Guztiz ederra daukan berbetan miñean,
 Itxaroten ci dago astitu artean ;
 Amaituteko laua joan dan astean.
 Antonigaz asia kale kantalean.

*¿Zeñek emon al leike edertzat gauzea,
Lagun on bat legetxe emen laztantzea,
Eta itzuliaz bat bizkarrak alkarri,
Izen ona galtzea batak besteari?*

JUAN ERREN

Erromeriara beñ niñoiala oñez.
Zentimo txiki bana pobrei emonez,
Juan *Erren* urten jatan mutiko bat legez
¡Ai ene! zer jazo jat! esanda negarrez.
Eta itandu neutsan:— Juan *Erren* gaixua,
¿Zer dozu matrallara jasorik eskua?
Erantzun eustan: —Galdu dot txakur nausia.
Ela begietatik asi jat euria;
Ela zelan ez dodan pañelotxo bat nik.
Eskuaz emen nabill sikatu eziñik.
—Eutsi txakur nausia, galdu aren laiña;
Negarrik ez dau bear gizonak eñ baña...

Etxera nentorrela erromeriatik,
Barrero urten jatan goizeko lekutik;
Orduan bere zelan erautsan negarrez,
Esan neutsan beingoan baña irri barrez:
—Geyago etzengian zuk egin negarrik,
Ez deutsudaz len emon amar zentimo nik?
— Jauna, egia diño, eta parkatu bei,
Galdua topau baneu ¡ai! neukazan ogei!
Ta ogei zentimogaz erosi ardaoa
Eingo neban; ogia dot bada naikoa...
Arek nai ebana zan beste bat nengion
Goizean neutsan legez arrasteian emon.

Gizonak euki arren jateko laiñ ogi,
Beste gauzaren baten ¿nor ez da egarri?
Esau nei erratuko dodan bildur arren,
Mundu guztia dala orretan Juan *Erren*.

TOMAS DEABRU

Markes baten usoa zergaitik ill eban,
Tomas Deabru eben bein sartu kartzelan;
 Multea pagetakoz zelan zentimorik
 Ez eukan, jarri eben kirriloz loturik;
 Gañera zelan bota eutsen kastigua,
 Zan zortzi aste oso an egitekua.

Iruntsi ezin eta esan eta esan.
 Gau ta egun erautsan beti bere kautan:
 «¿Ez ete da sekula munduan parkatu,
 Gizonak egin arren ainbeste pekatu?
 ¿Uso ziztrin bat gaitik lau ormen artian
 Eukitea al dator ondo errazoian?»
 Egunik egunera joiala sututen,
 Tomas asi zan barriz biraoak botaten;
 Markes, Juez, Alkate, kartzela zaiñari,
 AI eban beste korotz jaurtirik danari.
 Baita zelan ikusten daben goiz batean
 Txoritxo bat kayola aurreko etxean,
 Ari bere diñotsa: «Txotxo, i arbolan
 »Agoala jirurik eta ez kayolan,
 »¿Zelan ik kantetan dok or egonik preso,
 »Ni banok aurkietan tripak jaten oso?»

—«Tomas, erra bagarik kayolan nago ni,
 »Ta baldin banakusu poz-pozik kantari,
 »Jakizu zergaitik dan beiñola basuan
 »Zure tiroak bete egin eninduan,
 »Eta tiratutea orduan katigu,
 »Ondo baño obeto zala badakizu;
 »Orain zu lako gizon txarretatik libre
 »Nagoalako bizi gaur naz alegere.
 «Bildurrik eza baño ¿zer dago oberik?
 «¿Bakeagaz bardintzeko non da ondasunik?
 »Tomas, zuk bizi bear zenduke kantetan,
 «Dozulako multea kartzelaz pagetan
 «Eta tripatzarrori dubarik betetan,
 »Iya gitxienetik sei aste onetan;

«Baña, neu izan banintz epai-emollea,
 «Seguru biurtuko eutsuen samea.
 »¿Zeuk orrenbeste maite badozu bizia,
 «Jaungoikoak egiña ez a' da txoria?»

Legeai ez deutesnak makurtzen burua,
 Askotan izango dau ankan kurrillua:
 Obeditzen ikasi zergaitik ez eban
 Tomas sarri egon zan gaiztoen kayotan.

AMA JUANA

Iru txori koitadu igazko neguan
 Andra Juanak ebazan ikusi ortuan.

Gosez egozalako, ze zoli ebiltzan
 Euren erpatxoakaz azterka edurtzan:
 Baña, eskukada bat gari ak botarik,
 Aldendu egin ziran ustez dana janik.

Alan bere, garaun bat ebelako larga,
 Beragandik zirean erne eun landara;
 Eta aiñ ondo zelan zirean burutu,
 Eun buruak egin dauz abuztuan batu,
 Baita adiskideai pozik erakutsi,
 Errukior izaten dagien ikasi.

Eta, azkenez, bere seme ta alabai
 Ingurura deiturik, bereala danai
 Esan eutsen: «Umeak, Karidadea da,
 «Zuen ni nazan legez, pobrearen ama;
 «Berak jantzi oi ditu ume koitau zurtzak,
 «Berak al daben añan poztu alarguntzak,
 «Berak osatu sarri geixo eta gatxak,
 «Bigundu zeinbat biotz direanak atxak.

Karidadeak eingo ezpaleu bearra,
 «Lurreko soñu dana litzake negarra.

«Begira txoriakaz nik egin nebana,
 «Baita ikusi batu ganr egin dodana;
 «Ona limosnearen irudi ederra,
 «Ispillu bat edo-nok ikusi daikena,

«Limos nea da azi oso segurua :
 «Zentimo bat ereínda aun emotekua,
 »Busti-leorrek iñoz ez dabena galtzen,
 «Azpitikoak bere iñoz bere ez jaten;
 »Ez da ardura ereiñ arren au munduan,
 «Frutuak diralako elduten zeruan.»

Anxe zan andra Juanak eindako sermoia,
 Zeñetarako daukan alazoko doia,
 B i o t z a zelan daukan argizagizkua,
 Limosnagintzarako zabala eskua;
 Dalako prestu, apatz, errukitsu dana,
 Eskekoak deituten deutse, ama Juana.

MODESTA

Modesta zan neskatxa guztiz moduzkoa.
 Umill, leun, argi eta beñ bere ez arroa;
 Begiraturik bere arpegi menera,
 Zirudian eukala aingeruarena.
 Baña beste neskatxa batek inbidia
 Eutsan, zalako danak ondo ikusia;
 Zeñek sarritan eutsan amari itauntzen:
 «¿Zergaitik dau Modesta jenteak maitetzen?
 «Juan Anton, bere aita, guztiz da okerra,
 »Prantziska ama barriz zital ta mukerra;
 Senarrak egunero au badau zurretan,
 «¿Zelan dau alabea oso alabetan?»

«- Zítaltasuna baño bai, ene umea,
 «Jakizu zelan obe dan umildadea;
 «Modestak modu onaz bendau badau aita
 «Prantziskak aserratu oi dau agiraka.

«Agaitik Juan Antonek laztan alabea
 «Beti dau, eta zurrau oi dau emaztea:
 «Ondo egiñaz ontzen elefantea da,
 «Makillaz ezkuratu iñoz ezin dana.»

JUSTO MARTIREA

Justo ill eta zuzen zeruko atera
 Igo eban bertatik oles egitera,
 Eta leyo txikira urtenik San Pedrok,
 Itandu eutsan laster: ¿zer eskatuten dok?
 —¿Zer eskatuten dodan? barrura sartzea;
 Arren, zabaldu begit mesedez atea.
 —Au zabalduerako bear aut ikusi,
 Zerurik ete duan beian irabazi;
 ¿Ezkondua izan az ala mutill zarra?
 —Ezkondua ta euki dot andrea txarra.
 —¿Zetarikoa izan dok bada andrea?
 —Alper, zital, da ordi parerik bagea.
 —¿Urte askotan egin az beragaz bizi?
 —Berrogei bat bcñik-beiñ egiñ doguz nasi.

¡Ola! berrogei urte andra aiñ txarragaz,
 Ez dok gitxi eroan bizitzan beragaz.
 Ator ordu onean, ator gizajoa;
 Edozeiñ andra badok Purgatoriu.
 Bajakiat irea zala Inperua,
 Ta ondo irabazi duala zerua:
 Duda bagarik i az Justo Martirea,
 Aspaldian bajuat ire entzuerea;
 Eutso koroï au eta palma bat andia,
 Ara an goyan daukak jarteko aulkia,
 Berrogei urte egiñ arren beian gaizki,
 Zeruan bizi az orain ondo beti.

*Koroiaz da palmeaz an ei dago Justo,
 Andrez eroana milloe bat susto.*

TOMAS ETA TOMASA

Tomas eta Tomasa, senar-emazteak,
 Ezkonbarriak ez da, aiñ gitxi gazteak:
 Zelan dauken etxea traslez jantziteko,
 Sarritan erabagi dabe erosteko;

Ogeigarrenaz dira, irago dan udan,
 Bilbora izan eta lenengoko dendan,
 Tomas'ek esan eutsan laster Tomasa'ri:
 «Ementxe dagoz gauzak onak ta ugari,
 Sartu gaitzan eta jakin daigun zegan.
 Guk bear doguzanak emon nai dabezan;
 Emeretzi urtetan ortxe gara asi,
 Ta baten bere ezer ez dogu erosi.»
 —«Tomas, enoa orra, zergaitik euskeraz

Batek bere ez daki, ezpada erderaz.»
 Baña euskaldun dendan ¿ete dauz Tomasak
 Erosi aspaldian nai dabezan gauzak?
 Erosiko ebazan Tomasak poz-pozik,
 Euki ai ¿zan baleuz diruak osorik;
 Baña ogeigarrenez tripan zeinbat gura,
 Bilbotik gastau baga ekarri dau ura.

SIMON MAKILLA

Esan giñai, Peru, non jayo dan gizona,
 Zelan izango daben baña ez azkena;
 ¿Ez da gauza andia fortuneak joten
 Dabezanak sarritan direala illten?

¿Ez dakizu goizean, zazpiterdian,
 Jazo jakun kontu bat guretik berpetan?
 ¿Oyan ez dogu bada geuk billatu illa,
 Gaur loteriak urten da Simon Makilla?

—Santa bere andrea egun guztietan,
 Lau bidar makilleaz ebana zurretan?
 ¿Ill da beraz alako gizon borrarua,
 Erren, begi-ezkel ta lepo-makurtua?
 —Peru, axe berbera, ez Jesus ta Amen,
 Geratu da otz-otzik. beingo-beingo baten;
 Santa asi danean barandatik deika,
 Lau gizon joan gara arin, bai, arinka,
 Eta loteriako listez eskuan,
 ¿Ez dogu bada topau bizi zan moduan?

—Seguru atsegiñen andiz ill da Simon,
Agaitik alegere Santa leike egon...

—Askok diñoenetik ei dago poz-pozik.
Urten deutzazalako lotería on bik:
Batetik joan jakoz gaur ogi bildurrak,
Bestetik Simon illaz, ill betiko zurrak.

JOSE AIZERI

—Ze deabru ein dozu zartzaroan, Jose?
¿Lagun on hatzuk topau etzenduzan obe?
¿Zeugaz eroan бага lagun ain kokoak,
Lan orretan ikasi egin bagakoak?
¿Beñ asiko larogei urtegaz lapurren.
Ta bertan sarietan alan zara jausten?
¿Ni birritan egiñik enakutsu libre,
Zibillak zuri legez iñoz eldu bage?
Egin bear ei dozuz kartzelan urte bi,
Orra, zer buruari deutzazun ekarri.

—¡A! Lorentzo! Lorentzo! zu orren kokorik
Egongo ziñeala cneukan usterik;
Pitxarrak badabiltza sarri iturrira,
¿Noz edo noz ausiten guztiak ez dira?
¿Irurogei urtean arri labanetan,
Dabillana jausteak zau irakareketan?
¿Ez dakizu txoria zirrika zepoan
Badabil jausten dala nozbait lakioan?

—Enekian, Jose, nik alako gauzarik,
Enekian iñori kentzen zenkianik;
Uste neban oraintxe zala lenengoa,
Lapurretori zala asierakoa.
Oraiñ, baña, nik dakit, Jose, zu maisua
Orretan zareala eta ez kokua;
Dakust zelan tnillagro ez dan jausitea,
Ezpada jausi бага gaur arte irautea;
Parkatu egidazu neure zayo txarra;
Esango dot Jose nik dala lapur zarra,
Eta berari deitu eutsanak *Atzeri*,
Nik baño aurrerago eutsala igerri.

KRISTOBAL ZIRI SARTZALLEA

Juan Kruz, siñisten gatx da, diñotsut benetan,
 Zertzuk jazoten diran gure egunetan;
 Onetariko gauzak nauke arriturik,
 Egia izan arren ezin siñisturik.
 Begiakaz ikusi iñoz bere alkar
 Ezin dabena persona bi Paula ta Kaspar,
 Entzun dot direala ezkondu goizean,
 Batak bestea maite dabenen antzean.
 Alkar ezin ikusi dabena aurrean,
 ¿Zelan bizi leitekez abia batean?
 ¿Zer diñozu ezkontza orregaitik, Juan Kruz?
 ¿Frituak ikusiko bertatik ez doguz?
 ¿Ezin leikela bada orretariko bik,
 Juan Kruz, ez deritxazu bizimodu oñik?
 —Kristobal, ez dazaudaz Kaspar eta Paula,
 Ezkonduterik bere eneuke nai ala ;
 Baña, entzunda daukat, Paulatxo izena
 Daukan itsu bat dala neskatilla ona ;
 Kaspar bere ez da/aut, baña dot ustea,
 Izango dala bardin bistarik bagea ;
 Bestelan nai ta nai ez, ikusiko eban,
 Andrageya Eleixan ezkontzeko eran;
 Baita bere badakit ikusi ta miña
 Artzea, zelan ez dan ikusi eziña,
 Kaspar legez baziña zeu bere itsua,
 ¿Ikusiko zenduke begiz andratxua?
 Orregaitik ez dago zertan esan gaizki,
 Alkar ezin badabe bisteaz ikusi;
 Ez asi bada emen atzeaz aurrera,
 Gizon ziri-sartzalla diranen legera;
 Zuriari emonik kolorea baltza,
 Edo santuai bardiñ deabruen antza.
 Ezer ezkutau бага, esan lei egia,
 Garbi erakutsirik bere arpegia;
 Alan askok gauzeak badaukaz alde bi,
 Agertzen dabe eurai jakena konbeni;
 Baña, deusudalako nik zuri igarri,
 Sagartzat patatarik ezin sartu niri.

P A U L O L O

Patxi eta Paulolo lantegi batean
 ibilten diralako heti bearrean,
 Inozente eguna igaz eldutean,
 Euren lanera zintzo goiz batu zirean;
 Baña, zelan dan *Patxi* guztizko arroa.
Paulolo dan legetxe puskat kokoloa,
 Onen lepotik barre al badai eragin,
 Egun danetan sendo ak oi dau alegiñ.
 Zelan direan barriz Patxiñren asmoak,
 Deabruren batetik sortuak lakoak,
 Inozente eguna da bere zerua,
 Ziria sartuteko dalako jayna.

Baña, *Paulolo* zelan dan gatxik bagea,
 Ez dakiana zer dan burla egitea:
 Alan bere itaune zalea dalako,
 berbetan izan arren canora bagako,
 Inozente goizean lanean abiau.
 Eta Patxiri eutsan egin ttaune au:

—Gabon arratsaldean, bazkaldutakoan.
 Ikusi zindudazan. Patxi, lau orduan,
 Edarrakada urak bi oso edaten,
 Eta lotsatu nintzan ezer aitauten ;
 Baña, oraiñ itandu bear deusut zuri,
 ¿ Nondik arrano zeunkan ainbeste egarri?
 ----Paulolo, itxasoa ¿ez dozu ikusten,
 Ez dala geratuten sekula edaten?
 —Bai seguru, zergaitik a dagoan beian,
 Eta dagozalako mendi danak goyan.
 —Ez gizona, zergaitik itxasoak gazi
 Dagoalako, urak oi dauzau eratsi;
 Ta nik bere makallau andi bat errerik,
 Bazkaldutean zelan jan neban bakarrik,.
 Neure gazitasuna ete neban illten,
 Ekin neutsan ainbeste ur trípara sartzen;
 Zerren gazitasunak daukan egarria,
 Bota egiten deutsa urari begia.

Alan ez da millagro, itxaso andiak,
 Beraganatutea errekak guztiak;
 Zergaitik berak daukan erasteko doia,
 Ta asarratuten bada eiten dau orroia,
 Alan bere ezinda sekula tripea
 Gasatu, dakalako mukallauz belea;
 Beti dabil artega, beti da egarri.
 Baña ¿nok kendu leyo au oso berari?
Paulolo, ari jakoz ibai ta errekak
 Guretzat diran legez eurizko tantakak.

Patxi, orrelan bada, ni itsu nengoan.
 ¿Zenbat nire antzeko ete da munduan!
 Baña, zelan egun au gaur dan Inozente,
 Ez deusut siñistu nai diñostazun beste;
 Zergaitik deitu arren Paulori *Paulolo*,
 Ez dalako aurkitzen orrenbestean lo.

ESTEBAN

Zeinbat eta personak bizi urriñago,
 Euren faltak ikusten doguz gitxiago;
 Urrin *len* bizi zan bat. zelan gaur urrean
 Daukadan, berba nai dot eiñ bere gañean;
 Dalako bera gizon guztiz plantosoa,
 Berbari ederra ta prestu antzekoa ;
 Errazoiak emoten beti bera nausi,
 Gizartean gaurdaño dodana ikusi.

Alanbere osoro ezautzen eneban,
 Urrin bizi zalako guretik Esteban,
 Guztiz neukan ondradu eta beargintzat,
 Eneukan ezetara bera dan lakotzat.
 Baña, bizi dalako gaur gure kalean,
 Geure etxetik irugarren dan atean,
 Arotz bat izan eta berandu urteten
 Kalera zelan dodan goizetan ikusten,
 Amarrak inguruan atzo berberari
 Esan neutsan: «Esteban, ¿oraiñ zara jagi?
 Jagiera orreikaz naukazu zurturik,
 Zelan bizi zarean Bilbon ez dakit nik.»

—«Martin, nazan bestean enozu ezautzen,
 Goizetan legez gabaz enozu zainduten;
 Ikusiten banozu noz nazan etxera
 Etorten, gaurko gizon barrien antzera,
 Nire jagierakaz zareana zurtu,
 Erretiroak eingo zaitue arritu;
 Egizu ardurez zoli pruebea,
 Frutatik ezautzen da zer dan arbolea.
 Baldin zaintzen banozu gabetan obeto,
 Cero esango dozu zer nazan ederto.»

—«Alantxe da, Esteban, gizona eikerak
 Esaten dabe nor dan, ez berba ederrak;
 Nik bere len zintzotzat, zu lako bat neukan,
 Eta gaur pentsetan dot ustela ete dan.»

BOTOZKO FERIA

—Zer esan nai ote du, *Joxe, liberalak?*
 —Nere ustez frankoak diradela danak.
 —Orduan diputadu ez doa irtetzen,
 Karlistarik batere emendikan aurtan.
 —Ez seguru karlistak, zergatik dirua
 Nai duten orain artu, saldurik botua;
 Ta gaur bear dana da poltsa bai erantzi,
 Ta karlistak nai dute boto-diruz jantzi.
 —*Joxe*, ez dakit, bada, *liberalak* ere
 Ote diran ññori diru emangure;
 Egia da, zabalik dakarde agua,
 Baña, gaurdaño danak itxirik eskua;
 Ta obeto liteke mingaña euki geldi,
 Eta zabal eskua diruz erabilli.
 —*Patxi*, zaude ixillik, keia tximinian
 Agertzen bada, sua dago sutegian;
 Euki azkeneraño ferian txikoa
 Bezela, sokarekin loturik botoa ;
 Ematen dizunari gizenena poltsa,
 Egin zayozu ari zuk botoa bota.
 —¿Eta zer egin gero oponioari?

—Itxi alde batera maketo danari.
 —¿Zeiñ da oponioa maketo eztana?
 —Jaungoikoaz batera euskal-lege zarra.
 —Argatik gure aita ez da liberala,
 Eta karlista ere ark dio eztala;
 Zergatik batzuek, ta zergatik bestek,
 Dio dizkigutela ekarri nasteak;
 Eta naste oriek ipiñi burruka
 Gure lege zarrakin geyenok aztuta.
 —Orduan enjioa botorik ematen,
 Ez danari Euskaldun uts-utsik agertzen.
 —Ondoen eingo dezu gaur orixe, Patxi,
 Eta lege zarrari zintzo-zintzo eutsi.
 Eta karlistak eta berdin liberalak
 Bijoaz Ebro'tikan arantza dan-danak:
 Ez degulako emen bitzuen faltarik,
 Euskaldunen odola bageunka garbirik.
 ¡Eta orregatikan danak Foru-zale
 Diote diradela, lotsarikan gabe!
 Baña beren temakin bitzuak nayago
 Dutela irletzea, ni orretan nago.

FORTUNA

Fortuna nola beti dan errukiorra.
 Bizidun guztientzat iñoiz ez gogorra;
 Orregatik baten zan agertu onera,
 Premiadun guztiai gusto ematera.
 Ela dei egin zuen: «¡O! premiadunak,
 Dituzutenak kejak edo bai utsunak,
 Atozte neregana arin, baña arin,
 Neregandik guztiok artzeko atsegin,
 Naizelako ni gaitzen erremedia;
 Nainorentzat zerutik dakart kornentua;
 Ez det nik nai negarrez iñor ikustea,
 Ezpada bizidunak pozez eukitzea.

Fortuna'ren dei eder an entzundakoan,
 Txitak olloagana bezela beingoan,

Inguratu zitzayon jentelza aundia,
 Agertze arren danak zuten egarria;
 Ta asi zan bakoitzari eskatzen zuana
 Ematen, ama baten gisa, bereala.
 Bertsolariai eman zien etorria,
 Mamoak ziradenai buruko argia,
 Pobreaki nai zuen aña ondasuna,
 Zeinbat nai gaiztoari ere ontasuna,
 Erramu orriz jantzi baita gerrariak,
 Poztu zituan berriz txit errukarriak.
 Edertasuna eman ziranai itxusi,
 Zergatik danak ziran inbidiaz bizi;
 Gaixoai osasuna, animoa zarrai,
 Eman zien eskatzen zutena dan-dauai.
 Baña oraindik falta an ziran gizon bi,
 Zeintzuk gatik Fortuna aurkitzen zan larri ;
 Zergatik gizon ayek zutena eskatzen,
 Fortuna emateko etzan allegatzen:
 Nai zutelako biak bai partidu baten,
 Kortietan jarteko diputadu irten.

Larri aldi onetan ¿zer zezaken egin
 Fortunak gizon andi ain aberatsakin?
 ¿Bizi ziradelako urrezko errekan.
 Uger edo igeri euren dirutzetan?
 Nekaturik pizka bat Fortunak burua,
 Eman zien kontseju bete-betekua ;
 Esan zien: «gizonak, dirua geyegi
 Emanik daukat asko, antzina biori;
 Orain zeñek geyago zabaldu al dezan,
 Aretzek diputadu bearko du izan.»

ANTON ZOLI

Anton, erruki zaitut ¡ai! ondo bazenki.
 Zuregaitik zeinbateg gaur diñoan gaizki;
 Juana ill da, alargun geratu ziñala,
 Diño oraindiño illa bi eztala;
 Eta zoazalako biar ezkontzera,

Bola gura zaitue oso ezkertera.
 ¿Enozu ni ikusten iya lau urtean,
 Alargun, ta alargun ¡Ilteko ustean?
 —Martin, guztiz errez da iñor juzgetea,
 Alan balitza ori ondo egitea:
 Bakotxak berak daki norberaren barri,
 Iragarri ez arren batek auzoari.
 Zuri ¿ezpadatortzu ondo ezkontzea,
 Niretzat ondo dator zure abarkea?
 ¿Zauri andiarentzet enplastu txikia,
 Ez datorrela ondo au ezta egia?
 Badakit barritsuak, ez gitxik auzoan,
 Derautsela nigaitik gaur modu gaiztoan;
 Bearra eragiten azur bageari
 Laguntzera ezpajat bere bat etorri;
 Badakit esamesak geyenez ezkontzak
 Sortuten dituela baila eriotzak.
 Iraun baneu alargun beste urte bian,
 ¿Mutu egongo ziran miñ txarrak errian?
 Mai batek ¿zeinbat anka, Martin, bear ditu?

Gilxien gitxienez bai beñik-beiñ iru,
 Neuk daukat koskortxo bat, ta da biribilla.
 Iru anka zabalez aulkitzat egiña.
 —Gurekoak, baña, lau bear ditu, Martiñ,
 Lau aldedun dalako zutik egon dediñ,
 Eta zelan dituan orain bakarrik bi,
 Beste bi ipintera beartuten naz ni.
 Baldin ¿gingo baleust betiko lurra jo,
 Barritsuak leuskide zutik ipiñiko?
 Lagundu bearrean, da ikusten dana,
 Ni legez geratuak jausiten dirala.
Iñoren ardurea pago adarrean
 Dagoala, esan zan nozbait nonbaitean ;
 Eta esan zalako egi au egoki,
 Euskera dan artean egingo da bizi.
 Martin, ura joanda egiten presea,
 ¿Ez dakizu alperrik dala asitea?
 Agaitik urak iges eiñ baño lenago.
 Presea egitea deritxat obago;

Kokotzat daukat, bada, trokara menditik
 Jausten dana auzoko barriketak gaitik.
 ¿Eta besteren miña mutu eukitea
 Benturaz al da iñok al leiken gauzea?
 -Anton, nik baño dozu zuk buru obea,
 Bakotxari, bai, emon bekio berea.
 Ez dira bardin nire ta zure geixoa,
 Zurea da nigandik alde andikoa;
 Nik daukat umetxo bat, aita ta ama biak,
 Zuk daukazuz bost ume guztiak txikiak,
 Cañera guk daukagu etxalde ederra,
 Eta zelai) zarean zu barriz maizterra,
 Zetarikoa daben gizonak zauria,
 Atarikoa bear dau osagarria.
 Ezin eta obeto agaitik Antoni,
 Anton deituten deutse ta ganera *Zoli*.

EKANDU TXARRAK ALPORJETAN

Alportejan ekandu txarrak
 Erabilten dauz gizonak,
 Atzeko aldean norberenak ta
 Aurrean lagunarenak ;
 Griñau, barriz, da gizon danena:
 Errez dakusguz besteenak;
 Oba litzake bai ikusiko
 Baleuz bakotxak berenak.

VIII. — I R A K U R G E I A K

*Nik, beintzat, Euskarakin nai det bizitzea,
Baita berau sendatzen nekea artzea,
Euskaraz euskaldunai beti egitea,
Naiz izan aberatsa, orobat pobrea,
Bizi dakigun emen euskaldun fedea,
Erderak dakarrena baño txit obea.*

Á 4, 8

AURTENGO UDA IYA BUKATU DA

Ikusiten nuen, Gillermo,
Aitzenekn Mayatzean.
Iturritxo bal jayota
Ibairontza jetxiten;
Suge bal zirudiela
Ese asko egitean,
Emen salto, an erori,
Arontzago ixilltzen:
Noizbait zuela izarra,
Ispillu baten antzera.
Eguzkiari begira.
Biziro iduritzen.
Inguruko loretxoak,
Ark botarik otz biguña.
Banu batek beziñ ongi
Zituen txit guritzen;
Zipristiñezko perlakiñ,
Erregiña bat egiñik,
Galanki eta dotore
Giro giro ipintzen;
Eta jakiñ nai bazuten
Zeu poliki jantzi ziran,
Urera begiraturik
Antxe *zuten* ikusten.
Pago mardul azpietan
Zijoan marmario otsez,
Kabiatik txoritxoak
Zutela begiratzen;
Beste batzuek zioten
Errametatik kantatzen.
Beste askok egarria
Bere urakiñ kentzen;
Aize firi firi ots ta

Lorien lurriñ artetik.
 ¡O! zeñ pozik iturria
 Korrika zan jetxiten!
 ¿Nork ez artu inbidia.
 Gillermo, ari begira.
 Gaztetasun ta bizia
 Bazizkigun pintatzen?
 Orduan beziñ indartsu
 Orduan ainbat berritsu,
 Orduan bezela bistsu
 Orain ez det billatzen;
 Argaitik orain dakuskit
 Eguzkia berotuaz,
 Egunetik egunera
 Ibayak txikitutzen.

Uda berria joan zan.
 Bere kuku soñukiñ,
 Udau aurrera dijoa
 Txirtxirrak ixillduaz,
 Txorikumatxo berririk
 Iya etzaigu jayoko,
 Kanpnak gorriz jantzirik
 Txandan txandan dijoaz;
 Ardiak dira antzutu.
 Oro bat iturritxo au,
 Gillermo. dudarik gabe,
 Djoa antzutuaz.

Betiko gauzarik ez det
 Mundu onetan ikusten,
 Guziak egiten dute
 Bukatzerontz bidea;
 Gaur jayoa, bigar gazte,
 Etzi pizka bat zarrago,
 Etzi damu nire gisa
 Zar eta agurea;
 Itri au bezelaxen
 Bukatzera denok goaz,
 Bukatuko zaigun eran
 Laster uda maitea,

BETI LORE

(*Nere adiskide Artola'ko Errosario euskaldun
neskatx bertsolari bakarrari*)

Errosario, uda
berriko goitzxo baten,
arrosa txit eder bat
zijoala esnatzen;
zeñi kabietatik
zioten begiratzen,
txorikumeak pozik
zutela usai artzen,
eta berakin nola
ziran asko gozaten,
eskerrak emanikan
txio zuten kantatzen.

Nola berriz zijoan
eguzkia azaltzen,
sortaldean zuela
zerua urrez jazten,
ark ere ikustean
lorea ernai jartzen,
lenengo ziargia
ara dio bidaltzen,
egun onak berakin
dizkiola ematen;
orduan lore polit
otzaz zana makaltzen,
abiatzen da kolko
za rra tua azkatzen,
osto biribilduak
bereala zabaltzen,
edertasun guztia
agertzen orTelaxen,
nola mintsu bat oi dan
obetutzean asten,
motel arkitzen zana
alegrentzian sartzen.

Egunoroko saila
 egiñik eguzkia,
 ezkutatu zan baña,
 gorderik arpegia :
 non orduan jartzen dan
 triste lurra guzia,
 eta txit gaututzean
 illunak estalia,
 dauka lore kutun ta
 polit zoragarria,
 nola upela batek
 barrunean itxia,
 au da arrats beltzaren
 sabelak iretsia;
 noiz aize me zitalak
 zorrozturik izpia,
 jelak berriz egiñik
 al duen txarkeria,
 lore zekarrenari
 burua txit zutia,
 makurtzen dio laster
 jotzerano gerria.

¡ Agur! ¡agur! betiko
 bere edertasuna !
 otz geyegiz apaldu
 dio lerdentasuna,
 atzo arro agertzen
 zuen mardultasuna,
 galduta arkitzen da
 lore guri samurra;
 joan da sekulako
 bere gorritasuna,
 joan da bai pozgarri
 oi zan ikuskizuna,
 (a aizeak jakitean
 bere gertakizuna
 desagertuko dio
 baila daukan itxura,
 ostuak eramanik

al dituen lekura,
 izer sentimentua dan
 edo esturasuna,
 gertatu dan gauz onek
 orañ dakarkiguna !...
 «*Gaur bagera, bigar ezn*
 au da gauza ziurra,
 etzan oker ibilli
 itzok esan zituna,
 bestela begiratu
 baldin bada gezurra,
 eta ikusitean
 lore zorigaitzduna,
 galde non duen ari
 bere galantasuna,
 non lorietan zeukan
 lengo nausitasuna,
 non erregiña gisa
 zeukan anditasuna;
 atzo miragarri zan,
 gaur da usteltasuna,
 igerun egun batik bestera !
 igerun igerun au desberdintasuna !!!

¿Zeñek, Errosario,
 au dezake ukatu?
 buru gabea izan
 ezik, ¿nork ezeztatu?
 Au da kontu triste bat
 maiz dana egiztatu,
 urtero esan leike
 ez duela faltatu;
 au ala dela, nola
 zuk ez dezun dudatu,
 eta bere gañera
 sarritan bai, pentsatu,
 Errosario, dizut
 onela izkribatu
 eskutitz au, zoroak
 ditezen kontaratu;

dakit, etzaituala
 baña, zu lilluratu,
 dakit etzaituala
 munduak engañatu;
 dakit zuk beti goruntz
 eginda begiratu,
 balio duten gauzak
 egitean pentsatu,
 beti-beti zentzuaz
 dituzula moldatu,
 bertso lorez jantziak
 ederki izkribatu;
 ordea bakit ere,
 besterik bat sayatu
 ez dala zu baizikan,
 lan orretan nekatu;
 augatikan zukanuntz
 gaur naiz ni abiatu,
 miresle batek dizun
 zorra eiñaz pagatu,
 zuk daukazun grazia
 egitean salatu.

Parka zadazu, bañan,
 nonbait badet erratzen,
 zeren adiskidetzat
 zaitudan estimatzen;
 orixen dala bide
 gaur naiz ausardiatzen,
 zerorren izen ona
 neurtitzokin onratzen ;
 ntrebitzen naizela
 alabantzok ematen,
 artzekodun dalako
 duena irabazten :
 orixengatik bada,
 enaiz iñoiz lotsatzen,
 personaren onkairik
 sekulan andizkatzen,
 nola gaur asi naizen

VIII. IRAKURGEIAK

zurea sariztatzen;
itzok azaldu gabe
enijoa bukatzen.

Doatsua zerala
dizut bada esaten,
doatsua zerala
benaz det siñistatzen;
doatsua zerala
dizut adierazten,
zailltzen bazera gauza
onak argitaratzen,
lorezko letrarikan
ez da iñoiz igartzen;
norbera illagatik
dira bizi izaten
eta bizi izarren
antzera distiatzen;
irakurlea dala
letuakin zoratzen,
ordu atsegintsuak
dituala gozatzen.

Orra, Errosario,
nola dedan probatzen,
iñoiz lumadun onik
nola ez da bukatzen,
Parnasok duelako
bere oroitza kantatzen.
Zeruak diolako
koroï eder bat jazten,
eta bere gloria
nola ez dan itzaltzen,
auxen da *heti lore*,
gaur dedana aipatzen.

ATE AÑA MARATILL

—Felis, ¿zelan ez dozu
Gaur igo mendira?
Bazkariaz lagunak

Danak an badira?

—Gerriko umoreak
Zelan nauken makur,
Jatsitean jausteko
Nintzalako bildur.

—Felis, euritarako
Ain zabal orregaz,
Erromerira ¿zelan
Zoaz bero onegaz?

—Eguzkiak kiñatu
Ez daistan burua,
Ta euriari badator
Egiteko burla.

—Felis, ¿zer deritxazu
Aurtengo artuak,
Ez dira goizegítxo
Izan jorratuak?

—Entzun dot nik sarritan
Jagíai goizetik,
Jaungoikoak ¿eutsela
Laguntzen zerutik.

---Felis, damuz entzun dot
Artoai sustarrak,
Aurten jan deutsezala
Ez gitxiri arrak.

— Pobrearen oñean
Beti oi da narra ;
Buruz etzan au esan
Ebana makala,

Felis, ¿zer diñostazu
Neguko aldean,
Pobrearentzat zer da
Udea lurrean?

—Esaera zar batek
Diñosku udea
Dala atorrea ta
Cañera gonea.

—Felis, neguan bere
Pobre gizajorik,

VIII.—IRAKURGEIAK

¿Baña itxi dau Jaunak
Iñoz deslaurik?

—Esaereak diño,
Ak. otza noraño,
Dakiala emoten
Kapea araño.

—Felis, eneban uste
Juan ospitalean
Illgo zanik, ak eukan
Semeaz etxean.

Bera bere bizi zan
Semea legetxe,
Baña aita ill jakon
Etxe orretantxe.

—Felis, agiñik ez-ta
Ezin dot ezer jan,
Biziteko badaukat
Aurreruntzean lan.

-Ezpadaukazu iya
Bapere agiñik,
Agaitik ez daukazu
Euretako miñik.

—Felis. ni neu izanda
Etxean tronkeru,
Suiñak ¿ez deust bada
Egin gura buru?

—Esan zan, etorriko
Dala kanpokua,
Aterako dabena
Berak etxekua.

—Felis, enekian nik
Ziñala aiñ argia,
Zuri entzuten nago
Kokorik jarria.

—Jakingo balitz non dan
Ziur urre-miña,
Asko litzake laster
Aberats egiña.

—Felis, joana gaitik
Lurrean nai-nora,
Ez bizitea ¿zelan
Da iñon gustora?
—Ez dalako mundua
Zorion lekua,
Eta bai, arantza ta
Larrosaz nastua.
—Felis, edozein puntu
Nik jo arren zuri,
Erantzuten dakizu
Obeto zuk neuri.
- Adiskidea, jarri
Ezkero atea,
¿Ez da maratilla bat
Dagokan gauzea?
Bestelan obeto da
Bat egon lenean,
Ez ate ta maratill
Aizien mendean.

GUZUR ILLUN ZALEARI

Zeinbat eta lurra bigunago.
Arra barruago.
(*Euskaldun esaera zarra*)

Egiagaz burruka legetxe guzurra,
Alkarren kontra dabiltz gaba ta eguna ;
Zelan ez dun alkartzen zitalaz biguna,
Argiaz ez da lagun bein bere illuna;
¿Eta gatxak ezpadau laztan osasuna,
Ona non izan leike txarraren kutuna?
Orregaitik eguna badoa beruntza,
Gabari nasaituaz doako biotza,
Eguzkiari doa atzetik jarraika,
Zabalduaz puzkaka kapa illun baltza ;
Ta argia egitean beste aldera pasa,
Orduan asten dabe gautarrak olgantza.

Orduan guzurti ta illunpetakuak,
 Itxirik bizi diran leku ezkutuak.
 Artzen dabez eurentzat erri ta basuak,
 Asetuteagaitik egarri gaiztuak,
 Lotan dagozalako biotz onekuak,
 Egunez bearrean oso nekatuak.

Bestela begiratu ipurtargi ezaiñak,
 Aor, zelan uste daben dirala izarrak,
 Aor, kalera urtenik arro saguzarrak,
 Ara, ontzak basoan uluka zantarrak.
 Deitzen dabela: «Nausi gu gozak gautarrak,
 Zergaitik bereagaz urten daben gabak.»

Ara, otsoa bere gabez ¿ze zolia!
 Artzaiña lo dago ta ito dau ardia;
 Ara, ollotegian barriz aixeria,
 Bizitza бага isten al daben guztia,
 Esanaz lotsa бага: «Au dok gure aldia,
 Zetarako juagu eguzki txarria?»

«¿Ez dok askoz txarrago guretzat eguna?
 ¿ Etxuagu egiten gabez nai doguna?
 Jan bildots guria zein ollanda biguna,
 Gozau bildur bagarik beste ondasuna.
 Betetako gogora etorten jakuna,
 Auxe ¿ez dok ordua eskatzen genciana?»

Orra, modu berean gizon gauzalea,
 Pristien antzekoa daukana fedea.
 Deika: «¿Zerurako dok Jesus'en legea?
 ¿Zetarako juagu alako katea?
 Gustora emoteko emen denpora.
 ¿Ez dok obeagoa gaur libertadea?
 ¿Ez dok erosuago gabiltzan moduan
 Bizitea, al dana egiñaz munduan?
 ¿Non aurkitzen dok ezer ill ezkerokuan?
 ¿Non erretako su ta garrik infernuan?
 Eta non gloriarik betiko Zeruan,
 Ustelduko bagaituk lurraren barruan?»
 Orra, gautar guztien gaurko berbakuntza.
 Orra, noraño sartu jaken errakuntza;

Orra, zer diñoskuen fedea galduta,
Aurkitzen diralako gabak illunduta;
Auxe da zoragatx bat negargarri utsa,
Ikusten dabelako bakarrik gorputza.

Nekazariak zelan garia soluan,
Orrelantxe erein da guzurra kanpuan ;
Ara, bere frutuak kale zein basuan,
Agaitik gauzak dabiltz dabiltzan tayuan,
Askok dakarrelako aixea buruan,
Asabak kokolonk zirealakuan.

Baña, nik dakust garbi begien aurrean,
Dontsuago giñala gu lege zarrean,
Baita libreagoak euskaldun lurrean,
Antxiñako fedez bizi giñanean;
Bestela gaur bagagoz libertade obean,
¿Zertako erdaldunak ditugu gañean?

¿Ez giñan zabal bizi geure esparruan,
Pristia txar bat sartu artean barruan?
¡Ai! au arri bategaz jo buru-buruan,
Eta ill-otzik itxi bagendu beinguan,
Ez giñean jausiko lazua ain estuan,
Barre eragiteko iñori auzuan.

Egi-egia da bai, lurra bigunago
Danean, arra zelan doian barrurago;
Txarragoa sartu zan emen arra baño,
Zergaitik sugea dan askoz okerrago;
Euskaldun gure Tenplu izana lenago,
¿Norgaitik basamortu bestela gaur dago?

Bai, sugeak zeruan asi eban gerra,
Guzurti zan eta bota eben bera ;
Ta gero infernutik urten da lurrera,
Dabil bere guzurraz baterik bestera;
Azkenez eldu jakun geure lur maitera,
Libertade jantzia zepuan lotzera.

Pristia guzur utsa, zeinbat txori itsu,
Oi dok zepo orregaz ankatik oratu,
Argia eskeñi ta illunagaz lotu,
Eure mantu baltzagaz egitean batu;

Baña, egi bat egin baño len or sartu,
 Amorruez bearko dok arbolan urkatu.
 Ekiok gura badok gerra aiñ zitalean,
 Esetsi Egi orri al duan añean;
 Nekatuko az baña, alperrik lanean,
 Orain modu batera, urrengo bestean,
 Zergaitik Eleizeak i beti oiñpean
 Eukiko aben lurrak dirauan artean.

DOMEKETAKO ESKOLAK

¿Zer da lurrean argia baño gauza oberik?
 Eguzkia duiñ ederra danik ¿zer zeruan?
 ¿Zer da argirik ez dakusana itsu bat baño,
 Bizi dalako Linboan legez au munduan?

Orren pozgarri argia bada gorpulzerako,
 ¿Zer izango da arimarako barriz bera?
 ¿Nun aurkitzen da espirituko argia baña,
 Baldin begiak bada ikusten ez dabena?

¿Nun izango da ezpada gure erlijiñoan,
 Zeiñ dau arimak argituteko Eguzkia?
 Ta beragandik ¿zelan da iges gaur ibiltea
 Aiñ zoli bada bizi garean gizaldia?

Aurreratu dau gizaldi onek beko gauzetan,
 Amaitzekoak direanetan guztiz asko;
 Aurreratu dau, ¿baña betiko direanetan?
 ¡Ai! ez dau ezer uste dagonik gerorako.

¡ Ai ! bear asko egiñ dituez gaurko gizonak,
 Illuntasuna eta dueda zabalduen;
 ¿Ta fededunak egongo gara lotuta legez,
 Fede bageak ikusitean aurratuten?

Jaungoikoaren Ministroari ¿etzan fedea,
 Bautizetako Eleizan sartu giñanean,
 Danok guztiok eskatu geuntsan gauza bakarra,
 Mundura jayo eta lenengo egunean?

Baña, fedea, ¿zer da billoxik obrarik бага,
 Ezpada iya ¡lda dagoan kandelea?

Ezpada gauza asko al daiken birtutea?
Ta zer da bera karidadeaz batu ezkeru,

Poztu zaite gaur, neskatillea, suerte onek
Au da fedea zelaz zaituan argituten;
Dakutsulako karidade ta fedea naste
Dabiltzanean ze gauzak diran gertatuten.

Dakutsulako fedea naste karidadeak
Ez dakiana emen dabela zolituten;
Dakutsulako igaz letrarik ez ekianak,
Gaur dakiala irakurri ta eskribitzen.

Dakutsulako fedea naste karidadeak,
Zenbat meritu aurten dituan irabazi;
Orain denpora gitxi illunak ziran buruak,
Dagozalako gaur biurturik izar bizi.

Esker andiak, domeketako eskoletako
Eguzki eder zarien dama aiñ nobliak;
Eskerrak zuei, zuen argia iratsiteko
Zergaitik bota dituzuezan izerdiak.

Jarraitu, bada, illuntasun ta ezjakiñari
Jakituria argitzalleaz gerra egiten;
Jarraitu zuen domeketako eskoleagaz,
Neskatillea birtutietan argituten.

Jaungoikoaren bildur santuan esanik dago,
Jakituriak daukala bere asiera;
Bildur orretan susterra daukan jakituria
Dalako emen zuek zabaltzen dozuena.

Ez atzeratu, emakumezko apostoluak,
Inkau betiko ikasi ona neskatzetan;
Ama on batek bear dituan sentimentuak
Erein ugari, frutuak emon dagiezan.

¿Jaungoikoaren bildur santua gizonak badau
Bera apaintzen daben doerik ederrena?
¿Obetuago ez dau edertzen emakumea
Berez dalako etxunagoa gauz onera?

Ez da dote bat andiagorik emakumean,
Ikasi onaz naste badaukaz birtuteak,
Mundu guztiak baño geyago zerren balio
Daben etxean zoli ta ona dan andreak.

Zorioneko andrea ona daukan gizona,
 Zorioneko etxe atako familia ;
 Zorioneko ango umien amak badauka
 Domeketako eskoletako ikasia.

Zorioneko eskolan artu eban argia,
 Zelan irantsi ak egingo daben alabetan;
 Duda bagarik izango dira ispillu eder,
 Uda barriko euren lorazko urtietan.

Ak aziko dauz kristiñau onen ardureagaz,
 Pristia txarrak iñoz iruntsi ez dagizan;
 Ak erakutsi egingo deutse zelan ez jausi,
 Sarri topetan direan arri labanetan.

Ak erakutsi egingo deutse bere alabai,
 Alperkeria dala griñe txar danen ama ;
 Ak erakutsi egingo deutse orrexegaitik,
 Goizetik jagi eta egunez eiten lana.

Ak erakutsi egingo deutse, naiz pobre izan,
 Garbitasunaz eta egoki ingirauten;
 Dirutzak euki arren zergaitik ganora бага,
 Ez ikasiak asko direan agertuten.

Ak erakutsi egingo deutse arrokeritik
 Urrindu bear dabela beti langilleak;
 Ak erakutsi egingo deutse umildadeaz
 Bear dabela beti ibilli neskatxeak.

Ak erakutsi egingo deutse zer dan mundua,
 Berak daukazan arrokeria guztiakaz;
 Ak erakutsi egingo deutse euren arimak
 Zaletu bear dabela gauza santuakaz.

Ak erakutsi egingo deutse euren arimak
 Jaungoikoaren antzera zelan diran eñiak;
 Jesukristoren odolarekin erosi eta
 Zeru ederrak irabazteko baita duiñak.

Onelakoxe mesede eta frutuak dira
 Domeketako eskolak emon leiezanak ;
 Direalako eraen dabiltzan neskatxak asko
 Izango nozbait guraso cta baita amak.

Onetaraxe landarak bere emoten dabez
 Frutu ederrak, baldin badira eurak onak;

Alan kristiñau leyal direan amak geyenez
Euki oi dabez gaiztoak baño ume obak.

Ezin eskatu giñai lurrean besterik ezer,
Bakar-bakarrik Jesukristoren erreñua;
Auxe jaristen eskola onak nekau ezkeru,
Salbau egingo litzake mundu aĩñ galdua.

Eskola onak egin bear dau orretarako,
Gaiztoen kontra al dan on dana erakutsi;
Zeruetako laguntasuna onak dauka-ta,
Jaungoikoaren kontra ¿nok daike irabazi?

Jaungoikoaren laguntasunaz eskola onak
Azkenetako eroango dau bitoria;
Eskola onak bakar-bakarrik birtutez jantzi
Daitez uria, erria eta baserria.

Gloria eta ondrea. bada, domeketako
Eskoletako dama on noble irakaslai!
¡Gloria! euren irakaste ta ardureari,
Baita sarien duin egin diran neskatillai!

Ela ¡gloria! danen gañetik jaungoikoari!
Bera dalako gauza on danen iturria;
Bere gloria geitute arren dalako utsik,
Domeketako eskola onen egarria.

GORANTZIAK

*(Nere adiskide maite On Leonardo Artiatz
eta bere andra on, Errepublikak Arjentinako San Nikolas
de Arroyasen bizi diranai)*

Ogetamasei urte or egiñ
Arren, ¡o! neure laguna!
Dakit gaur bere zelan zarean
Euskara maite dozuna;
Dakit biotzez zelan deutzazun
Berari maitetasuna,
Bera dalako amari edan
Zeuntsan berbeta kutuna,
Titiaz naste gorputz ta ariman
Umetan sartu jatzuna.

Erritar onak legez amelan
Gaituzulako zuk hada,
Etorri ziñan emazteagaz
Igaz gu bisitetara.
Topau zenduan erri au, baña,
Ez bertan ama laztana,
Antxiña illda joan zalako
Emendik zeruetara,
Lur triste oni agur eginda,
Betiko glorieta.

¡O! ze gozoa izango jatzun,
On Leonardo maitea !
Zure, amatxok beso biakaz
Bere kolkoan batzea l
Munduan gusto guztiak baña,
Añ da gatx eskuratzea;
Errazago da gaur pobretu, ta
Biyar aberastutea,
Jaritxi baño erbeste onetan
Zoriontasun betea.

Igazko udan baña andreak
Ona zu etorritiak,
Pozez ipiñi zituzan zure
Iru arreba maitiak;
Ezagun eta senide danak
Gañera adiskidiak,
Berba batean poz artu eban
Otxandio'ko jentziak;
Alan ezpada esan daiala
Bertan bizi dan guztiak.

Zeugaz batera zure Felipak,
Lagun zar maitegarria,
Ikusi deusku prestua dala
Zu jayo ziñan tokia;
Dala Langiña, dala zintzoa,
Argi, zoli ta garbia;
Dala Españan beti ederren,
Gure Euskaldun erria,

Bestelan onuntz ¿zergaitik dator
Udan jentetza andia?

¡O! ze politak baita bere emen
Diran etxalde zuriak !
Leku goyetan baita ermita
Antxiñakoak jarriak!
Zeuk begiakaz ¿ez dozuz barriz
Ikusi erromeriak,
Zelan batuten diran millaka
Euskaldun fedez biziak,
Zar eta gazte adoretara
Santu beneragarriak?

¡O ! zeñ ederrak diran emengo
Erreka murmurlariak !
¿Zelan ditugun fabrikaz jantzi
Txikiak zein da andiak!
¡O! ze galantak bañu-etxeak
Iturrietan jarriak!
Eta ¿ez dozuz zuk zeuk ikusi
Gure tren txistulariak,
Erri biurtu deuskuezanak
Baso, atx eta mendiak?

¡O! ze gustora bere ikusi
Dituzun emen plazetan,
Munduan diran pelotaririk
Onenak partiduetan !
Aurrekugiñik aurrengoak,
Dantzan egiñaz jayetán;
Bertsolariak bere ¿ez dozuz
Ikusi pozez kopletan,
Gutziz egoki, oso arira,
Botiaz zortzikoetan?

Ikusi dozu Bilbo bere, ta
Donostiako uria,
Irunan eta zeñ Bitorian,
Ikusteko dan guztia ;
Añ asko azi ditugulako,
Lenak ez dira gaur iya,
Eta onelako uri ederrez,

VIII.—IRAKURGEIAK

¿Au ez da miragarria?
Lau erri buruz ¿nun da beste bat
Lur bat aiñ zoragarria?

Auxe da, neure adiskidea,
Zu jayo ziñan Erria,
Amerikara zeñek bialdu
Ugari daben argia;
Beronen seme askok jaritxi
Or ebelako gloria,
Zabaldugaz bazter danetan
Kristiñau jakituria ;
Orain ederto gozetan dabe
Danak goyetan saria.

Au da, Artiatx. zure Erria,
Izarrez dana jantziten,
Au da *Laurak'bat* euskaldun izen
Ederraz dana deituten;
Izena zuek bere *Laurak-bat*
Or badozue zainduten.
Lau eskugazko kurutze baten
Zareela zintzo lotuten,
Euskal arraza, arraza danen
Zoaze ispillu ipinten.

Beñik-beiñ emen gura genduke
Laurok batera aurrera
Izan, da zaindu kurutzedun dan
Gure Arbola ederra;
Gu ¡Ilda bere gure semeak
Jarraitu dayen onela,
Deitu dagien emen zein da or
«Gernikatarrak gu gera,
Aritx Arbola kurutzeduna
Dalako gure bandera.»

Agur, egiten deusut ementxe,
Erritar laguntxo zarra:
Baña barriro igaz legetxe,
Emen batuko al gara;
Bitartean guk daukagulako
Ur-zelai guztiz zabala,

Badakit noz nai iragotea
Ori aiñ erraz ez dala ;
Baña zuk laster egiñ dagizun
Zeruak gura daijala.

Zeure andra on, ona Felipaz.
Igaz irago zenduan,
Gutziz ondo ta nik artu neban
Poz bat andia orduan;
Zergaitik zuen maitetasuna
Beti daukadan barruan,
Esker oneko euskaldun batek
Zor deusuedan moduan,
Bazkari eder zuekaz janak
Ditudalako goguan.

OROITZ BAT

(Nere adiskide On Franzisko Lopez eta Alen'i)

Irakurtzean zure bertsoak.
Etorritzen zait burura
Nere umeen gisa Joxetxo
Igoa dela zerura,
Ta jetxiterik nola ez duten
Andikan gure mundura,
Adiskidea, lasaitu bedi
Zure barruko estura,
Pazientziaz igo gaitezen
Illtzean ayen lekura.

TEMOSO BIEN EZKONTZEA

Ibilli nintzala ni baten ezteguan.
Ogei urte irago dira zapatuan;
Noz zirean temoso pirri bi ezkondu,
Ezin ziranak gero ezelan konpondu:

VIII.—IRAKURGEIAK

Nai ebelako beti biak izan nausi,
Etxe atan bakerik iñoz etzan bizi;
Ebiltzan beti-beti kezkan, ez eta bai,
Bakotxak ebalako bereaz urten nai;
Augaitik deitzen eutsen Praiskari, berekor,
Praiskori erri danak, barriz, buru-dekor;
Nori arratserako berotzen odolak
Bajakozan, ziertu ziran teniolak.

¿Nok esan Praisko ala Praiska zan obia?
Diñot, biak eukela beti errazoia;
Diñot, nik nekusala Praisko gizartean,
Beti gogor zaillduten berak esanean.
Praiska ez dazaut ondo, baña bere ama.
Diñot, suge izpia duiñ zorrotza dala;
Bakit, barriz, billdurrez bizi zala Praisko,
Buru eute eutsan Praiskari ausiko;
Ta aiñ arri labanean jarraitzea baño,
Desezkontzea zala pentsaurik obago,
Praiskari zer asmetan eban esan eutsan,
Eta bananduteko au bere poztu zan.

Ze laster Praisko joan Abadeagana
Egin zan jakitera zer zirautsan bada;
Zeiñek erantzun eutsan gatxa izan arren
Ebazala askatuko, biak gura beben;
Atarako Eleizan, biaramonean,
Agertzeko zazpirak joten ebenean.

Eleizaratu ziran zazpiren *drangadan*,
Ta aurrez abadea egoan altaran;
Jantzita bear legez prest bere lekuan.
Burdiñazko isopo bategaz eskuan:
Noren aurrean ziran ezkondamutuak,
Belaunikotu makur jarririk buruak;
Ta Aitearen eginda danak bereala,
Gauzeak urten eian ondo ta erara,
Abadea asi zan ixillik esanaz,
Lantzean beiñ berba bat, baña ez euskaraz ;
Eta nozik-nozera isopo gogorraz,

Joaken koskorreko ederrak emonaz;
Bostgarren burukoan Praiskak eban negar,
Baña. Praiskok amorru ta arrabioz dedar:

—On Luis, guk onetara banandu ezeze,
Laster galduko dogu bizitza bere;
Isopokadak artzen ¿noz artean, jauna,
Eukiko gaitu emen, naikoa ez al da?

Irri barrez diñotsa: —Eztogu naikoa,
Benturaz lan au dogu aste guztikoa;
¿Ez al dakizu, Praisko, desezkondutea,
Dala bietatik bat alargundutea?
Zuen buruak illun, dotriña bagarik,
Dagoz ta bear ditut jarri argiturik;
Banandu ezetara ezin zaikiet nik,
Bat edo besteori itxi arte illik.

—¡Ola! ezteusku gitxi, jauna, eskatuten,
Ori jakin bagendu ona ezkentozen;
Errazoa eukan bai, erremedi.ua,
Zala gatxa, gañera barriz kostosua;
Jagi, Praiska, ta goazen, ill baño lenago,
Ill ezkeru guztia amaitua dago;
Burruka eta abar obe dogu bizi,
Ez benturaz biziak biok emen itxi...

Kar kar kar abadea, itxirik barreka,
Eurak bostna burukoz miñez ayeneka,
Seigarren bana laster arrapau baño len,
Eleizatik tximistaz biak urten eben;
Eta kale guztia lotsari artean
Iragota, sartzean euren suetean,
Asi zirean laster sendatzen buruak,
Abadeak mallatu eta argituak.

Bai, mallatuagaitik eutsezan argitu,
Bestelan gaur dayegun eurai begiratu;
Len beti gerran bizi baziran etxean,
Bizi direalako gaur oso bakean;
Ain bestean ein dabez jenioak ondu,
Alan eztabe gura oraiñ desezkondu.

SEMEAREN BIURREREA

Banator, ama, banator, ama,
 Gerratik sano etxera,
 Pozaren poza?, laztandu eta
 Zuri esturak kentzera ;
 Gerra egin dot garaitu arte
 Soldadu onak bezela,
 Amar kurutzaz kapote zar au
 Ikusidazu bestela.

Eskuplario onexek, ama,
 Bizirik nauka munduan,
 Beronegaitik etxera nator
 Ikusten nozun moduan;
 Bala batek bein bete-betean
 Bular au jote orduan,
 Laprast ein eustan, zergaitik balen
 Kontra Mariak al dauan.

Irudi onek ein euskulako
 Mirari pare bagia,
 Beroni utsik zor deutzagu gaur
 Dogun atsegin andia.
 Orduan amak beso biakin
 Baturik bere semia,
 Ots egin eban: «Bizi dedilla
 Arantzazu'ko Maria».

BEGI TXIKI

Jose Luis eta Ana senar emazteak,
 Antxiña noz cdo noz izanak gazteak,
 Kapoe galantagaz bazkaltzen etxean,
 Egubarriz dabena urtean-urtean.
 Baña, igaz aiñ бага baziran irago,
 Ori zelan zan garbi, esango dot gero-

Aurten bere jarraitze arren oiturari,
 Diñotsa Jose Luisek bere andreari:

Gabon egun au. Ana, aurrera badoia.
Eldu jatzu ordua illteko kapoia.
Beragaz egin daigun bazkari bat ona.
Biarko egunari legez zor jakona.
- Jose Luis, badakizu dala andiegi.
Librak daukazalako urrean amabi:
Amar lagunentzako dalako naikoa,
Seme erranai daukat deitzeko gogua;
Lautzuk senar emaztek naiz zortzi lagun jo,
Danok bete egingo gaitu aoraiño.

Gabon apal ostein jatsirik kortara.
Kapoe baga baña biurtu zan Ana,
Larriturik a otan ez aurkituteaz,
Eta igaz jazoa aurten jazolcaz.
¿Zer jazo ete jakon kapoiari bada?
¿Aixeriren bat eldu ete jakon ara?
Iñola bere eldu jakon aixeria,
Baña anka bikoia ta bera zolia;
Diñoenetik batzuk Txomin *begi-txikik*.
Zeiñ ezaututen oraiñdiño gitxik;
Eztabenak sekula egaztirik asi.
Eztanak iñoz bere erosten ikusi,
Egubarriz kapoia bazkaltzen ei dau jan.
Amabien bat libra zeñek ei eukazan.
Alan larregi janda ei dabil geixorik.
Bizizturiaz tripak garbitu eziñik.
¿Ainbesteko pisua egazti ak beukan,
Jose Luisen kapoia izango ete zan?

Ezin esan daiket nik norena zan bera,
Baña, igaz jan eban ak Jose Luisena,
Txomiñek berak daukat isillik esanda,
Baña, neure barruan gorde nengiala;
Beste bateri bere ak esanik bardin,
Zelan kontu ixilla egin deutsen jakin!
Agaitik aurtengoa norena daben jan,
Itandu arren atzo esan nai ez eustan.

AMES BAT

Jaungoikoak esan eutsan bein udabarriari:
 «Jarri egiozu maia zer janagaz arrari.»
 Ela ginda zugatzean dau bertatik orria
 Jayo eragiten oso samurra ta guria.

Baita arrautzatik arra laster dau askatuten.
 Koskolak bere barruan ebana zarratuten,
 Antxe nekez iragorik negu bildurgarria,
 Jatzen ekin eyon laster ginda orri barria ;
 Eta zelan bai gustoa eutsan ona artuten,
 Kostau arren agiñakaz apurtxo bat zatitzen,
 Esan eban bere kautan: gozoa dot billatzen.

Bigarrenko Jaungoikoak baita deutsa esaten.
 Erlearentzal asteko maia janaz gertatzen :
 Orduan ginda zugatza lora zuriz da jatzten,
 Iñozko miragarrien urrin agertu daiten;
 Eta urren goizean eguzkia jagia
 Zanean, loreagana doa erle zolia;
 Zeiñ topaurik zuri eta katillu antzekoa,
 Eretxi jakon ontzia kafea artzekoa;
 Eta bere musturtxoa barrura sartutean,
 Eta bertako zumoa poz-pozik adetean,
 Esan eban:: «Gutziz gozo edari au jat, eta
 Azukarez esan leike dagola atonduta.»

Jaungoikoak Udeari esan eutsan urrenko:
 Txoriari janaria bere gertatuteko,
 Orduan ikusten dira ginda gorri mordoak,
 Eta txoriak bertatik asten dituz txioak;
 Erdu bai, ordu onean, gura zindudan, maya,
 Nire gose au illteko ekarridazu gaya;
 Neugandu daidan indarra gosez galdua nik.
 Aspaldian nazalako bizi kantau eziñik.

Udagoienari gero Jaungoikoak diñotso:
 «Etorri jatzu aldia zuri aginduteko,
 Kendu egiezuz mayai zapi eta oyalak,
 Amaitu zirealako zeatz-zeatz zer janak;
 Eta zelan gosetiak asetuak dagozan»

Nai dot orain zeure lanak betetara zoiazan.»
 Orduan Uda goienak auspoturik agoa,
 Arnaseaz egiten dau aize guztiz puztua,
 Gaur dario epeltxo, biar leigintzakoa,
 Orria ipiñi arte laru ta igartua;
 Azkenean, urraturik zugatzetik aidean,
 Daroa nai-nora, noz-nai luma baten antzean,
 Goizean, arratsaldean eta bardin gabean,
 Berari gogoan jarten jakon une berean.

Jaungoikoak, azkenean, diñotsa Neguari:
 «Begiratu egiozu kanpo ain zabalari.»
 Zeiñek ikusiagaitik narru gorritz billoxa,
 Erakutsiten ebalatxarizko biotza,
 Botarik kanpo danari edurrezko izara,
 Negu gogor, gordin, baltza, joaten da lotara.

LIBERTADEA TA BERE ESKOLA BAT

Jaungoikoaren bildurra da
 Jakituriaren asierea.

(*Salomon'ek Jakituriako
 liburuan*)

Jaungoikorik bagako eskola batera
 Gazte batzuk abiau ziran joatera;
 Ezebalako ango maixuak federik,
 Zerua ikusteko ez eukan begirik.
 Nonbaiten infernurik aurkietan bazan,
 Ziñoan egoala bakarrik pobrezan;
 Gizonok gareala bardin alkarregaz,
 Aberastu oi dana dala bestenagaz;
 Eta Libertadea gozetako emen,
 Mundura gareala guztiok etorten.
 Ikaslentzat zalako dotriñau gozoa,
 Edan eben aukeran denporaz naikoa,
 Baita bere frutuak asteko emoten,
 Etzirean luzaro egon itxaroten...
 Maisuak zerbaitera kanpora urtenik,
 Aurkitu ziran laster poz-pozik guztiak,

Tinteagaz pintetan euren arpegiak,
 Bigote, perilla ta gañera patillak,
 Uluka dei egiñaz: «*Aurrera, mutillak,*
 Gazterik egin gaituk danok emen gizon,
 Libertadeak jeuskuk egiñ ainbeste on.»

Eta txarrago zana, nai zer lotsagarri,
 Paperelan egiten eben danak jarri,
 Edozein pentsamentu sortua burura,
 Alde batera bota egiñik bildurra:
 Alan ziarduela Maisua sarturik,
 Bere esku-makilla gora eregirik,
 Goian, beian, asi zan zurretan mutillak,
 Entzun zituelako euren dei ta buillak:
 Esanaz: «Bakizue ona zatozela;
 Gizon argiak zelan izan ikastera,
 Jolastu nai dabenak zelan egin dantzan.
 Antxe dauka lekua libre-libre plazan;
 Eskolea eskola, plazea da plaza,
 An egoki da baña, ez emen olgantza.»
 Baña, zelan mutill bat an bazan argia.
 Eritxana Pio ikastun andia,
 Axe abaiu jakon Maisu libreari,
 Urteiera onegaz emoten arpegi:

«¿Libreak gareala ez dozu esaten?
 ¿Zoriona bertatik jakula sortuten?
 Dotrineau ikasi zeuri badeutsugu,
 ¿Zergaitik nai doguna gaur ezin daikegu?
 ¿Zergaitik iruditu nai badogu zarrak,
 Ezin egiñ giñaikez ur baltzaz bizarrak,
 Bigoteak, perillak Ia bardin patillak,
 Libre jayo ta azi garean mutillak?
 ¿Zeuk ez dituzu bada guztiak mosuan
 Eta eukiko doguz guk barriz auzoan?
 Ez, ez, guk bere bear digutu soiñean
 Eta egin al danaz bardindu gnitean:
 Eta txarrago dana, ¿zelan eskribitzen
 Edozein pentsamentu ez deuskuzu isten?

Bai, bai, guztiz ederra da zure dotriña,
 Lau anka daukenagaz balitza bardiña;

Baña zelan ni nazan Adan'en semea,
 Eta ez astakuma edo aberea,
 Jaungoikoak emonik daukat errazoia,
 Gizonari bakarrik emon eutsan doia;
 Emen irakatsiak ez dauka ankarik.
 Eta bururik badau aizeaz beterik;
 Atzo zeuk esan eta gareala bardin,
 ¿Zatoz txikiagoai gaur egitera min?
 ¿Zatoz zeure berbea osoro jaiera,
 Edo ill egin al de Libertade ederra?
 Eskumakilla ori euki geldi, geldi,
 Eta Libertadea non-nai bizi bedi;
 Etxean, plazan eta geiago eskolan,
 Izen eder onekin sortu dan Arbolan:
 Bestelan laster zoaz leiotik kanpora,
 Lau cdo bost bat mutill bat eiten baraga;
 Orduan egingo da garbiro ikusi,
 Zeu zarean ala gu gaur emen nagusi;
 Edo ez irakatsi ezin dan gauzarik,
 Libertadea beintzat badago neurturik.»

Orduan mutill danak asirik uluka.
 Erromerian legez baita irrintzika,
 Ots egiñik, batera, ¡bizi bedi Pio!
 Maisuari betiko egiñik guztiak,
 Atera ziran arin kalera guztiak;
 Kanpoan entzunarren euren garrasiak,
 Etziran kejau gura auzoan biziak.
 Parterik ez egian artu Justiziak...
 ¿Arrezkero leyoak oso itsutuak,
 Ez daukaz bildurturik orduan Maisuak?
 Eta ez ei dau gura bere zabaltzerik:
 Errazoia dau bota ez dagien andik.

Jaungoikoaren bildur santu eta ona,
 Da bai jakituriak bear daben oiña;
 Txarrak diño e dala gaur Libertadea.
 ¿Salomon bat ete zan ain zentzun bagea?

UDABARRIA ETA UDAGOIENA

1

Gaztea zelan oi dan izan Udabarria,
Neskatilla donosa eskertsu egokia,
Agertzen da artero arpegiz barretia,
Balite legetxe bera Jaungoiko bat txikia:
Ereiñotzezko aroz bekokian jantzia.
Izan dedin lurrean danen agintaria.

Nok *er.* dakio bere antuste larregia,
Ez dakutsagu soñ me, txairo ta ;razia.
Loturik estuegi dakarrela gerria :
Baita ez dazautsagu burua eregia.
Dakarrelako zerden. zuzen, artez, zutia.
Darion usain dana dala arrokeria;
Baldin da baldin izan balitza egazia,
Pabe errealagaz ;o! ze berdingarria !

Bañ (jaur dantzutsagun bere berba-aldia,
Eta begira ondo badan andikeria.
Diñoanean: neu naz neu, neu zoragarria.
Ni naz negu illtzalla. altsu, itzalgaria,
Neu eder, galant, txukun, liraiñ, berbaz ezta,
Jatalako agoa gozozko iturria:
Eta zelan etxakon eteten iturria.
Izanagaitik bere emona ugaria,
Geratu arteraño utsik berba ontzia,
Kautan daiket ederto dan bestean egia;
Bildur apurrik бага artzeko lotsaria.

Ni naz edertasunen danen jarraigarria.
Nik neuk bakar-bakarrik zelaia ta mendia,
Berdez orniduteko daukat jakituria;
Bestelan ¿nok ernetan dauz bedar ta orria,
Larrosa, krabeliña, ta azuzena zuria?
Beste milla loragaz egiñik estalkia,
Lurrean neuk ipinten ez dot zero bizia?

Gogaitgarri ez dala neuk dakart eguzkia,
Izan bagarik udan legez beroegia :

Bere-pean darabil pozik nekazaria,
Botaten ez dabela goyegi izerdia,
Gañera ozperatzen neuk deutsat bekokia,
Bialdutean bigun aide zirimiria.

Zerua nigaz añan barriz gogo argia,
Eta izate dana ¿noz da ikusgarria?
Iñozko atsegiñen ¿ez ta egun-sentia?
Itzarriten dalako goiz-goizetik txoria?
Eite arren zoli txera ta abegia,
Gornutaurik ill zala negu bildurgarria;
Augaitik guztientzat ni naz maitegarria,
Nai dabela neu izan nadin menpelaria,
Deiturik: » beti bizi bedi Udabarría »,
Dalako gazteenzat geyen poztugarria,
Eta zarrentzat barriz bizi-ekarlaria.

Orregaitiño baña, iñok auterestia
Baldin badau gorago bera dala jagia,
Nire aldean urrin dabela jaritxia,
Bere al izateaz biziteko tokia,
Betor, izan dakidan ementxe ikusia;
Betor, ta izan bedi aurrean agiria,
Ela badakust dala nire kerizgarria,
Eta ni enazala bere bardingarria,
Berbertatik burua jarririk erantzia,
Aro eder onegaz egiñik eskiñia,
¡ Agur esango deutsat, nire agurgarria,
¡ Agur! deustazulako guzurtau eretxia;
¡ Agur! artu egizu nire jazartokia,
Geyegi jatalako sueteko aulkia:
; Agur! ni nazalako onen gauza gitxia,
Enazalako izan benetan nagusia.

Uste neban añean gitxiago zolia.
¡ Agur! emen naukazu zorura eratsia,
Izan nakizun zure oñen zapalgarria,
Zuk izan bear dozu goya ta nik azpia,
Eutsiz nire lorok ta betor damu zapia;
Betor, dakardan beti buruan ipinia,
Betor, au jatalako aizez puztuegia,
Orain dazaudalako neure zorakeria,

Nigandik zugana dan alde lotsagarria,
Gura natxatsu izan zure serbitzaria,
¡O! miragarrietan andra miragarria!

Ona emen naukazu otseintzat gaur jarria,
Egiteko sotillik gura dozun guztia,
Benturaz izan banaz gorengotzat eukia,
Usterik nintzala ni danak lenendaria;
Artu ez dayan iñok engañozko neurria,
Zorionean dozu azaldu arpegia,
Zori onean egin zatxat ezaugarria;
Zinean legez izan bagarik beregia,
Edo beratasunez obeto gerogia,
Eukidazu izartzat artzean errukia,
Zu zeu zarealako uts-utsik Eguzkia.

Baña entzun oraindik guztien azkarria.
Esan dodazan gauza dan-danen illgarria ;
Eguzki arek entzun nai ez da eskaria,
Egingo baleust egin illun, motz, abegia.
Orduan neukakean amorru arrabia.
Arlegatasun etaugarria ixtaldia ;
Agertzeko egingo neuken ulu larria.
Naiz da bere biziko urratu eztarria.
Iñoz eldu ez arren arañoz jurturia.
Infernuan entzungo leuskide garrasia :
Etsi, ta dei egiñaz ango lagungarria,
Madarikatu danen dalako ertegia.

¡O! errakuntza baltz ta marrutsu guzurtia!
I azalako izan nire artezkaria,
Izan batxakit bere engañoetan zolia,
Ez akit baña, izan aurrera mingarria :
Onelan euki бага edaten lotsaria,
Arpegia dodala txingarra duiñ gorria.
Ezpata orregaz kendu eidak arren bizia;
Ebagidak oraintxe arren bere aria,
Arren, emoidak laster niri urkamendia,
Arren, izan dakidan lotsen amaigarria:
Arren, emoidak gero berpertatik obia.
Arako leza sakon illun izugarria,
Goi-goitik izan nadin arañoxe jausia ;

Artu dagidan duiñ ta jagotadan saria.
 Artu dagidan antxe neure irabazia,
 Zori gaiztoko ordaiñ beti iraungarria;
 ¡O! ¡o! ¡o! benetako, benetan lazeria!
 Iñoz bere amatau ezin dun sugoria !!!

II

(Udagoiena)

Cure Udabarria, ordua eldutean.
 Ill zan da aspaldian umil datza lurpean.
 Eriotzeak eban ondatu sabelean.
 Biztuko ete jaku negua joatean?
 Zelán itsu bat nazan ni etorkizunean
 Ondoen egingo dot ixillik egotean.

Baña Udagoiena ¡gorik gallurrean,
 Daukagulako oraiñ zerbait esan-gurean.
 Entzun daiogun: zoli adi egon gaitean.
 Ea gaur zer diñoskun bere berba-saillean:

«Gizonak, gaur zagoze danok neure mendean;
 Ezpanaz ederrena bere ni gorputzean,
 Alan pitxirik ez dot ipinten paparrean.
 Ez-ta lorategirik bere buru gañean.
 Zurtasuna ez dago politik jantzitean,
 Bakotxa jagokanaz ezpada ibiltean;
 Ikusi nire berbok zentzundun badirean,
 Edo txoriburutxo direanen antzean.

Ni naz errukiorra guztientzat lurean,
 Nigaz ez dago ezik jente meien artean.
 Udabarrian asko goseak artutean,
 Eztaroz ill gitxi batean da bestean;
 Lorak ez dabe poztzen zer jan bako danean,
 Ezta berba ederrak esan aren aurrean.
 Ezta arrokeriak onik egin etxean
 Eta bai etxeakoak ondatu geyenean.

Baña, gaur ¿ez eukirik al da iñorenean?
 ¿Eskekoak ez dabiltz pozik euren lorrean?
 ¿Jatekoa ez dauke non-nai ate jotean.
 ¿Apturtxo bat nekatu nai badabe miñean,

Eskatuten bakarrik Jaunaren izenean?
 Zeinbat etxetan barriz egarri diranean,
 Uste бага ur ordez sagardaua artzean,
 i Arek bai, diñoela egia dan bestean!
 ;Ze ederto gabiltzan gu Udagoienean!

Nekez bizi diranak ori diñoenean
 ;/. esan lei artzañak dirutzaz asetzean?
 Negurako gaztaiak nai legez saldutean,
 Gizen eta galantak ardiak ikustean?
 Gañera laboreak ugari batutean,
 Gari, arto, gaztaña guraiña pillatzean,
 Ainbeste ondasunez nasai aurkitutean,
 Ai! ak joten dabela, ardiak larratzean,
 Txilibitu pozik mendira igotean!
 Ai! ak bai ujuju edo zantzo bat botatean,
 Diño: «nik atsegiña darabilt biotzean,
 Udagoien prestua jaristen dodanean».

¿Zer ikusten da bere orain langillenean
 Sibitu-sibituan biziakaz kalean?
 Iñozko merkeena zer jana zuzentzean,
 Arlorik alogerak zapatu illuntzean,
 Dira guztiz gitxigaz zor danak kendutean,
 Enparetan jakenaz pozik biamonean.
 ¿Eztabilitzaz glorian domeka egunean,
 Arturik botariko izerdiak astean,
 Zurrustxo bat geiago edanik afaitean.
 Lo bere ez oi dabe ondo jai-gabeen?
 Erregeak ez deusku jauregi galantean,
 Ainbestean egiten, bizi arren kortean.

Orain entzun azkenez, zer esan nai neukean,
 Egunik ederrenak ni nausi nazancan,
 Esne-esnetan zelan iragoten direan:
 ¿Edozeiñek ez daki aberatsarenean
 Itxasora errekak batzen diran legean.
 Burdikada gariak ez dira arenean?

Eta ¡o! zeinbat maizter zorroak ustutean,
 Bazkari luze on bat ugazabaz jatean,
 Piperturik geyenak arpegi azalean,
 Urteten dira loka gaba urreratzean!

Ze bertsoxoak bere etxera urreratzean,
Botaten dituezan tandan nozik-nozean;
Zelan bazkaldu daben ugazabaz nastean.
Zelan pianos jo semeak bitartean
Eutsen gitxienetik orduterdi batean;
Zelan kopla guztiak arira amaitzean,
Arek kantetan eban berbal-ots leun leunean:
«Erdu, Udagoiena, sarritxotan urtean,
Erdu, zu lakorik bat ez da sartzen gurean,
Erdu, erdu, maitea, erdu zorionean,
Erdu ondasunokaz esku biok betean;
Zuk utsik laztan gozuz, zuk erruki lurrean,
Zuk zainduten gaituzu, Jaungoikoak ostein:
Agaitik goratuko zu zaitugu goizean,
Agaitik alabauko baita bere gabean,
Baita oraintxe legez nai noz arratsaldean,
Zerren zu ezpaziña ill bearko geunkean...
¿Udabarri arroa zer da onen aldean?
Ill bazan, ez dedilla biztu aurrerantzean...

Orain, ¿nor azartuko jat jarriten aurrean?
¿Edo nai baldin badau bardin aldamenean?
¿Ete dan ni duiñ andi ikusteko ustein?
Ni aña dala barriz badago siñistean,
Besten bat bizi bada gaur mundu zabalean,
Bildur eta lotsea itxirik bazterrean,
Dei egitera noa ao bete betean.

Betor Udabarria, berak nai dabenean.
Al izate guztia arturik bizkarrean,
Ikusi dedin laster nire sorburupean;
Betor eta burua ur otsaz erretean,
Lotsari eskerga ta andi bat artutean,
Bizi dedin aurrera bai apaltasunean,
Uste bagarik nausi dala goian ta bean.

Bakit, ariña dala buru cta oiñean,
Eztazauz arek gauzak nik dodazan aiñean.
¡Ai! ezpalitza illgo aiñ era galantean!
Aiñ samur, aiñ guri ta zoro eta gaztean,
Ezagutuko leuke dana emen lurrean.
Igaro joakula begi-itxi batean :

Eta zetan arrotu ez dala biotzean,
 Izan arren ederra beste danen aldean ;
 Doialako guztia keia legez aidean,
 Edo lurreraturik guztiok azkenean,
 Eder ta ezañak usteldurik nastean,
 Ez dirala ezautzen eder zeintzuk zirean.

Aor nire gogamenak esaldi laburrean,
 Adietan emonik jardun бага luzean;
 Orain eskua nai-nok jarririk bularrean,
 Asmetan nekaturik burua puskatean,
 Esan daike bakotxak nai badau ondorean,
 Udabarria ta ni zurrago zein garean.»

ARRATIAR SOLDADU BATEN KUBA'KO AMESA

Egun danetan oi dan legetxe
 Illunkerea zan eldu,
 Ta eguzkia mendi ostean
 Egin zan atzo estaldu;
 Mantu loratsu urdin bat gabak
 Eban zeruan zabaldu,
 Gure tronpetak erretrete
 Jo ta zirean ixilldu.

Milla soldadu gitxienetik
 Gengozan zelai batean,
 Oso nekauta asazkau nairik
 Danok etzunda lurrean;
 Batzuk bildurrez areriorik
 Ete ebillan urrean,
 Arri bat legez ni barriz lotan
 Nengoan bedar artean.

Gorputza loak loturik neukan,
 Burua bear egiten;
 Makaztui'n neure etxean uste
 Neban nintzala aurkitzen;
 Uste neban nik lengo ardiak

Bancbillala zainduten,
Soñu joteko marmidak barriz
Tanbor eustala serbitzen.

Uste neban nik nekutsazala
Lengo atx eta mendiak.
Eta poztuten nintzan gizenfk
Ikusitean ardiak.
Alegeretzen ninduen oso
Irrintza baten burdiak.
Ebiltzalako gora ta bera
Tratan zoli guztiak.

Uda-goyena zan ta geunkazan
Galantak arto-soloak,
Eurai begira aita ta ama
Egozan kokolotuak;
Ni etortea gerratik euken
Loteriatzat gaixoak.
¡O! baña laster amesa bota
Eragin eustan sustoak.

Esne-esnetan neragoiola
Alako ames dontsuan,
Dianearen soñu garratza
Sarturik biotz barruan,
Damuz gomutau eragin eustan
Kuba'n ni zelan nengoan,
Eta ez gure ardiak zaintzen
Altun'go larra gozoan.

GIZONAREN ZORIGATXA

(Saritua izan zan Bera~n, 1880.an)

Arroztuta gaur dago lurrian gizona,
Narraz billau ezinda bere zoriona;
Adanek, Jaungoikuak emonik eukana,
Erraz eta bertatik ak galdu ebana,
Au ez da esana, egiaz izana,
¡ Ai ezbalitz ala !
Ipuiñ kontagarri bat besterik ezpada.

Gizonak jayotzalik obira artian,
 Gauza baten damua dakar biotzian :
 Jatorriz argitzia emen lazerian,
 Zoriontasun utsez jayo biarrian,
 Agaitik lurrian dabill au lanian,

Arrastaka artian,
 Poz oso baten billa bizitza guztian.
 Amaren sabeletik ozta da agertzen,
 Negar eta garrasiz bertati da asten,
 Zer zorigatx dakarren ezautu ez arren:
 Baña aren señaliak laster dauz emoten,
 Baldin bada azten, ta aguratuten,

Beti uts ikusten,
 Biotzian zulo bat ez dana betetzen.
 ¡ O biotzaren zulo ezin dana itxi!
 ¡O! atsegiñ ez dana sekula jadtixi,
 Galdu zanik geiago ez da, ez ikusi;
 Alperrik orren billa burua asko ausi,
 Naiz juan urruti, itxasoz ibilli,

Jira munduari,
 Urten zanian legez zulodun etorri.
 Gizon baten gatx ori giz-arraza danak
 Jatorritik jatorri, daruaz negarrak,
 Sortalde, Egoa, Ipar, nai Sartaldetarrak ;
 Gaurko eguneko ta lenagoko zarrak.
 Izan zirianak, izango diranak.

Bizi garianak,
 Zoriondu bagarik duaz emen danak.
 Gizaldik gizaldira bidazti bat legez,
 Giza-arrazia dua aurrera juanez;
 Orain sei milla urte artu eban bidez,
 Makurtu da guztia, doialako oñez,
 Ogia jan nekez, gerretan bildurrez,

Bakerik iñoz ez,
 Geiso izurriakaz asko illten gatxez.

Atsedengarri oia dauka lur zorua,
 Begiakaz bakarrik ikusten zerua :
 Dirudi alan Job bat. zar ta aguratua.

Irurogei gizaldiz sarnaz estaldua,
 Dana gaixotua ete zauritua,
 Zikiñ atsitua,
 Satstegian etziñik errukarritua.

Ez dago Jauregi ta ezta txabolarik,
 Ez uri eder eta ezta baserririk,
 Nun iñoz entzun ez dan negar kurriskarik;
 Bazter guztietara dago zabaldurik,
 Añ barru sarturik, erruak botarik,
 Susterrak arturik,
 Zokorik gordienak daukaz billaturik.

¿Ez al zenduan egin, ene Jaungoikua,
 Gizona zure antz ta bai irudikua?
 Bakarrik berau baño obia Aingerua,
 Beste guztla egin zeuntsan beeragua,
 Eta mendekua, zelan zerukua.

 Alan lurrekua,
 Emonik jarlekutzat mundu bat osua.

Eguzkia emon zeuntsan argi egiteko,
 Illargi ta izarrak gabez poztuteko,
 Aixegozo bigunak atseginduteko,
 Negua ta udia ez gogaituteko,
 Sua berotzeko, ura edateko,

 Ogia jateko,
 Abere ta pistiak bera serbitzeko.

Lotan egoanian gorde Eeuzkia,
 Zeru urdiña loraz goigoitik begira,
 Pistia okerra bere bakian guztia,
 Beste ainbesle txori eta egaztia,
 Auntza naiz ardia, bior ta zaldia,

 Beya zeñ idia,
 Iralzarriz ezedin euren nagusia.

Baila bere emon jakon arima argitsua,
 Gomuta, borondate ta adimentua,
 Burura koroia Ia eskura zetruea,
 Purpuraz egindako Errege mantua,
 Doe apaindua ta bedeinkatua,

Zan ikustekua,
 Bigarre bazan legez berau jaungoikua.
 Ortu zoragarrian atsegiñ artian,
 Gozotasun osuan bizi zeitekian,
 Usain eztitsuetan atsedean gabian
 Zoriontasun danak eukazan aldian,
 Nausia zan lurrian, anditasunian,
 Zein eskubidian,
 Nai eban arbolatik noz nai jan eukian.

Jaunak adierazo eutsan ari baña
 Arbola batekua jan ez egiala,
 Onik ak ez ebalá gaiztoak ezpada;
 Alan gorde zedilla ill ezedin bada,
 Zergaitik bestela, galduko oso zala,

 Alanbere baña,
 Nai fa ez orretara biartzen etzala.

Orru bada gizona zein gora jasua,
 Oinpean eukalako mundu bat osua;
 Jateko nai zer fruta, gañera eskua,
 Abere guztietan barriz agindua,
 Naiz izan gaiztua, zein otzan mantsua.

 Edo zelakua,
 Ugazabatzat bera zan ezagutua.

Andia zan benetan bere Jauntasuna.
 Alan arrotu Adan doe askoduna;
 Agaitik egin eban oker aiñ astuna,
 Zeiñen arraza txarra gaur bero ezagun da,
 Jaunaren esana, ustzat bota dana,

 Eta fruta txarra,
 Ona bazan legetxe jan bildurrik baga.

¡O! aokada gaizto madarikatua,
 ¡O! Adan gure Aita zorigaldukoa,
 ¿Nun dozu bada oraiñ jantzi urreztua?
 ¿Nun dozu arua ta nun dozu zetrua?
 Zakustaz gaixua, oso billostu»,

 Eta mutilldua,
 Ortu zoragarritik bere arroztua.

Lorategi au gero baso zan biurtu,
 Pistia len otzana kontra amorratu,
 Jaungoikua zeruan barriz aserratu,
 Bertatik Adan eban ak madarikatu;
 Lurra zan dollortu, zer jana ukatu,
 Alperrik nekatu,
 Asko ereiñagaitik, puzkat nekez artu.

JAUNGOIKOAREN PROBIDENTZTA

(Saritua izan zan 1883.an Markina-n)

«Gaizki dabilena
 Gaizki amaitzen da.
 Ondo bizi dana,
 Ondo ill.»
(Esaera zarra)

Mayatzak oraindiño
 Eguntxo bat eukan,
 Erretxiñolak pozik
 Kantetan erautsan ;
 Lorak egozan arro
 Zelai ta landetan,
 Soñera barriakaz
 Lurra agiri zan;
 Iturritxoetan
 Ura murmurketan;
 Ibai garbietan
 Zeruak barriz ziran
 Biziro pintetan.

Arpegia añ argi
 Eukan eguzkiak,
 Begiratuteko duin
 Etziran begiak,
 Artuko eutsezala
 Inguru guztiak,
 Inok ez eban uste
 Añ laster odehyak ;
 Baña pillá andiak.

Baltz eta zuriak.
 Añ izugarriak,
 Laster burrukarako
 Zirean jagiak.

Peru agura zarra,
 Pobretxo jantzirik.
 Edur gisan burua
 Oso zuriturík,
 Ezin ebala bota
 Oiñkada ariñik,
 Egolako urtez
 Guztiz astundurik,
 Urbiña'n urtenik,
 Goizean goizetik.
 Bizi zan etxetik.
 Arantzazu'ra doa
 Promesa egiñik.

Eguzkia gorde zau
 Alako batean ;
 Estalgi baltza jakon
 Jazarri aurrean.
 Peruk zelan ez eukan

Etixerik urrean,
Mendian aurkitzen zan
Igo bearrean,
Sasoi ederrean,
Larogei urtean
Bizita lurean,
Elgea'n goruntz doa
Baña aldatsean.

Trumoia asiten da
Burruka soñuan.
Tximista bat jausten da
Peru'ren onduan ;
Aretx bat birrintzen dau
Sarturik barruan,
Gizona larriturik
Jausten da zoroan :
Añ une gaiztuan
Eta txit estuan,
Al eban moduan,
Birjiña Arantzazu'ko
Deitzen dau beinguan.

Elorri batera zan
Nekez urreratu,
Bere anparupean
Jarrita geratu;
Arria zan bertatik
Goitik abiatu,
Orri cta erramak
Ugari apurtu,
Aizeak azkatu,
Euren putzak txistu,
Odeiak urratu,
Errekak euriagaz
Bertatik gañeztu.

Batetik zarra ela
Bestetik gustua.
Errukarri egoan
Peru gizajua.
Egun artan baraurik

Tripea ustua.
Komulgetako ustez
Garbirik barrua,
Berorik burua.
Leorrik aua,
Gorputza oztua.
Promesa betetako
Baña piñ gogua.

Zaldun bat agertzen da
Goyea atertzean
Gordin osagillea
Zana Barrundian.
Peru gizajoaren
Tokira jastean,
Nai nok esango leuke
Alan ikustean,
Añ taju tristeanean.
Bakartasunean,
Leku urriñean,
Lagunduko eutsala
Al eban añean.

Euria ebalako
Barriz abiatu.
Zalditik an jatsirik
Gordin zan geratu :
Baña eskurik onek
Ez eutsan luzatu,
Ezta begi onakaz
Bere begiratu,
Añ gitxi lagundu,
ikusirik estu :
Noz eban atertu,
Agurrik egin бага
Gordin zan aldendu.

Zaldira zelan igo
Munatxo batetik.
Asten jako lau oñau
Arinka bertatik;
Gordiñ'ek bridai sendo

Tiratuagaitik,
 Aberea gelditzen
 Etzan orregaitik;
 Doa arri artetik,
 Naiz sastraketatik,
 Zeñ bide ertzetik,
 Bota arte nausia
 Lurrera gañetik.

Entzuten da bertatik
 Dei bat añ estua:
 «¡Neure gogortasunen
 Au dot kastigua!»
 Arritzen da onegaz
 Peru gizajua ;
 Karidadez bizturik
 Ikustera dua,
 Txit errukitua,
 Oso samurtua,
Gordin arrizkua
 Troka baten jausirik
 Dakus zelaitua.

Berak gura ebana
 Egiñ ebanean,
 Tximista legez iges
 Zaldia bajoian;
 Egon arren añ makal
 Peru gorputzean,
 Laguntzeko usteaz
 Al eban añean,
 Erripa añ txarrean
 Leku labanean,
 Arrisku artean,
 Pozik aurkituten zan
 Beeratu zanean.

Baña *Gordin* egoan
 Lekura eldurik,
 Dakus au pultsu eta
 Arnasa bagarik:
 Burua arri ertzak

Erdi bi egiñik
 Azkenetan dagola
 Oso sinisturik,
 Txito samurturik,
 Belaunikoturik,
 Jaunari gogotik,
 Erregututen deutsa
 Arimeagaitik.

Erregu txit luze bat
 Egin ebanean,
 Oitura dan legetxe
 Kristiñau legean,
 Illa bertan larga ta
 Aldats garratzean,
 Igo ezinik dabil
 Atx mutur artean,
 Eta goi aldean,
 Begiratutean,
 Txakurraz nastean,
Bigun eizaria dau
 Ikusten bidean.

«¡ O ! ¡ *Bigun* eizaria !»
 Eutsan laster deitu.
 Zurturik ots onegaz
 Egin zan geratu;
 Peru nozbailen jakon
 Nekez urreratu.
 Puskaten atsedan ta
 Berbaz abiatu,
 Zearo autortu,
 Zer zan an gertatu.
 Damua agertu,
 Gizon bat añ dongaro
 Zalako amaitu.

Bigun'ek eutsan dana
 Entzun arduriaz,
 Errukitutzen zala
 Osalari illaz;
 Eta mirariturik

Peru'ren fediaz,	Peru, ondo probau ;
Bujakan erabillan	Bere Probidentzia
Jateko gauziaz,	Egizu alabau,
Ardao ta ogiaz,	Berak oi gaitu bada
Gaztai ta aragiaz,	Guztiok gobernau;
Al eban guztiaz,	Beragaitik dirau,
Indartu eban Peru	Ta dabil mundu au,
Galdua gosiaz.	Berak ekarri nau,

Azkenez esan eutsan: Estutasun onetan
 «Jaunak nai izan dau, Zaidazan anparau.»
 Gaur zure birtutea,

EUSKELDUN BATEN GOGORAZIÑUAK

*(Zeruko egi ta argiaren arerioa da inpernuko illunpe
 guzurria)*

Argia ta illuna iñoz bat ez dira,
 Adiskide bein bere ez, gaba ta eguna;
 Egiak arerio beti dau guzurra,
 Ta sekula anaya onak ez dau txarra,
 Zuzenak okerra, otzanak mukerra,
 Sotillak zantarra,
 Justuak kontra beti gaizkille zitala.

Alan gabak nai leuke eguna azpiratu,
 On ta argi zaliak danak illunpetu,
 Txarrerako gaiztuai lotsa ona kendu,
 Agaitik Eguzkia oi da aserratu,
 Errañuz agertu, su ta gar jarraitu,
 Tximistak tiratu,
 Illun baltza betiko albalei amaitu.

Argitzen dauz gizon on gabak itsutuak,
 Illunak gordetako nai leukez zokuak,
 Eguzkiak begiztau ezin bestekuak ;
 ¿Baña nun topau leikez orren ezkutuak?
 ¡Ai! baña gaiztuak daukez billatuak,
 Eta gertutuak,
 Lendanaz lurprietan nun egon-lekuak.

Eguzkiak artzea dau zeruaren goya
Ikuste arren ondo zorua guztia;
Baña gaba lurpian dago estalia,
Ezarri ez dagion ak goitik begia;
Dau ardura andia, ikara larria,

Bildur ez txikia,
Galduko ete daben betiko auzia.

Eta asiagaz bat eguna beerantza,
Nasaituten duako gabari biotza,
Ikusten dabelako zabaltzen keriza,
Zeñek emoten daben illunaren antza,
Au dalako motza, motel eta otza,

Gabaren laguntza,
Norentzat pozgarri dan beti gauza baltza.

Begietatik zelan jua Eguzkia,
Alan kerizpetuten da lurra guztia ;
Illunak zabaltzen dau laster arpegia,
Balitz legetxe berau garaitzalaria,
Errege andia, Munduko nausia,

Ta agintaria,
Artu daioen danak obedientzia.

«Eguzkia jua dok, alde egin egunak,
«Goyan an gure izar begi txikidunak,
»Gañera illargiak zabal errañuak,
»Orrexek dituk argi guretzat naukuak,
Eukazan kantuak ta ulu senduak,

Baten mosoluak,
Gabaz betete arren gurari gaiztuak.
Gabari eldu jakok nai eban eria,
Egunagaz batian jua dok lotsia,
Argiak baño onek jakak lege obia,
¿Zertarako juagu asaben fedia?
¿Ta kristandadia, eta Eleizia,

Ta bere legia?
Guk biar doguna dok gaur libertadia.»

Bildur ziran abere ta egazi onak,
Txistuka gautxori, ta saguzar zantarrak,
Otso ta aizeriak barrezko algarak,

Ipurtargiak uste zirala izarrak ;
 Ango diadarrak: «biba gu gautarrak!
 Gu gaituk azkarrak,
 Mundu barrian orain zoliak bakarrak.»

Ollarra ots orreekaz laster iratzarri,
 Lotan beguan legez entzun dana ak zoli;
 Arbola adar baten eguan au geldi,
 Eta zelan amaitu sermoia ontzari,
 Ixillik bertati, diñotso olluari,

Utxo eukanari,
 Zoratu jakola uste dot mosoluari.

¿Zer uste al dau gabak edertuta antza?
 Eraango deutsalala egunari baza?
 Illargi ta izarren argia da otza,
 Ipurtargia barriz ar txiki ta baltza...
 F.zain eta utsa; cla barriz ontza,

Argitan da lotsa,
 Illunpetan bakarrik dauka ak biotza.

Noz ebiltzan guztiak jolas onenetan,
 ¡Biba, gure eguna dau ollarrak kantetan;
 Argia datorrela onek dau sometan,
 Bildurra sartu eutsen txarra biotzetan,
 Zer izango ete zan egunez euretan,

Jarririk argitan,
 Gordetan ez baziran laster zokuetan?

Urten san andik laster goizeko izarra,
 Onek jarri zituzan izu ta ikara,
 Iruntsirik eguna oso ill etzala,
 Eska eutsen ontzari uste bat on zana,
 Esau egiala, berak eritxana,

Zeñek beriala,
 Esaten deutse danai gorde zeitezala.

«Otsua basuan, i koban, aizeria,
 Zuluetan saguzar ta i, gautxoria,
 Sasipeian ezkutau adi, ipurtargia,
 Ta nik eleiz-kamaran bajuat tokia.
 Or nire eretxia ta erabagia,

Ustez egokia,
 Itxaron eldu arte era on barria.»

Illuna bakar triste itxi eben danak,
Orduan ¡ai! zer pozik ollo ta ollarrak!
Ixildu ziralako aizeri algarak,
Kukurrukuka sendo ango diadarrak.
Buruak zuzenak eregita danak.

Ta arro gangarrak,
Ixillik zokuetan gorderik gautarrak.

Gabak legez guzurak artuta egiantza,
¿Zenbat eruan oi dauz bere alderantza?
Egiten diriala milla oker gauza,
Galdurik arima ta askotan gorputza.
¡Ai, zer zorigatxaga! Illun guzur utsa

Da askoren poza,
Txar mueta guztiak ori dabe maita.

Gutziz antxiña onek asi eban gerra,
Zeruan baña laster bota eben beera;
Infernutik bere au igo zan lurrera,
Gizonak eukan ona ziero galtzera,
Illunpetutera bere biziera,

Argi ta ain ederra,
Zorioneko toki lur au zan bestela.

¡O errakuntza baltza ! gizonak laztandu,
Munduak egi ontzat sarritan dau artu,
Nok zeruko argia nai daben lañotu,
Lurretik albaleike baita desagertu;
Baña alper nekatu, utsian sayatu,

Ezingo dau goitu,
Zeruko Eguzkia gaur dago indartsu.

Argi ta egia da gure Jaungoikoa,
Kristiñau-Eguzkia Ebanjelioa;
Bere zale ez dana gau-batzarrekua,
Mosolo ta lagunen bandarpekua,
Bardin judegua, ainbat paganua,

Maometanua,
Protestantia zeinda masoi artekua.

Zergaitik bizi diran oneek illunpian,
Zeruko argiari sendo gerragiñan ;
Alperrik baña dabiltz, ez dabe lurrian

Jaditxiko garaitzau, eta azkenian,
 Lotsa gogorrian, etsayok azpian,
 Eleiza gañian.
 Ikusteko ustia daukat biotzian.

ITSUTASUNA

Itsu dago gizona
 Ainbat bider lurrean
 Amesak gerorako
 Eiten dabillenean,
 Zergaitik bere ames
 Ta asmoak geyenean
 Zearretara urten
 Egiten dabenean,
 Diño: «Nire begiak
 Naikoa etzirean
 Ikusteko ekarrena
 Gerokoak bidean»,
 Bear zan sasoia ta
 Ordua eldutean

Itsu dago gizona
 Siñistzen dabenean
 Lagun on bat daukala
 Bere aldamenean ;
 Baña saldu egiten
 Ak badau onenean,
 Lotsatuta itxirik
 Agirian kalean ;
 Laguntasuna uste
 Eban ordu berean,
 Deslai eta billoxik
 Aurkietan danean,
 Orduantxe ak dakus
 Aldia joatean,
 Itsu aurkitzen zala
 Lagun aren gañera,
 Laztanaren ostetik
 Burla bat artutean.

Itsu dago gizona
 Bere zorigatxean,
 Lanen bat egiteko
 Artu oi dabenean,
 Irabazteko ustez
 Ta gero galdutean,
 Zorrai erantzun ezin
 Da eten agiñean :
 Dakus jarri zalako
 Arri laun labanean,
 Oiñgarri segurutzat
 Eukirik siñistean ;
 Len goyan egoana
 Jausita ikustean,
 Diño: «Itsu nengoan
 Lurrean aurkitzean.»

Itsu dago gizona
 Illuntoki batean,
 Bestela ¿zer egiten
 Dau askok ezkontzean?
 Batzandu oi da beti
 Usterik onenean,
 Ondo izatekotzat
 Alkarregaz lurrean
 Alantxe lotzen dira
 Mutill-neskak katean ;
 Ta sarritan amesak
 Dongaro urtetean,
 Ikusiten ditugu
 Biziera txarrean,
 Katea aiñ astuna
 Eroan eziñean ;

Infernu txiki baten
Beti euren etxean,
Bizi direalako
Gerran da ez bakean,
Ezkondute aurretik
Zergaitik etzirean
Ikusten ze jenio
Dunak garbi zirean ;
Bata bestien kejak
Gero agertutean,
Diño: «Ondo itsu
Aurkituten giñean,
Zorotan egin eta
Zintzo gagozanean;
Orain aurkitzen gara
Pagau ein bearrean.»

Itsu dago gizona
Uste eztabenean,
Baña, alantxe dago

Alan dagoenean;
Diarduela lotan
Naiz zoli egotean,
Amesak txarto urten
Egiten dautsanean;
Bakarrik Jaungoikoak
Dana dakus aurrean,
Eta gizona dago
Itsurik geyenean,
Etorteko dagozan
Gertaeren gañeran;
Aberatsa illten da
Pobrezan onenean,
Eta pobrea iñoz
Ondasunen artean.
Dnnok dakigu jayo
Non eta noz giñean,
Baña ez. non da zelan
Amaituko garean.

ARDO-ZALE BATEK BERE ESKUKO BASO ARDOARI

Munduan det gauza bat
Gutziz pozgarria
Norbaitek esango du
Dala urre gorria,
Baña beste batek du
Neretzat grazia;
¿Zer ote da orren gauza
Aiñ maitagarria?

Ez zillar, ez urre ta
Ez díamantiak,
Ez dira ui pozteko
Oso egokiak;
Ardo gabe ez dira
Oyen bertuteak
Biotzetik kentzeko
Eni naigabeak.

Baña ardo naikoa
 Badct sabelean,
 Penok botako ditut
 Aide gogorrean ;
 Alegre izango naiz
 Goiz ta arratsaldean,
 Lo berriz egingo det
 Aukeran gaubean.

Atoz, matsaren zumo.
 Noen edaria;
 Gizon ark utzi zigun
 Oroipengarria :
 Mundua mundu arle
 Bere memoria
 Idukitzeko badu
 Ongi irabazia.

Zarren bizitza zera,
 Gazteen indarra,
 Munduan danak degu
 Zerorren bearra;
 Biba ! biba ! ardoa,
 Klaret zeñ naparra;
 Auxe da neretzako
 Pozgarri bakarra.

Fruta danen artean.
 Zu aukeratua
 Zera meza emateko,
 Ta an konsagratua;
 Etzaitez, arrea galdu,
 Bestela mundua
 Sentimentuz litzake
 Bertatik galdua.

Ardoak. - Enaiz iñoiz galduko,
 Gizonak, munduan;
 Jaunak zuen pozgarri
 Ni egin ninduan;
 Barrungo illuntasun
 Ta tristura orduan,

Atozte poz artzera
Nigana beinguan.

Basoan naukazun au,
Orain dezun miña
Kentzeko antziñatik
Nagotzu egiña;
Etzaitez ez beldurtu,
Dezu gaitz jakiña,
Nazu tristen poz ta
Gaitzen atsegiña.

Emen naukazu, bada,
Mamatxo goxoa,
Oraiñ benetan triste.
Gañera gaixoa.

Giz.—Jasoko det aora
Ta itzuli basua.
Sabelean daukazu,
¡ Klin ! zure lekua.

FEDEAREN ARERIO BAT

Bolnei, eskribitzalla asmo txarrekoa
Zalako, benetan zan zorigaldukoa;
Beste batzukaz naste joiala ontzian,
Ekatz eskerga betek arturik azpian,
Eta zelan andra bat eurakaz batean
Joian, eta arrisku txarra ikustean,
Beingoan aterata errosarioak,
Errezetan asi zan host misterioak ;
Eta eskribitzalla gaiztoak orduan,
Bildur ta ikarea somaurik barruan,
Andra ari kendurik errosarioak,
Eta oi daben legez gizon fedetsuak,
Belauniko jarririk bera errezetan, .
Ontziko jente danen aurrean asi zan;
Eta ekatzak alde, itxasoa geldi
Jarri zanean laster, lagun batek ari
Esan eutsan: —¿Zelan zan zuk errezetea

Guzurtzat beti euki badozu fedea?
 ¿Zergaitik bada andra mamala aren gisan,
 Bolnei, gaur erregutu egin dozu izan?

—Adiskidea, ez da bardin itxasuan
 Aurkitzea bat zein da leor seguruan;
 Ni izan arren gauza bat gabinetean,
 Uretan ondatzea uste nebanean,
 Trumoia burrundaraz, tximistaka goitik,
 Olatuak adarka ontziari betik;
 Itxasoak zabalik eukala agua,
 Nok eukan irunsteke danok amorrua,
 Au ikustean, ¿nori etxakon bildurra
 Sartuko ikareaz batera barrura?
 ¿Zeñek laguntasuna ez deitu zerura
 Egoanean urrin guregandik lurra?
 Orduan siñistzera da bat beartuten,
 Badala Jaungoikoa baita autortuten.

GANBOA TA OÑEZ

(*Saritua izan zan Arantzazu-n 1886.an*)

ERRODRIGOK, BIKJINA ARANTZAZUKOK, ETA
 ERRODRIGOREN AITAK

ERRODRIGOK	Gutzizko luzaroan
Lengo aldian bati	Euskeldun erriak
Entzun neutsan, aita.	Daroazan zorigatx
Etxe asko erre ta	Damu, ta negarrak,
Zituela bota;	Gerrak daukezalako
Batalla andiren bat	Ondorengo txarrak.
O r Bizkaialdean.	Gizaldierdi bat da
D iño. izan zala	Erdibituzala
Askoren kaltean.	Ulibarrian euskeldun
	Erri on au ala.
	Banda bat da <i>Ganboa</i>
AITAK	Ots egiñikoa,
Errodrigo maitea.	<i>Onez</i> deitzen dabena
Aiñ dira andiak	Beste aldekoa.

Arrezkero dabilta?
 Beti emen gerran;
 Ez dakit noz jakuzan
 Jarriko bakean.
 Amaika etxe dabe
 Bitzuak ondatu,
 Laboreak ugari
 Erre ta kiskaldu.
 Beste guraso askok
 Euren bizitzea
 Galduta itxi dabe,
 Ume zuriz etxea.
 Gu emen atx arteetan
 Bizi gara ondo,
 ¡Orrelako negarrik
 Eldu ez dalako!

ERRODRIGOK

Aita, kantau oi dabez
 Batzuk ta besteak
 Euren aldeko garaitz
 Gloriaz beteak.
 Baña, nik kantetan dot
 Alonan bakea,
 Bertan irago gura
 Neuke denporea.
 Ene artaldeari
 Jaramonik ondo.
 Ene txabolatxoan
 Gabez eginda lo.
 Taloa ta esnea
 Jan arren bakarrik.
 Besterik бага bizi
 Naz pozez beterik.
 Ez alda etorriko
 Araño gerrea,
 Ondatu ez daiguen
 Gure artaldea.
 Zerren gerra zaleen

Tronpetaren otu,
 Nire txistuagazko
 Oso da garratza.
 Nire aõnuak poztu
 Oi dauz arditxoak,
 Gerrarien tronpetak
 Larritzen gaixoak.
 Aita, banoa, bada,
 Orain eurakgana,
 Zergaitik zaiñ bagarik
 Egin daben gaba.
 Badakizu nintzala
 Bart Baltategira
 Etorri talogeitzat
 Urunaren billa:
 Eta gaur Domekea
 Zalako gañera,
 Jazteko entzutera
 Mezea kalera.

Bestelan Aloñan nik
 Nai dot bada bizi.
 Kalerik ez dot gura
 Al dala ikusi.
 Antxe daukadalako
 Naikoa pozgarri.
 Landa zabal berdeak
 Naitean jazarri:
 Kerizpeak aukeran
 Ditudaz topetan.
 Urak zelakoak nai
 Iturritxoetan.
 Txirritxirrien soñu.
 Txorien txistuak,
 Orreek dira entzuten
 Ditudan kantuak.
 Txabolako atean
 Jarririk gabetan.
 Ikusgarri ederrak
 Ditut zeruetan.

Illargiari beti
 Deutsat jaramoten,
 Egunik egunera
 Ze alde dakarren,
 Baita izar batzuri
 Oi deutsct igarri,
 Nundik, nora ta zelan,
 Oi diran ibilli;
 Eta adoraturik
 Euren Egillea,
 Zein dan gure Jaungoiko,
 Neurrik bagea.
 Beragan neure uste
 Dana ipiñirik,
 Neure kamañatxoan
 Jarten naz etzunik.
 Agur, aita maitea,
 Domekara artean,
 Ez al dozu izango
 Okerrik astean.

AITAK

Zorionekoa da
 Gizona munduan,
 Bizi bada asabak
 Zirean moduan;
 Euren lurak landuaz
 Euren baserrian,
 Euren oitura zar ta
 Siniste garbian;
 Munduko andikien
 Egarri bagarik,
 Iguiñ бага etxeak
 Dakarrena janik,
 Izan ez arren gauza
 Urian lakoak,
 Osasungeitzat, baña,
 Dira obagoak.
 Noberen artaldeai

Eginik jaramon,
 Gizendurik urtean
 Txarri edo zekor,
 Taloa ta esnea,
 Urdai ta aragia,
 Naikoa bada ez da
 Txarra baserria.
 Gañera laboreai
 Gagoz gu begira,
 Adurra darigula
 Ontxoak badira.
 EZ daukagu munduko
 Andien amesik,
 Abere ta lurrakaz
 Bizi gara pozik.
 Goixetan egiñagaz
 Geure erregua,
 Jaunari eskiñiaz
 Egun zabaldua.
 Berari opaturik
 Geure neke lanak.
 Gaberaño izaten
 Ditugun dan danak.
 Errosanotxoa
 Gabean gabean
 Errezaurik uts бага
 Apari ostean.
 Etzatera goaz gu
 Biotz zabalagaz.
 Eguna ondo juan'
 Jakun usteagaz.
 Alantxe bizi gara,
 Ene semetxoa:
 Jaunari zor deuntsagu
 Eskerra naikoa.
 Izan zaite, bai, izan
 Baserri zalea,
 Maitetuten dozula
 Zeure txabolea;

Diñozun legez antxe
 Bizi zara ondo.
 Iñon bere elzara
 Obeto izango.
 Zoaz ordu onean,
 Domekan etorri.
 Lagunduko deusut nik
 Mezataraz zuri.

ERRODRIGOK

Jaungoikoak dizula.
 Ailatxo. egun on;
 Domekea baño len
 Ona. emen nator.

AITAK

¿Zetan zatoz, semea.
 Zapatua izanik.
 Orrelan arnasarik
 Bere artu eziñik?
 ¿Zer gertatuten jatzu.
 Ze barri dakazu?
 Atsedean puskat, eta
 Esan egidazu.
 ¿Agur zuk etzenduan
 Domekara arte?
 Biyar arte, semetxo.
 Etzindudan uste.

ERRODRIGOK

Etzaite ikaratu,
 Aitatxo maitea,
 Barri eder bat dakart,
 Zeruko gauzea.
 Jakin egizu, jakin
 Zelan gaur goixean
 Gezaltzatik aurrera
 Ardien atzean

Niñoiala, santa bat
 Billatu dodala.
 Ain eder, ain galanta,
 Ikusteko dana.
 Andra guztizko bat da
 Umeaz bestian,
 Jantzita Erregiña
 On baten tayuan.
 Arantz arbola baten
 Ain bakartokian,
 Errañua botiaz
 Dago agirian.
 Dala, diño, Artzaiña
 Ama Erregiña,
 Eta txabolatxo bat
 Dabela premiña.

AITAK

¿Zelan izan ete da
 Alan agertzea.
 Askorentzat izango
 Da gatx siñistea;
 Baña, zelan daukadan
 Nik sendo fedea,
 Jaunarentzat ez da gatx
 Nai zer egitea.

ERRODRIGOK

Aita, neuk bere eziu
 Eginda siñistu,
 Ikusi arren bere
 Dndan naz aurkitu;
 Mirarien bat zala
 Ziertu izango,
 Umill umill jarririk
 Azartu natxako,
 Berbaz al dan ondoen
 Egiñaz berari:

Baña, berak obeto
 Erantzun deust nire.
 Entzungo dozu laster,
 Zer erantzun deustan,
 Baña nik neuk lenengo
 Auxe deustat esan.

«¿Nor zara, o Andrea,
 Umeaz bestian?
 ¿Nundik sortu zatxakuz
 Emen eremuan?
 ¿Nundik agertu zara
 Orren miragarri,
 Erregiña andi hat
 Dozula irudi?
 Buruan koroia ta
 Purpuraz soiñean,
 Ezin asmaurik nago
 Nor ete zarean.
 ¿AI zara artzaiñen bat?
 Baña, nor zaintzeko,
 Ezpadozu ardirik
 Begiratuteko?
 Badazaut zareala
 Seme orren Ama,
 Arpegiz dozulako
 Berorren antz dana.
 ¿Eta noren Erregiñ
 Izan zindekez zu.
 Basoan nok ndorau
 Iñor ezpadozu?
 ¿Eta toki oberik
 Zuretzako etzan.
 Aukeratu bagarik
 Orrelan arantzan?»

BERAK ERANTZUN DEUST

«Iru gauza orreek naz,
 Errodrigo ona,

Ama, Erregiña, ti
 Gañera Artzaiña;
 Jaungoikoa da nire
 Seme ta Bildotsa ;
 Zeru eta lurrean
 Neuk daukat agintza.
 Orra zelan ni nazan
 Iru gauza orreek;
 Munduan ainbat doe
 Ez dauz beste batek.
 Umilla nintzalako,
 Jaunak nindun egin
 Gizon danentzat Ama.
 Artzain ta Erregiñ.
 Berak dauka emonik
 Niri ardurea
 Zuen guztioena
 Oso ta betea.
 Errodrigo. etzai te
 Alan ikaratu,
 Onezkero nor nazan
 Dozu ezagutu.»

CERO NEUK ESAN DEUSTAT

«Badazaut zareala
 Zeruko gauzen bat,
 Ikusiaz batera,
 Au gogoratu jat:
 Ez dodalako iñoz
 Aiñ andra ederrik
 Munduan ezagutu
 Gaur arteraño nik.
 Dirudizu Eguzki
 Goixetik jagia,
 Alegeretuteko
 Euskeldun Erria.
 Berau dagoalako
 Aspaldiko urteetan
 Gorrotoan sarturik

Gerra gaiztoetan;
Eta zelan dagoan
Artzen kastigua,
Deritxat errukitu
Jakola zerua.
Uste dot ; o Andrea !
Bien bitarteko,
Jainko eta gizonen,
Zareala izango.
Asarrez ez deusku, ak
Bialtzen euririk,
Agorrez bizi gara
Danok erdi illik;
Eta baldin bazara
Zu Jaunaren Ama,
Euria zeuk jadtixi
Zengi bereala.
Gure Artzaiñ, Erregiñ
Ta Ama bazara,
Euskal-lurra artu-izu
Zeure ardurara.»

BERAK ERANTZUN DEUST

«Jakizu, Errodrigo,
Ene gogokua,
Euskeldunetan zaitut
Zu aukeratua,
Adierazoteko
Gauza oneek zuri,
Ta nai dot iragarri
Dayozun aitari
Beti izan dodala
Zuen ardurea,
Eta gura dodala
Emen txabolea,
Bertatik zainduteko
Erri euskalduna,
Zein dan niretzat jente
Laztan ta kutuna.

Baña, alan bearrez,
Gaur zorigaiztuan
Aurkietan da agorra/
Ia ondatuan.»

CERO NEUK ESAN DEUTSAT

« Banoa arin-arin
Aitari etxera
Emen jazoten dana
Iragarritera.
Erreguluko deusat
Laster txabolea
Egin bear jatzula,
Amatxo maitea.
Bestela ez dozula
Egingo euririk,
Geratu etzaitean
Oso ondaturik.»

Auxe da, ene aita,
An dana gertatu,
Zuri esan artean
Elorri naz estu.
Goazan, arturik laster
Al ditugun zurak,
Senligarri litzake
Busti daian urak;
Nire ustean dauka
Ak erabagia
Artuta bereala
Eiteko euria ;
Eta zuk badakizu
Eurien premiñan,
Zelan gaizki gagozan
Emen aspaldian.

AITAK

Goazan, ene semea,
Dagoan lekura,

Zergaitik ikustea
 Nik bera dot gura.
 Jaungoikoaren **Ama**
 Ziertu dalako,
 Txabolatxo bat **baño**
 Geiago zor jako;
 Goazan, Errodrigotxo,
 Goazan bereala,
 Ondrau daigun, mirariz
 Agertu dan Ama.

ERRODRIGOK.

Etorri zaitetz, aita,
 Neure ondorean,
 Neu joango natxatzu
 Aurretik bidean ;
 Zergaitik bear dogun
 Guk toki txarretan
 Irago atxarte ta
 Leku labanetan;
 Baña begiratuaz
 Astiro astiro,
 Elduko gara miñik
 Egin bago ondo.
 Goazan an agiri dan
 Artalde azpira,
 Eta andik garbiro
 Tokia agiri da.
 Goazan, egonagaitik
 Aldapa gogorra;
 Alimo, ene aita,
 Igo arte gora.

AITAK

Arañoko bidea
 Ia ez da asko,
 Bildur naz, baña, ete dan
 Andik ikusiko.

ERRODRIGOK.

Ara, ara, an, aita,
 Ara nun dagoan,
 Antxe arako sasi
 Andien alboan.
 ¿ Ez dozu begiztetan
 Arantza gañean,
 Esan deutsuden legez
 Zeuri len etxean?
 Begira egiozu
 Dauka artzaiñ antza.
 Arpegiko azala
 Baltzerana dauka.
 Baña, ederrez zelan
 Dan paregabia,
 Dudarik bapere da
 Birjiña Maria.

AITAK

Goazan aguroago.
 Adoradu daigun,
 Mirari bat dala au
 Garbi da ezagun;
 Gero joan bearko
 Dozu Oñatira.
 Alperrik erreguka
 An neketan dira,
 Ez dabe ez euririk
 Au ikusi arte,
 Zerutik eratsiko
 Ezetara bere;
 Lenengo bear dabe
 Onaxe etorri,
 Ama-Semeok zelan
 Dagozan ikusi.
 Eurok adarau, **eta**
 Gero txabolea
 Bearko deutse egiñ,
 Semetxo maitea.

Baña, geuk aurrenengo
Dayogun erregu,
Pekatoriokgaitik
Daitezán bigundu.

ERRODRIGOK

¿Zeuk ala neuk asiko
Dogu erregua?
Asi-zu zeuk, zergaitik
Zara gurasua.

AITAK

Asi zaite lenengo
Zeu, ene semea,
Zarealako bere
Aurkilutzallea.
Belauniko jarririk
Berorren onetan,
Abe Maria asi
Zaitez errezetan.

ERRODRIGOK
Agur, agur, Maria,
Graziaz betea,
Jaungoikoa da zugaz,
Birjiña maitea;
Andra danetan zara
Zu bedeinkatua,
Ta Jesus zure sabel
Dontsuko Frutua.

AITAK

Pekatoriokgaitik,
Jainkoaren Ama,
Erregutu egizu
Orain, arren, bada;
Eriotzako orduan
Begiok gugana
Zuzendu, ta eroan
Gagizuz zeugana.

ERRODRIGOK

Amen,

ANTXIÑAKO DENPORAN

(Saritua izan zan Iruña'n edo Pamplonan 1883.an)

Urkiolako bentan Abenduko gan
andiko baten batu zirean sei bersolariak

LENENGOA, OLETA'KO BIDARI **BAT**

Gaur eldu jaku gau bat, aiñ otz eta tristea
Odei-pillo arreak dabiltez batuten,
Gorde dau Illargiak arpegi zurbildua,
Zeruan izartxo bat ez da agertuten.

Len erdi entzuten zan aizeen durundua,
Oiz aldetik orra, orra nun datorren;
Troketan jausten diran ur minduak ez dira
;Aiene! ta aiene! txilioz ixilltzen.

Illen zelaiko zugatz orriak ikaraka
 Aizerik bere baga daukazanagana,
 Ontz bat uluka joian, zerren bere azpian
 Gizonen bat lurpetu ei eben bein bada.

Gañera ikusi dot Anboto'runtza egan
 Joiala azurruts bat koraña bategaz,
 Eta desagertu jat oñeztu bat legetxe,
 Norbaiti ekitera uste dot goguz.

Beintzat txakur ausiak, Atxin baño gorago,
 Txabola baten ziran estu ta larriak;
 Duda bagarik esan nai ebela uste dot,
 Nausia ill jakola, aren intziriak.

Aize-putzak txistuka. pago erramatzarrak
 Baibenka darabillez ausi agiñean;
 Soñu orreek entzunaz otso bat topau neban,
 Lotan ta korrazaka baten, adarpean.

Bidariak ezin lei biderik billatu gaur,
 Zerren zero ta lurrik etxakon agiri,
 Bildur ikaraz dabil, lokatz ala arritzan
 Egingo cte daben ankea ipiñi.

Bardin sartzen da nartzan, bidetik aldendurik.
 Bardin zelayan bere labandurik jausi;
 Erreken murmulloa entzun gura leukela,
 Nun doian jakite arren, dabil barregarri.

Tope egin ez daian mugarrizarren baten
 Eta bertan ez dedin ill-otzik geratu.
 Gura leuke odehyak. burrukan egiñagaz,
 Oñeztuak baleyez sarri-sarri sortu.

Mamu bildurgarriak ara ona dabiltzaz.
 Arreak, zurbillak ta zuri eta baltzak;
 Gaba gabekoentzat, gizonentzat eguna,
 Niretzako ez dira illunezko gauzak.

Orañ ulu triste bat, orain ixilltasuna,
 Orañ sunbil bategaz bildurtuten nintzan:
 Illak obietatik urtenik dabilltzala,
 Gabetan uste dot nik. deslaituen gisan.

Nekez emen eldu naz, benta onetarra gaur,
 Gabau edola bere bertan egitera;
 Errukitu zakidaz, zerren galdurik nator,
 Ostatu onetako, ugazaba jauna.

BIGARRENA, ATXARTE'KO EIZARI BAT

Goyetnn aizeak indartsu ebiltzan,
 Euria jausten zan geratu бага,
 Mendi-megoepa Atxarten ebillan
 Batetik bestera egan jiraka.

Bere ots eskergak, trumoien antzera,
 Bildur ta ikaraz bat eben jarten,
 Atx arrien batzuk jausiko ete ziran
 Neu beñik-bein asko nintzan izutzen.

Urakan gogorrak mendi goyetatik
 Beor eta beyak bota dauz beera;
 Eurien euriaz, otzak kikildurik.
 Gaisoak joiazan atxpeietara.

Errekak sendaro bitsa dariela
 Doaz zezenduta amorraturik;
 Ez da azartuko saltoz iragoten
 Arriskurik бага ni lako zarrik..

Atxarten dagoan txabolatxo atan,
 Eizariak gara sustoz esnatu,
 Aize-putz zorrotzak zerren irrizkitu
 Guztiak zituzan laster askatu.

Danak asi arren bedar ta orbelez
 Zarratu gurarik arrapataka,
 Txarko bat sarturik uste uste бага,
 Bear izan dogu urten karraka.

Illinti igarrak euki arren surtan,
 Bat batean zeatz deuskuz amatau,
 Biar ezingo dau ara eltzen danak
 Eurakaz sugarrik samur barriztau.

Artzain gizajoak atxera igo dau,
 Berak an dakian koben batera,
 Gaban joan arte» beraren barruan,

Al daben modura atsedetera.
 Nire laguntxoak artzaiñari deutse
 Jarraitu atzetik toki atara;
 Ez nebalako nai arei jarraitzerik,
 Bentaria, nator Urkiolara.

IRUGARRENA, ZAIBEGI'KO IKAZKIÑ BAT

Mendietatik aizeak beeraturik sakonera,
 Ikazkiñai loak artzen ez euskuen itxiten;
 Alako baten tantai bat ondotik ausi dabe-ta,
 Gure txabolea joaz ondoan jaku jausten.

Ordu erdi tertzioan txabolatik ni urtenik,
 Pago zugatz arro baten gorde bear izan naz:
 Gau guztia iragoko bertantxe poz-pozik neban,
 Galduko nintzan bildurra euki ezpaneu otzaz.

Zaibegiko tontorrean lañoz erdi estaldurik.
 Illargia agertzean arpegi motelagaz,
 Gauza txarrik uste бага, bideari ekitera,
 Damutuagaitik gero, gizajo au asi naz.

Ekatxen iragartea zala laster ezautu dot.
 Oñeztu, trumoi, trujuak, laster dira abiau;
 Arnasaz bete ezinik ito bear ninduala,
 Aldi baten erabili bisutsak dongaro nau.

Zeru goyan eralgiten ziran odeizko armadak,
 Or emen zituezala bitarteak jareiten;
 Euretatik begi oneei pozgarriztat no/ian bein
 Izartxo bat edo beste eutsan erakutsiten.

Espiritu ekatxgiña ikusi dot aiñ asarre,
 Belea baño baltzago aiñ illun, aiñ itzaltsu,
 Illargi motela zelan mendi ostetik agertu,
 Ikatzezko kapeagaz bereala dau batu.

Onagiño igotea, bizia salbeta arren,
 Gura neban, bcntazaiña, gaur al neban moduan;
 Emen nozu errukarri, ill ez nadin otzen otzaz,
 Errezki artuko nozu zure benta barruan.

LAUGARRENA, MANDAZAIÑ BAT

Amaitu ziran ekatxak danak,
Ez datoz atzera geiago;
Garbitu zerualdea da ta,
Indriskak zirean irago. -
Izarrak argi dira ikusten,
Ez dira len lako erdi illak,
Zeruak ondo bizirik daukaz
Beraren begi biribillak.
Odeyak, eurakaz bat aizeak.
Emendik badoaz igeska;
An goyan orain Iratargiak.
Barreka arpegia dauka.
Errekak asi dira makaltzen,
Arbolak dagoz aiñ geldirik ;
Bakean zerua eta lurra.
Dakustaz adiskideturík.
Gaba len ezaiña bazan bere.
¡Ai, oraiñ ! guztiz da ederra ;
Askotan mandazaiñentzako au,
Eguna bera baño obe da.
Mamurik ez da iñon agiri,
Ontz danak jarri dira lotan,
Gautarrak eta sorgin guztiak
Ostendu ziran zuloetan.
Zerua, ara zeñ ederra dan,
Mendiak, orra Illargitan,
Zutinik, orra atxak dolore,
Soldadu zaintzalleen gisan.
Zeintzuek, ixillik egon arren,
Arre nik badot dei egiten,
Mandazaiñ balira legez eurak,
Bertatik *arre* dabe esaten.
¡Ai, baña! ueu eta bai manduok
Aurkitu baten txarto gara;
Ez neban bizirik urtetea

Sinisten Garaitorren bada.
Gerreak baña zelan atzetik
Seguru dakarren bakea,

VIII.—IRAKURGEIAK

Denporak modu berean dakar
Txarretik onaren tandea.
Bildurak ñoz baño geiago
Irago zelan gaur ni nabena,
Lo puzkat egitea nai neuke,
Ostatu zaiña, orain emen.

BOSTGARRENA, ALTUN'GO ARTZAIN BAT

Egia da, bai, gaba puzka bat dala argitu.
Baña alanbere ez da zerua oso garbitu;
Odeizko belak Iratargiak daukaz oinpean,
Keiak legetxe igo dabeenak Gorbeya aldean,
Baita izarrak apurka-apurka doaz estaltzen,
Zeru zabala geldi-geldiro ezkutatutzen;
Mendi, atxak ta ibarrak dagoz orain itxusi,
Illuntasunak iya guztiak dituz iruntsi.
Ollarrak zelan ots egin daben «badoa gaba»
Iratzarri naz lo nengoana bere kantara,
Eta txabolan illda egoan sua dot biztu.
Autsan azpian obipeturik zana aurkitu.
Eizari batzuk an itxi dodaz jana prestetan,
Egunerako geli trontzuak surtan erretan;
Txakurrak bere gelditu dira an jolasean,
Estu egozan urten gurarik eizen atzean :
Baña oraindik, nire ustean, luze da gaba,
Ez dot siñisten urtenik dala izar gofztarra;
Bada ezpada, agaitik nator Urkiola'ra.
Kamañan egon gura ez neban goiz arte ala :
Ekatzak baldin asten badira lengo ganoran.
Ezin leiteke busti bagarik egon txabolan.

SEIGARRENA. OSTALARIA

¿Zer deusku guri eguraldia
Bildurgarria,
Izanagaitik kanpuan.
Ona badogu barruan?
¿Zer deusku guri, gura badabe,
Naiz ezpadabe,

Jausi edurtza andiak,
Bardin ederraz euriak?
¿Zer deusku barriz orain aizeak,
Txistu trístreak
Jo arren, ela landarak
Triskauagaitik dandanak?
¿Zer deuskun diñot, baldin bagagoz.
Ogi-ardaoz
Gertaurik urdai ta babaz,
Zezin, arto ta gaztañaz?...
Jausi beitekez ekatx indriskak,
Edur zurizkak,
Andi naiz píxkak;
Mamuak bebiltz aidean,
Gura badabe lurrean,
Eurak nai daben aldean.
Dantzau begie atso sorgiñak,
Tximur ziztriñak,
Akelarre'ko zelayan,
Gau lenean zeñ amayan,
Eurak nai daben garayan.
Dantzau guk bere bagendu gura.
Aren modura,
Etxean bada txistua,
Ederra txilibitua.
Obea danbolintxua;
Baita alboka entzungarria,
Zoli-zolia.
Polit txikia,
Adartxo bigaz egiña,
Joten nebana antxiña,
Nintzan sasoian artzaiña.
Mari, zuk egin bizkor taluak
Ez mordolluak,
Ta bai meetxuak,
Ostriaren antzekoak,
Arintxo erretakoak,
Esnetan ondo itorik.
Jan dagiezan gozorik

Arrotzok pozez heterik.
 Ik, bitartian, jo tuntuntxua,
 Txomin gaizua,
 Peru'k txistua,
 Praisko'k alboka zolia,
 Juana'k atanbor barria,
 Txilibitu txikia nik.
 Jolas-aldi bat egiñik,
 Emendik puzka batera,
 Goazen guztiok oera,
 Lo apur bat egitera.

URI BATEKO ORDU LARRIA

Ez dantzuzue sutunpen otsa
 Mingotz garratza?
 ¿Ez dakutsue ikaraz,
 Lurra guztia dardaraz?

¿Ez al dozue entzuten emen
 Zelan datorren
 Tronpet-otsen durundua,
 Zein dan gerrako soñua?

Jente-pillo bat an deadarrez.
 Asko negarrez,
 Okerren emakumeak
 Eurari eldurik umeak.

¡A! egi-egiaz dago esana,
 Bazetozala,
 Arrotzak gure lurrera,
 Danok menpean artzera.

Ia nik beintzat dot siñisturik.
 Au ikusirik,
 Mugatik dirala pasa,
 Laster dirala onuntza.

¡Ara!... agura zar bat miñduta!
 Guri uluka:

«Erdue, guzte ta zarrak,
«Dandanak artzera armak.

«¡Milla arrayoa! ez ikaratu!
«Ill edo goitu
«Bear da arerioa,
»Naiz izan demonioa...»

Ta or zelan diran trintxerak bete
Berealaxe,
Jente gazte armaduaz,
Ekin nayan amorruez.

Muru sendoaz barriz erria
Dago itxia,
Ez daukagu ardurarik,
Etsairik okerrenenik.

Garealako gaur illgo emen,
Emon baño len
Iñori gure erria,
Kutun aiñ maitagarria.

Alperrik daukez buruak zurrak.
Astiñ muturrak,
Guk bere erkiñaguak
Ez doguz mutur-buruak.

Alperrik datoz erabagirik,
Amorraturik,
Arrapetako ustean
Uri au beingo batean.

Ez da ardura, bardiñ eundaka.
Zeinda millaka,
Badatoz bere milloiak,
Gizonen orde z legoiak.

Zeinbat geyago datorkigula.
Guk ori gura,
Emon daiegun saria
Daukena irabazia.

Ez dira asiri; ¿nun ete dira
 Ainbeste milla?
 Zer ete dabe legoiak
 Ixillduteko orroiak?

¡A! jakin dabe gure agiñak
 Dirala miñak,
 Apaldurik belarriak,
 Aruntz jarririk begiak,
 Igeska doaz guztiak.

¿Nozko dozuez, musikariak,
 Soñu-jokiak
Bizi zoliak?
 Urten zaiteze bertatik,
 Zabiltze kaleetatik,
 Uri barru ta kanpotik.

Pazko-goiza duiñ alegerea
 Da gaur gurea,
 Pare bagea;
 Dabiltz tximistaz kanpaiak,
 Iñok bultzatu bagiak,
 ¡O! zeñ mirari aundiak!

Izarretara dira iguak
 Etxapleruak,
Emen sutuak ;
 ontetan dabe zeruan,
 Zer gertatu dan zoruan.
 Usterik etzan orduan.

Argizko lora ¡o ! zeñ zuriak!
 ¡Urdiñ gorriak!
 Berde oriak!
 Polito-polito beera,
 Jatsiten dira lurrera,
 Barri onak emotera.

Pozarren dira andrak erotu,
 Edo zoratu,
 Batzuk geixotu;

Atsegiñez gañeztuak,
Agurak eta atsuak,
Dantzan dabiltz gazteluak.

Ordu txar baten ondoan alan,
Ez dakit zelan,
Etorria dan,
Illentzat biztugarria,
Larrien nasai aldia,
Libertade aiñ aundia.

Dana da oraiñ soñu jotea,
; Ai! eleizea!
Argiz betea!
Ikusteko dago duiña,
Altaran Ama Birjina,
Zeru-lurren Erregiña.

Goazen, guztiok, agurtutera
Ama ederra,
Dalako bera
Guretzako anparoa,
Oraiñ len ta betiko,
Maria loi bagakoa.

Bere oñetan auspez etzunik,
Makur-makurrik,
Umill-Umillik,
Emon daiogun biotza,
Arimea ta gorputza,
Kantau asko alabantza.

Gloria zuri eta eskerrak,
Ama eta Dontzella,
Zara parerik bagea,
Garailari eskergea;
Uri onentzat beti zaitugu,
; O! Maria, zu jaubea!

Gloria zuri Jaungoikoaren
Ama, alaba, esposea,
Krislau erriko ondrea

Eta euren jagolea,
Arerio ta etsai zitalen
Bildur ta uxatzallea.

Gloria zuri gure uriak
Emoten deustu, Andria;
Aurkitzen danak larria
Zugan dauka pozgarria,
Agaitik zaitu mundu guztiak
Laztan ta maitagarria.

Gloria zuri, mundua ez-eze,
Infernu goitutzallea,
Guretzat nasaitzallea,
Premiñan laguntzallea,
Ordu estu ta larrietatik
Zatzakuz libratzallea.

AMES BAT

Amesetan beñ aurkitu nintzan pozik basuan,
Larratuagaz artaldetxo bat ene inguruan,
Usterik antxe bizi nintzala libertadean,
Pentsaurik dontsu utsik nintzala mundu danean;
Kanpo guztiak nekusan oso orriz jantziak,
Urak arraiñez, larrak aberez, txoriz abiak,
Eguzkia lo, Illargia ta izarrak garrez,
Ta itxasoak ¡o! zirudian zelai bat gabez.

Pago arbola bateko kopan zan aurkietan
Arrano guztiz bildurgarri bat, arro benetan,
Joten oñetan begoan legez erpe biakaz,
Tximista edo oñaztarri bat artuta eurakaz,
Zeñek ziñoan: «¿Nun da ni lako beste bat bada,
«Egazi danak erregiñatzat auturik ala?
«Lurrera jatsi baldin nai badot beingo batean
»Zeartu oi dot goi utsegia ; beingo batean,
»Nire egoen burrundareak aberetzarrak
«Ipinten ditu ikaturik bildurrez danak,
»Eta nai badot gora ta gora zeruan igo
«Eguzkiagan begiak dodaz josi egingo.

«Bardin gizona larritzen daben odei illuna,
«Oinpean dakust darakustala umilltasuna.»

Arbola aren azpian bere ipurtargia,
Aurkietan zan arro, naiz izan ziztrin txikia,
Bardintze arren arranoagaz arek doaiak,
Alabetan dauz modu onetan bere emokaiak:

«Zeruak emon eustazan landa gozagarriak,
«Loretan dodaz gura lakoxe bizitokiak,
«Aize bigunak deustez erara ondo zabaltzen,
«Ta eguzkiak tintaz edertu, intzak galantzen,
«Bedar arteetan abere legez naz larratuten,
«Egoak bere egazti gisan nik astinduten,
«Baita gabetan dabillanari deusat serbitzen,
«Izarrak baño obeto askotan argi egiten.»

Bitarte atan bazijoiazan euren bidean,
Argikariak oi daben legez izar errian;
Lotan legetxe, lurra egoan ixill-ixillik,
Itxas urdiña erriberetan geldi-geldirik;
Baña aizeak putz bat eginda ikaratua,
Asten da egan iges egiñaz arrano arrua,
Eta orritxo batek jausirik ipurtargia,
Autspean sartu eban bertatik dana guztia.
Nun esnatuta ni bere nintzan bertatik jarri,
Eta ames bat zala guztia neutsan igarri.

¡O! zenbat aldiz egin oi doguz guk, bai, amesak,
Zelaiak uste billatu eta aurkitu lezak;
Eta andia uste dabena sarritan dala,
Ikusi oi da ipurtargia ein zan erara.

PROMES BAT

(On Antonio Arzak jaunari bere egunean)

Ez dakit zeñ urtetan, gertau zan jazoerau,
Onelakoak asko baña nik, benetan,
Uste dot direala jazo, eta jazoko,
Fededunak direan euskaldun onetan.

Bagillaren amabi-garrena zan beinik bein,
 Noz kanpoa egoan berderik jantzia :
 Gari-buru mardoak, perla zuriz dizdizka.
 Intz naikoa edanda arloa azia.

Itxasoa bakean, lotan legetxe ixill.
 Bagak egiten eben aiñ ikara gitxi:
 Sabel-una bagako zelai bat zirudian,
 Aiñ otzanik gitxitan egin da ikusi.

Bertako egaztiak ebiltzan jira-biran.
 Urak egalez joaz, jolasean pozez;
 Edo pikutxoagaz eurai bitsa ostuten.
 Baizuk usteko eben ebiltzala gosez.

Oraindiño ez eban Eguzkiak osoro
 Mendi osteetalik jaso arpegia;
 Baña duda bagarik ekarren loirik бага.
 Udan oi daben legez gar baten guztia.

Zergaitik agiri zan aiñ urdiñik zerua,
 Orbanik iñon bere etxakon ikusten;
 Itxasoak ta berak ezin jakon igarri.
 Alkarregaz bikoia nun eben egiten.

Eta Ondarroa'ko baserri zar batetik.
 Aurkitzen zan ama bat ur-zelaira urriñ
 Begira; eta dakus ontzi bat etorrela.
 Bela zuri zabalez uso bat duiñ ariñ.

Baita bere bekusan Gipuzkoatar asko,
 Bizkairuntz etorrela bidean zantzoka:
 Zarrak zentzun onagaz, baña gazteak asko,
 Txilibitu soñuan dantzan ta saltoka.

Kantetan eben batzuk:« Urkiola'ra goaz,
 Naiz-da bidean egin zapatak urratu.»
 Atzetik beste batzuk egoki erantzunaz:
 «Aita San Antoniok berriak ingo-itu.»

Ontziari barrero begiraturik diño
 Amak: ¡ai! baletorke ene seme Praisko.
 Zeñek antxiña iges eustan begietatik,
 Aberastu gurarik Amerikarako.

Ordu bete baño len, orra nun daben oles,
 Atarian egiten barrura sartuaz:

Eta nun trilletan dan sukaldeko atea
Zabaltzera joakon amatxo atsuaz.

Aurkieta orregaz ikaratu zan oso,
Ta semeak dirautsa: —Ama, ¿nun da aita?
—Seme, Urkiola'ra lagunakaz joanda,
Gaberako eltzeko emen goiz jagita.

Eta zuk ¿zer dakatzu ogeigarren urtean,
Euskaldun antz bagarik aĩn bizar luzeaz?
Orren soñeko zarraz, orren arpegi baltzaz,
Orren gomuta gitxi ¿zergaitik etxeaz?

—Errazoia daukazu, zergaitik ez deutsudan
Karta bat bere egiñ; baña, ama, parkatu.
Aberastu gura ta ez egiteak ezer
Beti eskribitzeko ni nau atzeratu.

Diru billa, itxasoz, ara ni joan nintzan,
Aita ta zu negarrez ementxe itxita;
Gazte zoroak legez ori nik egin neban,
Baña oraiñ naukazu kontuan jausita.

Ama, biurtuten naz gure baserritxora,
Zuri lagunduagaz bizi izatera;
Agur, bai, Amerikak, enozue ikusiko
Itxasoa zeartzen orrako ostera,

Gure asabak eben emon zorionagaz,
Emen diru gitxigaz euren denporea;
Ezagaturik nator, euki arren dirua,
Ez daukela dontsua danak bizitzea.

¡O! zenbat aldiz nintzan baserri zar onegaz,
Zugaz ta nire aitaz, ama, gomutetan.
¡Aita San Antonio! Bizkairatu nagizu,
Beti goiz-gabez neban errezetan.

Alan Urkiola'ra promes bat dot egiñik.
Aurten San Antonioz nai dot betetea,
Biar dalako bere egun gloriosua.
Eneuke nai ezelan utsik egitea.

Emon dagiodazan esker ta alabantzak,
Ekarri nabelako Euskaldun errira;
Erri parebagako menditsu onetantxe,
Oraindiño gizona ondoen bizi da.

¡Ze poza artu dodan itxasotik ikusi
 Dodazanean gure ain mendi politak,
 Eta erromeriak egiteko doguzan
 Asabak jarritako bertako ermitak.—

Federik galdu бага etorri zan semeak,
 Biotza erdibitu eutsan ama ari;
 Cosaria emonda, bialdu eban laster,
 Promesa betetara San Antoniori.

UDAKO GAU OSGARBI BAT

(Neure adiskide On Jose Artola bertsolari gazteari)

Zeruak zabaltzen dau	Abian dago lotan
Gabeko estalkia,	Gaututean txoria:
Izarrezko lorakaz	Urtenda bere etxetik
Ornidu ta josia;	Barriz ontz itxusia,
Erregiña bat legez	Ulaka ta uluka
Burdian illargia,	Dabill 'rondaría,
Doa uts urdiñean	Eta entzun orduko
Zidar urrez jantzia ;	Aren zantzo zolia,
Ederra ete daukan	Sasi-pean izartzen
Ikusteko arpegia,	Da ariñ ipurtargia.
Billatu nairik dabill	
Ibai-saill bat geldia.	

Firi-firitxo dator
 Aize zirimiria,
 Zizpuru bigunakaz
 Esnatzera orria:
 Eta lorea pozik
 Andia zeñ txikia.
 Dago atsegiñetan
 Edanak intz ezta ;
 Egunak deut9alako
 Emoten egarria,
 Eguzkiaz sartzean
 Izpi zorrotz goría.

Naiz-da goizetan izan
 Barritsu bat andia,

Mendiko txarkotxoá
 Aiñ da murmularia.
 Gabetan ak dirudi
 Jende pillo andia :
 Eta erretxiñolak
 Baldin iratzarria.
 Badago, ta badauka
 Kantetako aldia,
 Itxita epeltxorík
 Lo egoan abia,
 Alegeretu oi dau
 Ingurumai guztia.

Ederra da, benetan.
 Zeruan illargia,
 Ederra duda бага
 Izarren arpegia:

Ez da bere tristea Uts-urdiñ zabal orretan
Ontzen ulu zolia, Erratu batzuk legetxe
Naibagcgarri bere ez Ibilli oi diranak,
Iputtargi txikia; Dirudie lur au largau
Erretxiñola azkenez Eben espiritu onak,
Kantuz bada asia, Emengo presondegitik
Miragarriztat daukat Askatu ta joanak,
Udan gau osgarbia... Jauna billatu eziñik

 Biotzean dau sartuten Zeruan dabiltzanak.
Gabak berez tristurea. Ainbeste zuzi suturik
Zeru-lurrak egon arren Zeruan dakusguzanak,
Ondoan apaindurik ; Illargiak eurakaz bat
Naiz-da sortitzak agertu Illunpeko lur oni
Berak al daben galea. Bialtzcan errañuak
Baña norbera badago Esan leike direala,
Baso baten bakarrik, Zoriondunen begiak
Samurtzen da arimea. Edo nundik beroni,
Gaba dala jakiñik. Begiratu nai deutsanak
 Izar zuri zurbiltxoak Gizon lo datzanari...

 Aiñ dira enkantugarriak,
Gabak dituzan ezkutapenak.
 Arima zoratu oi dabe
Jaunaren alako bear eskergak.
 Euretan arritu egiñik,
Neurtizgei ederrak ditut billatzen :
 Jeoba adorau egiñik.
Ixillik aurrean natxako umilltzen-
 Lirea jausten jat lurrera,
Begiak orduan jaso zerura,
 Biotzak al baleit bertatik
Urtenda araxe egatu gura.

GAZTEA ETA AGUREA

(Nere adiskide Jose Zapirain eta Irastorza-ri)

Egun sentiak, Mayatza, dituzu
Gutziz atsegin, txito gozuak ;
Ikutuaz bat goizean goizetik.

Eguzkiaren errañtxuak,
 ¡Zelan direan alegeretuten,
 Oyan dagozan mindun gaixuak!
 Eta ¡ ze zoli pagiten direan
 Bearrerako osasuntsuak !

Bizitzan bere ¡ze gozoak diran
 Gazteen egun Mayatz argiak!
 ¡Zelan geroko esperantza onak
 Poztzen dituan biotz guriak !
 Izar orretan josirik zintzoro
 Ekarten dabez euren begiak,
 Naiz-da geienez esperantzok izan
 Ames uts edo zorakeriak.

Zelako *doe* ederrak isurten
 Sortitzak ditu gazte denporan,
 Ze ikusgarri benetakoa dan
 Aurkitzen bada bakotxa loran;
 ¡Ai ez balitxat aldi ori baña,
 Zelan agertu alantxe joan,
 Atzo ni izan arren lora arro.
 Ona gaur zelan zimel nagoan.

Ze alegere len bizi oi nintzan,
 Beti barreka negar bagea,
 Bizkortasuna gorputzean neukan
 Ta biotzean jolas gurea;
 Soñularia bere ni banintzan.
 Gozetan neban beti udea;
 Baña Mayatz au atsotu dan legez
 Ni bere nago gaur agurea.

Agur, betiko, aurtengo Mayatza,
 Ta nire egun gaztetakuak;
 Agur, zure goiz txorrotxiotsuak
 Ta nire lengo kanta soñuak ;
 Sortitza laster abiauako jaku
 Egunak moztzen, luzetzen gauak.
 Edurtu, baña, burua eustala,
 Denporea da niri Neguak.

Antxiña iges eban niretzako
 Uda barritxo atsegindunak.

¡Ai ene! orain emon, Abenduan,
Bearko ditut oñatz astunak;
Enituan nik gaztetan ikusten
Zelan zirean zarren egunak,
Gaur dakust negu gogorak dirala
Ta gazteenak Mayatz bigunak.

PELEGRINO BAT

(Ene adiskide abade Jaun On Damaso Bernalakoari)

Gabon gabeen, beti, apaltzen genduala,
Entzun neutsan amari, urtean urtean,
Kontutxo bat polita, zeiñ noian ipintera,
Entzuniko moduan, orain paperean.

Agertuten da, baten. Gabon gaba tristerik,
Izarrik bere baga guztizko itsua;
Aize eta bisutsaz bidean ibilteko,
Gitxitan ezagutu oi dan legezkoa.
Bere etxe-torrean su andiaz berotan,
Zaldun bat familiaz egoan apaltzen,
Baita pobre bat larri etxe aren knnpotik,
Danba, danba. alca makilleaz joten.
Alako baten ¿nor da? itauntzen dau otseiñak;
Kanpokoak diñotsa: —«Eskeko triste bat,
Bidea erratuta onaxe oraiñ jo dot,
Norbait etxe onetan errukitzen bajat.»
—«Zoaz Jaungoikoagaz, beste leku batera,
Baserri bat or dago zuek Iakoentzat;
Emongo deutsuela badakit leorpea,
Guztiak ez baditu loak artu beintzat.»
—Alderdi onetako barririk nik ez dakit;
Jauna, jakin dagizun naz pelegrinua;
Jerusalen'dik nator, Santiago'ra noa,
Indazu biyar arte emen ostatua.»
Sukaldetik zaldunak diño: —«Betor aurrera,
Ze gizon berori dan gura dot ikusi.»

VIII. IRAKURGEIAK

Pelegriñoak uste eban iya seguru
Gaberako lekua ebala jaditxi;
Ezkaratzera doa, pozturik esperantzaz,
Adierazotera etxeko Jaunari,
Bere egoerea ze negargarria zan,
Asi jakon azaltzen zearo ta garbi:
«Jauna, ikusi naizu iya otzak jilean,
Onetara luzaro ezin nendi bizi,
Coixetik ona ez dot agoan ezer sartu,
Otzaz ez eze nago goseagaz gaizki.»
¿Nok ez dau sinistuko autormen au eginda
Etxakola ausitu egingo biotza?
Txisillutik jagita errazoe txarrakaz
Gizajoa etxetik baña eban bota,
Esanaz arrabioz: «alde nire etxetik,
¿Zek zakaz zikin ori gureko txakurrak
Iratzarri ta euren zaunkaz ume koitauak,
Negarrez ipinteko arturik bildurrak?»
Buruari eraiñaz jarri zan txisilluan ;
Pobreak umill umill diño: «Agur, jauna.
Ni gora bera gozau begi familiagaz,
Atsegiñez belerik aurtan Gabon gaba.»
Sueteko atetik urten zan, zizpuru bat,
Larri garratz Ia miña egiten ebala,
Zaldun ta familia alkarri begiraka,
Aren zotin tristeak ipiñirik dana.
Otseiñak esaniko baserrira badoa,
Billatzera al beban iya aren baten;
Eta argitasuna dakus ez urriñean,
Leyo txiki baterik zelan dan urteten.
Abietan da puskat ibiltzen ariñago,
Baña kana betean beukan edurtzea,
Zelanbait egin eban nekezka bazan bere
Bide laburra, baña arentzat luzea.
Elduten da argia egoan lekuraño,
Baña etzan etxea, ta bai ermitea ;
Lanparan aurkitzen zan orioa gastauta,
Agonian legetxe bertako metxea.
Lanparearen gisan pelegriñoa bere

Egoan ukatuta. adore bagarik,
 Odolak otzituta. belaunak ikaraka,
 Agiñak dardaraka iya amaiturik.
 Begira jarriten da ermitatxo barrura.
 Leyoaren burdiña erreja artetik,
 Eta dakus altaran Santo Kristo andi bat,
 Kurutzean josita besoak zabalik.
 Gomutetan da zelan beragaitik egoan,
 Jaungoiko gizondua josia gurutzan,
 Baita gomutetan da Belen'en zelan jayo
 Ein zan, gure amoren abereen kortan.
 Gogarteok egiten asi zan, baña zelan
 Otzak eta goseak eukan aiñ galduta,
 Jausiten da lurrera, eta emon bertantxe
 Azkenengo arnasa desanparaduta.
 Baña mundutik euki ez arren laguntzarik,
 Kurutzeko Jesus'ek eutsan, bai, lagundu;
 Zerura arimea eregi eutsan cta
 Antxe beti-betiko eban zoriondu.

TXOMIÑ ETA PREMIÑ TRABENAN BERTSOETAN

LENENGO JARDUN-ALDIA

Txomiñek. Izate arren iztun, ernai ta trebea,
 ¡Ai! banitza abade, edo bai praillea!
 Jayotzaz ni naiz, Premiñ, pobreen umea,
 Eskolarikan ere ikasi gabea.

Premiñek. Ni ere gaztetatik langille naiz izan,
 Artzaiñ, serrari eta gaur nekazaritzan,
 Ni lakoak ¿non egiñ egoki itzikan?
 ¿Obe enuke egon mutu baten gisan?

Txom. Ala ere zu zera kantari yayoa,
 Orregatikan dezu estimazioa;
 Sarritan izaten zu zera motiboa
 Alegratzeko triste zegoan auzoa.

Prem. Txomiñ, zorionean gaur gera juntatu,
 Bestela eneukan nik norekin kantatu,

Zu ikustearekin asko na/u poztu,
 Au lako umorea beti zait gustatu.

Txom. Burrugarikan ez det iñoiz deseatzten,
 Alako gauzik. Premiñ, ez det ondo artzen:
 Baña bertsolariaz banaiz peleatzen.
 Ordu luzeak pozez ditut igarotzen.

Prem. Bertsolari ederra, nonbait, zerade zu,
 Leku askotan, Txomiñ, ala det aditu;
 Arrazoiakin ote zaituzten farnatu,
 Pizka bat nai zinduket nik ere probatu.

Txom. Zenbaitek dute maite pelotalekua,
 Beste askok kafea, ez gutxik jokua;
 Gizon danak daukate norberen gustua;
 Premiñ, proba nazazun bota zuk berttua.

Prem. ¡O! baneuka oraintxe askoren grazia,
 Perrando amezketarrak bezelakoxia,
 Ixnelaren gisa ona etorria !
 Pasatzeko zurekin aste bat guzia !

Txom. Munduan doatsu da kantuan dagona,
 Errukarritzat daukat triste dan gizona;
 Alegrantzia daki nork nai dala ona,
 Bestela ¿zertan dago gure zoriona?

Prem. ¿Nor bizi da obeto txoritxo bat baño?
 Au kantatzen ari da goizik gaberaño;
 Alferrik txingurria izan langillago,
 Onen kantarik ¿zeñek entzun du gaurdaño?

Txom. Ori da orí, Premiñ, bertso egokia,
 Ortarakotxe dezu zere etorria ;
 Mingañian daukazu ugari ezta,
 Txori ez izan arren zera kantaria.

Prem. Txingurriak beti du egiñ alegiña,
 Txoria da alferra ta buru ariña ;
 Bizi oi dala ondo da gauza jakiña,
 Añ ondo ez dalako jazten erregiña.

Txom. Nik ere txoritxo bat badaukat etxean,
 Kantatzen dakiena ederki goizean;
 Baña kantatzen dezu zuk berdiñ gabeen,
 Ego gabeko txori zerade lurrean.

- Prem.* Zeruan ondo eta osoro egoki,
Kantatzen dute, Txomiñ, arira ederki;
Aditu nai nioke aingerutxo bati,
Oraindik ikasteko kantatzen obeki,
- Txom.* ¿Zer da gauza oberik jarduerau baño?
Auxen da atsegiñen niretzat gaurdaño;
Aditze arren bertso zureak ¿noraño?
Joango nitzake ere Amerikaraño.
- Prem.* Landu gabe soroak ez digu ematen,
Ez da nekatu gabe bertsorik ipintzen,
Itz ederrak dituzu zuk ere billatzen,
Noizbait sayatu zera zu ere ikasten.
- Txom.* Bertsoak ez dirate ematen ogirik,
Baizik askotan kalte egiten bakarririk;
Lo egin bearrean zenbait gabetan nik,
Denbora pasatzen det kantari alferrik.
- Prem.* Nik, bada, inbidia det kantariena,
Naiz jakin artarako jayo enaizela;
Ekarri ezagatik ezertxo etxera,
Beñik-beiñ pasatzen da umore ederra.
- Txom.* Ez daukat lotsarikan iñon esateko,
Zurekin enaizela kantuz berdintzeko;
Lenengotik egon naiz beldurrez asteko,
Zu zera zu, gizona, erria onratzeko.
- Prem.* Jaungoikoak gizonok ez ginduen egiñ,
Asmazioan eta adimentuz berdiñ;
Bertso onak moldatzen zuk dituzu ariñ,
Erdi bat asmatzeko nik badet zeregiñ.

BIGARREN JARDUN-ALDIA

- Txom.* Premiñ, zu esku utsaz, eta nik txisteraz,
Zerbait egingo nuke onela bentajaz;
Baña bardiñean nik, ¿nola joka zuzaz?
Egiñ arren zertxobait gitxiago danaz?
- Prem.* Saka orren urruti botatzen badezn,
Errestatzeko diña, Txomiñ, ni enazu;
•Erruki pizkatxo bat arren arzadazu,
Zergati aspaldian ez dedan jokatu.

- Txom.* Ezingo det atera gaur andiagorik.
Zergatik eztarria dedan zerraturik;
Lenaz auxe nai nuke ipiñi garbirik,
Orretarako zerbait edan bear dek nik.
- Prem.* Orra, nere basotik. Txomiñ, zazu edan,
Bertsolari bezela nai dizut nik eman;
Badakit andien bat nonbait nola zeran,
Gaur zaude kantatzeko sekulako eran.
- Txom.* Eskerrak borondate eder orregatik,
Edango det pizka bat baso orretatik.
Urrengoa edango zuk dezu niretik,
Biok izan gaitean adiskide gaurtik.
- Prem.* Probetxo on deizula dizut deseatzten,
Iñoren gauza txarrik ez det nik eskatzen;
< Nai nuke pizkatxo bat pizkortu zaitezten,
Umore on batekin jostatu gaitezten.
- Txom.* Premiñ. ardoa baño obe nuen ura,
Zergatik ez dakian egiten burura :
Ardoarekin asko munduan galdu da,
Mozkorraz eroririk bideetan putzura.
- Prem.* Gauza guztiak daude merituz beterik,
Jaunak alaxen dauzka denak orniturik,
Gaixoa pizkortzeko ez dago mutillik
Ardoaz berdintzeko lurrean besterik.
- Txom.* Premiñ, uraz bururik ez da iñoiz galdu.
Ardoak askorekin kalte egin al da;
Norbaitek nik bezela nai badu argaldu
Ardoa utzi eta urakiñ apaldu.
- Prem.* Ardoak ere baitu ugari bentajak,
Urak ez ditu bear danak alabantzak;
Ardorik ezbalitza ¡agur! gure kantak,
¡Agur! erromeriak, trabena ta plazak.
- Txom.* Ardo eta ogirik iñoiz jan ez arren,
Familia ederrak baditugu emen,
Mutillik ederrenak ¿non dira azitzen?
Artoz mantenduetan nik ditut arkitzen.
- Prem.* Artoaren aldean garia nagusi,
Ogi gabe gizonik ondo ezta bizi,

Naiz ogi-zaleari deitu begi zuri,
Artoak arpegiak ¿ez du jartzen ori?

Txom. Ez det txarrik esango garien gañean.
Gizonik altuenak ez dira kalean.
Jigante bat izan da euskaldun lurrean,
Bera Altzo'n zan baserri batean.

Prem. Egia da artoak mutill morroskuak
Azitzen dituala, ikaratzekuak;
Baña ogiz balira izan mantenduak,
Menturaz asko ziran Sanson añakuak.

Txom.. Ardo ta ogizale nola, Premiñ. zeran.
Orregatik maiz zaude onela trabenan.
Andrea umeakin negarrez etxean,
Zeralako emendik irtetzen goizean.

Prem. Besteren paltak, Txomiñ, jartzen platerean,
Abia zera noski ikusi ditean;
Ez da utsik gabeko gizonik lurrean,
Danok degu zer eman kontu azkenean.

Txom. Egia esan dezu oraingo bertsoan,
Baña danak dakite nor zeran auzoan;
Joan dan igandean karobi-zuloan
Nola erori ziñan jakin zan beingoan.

Prem. Gaur ez dago besterik, iñor juzgatzea,
Ta norberen burua santu egitea,
Esana ez da asko, bear izatea,
Umillak gorde nai du bere birtutea.

Txom. Arrazoa daukazu: ni ere, onenean.
Zu bezela nijoa zabuka bidean:
Erortzen baldin banaiz zuloaren batean,
Lagun zadazu, Premiñ, zutitu naitean.

Prem. Alprojetan gaur dira paltak erabiltzen,
Projimoen guztiak aurrean ipintzen,
Norberenak atzean estali ditezen
Argatik gaur mundua da gaizki ikusten.

IRUGARREN JARDUN-ALDIA

Txom. Izan gaitean, Premiñ, beti kristau umill,
Iñor juzatze arren kantuan cnabill;

- Pekatu egin baño obeki degu ill,
Burlakin farrarikan ez det nai eragin.
- Prem.* Dibersioz nai nuke, nik eman denbora.
Iñor ofendi gabe pasarikan broma:
Alabagarria da egitea orla,
Bestelako konturik ez det nai iñola.
- Txom.* Banitza zu bezela etxejaun andia,
Izan gabe maizter bat errukigarria :
Orduan zure gisa munduko aldia.
Emango nuke noski kontentuz guztia.
- Prem.* ¿Nola siñistu, Txomiñ, gaur zure negarra?
¿Ez dezu artzen sendo arto ta sagarra?
Errenta idukirik osoro kaxkarra,
¿Ez dezu azi ere famili azkarra?
- Txom.* Nekazariak bear luke obeto jan.
Zergatik beragatik denok bizi geran,
Baña ark egin arren guztientzako lan.
¿Gaizkien ez du jaten, ta txarkien edan?
- Prem.* Esan dizut len ere. Txomiñ, lagun zarra.
Ez dezazula gaur jo aiñ triste gitarra,
Askok balu zuk dezun etxe ta baztarra.
Lasa botako luke tirri nola tarra.
- Txom.* Egia da, bai, Premiñ, ni gizon pobrea
Naizela, baña ez aiñ tristuraz betea.
Baizikan bertso onak kantatu zalea.
Naiz izau beti maizter dirurik gabea.
- Prem.* Txomiñ, ez del esango nor dan aberatsa.
Ondo erabakitzen au ez da erraza,
Ez da premiazkoa euki asko gauza,
Alegrentzia gabe bizia da latza.
- Txom.* Nere aita lanean beti izan zan ari.
Baña etzuan poltsa iñoiz izan lodi:
Pobrezan zuelako ark beti igari,
Orain Zeruan dauka gloria ugari.
- Prem.* Ni ere bizi arren, nere baserrian.
Enaiz aberastuko soroko lanian,
Goizean goiz jaikita berandu gabean,
Probetxu gitxirekin etzaten naiz ovan.

- Txom.* Berrakin gitxi da, Premin, aberastzen,
Ez badu beste iratu onen bat billatzen;
Eta nik nola onik ez dedan ikusten,
Erremedio gabe pobre noa illtzen.
- Prem.* Pobreak ere ziran nere gurasuak,
Eta pobreagoak ayen aurrekuak;
Baña, pobreak dira zorionekuak,
Badituzte onean artzen trabajuak.
- Txom.* Gauzarik onena da konformidatea,
Naiz izan aberatsa, naiz izan pobrea;
Auxe da birtute bat parerik gabea,
Zuzen billatufzeko zerura bidea.
- Prem.* ¡Ai! banengoke antxen ondo bizitzeko,
Baña beldurrez nago beti ni illtzeko,
Eta ill egin bear ara ¡goizeko,
Usa nai 'nuke izan bizik egatzeko.
- Txom.* Au da gauza aundi bat, nik ez det ikusi
Mundu onetan guztiz ondo danik bizi,
Danak billatzen ditut nonbaiten negarti,
Laster egin dezagun emendik igesi.
- Prem.* Ikusten dira emen aberats ziranak,
Egun batik bestera pobreturik danak;
Guztiok baditugu bizitzeko lanak,
Bakarrik ondo daude ondo ill ziranak.
- Txom.* Aspaldian nola ni naizen gurasua,
Zartzean ezagutu det pizkat mundua ;
Gazte denboran neukan aizezko burua,
Illea zuritzean bete zait kaskua.
- Prem.* Broman dagoenean pizkaten gizona,
Dago alegere ta dauka umore ona,
Ongi litzake beti bizitzea orla,
Baña bueltaka dabill au dalako bola.
- Txom.* Premin, bene-benetan bola da mundua,
Jira egiñaz berau aurrera dijua,
Udaren ondorean badator negua,
Baña ez da biurtzen denbora galdua.

Prem. Orixen da egin bat dudarik gabia,
Geyenoentzat ere da negargarria,
Ez dalako ezautzen bere baloria,
Zeñekiñ berdintzeko utsa dan urria.

LAUGARREN JARDUN-ALDIA

- Txom.* Zertako bersoetan ote diot ekiñ?
Beldurtzen naiz zoratu ote naizen egiñ;
¿Non daukat ikasia? noiz det asko jakiñ?
¿Nola jokatu det zulako batekin?
- Prem.* Aditu eta ondo zerorren bertsua, <
Txomiñ, erantzuteko prestatzera nua;
Baña zure aurrean nastzen zait burua,
Ala ere jo zazu nai dezun puntua.
- Txom.* Kukuak baten zidan jo puntua kuku,
Erantzun nion ez dek jan naikoa zuku;
Baña joten badezu zerorrek *ujuju*,
¿Zeñek adituko du nere *kukurruku*?
- Prem.* Zozo lelo batek beiñ, niri ere *zorzor*
Jo arren, esan nion gezurra diok or;
Ordia, ¿nola egin zuri orren gogor,
Indarretan zuretzat ni ezipanaiz iñor?
- Txom.* Txiboak beste baten deitu zidan *txio*,
ixildu nuen laster esanaz *adio*:
Baña zuk nola dezun jotzen *txorrotxio*.
Errebuelterako nik ez det balio.
- Prem.* Neguta zirzill batek asi arren egin,
Bertsorikan ez daki bukatutzen, Txomiñ;
Baten kantatu zidan, bakar bakarrik *Txuiñ*,
; O ! baña negutakiñ zu etzera berdiñ !
- Txom.* Loro berritsua da beti izango loro,
Erdia bada zintzo, beste erdia zoro;
Zu berriz zeralako beti birigarro,
Kantatzen dezu, Premiñ, naste gabe klaro.
- Prem.* Txirrimirri zatar bat, txit zait tentalari,
Baña farra egiten utsik diot ari;
Txomin, zerorren gisa balitza kantari,
Ipiñiko ninduke lotsatuta gorri.

- Txom.* Zekor kopeta beltzak, niri bein puntua
 Jorikan altu, jarri ninduen gortua;
 Baldin eiten badezu zuk aren orrua.
 Zekorrak lakoakin kantuan enua.
- Prem.* Erle batek eginda ni nor nitzan jakiñ,
Burrun-burrun erronkaz laster zidan ekiñ :
 Izpiz arek bezela eiten badezu miñ,
 Igesi bearko det zuk baño len egiñ.
- Txom.* Astoak egiten dit sarrilan arrantza,
 Baña kantuan ari falta zayo gatzá;
 Prerniñ, zuk nola dezun kantarien antza
 Biok egingo degu bertsoan jolasa.
- Prem.* Kirkirtxo batek burlaz bein egin zidan kir.
 Oiñpean zapalduta utzi nuen umill;
 Sentimentua daukat nuelako nik ill,
 Benganzarik enien egin bear, Txomiñ.
- Txom.* Txakurtxo batek niri ekin zidan *txcutxau*,
 Jarraituta ortzakin baita urratu prakau:
 Nik ere aserreaz jasorikan ank-au,
 Jota bota niozkan ortzik onenak lau.
- Prem.* Ardi mantsoak beti kantatzen dit *bre, bee*.
 Erantzun oi diot nik zu zaitut txit maite:
 Izan gaitezen. Txomiñ, alaxen be-zale,
 Umillak zeruetan jasoko dirade.
- Txom.* Egazti ta abere askok oi nau tenta,
 Danai eman oi diet baña errespuesta :
 Gaurko oni ematea orren errez ez-ta.
 Naikoa lan darabilt billatutzen beta.
- Prem.* Atzo ibilli nitzan ni berriz basuan,
 Txori bat arrapatzen iza bat orduan;
 Azkenez ere etzan erori lazuan,
 Gaurko au ezingo det nik artu zepuan.
- Txom.* Prerniñ, enaiz kantari baña bai eiztari.
 Eskopeta det ona, kañoiak ditu bi,
 Zuzen apuntatuta ; o ! nik zenbait txori.
 Mokuá ebakita mutu dedan jarri!
- Prem.* Zenbat aterí nik ots. ainbat maratilla
 Topatzeko ederra. Txomiñ, da mutilla :

Enekian ziñanik zu orren abilla,
Beste bat zu lakorik ez det iñon billa.

Txom. Bertso batzuek nekez ditut borobildu,
Buruko mataza gaur egin det arildu;
Orain nai eta nai ez bear det ixilldu,
Nekatu naiz iya ta uereak egin du.

Prem. Saltoa nik ere det asko biotzean,
Ikusirikan jende aundia aurrean;
Utsegiñ baldin badet iztxoren batean
Barkazioa nai det sosega naitean.

BOSTGARREN JARDUN-ALDIA

Txom. Obe zan ez banitza abia kantari,
Ala izatekotan danen farragarri;
Erregalorik iñork ez digu ekarri,
Kalte egiñ bearko diogu poltsari.

Prem. ¿Zertatik inbidia det kantariena?
¿Enitzake biziko obeki bestela?
Trabenetan askotan jardunik onela,
Makal ipintzen badot poltsatxo gizona?

Txom. Nik ere poltsa gaur det ekarri txikia,
Iñoiz iduki arren sendo ta lodia;
Ta bera nola dedan leortua iya,
Kontua jakiñ arte nago txit larria.

Prem. Txomiñ, ezpadaukazu diña pagatzeko,
Nereakin uste det degula beteko;
Onekiñ ezpagaña berriz iritxiko,
Txamarra nago ni prest prendatzat uzteko.

Txom. Ez da gauza ederra, ala lotsarian,
Gizona arkitzea aulako tokian;
Askotxo bizi arren nere inbidian,
Beli nabill ni ere bajutxo neurrian.

Prem. Txomiñ, nik ere ez dot sekulan beldurrik,
Iñoiz sartuko danik gurean lapurrik;
Familia azteko besterik ez det nik
Baba, arlo ta urdaya, etxean bakarrik.

Txom. Irabazia nola alaxen gastua,
Duenak eramaten lasa du mundua;

Egin nai lukeanak gustora pausua.
Zapata bearko du oña aiñakua.

Prem. Gauzarik onena da beti dezentzia,
Ondasunen neurrian jartzea jantzia ;
Askok iduki arren markes iduria,
Ez gitxik etxeetan dute miseria.

Txom. Iya mundu au dago lujoaz galdurik.
Ez da gaur ezagutzen morroi ta nausirik ;
Neskameak dabilta etxekoandreturik,
Ez da erraz billatzen ezkongai bat onik.

Prem. Zenbait etxe diraden beren kulpaz galtzen.
Txikiak izan eta aundiak jarraitzen ;
Ni beñik-beiñ enoa orrela izaten,
Zorrak paga ezinda lotsatu enaïten.

Txom. Gaur arte ¿nork jakin du zer dan uelgea?
Enredo zalez dago mundua betea:
Nik nai det osasuna, lana ta pakea
Engaño gaberikan denbora ematea.

Prem. Ardorik ez badet nik, edan oi det ura.
Orregatik gerrarik iñoiz ez *det* gura :
Pazientziaz nola goazen zerura,
Pizkat sufritu arren ez dio ardura.

Txom. Ni ere anditze arren enoa iñora,
Lorik ez det galduko igo nairik gora:
Nagusi izan baño mendeko da oba,
Naikoa det nik banaiz guraso bat ona.

Prem. Milla esker zor diot nik berriz Jaunari;
Zeren emazte ona eman zidan neri;
Zintxoia oso eta lujoz ez geyegi,
Dotriña irakasten onena umeari.

Txom. Bai, Premiñ, bizi zera ondoen auzoan,
Atzo esaten batek ala ziarduan;
Zu leko batek palta eiten du onduan,
Estutasun gaizto zein, premia orduan.

Prem. *Txomiñ*, emaztea det osoro prestua,
Erremediatzeko beti beartsua;
Igaz izanagaitik urte eskastxua,
Amaikatxori dio zabaldu eskua.

- Txom.* Orlakoen bitartez Jaunak gobernatzan
Ditu pobreak ere galdu ez ditezen ;
Egaziak baditu ederkiro jazten.
Gurekiñ ;nork siñistu txit dala aztutzen?
o
- Prem.* Berberak dio, Txomin, eska dezagula.
Jotzeko atea ta entzungo zaigula;
Fedea ezipagendu pizkat otzituba,
Erneguz ¿zeñek luke galduko buruba?
- Txom.* Jakin bear genduke kontentu osuan,
Ez dala bat arkitzen naiz egon tronuan :
Ez dala gure ditxa lurreko diruan,
Jauna laztan badegu, bai beste munduan.
- Prem.* Txomin, nik oi det koplari kanta beti-beti,
Aberats enaiz, baña aiñ gitxi negarti;
Nere aldean daude dirudunak gaizki,
Arrosak bizi dira arantzakin nasi.

SEIGARREN JARDUN-ALDIA

- Txom.* Lau bertso bota ditut, orra bostgarrena.
Ez dakit au dan txarren, ala dan onena:
Mingañ au ez det zorrotz; balitza eztena.
Elitzake kantuan izango motzena.
- Prem.* Abo itxitik ez da eulirikan sartzen.
Mutuak ez du iñoiz izketan erratzen;
Iturrira dabillan txarroa bada austen,
Ni ere bertsoetan laster naiz erortzen.
- Txom.* Ez da, Premfñ, uts ori ain sentigarria,
Lanak dakarrelako bakarrik ogia ;
Bertsoak gatik illko litzake guztia,
Gosez baldin balego nire familia.
- Prem.* Itzezko iturri bat dezu iruditzen,
Zure agotik pozik, Txomiñ, det edaten :
Poto txiki bat baño ni nola enaizen,
Iñork edan ezkerero, leor naiz gelditzen.
- Txom.* Ez det iñoiz ikusi au lako ibairik,
Ezin dedalako gaur zuretzat presarik;
Ni naiz txirriotxo bat, mendian jayorik,
Arriotxo batek gero bidea galtzen dit.

- Prem.* Ez det ekarri ona, aiñ sare txikia,
Arrapatzea gatik legatz bat aundia:
Ez dedala artuko nago igarria,
¿Zerekin, Txomiñ, egin bigar bijilia?
- Txom.* Niri ere gustatzen asko zait arraña,
Baña, danen artetik, geyen amorraña ;
Nola arrapatzeko palta dedan maña,
Nik beintzat makallauaz bearko amaña.
- Prem.* Txomin, nire aldean zu zera trebia,
Kanturako daukazu bakana dan doia;
Zera kanarioa, ni ontz bat tristia,
Ez det kayolan iñoiz merezi jartzia.
- Txom.* Astoak pentsa arren dala zamaria,
Eta arin egiten bera nagusia,
Premiñ, ta Premiñ, zaldi galopalaria,
Ni jarrai ezin dedan belarri andia.
- Prem.* Bene-benetan ori, ori da egia.
Atzekoaz aurrera balitza guztia;
Erbiai deitu arren zuk gaur aizeria,
¿Noiz kendu die onek olloai bizia?
- Txom.* Erbia beti izan da gaitik gabia,
Ark ez dakielako zer dan malizia;
Aizeria bestera, dana da tranpia,
Gizona engañatzen dakian pistia.
- Prem.* Tranpian ere dakust oraintxen mirua,
Jate arren otan lo zegoan ollua ;
Baña, ollo lekuan billarik katua,
Bizirik nekez egan irten da gaivua.
- Txom.* Nik berriz berdiñ dakust, arroturik arza,
Zergaitik uste duen arrapa bildotsa;
Luzatua gatican erpe txit zorrotza,
Uts eginda, galdu du sekulako poza.
- Prem.* Auxen da mixeria, auxen da bai pona,
Topeka narabiltzu ari bat bezela,
Txomiñ, baña bakizu bildotsa naizela,
Oraindikan jateko, ez oso gizona.
- Txom.* Premiñ. ni naiz nanoa ta zu jigantea,
¿Nola naizu pele au nik irabaztea?

- Ez bildurtu naizela Dabid profeten
Lurrera zelaitzeko Goliat fuertea.
- Prem.* Orañ obeki dakust ezpata ederra
Txomiñek dakarrela illteko zezena ;
Adarrok zorroztuta noa prestatzera.
Bestela ementxe da gaur nire azkena.
- Txom.* Itxuen errian da tuerton alkate.
Aintzakotzat errian ni ere naukate;
Enaizelako kantuz zu zeraden beste
Banoa itxuakin bizitera naste.
- Prem.* Eninduten sartuko aiñ errez gaur plazan.
Jakin banu zertako berau egiña zan:
Banderillak gorderik zuk ederki kapan
Sartu dizkidatzu bai noizik-bein espaldan.
- Txom.* Eguzkia danean zeruan agertzen,
Izarrak laster dira lotsaz ezkututzen :
Premiñ, nola eguzki dezun iruditzen.
Banoa gordetzera lotsatu enaiten.
- Prem.* Ezkillak jo dezake nere agonia.
Beldurrez jarri nazu erdi illik iya;
Pultsurikan ez daukat, otza izerdia.
Kukurruku jo zazu, Txomiñ kantaria.

ZAZPIGARREN JARDUN-ALDIA

- Txom.* Jayotzaz, badakizu, dirudit mosolo.
Gabez errondan naiz, egunez oi det lo;
Premiñ. ontzen lekuan jayo banitz loro.
Kayolen baten nítzan biziko gozoro.
- Prrm.* Ez naiz erretxiñola. ez kanarioa.
Ni ere naiz obeki ontzen antzekoa :
Baña bizi dakigun euskal-zortzikoa,
Kanta dezagun, Txomiñ, nere gogokoa.
- Txom.* Euskaldunak nai badu jarraitu euskaldun.
Onelatxe kantuan bear du ezagun;
Neurri au gurea da, berez, nere lagun.
Etu atsegingarri aire au da nai-nun.
- Prem.* Leku danetan jayo oi dira umiak.
Amak egiten ditu non-nai bai semiak :

- Lur onetara, baña, aparteko doiak
Zerutik bota ditu Jaungoiko guriak.
- Txom.* ¿Non *da* beste lekutan emengo fedea?
Au bezin beste lur bat aiñ alegerea?
¿Nork dauka Gernika'ko Arbola gurea?
Igartu arren zarra, ez degu gaztea?
- Prem.* Txomiñ, ¿non da emengo udako aizea?
Itzalpetxoetako gozo eta mea?
¿Non lekuan-lekuan bañuen etxea,
Osasunaz jartzeko gaixo dan tristea?
- Txom.* Premiñ, baita ditugu asko ikusgarri,
Palankan nagusiak, onenak dantzari,
Zeinbat ditugun berriz emen pelotari,
Mundu danak daki ta ez galdetu neri.
- Prem.* Udetan dator ona argatik jondea,
Berau dalako bazter parerik gabea :
Emen da zer jan ona, zuria ogea,
Ostatua garbi ta kalean pakea.
- Txom.* Bazter onetan ez da lapurren beldurrik.
Orretan ez da senti iñoiz euskaldunik:
Ateak egon arren gabetan zabalik,
Lo egiten da lasa naiz egon bakarrik.
- Prem.* ¿Nola kantatu. Txomin, emengo gloriak.
Izarrak bezelaxen badira ugariak?
Nai dituenak jakin letu istoriak.
Gogoan eukitzeko dira geyegiak.
- Txom.* Milla euskaldun dira andiak gerrari,
¡O! zeinbat itxas-gizon, zenbait bertsolari!
Izkribatzalle asko, onenak kantari,
Atzera eragiñak mundu guztiari.
- Prem.* Nere adiskidea, iya degu asko.
Bertsoetan naikoa egin degu gaurko;
Utzi dezagun lan au beste baterako,
Kopla obegoak gorde ordurako.
- Txom.* Benetan jardun degu asko bertsoetan,
Geiago enuke nai segi gaur onetan ;
Gizona aspertzen da gauza dan-danetan.
Aixago sari gabe badabill kopletan.

- Prem.* Emen bukatzen ditut, Txomiñ, nik gaurku-
Begiak isten dizkit pizkatxo bat luak; [ak.
Gorputzak bear ditu bere deskantsuak,
Gabon digula danoi gure Jaungoikuak.
- Txom.* Agur, jende noblea, urrengo artean,
Bizi zaitezte ongi osasun pakean;
Ikusten ezpagera beste egun batean,
Jaunak bntu gaitzala zero zabalean.
- Prpm.* Oraindikan munduan bilduko al gera,
Pasa dezagun berriz ordu bat ederra,
Bertsoetan egiñaz gaur degun bezela,
Antziñako euskaldun garbien antzera.
- Txom.* Ainbat lenen nai nuke au lako eguna,
Gozatzeko umore bat atseginduna;
Maiztxo bear genduke gaur lako jarduna.
Bizi dedin Euskara, baita euskalduna.
- Prem.* Bizi dedilla, bizi Euskara maitea,
Izkuntza antziñako parerik gabea ;
Berau iltzen bazaigu, joan zan gurea,
Erdarak digulako jarriko legea.
- Txom.* Euskaldun jayo eta berdin gera azi,
Zeren titiaz edan bera degun nasi;
Mundua dan artean ez dakigun jausi,
Seme danok batera dizayogun eutsi.
- Prem.* Bizkaya, Gipuzkoa, orobat Araba,
Nafarroakin emen lau anaya gara;
Frantziko irurak ta gu biltzen gerala,
Zazpirok bear degu salbatu Euskara.

MARI ANTONI ARAMAYOARRA

(1899. ko bertako euskal-jayetarako egilleak atondua)

Zolia danari goizetan,
Jaungoikoak deutsa lagunketan.

Araba izan arren oraiñ Aramayo,
Bizkaya iruditzen onek dau geyago;
Daukalako guraso zarren berbetea,

Bizkaitarrena bardin Foruko legea :
Ta berau izan arren urte askoduna,
Oraindik ez dau galdu euskelduntasuna.
Zeruak nai izanik da leku polita,
Ainbeste baserriz ta eleizaz jantzita,
Jaungoikoak egiñik oso da malatsa,
Iturriz, zugatzez ta mendiz aberatsa :
Neguan epeltxo. udan beroa.
Eguzkiak larregi erre bagakoa,
Bioleta bedartzan legez ezkutetan
Erri auxe dalako mendi artietan,
Emon gura neuskio datorkan ondrea.
Dalako Euskalerra erdiko lorea,
Deiturik, erri bakar gaur Arabakoa,
Erdera naste бага euskaldun osoa ;
Ta Euskera zainduten legetxe alegin
Bere oiturak gaitik dabelako egin.
Biotzetik agurtzen gaur dot Aramayo,
Erri aukeratutzat au zalako jayo.
Berau da, bada, ibar zintzo ta leyala.
Atxak solo biurtu egin dituana,
Saritu eragiñik izerdi andiak,
Boteak bere ume zaillen bekokiak.
Eurenez naiz da izan gorputzez txikiak,
Beargin zintzo beti dira txindurriak:
Baña Aramayoar zarrak zein gazteak
Niri eresten jataz dirala erleak;
Ezpadauka lorarik erleak urrean,
Zelan ibilli oi dan billa urriñean.
Alan ikusi oi dot amayoarra;
Etxean amaituten jakonean lana.
Dirudiala erle zintzo ta langiña.
Doiala erbestera bearraren billa.
Bata badoa ezti-geya ekartera,
Bestea pillatzeko dirua etxera,
Agaitik erlearen izena betean
Aramayoarentzat dator, nire ustean.

Ez dot nik esan gura txito ta osoro
Akats bagakoa dala Aramayo:

VIII.—IRAKURGEIAK

Alan bere bakigu oneitan ardiak
Esan leikela danak dirala zuriak,
Bat edo bat aurkitzen nozbait bada baltza.
Berak dauka librako barbantzuen antza:
Alan erleak bere dan-danak zintzoak
Eztira zerren batzuk direan mamoa;
Bai, onak utsik dagoz an goyan Zeruan,
Txarrak bere on baga beian Inpernuan.
Baña gitxi-gei emen lekuan-lekuan
Txar ta onak gabiltzaz nastean munduan.
Antxiña entzun neban nai dozun errira
Zoaz, baña txakurak an bere badira.
Augaitik Aramayo'n bat edo bat alper
Izan arren, ez deutsa orregaitik ezer;
Alan ez dot bardindu nai paradisuaz,
Lurrean non-nai oi da bat edo bat Judas.

Esan dot asieran Jaunak lagunketan
Deutsa zoli danari jagiten goizetan.
Alan bada nai neuke azaldu zearo
Neskatilla bategaz bein zer zan irago,
Nor zan Mari Antoni Aramayoarra.
Benetan beargiúa, gañera goiztarra,
Gari-epalla bere benetan azkarra,
Amagaz Arabera sarritan joana:
Esan dodan legetxe erlien antzera.
Etixerako onera zerbait ekartera.

Baña, ama ill jakon ta beste urtean
Igitaldia eldu egin jakonean,
Auzokoak zituzan eroan lagun bi,
Bata zan Juana eta bestea Iñazi,
Zarrena Bitoria'n gazteena Bilbo'n.
Serbitzen luzaroan zireanak egon:
Orregaitik egozan uritar egiñik,
Eta baserrian iguiña arturik;
Garbiro esateko erdi nagiturik,
Erderaz autortzeko señoritaturik.
Baña, zelan egozan orduan etxean,
Ta Mari Antoni'gaz kutunak zirean.
Asmau eben beragaz nasi Araba'ra

Joan bear ebela biak igitara,
Erromeriara asko joan oi dan legez,
Lan eñ baño geyago olgetako ustez.

Izarrak zoli-zoli egozan zeruan,
Ixillik illda legez jentea auzuan,
Ollar eta astoak bere lo oraindik,
Ezer bere entzuten etzan eurakandik :
Ontzen uluak zerbait sometan zirean,
Zeintzuk ziran gayeroak baso urriñean.
Erlojuak amabi ots ditu emoten.
Esanaz: domekea oraintxe da illten;
Baña jote orduko amabiterdiak.
Neskatillak egozan irurak jagiak,
Ordu batak jo baño len barriz etxetik
Urtenda Miñano'ra elduta goizetik,
Iru gari arlogaz Araka gañean
Ebagiteko laster berbatu zirean;
Eta bardin samarrak izanik artuak,
Juana'ri emon eutsan bertatik buruak.
Bakotzak bere sailla ein bear ebala:
Gura zan orduetan egiñagaz lana.
Jardun baga iraunak alkarri emoten,
Batak aña besteak ez ebala eiten.
Alperrak asmo asko, da esaerea.
Eta egia dala baukat siñistea.
Osterantzean laster dogu ikusiko.
Itsuk bere zerren deutsan igarriko.

Egia da, Iñazi eta aizta Juana
Ez egozan premiñan joateko ara.
Etxejaunak zirean euren gurasoak, .
Aramayo'n banakak zirean lakoak;
Bata eta bestea, baña, domeketan
Kalera apaindurik jasten ziranetan,
¿Nok esan, jakin ezik, Juana ta Iñazi
Baserrian zirala jayo eta azi?
Zorionean urten zirean kanpora,
Jantzian igoteko ainbestean gora ;
Bai, arrotzen zituzan euren dote onak,
¿Baña ez ete eben bear euren gonak?

Ez ekarden aririk etxaguntzarako,
 Euren egarria zan dana kalerako,
 Ez eben ezetera gura eguzkirik,
 Baltzitu ez eyoen berak arpegirik;
 Billdurrez orregaitik kapela zabalak
 Egalik egalera kana bat ziranak,
 Eroan zituezan igatara biak.
 Arriturik ikusten eutsezan guztiak.
 Ez. etziran eurakaz errez baltzituko,
 Eta euriaz bere ez asko bustiko;
 Damugarri zan. bada, alako lora bi
 Baltzituta etxera egitea etorri.
 Etzan ez areentzako egin igitea,
 Gogokoago jaken biai kerizpea,
 Edo intxaur azpian josten jardutea,
 Arturik ipar-aize gozo eta meia.
 Eztiñot zireala neskatilla txarrak.
 Etxeko gobernuan eukezan bizarrak:
 Eurak nai ebena zan erosotxo bizi
 Soloko lanetatik eginda igesi;
 Ela egoanean nonbait fiesteia,
 Antxe apainduenak biak agertzea.
 Baña Mari Antoni zelan zan pobrea,
 Eta buruan bere kukutsik bagea.
 Etzan sekula bere fiestan ikusten,
 Etzalako auzotik iñora urteten.
 Zan bakar-zalea, ta zan jaungoikozkoa,
 Arrokeria zer zan ezautu bakoa ;

Oso galant gorputzez, ederra ariman,
 Aingeru baten antza eukan arpegian.
 Bai, arbel asko eta gauz ona gitxitan
 Aurkituten dan legez emen lurpietan,
 Mari Antoni lako neskatxik errian
 Beste bat ez egoan beraren aldian.

Zirudian enparau danen ispillua.
 Birtutez beteriko lora sortatxua;
 Ain zan garbi, ixill ta aiñ zan zentzunduna.
 Etxakona aztuten amari entzuna;
 Jaungoikoak deutsala beti lagunketan

Jagiteko zolia danari goizetan,
Eta artu dedilla suertea nai-noz,
Ona bada berandu eztalako iñoz:
Orregaitik jagiten a zan iruretan,
Juana eta Iñazi nekez zazpiretan,
Augaitik egin eban lau egun lenago
Arloa, beste biak eiñ zituen baño.
Guraiña lo eginda, aiñ berandu jagi.
Igitaya astiro gero erabilli,
Kantau asko eginda lekaixoa sarri.
Nekau baño lenago eginda jazarri.
Ta onen onenean aretx-azpi baten.
Dantzan bere ebela ordu bete galtzen.
Lau eguneko lanaz emotea zortzi.
¿Nori ein bear jako gaur mira eretxi?
Egiñak esaten dau zer dan egillen.
Ona, erdiko edo ete dan dongea:
Landarea jatorriz baldin bada urra,
Ezin emon lei berak alea intxaurra:
Agaitik geyenean zelakoak amak,
Bere ikusten dira dirala alabak.

Nagusiari bere ein jakon damutu,
Arei saillak emonak, baita aserratu.
Bera zalako beti goiz jagi zalea,
Atsegintzen jakona neskatz langillea :
Eta doe guztiak Mari Antoni'gan
Berak nai legez zelan aurkituten ziran.
Abiau zan pentsetan semearentzako
Etorrela andragei ezin da obeto.
Ziñoan bere kautan: ondo da dotea.
Baña, lendik aberats daukagu etxea.
Nik gura neukena da ixilla arrana.
Ez nagi, loti eta ain gitxi arrana.
Eta Mari Antoni berba gitxikoa
Dalako guretzat da alagalakoa:
Araka'ko auzoa dana da neurea,
Jaubegeirik bat daukat, bakarrik semea.
Gañera diru puskat umegiñan daukat.
Urtero geitzen deustaz beintzat milla dukat :

Alan guk daukagunaz beste ezer baga,
 ¿Biziteko geyegi ezdaukagu, bada?
 Naiz izan aberatsak Juana ta Iñazi,
 Orreen aldean bauka arek zer ikusi,
 Mari Antoni soillik orreik biok baño,
 Edozetarako da askozaz geyago;
 Orreik legez ak euki ez arren doterik,
 Naiago dot gureztat goneaz bakarrik.
 Gorputzez ta arimaz, ¿nor bera lakorik?
 Ez dakit topau leiken Araba'n besterik.
 Etxe bat ondretako da emakumea,
 Dontsua da gizona, ona bada andrea.
 Eztiñot txarra dala andra aberatsa,
 Baña nik nayago dot langin ta apatza;
 Aberats, eder, ona. iru gauzak baten,
 Kantetan da errezak ez dira billatzen.
 Baña Mari Antonik onak badaukaz bi,
 Ederrez eta onez santa bat dirudi,
 Ta aberatasunik ak euki ez arren.
 Eskatzen dodana da birtutea lenen.

Onelantxe kontuak eginda atera,
 Neska mutillai bai deiturik aurrera,
 Agertu eutsen bere barruko gogua;
 Ta euren baietzagaz aurrera arloa,
 Eroanda, *brebeaz* zirean ezkondu,
 Ela euren bizian etxaken damutu.

Bai, Mari Antoní zan egin andra andi.
 Juana ta Iñazi'ren inbidiagarri.
 Zeintzuk umill-umillik saillak amaitzean,
 Biak laster etxera hiurtu zirean,
 Eguzkiak bapere ein бага baltzitu,
 Baña lotseak ondo eginda gorritu.
 Mari Antoní, barriz, poz-pezik Araka'n
 Geratu zan amaren bertsoak kantetan:
 «Jagiteko zoliak danari goizetan,
 Jaungoikoak zerutik deusn lagunketan;
 »Eta suerte ona datorrela nai-noz
 »Ez dalako berandu beretzako iñoz.

ZUGATZAK

Domekea zan, eguraldiak
Eukan arpegi ederra,
Ta Eguzkiak barreka egin
Eban goizetik urteera ;
Geratu baga mendi gañean
Joian goruntza aurrera,
Eta ni barriz aldatsa bera
Jatsiaz kale aldera;
Lenen lenengo mezea albazan
Eleizan jaritxitera,
Nai nebalako al bait lasterren
Biurtutea etxera.

Meza amaituta, beste erregu
Batzuek egindakoa,
Etxera eldu nintzanerako
Gosaría prest egoan ;
Bera jatean pipa motxagaz
Ketuten baniarduan,
Eta bertatik gogoraziño
Au sortu jatan buruan,
Aspalditxoan enebalako
Jirarik egin basuan,
Geure zugatzai bear neutsela
Ikusi bat eiñ orduan.

Gora ta bera nekatutean,
Aretx zar baten azpian
Etzan nintzan da, adar me baten
Txori bat jarten jat goyan;
Loak bertatik eldu eustan da,
Ames bat orduterdian
Egiñagaz ni an egon nintzan,
Pozez atsegiñ andian;
Edo obeto esate arren
An egon nintzan glorian:
Alako orduterdirik ez dot
Gozau nik neure bizian.

VIII.—IRAKURGEIAK

Egazitxo ak bota ebazan
Bertsoak geure legera,
Gure aldean baña oso leun
Aingeru baten antzera,
Eta euskeraz zelan ak esan
Egin zituen gañera,
Eretxi jatan, gure albistari
Euskaldun garbi batera
Bialdutea, eta orra or
Alde batetik bestera,
Irakurteko zelan zan kantu
Txoritxo polit arena.

»Txoria naz ta, ni kantetako
Etorria naz mundura,
Eta kantari al bait onena
Gaur neuke izan nik gura ;
Kantetea oi dalako txori
Guztien egikizuna,
Kantetea bai, dalako bere
Gure atsegintasuna,
Kantuan atzo lorak eregi
Nik banebazan zerura,
Gaurko kantuan goratu nai dot
Zugatzen anditasuna.

Zugatzak gaitik gauza andiak
Kantuz leitekez aitatu,
Euren gañean zerren gei asko
Aurkitzen dan zer autortu;
Paridisuan lenengo eta,
Gero Golgotan oartu
Egin ezkeru ¿nori etxako
Barrua egiten samurtu?
Eta azkenez Euskalerrian
Gernikan zanaz gertatu,
¿Nori etxakoz negarrez emen
Begiak eiten gorritu?

Ernetan diran landara artean,
Zugatza geyen da azten,

Ela keriza ederra bere
 Eurok deutsue botaten,
 Ta ikustean gozau dagien
 Dana gizonai eskinten,
 Ta ikustean ainbeste tantaik
 Buruz odehyai ikutzen,
 Eta azkenez ikusitean
 Goyak ta beiak apaintzen,
 Oneik daukezan ontasunakaz
 ;Nor ez da miraritutun?

Itzik ez dabe, baña begira
 Euren onbide andia,
 Egilleari berdetasunaz
 Euren onbide andia,
 Emoten deutsen gloria;
 Baita oi dabe adierazo
 Gizona dala txikia.
 Aurreratuz bera doiala
 Naiz izan egi andia,
 Zerren jaritxi ez dan egingo
 Beraren jakituria,
 Egiteraño iñoz orri bat
 Añ gauz ezerez gitxia.

Baita zugatzak agertzen dabe,
 Zurunbilloen artean,
 Iraupenaren doe ederra
 Gizon askoren aldean;
 ;,Zer gertetan da bada gizonaz
 Sarri askotan lurrean,
 Andik emendik aixe gaiztoak
 Esetsi eta jotean?
 Zugatz sendoak iraunagaitik
 Euren lenengo oiñean,
 ;Zeinbat alditan bestek jausten
 Diran etsayen mendean!

Augaitik Jaunak gero gugatzaí
 Leyaltasun aĩn ederra
 Sarituteko bialtzen deutse

VIII.-- IKAKURGEIAK

Iparrik eztitsuen a ;
Bere arnasa me ta leunean
¡ Ze poza orritxoena !
Dantzan dabiltzan gaztetxo batzuk
Bizi ro dirudiela !
¿ Eta gizona aurkitutean
Gaur zu zagozan antzera,
Pozgarri ez da euren zarata
Aizetan eiteu dabena?

Maitetuten dauz Zugatzgilleak
Bere zugatzak munduan.
Euriaz ase-ase eginda.
Egarri diran orduan;
Zelan guraso onak daukazan
Beti umeak goguan,
Arek zerutik zainduten ditu
Udan legetxe neguan.
Orrexegaitik irauten dabe
Matusalen'en tayuan,
Askok sendaro gizaldietan
Jayo zirean lekuan.

Maitetu-izue ¡o euskaldunak!
Landara daneu Errege,
Berak egiten deutsuelako
Ezin kontala mesede.
¿ Zeinbat lan andi egiten diran
Zugatzez badakizue?
Zeinbaten ale gozo gozoak
Sabelak egiten bete;
¿ Askoren suster-lorak osatu
Eiten badabez ainbeste,
Zugatzen etsai benturaz iñor
Lurrean izan leiteke?

Bai, antxiñako zuen asabak
Zugatza eben maitetzen,
Ardura on bat eurai eukirik
Geituaz joan zeitezen;
Eta euskaldun lege zar batek
Augaitik eban agintzen

Landarak beli ipinteko bi,
 Zugatz bat bazan botaten;
 Ondasun asko zugatzetatik
 Ebezelako jaristen,
 Bear gitxigaz dirututeko
 ; Ze asmo ona ekarren!

 Eta, azkenez, Gernika'n bere
 Dozue Aretx gaztea,
 Aita igartu baño lenago
 Jarriagaitik semea;
 Gorde egizue alantxe beti
 Zeuen asaben legea,
 Gurasoa ill baño lenago
 Jarrita ordeko berea;
 Izan daitean Euskalerrria
 Oitura onen janbea,
 Zugatz bategaz zalako izan
 Donsutasunez betea.

 Bai, Gernika'ko zugatz alantxe
 Nik bere daukat abia,
 Zerren jatorriz nazan txori bat
 Euskaldun garbi-garbia;
 Banaz bere ni egazti gisan
 Zugatzen maitelaria,
 Gernika'koan baña, nik daukat
 Neure gloria guztia,
 Dakarrelako eunkietako
 Aitak legetxe bizia,
 Bere besanga-pan artzeko
 Kerizpez Euskalerrria.»

 Orreixek dira amesetan nik
 Entzun nebazan bertsuak,
 Ezti-eztitan an nindukala
 Ipar aizetxo gozuak:
 Ikutu бага Eguzkiaren
 Erraño zorrotz mintsuak,
 Baña itzartu ninduanean
 Izpiaz erlabioak,

Bertatik pipa motxa sututa
 Ausnartu entzunikoak
 Egin nebazan, buruan oso
 Geratu arte sartuak.

Jarraitu daigun, neure anayak,
 Euskaldun zarren legean,
 Barri bi jarri zugatz zarren bat
 Bere oñetik kentzean;
 Jarraitu daigun baita zintzoro
 Beti asaben fedean,
 Iraunik zutik zaill eta gogor
 Aize biurren artean,
 Iraupenaren sari ederraz
 Zugatz sendoen antzean,
 Bizi gaitezen Asabak legez.
 Oraindik geure lurrean.

ASPE ETA PEREZ

Ezautu neban Bilboko etxe andi baten.
 Zaldun bat bere zazpi semeai erakusten
 Zeiñ banderatan peleau utsik bear eben,
 Euskaldun onen antzera bizi gura beben.

Berak umeai esaten eutsen Lege zarra
 Gaurko barri au baño obea genduala;
 Lenago zabal emen biziten gineala,
 Ez geunkalako geure gañean Gaztelarra.

Euskara dala euskaldunaren izatea,
 Jaungoikoa ta zarren oiturak bititzea:
 Zeñen bandera egiazkoa Arbolea.
 Gernikan beti adarau dogun Landarea.

;Ze gurasoa izan zan Aspe agurea
 Erakusteko semeai euskal dun bidea!
 ¡Ai! alakoak bagiña danok, Euskerea
 Izango geunke beti emengo berbetea.

Baña bizi zan arerio bat bere urrean,
 Jayorikoa Ebrotik aruntz, beste aldean.

Perez izena eukan ta zeñek bein kalean,
Asperi esan eutsan gorrotoz gizartean:

«¿Zertako zabiltz, gizon zoroa, orren gogor.
Euskera gaitik artzen ainbeste neke ta lor?
¿Ez aldakizu gazteak zelan entzunda gor
Egingo daben ez daukelako gogorik or?

¿Ez aldakizu gaur erdaldunak daroala
Sailla aurrera biderik iñon galdu baga?
¿Ta Foru illak zuk ezin biztu ziñaizala,
Makatz ustelik zeñek osatu leike bada?»

Baña, bertatik erantzun eutsan Aspe-tarrak.
Erakutsirik lotsarik baga bizartzarrak.
Esanaz: «Baukaz seme zintzoak gure Euskerak.
Erdaldunakaz iñoz usteldu ez diranak.

Jakizu, Perez, usteldu arren madaria.
Usteldu bago dagoan arte askazia,
Erein bedi au lur samurrean ta barria
Erneko jaku laster landara pozgarria.

¿Ez dozu, Perez, Gernikan bertan ikusiten.
Azia ereiñ zalako zer dan gaur jazoten?
Gure Arbola gazte ederra zuzen zarden,
Aitaren orde zelan indartsu badatorren?»

Au entzutean bertantxe Perez, zan mututu,
Ta Aspe jaunak ill arte eukaldun dau jarraitu.
Noren semeak arrorik dabe gaur esaten:
«Euskaldun gara patorriz eta itz egiten.

«Euskaldun gara, ta Foru zale biotzetan.
Aitak ereinik dozu azi au errayetan;
Eta odol au daukagun arte guk zanetan
Peleau gura dogu Bandera zar onetan.»

Eurak diño: «Izango gara euskaldunak.
Ill bai, baña ez, geure bizian erdaldunak:
Auxe agindu euskun bai aita on laztanak.
Zazpi semeok egin nai doguz ak esanak.»

Bai, Aspetarrak dira landara indartiak.
Euskaldun zazpi probintzien antz irudiak:

Euskaldun sortu, euskaldun jayo eta aziak,
Eurak Asaba zarren seme on ta garbiak.

Agaitik aren legeak gaitik gaur zazpiak
Galtzeko dagoz gertu gertu ta prest biziak.
Erein daiguzan guk bere euskal askaziak,
Iraun dagian euskaldun beti gure Erriak.

AMA BIRJIÑA ARANTZAZUKOAREN LAGUNTASUNA

Gerrara zoaz, seme maite, ta
Ez aztu ama tristiaz.
Eroaidazu neure biotz au
Bal-bal eginda zeuriaz;
Badakit zelan burrukarako
Zoazan biotz andiaz,
Zaindu egizu gure bandera
Daukazun odol guztiaz.

Zoataz ondo gerrara, baña,
¿Gero poz emon nok niri?
Ill zareala ames eginda
Eingo naz beti jagi ni;
Eutsi, semetxo, mun einda jantzi
Eskuplario eder ori,
Goiz eta arrats erre/etako
Abemaria berorri.

Arantzazu'ko Birjiña orren
Irudi ori kolkuan,
Nik bere daukat eta zaindu nau
Beli premiña orduan;
Zu bere bardin gorde zaizala
Batallelako kanpuan,
Balen txistua baño besterik
Entzuten ez dan lekuan.

EDARIAREN EGITADAK

Ogei bat kopa kaña
egitean edan,
naiz da erdi mutua
jayotzatik izan,
domekan *Peru isill*
gure beko dendan
barrutik apurren bat
zelan berotu zan,
denda zamari asi
jakon barriketan.
—¿Jose, bakizu zeinbat
gradu nik neukazan.
joan dan gerratean,
naiz tonto bat izan?
Euskeraz ez dakidaz
izenak eurenak,
baña esango dodaz
erderaz dienak ;
kobo, sarjento, alferez
iru urtietan.
orra iru gradura
zelan eldu nintzan.

Denda zaiñak zurturik
deutsa erantzuten.
gureko kañau bere
ez da laura eltzen.
—Jose, badirudi bai,
dala kristiñaua,
osterantzean izan
balitza morua,
ainbat kopak ;ez eusten
galduko burua?

—Burua, anak eta
baita bere miña,
ta etxera bearko
zenduen, mutilla.

BEDEINKATU JAUNAREN IZENA

Illuntasun artetik sortu eguzkia
 Jaunak ebanean ta ezarri begia,
 Diñotsa, ikusirik ain zala argia:
 «Bizidunen izango zara pozgarria.

Lurrari bialduko deutzazu argia,
 Baña, argi bat dana berotu-garria:
 Bizkorturik beragaz izate guztia,
 Mundua izan dedin gizonen tokia.»

Ugari egin eban baita egaztia,
 Eta euren artean bat larratxoria;
 Zeñi eregi eutsan ain ondra andia
 Egitean esango dodan itzaldia.

«Igozu gora-gora, beian itxi lurra,
 Eldu bekidaz zure soñuak zerura;
 Zure txorritxioak nik entzun gustura
 Daidazan, jo egizuz udan zeñbat gura.»

Loretan larrosea bere egitean,
 Diñotse ipiñirik begien aurrean:
 «Orren usain ederra zuri sometean,
 Maite izango zara gizonen artean-»

Azkenez, egin eban gauzarik onena,
 Beraren irudia zeñ dan bai gizona,
 Eta oni diñotsa: «Beti zure lana
 Izango da ni maite ta ondrau bearra.»

Alan dirautsa beti eguzkiak zintzo
 Bere egikizuna beteagaz txito;
 Larrosatxoak, barriz, bere usain gozo
 Gozoa zabalduen ez dau guretzako?

Bardin larratxoriak kantuen artean
 Jauna alabetan duu igoaz aidean;
 Eta gizonak geyen ondrau bearrean,
 Bere izen santua darabil saspean.

KATOLIKOEN ESKOLETAKO SANTU LAGUNTZALLEARI

¿Zer dogu zer bildurtu, lur au laño baltz batzuk
Gizaldi txar onetan illunduagaitik,
Izar batek baditu bere argitasunez
Desagertu egingo guztiak mundutik?

Izar ori nor jakun iragarri nai neuke,
Zergaitik oraindiño beraren jayotza
Dalako illunari eguzkiak legetxe
Larri ta estu jarten deusana biotza.

Eunkada urteak asko irago bitartean,
Ekatzak ¡ai! sarritan egin arren sortu,
Gaur gomutetan dogun eguzki argian
Arpegirik ez deutse oraindiño loitu.

Gau cta egun beti biziro agiri dan
Gar ori kantuakaz gizonak alabau,
Lenago eben legez, gaur bere bardin-bardin
Bere jayotza pozez gura dabe ondrau.

Alperrik aize txarrak aterako dituez
AI daben guztietan odei aldrak kontra,
Tomas'en bekokitik jasotako tximistak
¿Zeñek ipiñi baña osoro itota?

Txerren baltz gau zaleak guzurra ta abarra
Ereiñ bei gura badau Egia illteko ;
Tomas'en errañuzko saetak ikutzean,
Bide billa asten da iges egiteko-

Betoz orrexegaitik jakitunak ereñotz
Orriakaz burua egitera jantzi,
Zerren jakituriak koroi ori zor deusan
Beti garaipenagaz urten dan Tomas'i.

Betoz niretzat bere edurra dirudien
Lora, azuzena ta larrosa zuriak,
Dontzel illdakoari apaintzeko egoki
Duiñ jakozan legetxe buru ta lokiak.

Betoz zeruetako arpadun egodunak,
Betoz soñu-jotzalla guztiak lurrera,

Akino'ko eguzki illuntzen eztanari
Korro eginda soñu ederrak jotera.

Bekart aren arteko soñularien batek
Niri bere lira bat al danik leunena,
Danoen soñuakaz eldu dedin aizetan
Munduko ertzetara Tomas'en izena.

Zeñek leukaken bear lako doe ederra,
Alabau daigun ondo gizon ain andia,
Jasorik zeruraño zalako aragizko
Aingeru bat lurrean txito zurgarria.

Baña, ¿zelan ni lako kantari labur batek
¿Zelan jaso Tomas'i zor jakon gloria?
Noren burutik jayo ziran argi-errekai
Ezpanaz iñor bere jarteko neurria?

Baña, nik kantauko dot Egiaren zaleak
Zelan daben izar au beti billatuko,
Tomas'egan daukela argizko iturri bat,
Zeñek deutsezan laster lañoak kenduko.

KURUTZE BARRIARI KANTETAKO

Mañariarrak ogeigarren gizaldian

Agur! Salbaziñoko
Gure Ankoria !
¡Agur! Kristau maitien
¡O! Esperantzia !
Eskuan zaitugula
Azken arnasia,
Mañariar danok nai
Dogu emotia.

Ogeigarren gizaldi	Beti Mañaría,
Kurutzearena,	Fcdia daukalako
Bizi dakigun zure	Kristiñau garbia;
Gomuta ederra;	Beragaitik emongo
Untzilla etxera goaz	Nok leuken bizia,
Kurutzan penaturik	Jesus izan zalako
Gu askatutera.	Kurutzan josia;
Kurutziarena da	Zeñi deutsagun danok

Alan zor andia,	Zarealako Jesu-
Gorputz-arima eta	Kristoren giltzea,
Dogun on guztia.	Zugaz edegiteko
Nai leukie gaur dougak	Zeruko atia.
Mundutik kentzia,	Untzilla-atxian orain
Ainbeste gizaldidun	Zaitugu jasoten,
Gure ezaugarria ;	Zuk kerizpe eginda
Arbola bedeinkatu	Gu bizi gaitezen;
Zutunik jartera	Ikusia izan bitez
Guretzako bandera	Atxok bada arren,
Jesukristorena :	Ze urtetan guk jarri
Au zalako zerutik	Zinduguzan emen;
Beratu lurrera,	Alegin eingo dogu
Parerik bagia	Zutik zu eukiten,
Ziñan, zara ta izango	Mundui' dan artean
Ill arte guria :	Iraun «¡aizun. Amen.

ANDRA MARIA BEGOÑA'KOARI

(bere koronaziño egunerako)

Kantau beyoez gura dabenak
 Lur oni beko gloriak :
 Kantau beyoe aberatsenak
 Bizkayak daukaz mendiak:
 Kantau beyoe berdetasunez
 Dirala eurak jantziak;
 Kantau zeñ baño zeñ ederrago
 Dirala buruz jagiak,
 Emon gurarik legez geroko
 Egun obien barriak,
 Gagozalako gaur iragoten
 Illun ta negargarriak.

Kantau beyoe badaukazala
 Beste milla bat onari,
 Zelan Gernikan daukan Aretx bat
 Askoren bisitagarri,
 Zelan daukazan osagarritzko
 Iturri onak ugari;
 Bai ela kantau bere itxasoak

Gutzizko mesedegarri,
 Direalako erdaldun asko
 Ona oi dala *elorri*,
Uda aldia egite arren
 Bertan irago egoki.

Kantau beyoe ta eskribidu
 Luma ohea daukenak,
 Eta zerutik nik baño doe
 Geyago artu dabenak,
 Euskal-legeak izan zirala
 Lege danetan onenak ;
 Ta kantau eurak erakartea
 Atzera gura leukeenak,
 Dirala danak erritar onak,
 Semez euskaldun zarrenak,
 Zerren poztuten ez gaituezan
 Oitura erdaldunenak.

Kantau beyoez gloria orreik
 Kantari jayotakoak
 Direalako danak egiak
 Guztiak benetakoak;
 Beñ diralako lur-gauzak baño
 Izarrez anditikoak,
 Direalako espirituko
 Edo Jaungoikotikoak,
 Direalako betiko edo
 Ill bere ez egitekoak.

Orretarako zatoze baña,
 Zerutar egari taldak ;
 Aingeru galant onak, astindu
 Ego lumatsu zabalak;
 Zuen laguntza baldin ezpadu
 Ni lako gizon argalak,
 ¿Zelan billatu, nun topau leikez
 Berba egoki diranak,
 Eutzun dagizan poz-pozik zuen
 Erregiña andi laztanak,

Atarakotzat guretzat bere
Cutir ipintea nai danak?

Bai, Artagango Rakel ederra,
Jaungoiko baten maitia,
Etzara ez zu izarrak baño
Beragotiko gauzea;
Motzik badaukat esku onetan
Orain daukadan lumea,
Zuretzat berau litzate **bere**
Balitz zorrotz da ohea,
Zarealako Bizkaiko Andra.
Erregiña ta Jaubea,
Zarealako gure Poztasun,
Gloria eta Ondrea.

Noztik daukazun baneki barriz
Or dozun jazartokia,
Nozkoa dozun. Euskal-usoa.
Baneki orko abia,
Asiera andik emon da kantau
Eingo neuskizu gloria ;
Zeinbat gizaldi oneitan ortxe
Zarean agurgarria,
Ez jakiñ arren, baña badakit
¡O! gure Agintaria!
Zu zareala antxiñetako
Begoña'ko Andra Maria.

Zarealako antxiñetako
Euskaldun Andra entzuna.
Gizaldi asko onetan zara
Bizkaitar danen kutuna;
Alan itxasoz zeinda leorrez
Zara agertu dozuna,
Zu zareala Emakume bat
Bardiñik ez daukazuna;
Eta gañera Jaunaz ostein
Guztia al daikezuna,
Zarealako bere urrengo
Zeruko nausitasuna

Zarealako goi ta betetan
 Bakarrik Etxanderea,
 ¡Ai! zeinbat bidar agiri izan dan
 Au dala egi betea:
 Erakusteko ekatxen kontra
 Daukazun alizatea,
 Olatupean larri dagonak
 Deitzean «*Ama neurea*».
 ¿Otsoturiko itxasoari
 Zuk ezarrita kalea,
 Sarritan ez da jazo ontzia
 Bakez kalara eltzea?

Orretariko mirari asko
 Egiaztuak zu zara,
 ¿Minclun geiso ta elbarrietan
 Beste ainbeste etzara?
 Pitean-beiñ zuk darakuskuzu
 Gizonak ezin ebana.
 Zu zareala osatuteko
 Sendatzallea bakarra,
 Zure bitartez jatsi zalako
 Osnungiña gugana,
 Geixotasuna bere mendean
 Aspiraturik daukana.

Olatutzarra atxa jotean
 Gelditzen bada triskaurik,
 ;Zelan iruntsi arek al gaikez
 Zu gogorrago izanik:
 ¿Zein gatxek. Ama, etorri arren
 Asarrez arnoraturik
 Dragoetzar bat dirudiala
 Erpa zorrotzak zabalik,
 Nondik ta nora ak gu arrapau
 Zuk ez istera bakarrik,
 Bagiñe legez ez daukagunak
 Zugaz gurasotasunik?

Guraso baño gurasoago
 Znitugulako. Maria,

Zure mesedez gañez egiñik
 Daukagu Euskal-erria,
 Dazaugulako guri deuskuzun
 Larregiko ardura andia,
 Bidezkoa zan gomutetea
 Egin dan legez Bizkaya.
 Alan, artuizu abegi onaz
 Beronen ordaingarria,
 Ederragoa bere zergaitik
 Daukazun irabazia.

Goazen, bai, goazen bizkaitar danok
 Artagan'era gaur ariñ,
 Aberats, pobre, andi ta txiki
 Guztiok daigun alegin;
 Ango Maria gure aurrean
 Koroez jantzi gaur dedin;
 Erregepean bestek jarteaz
 Len bagcnduan artu miñ,
 Erregiñatzat Aman jartean
 Dogulako artzen atsegiñ,
 Begoñatarra serbitze arren
 Nai dogulako ill egin.

¡O! Begoñatar Andra andia!
 Betiko gure ongiña,
 Zarealako bear zatxakuz
 Izan aurrera Erregiña;
 Zu eregiten egiña gaitik
 Lengoak euren lagiña,
 Gaurkuok arei artzea gura
 Dogu aurea ta gaiña.
 Orregaitiño nai izan gure
 Koroia urrez egiña,
 Diamantez bai, egingo jatzun
 Aldunak izan bagiña.

GABON-KANTAK

Kantartea

Zeruak eta lurra,
Danak poztze arren,
Jaungoikoa gaur gizon
Jayo da Belen'en

Kantaldiak

Barri onak daukaguz,
Gizon eta andrak,
Seme bat egin dausku
Dontzella dan Amak;
Betetara badoaz
Igarten esanak,
Baita Aitalenenen
Itxaropen danak.
Goyak utsik itxirik
Datoz aingeruak.
Zabal dituezala
Guztiak eguak;
Pozgarri dira euren
Kantu ta bertsuak.
Direalako danak
Bake santuzkuak.
Adoretara datoz
Zeruen Jaubea,
Egin arren mundura
Sarrera pobrea;
Dakielako dala
Euren Egillea,
Gizondurik jayo dan
Jaungoiko Umea.
Isaias'ek ikusi
Antxiña ebana,
Orra lasto ganean
Umillik etzana ;

Izanik Jauregitzat
Zeru bat daukana,
¿Korta bat da etxetzat
Emen jagokana?
Andikirik bat ez da.
Artzain umildea
Agurtutera dator
Dabid'en semea;
Izanik erregien
Bera Erregia,
Aska baten daukana
Jayotzako oya.
Negarrez dago-eta.
Goazan poztutera,
Otzak ill ez dagian
Baita berotzera;
Ongi etorri on bal
Goazan emotera,
Agertu jakulako
Mesias lurrera.
Zatoz, ordu onean.
Jesustxo, gugana,
Zure premiñan txarto
Gengozanok gana:
Erdurionean
Zeru-lurren Jauna.
Desegitera gure
Illuntasun dana.
Utsik zarealako
Gure Eguzkia,
Baila gure bidea
Ta Egi guztia,
Zerua izan dedin
Zuk zeuk idigia,
An sartzeko gizona
Baita errosia.

GOIZEKO IZARRARI

Gaba badoala esan gura deustazu,
Sort-aldean urten zarean izarra;
Illunez bidean ibilten nazanean,
Pozgarri eder bat niretzako zara.

Eguzkiak aurrez ¿bialduten etzaitu
Egun usañagaz gu poztu gaitean?
Zuk ¿ez diñoskuzu arpegi aiñ zuriaz:
Ortxe bera dator nire ondorean?

Grana eta urre-gorritzko kortiñakaz.
Ikusiten zaitut txukun orniduta;
Zeruko doatsu eder bat dirudizu,
Odeizko jargoian galanto jarrita,

Gogoratuten jat, aiñ goiz zu jagitean.
Norena zarean iduri bizia ;
Dirudizulako beste egun senti bat,
Arako goiz-izar onen dan Maria.

OSTARKUA ETA MARIA

Izar guztien Erregeak len
Irago daben tokia,
Arturik orain ¿zer dakarguzu,
Ostarku arro jagia?
¿Zer dakarguzu aiñ apaindurik
Zazpi kolorez jantzia,
Eguzkiari aurre-aurrean
Zeiñ andiago jarria,
Zeu ete zara goi-beietan gaur
Bietan agintaria?

¿Zer dakarguzu zabalduagaz
Alde batetik bestera,
;0! arku guztiz pozgarri/koa,
Bandera baten antzera?
Neurri bagako urdin artetik
¿Zer dakarguzu lurrera,

Ango gerran bildurgarriak,
 Loturik lege batera,
 Eta zatorkuz bake gozo bat
 Guztioi iragartera?

¿Nondik ta nora sortuten **zara**
 Ekatz burruken artean?
 ¿Nolan burua ipinten dozu
 Goiko izarren parean?
 Ta ¿zelan anka luzeok barriz
 Idigi orrenbestean,
 Mendi aituak, ibar zabalak,
 Arturik euren artean,
 Ela nai dozu imindu au bere
 Zapaldutea oiñpean?...

Ez dakit nik zer nai dozun baña,
 Eltzen zu orren altura
 Ikusitean, pentsamentu **bat**
 Etorriten jat burura ;
 Ete zarean eskallaren bat
 Igo dagigun Zerura,
 Soñu gozoak, kantu ederrak,
 Entzuten diran lekura,
 Emengo negar danak largauta,
 Betiko Erri dontsura.

Mutill txikitxo nintzan denporan,
 Urteten ziñanean zu,
 Zeruetatik jasten ziñala
 Entzun da neban siñistu,
 Neure laguntxo ara joanak
 Ziranak gozoz asetu,
 Zure gañetik oi zireala
 Lur onetara baxatu,
 Ango pastelak gure artean
 Egite arren zabaldu.

Zenbat alditan, arku maitea.
 Nai neban zure azpiti
 Iragotea, ikuste arren
 Zer ziñan beste aldeti;

Atsegiñ au nik, baña, eneban
Jaritxi cta ez euki;
Ezautu neban zu ziñeala
Nire aldean nagusi.
Ordurik ona agaitik deutsut
Beti txapela erantzi.

Ordutik ona beti zatxatar
Oso gogoangarria,
Gomutetan jat zu ikustean
Iñozentien aldia;
Urte areetan aiñ neutsun bada
Gura izate andia,
Gañera uste nik neutsulako
Zu ziñcaln zubia,
Aingerutxoan olgantzetako
Tramanku makur jarria.

Onetariko amestxoetan
Zoro bat legetxe zuri,
Egoten nintzan noz aterako
Zinean begira zoli;
Odei torreak jagitea zan
Beli niretzat pozgarri,
Ikuste arren azkenean zu
Guztien garaipenlari,
Erakusteko zelan on utsa
Zintxakon mundu danari.

; A ! badakit nik Jaunak zer eban
Baten zugaitik azaldu,
Noeri Berak adierazo
Eta zer eutsan agindu;
Ak esan eutsan zerua odeiz
Egiten beban estaldu,
Bere ta gure bitartekotzat
Jarriten ziñeala zu,
Ez ebalako urez mundurik
Barrero egin nai ondatu.

Jarraia egizu zeure lanean,
Arku mesedelaria,

VIII.-----IRAKURGEIAK

Atsegienduaz itxasoetan
Larri dabillan **ontzia**;
Trumo i, oñeztu artetik **barria**
Asten danean arria,
Labore frutak galdu **gurarik**,
Berealaxe arpegia
Zuk atera-ta, ¿ea dozu nasai
Ipinten nekazaria?

Errazoiagaz, bertsolariak
Alaban zaitu egiten;
Atxurlariak ¡o! zenbat bidar
Zaituzan bedeinkatuten ;
Itxas-gizonak abegi onaz
Beti ta beti artuten ;
Arbolapean zuk noz urtengo
Euriaz danak aurkitzen,
¿Ez dau kantetan zu agertzean
Bere bidean jarraitzen?

Baita nik uste, iñoz izan dot,
Arku alabagarria,
Ete zarean gizon andien
Buruko edergarria;
Kriaturentzat baña, zu zara
Askozaz aziegia,
Zarealako Jaungoikoaren
Eskuko egiñ andia;
¿Ausaz bazara koroe ordez
Berak nozbaiten jantzia?

Ez, orrenbeste; auxe zara zu,
Kantau nai badot egia ;
Zu zara bada, Andra andi baten
Irudi garbi-garbia ;
Axe dalako zeru ta lurren
Arteko bakelaria,
Bera dalako Jaungoiko eta
Gizonen maitegarria,
Bataren Ama, eta bestien
Gurasoa dan Maria

Zure lana da beti poztzea
 Ekatzaz nnibagetua,
 Bete-betea zaitu Mariak
 Irudi berarizkua;
 Ari bere guk deitzen deutsagu
 Zuri legetxe Ostarkua;
 Baña zu zara koloreagaz
 Bakarrik egiñdakua,
 Bestea barriz eskallara bat
 Zerura egiatzkua.

¡¡¡NINTZAN. ENAZÜ!

I

Udako goizalde ¿zarratu baten
 Etxekuok pozez egun sentian,
 Itxasora giñan joan alkarregaz,
 Barre algaraka geure ontzian.
 jolas egun on bat iragotearren
 Lurretik urrintxo uren erdian.
 Iru seme ta erran euren semeakaz
 Bixardun. ezdun ta gazte gazteak.
 Neu nintzan bakarrik agura makurra
 Ditudazalako asko urteak:
 Baita zer eraso llobak asten yataz,
 Antxina ziranak izan umeak.

«Aitaña, zergaitik eztozu kantetan?»
 Itanduten eusten nastuak danak.
 Erantzuten dautset, motel sarri dagoz,
 Lenak gomutetan, ni lako zarrak.
 Kantau bear bada; baña gaur nik kantau
 Gura neukez bertso barriak danak.
 Poz-pchez kantauko nituke gazteak,
 ¡ Nor egon leiteken zuen sasoyan !
 Geyak zeinbat gura daukadaz urera,
 Zeru ta ludira begiratzean,
 Antzak atonduten, baña ¿non antzia?
 ¿Non daukat burua lengo bestean?

Alan be aor bat, entzun egizue:
 Illargia lotsaz goi urdiñean
 Zurbil, lotsaz doa jagi jakolako
 Arro Eguzkia bere aurrean,
 Itxas-egaztiak poztuten dirala
 Arpegia berak erakustean.

Neurtitzok amaitu egin ordurako,
 Asi ziran *jgora! jgora! aitaita;*
 Eta gitxienez ordu laurenean
 Jarraituten dabe txaloz goraka.
 Ainbeste dearrek, ainbeste garrasik,
 Belarriak istea deustez gortuta.

Alboko tramanku bateri neutsala,
 Begiak itxirik neure artean,
 Diñot: itxasoak ¡ai! neurria dauka.
 Joan eta joan, munan jotean,
 Gure bizitzeak daukala berbera
 Eriotzeagaz tope egitean.

Ganera eukala sabela sakona,
 Eriotzearen antz ta giñuan,
 Ez datorrelako batek zein bestek
 Iruntsi ezkerro barru barruan:
 Batzuk arraiñentzat, besteak arrentzal.
 ¡Zetara gatozan bein ildakoan !
 Itxasoa zeinbat gaztek, iragoten
 Daroe, arriskuak irago arren.
 Au doa asaora bertan ikustera
 Zakela gixendu urrez aldaben,
 Itxasoak asko itoten dauz baña
 Urreak eztaki iñor itoten.

Alan itxasoa baño sakonago
 Gixon askok dabe barruko osiña.
 Diru egarriaz yakela erretan
 Barruko ontzitxo bete eziña;
 ¡Zelan ganez eten ez ete dau berak
 Ixanik biotza koskor txikiña?
 Ganezka itxasoa sarritan nik dakust
 Bitsez orroeka egon eziña.

Agertzen dabela artegatasunaz
 Larregik deutsalala emoten miña.
 Zekenik, sabela asko betearren.
 ¡Orditu urreez iñoz egin da?
 Badakit *ziertu* iñoz eztabela
 Diruak asetu zale itxuturik:
 Gaztez zeken dana zarrez zekenago
 Zekentasunean dago sarturik;
 Beste *bizioak* zarrez ilten dira.
 Eriotzararte ez il zekenik.
 Itxas-zelai eder baten antzekoa
 Bixitzau antxiña irudi yatan,
 Lamiña bat bein otsezti ederrak
 Uren bazterrean entzuten neutsazan.
 Goxa zan au eta gabea baño len
 Illetea joten non ak derautsen.
 ¡O! guztiok dogun aldai bearra.
 Gelditu bagako aurreratzea!
 Ixana ixan zan. joana amaitu.
 Au da biurtuten ez dan gauzea:
 Kerixan daukagu bixitzeak dauka
 Irudi bat bixi ezin ohea.
 Alan gomutetan konorte bagarik.
 Sena galdu daben baten tayuan.
 Begiok, lo gitxi egin ebelako.
 Luak lotu-lotu bere loturan
 Eustazan, baña aren lotura ain lodia
 Lloben otsak eben eten beingoan.
 Iratzarriaz bat diñotset: ¡ai! llobak
 Bizi zare egun loratsuetan,
 Geu bere ibiltan giñan nebarrebak
 Zuek orain legez gazte egunetan.

Ijiji. ajaja, astrapaladaka
Joka, zarataka ez ta baidetan.

II

Uda bairia da gazte antzekoa.
 Zarra da negua dirudiana.
 Gaztea edonun ezagututen da,

Burua arin da loka daukala,
 ¿Iñoz, iñon al da non, noz ela nor.
 Igerturikoa ezetu dana?

Zeñek zenzakean joan, ez elorri.
 Orain arte egin oi dauskuzuna.
 Zure balioa noraño eltzen dan
 Neurtuten galtzen dot sarri zentzuna:
 Geroa badator, itxaron eginda.
 Doyanari ezin gerotasuna.

Eztago geldirik emen ezer bere.
 Sortu danak dauko jayokerea;
 Jayo danak dauko agoratutea.
 Agureak laster eriotzea;
 Ta eriotzeak sekula betiko
 Begien aurretik ezkututea.

Enintzan ni ezer orain eun bat urte.
 Zu gaur legez, Jauna, bardin ziñean.
 Eta beste eun bat irago orduko.
 Bakit zer izango danok garean.
 Jaungoikoa utsik beti da beti bat.
 Len. orain, gero ta betiraunean.

NEURE ADISKIDE MAITE ZIRILO ARZUBIAGA JAUNARI

(*Bere Meza barriko egunean* |

I

Beko aukeren zaletasunik etzeunkalakn
 Ikusten zaitut zelan zarean gaur abade;
 Ta beraugaitik alabantzetan, adiskidea.
 Zu seruraño goratutea gura neuke;
 Baña nik ¿zelan jaso zaikedaz zorutik goruntz
 Lurrean narraz ibiltzen banaz ni neu bere?
 ¿Ezpadaukat nik Agustin batek eukan egorik,
 Zelan izarrak baño gorago igo neike?

Eta ¿nun ditut abade baten anditasunak
Goratuteko bear dan añan itz sakonik?
¿Non esakunak, non bardinkuntzak, irudi eta
Orretarako bear neukezan dote onik?
¿Non ditut bada apaingarriak orniduteko,
Non bitxi eder, non egokiak diran lorak?
¿Non emokaiak, non gogamenak eta azkenez
fakiteazko etorri leun ta non ganorak?

Zure onarren baña zertxobait kantau bagarik
Ezin nindeke, adiskidea, gaur geratu,
Ezin nindeke abiau dodan arlo onetan
Lotsor bat legez aria eten da mututu;
Ezin nindeke aldatz andiaz aurkitu arren
Al dodan gore igo bagarik etxeratu,
Iturri onak, agortu dedin baño lenago,
Daukan ur dana egin bear dau argiratu.

Beraz abiau dakit agotik zerbait urteten:
Abiau zakit, itz-errekea, erioten,
Abiau zakit egarritua daukazulako
Artega, estu, edan zagizan itxaroten :
Abiau zakit zuri begira dagotzun orri
Bere eztarri eta sabela ezotuten.
Eskiñitera nire edari biotzeko au.
Zirilo, utsik zugana gaur naz zuzenduten.

Zuk bear dozu izarrak baño izan gorago
Egun onetan askoz gorago goratua,
Pedeagaz nik ikusi egin zaitudalako
Zeru-gañetik lurreratuten Jaungoikoa ;
Lenengo aldiz nik gaur ikusi zaitudalako
Egiaztuten orren mirari goratua,
Biotz guztitik agurtzen zaitut, oneretxi au
¡ Ai! gura neuke izan dakizun gogokua.

Lenengo aldiz ikusi zaitut, adiskidea.
Golgotan iaso eben Mesias zuk iasoten,
Lenengo aldiz ikusi zaitut nik gaur altaran
Ze eskubide andia dozun agertuten,
Lenengo aldiz: «Jauna zuekaz izan bedi» gaur
Meza-entzulai begiraturik dei egiten.

Ta eurak leial «zure espirituz izan bekigu»
Berealaxe zelan eutzuen erantzuten.

Lenengo aldiz ikusi zaitut tximista gori
Eta iusturi burundarien Egillea
Zuk eskuetan zelan gaur euki dozun berbera,
Bazan legetxe bildots otzan ta umildea;
Zeñen suaren ondoan utsa izanagaitik
Odei tximisten iautilarien asarrea,
Bigun bigunik ak zirudian gura ebala
Aukera atsegin dandanak zuri emotea.

T.enego aldiz emon deuskuzu benedeziñoa,
Jaungoiko aundi itzaltsuaren izenean.
Irudituz ostarku eder zu ziñeala,
Bere su eta gure erruen bitartean;
Lenengo aldiz baita eskiñi bake dontsua,
Zorionakaz lurean bizi gu gaitean;
Urte askotan egin daizula beste ainbeste
Lotatik zoli goiz guztietan jөгitean.

Adorau beie ordu berean lora argalak
Cura badabe Eguzki arro anditsua.
Alabau beie txorrotxioka txori zoroak
Axe balitz legetxe euren Jaungoikua;
Baña, Zirilo, goiz guztietan zuk adorauko
Dozu, egiñaz gaurko eskintza ain dontsua.
Eguzki, lora, txori ta arraiñak goiz eta arrats
Alabau bear leukien Argi Betikua.

Goiz guztietan areik guztiak baño gorago
Iasoko dozu milla aldiz gora zuk biotza,
Organu-soñuz eta intzentso-kez gozoturik
Erregutuaz baita kantuan iñoz boza;
Eta launari zelan gogoan sartuko iakon
Garra legetxe zugandik doian (leien otsa,
Bigunduko da bere barrua ta ¡o! zelango
Mesede-errekak intsiko dozuz gubanuntza!

¿Zer ziran bada antxiñakoen erreariuk
Lege zarreko taiuak eta antz guztiak?
¿Zer ziran bada Abel, Abran ta Melkisederen
Egunetako eskintza edo opariak?

¿Zer ziran areik eitanu txiki batzuk besterik?
¿Zertzuk ezpada oraingo mezen irudiak?
¡ Ai! baña gaurko egiagaz dauz atzean isten
Keriza areik abade Kristok ipiñiak.

Aingeruena baño gorago orrexegaitik.
Zirilo, dago iaritxi dozun duintasuna.
Abel, Abran ta Melkisederi etxaken emon
Zuri Eleizan zeugandu iatzun altasuna ;
Zear atsegiña aldakeozun emon Iaunari,
Eta zeruko danai zelako poztasuna,
Baita garrezko beko lezetan dagozan askoi
Askamena ta goiko betiko ondasuna.

¡Ze ederra dan errelejiño katolikua !
iZe pozgarria andik datorkun siñiztea !
¡Ze gozoa dan erbeste baltz au irago eta
Gero dogula bizitz argia iakitea!
¡Ze atsegiña Eleizan beti abadeari
Berbategitik egi andi au entzutea.
Eztala lur au gure erritzat egiña izan.
Eta billatu daigula goiko a bestea !

¡Ze zoli berak iaioagaz bat ipinten gaitu
Ara ioango garean bide zuzenean!
¡Ze ardurez iasoten gaitu iñoz lurrera
Oinkaden baten laban egin da iausitean.
Eta ¡ze prestu aldatz garratz au irago eta
Beste mundura aldatu bear dogunean,
Pasea bere abade jaunak emoten deusku
Zeruan zuzen sartuak izan gu gaitean!

¡O! abadea, bai abadea, bagenki nor dan,
Ze mallatara eukiko geunken goratua:
Beraganako ¿zer san Zesar bat, zer Alejandro.
Napoleon zer, ia lurreko jaungoikua?
Danak guztiak etziran gauza ez, biztuteko
Soldau bat iñoz euren aldera ildakua.
¿Baña abadeak daikela ekarri lengo senera
Arima illa ez da siñizgei fedekua?

Areik irurak gerren bitartez, baño bakeaz
Geiago da ta baita izango abadea.

Zergaitik onek arma bagarik daben sartuko
 Larra batera azkenerako gizartea ;
 Abadeentzat Jesukristoren Lauburuagaz
 Dago gorderik garaitz andi bat iaristea,
 Danok Artzain bat bakar-bakarrik buru dogula
 Eta beraren azpian danok bizitea.

Abadetzako ziñealako zu bere iaio,
 Zara Jesusen mastietako langillea,
 Zuk dirudizu. Zirilo, gazte eta zardena
 Nekosta deitu egiten jakon 'andarea :
 Ta ez zarika bekorra legez beti zorua
 Gogoan daukan zugatz negarti lur zalea;
 Lur zale baldin izan baziña, Obispo Jaunak
 Ez eutzun ingo buru erdian ez, koroia.

II

Baña oraindik beste gloria andi bat bere
 Kantau bagarik eneuke gura ixiltzea,
 Asieratik agertu deutzut neure gogoa,
 Zu zeruraño alan eregi egitea;
 Eta asmo au agertu baldiu egin badeutzut,
 Baita nai neuke egiaztu ta betetea:
 Zuzen dagotzun ta duiñ zarean alabantzeaz
 Ez da larregi zor deutzudana emotea.

Zuk badakizu ontzigilleak dabela lurraraz
 Berak ze ontzi nai daben axe atonduten,
 Baña. Jaunaren eskuak moldau zu zaituzala
 Basu autu ta berarizko bat dot ikusten;
 Zugan uts utsik santidadeko likurt gozoa
 Lurrusaiñaren naste bagarik gorde daiten,
 Oker esan dot: Santutasuna berbera danak
 Gura dau bere kopoe eder izan zaiten.

Duda bagarik kopoia zara zu gaur, Zirilo
 Ez iurrezkua, ezpada urregorritzua,
 Nakar, zafir ta diamantezko edergaiakaz
 Ederto baño edertoago edertua;
 Zegaitik bertan gura dabenak ein eguero
 Egotaldi ta bere ikuste goizekua,

Ez da lureko gizon argal bal, ez ta aingerua,
Ezpada eurak egin ebazan Iaun altsua.

Erregearen etxearentzat iauregia da
Euskaldun izen garbia eta adjutua,
Zure bularra Erregegiñak bere etxetzat
Egiña bada, ¿zein ete dogu duiñekua?
Kantauko deutzut mezatan egun santu danetan
Ortxe artzera zoazalako Iaungoikoa
Dala berariz berak egiña berberarentzat
Beian berori ¿zan dakion iarlekua.

Udabarria bere akegin badau guretzat
Lora, orri ta bedar usaintzuz apaindua,
Bearrekoa arima ori da izatea
Udabarria itxi daikena negutua;
Bearrekoa ¿antzi urdin ta begi zabalaz
Goia badago zuri begira zoratua,
Goiurdingiñak zugar iarteko bizilekua
¡O! Zirilo, zu zatxakoz zeru lurekoa.

¡Agurtzen zaitua esparru eder aukeratua,
Agurtzen zaitut Iaungoiko baten iarlekua!
Zu duiñ ederra etzala izan kantauko deutzut
Adan ta Ebaren ortu galant ta loratsua;
Agurtzen zaitut ¡o! paradisu askoz obea!
Vu etzalako bizi izaten Iaungoikoa,
Agurtzen zaitut agur onetan zuri deiturik
¡Agur Zerugin danaren beko zerutxua!

Emcn izanik lureko zeru gero izango
Zatxakoz bere adiskide bat goi-zeruan.
Izar eder bat argitasuna baño besterik
Ez daukazuna arpegi orren inguruan;
Illuntokiak argituteko iaio baziñan
Lanpara eder izan ziñaiten gaur zoruan,
Duda bagarik gero izango zara izar bat
Zorioneko eta betiko erreñuan.

ERROSA'RI

(*Mondrago'ko Kontzeziñoko komentuan lekaime-jantzia
artu bezperan, 1893-XII-29*)

Agur, agur, Errosa,	Mats-parreak badeutsa
Zoaz komentura,	Eltzen egurrari,
Zoaz ez jatsiteko	Errosa'k gura deutsa
Ain mundu galdura;	Gaur kurutzeari;
Zoaz, zoaz, zoaz gaur	Biotz ta arima bat ein
Líbano altura,	Bertan ill zanari,
Andik igo dagizun	Eriotzan koroia
Birjiñen tronura.	Artu dayan sari.
Zoaz triste itxita	Eriotzeak danok
Aita eta ama,	Gaitu arrapauko,
Neba ta aiztai emonik	Bere sareetatik
Laztan samur bana;	Ez gera librauiko;
Zoaz, zoaz betiko	Zorionekoa da
Esposoagana,	Jayoa gorako:
Jesus dalako zure	Errosa. zu zera bat
Maitagarri dana.	Zu bai zerurako,

Batuko al gora ango
 Zelai zabaletan,
Ango zedro mardoen
 Kerizpe ederretan;
Inozente, birjina
 Ta ezkonduak bertan
Jauna alabetako
 Betiko urtietan.

II

(*Jantzi santua artu ondoren, itz-tokian esandakoak*)

Tortola kantari bat	Txoriak txorro-txio
Berez gaur kayolan	Ein arren arbolan
Sartu dalako nai dot	Onek nai dabelako
Iragarri nor dan,	Birjiñen txabolan,

Bertan bizi dan Bildots Bere usain ederra
 Gozoaren ondoan, Komentu onetan
 Gero kantau dagion Laster asiko dira
 Goyan leku oban. Lagunak sometan,
 ¿Zelakoa ete da Ta bere organuko
 Uso orren boza? Soñu gozuetan
 Dirudi aingerutxu Esango dabe. «Orain
 Baten dala otsa. Gagoz zeruetan.»
 Zelakoa dan, barriz; ; Ze bizitza on ela
 Berorren biotza Zelako dontsua!
 Garbiro kantetako Munduan komentu bat
 Bere enaz lotsa; Da Paradisia;
 Jaunarentzat dalako Au da zeru-loren
 Lora aproposa, Ortu zarratua,
 Zeruak gaur goizetik Lurreko aingeruen
 Agertu dau poza. Abia lekua,
 ; Nork leuken Errosa'k Bertan bizi dalako
 Daukan suertea! Santuen Santua,
 Diru guztiak baño Dabid'ek alabetan
 Bera da ohea. Eban Jaungoikua.
 Izan arren Jesus'en Beraz maite daikezu,
 Len azuzcnea Errosa, zeldea,
 Eta bioleta bat Egodun txiki batek
 Oso umildea; Legetxe lorea;
 Amodio garbizko Bakit etzareala
 Gaur de larrosea, Baña zu erlea,
 Dalako dontzella, Ezpada egazti bat
 Gañera mojea. Askozaz ohea:
 Jardun dalako berau Largetan dozunean
 Birtute daunian, Beko kayolea,
 Dirudi loratxozko Zerura egatzeko
 Sorta bat benetan; Zara tortolia.

IX.—ERDERATIK EUSKERATUAK

*Ez dakit latin, ezta greziar,
Ela ez ondo erderaz;
Augaitik deutsal seme-alabai
Beti egiten euskeraz
Erriko eskola gitxia dakit,
Enaz argitu bestegaz;
Gizon aberats ¿zein, zelan izan,
Nos ta non diru bategaz?*

;

E K A T X A

(Zorrilla jaunak erderaz egiña)

Zer nai dabe uts urdiñ argi iraztekoan
Odeyok pillaturik asarrez gaur ala?

Egiñik Burzerua onenean estaldu
Burrukarako legez gertetan dirala?

¿Ze zanak arrastaka daroaz osarteetan?
¿Ze indar ezkutukok deutse bultzatuten?
Zeru sakon zelayak argitzalla bagarik,
Zearka ibilliaz dabezala isten?

¡ Ze bizkor, ze agudo direan metatuten !
Banandu alkargandik baita bereala.
Izar-erria dana osoro illundurik,
Urdin pozgarrizkoan ipiñirik gaba.

Mendien gañetatik laban-labanka doaz.
Itxas orroetsuruntz astiro ixillik,
Illunpez upaturik zeru alderdi biak,
Lurra euren barruan zarratu egiñik.

Iges, iges badoa, igesi Illargia:
Iges, iges izarrak doaz ezkutetan:
Agintzen osarteetan odeyak utsik dabr.
Izar-erririk oztaz dogu begiztetan.

Alperrik nekatuko gara ikuste arren,
Eun baltz izugarriak gorde dauz atzean.
Zeinbat nekatuago zulatzen ein begiok,
Ainbat jarriten jakuz odeyak aurrean.

Eurak bakar-bakarrik geroago geiago.
Mundu lo dagonari datorkaz gañera,
Berau bere bidean doian ots bakotxean,
Besteak inguruak doakoz artzera.

Oñeztuen argira esan lei direala
 Odeizko metak mendi ikaragarriak,
 Garra darioenak euren erraietatik,
 Beste batzuk zaldizko armada andiak.

Beste batzuk esan lei piñudiak dirala.
 Oesbardiñak dituez kopa ta kanpuak,
 Koloreak beingoan barriak aldaturik.
 Dabiltzaz aruntz-onuntz ezin geldituak.

¿Ze besok, ze raegopek bultza ta zuzentzen dauz?
 ¿Nok euren errayetan diardu berbetan,
 Urrumaka doiala osti burrundaria,
 Trujua euren barrutik baita arinketan?

Ausaz danen erditik Egilla altsua doa.
 Lurraren ertz bazterrai begiratutera.
 Ete doian mundua oñetatik galdurik.
 Aurkitzen dan lekutik alde egitera.

Edo doakon nago burdiaren ondoren
 Txerren zital erkiña jarten illunpean.
 Metaturik odehyak aren gloriaren ta
 Beronen zorigatx ta illturen artean.

Benturaz euretatik ¿ete da bat edo bat
 Kerizpetu ebana Sinai'ko mendia,
 Ezkutapen gartsuak argitzen ebanean
 Bertara igo eban igarla andia?

Edo ausaz ete da euren artekoren bat
 Sodoma'ra ebana sugarra isuri,
 Edo itxasoetan mundua ondatzeko
 Urjol-gei andiren bat dabena iruntsi.

Izarraturik gabak urriñetatik diñost:
 • Ara an zure Jauna, an ezkutau jatzu.»
 Gau odeitsua, barriz, deiez-deiez dagokit:
 «Jaungoikoa urrera oraintxe datortzu.»

Bazatozkit ¡o Jauna! zure mantuko orlok
 Suzko odei artean ditut begiztetan.
 Tximistaka zeruan zearka zoazala
 Arpegi txit dontsua deutsut ezauketan.

Dazaut zure kerizpe doiana kolortzaka.
 Igerian odehyak dabiltzala [liliak.

Dazaudaz lurrun ketsu ugarien erdian,
Daniel'en amesak ta mamu zurbillak.

Dazaudaz zure oñatz ezin nik ikusiak.
Ostien amorruzko orroien artean,
Zure burdiko txinpart biziak tximistetan.
Dazautsut arnasea Akilon aizean.

¿Airean zear doian lasto igar bat baño.
Jauna, zure aurrean besterik zer garn?
Zu barriz begiz egun, kerizpez goi urdiña.
Putzaz sortitza eta Betikoa etzara?

Bazaudaz ;o Jauna! nik adorau gura zaitut:
Espirituaz auspez nagotzu oñetan,
Miña dot mutu zerren ez daben adietan.
Jeoba'gana eltzen diran kantuetan.

Uso ibar-zaleak, urruok ekatzuez.
Surrumurru samurra baita, iturriak.
Baso berdeak, zeuen murmullutxo gozoa.
Jaunari kantetako batera gloriak.

Zuen otsa baletor oraiñ nire arpara,
Berotzen banau, Jauna, zure espirituak.
Igarlearen suaz biotz au gorituta,
Nire kantik litzakez bardin bagakunk.

Orritxoena baño eztiago litzakez,
Alperrik Aprillean arena da gozo,
Fenis'ari atzea emongo leuskioe,
Erretxiñola lotsaz leukee gorritukn.

Kantu aiñ eregiak urrin itxiko leuke
Eremu luzeetako korront ots apaiza,
Baita baletor bere txirringolan txirrinkaz,
Irrintzaka irradan itxas truju latza.

Lira onegaz baña makurtu bear dot nik.
Odeyez apaindurik zakustazanean,
Illten jat eztarrian bozau indarrik бага.
Oñeztuka zeruan Zu zoazanean.

Azken bagako zure espiritua doa,
Begi lausotuok naiz ondo ez ezautu;
Arima onek zurturik, jarririk belauniko.
Odeyen kolkoetan adoretan zaitu.

LEPANTO'KO GARAIPENA

(Herrera jaunak erderaz egiña)

Jaunari kantau dayogun itxas zabal zelayan
 Traziar txarra oinpcra zelan sartu eban:
 Gure guraso, beso, eskuma, gloria, osasun
 Eta jaungoiko zarealako batalletan;
 Zuk, Faraon'en bekoki astun eta armadak
 Itxi zenduzan triskau, zetu ta birrindurik,
 Noren prinzippez itxas sakona zenduan bete,
 Arriak legez ondarretara ondaturik,
 Lasto igar bat suak desegiñ oi daben legez
 Zeuk asarrean danak itxita iruntsirik.

Ontzidiagaz zeken arroa, oso puztu zan,
 Bere izanak ainbesteraño ziralako.
 Eta gureai lepoa lotu baleutse legez
 Beso altsuak jasoten ditu agintzeko:
 Lurreratzen dauz beingo batean goyenetako
 Zedrorik sendo, indartsu cta zuzenenak;
 Oinperaturik zugatz argalak, aurrera dator,
 Edanaz urak, izanagaitik iñorenak,
 Geure lekuak zapaltzen deuskuz azartasunaz.
 Danak guztiak baziran legez berarenak.

Txikiak dira anabasturik ikaratuten.
 Bere asarre tximistatsua ikusirik,
 Jaun Jaungoikoa, zeurorren kontra eregitea dauz
 Arpegi eta bularra biak arroturik ;
 Bere besoak armaz jantzirik zabaltzen ditu,
 Sama zardena alboetaruntz biurtuten,
 Itxas-urakaz ezotzen diran bi Esperiai
 Biotz edendu zitala deutse agertuten;
 Zugan zergaitik itxaropena ipinten daben,
 Zure fedezko armaz zergaitik diran jastzen.

Erremuskadaz lotsa bagarik onelan diño:
 «¿Ez al dazaubez lur oneik nire tripa erreak?
 Ungriatarraz batuagaitik ¿noz azpiratu
 Egin ebezan nire Asaba errimeak?

¿Zeñek librada egiñ ebazan Dalmazia ta
Rodastarrakin euki zituen gerretatik?

¿Zeñek libradu Austriar eta Germaniarrak
Artu zituen ainbeste tunda latzetatik?

Ausaz gaur euren Jaungoikoak dauz librauako ba-
Nire eskuma onen indartsu eskergatik? [rriz

Euren Erroma bildurrez eta umillik dago,

Bere kantuak negarretara dauz biurtu,

Bera ta bere semeak dagoz gaur lau orrian,

Sumiñaz eingo ete ditudan auts biurtu;

Frantzia dago ezdabaidakaz erdibiturik,

Eta banderan jarten dabenak Illargia.

Oso birrindu ez dayan dauka España larri;

Orrexegaitik oraintxe dogu guk aldia.

Baña Españak ezpaleu bere alako gatxik

; Zeñek, bai, zeñek emongo leuskit arpegia?

Erri altsuak burua umill makurtzen deuste,

Buztarria neuk euren kaltean deutset lotu,

Eta biziaz salbeta arren euren eskuak

Koldar gaixoak egiten deustez neuganunztu.

Euren argia bera jausiaz doa illuntzen,

Euren muruak danak lurreruntz. or badoaz,

Euren' dontzellak katigu dagoz ene mendea,

Euren gloriak geuregandurik danak goaz,

Nilo'n asi ta Eufrates'etik Istro otzera,

Eguzkiak gaur dakutsazanak artu dodaz.»

Jauna, ez dozu iruntsiten zuk zeure ondrarik

Lapurtu dayan orrelan iñoz anditsuak;

Nabarmen onek, begira, barriz, zelan dituan

Arlorik loitu zure altara aiñ santuak;

Ez egizuz zuk, arren, orrelan zapaltzen larga,

Ez bitez izan onak pistien iñoz jaki,

Ez begi. Jauna, onen odolik arerioak

Sekula bere probau, edan ta ez irunsi,

Diñoalako: «¿Nun da gaur orreen Jaungoiko ori

Eta zertako orren gorderik jake bizi?»

Zuri zor jatzun gloria andizko izenagaitik,

Zure jenteen bengantza zuzen aregaitik,

Euren zotin ta negar, zizpuru, tristen alde,

Jaso-izu, jaso zure besoa, berbertatik.
 Gizon bere gaur nai ez dabena izan ; o **Jauna!**
 Zeure ondreaz jarri egizu lotsaz gorri;
 Iru eta lau bider agertu egiozu zeuk,
 Zeure kastigu gogor garratza atsai orri:
 Berrorrek egin deutsun iraiña zeurorren kontra,
 Bera illteko ezpata zorrotz izan bedi.

Zure izena zapaldu nairik eregiten dau
 Buru altsua, eta biltzen dauz albokoak;
 Gu galdutea erabagirik batzarre atan,
 Entzuten jakoz deadar, ulu ez gozoak:
 «Goazen, agudo, goazen bai itxas sakon erdiruntz,
 Odol gorritzko osiñ biurtu au dedilla ;
 Arrain jakitzat, aren arraza zantarra, arren,
 ;Milla arranoa ! arras gaur, arren, itxi illa;
 Desali geratzen direan gauzak, geuk zatiturik,
 Etorri bedi gura' dabena euren billa.»

Batoz Asia eta Ejipto izugarritik,
 Arabiar ta Afrikatarrak alkaturik;
 Batoz Greziar euren aldera urten dabena,
 Sama zarden ta oso zuzenak goraturik;
 Batoz altsu ta ezin kontala direalako,
 Erabagirik desegitera gure asmuak;
 Batoz illtera zearo gure gazte guztiak,
 Euren burdiñak jarri ta ondo zorrotzuak ;
 Batoz umeak preso artzera, eta dontzellak
 Ipiñitera gloria бага illunduak.

Itxasoaren kolkoak artu laster ebezan,
 Lurra egoan ixiiñ-ixillik bildurtuta;
 Gure errutsu, biotz andiko, adoretzuak,
 Egozan mutu, zer egin ezin asmaduta ;
 Baña asmaurik eukatselako dana al dabena
 Txarrai gerra bat euren glorien galgaria,
 Alan bearrez ausariatat bat jarkiten jake,
 Eta beragaz gure España gerraria,
 Ez ebalako Jaunak nai izan Babel'ek preso
 Euki egian Sion, zeñ jakon bere Erria.

Legoia egon oi dan erara eiza artzeko,
 Dongak egozan katolikoai itxaroten;

Oneen jagola ziñealako baña zu, Jauna,
 Biotza jake bildur jantzirik billostuten,
 Goiko arnasa pozgarriagaz zuk sendotuta
 Adoreturik sartu zeitezan batalletan ;
 Euren eskuak baila besuak zuk, zeuk deutsezuz,
 Galtzairu-arku zaill-zailen gisan gcrctaketan,
 Ikusi zedin zeure ezpata zelan ebillan,
 Euren eskumen arma zorrotzen zirtzartetan.

Arritzen dira anditzai ara joan ziranak,
 Sendoak cta bioztsu danak ikaratu,
 Burpill goyena oi dan erara beruntz itzulten
 Zuk, gure Jauna, txarrak zenduzan azpiratu.
 Gure bateri milla igesi urrin doakoz,
 Lasto bat zelan aize-putzetan dan joaten,
 Mendi txuntxurak diran legetxe gorri jarriten,
 Inguru danak su eta garrak badauz artzen;
 Modu berean inguraturik zure sumiñak
 Areen arpegi arroak dira lotsatuten.

Zatitu zeuntsan dragoë gogor ari burua,
 Ebagi ego ezaiñ ta beso indartsuak;
 Aiñ mutilldurik ikusitean bere burua
 Eskergak ziran aren orroi ta txiliuak.
 Ezkutetan da lurpeko leza itsu batera,
 Txistuka bere suge lagunak doaz ara.
 An lau orrian illunpeetan dagoz gaixoak,
 Zerren legoiak sarturik euken larri ikara,
 Nok España'tik urtenagaz bat atera eban
 Orroiak, emon eutsen lenengo bildur txarra.

Euren giari gizatxar areik au ikusirik
 Bere begiak biurtzen ditu lurreruntza,
 Eta Zu, Jauna, izan ziñean gora jaso,
 Eldu zalako zeurorren egun latz garratza;
 Martizdi ondo armaduaren Jauna, zara zu,
 Zara Tiro'ren idun zardenen mostutzalle,
 Zara beraren zedro zuzenen menpelaria,
 Zara beraren mendi altuen Jaun ta Jaube,
 Bere torreak, bere muruak, bere ontziak,
 Zureak dira bereiztu бага batxo bere.

Babilonia eta Egipto izango dira
 Zure lantza eta zure suaren oso bildur.
 ¿Ze ke-moltsoak igoko daben egun argitan!
 Txarrak dirala egiten oso zur eta lur.
 Arpegi illunaz leku ezkutu poz bageetan
 Negarrez dabe irago bear lotsaria.
 Zure tristea, Grezia. bere, zarealako
 Egipto'tarren laguna eta pozgarria,
 Jaungoikoaren bildur santua botarik, zerren
 Jarraitu dozun euren bandera galgarria.

Nasaikeria zale orregaz ¿zelan zenduzan
 Lotsagarririo zeure alabak jantzi loraz?
 Zure frutuak ezaindu gura ebezanakaz
 Euren oiñkada iguiñgarriai jarraituaz?
 Eta sekula ez dozulako negarrik bota.
 Garbietako egin zenduan dongarua,
 Jaunak berberak bere asarez bengauko deutsu»
 Ebagiagaz iduna zuri ¿o gaixua!
 Eta ¿nok barriz bigundu daike ezpata miñaz
 Berak jasoten daben besotzar indartsua?

Zeure ontzidiz puztu ziñean zu bere, Tiro.
 Itxasoetan baziñan legez zeu nagusi;
 Baita lurraren ertzetaraño zeure gerrakaz
 Bildur larria zeuk bazenduan sar erazi.
 Zuri bere ¿nok kendu eutsuzan al izateak.
 ¿Zeñek armadu eutsun dakusun lotsaria?
 ¿Zeñek ipiñi tayu orretan gloria baga?
 ¿Zeñek ekarri orrenbesteko lazzeria?
 ¿Nok gautu zure gerrari orren pare bageai
 Lenago euken izen argitsu eregia?

Negarrez ito zaitetze, itxas-ontzi arroak:
 Zuek zenduen argia dago amataurik.
 Iratargia banderau jarten dozun orri /nok
 Baña artuko? nok deutsu oraiñ errukirik?
 Nasaikeria zale zarean, Asia loya,
 ¿Nok arlu daike zugaitik damu puskaren bat?
 Nok erregutu daike zugaitik ¿zeñek eskatu?
 ¿Zeñek bazeunkan zeure burua Jaungoikotzat?

Jaunak bengetan badeutsuz bere zeure okerrak,
Eurok kastigu eske dagokaz zeurorrentzat.

ikusi ziran zeure besoak erdibiturik,
Urak ibilten zure piñurik batxo бага,
Zeintzuk lenago pota ta lauak loitzen bebezan,
Ikusiagaz gero betiko ill ziñala,
(Esango dabe galdupen orrek ikaraturik)
Indartsu ori ¿zeñek ete dau azpiratu?
Jauna bera da bere prinzipe fededunaren
Eskuz dabena bere eskua argiratu.
Bere gloria andiagaitik, zeñek nai eutsan
Gure España oni garaítz au eskuratu.

Bedeinkatua, Jauna, zeurorren anditasuna.
Ainbeste kalten, ainbeste gatxen ondorean ;
Gure erruen kastigu latzak zuk bota arren,
Arerioa jarri zenduan ankapean,
Arrokeria antxiñakoa birrindu zeuntsan.
Betiko sutan kondenadurik bizi bedi,
Zure esleidu danak adorau zagiezala,
Zeru guztiak zeure izena jaso begi;
Zu zarea la gure Jaungoiko poziutzallea,
Ao betean lurak guztiak kantau legi.

GUZMAN ONARI

(Quintana jaunak erderaz egiña)

Ura gozozko soñu ta kantuz badot jasioa
Edertasuna, alaba galant zeru goikoa,
Orain gauza bat, baña, barria dot jaso gura,
Egan egiñik Famak goyetan daukan tenplura ;
Berak deitzen deust, berak bular au ixioketan,
Salsa besterik agiri ez dan zoru onetan
Jatazalako oso nekatu emen begiak,
Topau ezinda kantagarriztat gei egokiak.
¿Zer ete da, zer, zeren gañean kantau bearra?
¿Pirineo'ko mendietako gure negarra?
¿Maborte'k baten an emon euskun ordu zantarra?

¿Edo igesi egin ebala beiñ billdurturik,
Gure eskuadrak bretañatarrak ikaturik,
Jakozalako oneek murrustu su ta gaturik?
Ez dira oneek, ene España, jayoterra,
Ez da betiko ordu txar areen gomutgarria,
Estaldu daizun baltzez arpegi orren argia.
Beste egun batzuk kantauko dodaz askoz obeak,
Noz azpiratu zenduzan etsai aiñ errimeak
Ereñotzakaz lagunduteko zu koronetan,
¿Zergaitik jayo ez ete nintzan egun areetan?

Orduan ziran Alfonso gerran adoretua,
Jimena eta Errodrigo'ren seme errutsua,
Mauruentzako nortzuk zirean bi oñaztarri,
Zerren trisketan zituelako nun-nai ugari;
¿Nok kontau daikez euren garaitzen gloria andiak,
¿Zeinbat zelaitza, ainbat mendiska gorritz jantzia,
Izan baziran baten etsaiak oiñperatuak,
Euren odolaz gero etziran loibagetuak?
Zenbat lekutan egiten eben azarkeria,
Ainbat tokitan artzen ebela duiñ zan saria
Josirik bertan izentxoren bat barribarria?

«Agaitig-egin ots eban baten Arabiarrak-
«Erdue arin, arren. Agarren seme azkarrak;
»Guk lotu geuntsen buztarrizarra bota gurean,
»Or nun dabilzan buztarpetuak alegiñean.
»¿Edan giñaike euren burla ta barre algara?
»Ez, deabrua, ontziak artu, goazen gerrara,
«Europa eten Libia'z egin eban lekua
«Salbau dagigun, naiz-da burrukan itxi narrua;
»Gure gorroto, iguiña eta kastigu miñak,
»España'rentzat izate ez arren leun atsegiñak,
»Jo ta ebagi, aurrera, aurrera ¡ea mutillak!
»Artu Tarifa, eta artu Kalpe, geugandu biak.
»Edo kiskaldu, erre ta austu, alako uriak.»

Zorionean, Julian etzan gordelaria,
Edo Tarifa zaintzen egoan agintaria,
Ondraz. adorez, baita biotzez askoz obeak,
Lotzen ebazan bere giltzakaz ango ateak;
Ondra, adore ta bioztsuak baizen badira,

¿Nor sartuko da orreek gogortzen diran errira?
 Birtute oneek zaintzen dabezan lorre-muruak,
 Iñoz ez dira saldukeriaz eskuratuak
 Orrexegaitik zure izena ez da aztua,
 Nunmanziatar Tarifa, uri dontsu, santua:
 Antxiña bere birrinduteko erromatarrak,
 Euren arrano, euren itxaso, euren indarrak,
 ¿Zeñek zinduzan zeure iraupen sendoak baño,
 Egiñ libre ta bildurgarria izateraño?

Jagola dozu gero beste bein Guzman azkurra,
 Eragozteko zugana sartzen mauru zakarra,
 Zugandik arlu eban jipoi ta tunda garratza.
 Etxakolako izan uste duiñ gozo apaiza,
 Bere garrasi, bere deadar, bere uluak,
 Zirealako audiakazko eta arruak,
 Diño sututa entzun dagian areriuak:
 «¿Gizontxo batek ete nau gaur ni atzeratuko?
 •¿Uste nebana ez ete dot nik eskuratuko?
 ¿Entzun nai badok, Guzman, zelan nik dodan men-
 Ire seme bat ill daikedana nai dodanean, [dean
 »Alanbearrak eustalako au emon eskura,
 »Eta aterik zabaldu laster ezpadok gura,
 »Berau ill arren, urrean iri ez deusk ardura,
 Bada kenduten oni bajeutsat gaur bizitzea,
 Eu izango az emonikoa eriotzea.»

Andikeriaz gaiztakeriak itz egin eban,
 Bakezaleak zeñek ipiñi zituzan gerran,
 Baña alperrik mintzatu egiñ an zan orrelan;
 An birtutea, an bereala, an zan atera,
 Mauru maltsiñen arrokeria lotsatutera;
 Birtutez Guzman an argitua zan, an zan bizkortu.
 An etsayari ezin obeto jakon autortu:
 «Baldin ezpadok ezpatarik or naikoa danik,
 »Nire semea itxi dagian bizi bagarik,
 »Plazea largau baño lenago or dok neurea,
 »Botaten deuat zatitu dayan ene semea;
 »Ene erriaren altaran ori illten ikusi,
 »Nayago juat jartea baño ni neu itxusi.»

Larrituten da kanpo guztia zotin eginda.
 Zer jazoten zan illtekoagaz asmau ezinda,
 Nogan galtzairu-punta gogorra zala estaldu.
 Entzun orduko Kalpek damua eban azaldu.
 Lausotzen jakoz gerrariari begi sutsuak,
 Bere arpegi zurbilla busti malko beruak.
 Azkorlu zaite baña naibage askodun aita.
 Zeure Españak zaituzalako ainbeste maita,
 Bialduten dau Fama tronpeta zolienagaz.
 Arritu dedin mundu guztia Guzman zaillagaz :
 Eguzkiaren jagi lekutik sartu tokira.
 Legetxe egan Ipartokitik Eguerdira.
 Doa zarataz: beste Guzman'i iñon ez dala.
 Onen mallara sekula iñor igo etzala,
 Leyaltadeak bere altzoan goyan daukala.
 Ulu eskergau maomatarrak entzundakoan.
 Arin-arinka iges ux eban egin beiñgoan,
 Arerioa beban legetxe orpo ondoan,
 Ur zabaletan tximista legez ugar doiala:
 «Goazen emendik (diño) ondartza geureetara :
 Arranoari artu dabena erpe artean,
 ¿Nungo otsoak kendu leikeo egan aidean.
 Odeyez gora nai-nundik zabal dabillenean?»
 Ikaraturik euren zetroa badoa beera,
 Euren tronua eroan eban euren lurrera,
 Eta godoak zelan erautsen sendo gerraka,
 Afrika'n zear mauru kikillak doaz karraka.

Musulman dongak orretaraxe doaz emetik
 Biraoz, etsita gure gertari za illen aurretik.
 Zitala utsik zelan isurten eutsen aoak,
 Nai-nok esango eban zirala deabruzkoak.
 ¿Uste al eben gure legoia buztarripean
 Erabiltea nai eben gisan euren menpean?
 Alperrik onek eratxo baten iraun ixillik,
 Begoan legez otzandu eta umill-umillik,
 Alako baten zardenduten dau bere burua.
 Erakusteko erregetzako zala jayua;
 Bere mendean dagozan legez mendi-basoak.
 Ikaraz erri auzoko ela urriñekoak,

IX. —ERDERATIK EUSKERATUAK

Agaitik lotu dayan baño len iñok iñola
Dabela emongo biziaz naste bere odola;
Ta irauñ dayan libre lokabe beti Españañak,
Zoli dagola zatituteko arrotzen mañak.

B E R N A R D O A

RONZESBALLE'SKO BATALLEA

(Valbuena jaunak erderaz egiña)

Andiustca jayoten joyan egunerako
Urrezko klarin batek beiñ eban iratzarri,
Askorentzako azken eguna izango zala
Onek begia zabalduaz bat iragarri,
Tronpetearen durundu otsa ugar ebillan.
Alderdi bitan indarrak ziran metan jarri.
Izarren jarrai etorren ordu aiñ odoltsuan
Galtzairuz gogor egite arren miñ alkarri.

Aize-bolada puztsuak sua zabaltzen eban,
Ipar, leorrik aurkietan zan basartera.
Ange lexarren erre zarata eskergea zan.
Eltzen zalako leku asao ta urriñera ;
Izardiz busti egin zirean ereñozdiak,
Bedarra zeatz bajoian dana austutera.
Ixioturik kiskal-kiskalik garrak isten dauz,
Larrak tutarraz laster alderik aldenera.

Atabal eta tronpeta soñu garratz artean,
Aldapen zear goruntza doaz arnas-oska.
Atxarte cla erripa bildurgarrietatik,
Franziatarrak guztiz ugari ta pilloka;
Pirineo'ko piñoak eta mendiskak ori,
Ikustean jarriten dira dar-dar loka,
Ibarrak bere jarritzen dira zirealako
Eurai lekua egiteko duiñ naiko ozta.

¡O! Pirineo, agura zar ta buru makurra!
Erreñu andi bien oiñkaden lokarria,
Zeruak berak emonik dozu beso sendo bat,

Erreñu bioi jarri dayezun ebagia:
 Izan bazara gaur arteraño, beti Ia beti.
 Bakegintzako mugarri altu eregia,
 Gaur alde biok zure gañera, baña, jo dabe.
 Oso galtzera zeunkan lo gozo onegia.

Alan diñozu minberaturik zeure barruan:
 ¿Nok galdu deusku emen genduan bake ederra?
 Bertako zirku-zurkuloetan ¿ae deabruzko
 Asmaziñoek sortuta dogu oraiñ gerra?
 ¿Nire kolkoan nundik ta nora ainbesteraño
 Billatu dabe armak sartzeko une ezkerra?
 Ainbeste ospe, baralla eta astrapaladaz
 Ekarriteko uste bagarik sail okerra?

Abiau ziran alkarreganuntz urreratuaz:
 Sua daroe amorraturik barruetan;
 Zorigalduzko menditzarraren mugetan. barriz,
 Etortekoen larritasuna zan sometan:
 Gertetako ta jazo bearrik aurkitzen zana.
 Adu tristeak gorderik euken biotzetan.
 Oña aurrera baña bitzuak botaten dabe
 Dudazko bide laban lañotsu illunetan.

Zugaztietan iñoz badira irudituten,
 Lantza ta kaskn antzeko tayu berezkuak:
 Modu berean ango armadak bere zirean.
 Zugatz askoko baso arloen antzekuak:
 Eta Eguzki-izpiak jota, galtzairuetan.
 Sortzen ebezan tximista bizi dizdiztsuak.
 Uste zeikean zirala nartza eta sastraka.
 Norbaitek suaz erre zeitezan ixiotuak.

«Gudan, gudara, gudazaleak» tronpetak diño.
 Eta bakotxak bere aldetik baderautsa :
 Bonzesballesko mendi guena negarrez dago.
 Zotinka, ayenez, illetaz ela zizpuruka;
 Galtzairu otsak dira urrindik *zirt zart* entzuten
 Pirineo'ren belauinak dabiltz alborunzka,
 Auzoetako ama samurrak euren kolkoan
 Gordetan dabez umeak besoz estutuka.

Doaz, badoaz Durandarte'gaz Oton Rainero,
 Anselmo, Alardo, Kaiferos eta Abibio,
 Kodofrerckin eskuadra bat eginda sendo,
 Tupin, Ricardo, Belengero ta baita Naimo,
 Españatarren soldaudiari csetsiagaz,
 Euren galtzairu zorroztuakaz ill da erio;
 Amaikaxori artzen dabeezan zaurietatik
 Iturri baten gisan odola badario.

Zenbat birrindu, triskau, apurtu ta zatituten
 Dituezala doaz bideak edegirik,
 Gizon-mordoak arnasa бага bertan itxita,
 Bizidun asko gelditzen dala erdi-illik;
 Batak bularra ezpataz dauka iragotua,
 Besteak lantzaz saiets artea ebagarik,
 Or bat, an bi ta, bestean amar, aruntzago eun.
 Kanpo gu'lia ill la zaurituz estalirik.

Beingo batean zelan zirean anabasiu.
 Areriozko soldadu aldra ta pilluak.
 Ezin ezautu zeikean meta berarizkorik,
 Ebiltzalako ganora бага banatuak :
 Naiz zaldizkoak, zein ñezkoak, giak galduta.
 Itsumendiak oso eukazan opillduak.
 Martek daukazan gerrako lege eta neurriak
 Danak aztuta., andik egozan urrinduak.

An ez egoan bururik eta zuzentzallarik.
 An arteztzeko euren soldaurik ordenara ;
 An ari puskat zelan nolanai batzen direan.
 An zan mataza arildu ezin egin zana ;
 An errutsua eta koldarra nastu zirean,
 An normandiar, godu, prantzes ta españarra :
 An noble zana, zein ta etzana, goi ta bekoa.
 An nastu ziran armaduna ta ezeukana.

Beietan, barriz, ezpata-soñu eta zaratak.
 Burrundarakaz jotorriak dauz erantzuten:
 Aize nastuak durundu miñez ezin egonda
 Auzoetara daroez miñok zabalduen;
 Troketan, barriz, odol-erreken artean datoz

Armak, kaskoak, gerrako tresnak amilduten
Ibarretaruntz, nun gorputz illez danak creiñik
Begi biziak beste gauzarik ez ekusen.

BERNARDO ETA ERROLDAN'EN ARTEKO
JAZARRA

(Valbuena jaunak erderaz egiña)

Jetuliako mendiska arteetan oi da legoia,
Ardi taldetan naikoa illda nekaturik,
Asiten bere bularra eta erpe miñ zorrotz
Odoleztuak miñagaz isten garbiturik ;
Dragoeren bat, baña, badator urreratzera.
Iilteko eukan ardia bertan largaturik.
Abietan da laster beragaz zeñ azpiratu.
Zardcn jarrita griña luzeak astindurik.

Modu berean biotz andiko españatarra.
Anglante Jauna begiztetean etorkala,
Onen arma leun eta argien dizdizetara
Suak artuta urteten jako bereala;
Mindurik oso bere lenkusu galdu zanagaz,
Naiz da prantzesen Martek irudi nausi zala.
Bestea bere biotz azkorraz aurkezten jako.
Zergaitik uste eban goituko ez ebalá.

Baña prantzesak lenago diño bular sutsuaz:
«O españatar mundua apurtzen abillkuna,
«¿Nok eta zeñek aterako au nire eskutik,
«Naiz ik agertu orren arrorik altasuna?
«Ill bear aut, ill, gaur neure eskuz jadtixi daidan
»I bengetea edo len neukan goitasuna,
»Ik emoniko naibagearen ordaiñ ederra
«Etxatalako billatutea gauza astuna.»

Auxe esanda dragoetzar bi diran erara.
Marte'ren kanpo cdo zeyan deutse ekiten
Pozoi zitala agoetatik darioela,
Zugatz sutuen irakin otsa dala eutzuten; .
Eskamadunak, itxaso munak. baita goiunak

Dira negarrez sentimentutan abiauten,
Cta ondartza erreak dira atx-arriakaz
Ostendu, estaldu, desagertuta, ezkutauten.

Deragoioe, badiardue, baderautse, bai,
Zanriz, eratziz eta ebagiz odolduak,
Aur ta atzeraka, beso-luzaka, ezpatadaka,
Osotasuna galtzen dabela galtzairuak;
Jarrai jazarran, jarrite arren jargoi jagian,
Naiz sarri jarri, jarkien jarkiz jausituak,
Jarein bagarik jarduten dabe jardunen jarduz,
Jadisteraño austeaa arnes ta eskuduak.

Alako baten Orlandok emon eutsan bat ona.
Leon'goari esku biakaz eskuduan,
Burdin ez motzak, mee miñ zorrotzak gordin min-
Inkau bagarik ez eutsan itxi ikutuan; [gotzak,
Nun gorri-gorri biurtu jakon kotamallaea,
Godu odolaz rosikleraren antz moduan,
Beingo batean alderik-alde eutsalako egin
Ebagitzar bat ezpategaz jot-orduan.

Au ikustean ezin geiago íxiotuta,
Kendu bearrez Erroldan'eri bizitzea,
Nor bazan bere besoz indartsu inor ez legez.
Eregiten dau baita Bernardok ezpatea;
Eta bularra jagi-jagirik ipiñi eta
Ain modutan, ze bialtzen deutsa kinkin meea.
Zeñek bertantxe itxiko eban erdibiturik
Enkantuduna izan ezpaleu biserea.

Mendiak laster erantzun eben jotorriakaz,
Kobetan bere arri biziak jake entzuten,
Eta kaskoak igarteraño jote aregaz
Bere birtute gordeak ditu erakusten;
Baña Erroldan'en armak len beti baziran bere
Ausiezkor ta zallentzat nun-nai ezaututen,
Sekula baño bigun, samur ta beratuago.
Egun onetan beinik-bein dira agertuten.

Zerren kukutsa Bernardok kendu eutsan kasko-
Zerren sorbaldan zauri bat egin errimeaa, [tik,
Nun Erroldan'ek lenengo aldiz isuri eban.

Bere gerretan orduan odol tantakea;
 Nun ta gañera ikusitean bere buruan
 Sekula izan ez eban lako suertea,
 Golpeak baño sentimentuak geiago eutsan
 Galdu-erazo zentzuna eta konortea.

Begiak geldi jarri jakozan, ulleak zuzen,
 Odol izardi larriz egoan izoztua,
 Bere lenkusu Illdakoaren sunbilla illuna
 Agertu eta laster jarri zan bizkortua;
 Baita abiau erretuago barrien barri,
 Itxi al beyan Bernardo bertan saritua,
 Eun ta milla aldiz luzatu eutsan galtznirua ta.
 Mirariz legez etzan geratu amaitua.

Pabeseak, bai, ikusten ziran jausten edo-nun.
 Gerrari biak ebela egiten egiñala,
 Erruz burruka, txit murrustuta, alkar garduka.
 Zeiñ azpiratu, nok gaña artu, ebiltzala;
 Eta zaldirik zelan ez eben ondo zuzentzen.
 Nai zan lekutik euren gogo ta aukerara,
 Besoz alkarri eldu eutsen ta bien bularrak
 Egin zirean estu estuka, malla malla.

Zaldia bertan jausten dira, bai. lurra jo arte.
 Baila gañetik besteak bere salto, danba;
 Baila, baita bai, oñez ekiten irakiñago.
 Artu ta emoka, nor jota bota, dibli-dabla:
 Estutu ziran esetsiteko estutuago,
 Ondreak eutsen betetan biai une zana,
 Zerren ondrea galtze ez arreneragiñ eutsen.
 Ago zorrotzai al zaneraño al zan dana.

Baña Bernardo prantzesak zauri bat egin etu
 Ipiñi eban sorbalda baten desarmauta,
 Iturri gisan txirrioz jausten jakon odolak,
 Isten ebala lurra guztia gorrituta;
 Illtera nai-nok esango eban joiala, baña
 Oraindik bere ekiten deutsa bizbirtuta.
 Eta Erroldan Bernardok bota laster eban-ta.
 Aratiñik, bai, anrkietan da zelaituta.

Lekurik bere emon bagarik ezetarako
 Esku biakaz gora daroa mee luzea,
 Eta buruko kasko leunera zuzentzen jako
 Aidez dakarren indar andi ta errimea ;
 Ausiten deutsa zartada onek zelada eta
 Inguruetan dautzue ots aiñ eskergea,
 Kondea ez eban otsak otzitu osoro baña
 Galdu erazo eutsan oso bai konortea.

Errukiturik largan nai eban bizitzeagaz.
 Baña sunbill bat dakus aidean itz bagea;
 Rere lenkusu ill zana zala gogoraturik
 Gogortu jakon ostera bere arimea :
 Eta dirautsa: «Ez dok bengatz au naikoa, baña
 «Gura joat bai, al dodan aña bengetea.
 "Lapur krueln, ill adi emen neure eskutik.
 «Zerren bizi az merezidu dok pagetea.»

Eta azkenez eregiten dan besoa gora,
 Eta epaiki ertz biziduna jaurtigiten,
 Buruko kasko ta bekokia biak lau zati
 Eginga deutzaz golpe bategaz ipiñiten;
 Erroldau ilik an geratu zan; baña izena
 Ezillkortuta beti-betiko da gelditzen.
 Bere arimak ux egin eutsan; baña gorputza.
 Bernardok dakus bere oñetan eroriten.

ITALIKA

Onexek dira, Fabio, gure damu mingotzak.
 Orain kanpoak dakutsuz soillik, mendiska motzak,
 Zeiñtzuk zirean len Italika otsdun andia.
 Zipion baten kolonia on garailaria:
 Lurrean dago izugarrizko muru sendua,
 Gaur da bakarrik ondakiñezko meta nastua,
 Illunduteko biotz osua;
 Bertako jente ezi eziñak,
 Itxirik dagoz gomuta miñak,
 Naikoa dogu orain artean gertatu dana,
 Zergaitik emen dakusgun keia, dakusgun garra.

Entzuten doguz negar eta dei korrosatsuak,
Aren jenio ta eurak euen erlijinuak.
Samurtzen ditu euren auzuak,
Eta diñoe ikaratuta,
Gau illunean naibagetuta:
«Ai! Italika gurea dogu desagertuta !
Jausi zan. jausi Italika, bai, oso ondatu.»
Baso orritsuak jotorritz dabe bardin mintzatu,
Italikaren izen argiak dauz minberatu.
Italikaren izen andiak ausi biotzak.
Aren gomuta miñak erazo itz aiñ mingotzak;
Bertako milla begitaziño oso nobleak,
Ipinten ditu malkoan bardin beko jenteak.
Zu jakitun, da, bestea barriz sendoa izanda,
Umant andiak zerren nun diran utsak egiñak,
¿Nok esan daike zelai onetan zala plazea?
¿Zeñek arago zala eleixa bat eskergea?
Euren markarik ezin baleite billatutea?
Emnasia ta termen lekuan dot ikusiten
Errautsezko dan odei pillo bat egan egiten,
Torre goratsu aixeentzako burlalariak
Zori dongeak bota ebazan arras guztiak.

Egiaz, izan bajaken bere lotsagarria.
Au zan Goiyaunen anfiteatro arrigarria.
Jaramagoak iragarten dau bere patua.
Dagoalako birrindu, austu ta zeatua.
Esan egizu denporearen kontatzallea.
Lengo suerte ona aña jakon orain dongea.
Erria zana, gaur ondartzea,
¿Zelan eremu da aurkietan?
¿Ez dala jente otsik sometan?
¿Abera oker areek nun dira egun onetan?
¿Nun da jazarra zale gorputzez jantzi bakoia?
¿Zertan jarri da burrukarako len zan lekua?
Uts utsik dago iñor bagarik gaur deslaitua,
Alegere zan toki ederra jaku tristetu,
Lengo boz gozo entzutekoak dira igestu;
Aiñ gauz andiak auts biurturik ikusitean.
Damu samin bat iragoten jat errai artean.

Einen jayo zan tximista sutsu gerrarakua,
 Garailari zan aita erritar Españakua,
 Trajano umant azkar ain dontsu bigun ta zurra.
 Noren aurrean auspez jarri zan osorik lurra,
 Zeñen menpean eukan Eguzki-jayo lekua.
 itxaso Kadistarrak bere bai bustitakua,
 ¡O! erramu ta jazmín ortua !
 Gaur da ementxe pozu tokia.
 Loratsu zana nartza sasia,
 Zesarren etxe lekuan dakust muskertegiak.
 Ill ziran, bada, aginpidedun Zesar andiak,
 Eurak eukezan jauregi eta lorategiak.
 Baita izenak jarri jakezan marmol argiak.
 Elio-Adriano, Silio eta Teodosioak
 Euki ebezan marfil ta urrezko seaska arroak.
 Bilinbolaka emendik oso ondatu ziran,
 Ez etorteko sekula bere atzera biran.

Jarri, Fabio, zure begiak eta negarrik
 Ezin badozu begira zenbat kale botarik,
 ¡Zeinbat marmolez eindako arku oso triskauta!
 ¡Zeinbat talluzko irudi eder bardin puskauta !
 Nun Nemesisek diran zearo lurreratuak,
 Zeintzuen jabe ospetsu eta antxiñakuak
 Dagoz ixill ta obipetuak;
 Troya, zeukana gora burua,
 Ikusgarri zan zure murua,
 Erroma zure izena bere ia da aztua,
 ¡O! jayoterri goijaunen eta erregiena,
 Lege zuzenak balio ezer ez eutsuena,
 Atenas argi, ¡o! Minerbaren bizitokia !
 Jakituriaz gizaldi danen gomutgarría,
 Gaur autsa zara, ta bakar leku uts bat andia,
 ¡Ai! ez utsuen adoak artu itzalik bada !

Atrakaziño barriz ¿zergatik nekau burua
 Geituagorik itxi gurarik gure damua?
 Naikoa dogu orain artean gertatu dana,
 Zergaitik emen dakusgun keia dakusgun garra,
 Entzuten doguz negar eta dei korrosalsuak.
 Areen jenio ta eurak euken erlijinuak,

Samurtzen ditu euren auzuak,
 Eta diño e ikaratuta,
 Gau illunean naibagetuta:
 «Ai! Itaiika gurea doga desagertuta!
 Jausi zan. jausi Itaiika, bai, oso ondatu»;
 Baso orritsuak jatorriz dabe bardin mintzatu,
 Italikaren izen argiak dauz minberatu,
 Italikaren izen andiak ausi biotzak,
 Aren gomuta miñak erazo itz aiñ mingotzak,
 Bertako milla begitaziño oso nobleak,
 Ipinten ditu malkoan bardin beko jenteak.

VENI CREATOR SPIRITUS

Erdu. Espiritu Santu, amadioz betea.
 Ikustera zuri deika dagotzun arimea
 Eta zure gorenengo graziagaz bularrok
 Sutuizuz Maite zaiezan Altsu orrek egiñok.

Doe guztiz Goikoaren Bitarteko on zuri
 Deitzen jatzu, ta betiko bizitzako iturri,
 Espiritu gozagarri, karidade berua,
 Deitzen jatzu zareala baita sugar dontsua.

Zazpi doietan gugana ariman sartzen zara,
 Aita Jaungoikozkoaren ;o agintza leyala!
 Noren esku eskumako atza bere zara zu,
 Berbetan ta errazoian zuzenduten gaituzu.

Sartuiguzu zentzunetan zure argitasuna,
 Aldendu biotzetatik dogun epeltasuna;
 Gorputzaren griñak itxi daiguzan oiñpeturik,
 Zure betiko birtutez arimok indarturik.

Zugaitik urrindu eta arerio gaiztoa,
 Gozau daigun iraunagaz bake egiazkoa;
 Izan zakuguz giari daroagun bidean,
 Ez gaitzean iñoz jausi pekatu ta gatxean.

Zure bitartez ezautu daigun Betiko Aita,
 Aren Seme bakarra ta altsua bere baita;

Bietatik zatorzan zu. Espiritu Santua,
Zugan dogu barriz geure fede bizi osua.

Gloria dana dayogun emon betiko Aitari,
Ta eriotza azpiratu eban Seme Jaunari;

Baita Espiritu Santu amodiotsuari,
Orain, gero ta beti, Iru ta Bat danari.

A Z K E N A

Amayerea emoten deutset kantuoi, bada,
Amaseidun bat jarten dodala azkenean,
Loraz, irudiz jiraka luze len oi nebana,
Billox, garbi, lau, orain kantaurik laburrean.

Lenengoa da zeruan sartu eingo bagara,
Eleizearen semetasuna siññistean,
Bere mendean umill biziten gu gareala,
Bere altzoan Asabak legez **ill** gaitean.

Bigarrena da lengo bizitza, zein jaristeko
Zarren legeak gaitik eitea danok mindu,
Euren Foruak, euren Batzarre illak birtzeko,
Pillo batean anayok utsik einda bildu,
Bizkaya, Araba, Gipuzkoa ta Naparroarik
¡Ai! Gaztelarrak ez dagiguen erdaldundu,
«Euskaldun gara» ots beti egin, bildur bagarik.
Txikia andiak, indarrez, ez bei beragandu.

AURKIBIDEA

Orrialdea

ATARIA	3
------------------	---

I.-KANTU ERRIKOIAK

Ama Euskeriari azken agurrak.....	17
Bizi da ama Euskera	21
Arbola bat	26
Neguko gau izugarri bat	23
Neguko goix zoragarri hat	32
Libertadea, baña Gernika'ko Arbolapekoa.....	36
Lanburugaz laurak bat	40
Biskaitar zarrak eta Erromatarrak.....	43
Uste ez neban ordu bal.	48
Nere Erriko ujola	52
Jaungoikoa ta Fueroak.....	56
Gernika'ko Arboleari.....	60
Gure bateztasun la asaben fedea	63
Gure bandereo.	67
Jaungoikoa eta Foruak	72
Gure Arbola gazteari.	78
Gure Aretxaren kerizpea	79
Euskaldunak gara	81
Gernika'rfi	82

II.—LIRIKA KANTUAK

Eguzkiari	89
Gorbeia'ko artzaiñarenak.....	91
Uda barriari	92
Baserriko jaun baten bizitza	93
Politikako kontuak	95
Baserritar batena	97
Gerrea	101

Bakea	103
Larrosa zoro bat	104
Uda barria	106
Negu agura zar buru zuria	107
Ama balen senlimentua	109
Aita zar baten esperantza	110
Etorkizuna	112
Urteroko kontuak	114
Eibar'ko Burdin-bidearen estreñako kantua	115
Gizonaren altasuna	116
Ekatzaren ondoko geraaldia	117
Napar ta euskaldun ikaslariak kantetako jarria	118
Munduko goraberak	119
Amodioaren obia	121
Aritzari	123
Elaiak	124
Beargin alegere bal	125
Masusta zugatz bateri	127
Donostia	129
Soldadu bat	130
Errelijioso gazte baten agurra	131
Jayoterriari	132
Ikazkiu balen ueguko kejak	133
Neskatilla baten eriotzako agurrak	135
Alargun gazte balen zizpuruak	137
Kanpanilla-lora zuriari	139
Ama	140
Erretxiñolari	144
Danok irago bear	146
Etxezar	148
Goiko itxaso gozoa	153
Itxasoari itauna bat.....	158
Agur, ume	160
Neure ama maite zauari	163
Anjela	165
Eriotzea	170
Illetea	172
Udako illunkera gozo bal	174
Nere adiskide laztan	176
Joan-etorri bat Gernika'ra.....	178
Gurasoenlzal gomutagarria	182

III.—GORA KANTUAK

Antonio Okendo	187
Kosme Damian Txurruka	191
Manterola'ren eriotzea	194
Arte nagusiko neurria	197

Astarloa asko jakiñari 200
Israel'go mirariak212
 Homero euskalduna212
 Nobia Salzedo'ko On Pedro'ri korofa 217
 Gure Aita Santu XIII' en Lenni 220
 Jesus'en Teresa Santeari.....224
 Zortziko batzuek Kristobal Kolon'i.....226
 Lope Otxoa Oro'koa 227
 Euskaldun Martire Sara'ko neskatilla 231
 Kalderon illezkorrari.....232
 Bitoria'ko uria 235
 Mendiburu jaunari 236
 Bitoria'ko Abadegeyen ikastegi barriari 237
 Eskoriatza'ko mediku jaun Biktoriano Illunbe 240
 Iñazio ta semeak 243
 Irakasle Aingeruari 247
 Karidadeko aizpa bati 251
 Euskaldun bioletea 254

IV.—AMALAUKOAK

Gernika **261**
 Euskalerriaren naparria 261
 Trueba'ren eriotzan.....262
 Euskal- Erriko izar zireanai 262
 Bizi bedi A. Larramendi.....263
 Larramendi'ri lora bat 263
 Neguari 264
 Urte zar oni 264
 Udea 264
 Neguan 265
 Kolcra morboari 263
 Gure azken-lekua 266
 Neure adiskide bati.....266
 Umillen saria 267
 Euskera-zale andi baten eriotzeagaitik.....267
 España'ko Santa andi bat 268
 Mayatzeko goizaldeak 268
 Legazpi'ren koroari.....269
 Negurrezko iturri bi 269
 Nora arte 270
 Beti gazte 270
 Premiak eragin 271
 Zorioneko afaria 271
 Jesus jayo barriari 272
 Gabon gabeko miraria 272
 Belen'go estalpe batean aurkietan dan bateri 273
 Gure Ama pekatu bagarik sortuari 273

Maria'ri zerura igoeran	27*
Jaungoiko-gizonduaren Jaiotza	27*
Jesukristo gure Jaunaren	zeruratzea 275
Maria gure bitartekoari	275

V.-ELIZ KANTAK

Zeru-lurren Egillea Jaungoikoa	
O munduko denporea!	
Gure Erosia edo Erredentorearen Jayotza	282
Jesus'i jaiotean	28*
Pasiñoko egunaren sentiereia	284
Bariku Santu goizerako gomultadi bat	286
Egarri naz	288
Jesus'en eriotzea	289
Jesus gure	Salbatzalle 293
Jesus gure Salbagillea	296
Jesukristo gure Jaunaren biztuerea	297
Gure Jaunari bere biztueran	299
Loirik baga sortu zan Maria	300
Maria pekatu bagarik sortuari	301
Maria orban bagarik sortuari	303
Maria'ri bere sorrera garbiko egunean	306
Maria txito Santeari bere Jayotzako egunean	308
Aingeruak Maria guztiz Sanleari emon enlsan albista ederra	313
Maria'ri garbitzeko egunean	316
Maria'ren Biotz zoragarrian	320
Maria'ren Biotz orbanik bageari	321
Ama	Birjiñari 323
Kurutzcaren oñean dagoan Maria'ri	32*
Goruntza	328
Zoaz ondo	330
Amodio ederraren Amari	331
Amodio ederraren Ama danari mayatzeko lorak	332
Mayatzeko larrosa bateri	333
Zorioneko egun bat aurtengo mayatzean	33*
Mayatzeko illean mayatzik ederrenari	335
Flora guztien artean ederrena dan Florari	336
Mayatzeko illean Jaungoikoaren laztanari	339
Ama Birjiña	Arantzazu'koari kanta 341
Gorbeya'ko Kurutzeari	345
Jesus Artzain Onaren txabolako ardi bat	347
Kantubria'ko Larrosea	349
Maria guzliz Sanleari	355
Aita San Jose'ri ondra ta alabantzak	358
Goratu Aita San	Josepe 360
Berrio-Otxoa Martiriari	361

Jaungoikuaren eskua	364
Bizkai'ko Patrona edo Jagoleari bere egunean	370
Kurutzearen bedeinkaziñoko egunean	374
Gora Iñazio ta Iñaziotarrak	381
Bizkaitarrak Iziar'ko erromeriyen kantetako	385
Eriotza bat	386

VI.—ALEGIAK

Oiloa ta arrautzak	389
Su-gizona ta txakurra	389
Peru errena eta mutil gaizto bat	390
Artista bat eta laurko	391
Fortunea	391
Astoa ta txarria	391
Erbiak ela Ugarsaok	392
Nekazari ernegau bat	393
Orma-txoria	394
<u>Mona</u> bat	394
Otxoa, aizeria eta tximiño jueza	395
Arrizko burua ta aixeria	395
Umilltasuna eta arrokeria	396
Zarika ta nekosta	399
Itsu argi bat	400
Mukertasuna	401
Indarra ta mañea	401
Ez-jakiñen kontuak	402
Non-nai arantzea	403
Beti gazte gura	403
Luzea laburtzen	404
Mundua beli bat	404
Kitu	405
Maria Martiña	406
Tranpea lotsagarri	407
Norbaitek jausi bear	408
Auzi bat	408
Ontzia	411

VII.—IPUINAK

Alper	417
Danok bizi nai	419
Txuan-droga	419
Bi miñ	423
Besterentzat errez	423
Goian la beian	421
Ipuintxo bat	425

Eretxi bat	426
Jose	426
damutua.....	426
Danen egarria	427
Lapurra beti bildur	429
Eizari bertsolari bat	430
Amama Juanari	431
Tomas'en eretxia	433
Kopak	433
Ordi baleu poza >	434
Anton-diru	434
Eskatu-eskiña	438
Pepa-esperantza	430
Gizon kanpo ederra etxean gerra	439
Blas lau opizio	440
Diputau-gei bat	441
Manu fortuna	443
Martin-Illargi eta	448
Marta-Mimimi.....	448
Patxi aguazilla	453
Baserri baten tranposo bi	456
Mediku gixajoak!	459
Uno ankabakar	464
On Luis Gorengo eta Andres Berengo, kapean	468
Juan, Juana eta Juakiñ	472
Lotsari bat	475
Aurreko farolak	476
Zorigatx bi	476
Mutill-zar	480
Txomin-nagi	484
Manu-zantarra	490
Seme on bat	491
Pedro ogigiña	493
Julian-argiña	496
Anton-ume	497
Bizimodu merkea	499
Arabar bi AbadiñVn San Blas'ez	500
Urrineko intxaurrak	502
Gautxoria	503
Zantzo	504
bat.....	504
Andra barritsu bi	505
Juan erren	506
Tomas	507
deabru.....	507
Ama	508
Juana	508
Modesta	509
Justo	510
martirea.....	510
Tomas eta Tomasa	510
Simon makilla	511
Jose	512
aizeri.....	512
Kristobal ziri-sartzallen	513
Paulolo_514	513

Ostarkua eta Maria	640
Nintzan, enaz!	644
Neure adiskide maite Zirilo Arzubiaga jaunari.	647

IX-ERDERATIK EUSKERATUAK

Ekatxa	655
Lepanto'ko Garaipena	658
Guzman onari	663
Bernardoa, Ronzesballes'ko batallera	667
Bernardo eta Erroldan'en arteko jazarra	670
Milika	673
Veni Creator Spiritus	676
Azkena	678

L. D. V. M.



Arpidedunentzat } 50 pta
Precio de suscripción }

Bat bakarra } 55 pta
Número suelto }